

OROI-TXINPARTAK



**EGIA DANA,
EGIZU MAITA**



S. ONAINDIA

OROI-TXINPARTAK

AÑO 1988

EUSKERAZAINTZA
ETA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN BABESPEAN

Bear diran baimenakaz

© Aita Onaindia. Larrea. 1988

I. S. B. N.: 84 - 404 - 2616 - X

Legezko gordailu: BI - 1303 - 88

IGARRI, S. C. L. — Rafaela Ibarra, 1 — 48014 - BILBAO

ATARIKO AGURRA

Emen daukaguz Santi Onaindiaren gomutak, edo, zeatzago esanda, eurotariko batzuk. Bere bizitza inguruko jazoerak be sar-tzen dirala.

Giza-bizitza baten emoitza, gain-gaiñetik begituta ikusi daite-kena. Bizitza luzea, bizitza luzerik benetan izan ez arren; baiña beste batzuen aldean, naiko luzea, eta betea atan be. Gure men-deko aldaketa andien aldikidea, margo fresko zabalak artzen dituan bizitza erreskada. Orra or onezkero istori biurtu diran jazokun asko: politika, erlejiño, euskal kultura, gizarte giro, eguneroko bizitza. Liburu onen orrietan geratzen da istori zati ori bizirik lez ispillatuta.

Guretzat baiño oindiño interesgarriago bearbada gerokoentzat. Egia da, idaztiez gaiñera, ikus-entzumenezko komunika-bideak doguzala bitartean gerorako lekuko zuzenak. Baiña, jakiña, emen kontatzen dana ez dabe tresna orreek artzen, eta gero be gertaera askok eta, batez be, sentipen eta balorapenak, eritzi eta pentzaki-zunak idazkera izango dabe euren leku berezia.

Oroitza liburuak zer artu bear dau, noraiño edatu daiteke ia amaibako oroitza zelaian? Aukera egin bear, nai ta nai ez, batzuk argitan jarritz, eta besteak ixilpean, aazte-laiño artean galtzen itziz. Norbaitek au edo bestea ipiñiko leuke, eta beste ori kendu; kon-takizun batzuk laburtu, eta beste batzuk luzatu edo zeaztu. Olako gomutak irakurleen itaun ixilla, esanbakoa, izan oi dabe une

ii

Santi Onaindiak idazle askogaz eta beste danetariko gizakiakaz izan ditu alkarrizketak, artuemonak. Duda barik, olako milla zertzelada bitxi falta dira emen, ereak eskatuta berez azalduko litzakezanak. Baiña mugak naitanaiezkoak diranez, bego dagoanean.

Onaindiari berba egiten itzi bear jako, umore onez dabilleanean batez be (ia beti da ori). Alkarrizketa eta bakarrizketa batera eta *naastean*. Diñoana eta zelan diñoan, biak dira entzungarriak. Iraurtean, ez aaztu gozagiroz egiten dautsula berba, irribarreka lez geienetan. Ez susmau, beraz, garraztasunik une gogoragoak eta illunagoak gogorazterakoan be. Baiezkortasuna dixuri alderdi guztietatik.

Euskal istori zati baten lekuko, baiña ez joandakoaren menpe. Biziz, irudituz, ausnartzu eratu dauan bizitza-mundua bere berea dau *eta* maitez gogoratzen dausku. Baiña baiezkortasun berberaz begiratzen dau etorkizunerantz. Begirada orrek, argia bailitzan, poesi alaiz jantziten dau geienez euskal bizitza eta mundua, nai ta Onaindia erromantiku ez izan eta ez idealista; baiña jazokuneta bizipozaren ezitia eta indarra daki zurgatzen.

Baiezkortasun oni esker bizigurea eta lanerako adorea som tzen dozuz bere idazkietan. Ez dau, arrigarri eritzi arren, bere inguruko idazle eskolarik sortu, naiago langille bakarti izanez. Baiña agiria da urte luzeetan izan eban eragiña, ekintza, alkarrizketa eta idazkien bidez. Orregaitik be bere literatura kondairetan eta beste idazkietan idazleak beti geratzen dira ondo: alderdi onak ikustera jotzen dau eta idaz-garra zuzpertzera.

Gerra aurreko pizkunde aldiari ezi eban bere idaz-tankera, eta gero ildo orretan, baiña lotu barik, gorpuztu eta gurendu izan dau. Euskalki guztietatik artzen dau urean egoki eta gogoko jakona, autatzen astirik galdu bage. Ez dauka erizpide gogorrik. Landa zabalak, ikuspegi argitsuak dira bereak. Bizkaiko aritza, Euskalerrri guztiko aizeak, bero-otzak eta onurak maite dituana. Euskera alkartzeko be bide aukerakoa. Bere idazkiak, aberats, ixurkor, bizkorak, gerora iturriak izango dira, suntsituz doan euskal mundu baten lekuko ordain-eziñak. Ez da, ostera, guztiz suntsituko, berezko legez bizi-aldatu baiño, olako ondoreak euskal-senak onartu ba-dagiz.

AURKEZPEN

Ituritik bitan norbaitek eskatuta egin izan ditut neure idazlanak eta liburuak. Au be ez da orretatik kanpo geratzen dana: sarri eskatu izan dauste idazteko neure bizitzako goraberak, gudaren kapellau izan nintzanekoak batez be. Eta nik takean potean adierazo dot eskabidea niretzat agindua dala,

Iru zati daukaz liburu onek. Onela; a) Praille, ni karmeldar, eleiz-gizon nazalako; b) Gudarien kapellau, burruka zelaian ibilli bait nintzan gudariakaz, eta z) Idazle, bizitza guztia euskal idazletzan emon dodalako.

I. Lekaide naz, eleiz-gizon, Kristoren ordezeko. Gaur ba dira, ez gitxi be, gure artean be kristau erakundeen kaltez lan dagienak. Euskalerrriak Kristori jarraitu izan dautso antxiñako denporetatik, ez gero azpi-langilleek diñoenez azken-gzaldietatik. Ez, kristautasuna etzan berandu sartu Euskalerrrian. Azter egizuz astitsu, jakitumak egin dabenex, eleiz kondairak eta erri istoriak, eta bestera esango dozue, naizta Paul deunak diñoanez «gizak gaizto ta gero ta okerrago jarraitu». Ik ekin, azpi ta itxasertzeko aitz-ebagian uin setatia lez, etenbako joan.

Giza-izatearen eragiña ikasten ibillia naz ni luzaro, beronen joera ta kezka jabetu Eta ikusi dot, neska-mutillak, gaztetan urduri, noraezean ibilliak ba dira be, laster zentzatzatzen dirala eta jainko orren utsa ezin jasanik, zeru-lurren Egillearengana biurtzen, gizasemeak eta erriak ain zuzen be. Or Errusia, aspaldiko urteetan ango erriari jainko-zantzua ta zentzuna ito-erazten alegiñak egiñarren, orain diñoenez metaka dituzu Kristoren jarraillak. Or lekuko Tatiana Goritcha'ren «Nosotros, soñáticos conversos».

*Ni eleiz-gizona naz eta emetixik, Larrako komentutik, urte asko erre dodaz gure erriaren kristau espiritua sendotu ta alaitzen. Zuk, irakurle, ez dozu «euskaldun fededun» entzun **bea bada**, Ez dozu ori bide zuzenez ibiltea, zeure erri geienaren aurka zoaz-eta Munduak fede ta erriketa auzian itxas-olatuen goraberak izan ditu, eta izango be bai; beraz, gaur otz, eta biar bero.*

II. *Gudarien Kapellau. 1936'an guda gordiñez esitu g'ndue-zan. Eta eusko gazteak, agintarien esanez eta barruak eskatuta, mandira joa eben, zemaaturik egoan Aberria babesten. Ni be guda-oñera joan nintzan gudarien arima-zain.*

Ez neban fusillik erabilli, ez neban tirorik bota, baiña gudarien alboan egon nintzan Intxortan, Bizkargin, Solluben, Artxandan... Bilbo galtzean, Laredon, Santoñako espetxean; 30 urteko kartze-laz zigortua izan nintzan, millaka ta millaka eusko gudarien antzera.

Ez genduan iñor zapaldu, ez giñan besteren gose: geurea zain-du ta jagoten ibilli gintzazan bakar-bakarrik, mendian eta kalean. Ainbat geutar jausi ziran, ainbat gudari, agintari ta erritar jausi ziran fusillatuak: eurakaz nintzan ni, neure egitekoa beterik.

III. *Idazle, liburuak. Etxeko aldiżkarietan (Karmel, 1951 eta Olerti, 1959) eta kanpokoetan eundaka artikulua ditia; 86 bat liburu argitaratu ditut, batzuk jatorrak, orijinalak (Gure Bertsolariak, Jolasketa, Larrea eta Karmeldarrak, Goiznabar, Euskal Literatura (7 tomu), Euskal Elertia, Lamiñak, Santa Teresa, Arana Goirhar Sabin, olerkari, Euskaldunak eta osasuna, Nere baserfa (poema), Gernika etaa.*

Eta itzulpen eta bilduma oneik: Milla euskal olerki eder, Olerkiak (Arrese-Beitia), Goizale (Kempis), Iru poem (R. Tagore), Eguneroko Meza, Onbidea ta Egoitzak (Santa Teresa), Enbeita oleskaria, Bergili'ren Idazlanak osorik, Gure Urretxindorra, Eskutitzak, Euskerazko 100 maite-olerki onenak, 25 Antzerki labur, Jainko Antzerkia (Dante), Odisea (Homero), Olerki guztiak (Lauaxeta), Faust (Goethe), Ipuñak (Pio Baroxa).

Argitaratzeko: Begona'ko Ama, Iparragirre, Euskalduna bere zaarrean, Kontu kontari, izlapurra (*Lord Byron*), Odak eta Eppoak (*Horazio*)...

Eskerrik asko arnasaz, eskuz naiz diruz lagun izan iatazan guztiai,

Larrea, 1988-VI-15

Aita Onaindia

GURE JAIOTETXEA

Itxas-aldeko toki atsegiña dozu Amoroto, nire jaioterria. Leenago ez, baiña gaur badau jenteak arako griña; asteburuz, domekaz nai aste bitartez an beti daukazu kaletar arrotza. Ez al da au gero aaundi-ustekeria arrotzen dauana? Eta zergaitik ixilazo nai egia? Au be ez ete dakarsku apaltasunik ezak? Errialde txairoa dozu Amoroto.

Erriko plaza nasaitik iru bat ordu laurdenera dago, barriz, ni jaiio nintzan etxea, gaur piñu artean estalia. Neguz batez be eskolara ta mezatarra joan'etorria egiteko ez bide egokia, beera leenengo ta gora gero ibilli bearra bait dauko. Milloi'tik Oleta'ra doan bide zabaletik, Armiña koba zulora baño leen, begira eizu sorkaldera ta antxe, aurrez aurre, aitz zuri mokor jaiki biren erdian ikusi leiteke Atxuriarte basetxea, aitz zuri biren artean dagolako orrela deituz. Axe da nire sortetxea, antxe jaiio nintzan ni. Bide-tik urrintxu ez ba lego, eguztiak txeraz ikertzen dauan leku sotil, osasuntsua.

Eleizaldetik bertara joateko, esan dot, etzan bide egokia: kanposantu egalean ezkerretara artu, ordu lauren bat ibilli arbel trosko ezbarðiñez eta gero aldatz-beera Castillo'tik Atxurra'ra doan errekatxoa zubi kaskar batetik igaro ta beste ordu lauren bat gorantza ogiñik gure etxeko atarian zagoz. Eta atea jo ezkerro euskaldun baserrietan beti daukazu arrera txeratsua.

Sarri joaten giñan oiñez Lekeitio'raino, beeko trokatik edo Beeko Errotara jatsi ta Markiñatik Lekeitio'rako bidez bide. Mar-

kiña'ra, barriz, likan'dik gora Urberuaga'tik zear, eta etorri Enpan, Erreka ₁a Txopite'tik etorten giñan; orain erdi utsik daukaguzan arren, leen seme-alaba mordoz txil-txil geunkazan baserriok; leen gari ra arto solo bikaiñak *ziran* bazterrok, gaur piñu baltzez ezin-bestean beterik agiri jatzuz..

Nire gurasoak etziran Atxuriartekoak, ez aita ez ama. Markiña-Xerneing,m izan zan aita, Santa Eufemi azpiko Mibe auzunean jaioa. Eta ama Axpe-Arrazolakoa, 1875'ko abustuaren 15'an, arratsaldeko iruretan mundura etorria. Migel. Onaindia Barrutia ta lazinta Baseta Albizuri 1903'ko urriaren 3'an ezkondu ziran Axpen, Domingo Ugarte'ren bedeinkapenez. Eta Amoroto'n Atxuriarte basetxea erosi ta ona etorri ziran bizi izaten.

Edozeiñi burura jatorkon itaun bat emen: ain urriñekoak izanik, zelan ezagutu ta ezkondu ete ziran gazte biok? Famili ugariko kimua zan nire aita, eta zerbait gizondu zanean, bizi izateko lanari ekin bear. Leengo gizaldiaren amaieran Anboto ta inguruetako atxetan, injenieru batzuk zuzenduta, langille talde bat ibilli zan *aka.tz* kaleon errai-barrenak aztertu ta aztertu, miñeral billa; *nire* aita be, nik ez klakit noiztik, lagunarte orretan langille izan zan. Bein, Urkiolan eguna emonda, Atxarte'tik beera gentozala, bota eustan: «Or gaiñean **puntan**—, seme, ia ito **ginduzan** egarriak; zezinezko gosaria egin genduan eta gero, a zan al ».

Mugarra, Ezkubaratz, Untzillaitz, Aillutz, Anboto ta besteak alcle bietatik arakatu ebezan, urte bitan lan egiñaz. Metal-motarik asko aurkitu ebela esaten eustan, baiña gaitz aterateko, aitz-zilborean barne-samar bai egozan betarik gaienak; tupikia, manganesi, zidar, pirita, beruna, burdiña naiko, baiña eskuratzeko arras gaitz.

Garai atan aurkitu ta zabaldutakoa da Betsaide ta Arrazola bitarteko *meatz* tokia; zazpireun bat asturiastarrek lan egin eban berton; gaur be sasi artean, goitik beerako bi edo iru troka galdutan agiri dira orduko meatz-zuloen aztarrenak, nik mutikotan iñoiz ikusi ta miretsiak.

Au be jakingarri gaur-egunerako. Meatzok zirala-ta, eregi ta ibiltan asj zan Durango-tik Apata'rako trena, 1903'ko irailaren 20'an asi ta gizaldi onen ogeiraiño meatz'garra-oan ekin eutsona. Burdiña atera ta miña barrenean urtu ta tortxo biurturik, tenez ekarten eben Bilboko poturaiño.

2 ABI BARRIAN

Nire aita, ezkondu aurretik, esandako mencli arrnoetan eta meatz-zuloetan lan egiña dozu. Eta igandez, Mibe'raiño ez aldatzearren, Arrazola'n eta Axpe'n igaroten eban eguna. Nik ez erromeri-zalea zanik, baiña neskatillak egozan lekura joaten zana bai, mutilzar izenaz ez eban geratu nai eta. Anboto azpiko neskatillan beraz, Jazinta Baseta aukeratu eban bizi-laguntzat, ezkondu ta Atxuriarte'n abia jarririk. Ez ebezan bazterrok ezagutzen, ezta bertoko jenterik be. Baiña biotz onak laster ezaupideak egiten eta Atxuriarte'ko andra-gizonak ezagunak eta maitatuak ziran an inguruetan. Aize bigunak biotza nasaitzen.

Etxaldea laster dotoretu eben jaube barriak solo, landa, sagasti ta mendi ekarkorrez apain-apain jarririk. Egoitza bikaiña ezagutu neban nik andik urte gitxira. Langille trebea izan zan nire aita ta, erea ebanean, etxeko Janez gain Milloiko miña-zuloetan lez Bailles-teiko tantai artean lanari ekin oi eutsen.

Seme-alabetan bost kirru mardo ezagutu ebezan, Atxuriartek urte bitik urte bira ekarrita. Alaba bi, Brijida, gaur Markiria'n bizi dana, ta Maria gaur be Berrizen bizi dana, eta iru mutil, ni amabi urtedun praille sartua, Bizente, leen ikasteak eginda karmeldar jantzia artzeko egoala il zana ta Balentin, anai arteko gudatean jausi zana.

On-onak izan ziran gure gurasoak, kristiñau zintzoak; seme-alabak Jainkoaren eta gurasoen maitasunean eta begirunean azi ebezanak. Ori egitzat artu daizun, ona proba-garau bat: Kistar sendiko goi-arazoak albora itxi bage, gure aitak igande geienetan, bazkalduta gero, amak tresna garbiketan ekiolarik, seme-alabok etxe aurreko madari-tantai baten kerizpetara eroan eta antxe ira, kurri oi euskun Frantzisko Iñazio Lardizabal apaizaren «Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira»-tik kapitulu bat edo bi, azalpen gozoak egiñaz ondoren. Kontu aundiz zaindu ta gorde eban liburu au nire aitak, eta azkenez il-zorian aurkitzen zala bertatik zerbait irakurteko eskatzen eustan.

Ni Atxuriarte'n jaio nintzan, nire beste lau anai-arrebak lez; 1909'ko martiaren 24'an, gabeko bederatzietan ain zuzen. Bateoan

aitaren aldeko aitita ta amama: Jose Maria Onaindia, Xemeingoa, ta Maria Dominga Barrutia, Xemeingoa. Amaren aldekoak: Biktor Mariano Baseta, Axpekoa, ta Joakina Albizuri, Axpekoa. Aita-ama-bitxiak: Santiago Mendiguren, Lekeitiokoa, ta Pilar Baseta, Axpekoa, Lekuko izan ziran: Jose Antonio Gabiola ta Rufino Odiaga, Amorotokoa, Bateatu nindun: Dionisio Gabiola'k. Sendotza sakramentua Lekeitio'n artu neban Prudentzio Melo Alkalde, Gasteiz'ko gotzaiñak emonda, 1914'ko orrillaren 27'an, Jabier Amias aitabixi izanik.

Peri-zalea neban aita, edo beintzat illero, azken zapatuetan joaten zan Markiña'ra zer-edo-zeren sal-erosi aiko-maiko ta atxakitzat arturik; ni be berakin eroaten nindun geienetan, eta ez gixtitan, gaberako etxera etorri ordez, Mibe'ra joaten **Etxetik** eroandako bei bat bein Eibar'ko bati saldu eutson, eta urrengo egunean, Karmen'en mezea entzun eta geure beixua arturik, Barinaga, Aginaga ta Azurtza'tik zear, Eibar'era. Egun txit ederra emon genduan, Bei-atxaki orrekin nik, aitak Maria Anjela kalean taberneaz eukan aren arreba ta nire izekoa ezagutu, bazkaldu, Eibar erri langillean ara-ona jirabira batzuk emon eta Urko'rantzta urtekeran aitak niri erakutsi nai eustan trena geltokian ikusi ondoren, tapa-tapa Markiña'ra ta Atxuriarte'ra. Bat gogoan gozaro dabillean ez dau miñik oiñetan.

Eskola aundikoa etzan nire aita, alanbe esperientziz asko ikasia bai. Eta guraso onak lez, berak ez eukana bere seme-alabak euki eiela opa eban. Baserritik ez geunkan eskolara joateko aukera aundirik; urte bitartean joaten baita udaldian be Kosme Arriola markiñarrak Armina'n emon oi ebanera, utsik egiteke joan be. Baiña batzutan eguraldi txarra, ereintza denporan itaurren egin edo-ta ardiak zaindu, sarri egin oi genduan sasi-eskola.

Migel nire aita, eskola aundikoa etzala be, trebe, errime ta esku onekoa izan zan edozetarako; ondo ornidua eukan etxaldea; baserrian bear izaten diran tresna ta tramankulu-mota guztiak eukazan, are, golde, nabasai, garia jo ta garbitzeko makiña, perratoki ta abar. Buztarriak berak egiten ebazan, pago naiz altz-zurez. Arostegia erremintaz bete-beterik; ikazgiñerako bear ziran zerak ugari be ugari. Sagasti zabalak eukazan gure etxaldeak eta sagar-

doa egiteko toleara be etxean geunkan. Ni bertan bizi nintzala bizileku ederra bazan, gerora obeagotuz joan zan. Etxearenak ziran mendietan piñu ta zugatz-klase ainbat landatu zituan.

3 GOAZEN IKASTERA

Erritik etzan, eta gaur be ezta, ur-ur aurkitzen gure baserria. Ezin, ba, geiegi eskolaz jantzi. Eta bein eskola-zale gendun aitari erabagi sendo bat bururatu jakon: Legez Atxur arteko oiñordetza neuri letorkidan eta, jakiña, seme eskolatua opa eban, dudarik bage. Zornotza'ko karmeldar Ikastetxera, Larra'ra, eroan bear nindun, jakitatez ornidua izan nendin. Gero abade egin zan Txopite'ko gazte batek be antxe ikasi eban, baita Markiñako bere lagun batzuen semeak be. Onekaz ikasiko eban bere semeak be jakin bear ebanetik zer-edo-zer beintzat.

Eta goiz batean, Santa Barbara egunez —gaur au idaztean ain zuzen 66 urte—, aita ta biok, illunetan, Lekeitio'runtz... Ama ta anai-arrebak, mosu beroz, agurtu nebazan zati baterako: 1934'ko garagarrillaren erdirate, Meza barria abestu arte, ez nintzan ni Atxuriarte'ra biurtu, Amairu urtez, etxetik kanpo.

Bein baiño geiagotan itandu dauste: «Etxe-miñak ez ete zaitu iñoiz astindu?». Eta nik erantzun: Lenengotan bai, gero ez. Barrudeiari erantzun bear jako alde batetik, eta besterik iñoizka irauli do_t buruan pentsamentu au: «Eta etxean geratu ba'nintz, zer! ». Etxaguntzaren jabe izango.

Abenduaren laua, Barbara deunaren eguna, egun luze euri-tsua, billosik zugatzak, basaz bideak, bidez niñoiala, gaintxotik, atzera begira ta eskua luzatuz, agur egin neutson jaiotexeari, agur betiko. Biotza dardar, begiak malkoz, eta aurrera aitaren ondoan; erropa ta jantzi meez ornidutako kutxa txikia eroian aitak bizkargaiñ, neure ikasle arreoaa, Oleta atzera itxi ta Arrupain'era eldukeran, uriko argi lerroak nirñir. Saurer autobusa laster asiko jakun ibilten, motor-otsa zan eta. Argitzen eguna. Jentez beterik kotxea. Ibilten asi ta an-or geldituz Gernika'ko tren-geldokian orra, eta andik Zornotza'ra asko luzatu bage. Beste pizkat luzatuz Larrean gengoazan, nik arrezkero berrogei bat urte daroadazan atsedentoki ezin obean.

Karmeldar Ikastetxea, antxiña bateko jauregia izanik be, barru ta kanpo erosoan zan. Ikastetxe onen arrastorik be ez da agiri, alboko orma gaiñean jauregi arek aurrekaldean eukan armarria, ortua ta burdin-sare luze ederto landua izan ezik. Erdi kiskaldua itxia suak gerratean, gero jabeak eurak —prailleak— jauregiaren lau ormak eta baratz sotilleko izai, zipres ta ainbat zugatz-mota aizkoraz ebagirik, ortu biurtu eben lur-sail zabala. Nik, gure ikastetxea alan ikusi nai ezta, lau urtez ez neban an oiñik ipiñi,

Ikastetxe onen atarian dei egin genduan aitak eta biok lotazillaren 4'an, eguerdi inguruan. Bertatik jatsi zan atezaiña, ikasle gazte bat, gaur be ementxe neugaz bizi dan Aita Luki, Dima'ko semea. Orduan Ikastetxean buru egiten eban Aita Roman nagusiari, geroago frankotarrak fusilatu ebenari dei egin eutson, eta onek txeratsu artu ginduzan. Etxea erakutsi euskun, ikas-saloi, jantoki, logela, frontoi, ortu ta baratz, aurrerantzean nire ikas eta jolasleku.

Eta emen izten ninduan aitak. Etxeruntz urten orduko agurtu zitun leen aitaturiko markiñar biak, Duralde ta Barrenetxea mutikoak, ia iru urte berton ikasten eroiazanak. Bene-benetan poztu nintzan ni aitaren ezagun bi emen eukiaz: eurok izan ziran luzaro niri poztasuna sar-azo eustenak neure berezko naigabe ta etxemiñetan. Joan zan aita, ta emen geratzen nintzan ni. Autor dagidan lotsa barik: egunez ez, baiña gabaz ogeratzean ia illabetez emon neutsan negarrari berea.

4 KONDAIRA TXATALAK

Ikastetxe au niretzat zoragarria izan zan ezkeron, laket bekit beroni buruz geitxoago idaztea. Alan be, urteak dirala nik idatzitakoa barriz aldatu besterik ez dot egingo.

«Larra'ko patroien etxea —idazten neban— ezta gaztelua; ez-paitauko arrimorko andirik, ez almenarik, ez ertzetako torretxorik, ez barbakanarik, ez kañoi-zulorik, ez leio esturik, ez zubirik, ez mear-biderik, ez argi-begirik. Larra'ko au oiñetxe ta jauregi eder bat dozu. Ori bai, ederto baiño edertoago egiña, lau alderdiak guztiz

epain landurik; are-arrizkoa. Aurrekaldea eguzkijra begira dauko; erdian, iru leio zabal balkoidun; goian, lau leio txikiago, erdiko biak balkoiakaz; eta onein azpian patroien ezkutu andia; sarrera bi beian, burdinsarez itxita, albo bietan zaloi okulluak ditula. Eskumako atartetik gora joian mailladi zabala lenengo ta bigarren oiñera; lenengo oiñak saloi eder bat eukon aurretik lau aizetara. Teillatu-ertza, oso jagia. Alboan eukan, sarkalderuntz, gorago aitatu dogun baratza, era askotariko zugatzez eta igali-arbolaz beterik. Egundoko atsedentokia, ziñez!

Urteak urte, erentziz lez, Teofila Agirre'ren eskuetara etorri zan. Eta azkenengo jaube onek, 1903'an, Anjela Caminero, Ustara zanaren alargunari saldu eutson, jauregiak zitun ondasun eta lursail guztiekin. Jabe barri onek, ostera, bere eskubideak zorrotzegi zaindu gura-ta, eztabaidarik naikoa izan eban, eta azkenik, gogaituta, osorik, berak erosi eban lez, bere koñatu Rikardo Ustara'ri saldu eutson. Ustara au, barriz, Larra'ko jauregia erosi ta laster gexotu zan, eta inguru au bere osasunarako etzala egokia ikusirik, jauregia saltzeko erabagia artu eban. Orduan Larra'ko komentuan nagusi zan Aita Jeremias'ek, Zornotza'ko semeak, erosi eutson. 1915 'garrena zan.

Prailleak ba-eben Larrea'n, 1907'tik asita, latin eta eleiz-karreira egiteko bear ziran gaiak erakusteko ikastetxe txiki bat, bertako aita bi maisu zirala; kanpoan jan eta lo, prailletzarako naiz abadetzarako ikasten eben. Lenengotan, sakristi osteko salea eben erakus-toki; baiña ikasleak ugarituaz joiazalako, txikia zan ainbeste gazterentzat. Eta aurreko jauregia erosi zanean —ortarakoxe erosi zan batez be—, araxe aldatu eben aitaturiko ikastetxea. Jauregiaren barruak egokitu ziran ortarako, baita atzekaldean ikasleentzako logelak eta ikas-tokiak barritik egin be. 1916-17'garreneko kurtsoa ementxe asi zan orduko eskolak eskatzen ebezan aurrerapide guztiakaz.

Gero, 1919'an, barrukoak, au da, praille izan nai ebenak be artzen asi ziran. Lenengotan, 18 ziran; urrengo urtean, baimen guztiakaz legezko Ikastetxea jarri zanean, 26. Orrelaxe joian gero ta geiago ugarituz: 72 g:ntzazan gu 1925-926'garreneko kortsoan. 1921'tik 1924'ra bitartean, etxe-apainketa ta barrizte geiago egin ziran, Aita Apolinar nagusi zala: frontoi zarratua Jesus Arantze-

ta'k osotu eban, eta ikasleentzat lotoki zabala gaiñean. Alan eta guzti be, leku ederra izanik, ainbesterentzat etzan naikoa, era orduantxe asi ziran bertako karmeldarrak beste leku baten billa, erazko Ikastetxe nasai bat jasoteko asmotan. Ara ta ona jo ta eragozpen asko azpiratu ondoren, 1930'ko apirillaren 30'an jarri zan leenengo arria Ikastetxe barria —gaurkoa noski— jasoteko. Zornotza magalean, erri osoa begipean daukan zelai eder bat dozu erri-plazatik eleizaraiño doian antxiñako Kalbarioa aurrez aurre dauala.

Jauregi zarra, ainbat urtetan abegi beroa emon ebana, gazte urduriak alde egitean, emen geratu zan bakar-bakarrik, ama-kumeak zapuzturiko abia legez. Olan egon zan urte batzuetan, ixil ta misterioz beterik. 1936'ko garagarrillaren 18'an sortu zan anai arteko guda bizia, zoritxar aundien zoritxar aundia. Eusko Indarrekoak emen jarri eben euren gudaletxea; frankotarrak gaiñ zirala muniziñoz beterik egoan, eta berton egozanak, jauregia ustutzean, su emon eutsoen gure egoitza zarrari. Eta or antxiñako saloi, gela, armari landu ta guzti, barru ta kanpo, zeatz kiskalduta. Gerra-plaztiaren ikur» (*Larrea ta Karmeldarrak*, 38 orr.).

5 LEEN-IKASLARITZA

Larraratu laster, ez bai egoan nagi egoterik, beste ikasleakaz jarri ninduen ni be, ikasle maillan. Ez neukan esateko ikas-oiuturirik, baiña ez nintzan etorri, batzuk uste dabenez, olgetan aldia jorratzeko, ikasi ta kultur-magalean murgiltzeko baiño. Liburuakaz, ba, berealaxe adiskidetu nintzan. Gabon aurretik Donibane garaira arte, prestaera deritxon eskolan ikasiko genduan eten barik. Emen neukazan amabost bat gazte, neure antzekoak, prailletarako itza emonak, leenengo kurtsoa asi aurretik andik eta emendik ona etorriak; leen-gaiak ikasteko ordua genduan guk, sei illabetean. Gerta epe oni bikaiña deritxot nik, leenengo kurtsoari oratu aurretik baserrietatik gentozanoi bein-beiñeko asi-masiak ulertu ta ikasten erakusteko.

Anai Gregorio zan gure maisu, Agurain aldeko arabar argia, arpegi illunik egundo erakutsi barik guri letrak sartzen alegintzen

zana; eskerrak arek erakutsiari guk ez genduan ikas-urterik erre-pika, u bear izan. Anai onek urteetan irakatsi eban Larrean, eta gero Txile'n, Txutxunko'ko ikastetxean maistu zala izan. Orduko ikasleok ez dogu, ez, aren gomutarik galdu; nik beiñik-bein ez daukadaz aaztu-lezaratzeko ak emondako irakaskintza sendo sus-tra'zkoak, bizi guztirako balio izan daustenak.

Ni errian, Amoroto'n, alan-olango ikaslea izan nintzan muti-kotan. Nik uste dot, alan be, aukera-ezagaitik izan zale ori; aukera izan nebanean, gogoz ekin neutson ikasteari, liburu zale porro-katua gertatuaz. Olakoxe aukera naiko izan oi da askotan, giza-barrena guztirako eragiñean jarteko. Ori jazo jatan niri beintzat. Neure leen-maisuari eskerrak, ikas-griñaz sutua geratu nintzan betiko. Niri gertatua, barriz, zergaitik ez besteai be?

Gaur ainbat gai guk ez geunkan ikasteko; gaurko berak bai, orraitio, erdera, geografia, istoria, matematikak, dotriña leenen-gotan, eta gero gorokoak, Nire urtekoak, zoli ikasten eben, lotsa-kizun bage alkarri jarraitu nairik; ikastean beti agertu oi da ardi alperren bat, jarraitu eziñik, nik baiña ezin nengike esan gure ar-tean olakorik egoanik. Buru-argiz guztiok ez gara bardintsu, —urte askotan gaztetxoan maisu izana bait naz— eta, ortaz ba dakit zerbait, alan be alkarri jarraitzeko beste, gogo ona **ba ga**—reala nik uste dot. Nobere naiak jokutzen dau emen paper garran-tzitsua. Naimenak eragin ezik izateari, ez dago zeregiñik, eta auxe da umetxoai leenongotik irakatsi bear jakena, borondate sendoaz ikasten. Eta, ain zuzen, auxe izan zan Gregorio anaiak guri era-ku tsi euskuna.

Asi-barri genduan ikasurte ontan igarri barik eldu jakuzan Gabonak, Urtebarri ta Erregenak. Nire len-egunetako zotin, tris-tura ta abar uxatu ziran betiko, pertsona askoren negar itxurak lez; emen egin nebazan lagun barriak eta sasoi atsegingarri ontan be ez nintzan, geiegirik beintzat, gogoratu etxeokaz ez urtearen asiera zala-ta, etxerik etxe «Urte barri-barri» abestuz ibiltzen giñan lagunakaz. Laster egin nintzan bertoko. Bertoko giro atsegin epela, mai betea, egunero egindako ibillaldiak... Orduantxe agertu zan Path6Babv ziñe-aldiak, osorik irabazi eusten biotza.

Liburuetara barriro opor-ostean, sei illabeterako. Aita noizik-bein etorri oi jatan ikusten eta zor ebana ordaintzera, Orrelaxe etorri jatan baten bota eustan: «Seme, kartak egiten dauskuzuz etxera, matematikak be ikasi dozuz; ez ete dozu etxera etorri nai?» Beingoan erantzun neutson: «Ez, aita, ondo nago crnen». Ez orduan, ez gero aitak ez eustan geiago olakorik aiatatu. Aita ta semea, itxura zanez, ondo aurkitzen ziran egozan lekuan. Aitak —amari ta neba-arrebai ezer kendu barjk—, oso maite izan nin-duan ni.

Gu ez giñan oporretan etxera joaten, ez udaldian ez Gabone-tan. Eta nik dirautzuet: gaur, udan eta, oporrak etxean emon o' dabezanak baiño gozotasun geiagoz emoten genduzan guk egunak Larrako bazter alai atsegingarrian. Goizean Bizkargi'rantza ta arratsaldean Ibarra'ko urmael berde doiñutsurantzta izan oi zan gure ibillaldia. Astia emon zerbait ikasi arren, denpora asko geunkan eguraserako be. Makiña bat ibilte alai egiña nozue ni, gaur arrain-kaitan eta biar ziza ta gibel-urdiñetan.

Onek be ikastetxeetan bere mamiña dau-ta, begoz emen guk udaldian egindako txango batzuen aumenta: Urkiola'ra, Dima'ra kerexak jaten, Zaldibar'tik Gazeta ta Argiñeta ikusiz Elorriora, Lemoatx, Ereño, Upo, Galdakao, Lezama, Larrabetzu, Bizkargi... Ilketa bat egin zan bein Morga'ko baserri baten; Bizkargi azpian; etxeoandreak eta morroiak, alkar artuta, ugazabaz Zornotza'ra zerbait saldu ta eroatera etorri, aiztoa erosi ta etxerakoan Garai-tondo'tik gorako bakartadean gizona baserrira eroan eta ira-meta azpian gorderik euki eben, iñok ezer jakingo ez ebalakoan. Baiña gaiztakeri gitxi geratu oi dira argitara barik. Gazkin biak giltzaperatu zituen. Emakumea Dueso'n egon zan, gu, 1937'an, an egokitu giñan arte. Adimen-illuntzeak dakazan ondorenak.

Orduan gu ta gure nagusi, Aita Roman, arratsalde baten, jakin-miñari galga ezin jarririk, Bizkargi'tik beera jatsi, gaizkiñen etxe inguruak ikuskatu ta dana oiñez Gernika'rairio joan, ango Arbola santua miretsi eta tapa-tapa Muxika, Areatza, Zugaztieta, Autza-gane ta Ategorri'tik zear Larra'ra itzuli giñan.

Lau urte ta erdi areitan maisu onak euki genduzan beti: gure zuzendari zan Aita Roman, Ermenejildo, Migel, Markos, Daniel,

Plazido, Gotzon, Anjel... Gaur danak dira illak, Migel ta Anjel ezik.

Otoiztegia Ikastetxeko lenengo pisuan geunkan arren, jai eta igandetan aurreko eleiz apaiñera joaten giñan, koruko nobizidua-kaz batera «Angelis» mezea gregoriar kantuz abestutera. Aztu-eziña guretzat! Etzan poztasun txikia guretzat izaten mezea erasoten edo, olako gazte jantzi dotoredunen bat altaran ikusten gendua-nean!

Gero, bazkal aurretik, Dotriñea eukiten gendun euskeraz. Eta bego emen erabagirik sarritan egin izan Jausten itauna: «Nagusiak ez ete eutzuen zoztorrik jarten euskera kontuan?» Nik beti erantzun bardiña: «Ez, ba, iñoiz bere ez! Gure artean ez jako iñori iñoi eragozpenik ipiñi euskera ikasi, itz-egin, idatzi naiz otsegitteki> . Nik, eta besteak, askatasun osoz jokatu izan dogu noznai. Primo de Rivera'ren garaian, esaterako, kalean naiko zalaparta zalarik, guk ez genduen ezer jasan.

6 GOI-DEIA

Goi deia! Zabalera aundiz artu ezkeru, umetako bateo sakramentuak, azia beintzat, egozten dauskuna da. Ezkutuzko zerbait, ikutu-eziña. Joeraz gaztetan erakutsi oi dana. Ortik au ezkondu egiten da "gero, besteak eleiz-karrera artzen. Zer dozu, beraz, dei edo egokitasun ixil ori? Nok sartzen ete dau giza biotz-muiñean? Besteak boste, nik neuro ekiña ortaz azalduko.

Amar-amabi urteko nintzala, Anai karmeldar bat etorri oi zan gurera, eskean. Markiñatik etorren eta seguru asko, inguruko baserrietan zerbait baturik gusera eltzen zan eta pozik, nik uste. Beti eukan abegi ona Atxuriarte'n. Sukaldoan artzen genduan, eta oinetako bustiakaz ba etorren, gosez ba ebillen, beti izan oi eban biotz maitekorraren laguntza. Praille arduratsua bait zan, etxerik etxe ibiltean etzan azkena karmeldar ordenarako gaztetxoak bartzten be.

Gu iru mutiko giñan, eta gure emona artu ta bere zakuto beteaz guretik alde egin baiño leen, beti itandu oi euskun ia iru-

rotatik nor joango giñan praille. Nire anai Bizentek «neu» erantzuten eutson beti; nik ez neutsan ezer esaten. Irurok azkenez bide arloan lagundu ta eskua emon oi geuntsan, «urrengora arte» esanaz. Eta nik diñot: «Emen ez ete ereiñik?».

Niri ez eusten iñoiz praille konturik aitatu etxean, ez gurasoak eta ez anai-arrebak. Ni eskolatzea nai eban aitak, eta udazkeneko goiz illun batean, Larra'ra ekarri nindun, ez praille izateko, ikasiaz semearen, ots, nire burua eskolaz jazteko baiño. Urte bi ta erdi orretan jardunik, zeozer ikasi nebala ikusiz, etxean bear ninduelako edo, ikusten etorri jatan baten, gorago esan dodanez, aitak itandu: «Etxera etorri nai dozu, seme?» Nik ezetz, eta kito. Aita pozik eta ni pozago. Zer dikur onek? Nor dabil emen? Ixilleko arnas-emoilleren bat, nik uste.

Izakiarena ala Egillearena? Auzi onetan, dana dalarik, arrezkero ez dot nik ezetarko dudarik izan. Ba leiteke lar konturatu barik, alan be nik ez dautsot egundo uko egin neure barruko deiari, kasu onetan goi-deiari: beti uste izan dot Jainkoak ipiñi nindun bidetik nabillela. Urteak zear, Karmel mendirantza igotean, iñoiz agertu izan dira kiribilka pizti ta egazti dongak, baiña egundo ez neutsen ez arei eta ez onei entzun-naiez belarriak edegi. Aurrera beti artutako bideari leiial loturik. Golde-kirtenari oratu ezkero, ez biurtu atzera.

Ni ari izan naz iñoiz —eta nor ez?— goi-deiaren gunean barren-du nairik. Nundik norakoa, zelakoa ete dan jakin gura izatea dozu izan be. Biblian eta, aurkitu ditut antzeko batzuk. Jainkoak bere igarle izateko aukeratu oi ebazan gazte batzuk, Jeremias, Anatot bere jaioterrian bizi izana, esate baterako. Bildur ziran erritarrak, eskitarrak zirala-ta; jainkoak, barriz, orduantxe egin-egiñean be Jeremias'i dei egin eutson bere igarle izan zedin. Goi-dei arek barru-barruko alkar izketa iduria artu eban, Jainkoaren eta gizonaren artekoa noski.

Mutil gaztea zan Jeremias; beti barrura begira egoana gendun gazte au, guztiz sentikorra, bere burua ezereztat eukana. Garai atan igarle ixatea, ostera, irautzaille izatea zan. Nastua orduan Israel, Jainko bat bakarra gurtu bear eban erri autatua. Eta Jainkoak agindu eutson, «Zoaz, eta otsegin».

Noren lana zan au? Jeremias, nor ete ebillen noren billa? Ni gatzetxo nintzan, niri ez jatan burura etorri gerora arte praille izateko pentsamenturik. Nor ebillen emen? Nabari zan azpiko lana. Itaun barriro be: «Nor ebillen joko onetan?».

Azken batean, badau garrantzia giza-bizitzan «Jainkoaren billa-laketak». Esaera onek, alan be, zentzun bi dauz: Jainkoa ibilli daiteke arimearen billa, edo-ta arimea Jainkoaren billa. Gurutzeko Juan deunak auzi ontaz esaera eder bat. «Jakin bear da —diño—, jainko billa ba dabil arimea, jainko maitea arima billa askoz be leiatsuago dabillega». Eta au adierazoteko ainbat iduri bitxi jarten daukuz; arimeak bere gurari leiakorrak, mirra ta intzentsuzko odeiak, ke-abe lez eskintzen dautsoz; eta Jainkoak bere usaingarrien usaiña bialtzen dautso arimeari.

Gizona bere aldetik noiz ez dabil Jainko billa? Zer-izan soil-soil baten billa, gaur esan oi danez? Ez daukagu euki be geure indarrak geiegi suntsi-azo bearrik. Or izadian zantzuak, aztarrenak, jainkoak ibilliz ta ikusiz ereindako oro: edegi begiak! Or barruan Jainkoaren arnasa guri bizia emoten!

Argia nai al dozu, edo-ta maitasuna? Ausnar beste au: «Ene Jainko Jauna! Nok Zu billatu maitasun garbi ta leialez, ta aurkitu bage itxi gozo ta atsegiña? Zeu agertzen zaiakoz, ba, lenengo, maite zaituenai bidera urtenik» (*Gurutzeko Juan deunak*).

Nik au sarri dakart gogora.

7 AZI TA EZI

Janaz azi egiten gorputza. Arimearen almenak, adimena ta naimena —euskaldunon burua ta biotza— era berean azi egiten dira. Eta karmeldar Ordenako karreran, beste edozein Ordenan naiz erakunde barruan jokatu nai dauanak, Ordenako lege ta arauak onartu ta ikasiz, lege ta arau orrein magalean bizi bearra dau, goideiari jarraitu ta gizaseme zintzoari dagokionez bere bizia taiutu nai baldin izan ezkeru.

Urteen gurpilla bizkorregi dabillega dirudi. Orain lau urte ta erdi geure leen-ikasketak asi genduzanok Ikastetxe ontako estudioak amaiturik geunkazan, eta legezko azterketa guztiak burutu-takoan, aurrez aurre geunkan Aztetxean geure nobiziadu urtea as-teko gertu gengozan, eta garagarrillaren leenengoetan, geure-ikaste-txeari agur egiñik Aztetxera giñan, amesez beterik: ogeitabat guz-tira. Zortzi eguneko Gogo-jardunak lenengo ta gero, il orren 8'an, karmeldar jantzia artzea. Emen ni ta nire ikaskideak Kar-mengo Amaren seme egiñik. Asten genduan bizimoldea naiko la-tza izango zan, ortara oitu barik egozan gorputz-arimentzako.

Guk ba genkian, orraitio, lau urte t'erdiz, Ikastetxe ta Azte-Ixe alkarri dautsoela aurkitzen diralako, asten genduan bizi barria zelakoa zan gitxi gorabeera. Ez jakuzan, ba, arrigarri emengo lan, ikaste, oititz, gaberdi, ixiltasun eta abar. Guk be egingo gendun besteak egiña, gogorra zala iñoskuen bizitzeari arpegi emonaz. Azi ta ezi egingo giñan karmeldar Ordenako lege itzalpean. Emen dagoz oindino aurreko urtekoak, laster Markifia'ra aldatuko diran-ak, eta oneikandik ikasiko doguz lenengo zeremoni ta eginbear bein-beiñenak, geurez atonduko gara gero liburuetan eta Aita Na-gusiaren esanetan ikasiakaz.

Interesantea da guztiz asibarrien bizitza. Niri leenengo bizi-oiñean ipiñi eusten gelea. Lau metro ta erdi luze, iru ta zerbait geitxoago zabal. Bazter baten oia ta maitxo bat bestean, liburu bat-zukaz; leio ez-auditik barazkiz eta fruta-zugatzez beteriko ortua ikusi neike, zabal ta eder. Gure ibillia, gelatik korura, korutik jantokira ta emendik jolaslekura ta ikas-saloira... Eguneroko ze-regiñak ondo be ondo bereizita dauakguz. Leenengo eg netan ez, baiña gero gaberdian korura, utsik egiteke, «Maitinak» errezatzen; ortarako torreko kanpaiak"joten dOguz iru bider. Batzuk —ez da-ki_t zergaitik— neketsua dala au esan daroa; niri, egia autortzeko, ez. jatan iñoiz be aldatz-gora egin. Beste batzuk, otza dala-ta be, ibilli oitziran kexaz eta beatzetako azkordiñak erakusten. Ni ez nau egundo oitzak artegatu.

Munduak ez dau ulertzen. Gazteak batez be, uste dabe mun-duan, gogait eginda bizi dñjala. Guzur aundiagorik! Igarri barik txirrist egiskuen orduak: Goizean jagi, korako errezuak, oititza,

mezea, gosaldu, ikasi, jolastu, lokuluska, otoitz-aldia ta abar. Zer ikasi? Geure legeak, otoitz-jarduna, au da, karmeldar bizitzan zelan bizi etenbako otoitz-arloan. Labur: azi ta ezi tantaka tantaka lez, leize-zuloan goitiko tangadak dagiana, jainko grazi ta doez, geure giza-izateak bete-bete egiñarte.

Goiz eta arratsalde Aita Maisuak ainbat gauza erakutsi oi euskuzan. Ez uste koruko liturgia, erderaz «oficio divino» esaten jakonak naste gitxi daukanik. Auzirik zailenak, ostera, pazientzi ta egonarri aundiaz erabagi egiten diranik ezin daikegu uka, eta zailtasun au be pizkaka gairiditu gendun. Otoitz-aldia, ordu betekoa, zelan igaro be ez uste, zar-barritan, goizetik gaber ikasten danik. Otoitza jainkoaz, geugan daukagun Jainkoaz itz-egitea, ar-emon gozoan jardutea, ezta besterik; baiña onetarako be zerbaiten esperientzia bear, nundik asi, zer esan, zelan autuan jardun, • zelan geure barrua esazkatu, zer eskatu, zelan eskerrak emon... au ta geiagi egiten bai da otoitz-aldian.

Legeak agindu dagianez karmeldarrak egun osoko minutuak arildu bear ditu otoitzean. Orrez gairiñ gogarte bereziz emon bear dauz ordu bi, goizean bata ta arratsaldean bestea. Eta otoitz oitura gitxitxo gendunontzat ordu erditik ordu erdira puntu bi irakurten jakuzan. Aita Atanasio zan gure Maisu, otoizlari errimea, eta onek ari ta ari irakasten euskun barru-ekintza orretan nola jokatu. Aurrean geunkan Santa Teresa, eredu ona; irudimenari, «etxeko zorotxoari» ez geuntson jaramonik egin bear, batu ta kiribildu barruan, ekin gozoro, maitekor .biotz-muiñean daroazuen Maiteaz.

Aita ori erabat munduarentzat gu zelan onugarri izan erakusten be egi-egiaz saiatzan zan. Pekatari da mundua, eta •pekatuak Jainkoaren aserrea sumindu oi dau. Jainkoak berak ekarri gaitu gu komentura. Zetarako? Oñaztarrietatik etxea zaintzen dauan oii rieztorratza lez izateko, goi-aserrea a⁸indu daikagun. Munduari on izan gakiozan geure eguneroko meza, otoitz, buru-auste ta ukapenak, jan-urri ta gairerakoak pekatarien alde eskintzen geuntsozan Jainkoari. Baita bakotxak bere goputza astintzea be, «Misserere mei, Deus» salmua abesten gendun bitartean.

Orduz ibilteko emen ez da bear erlojurik. Batek jagon daroa ordua, kanpai-jotzaille deritxonak. Onek, otoitzerako korura joan

bear danean adibidez, ordu-lauren bat leenago matrakeaz adierazten dau zetarako ordua dan, au esanaz: «Otoitzera, anaiak, Jainkoa gorestekoa», eta ondoren torreko kanpaia. Ori entzunik, esku artean darabilkegun oro itxiaz, geure otoitz-toki berezira joan eta kanpai-otsa entzutean korura «Misserere» edo «De Profundis» errezaurik.

Igande ta jaietan meza abestua geunkan. Baita aste bitartean be illen mezak ez gitxi. Karmeldarrok orixegaitik ez gara iñoiz be aul gregoriar kantuan. Baiña ez pentsatu gure Aztetxeko egunak kantu ta errezatu bakar ziranik. Eguen geienetan, giro ona izanik, ibiltaldia geunkan legez, bazter atsegingarri oneitan barrena: Garaitondo, Arazotza, Bizkargi, Gorozika, Autzagane, Etxano, Aramotz, Lemoatz. Bide-zati batean ixillik, baiña itzala izaten zan gero guk astindu oi genduan barbaroa. Luzaro borbor egondako lapikoari estalkia jaso ezkerero...

Gau baten albiste txar bat emon eustan Nagusiak, telegrama bat artu eban aita il jatala iñoana. Biaramonean, Lekejtio'rako autobusa artu ta an Azpiri kalean nintzan, neure senideen etxean, Amoroto'rako bidean jarteko gertu. Nire arridura. Il zana etzan nire aita, nire osaba, bateoko nire aitabiti baiño. Len 2 usuak «aita» jarri, ta guk txartu ulertu.

8 LEKAIDETZA

Aurrera doaz urteak itxarokizuna biozkatu barik, eta gu eura-kaz batera itxarokizuna goiz-izar dogula. Baiña biz¹ro irrikatuz gaiñ etorkigun proba urtearen amaia. B¹zitzta zear eta erakutsi bear genduzan lege ta oituraz pizkat beintzat jabetu giñala-ta, boto txikiak egittko gaitzat emon ginduezan karmeldar nagusiak. Olan iragarri euskun ordu pozgarri baten Aita Maisuak. Bi geratu ziran atzera, besteoi jarraitzeko adore barik itxura zanez. Liburi Santuetan irakurten dogunez, ur otzean gogait egin eta berora igaro ziranen antzean. Zortzi eguneko Gogo jardun edo Ejerzizivak egiñik, etxekoai iragarri geuntsen gure erabagiaren barri: urlri egunean izango zala gure lekaidetza, gure profesa.

Karmeldar bizitzaz ainbat ikasi ondoren, or gu profesarako ger-tu. Barruko jantzi barriak, abitua, sandaliak, kapa zuria, etxetik ekarriko euskuen koroi dotorea, geure gelan geunkan dana tolos-tuta. Eta goizean, amar t'erdietan, erreskada luzean goaz seni-tartekoz beterik dagon elei ara, altara aurrean aurkitzen dan Nagu-siaren oiñetara; auspaztu ta onen esanera jagi ta bakotxak bere jarlekua artzen dau. Nagusiak zin-egitera doazanai itzaldi labur bat egiñaz, bakotxak eskuan daroan paperetik irakurri daroa bere zin-itza. Nik onela:

oNik, Santiago Onaindia, neure profesa txikia eiten dot Jaungoikoari, Karmengo Amari, karmeldar Aita nagusiari ta onen ondorengoai, menpetasuna, garbitasuna ta txirotasuna, antxiñako karme dar Araudiak agintzen dauanez». Eta Nagusiak: «Eskein Jau-nari gorespen oparia eta bete Jaunari eskiñia». Azkenez gu guz-tiok luze etzun gareala, Nagusiak «Te Deum» asten dau. Kantu au amaitutakoan, guztiok alkar besarkatzen dogu. Baita etxeokoak be. Zeremoni au oso samurra da-ta, negar-zotiñak errez entzuten.

Ondoren etxeokoak eta urte batzuetan ikusi barik neukazan senide ta lagunak agurtu ditut bero-bero. Jarraian anai arteko baz-karia komentuan bertan. Au berbaroa! Amaikeran, ostera be zo-riónak, esku-muiñak etxekoai ta senidartekoai emotea! Agur! , eta kito... Ames bat itzali da.

Bazkari bitartean eta gero askori azaldu bear izan neutsen iru botoak zer adierazo ta esan nai eben. Ni asibarri ta, bear bada, gai onetan oindiño ezjakiña nintzan arren, onela mintzatu naiaken:

—*Menpetasuna* iñotsena auxe dozue: Komentuan ezin geinke egin geuk gura doguna, nagusiak nai dauana baiño. Praille bizitzak arima garbi leiala eskatzen dau; arroak atz-atz eragiten dausku, apalak biotza irabazi, gizona ez da iñoiz be aundjago bere burua besteen aurrean makur-aztean baiño. Zin-itza egitean Jainkoari emon geuntsan gizonaz daukagun doe-bitxirik elerrena, geure au-keramena. Jainkoak ez euskun ori eskatu, geuk geurez itxi gen-duan Aren eskuetan: gizonak jainkoari egki legikeon oparirik obe-rena.

—*Garbitasuna*. Gaur gizonak, uste dau, askok beintzat, dau-kazan griñetatik biziena dan aragi-senetik askatzearren, bat botoz

kateatzen dala. Bai zera! Ez da olan. Gizonak naiz emakumeak aragia ezi, zuzenazo ta neurritu bearra dauko, jainkoak bere legean agintzen dauskunez. Abere bakarrik *ez gara*, gizon eta emakume errazoidun ba. ño. Botoak badau emen be bere adierazpen aparta: menpetasunaren bidez naimena izten dan lez jainkoaren eskuan, garbitasunez geure gorputzari dagokion griña, irrirts-garamurari Ari dautsogu ma:tasunarren uko egiten dautsagu; olan mai-tekorrago ta biotz-zabalago agertzen gara Jainkoaz. Bardintsu, Eleizearen eta urko-lagunaren zerbitzurako batez be, aske ta zintzoago geratzen gara.

—Txiro edo pobretasunaren zin-itzak, barriz, munduko ondasunen zaletasunetik aldendu egiten nau. Dirua da munduko jainko, esan oi dogu, Lekaideak agur egiten dautso mamon loi orri, egiazko jainkoari eskiñiz orren balio guztia. Kornentuan ezda alperrik onartzeri; bako txaren izerdiaz bizi gara, boto onen bidez irabazten dana osorik da danontzat, iñortxok be ez dau ezeren jabetasunik. Onak baiña ez dautso lekaideari berez *dauan* eskubiderik mozten, botoa egin dauanaren nortasuna gurendu ta edertu baiño, olan olakoa askeago egiñaz.

Labur: iru botu oneik lekaidea (praillea) duiñago, jainkozkoago, bikaiñago egiten dabe; au da: Kristoren jarraitzaille beteago. Ak esana: «Nire ondoren etorri nai badau iñok, ar bei bere kuru-tzea, a betorkit atzean». Eta lekaideak, oso-osoan Kristorena izan nairik, bere-bere lez ez dauko ezertxo be, ez nairik, ez gorputzik, ez ondasunik.

9 IKASLE MARKINAN

Orain ikastera. Urri baiño ez da izan gaur artekoa. Zortzi urte geratzen jakuz oindiño, ikasi ta ikasi, meza emotera orduko. Eta gazte baten amesa, goi-deiak jota dabillarena, mailla ortara igotea da, ziur. Liburuai eraso bear. Larrakoa osotu genduala-ta, goiz baten, berebil nasaan Markiñara eroan ginduezan. Niri, bost urtez beintzat, maiteki gozatu ninduan bazter llluragarri oni agur egi-keran, malkoz ezetu jatazan begi biak.

Markina, uri galanta. Euskal idazle ta pelotari erremez entzute zabalekoa! Karmeldar etxea, komentu ta eleiza, antxiñakoak. Amaika lekaide igaro dira bertotik lengo ta oraingo urteetan! Prai Bartolo ta beste lengo sermolari aundien artean, arein berezitasuna galdu barik, ainbat daukaguz berton gaur be, eleiz-zerbitzari, autortu ta itz-egin, erriz erri urteetan ibillitakoak. Gu • ikasten giñoiazan, iñoizkoren baten orreïn bideak astindu gengizan.

Emen Aita Urbano Manzisidor genduan maisu. Onek erakutsiko euskun len-ikasiak bir-ikasi, gai barriak aztertu ta abar; baita onek erakutsiko euskun euskera jatorra, atzizki, idatzi eta gaiñera-koak, lanak duinki idatzi ta aztertzen, ez bizkaieraz edo gipuzke-raz bakarrik, baita beste izkelgietan be; ez bizkaitar eta giguzkoa-rroi bakarrik, baita arabar, napartar eta errioxarri be. Donostia'ko «Euskal Esnalea»-n datoz orreïn lanak, 1925-28 bitartean. Aske-tika ta mistika ikasi gendun; izkuntzak, literatuta, matematikak, goi-latiña... ikasi genduzan.

Erri baketsu ta dotorea Markina; neure aitaren jaioterria, gaur arrobiz ta fabrikaz be aberats. Uda naiz negu sarri joan oi gintza-zan Mibe, Lekoitz eta Aulesti aldera, eta inoizka Urregarai (Santa Eufemia) tontorreraiño. Beste batzutan Munibe, Etxebarri, Uka-rregi, Aginaga ta Iturreta aizetsuetara; edo-ta Urberuaga, Plazako-la, Milloi, Berritu, Asterrika ta Gorozika'ra. Orrez gaiñ, ni beintzat, beste batzuekaz, Aingeru, Axola, Belakola, Moko'tik zear Atxuriarte'raiño eldu nintzan.

Zorion beteak, baiña, naigabea be atzet;k ekarten. Olantxe jazo jatan niri be; usterik gitxien nebanean, ez jatan il ba neure anai Bixente, Larrea'n azkenengo ikas-urtea amaituta Aztetxean sartze-ko egoalarik? Gaztetxo zala «ni praille» esan oi ebana, ni baiño urte bi gazteago zana, bere Aita irakasle ta ikasleakaz azken ibilal-dia egitera Urkiola'ra joan eta andik Anboto puntara, an laban egin eta Arrazola aldera jausirik, il jatana. Arratsaldean emon eus-ten ezbear orren barri. A samiña! Biaramonean egin jakozan ille-tak Arrazola'ko eleizan, 1928'gneko bagillaren 22'an. Ni be an nintzan guraso ta senideekaz. Bertan illobiratua izan arren, geroa-go 1954'garrean, nire aitak Markiñako kanposantuan eukan arri-illobi (panteoira) ekarri zituan aren azur-pusketak. Ementxe gaur obiraturik nire anai Balentin eta gurasoak be. Egun aundirarte ementxe datzaz bai arein autsak.

Urte bete Markina'n egin ondoren, egoak jasobear. Legezko zanez, iru urtetan Filosofia ikasi bear Gasteiz'en. Asko giñan komentu onetan, 48 bat ikasle (iru kurtso), 6 bat irakasle ta komentu ta eleiz-zerbitzurako Aita ta anaiak. Guzt' ra 60'tik gora. Garai aretan, egia esateko, kopuru ederra osotzen gendun gure karmeldar Probintzian.

10 IKASLE GASTEIZ'EN

Bizitz jori ta jakingarriak izan ziran arren gure iru ikas-urteak Araba'ko uri garbi, langille, jakintsuak —Iparraldeko Atenas eritxoan orduan— zertzelada batzuk besterik ez dodaz emen aitatuako, geiegi ez luzatzearren, ain zuzen.

Eleiz-Filosofi urtea gai askoz osotutakoa dozu. Guk iru urtetan ikasi oi genduan, iru liburu aunditan banatuta, izen onekin: «Cursus Philosophiae Scholasticae ad mentem Angelici Doctoris S. Thomae Aquinatis», Aita Marzelo karmeldar ortozak iru aletan eratua. I. «Logica». Logika txikia edo «Dialektika», iru antolabidean, eta «Logica Maior», logika nagusia, ots, kritika, apoditika, ta abar. II. «Philosophia Naturalis». Kosmologia, Somatologia ta Psikologia. Lenengo gai biotan munduaren eta gorputzaren gaiak ikasten dira, eta irugarrean, arimearen indar eta barru-kanpoko zer-ikusiak. III. «Metaphisica et Moralis». Metapisikan sartzen ziran Ontologia (izaki edo gai-ge), Neumologia (edo izaki gaige sortuak) eta Teodizea (edo izaki *gaige* sortu bakoak, ots, Jainkoa). «Philosophia Moralis», oituran sartzen diran «Etika» ta Berezko Eskugoa.

Gaiok ziran naitaez eta sakon-sakon ikasi bear ziranak. Onein inguruan ba ziran beste batzuk be: Matematika nagusiak, Eleiz Kondaira, A. Gabirel Jauregi'k idatzitako Pisia ta Kimia, Izkun' tzak: griego, hebreo, euskera, frantses, inglesa ta abar.

Onetxek ikasi genduzan guk Filosofi barruan, beste gai txikiago batzuekin batera. Solfeua eguenetan geunkan, eta domeka ta jaietan, «Liber Usualis»-ek dakazan gorazarre, kantu ta gaiñerakoak ikasi bear genduzan gero amar t'erdietako mezetan era ego-

kiz abestu al izateko. Gregoriar kantuak, aste bitarteko asko ta asko eder-ederrak dira, eta karmeldar eleizetan urte barruz danak abesteko oitura.

Ori argi erakusteko, 1928'an Gasteiz'en ospatu zan Eleiz-Musika Batzar nagusian, guk karmeldar ikasleak abestu genduzan Aita Kasiano Pujol eta Aita Donostiaren itzaldietako gregoriar kantuzko jardunak, oso txalotuak izanik. Uriko musika-zaleak, Begoria'n batez be, sarri etorri oi ziran gure eleiz-kantaldiak, mezetakoak, guri entzutera, karmeldar gazteok beti osatzen bait genduan abesbatz polita.

Pitian-pitian ospatzen genduzan akademi saioak, itzaldiak, ez-tabaidak, txandaka, bakoitzean kurtso batekoak, guztiontzat onuragarri ziranak. Onakoak eratu oi genduzan baita Aita Nagusiaren egunean, lekaide guztiok esku arturik; orobat geure Maisu edo zuzendariaren egunean be, etxean zein mendian, Olarizu'n ad bidez, kanpora urtenik. Aldizkari txiki bat geunkan ikasleok ateraten genduan, euskeraz, erderaz, latinez naiz beste edozein izkuntzatan idatzirik.

Igandetan etzan astirik, baiña eguenetan txango ta ibiltaldi galantak egiñak gara uda ta negu, Zaldiaran, Olarizu, Estipalitz, Agurain, Gamarra, Nanklares, Astarrona, Abetxuko... ba dabe gure barririk, Murgia'rairio be iñoiz joan giñan **ango karmeldar** mojetan mezaren bat abestu bear gendula-ta. Trenez be iñoiz joan gintzazan Landa, Lizarra, Miranda... aldera.

Auteskundeak 1931'an. Nik ez neukan autarkia emoteko urterik, gero Begoñan emongo neban arren. Gobernuak galdu ta Errepublikak irabazi. Alfonso XIII'garrena, Valenz'a'tik, zear Italia'ra joan zan. Espaiña gorrien mende. Makiña bat gaiztakeri egin eben, aspalditik pillotuta euken zitala bota nairik: jo ta ke eleizak erreten, eleiz-gizonak ilten... deabrukeri ugari. Gizona bene-benetan pizti agertu jakun. Gasteiz beti izan ei zan uri baketsu, baiña gorriak emen be eurenak egin nairik ebiltzan, eta guk, gazteok, zaindu egiten gendun geure komentua.

Leen-astiñaldiaz etzan baketzen gaitz-zurrumbilloa; ekaitz trumoitsua gitxituz ez, aziz joiala esan zeinkean... Eta Ordenetako

nagusiak erabagiak artzen asi ziran; eta bat auxe: gazte andana batzuk erbestera bialtzea. Nire kurtsokoak Euskalerrian geratu giñan, baiña beste batzuk, bai Gasteiz'en egozanak eta bai Begoñan Teologia ikasten, kurtsu osoak batzuk India'ra ta beste batzuk Ameriketara joan bearra izan eben, Kolonbia, Peru, Txile'ra, eleizkarrera an jarraituz. Ni eta nire ikaskideak, Filosofi-ikasketak amaitutakoan, 1931'ko irailaren lenengorako Begoñan aurkitzen giñan.

—Emen nengoala ezkondu jatan Brijida, neure arreba nagusia, emengo San Migel eleizan. Gurasoak il arte Atxuriarte'n bizi izan zan gero, sei seme-alaba izanik; gurasoak il ziranean, Atxuriarte itxi ta Markiña'ra gurasoen etxera aldatu ziran bera, beronen senar Jose Maria Fundazuri; zazpi seme-alaba izan zituen, Floren, Jose, Jesus, Maritxu, Felisa, Bizenta, Juantxu. —Beste arrebea, Maria, nire ardizain laguna, urteetan Durango'n Rios'enean neskame ego'na, Berriz'ko Anporta'ra ezkondu zan, iru seme-alaba izanik Imanol, Jone ta Damaso. Antxe bizi da gaur be, bere zartzaro gozoan.

11 IKASLE BEGORA'N

Lagunak Begoña'ra joan ondoren be, ni Gasteiz'en gelditu nintzan, eleizako goraberetan lagundu ta Markiñatik etorri-barri ziranai emengo oituren jarduna erakutsi nengien. Iraillaren 18'an, ostera, Urkiola'tik zear Begoña'ra: Urkiola'n San Antonio biak, zarra ta gaztea omendu ta Atxarte'tik beera, Mendiola'n Agarre'ko lengusu-lengosiñakaz bazkaldu ta gaberako neure egoitza barrian.

Emen leen berrogetamar bat gitxienez zirala be, orain kurtsu bi besterik ez giñan. Ikas-urtea asi ta lau urtean, Gasteiz'en egiña, liburuakaz etenbako borroka. Eguneroko koru, meza, otoitz, janari ta jolasketa kendurik, ikasi ta ikasi. Bizimodu beti bardiña esango dozu, ots-bardiñeko kantua lez, naitaez gogaikarri. Ez, ba, komentuko bizitza ez da iñoiz be gogaikarri, ez da aspergarri, ba'rru ta kanpo egiazko ikasle danarentzat.

Egiazko ikasle danarentzat diñot. Lugin onak bere erein-soloe-tan eta artzain fiñak bere ardiak larra guritan ikusiz atsegiña artzen dauan legez, ikasle onak be edu berean liburuetako ikas-gaie-tan artu oi dau egi-egiazko poz-atsegiña, eta orrek ez dautso na-

giari izten lekurik artzen, ikasle onak ez dauko denporarik asper-
tzeko, beraz naita be ezin gogait egin: barruko zer ezkutu batek
daroa sakaka liburuakaz darabilen burrukara. Zer ete da barru-in-
dar ixil ori? Azaldu eziña dirudi. Zek zaroaz zu tabernara, disko-
tekara edo mendira? Orixe berori dozu beste au ikastera daroana.
Eleiz-karrera daroanari barruak dirautso biarko, ikasiz, gertatu
bearra dauala.

Emen Begoñan Teologia ikasi bear dogu. Mota bitako Teolo-
gia ikasi, Dogma eta Morala. Aita Balentan Zubizarreta, Markiña-
Etxebarri'ko seme karmaldar argiak lau tomotan idatzi eban Teo-
logia osoa. Izena: «Theologia Dogmatico-Scholastica»; iru argi-
talpen izan zituan, lenengoa ta bidarrena Burgos'ko «El Mante
Carmelo» irarkolan (1910 eta 1919), eta irugarrena Bilbon «Elex-
puru Anaïen» irarkolan, 1929'an. Geroago Kuba'ko Santiagon
Gotzain zala egin eban lau ale onein bilduma labur bat. «Medulla
Theologiae Dogmaticae», Bilbon, Elexpuru Anaïen irarkolan,
1935'an argitaratua. Aita Akesolo ta nik egin genduan irar-utsen
azterketa, gure irakasle Aita Teodosio'ren ardurapean.

Guk ikasi gendun lau Teologi-liburuen mamiña:

I. *Theologia Fundamentalis*. Au da; 1) *De vera Religione*
(egiazko urkurtza); 2) *De Ecclesia Christi* (Kristoren Eleiza); ta
3) *De Locis theologicis* (Teologi-iturriak).

II. *De Deo Uno, de Deo Trino et de Deo creatore*. 1) *De
Deo uno* (Jainko bat bakarra); 2) *De Deo trino* (Irutasun deuna);
3) *De Deo creatore* (Jainko sortzaillea).

III. *De Gratia Dei, de Virtutibus Theologicis et de Verbo In-
carnato*. 1) *De Gratia actuali* (egitazko doia); 2) *De Gratia habi-
tuali* (ekanduzko doia); 3) *De Fide* (siñismenaz); 4) *De Spes*
(itxaropenaz); 5) *De Caritate* (goi-maitasunaz); 6) *De Christolo-
gia* (Kristoaz edo Itzaren Giza-egiteaz); 7) *Soteriologia* (Erosketa);
8) *Mariologia* (Andra Maria).

IV. *De Sakrarentis in communi et in particulari ac de No-
vissimis*. 1) *De Sacramentis in communi* (Sakramentuak oro-ar);
2) *De Sacramentis in particulari* (Sakramentuak banaka: Bateoa,
Sendotza, Eukaristi, Autortza, Abadetza, Ezkontza eta Azken Igur-
tzia), eta 3) *De Novissimis* (azagak edo azken egunak).

«Moral» ikasteko barriz J. B. Ferreres'en «Cursus Theologiae Moralis» (tomu bitan) erabili genduan, Noldin eta Prfimer be esku artean genduzala.

Onezaz gaiñ, Hermeneutika, Eleiz-Kondaira, Gizartea, Oratoria, Idazteuna ta beste gai batzuk ez genduzan atzera itxi.

Garai onetai nik asko idatzi neban, «Karmengo Argia»-n batez be.

Ementxe, Begoña'n, geure komentu ondoen emon neban nik lenengoz autarkia. Bazan egun aretan dardara ta zurrumurrua, baiña oro uxatuz aize ariñak, etzan ezer gertatu.

12 MEZA BARRIA

Maillaz mail gu ba giñoiazan urreratuz geure ametsen txuntxurera, Illabete gitxi barru apaizgora elduak giñan. Eta orixe zan, ain zuzen be, gure amesa. Antxiñatik geunkan ikuspegi ori begien aurrean, goi-arnasaz, naimenez, otoiitez. Zeru bat nai gendun laino ilunik bakoa. Egun argi alaia; oso-osorik geurea. Koruan, jolasean, iratzarrik eta !o, pentsamentu bat ebilkigun run-run ezitan: Meza barria.

Eta, oartu barik egiñari jarraituz, egin genduan 1933'ko irailaren 21'an, Profesa nagusia, Aurretik, Begoñan bertan, artuak geunkazan Ordena txikiak 1932'ko garagarrillaren 30,31 ta dagonillaren 1'an, Aita Buenabentura Arana, Berrizko seme orduan Vijarapuram (Indic) ko gotzain karmeldarraren eskutik. Eta Ordena nagusiak onela: *Subdiakonutza*, 1933'ko irailaren 23'an, Gasteiz'ko Gotza'nteguko kap.1lan, Mat2o Muxilca'ren eskutik; *Diakonutza*. Gasteiz'ko Katedralean, 1933'ko abenduaren 23'an, Mateo Muxika Urrestarazu jaunaren eskutik; eta *Apaiztasuna*, azkenik, Begona'ko karmeldar eleizan 1934'ko garagarrillaren 8'an, Plazido-Anjel Rev Lemos jaunaren eskutik.

Bete zan gure amosik nagusiena. «Alter Christus» edo Kristoren ordezeko giñan. Mezea emon, Kristoren itza otsegin, pekatuak parkatu, Sakramentuak emoteko gai gintzazan. Duintasan gurena!

Meza barria aundikiro bakotzak bere errian edo naien eban lekuan. Nik Markiñan abctuko neban, gurasoak ori nai ebelako; Karmen'en eta Markiñan jai ederra egin oi zan Iñaki Deunaren egunean, uztaillaren 31'an. Eleizea apain jantzia, jentez bete-bete, bertako korala abeslari, Aita Simon Barrenetxea, bertako semea. sermolari... Meza ondoren, eleizan bertan, esku-muiñak, zorionak, besarkadak, biotzak poz-eztitan.

«Txoribenta»-n bazkaria, euskaldunon edozein jazoera ostean geure barne-alaitasuna erakutsi oi dogun bazkari gozo, mardul, onuratsua, An ziran, nire guraso, aita-amabitxi ta anai-arrebak ezezik, osaba, lengusu-lengusiña ta beste aide batzuk be. bakotzak al eban ez bere poza agert-erazo nairik.

Oindiñokarren beste ikasurte bat egin bear ko genduan Begoña'n, baiña gu mezadun Ondoren apurka apurka emongo euskuezan Gotzaiñak eta Ordenako Nagusiak, legeak dabezan beste baimenak, jaunaren itza aldarrikatze ko, autortze ko, au da, Sakramentuak emoteko. Zornotza'ko semea zan Aita Ezekiel Bilbao Probintzial zanak emon eustan niri, Begoria, 1935'ko bagillaren 27'an, gizezkoen eta andrazkoen autortzak entzun eta Taunaren Itza otsegiteko baimena.

Luzatu barik, beraz, solora langilleen artera.

13 IKAS-EKIÑAREN AMAIA

Biotz alaiak, diñoenez. arpegia edertzen. Olantxe gu be leen pozaren mende, meza barriak itxitako goxotasuna ezin lagarik, ames-gaillurraren eragiña ezin aizturik. Alan be urtebete falta jakun eleiz-karreraren azken era eltze ko. Zer esan nai dau onek? Tka si bear zala. Beraz esakunak diñoanez, esku arduratsuk nagnsi-tza lortu ba dagi, zoli gu be lanari josiak azken era eldu arte.

Bai, mezakotuak gengoan, baiña ez osoz jantziak eta laster asi bear ^genduan zeregiñak osotasuna eskatzen euskun. Gu Kristoren orde zko giñan, Aren zerbitzari errian. Origaitik edozein Baitan ondo gertatu, kulturaz jantzi bearra geunkan. Eta falta jakun urte barruan, leen baiño he zoliago, ortan alegintzen giñan.

Domeka ta jaietan geure eleizan itzaldiak egiten genduzan, Aita Martin, gure nagusiak aginduta. Karmengo Amaren bederatzi-urte nean, goizeko mezetan geuk egiten genduzan itzalditxoak. Gaztetatik, esaten euskun A. Martin'ek, oitu bear da ikastegi edo pulpitutik, aurretik gertatu ta patxada onez itzegiten. Aita Martin'ek egokitu ginduzan orretarako. Orduko ikasleok zenbat zor dauetsagun ari!

Ni ez nitzan nagi ibilli; ainbat artikulu, itz-lauz ta bertsoz, ditut garai aretan idatziak. 1934'ko urtearen azkenerantza egin neban neure lenengo itzaldia komentutik kanpo Andra Mariaren Sortze Garbiaz, Getxo'ko eleiz nagusian, Mariaren alabai, Ez neban ain txarto egin antza danez, txauburu jaunak gero zorionak emon eustazan-eta: ordu-erdi izerditan emon ostean ezer esaten ez dautzuenak aurkitzen diralako, diñot au. Orrez gaiñera, Algorta'ko geltokiruntz ninoiala Begoña'rako trenan artzen, Bizente Ametzaga euskaldun barriak bardin bota eustan, geroago euskal idazle ugar ta olerkari ez motel zanak ain zuzen. Ez dakit, alkarri bota geuntsan intzentsuagaitik bear bada, a Ameriketara eta ni Euskalerrian bizi arren, adiskide miñak izan gintzazan bizitzak iraun eutson arte Euskal lan bikaiñak ditu.

Urrengo urtean, Eguen eta Bariku Santuz, Lezama'ra bialdu nindun Aita Martin'ek. Gaztea gaztetatik oitu dedilla buztarripeko bizitzara.

Bizitzan badira egun eta momentu batzuk nekez aztu oi diranak. Niretzat egun bat 1935'ko garagarillaren 10'garrena, Laurenti Donearen *eguna*. Pekatuak parkatzeko daukadan eskubidea orduantxe erabilli neban lenengoz. Neure osaba Juan Manuel Orue-Mazaga —Berriz pelotaria— neure amaren aizta Salustiana Baseta'gaz ezkontuta egoanak eroan nindun bere anai Jose abade egon zan Urigoiti'ra; bertoko jaiak ziran eta njk bertan jentea autortu, mezea abestu ta itzaldia egin bear.

Udaldian, Berango'ra joan oi nintzan meza emotera Ikatza sendira eta urte bitan. Neguri'n Sota'tarreneira. Jentea orduan be pilloa joian ango ondartzetara. Ibilliz eta ikusiz asko ikasten da. Baita nik be. Meza ostean famili bietan, gosaltzera eroaten ninduen eurekaz batera: jan-maia bete-bete egiñik eukien eta batek

ez ekian ze tresnari oratu aurrenik, eta besteak egiena egiten saiatzen nintzan. Bein, baiña, meza ostean autortzea otu jakon etxe-koandre ari; autortu ta jantokiratu giñan gu be, eta ona nire ezusteko arrimena: etxeko areik, gazteak batez be, bape etiketa barik, edozelan artu ta jaten ziarduen. Geroztik, aziera ta modu onez bai, baiña bestelako kezka barik jan izan dot nik beti. Geiegiak ziran, izan be, gure aurretikoen gizarte-arauak.

Urte-gurpilla iraulka, eliz-ikasketak be amaituz, gertu gengozan arima zaintza asteko. Sasoi atan gure komentuetan bazan lanik autortegietan eta itzaldiak egiten, batez be. Orduak eta orduak emon bear genduzan eleizan aurtortzak entzuten. Beste aldetik geratzeka ibilli oi gintzazan erriz erri jaietan, Garizuman eta urte barruko edozein momentutan Kristoren berbea ereiten.

Ereak dakar izlaria. Gaur ez da orduan lango erarik izlaritzarako. Ez da ganorazko eleiz-izlaririk be, banakaren bat ezik. Predikadore onik bazan gure komentuetan, eta arein maillara eltze-ko lan egin bear. Gure aurretikoak, egia esan, abadeak ain zuzen, domeketako sermoe ta olako batzukaz naiko eben, baiña komentuetako prailleak, zeozer ziranak, gaur eta biar ziran deituak errietatik eta ez eukien astirik, aurrez ondo ausnartuta eroan ezik, unero bota bear zituezan itzaldiak gertetako. Jakituria, trebetasuna ta miin zolia eskatzen eban erriak; eurak esan eroenez, buruan zer-esana ta eztarria garbi.

Orduko itzaldiak etziran gaur lez zortzi-amar minutukoak, ordu erditik gorakoak baiño. Izkuntza aldetik, barriz, ez igon pulpitora edozer eta edozelan esatera: euskeraz naiz erderaz, garbi, argi ta zentzunez. Orduan esan oi eban erriak: «Orrek bai etorria! Orrek bai euskera bikaiña!» Ez uste izan, orraitaiño, sermolaria txalo billenik, Kristoren Itza alik ondoen otsegiten baiño.

14 LARREA'N

Ikasteak amaitu genduzan, legezkoak diñot, naiz-ta lekaideak, Kristoren ordezkooak, bizi dan arte guztian liburuakaz bizi bear. Gero ta aurrerago doaz mundua ta munduko jakintza-saillak. Agi-

riko zerbitzuan ari da eleiz-gizona eta, ez izan ezpairik, gai guz' tietarako prest euki bear dau erantzuna miin-puntan. Liburuak ez dira arasan eukiteko, damoskuen kultura irakurritz geuganatzeko baiño,

Niretzat leenengo bizileku lez lantegi be —gero be berrogetaz urteetan— Larrako komentua izan zan. Nire ikaskideak, batzuk Euskalerrian ango ta emengo komentuetan bananduak izan ziran; beste batzuk India ta Ameriketarako bidean jarri ziran. Ni Larrrea'n, toki eroso ta alaiian, Zornotza'n Bizkaiko biotz-biotzean, eragozpen-izpi barik ara naiz ona aldatzeko. Zazpi bide nasai gurutzatzen dira uri erdi-erdian. Mendi garaiak inguruz inguru, Lemoaitz, Aramotz, Belatxikieta, Mugarra, San Martin, Bizkargi... Leen Udaletxe bi ziranak gaur bat-egifnik dagoz.

Emen biziko naz ni zati baten, ez urduri, bai lanari lotua; ez naz geldi egongo. Begoñakoa amaitu dot dagoneko, emengoari ekingo dautsot aurrerantzean. Zarrak eta gazteak, talde polita dot berton, danak lanari emonak, eta iñor bere ez alper. Beso zabalik artu ninduen ona nintzanean: Aita Tiburtzio, nagusi; Aira Errapel, gazteen maisu; A. Jerman, organu-jotzaille; Ijinio, Lontzi, Simon eta Leon, izlari. Urrengo karmeldar Batzarrak Aita Errapel nagusi ta Aita Jose Domingo, gazteen zuzendari, biak markinarrak, izentatu ebezant

Bazan emen zer-egina neuretzat be. Gesu aretan ez egoala Ume Jesus'en Anaidikoak nok zuzendu ta niri leporatu eustien kargu ori. Aspalditik eder aurkitzen zan Kofradi onek merezi eban gozatsu jagon eta zuzentzea. Neska-mutiko pillo izugarria batu oi zan illaren bigarren domeketan, batez be arratsaldetan. Gaztetxoak alkartu al izateko maiña ta truku batzuk erabilli bear ditugu. Nik, aurretik be egiten zanez, gogora ekar-azten neutsen aste barruan, neure laguntzaileen bitartez —Loli Bardesi, gero il eustena neban idazkari—, ze'n ig-ndetan izango zan Ume TeÇus'en illeroko ospakizuna, eta domekan zurrunbillo utsean etorten jatazan neskato-mutikoak.

Esandeko truketatik ona bat gaztetxoak erakarteko. Ardiak eta, artoz eta ezkurrez geuganatzen ditugu. umetxoak ostera errjfa, irudi, itzalditxo ta olakoakaz: oindiño badira. Zornotza'n garai

aretan botatako itzalditxoak gogora dakazenak. Eguerdi osteko eleizkizuna egi-egiaz atsegiña izan oi zan; Errosarroa, kantak, itzaldia, Ume Jesus andetan genduala aurreko zelean zearko ibillia «Gora gora!» kantari, eta azkenez gozokiak egazka, ta errifa. Umetxoen jai gogoangarria!

Ementxe egin nintzan ni sermolari. Eskabide asko etozan errietako abadeengandik, eta arei ezin geuntsen ukatu laguntzarik. Arazo ori bete ondoren etxera biurtzerakoan, apostoluak Kristori lez, bakotzak bere goraberak edestea oitura bat zan. Abenduz gero ainbat jai ziran: Sortze Garbia, Erregen, Garizuma, San Jose (nik 1936'an, Mundakan otsegin neban Jose Deunaren Irurrena), Jesus'en Biotza eta gaiñerakoak. Gerreak Eibar'en atzemon nindun Karmengo Amaren bederatz i-urrena goiz eta arratsalde oiukatzen.

Beste aldetik idazten niñarduan, naikoa zoli, leen ementxe Larrako komentuan eta gero Kalbario deritxon erriko plaza ondoko Ikastetxean Aita Pi Etxebarriak ateraten eban «Karmengo Argia»-n. Baita On Zirilo Artzubiaga'k Zornotza'n bertan ateraten eban «Ekin»-era be b'altzen nebazan neure lantxoak. Eta Aitzol jaunak eskatuta, Donostia'ko «Yakintza» aldizkarira; ar-emon barrukoa euki neban arekin.

Ikutu aundikoa izan jatan urte onetan (1936) Lekeitio'n ospatu zan Olerti-Eguna. Aitzol, Orixe, Azkue, Lekuona, Olabide, Manterola, Eguzkitza. Erkiaga ta konta-ezin beste euskaltzaleri eskua emoteko aukera bikaña izan neban orduan. Lauaxeta leendik be ezaguna neban. Begoñan ikasle giñala sarri joaten bai giñan a ikustera «Euzkadi» egunkariaren lantokira. Gero esango dodanez, benetan ederra niretsat Lekitio'ko Olerti-Eguna!

15 ANAi ARTEKO GERRA

Bizi luzea eroian zugatza zan Espaiña'n monarkia. Eta, jak--ña, au gab:tik goizera lurra jota ikusteak, askori beintzat, zauriak sortu bear. Zaurituok, barriz, au da, eskumatarrak ezin jokatu ateskundeetan irabazle ziranen alde. Ezkertarrak, beste aldetik, mundua euren zala uste izanik, ainbeste basatikeri egiezan bazte-

rrak izu-ikaratan ipiñiz, espaiñar naziño guztia ain zuzen be. Eta militarrek beti burgoi, utsa ta putzaren aurka euren ustetan beti indartsu, momentu egoki baten zain egozan aspaldi zanik.

Goiz baten or ardaiari su emon. Madrid'eko gobernua zan erriak auteskunde legezkoz aukeratua, eta militarrek, Franco ta onen jarraitzaileak, gubernu legezkuaren aurrez aurre jagi jakuzan. Or zati bi egiñik erria, anaiak anaien aurkako burruka zitalean, bost urteko alkar-ilte basatian.

Bakean gengoan euskaldunok be gerra susterbako orretan buz-tartu ginduezan. Gure kontrako lei gaiztoa etzan gero makala: gu ain katolikuak eta etorten ez Eleizearen, ez gotzaiñen esanera, eskumatarren kontra ez egozan ba? Matxiño-zaleak ez euskuen errez parkatu au, gorriakaz bai geunkazan itunak eta itzarmenak; gogora Donostiakoa, sarri aitatua, 1931'koa, Estatutoaren gora-berak, karlista ta abertzaleen arteko ezin alkar ulertuak, Kalvo Sotelo'ren eriotza garagarrillaren 13'an, Bilbo'ko Aberri Eguna...

Iruña'n ez dagoz lo falankistak eta karlistak, aurrera daroez illak dirala sort-erazoriko asmo biurriak. Ori bera Gasteiz'en be. Agindu bat, oiua bat naiko gerra pizteko. Bertatik, or Iruña'n sua erruki barik, bizi ta kiskalkor. Or Franko Zeuta'tik jauzi eginda, Espaiña'n adoretzu, su ta gar diardu aurrean jarten jakozanak eratsi, il eta obiratzten. Anaiak anai, baiña gaur etsai: gorrotoak gaur agintzen. Frankok «Telegrama del Rif» egunekoan agindu ta ordenak emonik iñoenez, guda zan espaiñar geienak gura ebena.

Emen berton, euskaldun lurrean, 1936'ko garagarrillaren 19'an «Diario de Navarra»-k oiuka iñoan: «Gora Espaiña! Mola jeneralak dau gerra iragarten Naparru osoan. Gaur, goizeko amarretan, Espaiña osoari itz-egingo dautso irratiz». Gerra-egoera ez da gero Naparroan bakarrik izango, baita Burgos, Logroño, Gasteiz, Zaragoza, Lizarra, Donosti, Hueska ta Taka'n be. Sevilla'n dago dagoneko Franko, Afrikako militar indarrakaz. (Etzan egia, ez egoan Sevilla'n, Kanarias'en baiño). Esakunen liburuan, barriz, onela irakurten da: «Gorrotogarri da anai artean ezin-ikusia ixioztzen dauana lez guzur baltzak dñoazana» (5, 19). Eta Molak berak artzen eban Burgos, Santander, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Naba-

rra, Logroño ta Palentz'a'ko aginpidea, lurralde oni itsatsitako talde-buruak bait dira.

Eta gizaseme arroen zitalkeriz odola ixuri zan or-emen, bai seme leialen odolez gorritu ziran euskal mendiak eta Kantauriko urak; oiñate-miñetan bizi izan zan gure erria urte bitan. Gerra amaitu ondoren, ainbat eriotza errubako, espetxe gorri, ainbat erbesteratze... Ainbat zatitze, z¹gor... Ori merezi ete eban? «Zertako sartu zan Euzkadi gerran?» Ez, ez barbar mintzatu, ergel Egunbatean guk sutan ikusi gendun geure etxea, 1937'an Gernika legez. Kanpotik etorri jakuzan etsaiak espainarrak, doixtarrak, italiarrak, ez nunbait asmo zuzenaz. Zer egingo? Kiskeltzen laga? Zaindu egin genduan euskaldunok geure etxea, guztion indarrez zaindu be. Ondo egiña ez ete? Gorri ta zuri alkarren leian jokatu gendula? Etxea galzori daukagunean ez dauzagu begiratzen koloreari. Gu guztiok, alkarri eskua emonaz, jagon egin genduan geurea zana. So istoriari ta ikas! Gurean etzan orduan eztabaidarik, etzan norberekeririk, gaur dakusgunez, orduan bar giñan euskaldun danok.

Etsaia, egia, gu baiño kementsuago gertatu zan. Galdu genduan, baiña baita ondoren gorriak ikusi be. Ez giñan gu iñoren lur-zati billa ibilli, euskaldunak ez bait dau olakorik egundo egin, ez geuntson iñori aginpiderik lapurtu nai izan; geurea zaintzea izan zan gure elburu bakar. Guda-atzeak beti odoltsuak izan oi dira. Gaur emen gara, barruko zimjko bage: iñok ez dauko, dago-kiona betez gero. barnean kezkarik zetan euki.

Oarra: Nire gudaldi guztiko goraberak bigarren zatian zatoz, au da, *Gudarien kapellau* deritxonean.

16 GARDENTZEN

Santona'ko espetxean atxillo jausi nintzanean, neure Nagusiari, karmeldar probintzialari idatzi neutson bertatik. Arek erantzun eustan Santander'tik.

Nagusiaren eritxiz, karmeldar abitua zikindu neban nik; eta iru urtez bera garbitzen alegindu nintzan giltzapeko loi, otz, gose

ta askatasunik eza pazientzi aunditan eroanaz. Azkenez, El Dueso, Nanklares, Dueñas eta Karmona'ko espetxeai agur esanik, erdi-aske nintzan, Santander'ko erri txiki Hoz de Anero'ko Rigada auzunean. Emen daukagu euskaldun Probintziko karmeldarrok «Ere-mu» deritxogun komentua, antxiñako jauregi bi alkarri dautsoe-la; emen bizi gara gu 1905'tik, bⁱ zitza latz bakarti zale diranak.

Bizi-molde berezi-berezia dau etxe onek; emen ez de edozein bizi, benetako bakar-zale dana baiño, eta Aita Nagusiaren baime-nagaz. Zigorturik iñolaz bere ez. Ni espetxetik aske itxi nindue-nean, abitua zikindu nebala esan eustana etzan nagusi beste bat baiño, eta onek ez ekian aurrekoak niri zer esan eustanik; ez ekian orduko gardenduta nengoan ala ez. Karmona'tik komentu ontara etozan baita, nigaz batera, Aita Errapel eta Aita Akesolo. Ondo lexibatu barik ete gengoan oindiño? Gure jantziak zakar samarrak izanik, ba leiteke izur bikoitzen batzuk ondo garbitu barik aurkitzea oraindik.

Ni ta lagunak pozik aurkitzen giñan. Toki atsegiña, zoragarria bait da, baserriz, lanaz, eukaliptu ta areitz-tantaiz inguratuta; baso trinkoak eta sagar, intxaur, madari, piku, mizpil, laranja, kaki, urretx, aguakate, landara aundi ta txiki konta-ezin-ala; urrin Santoña, Meruelo, Gama, Solares, Astillero, Somo, Santan-der uria bost kilometrora itxasoz eta aurreri aurrera. Ez gengoan oindiño oso-osorik aske, Entranbasaguas'eko kuartelera joan bear izaten gendun illean bein.

Gure egoitza, atsedeen-leku zoragarria dozu, barru-bizitzarako egoki ta aukera aundikoa. Ikuspegi zabaldua, zuga tzez eta bedar-landa joriakaz esitua.

Gerra ostean iru bat urtean etzan klausurarik egon eta inguru-ko jantea igandetan mezea entzuten eta autortzen barrura etorten zan, Gero. 1940'etan, Gabon-aldera barriri ipiñi genduan legeak eskatzen dauan itxitua, androzkoai barrura sartzen galazoten ja-kena.

Erlejiño alkarteak, geienak bai, aldatu egiten dabez euren na-gusiak iru urtetik bein. Karmeldarrok, ^terra aurretxoan, 1936'ko maiatzaren 2'an Larran ospatu eben aldaketa ori, Aita Sergio na-

parra Buru autaturik; 1939'ko apirillaren 29'an Markiñan ospatu zan urrengoa eta Aita Jose Leon atera zan nagusi, eta 1942'ko apirillaren 25'an Begoñan Batzar nagusia eta Aita Erredento euskaldun karmeldarren Buru. Ni pozik aurkitzen nintzan Rigada'n, baiña Aita Erredento'k Gasteiz'era bialdu nindun.

Eta emen be lanari ekin bearko: autortu (konfesiño asko egoan garai atan gure eleizan), Garibai ikastetxekeoi kantua erakutsi, liburutegia jagon, moral eta lirurgi alkar-izketak prestatu, erriz erri itzaldiak egin (Antoñana, Azedo, Maestu, Genebilla, Agilar, Gauna, Bernedo, Leguti —euskeraz beti—, Gamarra, Arriaga, Armentia, Añastro, San Formerio).

Beti izan naz ni leku barrira errez egiña; egun batean, baiña, Aita Probintzialaren eskutitza PortugaPtik, Viana do Castelo'n nire laguntza bear ebelata, gertatu nendilla ara joateko; etzan errez alan be espetxean egondako bat erbestera joatea, eta malzurkeri pitiñez, Gobernu Zibillean itandu gendun gure Nagusiaren agindua bete leikena ete zan, eta an gogor be gogor «ezetz! ». Aita Nagusiak orduan Logroño'rako agiria bialdu eustan. Norbaitzuk uste eben izterbegiak neukazala Gasteiz'en. Leitekena zan. Ondo garbitu barik oindiño Euskal lurreen bizi izateko.

17 LOGROÑON

Errioxa, beiñola eusko-lur izana; ez ditugu bertan euskal zan' tzu ta ezaugarri gitxi, batez be deitura ta abizenetan! Zintzo ta biozkor zan nire denporan eta uste dodanez olan dirau gaur be. Egia, nik olan aurkitu neban, baiña olan ete zan aurretik, Sagasta' ren egunetatik? Gerra zala-ta iñok ez eban aorik zabaltzen, ez koñtenuan eta ez urian. Arpegietan, alan be, naigabearen aztarna itsusia nabari zan, etzan iñor ausartzen igarotakoari buruz ezer aitatzen,

Be,i lez, laster kontatu eusten ixilka jazo zana: guda asiera-asieran gorriak izan ziran nagusi, Truña'tik eta napar-erribera aldetik trumilka etorri ziran eskumatarrak eta amabi bat milla gorri garbitu ebezala eta au etzala guzurra jakin nengjan bi bider baiñik-

bein Lardero'ra eroan ninduen, uritik ur dagoan zelai-unera, gaur alderdi bietako illak obiraturik egozan lekura: orain iltegi aundi apaïña daukagu bertan, an jausi ziranak gogoratzen dauskuzuna. Sudurziztu orde, betor errukia.

Karmeldarrok, Logroño'n bizi izanarren, leengo gizaldiaren erdirantza geunkana ostu euskuen ezkerro, ez geunkan komenturik urte areitan barria eregi eben arte. Lur-zatia erosita eukien Espo-
loi ondoan, Vara de Rey kalean bertan, ezkerretik. Komentu txiki bat, ortu medar ta eleizea jasoteko lur-zatiaz. Aundia ez, bai-
ña biotz-biotzean. Emen bizi izan nintzan ni sei urtean, 1942'tik 1948'ra. Gaur toki estu onetan karmeldar egoitza —eleiza ta komentu— eder-ederra daukagu. Errazoi barik ez inoan Santa Teresak: «Pazientziak dana lortzen».

Logroño urtetik urtera aziaz joialako, erdi parroki biurtu zan karmeldar eleizea beau da, Redonda parroki nagusiari itsaitsia; bertan egiten ziran bateoak, ezkontzak eta abar. Gero, andik lau urtera mailla igonik, parroki oso batek ditun betebearrak eta eskubideak lortu zituan, gaur olantxe jarraiturik. Lenengotan 17 milla arima eukazan bere ardurapean; geroago, beste parroki bi eregi ziran beronen inguruan.

Nik auxe izan neban lantegi, neure gazte urterik on eta ederenetan. Gogoko jatazan guztiz eleiza baten arima zaintzak daukazan zeregiñak; lau klinika egozan, geuk eroan bear genduzanak, gure eleiz-barrutian eta gabaz irutik baten deia izaten zan gexoaren laguntzarako. Iru ikastetxe geunkazan geure arduratan, eta oneitan neska-mutillak autortu egin bear ziran. Illetak etziran meatz jazoten. Anaidiak geunkazan Karmengo Ama, Ume Jesus, Teresatxo deuna, txiroai laguntzeko jantzitegia, eta abar.

Predikatzen ibilli bear izaten neban, Garizuman eta Aste Santuz ezezik, baita urte barruko Santuen jai askotan, jentea autortu ta txonitza egiten. Kameror'era izan zan nire aurrenengo urteiera, eta gero Biana, Bargota, Armañanzas, Lizarra, Etxeberri (euskeraz ta erderaz), Mendabia, Karkar, Arnedo, Leza, Pradillo, Ortigosa, Lomos de Orio, Nabarrete, Zenizero, Haro, Naxera, Badaran (j. G. Ibagutxi'k deituta, emen bai egoan txauburu). Eta

Logroño uriko eleizetan, Santiago, Redonda ta Palazio, itzaldiak eta bederatzi-urrenak.

1943'an batzuei otu jaken (emen daukat oindiño agiria) ni ona izango nintzakela Bilbo-ko Gotzain izan zanaren anai Alfonso Gulpide jesuiteagaz batera Falange alderdiko en erlejiño aolkulari; kargu onen bidez, neure lana neukan, naiko gogara beteten nebana: astean birritan, gure parroki barruan egozan jimenez eta Fernandez zapatilla fabriketako talde gazteai erlejiño-gaiak azaldu bear neutsezan.

Perez Urbel beneditarrak bein, lan onen saritzat nunbait, Montserrat'en alkartu ginduzan Espaiña guztiko aolkulari mordo bat. Aste bete igaro gendun bertan. Egun ederrak benetan! Ango leikaideen kantu bikaiñak entzun eta mendi areitako leku ikusgarriak arakatu!

Beste gertaera eder bat 1947'ko 22-26 egunetan. Espaiña osoak Teresatxo deunari, beronen eriotzatik berrogeta amargarren urtean eskiñi eutson omenaldia. Jai eder-ederrak Zaragozan, elejizkizun, itzaldi ta alkar-izketa asko, eder-sakonez oretuta. Asko aratu giñan Logroño'tik, erritar eta eleiz-gizon, geure Gotzain jauna, Fidel Gartzia buru gendualarik.

Kaden eta biotz-il joan ba nintzan be Logroño'ra, gero Errioxa ta errioxatarrai polito biotz-loturik aurkitzen nintzan, eta zast! , gitxien uste nebanean, andik alde egin bearra. 1948'ko apirillaren 17'an karmeldar Batzar nagusia ospatu zan Gasteiz'en eta ni, Santander-Rigada'ko nagusi izentatu ninduen. Beraz, negua urratzean Afrika'rantz egaz dagien lertxunen antzeko, ain maite nitun logroñotarra agur egiñaz, leendik be ezagunak jatazan Santander lurraldeetako itxas-arteak artzera abiatu nintzan.

18 EREMUTAR

Eremuan nago, bakartadean kokatua. Musika ixilla dantzut, Karmeldar komentua, besteai ezertxo be kendu bage, lorategi olerkitsu ei dira; danak ba leiteke ezetz, baiña geienak bai esan

bearko; barne-bizita izan be, santu lez olerkitsu da. Gaztel-errira zoazanean trenez naiz kotxez, potean potean ikusiko dituzu artaldeak gari-trukutz artean larratzen, eta zurien artean baltz batzuk. Zergaitik ori? Nok jakin! Era barean komentuetan be, errez egon oi dira egiaz Jainko-zale gartsu diranen artean, baltz idurikoak, ainbeste gar somatzen ez dabenak. Loraketa orretan epel batzuk idoro arren, geienetan artez esan gengike karmeldar etxeak, lora-
ketan bizi dirala.

Orrelakoxea dozu ni nagusi etorri nazan bakartade au, bertan bizi diranak barru ta kanpo gelditu bako loraketan dabiltzanak. Santu izatea ez da goizetik gaberako ekintza, egun eta urte luzeen ekintzak dakarskuna baiño. Eremu onek ez dau oraindik bizitza luzea, 1905'tik gagoz bertan karmeldarro; 83 urte. Alan be ba dakit askok eroan dauala emen santu bizitza. Askok, noberak eskaturik, urte beterako edo irurako itxitu ontan igaro dabez egunak; batzuk, komentuetan, sermolari naiz irakastetzan erdi-aiturik, atsedean pizka_t naian, ona etorri dira; beste batzuk, Ind[']an naiz Ameriketako mixiolari ibilli ondoren, zati baterako arima bak^{:'}a ona izanik, emengo ixiltasuna lortu dabe. Orretarako da lekaru etxe au.

Emen ez da berbarik egiten, ez da ezer ikasten mistika ta asketika gaitik landa; diruzaiña edo ezik, ez dago kanpora urteterik, ez da predikatzen, ez dago arima zuzentzerik, kanpokoentzat beinik-bein; emen ez da lanik egiten, esku-lanen bat ezik; gelako, koruko ta otoiztegiko zeregiña dozu beinena. Koruan maitinek eta abar astiro; otoitz-lekuan, gogaketa goiz eta arrasti, ordu bi. Barrua aztertu egunean bi aldiz; gelan, irakurri ta gogoznartu. Liburu Santuak, Santa Teresarenak eta Gurutzeko Tuan deunarnak... Biblia dozu munduan dan libururik bikaiñena, eta karmeldar barriztatzaille bien idatzirik lakorik dozu aurkituko zerugean, Jainkoari emonda bakartadean bizi nai dauanarentzat.

Bearrik ez dala emen egiten, esan dot; legeak, baiña beti izan oi dau akatsen bat, eta illean birritan, igande arratsaldez ain zuzen, izketaldi bat eukiten dogu. Zertaz? Aste bete aurretik oltxo baten jarten da gaia idatzita; bakotxak gero sei-zortzi minutu egin beariko ditu, buruz edo idatziz, zerbait gai orri buruz esaten edo adierazten. Amabostetik amabosterako alkar-izketa deritxo jardun oni.

Ni emen nintzalarik, ia iru urtetan, Gurutzeko Juan deunaren lanak erabilli genduzan ikasgai: «Gau illuna», «Maite-kanta» ta «Maiteugar bizia». Lenengo liburuak, arimeak Kristorekin alkatu dedin, garbituz ta maitatuz zelan jokatu bear dauan irakasten dausku; bigarrenak, Kristo ta arimea alkatu ta ezkondu diran ezkeron, bien arteko maite-olesak dira, begi aurrera dakarskuzanak; eta irugarrenak, arimea, Kristorekin batua, zelan ari dan kanta-kantari diñosku, orain agiri gero gordeka, jolasketa zoragarritz.

Berrogei estrofa daukaz maite kantak, danak interesgarriak oso. Ona batzuk, Juan Gurutzekoa olerkari zanez, bertso bizi-bizitan, eder, sakon eta zorrotz, adimenak ekarri ta biotzak sutuak.

Maite jokoan Kristok ikutu gozoz ase dau arimea. Zortzigarren estrofan arimeak kanta:

Baiña zelan dirauzu,
bizi, zagozanez ezin bizirik,
ta il-bearrez ba'zaukaz
Maiteaz gogartuak,
barrena dozula geziz beterik?

Ez andik ez emendik zain dagoan erantzunik ez bait dau, izadiko gauzetara biurturik, amabigarren leloan onan diño:

Oi, iturri leiar bizi,
zeure zidarrezko nini orreitan
nik muiñean josirik
daukazan begiak
dirdir ba-zeuskidaz dardar gozotan!

Emazteak, amairugarren estrofan, *egaz* doala-ta, oztopoak kentzeko eskatzen deutso Maiteari. Eta Senarrak «Biur, Usoa» diñotsa, urriñegi egaztu barik. Emazteak gozo-gozo erantzun:

Oi, ene Maite! , baso
ibar'arte, zelai bakar, oiantsu,
oi ez lakoxe ugarte,
erreka soiñulari,
aize bigunaren maitezko txistu.

Eta azkenik, maite-joko txairo askoren ostean, maitale biak bakartadean alkar eurkitzen dabe, 35'garren aapaldian olerkariak diñoanez:

Bakarrean bizi zan,
ta bakarrean dau abia egin,
bakarrean daroa
bere maiteak soilki,
bakarrean au be maite-zauriz min.

Onelaxe, irudimen azkarrez abesten dausku Gurutzeko *Juan* deunak arimearen eta Kristoren arteko ar-emon samur zoragarria. Hontiveros'ko poeta onek ez eban bertsotan asko idatzi, baiña idatzi ebana sua ta ederra eriola emon euskun, eta gaur be espaiñar olerkarien artean onenatarikoentzat daukagu. Olerki asko ez dira bear olerkari punterengo izateko.

Maiteak jota onako sugarretan bizi izanik, noberak gura baiño ariñoago doaz egunak. Eta nire penitentzi-egunak, ain pozgarri jatanak, amaira ziran; iru urtez loratu ziran ango areitz, sagarondoak, komentu aurreko limoi ta laranjak urte guztiz lora ta ale zirauen arren. Ango landa ta zelaiak, barriz, bein bakarrik zuriz jantzi zituan edurrak. Giro ederra bertakoa.

Naiko lan osotu neban idaz-arloan, «Karmengo Amaren Egu-tegia» eta Donostiko «Sariak» euskeraz; eta erderaz Rigada'ko istoria, ango legeak eta «La Obra Maxima»-ra bialdutako artikulak.

1951'ko jorraillaren 14'an Batzar nagusia Begoña'n; ni Larrea'ko nagusi aukeratu *ninduen*. Eta eremu gogoangarri ari, inguruetako lagun eta apaiz jauneri agur egiñik, goiz eguzkitsu baten onako bultzia artu neban.

19 LARREAN NAGUSI

Batzuentzat ke-min izango zanarren, ba geunkazan itxura zanez, guda ostean espetxean bizi izanok, txera ta oneritxia agertzen euskuezanak be, nagusitzarako autarkia emon euskuenak ain zuzen.

Larrea niretzat beti izan da alai atsegiña, naiz-ta ez gerra aurretik zan aiñakoa; orduan kentuz eutsoen zerbait bere-berea ebana. Leendik luzaro bertan bizi izana, oraingoz eskubidez ta poderez jantzia nentorrin. Onek poza emon oi dau lanerako. Nagusitza ez da erdian jarri ta agur-gurtzak artzeko soilki. Zenbat eta menpekoakaz zerbitzariago nobera izan, olako geiago izan oi ditu nagusiak, ezarian ezarian etorrira izan be. Urte orretan eta ondorengoetan gazte naikoa bizi zan Larrako komentuan, Irurogei bat izatera eldu gintzazan sasoi baten.

Bazan lanik Larrean nagusiarentzat eta menpekoentzat, etxean eta kanpoan. Eskabide asko etozan errietatik. Eta barruan, Gazte asibarrien jantzi arteak, profesak, itzaldiak, alkar-izketak; leka-retxea bera apaindu, komentua ta eleizea, bidrierak eta gaiñerakoak, koruko jarleku ta bizkar-aldeak atondu, organua Braun alemanak barriztatu, eleiz lau ormak garbitu ta dotoretu... etxe barruan tximist-indarra orma barrutik ipiñi, gelak zuritu, liburuak azal egokiz apaintzeko tresneri barria. Ogei ta lau kaki landara barri sartu ziran gaur ederto emoten dabenak jauregi zarrean barna. Antxiñako futbol zelaian, barriz, lengo platanuak ebagi ta eun bat zugatzmota barri landatu genduzan.

XXXV'garren Eukaristi Batzarra Barzelona'n ospatu zan 1952' an. Jazokun atsegiña kristauontzat, Aurretik be, naiz-ta noiztik noizera ospatua, Eukaristi Biltzarrok izan eben entzute zabala. An izan nintzan ni be zornotzar ainbatekin. Makiña bat gorabera, eleizkizun ea egintza gogoangarritan parte artu neban! Eleizkizun eta zeremoni askoren artean ni geien biotz-unkitu ninduna Monjuich futbol zelai zabal-nasaian ospatutakoak izan ziran, ainbat eta ainbaten apaizkuntza artea, meza nagusia, itzaldi ta kantuak. Eguzkiak galdatzen ginduzan arren, orduetan antxe. Zoragarria benetan! An eta inguruetan dozena bat egun igarota, euskal-erriratu giñan Jainko-arnasaz ondo aseturik.

Adikada onetan ba neban nik gurari bizi bat aspalditik barruan nenkarrena. Poesi-zale nintzan gaztetatik, eta orain, ere neukan-eta, euskal poesi sorta aundi bat argitaratu nai eban. Ortarako gertamenak egiten asia nintzan Larrera etorri nintzanetik. Poemak an eta emen, astiro, astiro, pilloak neukazan metatuta; neuk neukazan liburuetan etozanez gaiñera, Bilbo'ko liburutegiak arakatu neba-

zan, eta Donostiko Aldundiko artxibua, Fausto Arozenak eta Jose Artetxek lagunduta. Iruñan izan nintzan, «Revista Euskara» artertzen batez be.

Mugaz bestaldera nintzan, 1953'ko urtarrillaren 15'an emon eusten Frantzia'ko igarobidea Bilboko polizi-zuzendaritzan, agirian au jarririk, «Europa osorako, Errusi ta aren jarraitzaillen lurraldetarako ezik». Il orren 20'garrean, Enda'a'tik bultziz Baiona'ra ta andik Uztaritze'ra niñoiñan ni. An irakasle zan P. Lafitte'kin egon bearra neukan, onek bai eukazan kartaz adierazo eustanez, eskuz idatzitako bertso-paper pilloak, zarrak naiz barriak.

Irripartsu artu ninduan Aita Lafitte'k, baña lagundu be berak ekian legez. Makiña bat barre-zantzo egin genduan olerkiak auke-ratu-alan! Bere pillo guztiak eskuetan jarri eustzan, eta gero, kla-serik ez eukanean, aukeratzen lagundu. Orrelaxe lau egunean. Ja-torduetan bera neban lagun. Gosaltzeko txarri-anka egosiak geun-kazan lenengo ta kafe-esnea gero: au zala-ta, eztendaka ederrak ekian egozten; auxe jaten ei eben gerra ostean emendik ibilli ziran euskal idazleak be, Orixe'k eta... Ba eukan zer esana Lafitte umoretsuak!

Beronek deitu ta agian, T. Monzon eta Manu Sota etorri jata-zan arratsalde baten, an ondoko landan egurastuz alkar-izketa lu-zea eukiaz, Etxeruzkoan, Sota'k Biarritz'en eta Monzon'ek Doni-bane Lobitzune'n gelditzeko eskatu eustien, nik olan egiñik. Inte-resgarria iruditu jaken nik esku artean nerabillen lana.

Beste adiskide bat be etorri jatan, Otxandiano jauna, gerra zala-ta Bilbo'tik ara joana ta orain Baiona'n agin-ateratzaiaie zana; Zornotza'n eukan onek arreba bat, emengo Yartzta alkatearen emaztea. Bazkal ostean bere kotxeaz etorri jatan, eta eskerrak ari, Kanbo, Hazparne, Beloke, Baiona ta inguruak ikusteko aukera izan neban, Bakar-samar gagozanean onak izaten dira onako adis-kide biotz-zabalak.

Azkenez Baiona'ko Apaizgaitegian egon nintzan, «So Egille» euskal idazle, Alberdi ta beste euskaltzale batzueri eskua estutuaz. Gabaz *ango* karmeldar mojen komentuan lo egiñik, Miarritz'en

Sota'en Etche Pherdean bazkaldu, Donibane Lohitzune'n T. Monzon'en liburutegia miretsi ta Donostia'ra. 1954'ko urtarrillaren 27'garrena neban. Pozik nentorrela esatea, geiegi ez dala deritxat. EUN orrialdeko kuadernu bat nenkarren alde bietatjk letra xee-xecaz neuk idatzita, Uztaritze'n baturiko angoen olerki bikaiñakaz, baita P. Lafitte'k adeitsu gaiñeratu eutazan Lapurdi, Baxenapar eta Zubero'ko bertsolari ta pocten bizi-zeaztasunak be.

Orrelaxe osotu neban nik olatsu konturatu bage, Orixe'k, aurkibidea ikusiaz bakarrik poz-bitsetan esan eustana: «Azke jaunaren *Cancionero Vasco* ta auxe dituzu euskal Literaturako libururik bikaiñenak». Beraz, Zarau tze'ko Itxaropena'ri aurre-kon•tua eskatu ta irarkolara nire 1199 orrialdeko lana.

1953'ko abustuan Uganda'ko Erregeak ikustaldia egin euskun Albizfko Kondeagaz eta bertako apaiz jaunagaz. Komentu guztia erakutsi geuntson barru ta kanpo, eta azkenez koruko errezu bitartean geugaz egon zan. Oso pozik aurkitu zala zirudjan.

20 EIBAR'EN

Liburu ontako irar-utsen azterketan niñardualarik orra Nagusi-Batzar barria, Begoña'n, 1954'ko maiatzaren S'an. Olakoetan oi danez, praille batzartuen zarbokeri, azpilan eta jorraldiak almenean ebiltzalarik, nik neure lanari nekion, buru-belarri. Uts batzuk alan be b2ti txirris_t egiten, arrain txikiak sare-oboetatik lez. Eta gure A i ta Nagusiak, euskeraz tautik ez ekianak, izterbegiren batek belarrira zuzmur eginda edo, nola atera neban ainbeste eutsekin nik, arako bidea artu neban.

Larrako nire iru urteak burutuak ziran. Aita Errapel markiñarra, leen Larrean neugaz nagusi izana ta gero iru urtez alkarrekin giltzape egona, Eibar'ko nagusi izentatu eban Batzar nagusiak eta Aita onek ni gura ninduan bere ordezeko Eibar'en. Beraz, Zornotza'n oso pozik egonda be, nagusien naiari men egiarako bidea artu neban.

Karmeldarrok Eibar'en Txonta'n euki genduan lenengo geure egoitza, Karlos Elgezna ren lantegian; gero Urkusu'n jaso gen-

duzan kapillea ta bizilekuak. Lurzati b it gero onen jarraian emon euskun Orbea familiak, ez aundia be, baiña naikoa. Ego erre kara begira, Donostirako bide ertzean, eta bigarren kapilla au, uria aziaz joiala ta eleiztarren eleizarako griña be bai, andik urte bira eleiza aundiago bat jasotea otu jaken karmeldarra, euron Amak, Karmengo Amak eleiza zabal aundi eder bat merezi ebala-ta. Eta Jazinta Orbea biotz-zabalak emondako lur-zatian, eibartar erriak eta Udaletxeak lagunduta, jaso zan gaur Eibar'ek daukan Karmengo eleiz ederra. Aita Errapel izan zan nagusi sei urte oneitan; ni iru urtez aren orde zko.

Eraikintza au Lorentzo Arbelaitz jaunaren eta Ziriako Anai karmeldarraren ardurapean burutu zan. Donostiko Lukas Etxebeste'ren esku egoan eleizearen eta komentuaren azur-mamiñak jasotea, eta lan au, ni ara orduko, 1954'ko maiatzaren lenengoetarako osoturik aurkitzen zan. Etxegintza onen azpiak 510 metro laukikoa zan, eleizeak 43 metro luze ta 20 zabal eukazala; dana gotik-egikera uts-utsean. Eleiza gainean datoz ezker-eskuma bizilekuak, jantoki, liburutegi ta abar.

Aratu nintzanean ni jarri ninduan Aita Errapelek eleiz eta etxe-apainketa onen arduradun. Eleizearen barruko apainketak —borobil-erdia, zeru-ganga, petxiña, zutoiñetako kapela, langela ta abar— Donostiako Letamendia ta Aurizanea etxeak egin zituzan, besteak barriz Eibar'ko Arruabarrena jaunak, azpiak Durango'ko Ulazia jaunak, bidrierak Donostia'ko Maumejean etxeak, ateak eta zurezko leiok Gasteizko Agirre anaiak, Karmengo Amaren erdiko altarako pinturak Bilbo'ko Jenaro Urrutiak, margolari ospe aundikoak, geroago bape lotsa barik ezabatu zituenak.

Oso-osorik amaitu bage egoan arren, 1956'ko garagarrillean, Karmengo Amaren bederatz-urrenera etorriko zan jentearren elejza zarra estuegia izango zala-ta, ainbat ariñen adela-jaiak egitea otu jakun, eta olantxe egin zan. Aukeratu genduan eguna, garagarrillaren 1-a. Aurretik, irurrena, jente asko-askok parte arturik.

Inauguraziño igandean, goiz-goizetik kale-jirak txistu ta dandobil soiñuz. Emen genduan laster Donosti'ko Gotzain, karmeldar Nagusi ta aolkulariak, Karmelo'ko «Gaztedi» dantzariak, karmeldar eta errietako apaiz ugari. Mateo Muxikak egiñik itzaldia eus-

keraz Perossi'ren «Secunda Pontificalis» abestu zan. Donostiako eta Eibar'ko irratiak lau-aizetara zabaldu ebezan eleizkizun guztiak. Meza ostean «Gaztedi»-k bere ekitaldia Urkusu zelaian.

Iru urtez, onetan erre nitun nik neure kemenak, batez be. Oindiño ez osorik, baiña naiko orniduta gelditu ziran eleizaren eta lekaide-egoitzaren apainketak. Gero gerokoak. Ez da leku ona, ezta txarra be Eibar'i gain-begiratu bat emon ezkeru, gure komentua aurkitzen dana. Gaur lur-zatiño orretan be egin lekean beste modu batera, baita eleiza gotiku egikerako baten ordeztuntzional bat be, goialde zapalagokoz, eta goi-alde guztia bizileku, areto, sala, sukalde ta langelaz apain. Oindiño be nik ez diñot olako zerbatu egin eziña litzakeanik. Jainko-zalea da eibartar jentea, eleizkoia, ta merezi leuke... Erreza dozu zentzun gitxiko miña erabiltea; baiña, egiñetara jo ezkeru, guztiz epotx geratzen.

Ez neutson Eibar'en uko egin euskal arloari. Ementxe argitara nebazan «Milla Euskal Olerki Eder»-ez gainera, «Goi-Zale» ta Arrese-Beitiaren «Olerkiak», eta ainbat artikulu «Karmen'go Amaren Egutegia»-n, Emengo iru urteetan ainbat itzaldi egin nituan errietan, bertoko parrokiari, Arrate, Elgoibar, Mendaro, Sasiola, Garagartza eta Mutriku'ko Kalbario'n.

Kristoren itza otsegiten nengoala. Elgoibar'ko San Lorentzo bailaran telefonoz iragarri eusten 1957'ko agustuaren 7'tik aurrea Begoñan ospatu zan Batzar Nagusian Larrea'ko Priore egin ninduela. Orain be, orixegaitik, Eibar eta bertoko jente on-zintzoari agur esanaz, andik aldatu bearra. Leku jakiñera niñoian, egia autoritzeko. Arrezkeru emen jarraitzen dot tinko-tinko, gure muiñoetako pago tantaian antzera.

21 OSTERA BE LARREAN

Nagusitzak, ez ukatu ezpan-okerka, ba-ditu alderdi onak, aldaketa oneik alan be, nainoz izan oi jakuz neketsu samar. Menpetasunak orixe dau eskatzen eta gaztetan eskiñari zaputuz agertzea, doi-doi pekatu larria dozu. Beioa beraz lekutara ipur-txuntxurka olako gogoramen itsusia. Eta Eibar uri langilleari zorun-bit setan

bizi bai nintzan be, urriñera ezkondu dan emaztegaia bai nintza-kizu, Zorntoza'ko bazter atsegingarri ontara etorri nintzan. Ez nintzan neurez etorri, bertokoak eskatuta baiño. Onek esan nai dau beso-zabalik artuko ninduela.

Esandakorik ez noa barriz aitzazera. Txaramelak beti soñu ba, aspertu egiten. Barruko ez diranak olan uste izanda be, komentu bizitza ez da bape aspargarri. Goizoroko txori-kanta ez ete jatzu gozo baizen atsegina? Olako zerbait dozu komentuko lan- armonia ta ots-kidetasuna. Egon al zara iñoiz erlauntz ondoan erleak dakarien iskanbllari begira? Zazpi erlauntz daukaguz guk, eta ni sarri egon oi naz bigarrenearen aurrean batez be, Arein lan- jorana! Zelako sar-urten bearra! Iñoiz ez dagoz geldi. Noizik hein erle-mando edo nagiren bat aterazten dabe ate aurrera ta nik ez dakit zer egiten dautsoen; zirkin hatzuk egin ondoren, ankaz gora geratzen jatzu. *Ouasi apis argunzentosa...* Erle langille lez jokatu bear da komentuetan.

Bai, bakotxa bere zer-egiñera. Au autortegira, besteak igandeko itzaldia ikasiko dautzu; urliak urli erriko abadeari lagunduko, autortzen eta predikatzen edo-ta gaixoak ikertzen, umeai dotriña irakasten naiz eleiz abestiak kantetan. Sandiak zoli diardu aben- duko, garizumako naiz edozein santuren egunerako sermoia ikas- ten; onek etxeko diru-kontua daroa, arek sarbarriak zuzentzen ditu. Anai arek ortuko ardurea dau, barazkiak zaindu. igali-zugatz eta matsparrak oillo, txarri, beiai jaten emon. Bai, kome- tu-bizimoduak ba dau arazorik! Barruan bizi latza, koruko otoi- tza, liturgien orduak, gaberdian jagi-bearra, ikasketak, kantuak...

Kanpoko leiak etenbakoak ditugu. Elizkoi izan da Bizkai erria, eta ba-da gaur be, naizta azken bolada ontan askotxok lan egin, ixilka ta garraxika, gure erriari ondo sakonduta daukan fede- indarra moteldu ta ito-nairik. Aupa, euskaldunak, esna ta eutsi fedeari, Tainkoa ta geure ondasunak zaindu ta maite izanaz. Fedea guk dogun altxorrik bikaiñena. Kendu fedea gure erriari ta beera doaz bertatik gure balio guztiak, gure arte, lege ta etxeak; abere-mai- llan geratzen da euskaldun gizona. Olan ikusi nai ete geure erria? Nok nai ete aita edo ama itsusi? Origaitik diñoen zenbaitek: «Ez do, bizi nai Tainko bako Euzkadi'n».

Euskalerrian, eta Bizkaia'n batez be, iñun ez beste eleiza ta ermita daukaguz; ementxe bertan, Zornotza'n ogei bat ermita ezagutzen dira. Ermita orreitan Santuaren egunean ez da falta mezarik, ez itzaldirik. Orain ez ainbeste, baiña leengo urteetan komentuetara jo oi eben sermolari billa.

Larrea beti be nasai samarra izan da lurren, aurreko jaubeak itxita geiena. 1958'ko jorraitaren 16'an beste zati bat, ia ektarea bi, erosi nebaxan sortaldera begira; karmeldar gaztez beterik egoan komentua, ota uste gendunez emen urrean etxe geiago jasoko etc euskuezanaren bildur giñan. Lur-zati ori gaur ortu ta sagasti dogu.

22 SERMOLARI

Jarraibide ona emon bear ci dau etxeko nagusiak, orduan bai gagoz aren aginduak beteteko bizkor ta gogotsu. Nik ez dot, ez da au arrokeriz esana, begion aurrean au izan eta atze onak par-irri polito eragin. Leenengo iru urteetan eta gero, gaur arte, asko be asko ibilli izan naz errietan sermolari. Eta ao betean autortu nengike ez dala oginbear kaxkarra. Serrnolari bogi-luzea ba zara, asko ikasten dozu zeu konturatu barik errietako istori, kultura, euskera ta olako milla gauza interesgarri; emengo autortegian entzungo duzuz ainbat itz bestean entzuten ez diranak.

Onak be badau garrantzirik nire istorirako, nundik nora ibilli nazan izlari: Bizkaian bakarrik: Bilbon (Begoña, Katedral, Karmelo, Karmen, Bizente, Gizkarbi), Getxo, Algorta, Berango, Sopela, Urdulitz, Gorlitz, Leronitz, Laukiz, Gatika, Armintza, Mungia, Laukaritz, Larrauri, Meñaka, Fika, Morga, Larrabetzu (Goiko ta Beeko), Lezama, Derio, Bakio, San Pelaio, Bermeo, Almike, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Gernika, Errigoiti, Muxika, Areatza, Gorozika, Ibarruri, Albiz, Mendata, Arrazua, Belendiz, Axangiz, Nabarniz, Gabika, Ereño, Kortezubi, Artia, Kanala, T barran^golua, Elantxobe, Natxitua, Ea, Badarona, Tzpaste, Lekeitio, Mendexa, Amoroto, Guizaburuaga, Aulestia, Arbazegi, Gerrikaitz, Onclarroa, Berriatua, Markiña, Etxebarria, Bolibar, Mallabia, Zaldibar, Berriz, Durango (Santa Maria, Santa Ana, Tabora), Izurtza, Mañari, Elorrio, Apata, Arrazola, Axpe, Abadiano,

Urkiola, Otxandio, Dima, Ubidea, Zeanuri, Areatza, Arteaga, Arantzazu, Igorre, Zeberio, Orozko, Arrigorriaga, Audio, Etxebarri, Karrantza, Truzios, Galdakano, Usansolo, Bedia, Lemona, Zornotza, Etxano... Eta erri oneitako ermita geienetan.

Mendietako jaiak beti eder gure lurrean! Egona nozu izlari Gorbeian Iñaki deunez, Oiz, Mendiola ta Lemoatxe'n San Antoliñez, Urkiola'n San Antonioz, Mañari'n Aita Kurutzekoz, Belatxikietan, Ipiñaburun, San Anton Txikerrez Usansolo'n, Larrabetzun eta Larra auzoan San Bartolomez, Birkargi'n Santa Krutzez, San Juanez Gaztelugatxen, Urregarai'n Santa Eufemiaz... Santuen atxakiz, erromeri galantak nunnai.

Gaur, zoritxarraz, asko aldatu da gauzea. Gaur Santuaren jaiak dala-ta guna atera nai egunari, aurreko ta ondorengo istillu ugariz. Santuaren egunez mezea goiz-gozetik, mezea labur, itzaldia bardin... Gero ardaoak nasai ta ugari egunetan; jan eta edan asetu arte, gabez deabruaren erromeri, musika, kanta, dunbots arrotza, izarrak lotaratu arte, giza-griña narrasai jaki ta bizigarri naiko emon arteño. Orretarako jaso ete ebezan ermitak gure asabak? Jai orreitako zantarkeriak ikusita, predikari asko ikusi ditugu gure mendi ta inguruetakoa jaien aurka egiazko esanak, miin zorrotz esaten. Nik be, ez gitxitan, bota ditut olakoak, eta jenteak, jente zuntzundunak beti txalotu izan nabe.

Ia asteroko itzaldiz gain, ainbat Gogo-jardun zuzundu bear izan dodaz etxean eta kanpoan. Klausurako mojai omonak ez dira gitxi: Logroño, Kabreton, Haro, Gasteiz, Iruña, Donosti, Zarautz, Azkoiti, Markiña, Zaldibar, Durango, Orduña, Getxo, Begoña... Karmeldar Ordenakoai batez be.

Kultur-konferentziak zaar eta gazteai: Arantzazu, Zaldibar, Zaldibi, Tolosa, Arrasate, Andoain, Zarautz, Donosti, Errexil, Eibar, Ondarru, Lekeitio, Gernika, Mundaka, Bakio, Laukiz, Lezama, Bilbo (bost-sei bider), Basauri, Galdakao, Lemoa, Igorre, Zeanuri, Otxandio, Mañari eta Zornotza'n bereziki. Batzokiak be deinkatu ta kultur-ekintza askotan parte artu bear izan dot, meza ta itzaldiaz arduraturik.

Etxean, eleizatik kanpo, astero lez euki oi genduan garai atan komentuko batzarra; eta olakoetan, utsak zentzatu ez-ezik, nagu-

siak batzar asieran ia ordu erdiko berbaldia egokitu oi eban. Aste osoan sarri lagundu bear jaken abadeai bai bederatziz-urren bitartean eta bai beste gertakizun batzuetan: Juan Mendibek Urkiola'n urteetan izan nindun lagun, zein bagillean San Antonio jai inguruan, zein urrillean edo-ta udaldian.

Naikoa bekit gai ontaz. 1960'ko garagarrillaren 23'rarte izan nintzan emen nagusi, urte eta egun orretan ospatu bait zan Begoñan Batzar nagusia, Geroago be aukeratu ninduen 1972'tik 1976'rako Gasteiz'en ospatutakoan. Iru urte oneik bete nebazanean, emengo buru lez, liburu arazoan naiko lan neukala-ta, olako karguetatik aske itxi ninduen.

Sermoe arloan ez nintzan bakarra, ez aurrerago, ez orduan, ez geroztik. «Larrea eta Karmeldarrak» liburuan onan idatzi neban nik, Larrakoak 1932'an egiñiko lanak gogoraturik. «Larra'tik egin dabez itzaldiak Durango'n, Abadiño'n, Arratzu'n eta Larrean. Gogo iñarkunak edo mixiñoak: Lontzi Abak Arrankudiaga'n, Aita Juan Antonino'k Mañari'n; Aita Martin'ek Garai'n, Elantxoben eta Getxo'n. Aste gureneko itzaldiak: Arratzu, Bedia, Arrankudiaga, Bernagoiti, Etxano, Larrabetzu, Lezama, Garai ta Getxo'n. Begillekoak aitatuaz onela: «Bagillan Larra'ko karmeldarrak orremen edozenbat itzaldi izan dituez». Ona batzuk: Juan Antonino'k, Jesus'en Biotza Fruniz'en, ibarrurin, Andoni Deuna Larrabetzu'n eta Etxano'n, eta Juan deuna Ergoien'en. Lontzi abak: Gaztelu-Elexabeiti'n Jesus'en Biotza, Gokaxuena ta Andoni deuna, Gorozika'n eta Arrankudiaga'n, jesus'en Biotza; Aita Simon eta Martin'ek ainbat eta ainbat lekutan.

Gerratean eta gero makaldu zan zer bait erriak fedetuteko jardun errime au, baiña eder onen koroia lez, 1960-63 bitarteko kronikeak au diñosku: «Lekaretxe ontako Aitak, Santuen itzaldiak, mixiñoak, Gogo-iñarkunak, Iru-urrenak Pazko aldirako, ta abar, urrengo parroki oneitan egin dabez: Amorebieta, Etxano, Durango, Mañaria, Otxandiano, Gaztelu-Elexabeitia, Muxika, Arratzu, Arrazola, Igorre, Zeanuri, Ipiña, Undurraga, Usansolo, Urduliz, Albiz, Bermeo, Bilboko San Anton, Begoña, Zamudio, Lezama, Arrieta, Errigoiti, Belendiz, Ibarruri, Ereño, Larrabetzu Goiko ta Beko, Urkiola, Meñaka, Sopolana, Ajuria, Axangiz, Men-

data, Dima, Gatika, Markina, Berriataa, Gorozika, Munitibar, Zaldibar, Berriz, Bengoetxe, Galdakanc, Lemona, Izpaster, Area-tza, Bedia, Eibar, Aramaio, Aretxabaleta'n.

Aldikada batzuetan parrokuen ordezkotza egin izan dogu Etxa-no, Erletxe, Urkiola, Arrazola, Zuazo, Bengoetxe, Durango'ko San Fausto'n eta abar. Udaldian eten barik joan izan gara, orrez

Gorbea, Beletxieta, Urkiola ta Bekea'ra igande ta jaietan.

23 JAIK

Erri jaiak eta eleiz jaiak ugari, gaur alan Lanari muzin egi-ñaz, jai-larriak jota gabiltz guztiok. Ez larunbat-igandeetako opo-rraldian edo jaietakoetan bakarrik, aste bitartean be olakoren bat sartu al ba dogu, obeto. Gazte ikasleak eta onein irakasleak jai billa ikusten doguz pitean pitean; langilleak era berean, baita gure baserritarrak be.

Zornotzan be nik tnutikotatik ezagutu dodaz. Urte bitarteko egutegian datoza oituzko ta eleizako Santuen jaiak beti izan jakuz biotz-betegarri. Guk geure errian ba genduzan jaiak, baiña emen-goak ezin ukatu ederragoak ditugu. Oncik ba dabe aparteko zer-bait, ixil gozotasun bat areik ez eukena. Zer ete? Esan eziña ta edozeiñek ulertzen ez dauana, goi-kutsuz asetzen gaituna. Biotz-barruko ospakizunak lez, sendi ta aide-harrukoenak be lits berezia.

Larrako komentu onetan guk jai asko eg¹ ren doguz urte barruan, kalekoak konturatu barik; abitu artzeak, profesak, edozeiñen urte-beteteak; nagusi bat datorrelako. geure Ordenako santu baten egunez, eta abar. Barru ta kanpo jaitu oi doguz beste batzuk, Kar-mengo Amaren eguna garillaren 16'an, Teresatxo deunarena, Santa Teresa ta Gurutzeko Juan deunarena; Gabonak, Urtebarri, Erre-genak...

Karmeklarrok onetan, Santa Teresak itxitako zerbaiti iraunazoz ba doguz oindiño berarizko zer batzuk barruko pozkariora agert-azteko. Gaztelar Santa aundi arek laga euskuzan Gabon eta Egu-herri aldikp bertso, kanta ta jolasak guk ez doguzala naiko zeatz

jagoten, guzur biribilla lizateke. Urte zarra agurtu ta berria as-
tean, Erregenak... eleizan kantu sentikorrez bezela, geure baz-
kari-aparietan be, ez dabe festa giro urria izaten. Garai onetan,
gaiñera, Praga'ko Jesus Umeari jai berarizkoa eskiñi oi dautsagu,
arratsaldean batez be, Gure Jauna agirian dala, eleizkizun eraspent-
sua. Gazte bat izaten da sermolari.

Guztion artean Karmango Amarena da aundikiroen ospatzen
dana. Garillaren 16'garrena orduko bederatzi eguneko gertakizuna:
goiz-goizetik Errosoaioa plazatik komentura Andra Mariari kantuz
ta errezuz, meza ondoren, itzaldi apartekoz, erri-otoitiz, eresi ta
goratarrez. Onen koroi Karmengo egunean, Zornotza'tik eta
albo errietatik bertoratzen dan jentez blei-blei ordu erditik ordu
erdira esaten diran mezak. Amabietan meza abestua, eleiz-aurreko
zelai nasaian, alkar meza bikaiña; kantu, itzaldi ta bertsolari.

Meza emoilte ta sermolaria, beti aurreffc aukeratuak: ez edozein
etxeko nagusia edo kanpoko onenetariko bat baiño. Bertsolari ba
tek be, jentearentzat ao-gozagarri, Karmengo Amaren aintzak, edert-
tas unak eta mirariak; ni mutiko nintzala Areataz'ko Kepa Enbeita
etorri oi zan, geroago aren seme Balentin, eta azken urteotan Jon
Azpillaga motrikuarrak egin izan ditu bere iru ekiñaldi errime.
Goizekoa amaitzeko, Zornotza'ko dantzari-talde «Udabarrri»-k be-
re saio ikusgarria.

Onen maillara eldu ezta be, Santa Teresaren jai,
ña izaten da Larran. Eraspent batzuk, edo-ta Santu batzuk, ez ditu
errez onartzen erriak. Beste batzuk berez-berez irabazten b;otzak.
Emakume arrigarri onek ondo ezagutzen ebazan euskaldunak, asko
lagundu eutsoen-eta. Il aurretxoan Burgos'en eta Soria'n komen-
tugintzan ebillela, Orduña'raiño etorteko gogoz egoan. Etzan onai-
ño baiña gaur andik laster jasota, 2- bat lekaimetxe daukoz
Teresa deunak euskal lurtean.

Geure artean sarri esana: «Zergaitik batzen ete da Larran ain-
beste jente Santa Tercsa'z? Joan dan mendetik zear asko be asko
batuaz ikusi dogu jentea, Arratj, Larrabetzu, Gernika, Abadiño
aldetik. Leenago jateko ta guzti berton eguna emotera etorren jen-
tea, gaur ainbeste ezpadator be. Goizean meza abestu ta itzaldi,
bazkaldu ta arratsaldean eleizkizun, itzaldi ta prozesiño, pozez ga-
ñezka biurtu oi zan jentea euren etxeetara.

Beste jai bat ixildu eziña: Ixidor deunarena. An, 1919'an Aita Martin sermolari erneak ipiñi eban zutik jai au, inguruko baserri-tarren artean osoturiko alkarte, ikurrin eta guzti. Arrezkero utsik egiteke ospatu izan da emen Santa Teresa, Loiolako Iñaki deuna, Felipe Neri ta Alfonso Maria deunagaz batera Eleizeak altaretara jaso euskun Santu lugin onen eguna, meza abestu, itzaldi, proze-siño bedekintuz, kanpai ots artean erriko agintariak be esku artzen dabelarik.

Komentu guztietan bezela, Kofradi pilloa dogu Larrean: Karmengo Amarena, Irugarren ordenakoa, Teresatxo deunarena, Ume Jesus'ena, Uzurtz eskola, Dotriña, Gogartetxea... Eta, jakiña, orrei be laguntza ipiñi bear.

Laguntza ipinten ez da nagi agertu Zornotzar erria. Ezta agin' tariak eurak be. Noizik bein baiña izan oi jakuz bereizkuntzak edo-ta legetik kanpoko zerbait. Eta izterbegi edo antzekoak agirian jarten diardugun ezker, bein niri gertatu jatan au be ez dator txarto, ta bego emen: neure lenengo nagusitzan izan zan, Karmengo jaia zalarik; Udaletxeokoi, beti lez, Karmengo jai bezperan jaia iragartera joan nintzakioen, oitura zanez; baiña aurreko urteetan lez, eleiz barruan «txinda-txindarik» ez joteko esan neutsen. Aserratu jatazan eta etziran etorri ez Udaletxeokoi ez bandakoak. Gero, nik zabaldu neban eleiz-barruan galazota egozala ereserki burrunbatsuak. Komillas'en aurkitzen zan Aita Regatillo jesuitari itandu eutsoen ia espaiñar naziño ereserkia zaratatsua zan ala ez. Baiezkoa izan zan aren erantzuna. Or amaitu zan gauzea. Baiña euren asmo gaiztoa agirian gelditu zan.

Bigarrenez nagusi nintzala be Udaletxera dei egin eustan orduan alkate zanak. Ara joan nintzan ipiñi eustan ordu-orduan. Luzaro jardun genduan alkateak eta biok, meza batzuk latin esan bearra geunkala-ta... arira jo barik. Ordu bete luzean ez eustan aitatu zetan dei egin eustanik. Gero, komentura nintzaneko telefonoz deika neukan: esan eutsoenez, Karmengo jaietan, bertsolariak egozala Larran... galazorik egozala... Nik erantzun: «Larrako barrutian neuk agintzen nebala». Ak: «guardizibillak bialduko eustazala». Baiña leoietatik eleiz-aurreko zelaira bitartean etzan txapel-okerrik Karmengo egunean agertu.

24 ERROMES-TALDEAK LARRARA

Larrako muiño au lorontzi eder da, beti usain-jarioka —idatzi neban nik beiñola. Baita argi-mutil apaiña be, eguzkiaren goiz-erraiñu bareko, esan geinke. Argi-jario bizia izan be, Larrako santutegitik urtenda Bizkaiko erri guztietara zabaltzen dana. Bai, eguzkiak bere bero-aldia dauan lez, goitiko bizitza jatorrak Larrako txokoa dau erdi-une bikain. Ez, Larrako eleizeak eta komentuak ixuri daben zerutar arnasa, ezta makala, ez iñolakoz.

Erromes joan-etorri asko burutu dira Larrara, leenago eta oraintsu. Leengoen artean aipagarri dira gizaldi onen asieran egin-dako iru, Durango aldetik, Arrati'tik eta Bilbo'tik egiñak irurak.

Lenengoa, 1904'ko Pentekoste bigarren egunean ospatu zan Durango inguruko parrokuak eratuta. Orduko kronikeak onela: «Zornotza'ko eleizatik Larrako komenturaino luzatzen zan jentetza ikaragarria, balkoi guztiak apain-apain jai-jantzi ta edergarri; uztai berdez ta ikurriñez komentu aurreko zelaia; Karmengo Ama eder eta zoragarri. Txalo beroak merezi dabez jai au edertzen lan egin daben guztiak.

Bigarrena be urte orretan garillaren 4'an. Arrati'tik etorria. Ubidea'tik etorri bear zana be, goizeko zortziretarako Zornotzako parrokan egoan, gero kaleak betean Larrara etorteko. Erri bako-txak buru ekazan eleiz eta erri buruzagiak, onei bidera urtenik emengo eleiztar eta eleiz-gizonak. Larran karmeldar Aita batek emon eutsen ondo-etorria, eta meza bitartean abade bik itz egin eben batera, batak eleizan eta besteak aurreko landan. Arratsaldeko elezikizunean barriri agertu zan Arrati'ko seme-alaba leialak Karmengo Amari eutsen maitasun beroa.

Irugarrena, urte orretan, garillaren 24'an, Bilbo'tik egiña izan zan. Azillona ta Urkixo jaunak izan ziran erromes-txango au eratu ebenak. Kronikeak diño: «Zornotza'ko plazan danak alkartu ondoren, zortzi bat milla guztira, Larrarantza garaipenezko joatea». Eleiz barruan esan zan meza nagusia, kanpoan geratu ziranentzat barriz landan bertan meza ixil batzuk. Karmeldar autorleak ori nai eben guztiai emotsen aukera. Arrastian be, amaika errosario, kanta ta gora izan zan Andra Mariaren aintzaz.

Zornotza'ko ta Etxano'ko gazteak be etziran atzera gelditu. [1925'an, peregrinaziño bi egin ziran. Lenengoa, bete-betea, ta Donosti'ko Karmengo Kofradikoak osotu eben. Makiña ba, lan egin genduan guk —ni esan dot ikasle nintzan bertan— inguruak al baita eta ondoen garbitu ta apaintzen! A eguna! Bigarrena, udazkenean, Donosti'ko, Markiñako eta beste erri batzue-tako umetxoakaz. atondua. Tren berezietan etorri jakuzan mordoak, millaka kolorezko jantziz apainduta. Urrengo urtean be, 1926'an. beste olako bat Gernika, Durango ta Arrati aldetik.

Gerra amaituta laster, 1939'an, Kristor²ⁿ Igokunde egunez, Bilbo'ko San Anton'go Eukaristi-gurtzailleak etorri ziran, erromes-antrean. Etziran bakarrik be, Zornotza'n Durango'koak alkartu ja-kezan eta. Andik eta emendik etozanai Larrako prailleak, kapa zuriz jantzita, Zornotza'ko trenera urten eutsen eta parrokitik. Larrara danak batera. jai-aldi ikusgarria, Gure jauna agirian eroanez. Ben. zeslao Maiora'k berba egin eutsen erromesai Larrako eleizan.

Beste jai gogoangarri bat 1947'ko maiatzean, Teresatxo deu-naren eriotz osteko berrogei ta amargarren urtea ospatzen zala-ta, inguruetakoko erri askotatik be, jazokun ari berea emon naiez, arri-garriro Larraratu zan jentea. Etziran edozelako gertakuntzak egin aurretik, mixiño itxurea jaiari ezarri nairik. Ibildeun ikustekoa eratu zan, karroza ta guztiz, Larratik parrokira, eta urrengo egu-nean gure eleizea txikiegia zala-ta, gure eleiz-aurrean oltza *apain* baten gaiñean esan zan mezea, Aita jose Luis Beobide ta Labino buru zirala. Orduantxe antolatu zan gaiñera Larran arrezkero umez ugari ta ikaslez ugariago beti agertu jakun Kristiñau-Ikasbidea.

1951'an, Karmengo Eskapularioaren zazpireungarren urtean gengoalako elejzkizun miresgarriak euki genduzan. Bertoko nagusi nintzan garai atan eta ondo dakit noraiñoko arima-min bizia sen-tiduten zan ordun Larra inguru guztian. Urte barruan ainbat «Ku-tun-egun» euki genduzan errietan. Karmengo Amaren bederatzi-urrena, bere jai-eguna ta urrengo domekea oi zan baiño ospetsua-go igaro genduzan. Baiña eun urteburu a jaituteko Larran egin zan gauzarik ederrena, zemendiaren erdiruntz, 16, 17 ta 18'an euki genduan irurren beroa izan zan, 17'an, illunabarrean, argi ta

maitalez inguraturik, Larratik parrokira eroan genduan Karmengo Amaren irudia. Nik neuk ez dot Zornotza'ko eleiz zabal nasaian iñoiz ikusi ainbeste lagun. Irudia an egon zan gau osoan, biotz leialak zainduta. Urrengo goizean parrokitik Larrara, bere aulki apaiñera, ta emen meza nagusia. Aita Seberino, Anclikona'ko seme argiak emonda, Bertoko ta kanpoko etzan jente gitxi auspeztu Larrako Karmengo Amaren oiñetan!

Eta azkenez, 1963'an, izan genduan emen zaratarik, Karmengo Amaren bederatzi-urren bitartean, Santa Teresaren besoa genduala bide. Garillaren amaikan, eguerdirantza, eldu jakun Bilbotik Zornotzara erriz erri ebillen dalako besoa, eta arratsaldean egin geuntson arrera ziñez biozkorra; lenengo udal-etxean, gero parrokian, eta andik Larrara. Emen giñan guztiak, praille, abade, erri-agintari, moja, ta gaiñerako danok, maitasun eta gar berberak korapillotuta: danok Teresa Amari otoika ta txaloka. 12'garren eguna osorik Larran emon eban Euskalerrian zear ospe aundiz ebillen beso miresgarriak. Ez asi kontaktak egin naita: Jainkoak eta berak (Teresak) bakarrik dake Zornotza'n zenbat belaunikatu jakezan orduan.

25 LARRAKO ANDRA MARIAREN KOROTZEA

Erakarpenez inguraturik bizi gara. Larreak, esaterako, badau zerbait alkar tiraka, izarkiak lez edo batak besteari indarka, ederra ta naimena, alkarri dautsela, maite diran bik alkarri agur esatearen pareko nunbait; maitatzea bada arimea osotoro maiteari eskintzea bai, dozu. Gorputz eta arima, maitasunez alkarri dautsela. Kasu onetan Larrea ta Karmengo Ama bero maite dauzan Euskalerria.

Ederra ta ona alkarrekin dabiltz. Ederra da Karmengo Ama, ta graziaz betea; ona da Karmengo Ama, Euskalerriari eskerrez, doez eta mesedez on egiten diarduana. Larrea dau iturri, Doe-sorburu agor-eziña, Familiak eta familiak or jentea, orrek erakarrita, sentitzen dauan egarri bizia ur bizi orretan arindu nairik.

Ezta arritzekoa be jentearen irrirts-zaletasuna, Karmengo Ama, guztion Ama gero ta apain eta zoragarriago ikustean. Ortik sortu

jakun, Karmengo semeoi, Amaren burua koroï bikaiñez jaztea. Eta orrela egin zan. Kondairara jo ezker, Andra Mariak dituan izen eta deikundeetatik Karmengoa dogu berez ta izatez koroatua. Erregiña balitz agiri da beti Ama au. Eleizkizunetan Karmengo edertasuna, Erregiña deitzen dautsogu; irudietan naiz eleiz-altaretan naiz eskapularioa emotean, beti aurkitzen da Erregiña aulkian. Eleiz-oi turaz, Karmengo Ama izan da sarrien koroatua.

Irudi bat koroatua izateko, iru baldintza eskatu oi ditu Eleizeak: 1) urtez antxiñakoa izan dedilla, eta olan da Larreako au; 2) inguruko errietan be eraspen biziz ta maitasun sutsuz goratua izan dedilla, eta 3) irudi orren bitartez erriak mesede ta esker ugari artu izan ditula; millaka ta millaka bizkaitar auspeztu izan dira Larran Karmengo Amaren oiñetan, Beronegandik arturiko mesedeakaitik esker-ona erakutsiz.

Jazoera gomutagarri asko be bitarteko zirala, orretarako bear ziran leen-urratsak emoten asi giñan, etxeko praille, Probintziko nagusi, gotzain jaun, Erroma'ko Aita Santuaren baimena lortzeko ain zuzen. Dana lortu zan, baita Erromakoa be, 1967'ko epaillaren 30'an Pablo VI'garrenak Erroma'n izenpetua,

Erromatiko baimenak Larrako Karmengo Ama zergaitik koroatzen dan dakar lenengo: 1) Bilbo'ko eleiz eta erri-agintarien nai bizia ta eskabide sutsua agertzen da aurrenik; 2) Ama oni buruzko maitasunaren «Aulki oso ospetsua» dala diño eleiza au, bost errazoi oneikaitik: a) berreun urte dira karmeldarrak iduri au ipiñi ebela emen; b) Karmengo Anaidia eratu eben urte aretan bertan; d) Andra Mariaren oiñetara egiten diran erromeri ta eleiz-txango ugarriak; e) Andra Mariagandik arturiko mesede ta doaiak, eta g) Larra'ko komentua, karmeldarren mintegi dalako.

Errazoi guztiokaitik, Aita Santuak Bilbo'ko gotzaiña izentatu eban Larra'ko Andra Mariaren irudia koroatzeko. Baimenak lorturik egun aundia etorkigun gaiñ, Pablo Gurrpide Bilbo'ko gotzain jaunak bereala iragarri eban karmeldarrok geunkan asmoa, Erroma'tik artu zan Aita Santuaren agiriaren barri be emonik. 1967'garren urtea, Andra Mariari-oso-osoan eskiñitakoa izango zan. Urte santu ori berak edegiko eban Larrea'n, Karmengo Amaren egunean. Eta orrelaxe egin eban.

Karmengo jai-arratsaldeko seiretan, urte santuari asiera emokeran, Gotzain jaunak euskeraz egiñiko itzaldian, azkenean, onan itanduten eban: «Eta zer eskatuko dautsagu Ama Birjiñari? Ona emen nire otoitza:

—Guztioi begiratu eiguzu, Birjiña maitea.

—Etxean edo kanpoan lan egiten dabenai.

—Itxasoan dabiltzan seme kutunai, zu «itxas izar argia» ,zalarako.

—Arima edo gorputzean gaixorik dagozanai, osatu daitezcan.

—Emen dagozanai ta etorri ez direnai; ba, danon Ama zara zu.

1968'ko bagillaren 23'an izan zan koroatua Larrako Karmen-goa Amaren irudia. Berau dala esan bear Espaiña'n Karmengo Amaren irudi koroatuetatik laugarrena eta Euskalerrian lenengoa.

Gertakizun oni bere aintza ta gorespina emoteko, Koroaziño aurretik, bagillaren amaseian, Lora-jokuak be egin genduzan euskeraz eta erderaz, olerkiz eta itz-lauz. Sariak plazako zine barrian banandu genduzan, euskeraz Nemesio Etxaniz eta Andres Gomez karmeldarra erderaz irabazle beiñenak izanik. Bertsoetan Balentin Enbeita geratu zan gorenengo maillan.

Bagilleko zapatuetan eleizkizun ederrak egin ziran Larran, goizean Karmengo Amaren omenezko meza abestua ta arratsaldean, zortziretan, mezea eleiz-aurreko zelaian eta ondoren, argiakaz prozesiño ikusgarria zelai inguruan zear, argiak dizdiz, biotzak bero, eztarriak kantari. Lourdes bat zirudian Larra aurreak.

Koroaziño aurreko astean, egunero, eleizkizun bete-beteak goiz eta arrasti. Goiz-goizetik, sei t'erdietan, plazatik Larrara errosario santua, kanta-kantari, zazpiretan mezea ta **Arratsaldean** bardin zortzi t'erdietan; meza ostean, argiz, kantuz eta erreguz beteriko ibildeuna zelaian.

Egun guztietan, bagillaren 17'tik 22'ra izlari diferenteak gai oneik erabilliz: «Andra Mariaren tokia Jaunaren salbaziñoko asmoetan» (Aita Jose Lu; s Beobide); «Andra Mariaren tokia bako-

txaren salbazñoako bideetan» (Aita Onaindia); «Andra Mariaren bitartekotasuna» (Aita Jenaro); «Andra Maria, Eleizearen Ama» (Aita Migel Mari Juarista); «Andra Maria gurtua» (Aita Pedro Mari Duñabeitia); «Karmengo Eskapularioa» (Aita Fidel Sarriegi). Aste onetan bertan, 20, 21, eta 22, umeentzako Irurrena.

Bagillaren 22'an, illuntzean, Larratik parrokirako ibildeuna, argiak diz-diz, biotzak bero, eztarriak kantari. Erdian joian Karmengo Amaren irudia burdi apain batean. An zan Zornotza guztia, Amaren inguruan, berari agurka, errezuz eta kantuz. Esan zanez, Zornotzan etzan olakorik egundo ikusi izan. Urrengo goizerararte an egon zan gau-gurtzailleak lagunduta, goizeko iruretan euren adoraziñoako mezea abesturik. Danentzat gero, goizeko bostetan, egun-sentko mezea. Orduan asi ziran kanpotik etozan erromesak Zornotza beteten.

Amarretan parrokitik Larraruntz bideak eta kaleak jentetza aundiz. Erriko eleiz-gizon, karmeldar eta abar, kanpotik etorriak, Bilboko agintari ta laguntzailleak, Gurpide gotzain jauna ta beronen jarraigokoak... gure eleiz-aurrea ezin geiago arturik. Mezea Aita Migel Anjel Batiz, karmeldar Ordenako nagusiak emon eban, baita itzaldia euskeraz ta erderaz egin be. Andra Mariari koroia eskintzea, zazpi eleizgizonen artean Jauna banatzea, ta abar.

Meza amaitu zanean, Pablo Gurpide jaunak gotzain-jantziak artu zituan. Ixiltasun sakon-sakona. Bertatik Aita Santuaren Buldea irakurri neban nik, Larrako Karmengo Amaren koronaziñoa egiteko agintzen ebana. Gotzaiñaren itzaldia, gogotsu eskaturik euskeraz Andra Mariari, Bizkai guztiko semeentzat laguntasuna, bakea ta maitasuna.

Gero, lenengo koroia ta ondoren buru-ingurukoa bedeinkaturik, inguruko guztiak ixiltasun betean begira eukazala, Karmengo Amari ezarri eutson buruan. Bat-batean lertu ziran biotz guztiak, txaloka ta goraka. Eleizetako kanpaiak eta lantegietako adarrak durundaz bete eben Zornotza guztia. Egun zoragarria!

Espiritu gaiztoak badau indarririk gizartean, eta pozaldi ostean geienez, sarri erein oi dau naigabe-azia: orixe bai da bere egite-

koa. Koroatze ondoren idatzi zan: «Andra Mariaren koronaziñoak amorru bizian ipinten ei ditu inpernuko deabru guztiak; eta inpernutarrok alegin betean urteten ei dabe eragozpenak sortuteko, gauzak naastuteko, atxakiak biztuteko. Ikusi doguna ikusita, geu bc baietzean gagoz».

Bezperan bertan, koroï ekarri-barria ez euskuen ostu, ba! Egia esan, ez gendun lotsari aundirik izan. Urrengo goizean, Begoria'ko geure komentutik okarri ango Karmengo Amaren koroia ta ia iñor konturatu barik aregaz egin genduan koroatzea.

Izterbegiai etxaken au be gogoko izan, eta iñun diranak zabaldu ebezan L. arrako praillen aurka: geuri ostu ta geu lapurtzat jo! Baiña auxa da gaurko etsai biurrien jokabidea. Eurok beti erruge ta santu! Bai zera! iñok ez dautse siñistuten! Laster edatu zan or-emen gazte-talde batek eukala. Andik denporaldi batera, gazteok, damuturik edo, atzera ekarri euskuen koroia: goiz batez, atea edegitzean, ate-ostean aurkitu genduan. Olako izurpideetan mutilla dogu txerrenkoa.

26 DOTRIÑA IRAKASTEN

Lanerako da gizona. Alperrik ez dogu alboan bear, ezta kantatzen ez dauan txoririk be. Ez bei g'zonak iñoiz esan: «Ez dot lanik». Lekaideak, barruko bizitzari dagokiozanak bete ondoren, etxetik kanpo idoro bear dau zeregiña. *Lan* batzuk. baiña, gaur dirua irabazteko edo, ez dira eleiz-gizonarentzat egokjak, bai ostera beste asko. Dotriña erakustea, an naiz emen klaseak emotea, itzaldiak egitea, gure artean euskeraz irakastea, musika, arteak eta antzeko gaiak azaltzea, zeregin egokia, etxerakoa dirudit.

Nik urteak emon ditut gazteai Kristau-Ikasbidea erakusten. Logroñon urte pilloa egin neban lanean ebiltzan neskatillai erlejiñoa emoten. Emen, Zornotza'n urteetan joan nintzan San Millan'cra angoai erlejiño-gaiak erakusten. Orrek politika kutsua eukala-ta, miin gaizto batzuk, mokor artean murmur dagian erre-kaztoko uraren antzean, itximurka jardun ziran ixilka-mixilka, ni loitu nairik.

Zazpi urtetan, ementxe bertan gure komentu ondo-ondoan Estadu-eskolak eregi ziranetik, bertora joan nin tzan dotriña erakusten, ezertariko dirurik iñoiz be jaso barik. Urte baten gaztetxoai, urrengoan ez ain gazteai erakusten pozik joan oĵ nintzan; amar-amabi urteko gazteen arteko lan oni noberak artu bat dautso gustu apur, maiña pizkat. Nik sarri esaten dot: Batzuk zergait'k daukiez umeak eta gazteak ixil-ixillik eta beste batzuk ez? Gaurko gazteak ezin ezi leikezala-ta, askok emoten dabez orduak marmar utsean. Emon beie oneik gazteak eta umeak zelan azĵ ta ezi bear diran ikasten, eta... Maisuai euskeraz erakusten neutsen eta ume-txoai dotriña, eta pozik egozan nigaz, baiña ugaldu zan emen be bekaitzaren zorna ta azpi-jokoan bialdu ninduen andik.

Gero beste lau urtean, ementxe bertan, «Andra Mari» ikastolan lan bardiña egin neban. Eta gaur be bertan jarraituko neukean dana murrizten dauan iñartsia tarteratu ezpalitz. Batzuk uste dabe, arrokeriak zatzatuta noski, beste iñok baiño geiago dakiela. Egia ete? Or geroko ondorenak; bai, gero agertzen da ezetz. Gauza ba, dozu nai izatea ta beste bat al izatea. Neurtazo lenen zeure indarrak, besteena ondutzen asi orduko. Ez gitxik be, itsu-its zoritxarrez, norbera goituz eta iñorena eratsiz, astoak artotzan dagiana dagie, dana alperrik galdu. Ergel! Ni zaartzat jorik kendu ninduan batek aizea astindu ez eban besterik egin.

«Gazte» ta «zarren» arteko istillua. Burruka zoroa! Izlari liburuak onela: «Uskeri dozu gaztaroa». Ni beti izan nozu gaztetxoen lagun. Gazteak gaur ez dautzue eziketa legerik zaintzen. Oneik baiña niri ez dauste iñoiz Eliseo igarleari lez «Gora, burusoil, gora» ta olakorik bota; bai ostera mai tekor itz-egin. Ori noberak daukan doe berezi-berezia dozu, erosten ez dana. Urte gitxikoak izanda be, ba dituzu gazte zaarrak, kexaz beteak, naigabetan bizi diranak. Edu orretako gazteak gaienetan ez dabez begi onez ikusten besteen lan eta obariak. Zaarrak g'zartean —eta komentuetan— gazteen aldean errimeak dira, edoze'n gaietan, beti ari edo oni oratzeko gertu. Ixil begi, ba, funtsik gabeko izpide zatarra.

Euskaldunon artean gai onek, nik uste, paper garrantzitsua jokatzen dau. Iñor ezin ikusi nobera baiño gorago. Bekaitza! Au zer dozun itzak berak diñotzu, ta ortik sortazi oi jaku pekatu

egiñaz erneten dan lakoxe damua, geure izatearen barru-barruan. Ez da bape ona, barru guztia dardarka jarten dausku-ta. Ona-koak ez dira gitxi gizartean. Kanean naiz lekaidetxean. Nik ezagutzen ditut olako narrudunak eta nazkagarri jataz.

Labur: maite dodaz umeak. Atsegin izan jat eurai zerbait erakustea.

27 EUSKERA IRAKASTEN

Bupera ez izateko ona dala dirudit zeregin latza, kontzientzia pizkat gogor-azo ta mergaztea, dudarik bage. Au zenbat eta gazteagotik obe. Orduan prest zagoz edozein lanerako.

Au ez uste arrokeriz esana danik: ni beti izan naz oso billatua. Autortza, itzaldi, kontsulta, bedeinkapen, illobirako lora, igalilandara edo beste zugatz-mota bat dala... Sarriko'n, Izkuntz-eskola'n, Deustu'n naiz Derio'n seme edo alaba bat sartu nai dala... urlia lekutan otel merke bat opa dala... Osasun liburu bat idatzi nebanetik, ze indar daukan bedar orrek, zelan erabilten dan, zelan artu orri egosiak... Nor ez dator, eta zer ez dakarsten, jakin naian!

Arlootako eritxi eskatzeak, baiña, edozeiñek eta edozeiñi daktartezanak dira, beraz garrantzi berezi bakoak. Beste batzuk, izkuntzak erakustoa, adibidez, zeregin sakonagokoak dozuz. Latin, griego, aleman ta gaurko izkuntzen artean sarri, obeto esateko, eter, barik emon ditut euskerazko klaseak. Emen euskerari nagokio, ta oso antxiñatik jardun izan dot orretan: an Santoña'n eta Karmona'n preso nengoala euskera erakutsi bear izan neban. Logroño'n nengoala, ango bi, Seminario'tik ain zuzen, etorri oi jatazan, Zerio jaunak bialduta, nik euskeraz irakatsi nengioen. Bargota ta inguruetakoko gazte areik etziran ikasle motelak.

Ogetamar urtez diardut emen Larran be, euskeraz irakasten, banaka ta aldraka; batzutan bi edo irugaz, beste batzutan amazapi-amazortzigaz. Askotxo dira Zornotzan eta inguruetan nigaz euskera ikasi dabenak. Oneik ondo mintzatu ta idaztera eldu dira, areik ez ainbeste. Nun datza alde? Ikaslearen gogoan ala erakus-

learen maiñarik ezean ete dago errua? Nire irakas-lana guztientzat izan da bardiña. Batzuk sei illabetetan be ikasi dauste ta gaur euskeraz bakarrik egiten dabe. Izkuntzak arin ikasteko, lotsea bota bizkarrera.

Nun izan dot irakastegia? Ementxe, Larrako saloietan. Eskolako maisuei, barriz, euren arotoetan, klasetan. Inoiz erakutsi izan dot Kalbario'ko karmeldar Ikastetxean, gau-eskoletan. Eta bost-sei urtean Zornotza'ko Batzokian; Udaletxeak parroki ondoko euskaltegi barria iarri ebenean itxi neutson ona joateari. Batua asi zan orduantxe bero be bero, eta nire ikasbidearen kontra asi ziran betiko izterbogiak. Zalge bedar azia erein nai, guro izkuntzaren kaltetan.

Zein gramatiko erabilten ete neban? Xabier **ia beti:** Bilbo'ra joaten nintzan bakotxean mordoia ekarri bear izaten neban. Maisu izan zan tolosar argi au gramatikalari aurretiketan ba-ekian jakin be nundik nora ebillan. Ortik erakutsi eutsen berak be millaka bilbotari. Eta nik be auxe onartu neban errez, argi ta osoena zala bizkaieraz erakutsi al izateko. Norbaitzuk ibilli dira, euren barneazi zitala obeto ereiteko, gramatika au aspaldikoa dala ta olako zozokeriak zabaltzen. Izkuntza ikasteko euskal errian bakar-bakarrik zaartzen dira gramatikak. Izkera batez jabetzeko edozein gramatika dozu ona. Zuk ekin gogoz. Or untzea. Zaar sundea ete dabe «Assimil», «Grau», «Prifferrer», «Otto», «Raimundo Miguel» eta antzekoak? Gaur-egunean be, baiña, asko dira erabilten.

Ekin gogor iraupenez izkuntzaz jubozeko.

28 KONFERENTZIAK

Euskaldunok, zati aundian beintzat, ez-jakiñak gaukaz galduta. Gaur-egun ainbeste eztan arren, izkuntza biran geunkazan ozto-poak etziran mesede garri guretzat. Eskola urteetan ume ta gazterik geienak erderaz ikasi bear ebezan gaiak. Onek orduan eragozpen ikaragarria eukan, erderatik ez ekian euskal erria erderaz eskolatzeta zalako. Gizalege guztien kontrako jokabidea. Onen ondorioa dogu aurreko ta gaurko urteetako ezjakiña. Euskalduna jakin-guraz eta miñetan beti agertu izan danarren, ez jako emon bear eban ja-

naririk. Eta bere berezko jakin-min beroa euki dozu. Gaixo ontatik askatuz goaz oraingoan, baiña ez oraindik bear aiñean.

Ezin daikegu ezetzik esan, euskalduna nainoz agertu izan da jakin-zalo. Eta zer emon jako? Gitxi bestorik ez: eleizan entzuna besterik ez, bear bada. Irakurteko be eleiz-gaiak bakar-bakarrik. Gaur batzuk lotsaz diardue euskal literatura goratzean: eleiz-gizonak idatzia ia dana. Koldo Mitxelena gibel-miñez jarton zan au irakurri naiz entzutean. Nun egozan lajkoak? Lengo gizaldietan eleiz-karredakoak izan ez:k ez *ei* euken ikasteko oiturarik.

Orain, erria eskolatu dedin, itzaldi ta konferontzi geiago erazten dira; ez bear litzakezan boste, alan be; gerra aurretik, abadeak, abertzaleak eta gaiñerakoak amaika itzaldi antolatzen ebezan, Bilbo, Donosti, erri txiki ta aundietan, mitiñak, berbaldiak, bertsolarien saioak, danetik... Aipagarri dira orretan alegindu ziran Aitzol, Alberto Onaindia, Polikarpo Larrañaga, Lizardi, Lauaxeta, Altzeta ta besteak. Atertu barik euki ebezan ideologi guztietakoak eztabaida sakon-zorrotzak, erriari askotan ikasbide bikaiña emonik. Oindiño be gogoratzen dabez, ez gitxik, Barakaldo'n eta Sestao'n emondako itzaldi ospetsu areik.

Gaur-egunean be modan daukaguz kultur-itzaldiak. Ni askotan ibilli naz dalako batzoki onespén eta Udaletxeak eraturiko kultur-jaietan. Orain, egia da, antxiña baten baiño literatura saio, ekin eta nor-geiagoka geiago dogu. Erri-jai bat aundikiro samar jaitu nai dogunoan, alkarren leian olakoak erazten dira.

Nik neure bizitzan sarri parte artu izan dot kultur jaietan. Begoz emen olako batzuk, une onetan gogora datorkidazanak: Gastoiz, Donosti, Iruña, Bilbo (lau Udalotan sarri), Iruña (bost ikastaro udan), Errenteri, Tolosa, Andoain, Zaldibia, Ernani, Lau-dio, Basauri, Trapagaran, Santurtzi, Algorta, Getxo, Sopela, Laukiz, Mungia, Lezama, Bakio, Bermeo, Mundaka, Gernika, Areatza, Lekeitio, Ondarroa, Markina, Deba, Azpeitia, Azkoitia, Eibar. Arrasato, Zaldibar, Durango, Zornotza (sarritan), Mañari, Otxandio, Zeanuri, Igorre, Lemoa, Bedia, Usansolo, Galdakano...

Au nire eritxiz oso egokia da erria euskalduntzeko eta eskolatzeko, eta olan gairi daroagun ez-jakiñaren zama lotsagarria uxa-

tzeko, Alkar-izketa, konferentzi ta itzaldiak ez dabe iñor jorratu ta arbuiazteko, ezta izen ona baltzitudeko be izan bear. Azken urteotan ez dira, zoritxarrez, olako gitxi izan; euskal idazlerik eta poli tikurik garaienak be zapi zaar bezela erabilli izan dabez gaurko sasi-jakitun askok eta entzuleak, ezjakitun utsak, oso-osoa siñistu, egia dalakoan guzur biribillak irunsi.

Ikasiaz naiz entzunaz alegindu gaitezan jakituriaz jazten. Amai bezela begoz emen *Sirak* liburuan irakurten doguzan berbok: «Ondo itz dagizu? Zoaz aurrera bizitzan». Eta beste au: «Buru-tsua ez danak, ez dau ikasten». Irugarren au: «Jakintsuaren jakitea, gaiñezka doan ur-boladea da».

Gaitezan gu beti ari ta oni entzunik, irakurriz ta ikasiz, gainbera doan ur-erreka. Zuur eta zentzundun, itz egiñik.

29 LARREA EDERTZEN

Umetako lekuak maitasuna sortzen. Nik, neure jaiotetxea laga ondoren, ementxe emon nebazan mutikotako urteak: lau urte ta erdi ikasten ta gero nobiz'aduko urte osoa. Karrera amaitutakoan onaxe bialdu ninduen nagusiak, arima lanari asiera emon nengion. Gomutaz bete-beterik egoan niretzat Larra. Gerran komentu onek ez eban esateko kalterik izan. Aurreko Ikastetxea, baiña, guretzat gomutakiz ase, muniziño askoren gordeleku zalako, su emon eutsoen an egozan gudariak. Eta betiko galdu zan.

Gaur, ez dakigu zelako asmoz, gauza bitxiak zabaldu daroez, baita eguneroko ta telebistaz be, Zornotza dala ta ez dala: bertokoak eta asturiarrak erre ei eben. Egia emen guzurraz naste. Ez nintzan ni emen egon azken-azken egunetan, baiña bai egun batzuk aurrerago; emendik alde egin nebanean frankotar egazkiñak gogoz joten eben bertontxe; batalloirik ba etorren igeska; naste ikaragarria! Bondak eta kañoi-eztandak andik eta emendik; erriaren erdiko etxeak suak kiskaldu zituan. Guk ez geunkan egazkiñik. Beste aldetik Eibar eta Gernika'n erre ziran lez etziran etxeak saillean erre, gudu-aldian garrantz'tsu izan ziranak baiño. Nortzuk su-emoille? Emendik ibilli ziran asturiarrak esan oi do-

gu. Eleizarik ez eben erre, ez parrokia, ez Larrakoa, ezta Kalbario'ko orduan odol-geixotegi zan gure Ikastetxea be.

Dana dala, kalte ikaragarria izan zan guretzat gero egin zana; Ikastetxe zaarra, azpiko arrietaraiño botarik, arlandu bikaiñez jasotako jauregi maite aspaldikoa, arri ta abar saltzea. Gaur ez daukagu bertan jauregi iraულიak aurrekaldean eukan armarri zabal dotorea, Bizkargi'rantza daroan urten-bide gaiñean ipiñitako ezkutu Beste dan-dana —amaika erokeri egin oi da! — balkoi, leioid, arlandu, burdinsare ta abar, baita baratzeko izai ta zugatzklade askotakoak be, aizkora dollorak iruntsi ebazan. Jauregi a suntsitu zanetik, gerreak egin ez .ebina ondorengoak burutu ebilako, Larrako inguruak leen eukan edertasun barik gelditu ziran.

Apainketa eskatzen eban, ba, Larreak. Platanuak sartu ziran lenengoz jauregi ta eleiz bitarte guztian; ortu ta lilitegi zapuztuak be itxurea artu eben. Guk mutikotan amaika furbol jokaldi

kanpoko zelaian, gaur «Andra Mari» ikastolakoa danean, leengo zugatz banakak ebagi ta barriak sartu genduzan, zelai nasai ari itxura apaña emonaz. Komentu apainketan, leendik, nire deporan eta gero a nbat lan burutu zan.

1957'an, bigarrenez nagusi etorri nintzanean, gure ortu alboan, Zornotza'rantza begira, eskintzen euskuen lur-arlo bat (20.000 metro lauki) erosi genduan, gaur solo ta sagasti emokor biurtua. Lengoz lur-sail panpoxa ta erosi-barri au, Anai batek eta laguntzaille bik daroe ainbat ortuari ta fruta artu-azoz. Orain gaiñera nik neure deporan jarritako kaklak eta oraintsuago sartutako kibiak ugari be ugari dakarre. Igali-zugatz klase biok Euskalerra osora zabaldu bear litzatekez; ederto datoz biok gure lurraldeetan, eta

beintzat ez da euron aurkako pipirik agertu.

Orain amar bat urte, Gogartetxe biurtu gendun len Aztetxe zana, eta etxe onek gaur arrakasta itzala daukala esatea ez da guzurraz erdizka ankalatraba ibiltea, leku oso egoki ederra da-ta ixilbizitarako zale danak ba dau emen egoitza gozorik. Irakurten edo pentsatzen mugida nai izan ezkerok, bada toki aukerakorik: erre-kondoan, zugatz bercele artean ibilbide zoragarriak, txorien kantuz eta ixil-ixil doan uraren zurmur eztatiz belarriak gozatuz! Azkenen-

goz nagusi nintzala ortan jardun neban eskabide askoz ortara bul-
tztatuta,

Frontoia 1925'an cregia ta gainean egurastoki zabal ikusga-
rria, ertzez-ertz lorontzi koloretsuz apain. Goi-goi zeru urdiña ta
urrin samar Anboto, Mugarra, Aramotz eta Lemoaitz; aurrez au-
rre Zornotza'tik Gernika'rako bide zabala, eta beeratxoago
bo'tik Bermeo'ra trenbidea. Ez, ez, nik der;txot oni ildako maita-
sunaren oroi!

30 TXANGOAK

Uztaia beti tenk ez da egoki, ausi egingo litzateke. Giza-go-
goak —eta gorputzak— bear dauz bere nasaialdiak. Ortik datoz
ikasten dabiltzanak urte barruan —udan, Gabonaldian, edo'ta As-
te Santuz— artu oi dabezan oporrak. Gaur ziñis-gogor batzuk bes-
tera aldarrikatuz be, komentuetako legeak leun eta gizatar dira.
Karmeldar oiturak, adibidez, Pazko ondoko illabeteetan, Kristo-
ren Berbizkunde egunetik iraillaren 14'rarte, illean bein egun oso-
rako edo beintzat berarizko txango bar, *ibillaldi* bat, agindua ez-
pada be, begi onez ikusia eban.

Lege-oitura oni jarraiki, lekaide guztiok, ikasleak batez be, se-
kulako ibillaldiak egin oi genduzan opor-egun orreitan. Aitatu do'
daz batzuk Larratik urten eta Morga aldetik zear Gernika'ra oi-
ñez, Txatxarramendi'ra trenez eta andik itxas-ontzian, Izaro oste-
tik zear, Bermeo'ra ta Mundaka'ra egiñak; iñoiz joan gintzazan,
Markiñan ikasle giñala, Urberuaga, Plazakola, Milloi ta Oleta'tik
zear Lekeitio'raifio, napartar batzuk itxasoa ikusi bar 'k eukela-ta.
Gasteiz'en gengozala Zaldiaran, Azazeta, Gauna, Gamarra, Landa
ta onakoak ziran gure txango-aldirik luzeenak Begoñan, ostera,
Santo Domingo, Unbe, Pagasarri, Arrigorriaga, Upo, Bizkargi,
Gorbeia (au autobusez) Ubidea'tik egiña. Bein Begoña'tik oiñez
etorrita Larran emon genduan eguna. A bai sasoi!

Etxeko nagusiak ardura zorrotza ipinten eben legezko txan-
gook be eratu ta beteten. Ikusiz ikasi egin oi da, ta autu-gaia emen-
ten; urteotan be, askotan gogora ekarten d' ra urtia urtetan osotu-

riko ibillald:alc. Larra'tik joanik sarri ikertu doguz, Naparroako bazterrak, Xabier, Belagua, Burgete, Soria, Logroño'ko Valvanera, Baztan, Aralar, Maule, Donapaleu, Be!oke, Ondarribi, Urbia, Gorbeia, Balmaseda, Karrantza, Laredo, Somo, Santofña, Al- amira, Kobadonga eta beste ainbat leku interesgarri. Gure barrurik errez uxatzen ez diranak, sillu bat lez josita geratzen jakuzalako.

Prailleak ezezik Zornotzarrak be *e_z* dira beti etxean egonak. Euskaldunok iperdikara dozuzala? Baita nire inguruan bizi diranak be: penintsulan eta kanpo naiko ibilliak ogeramar urteotan; urtero eratu izan clot ibillaldiren bat Zornotzako jenteaz Euzkalerretik atera be: Zaragoza, Errioxa, Kataluña, Valencia, Benidor, Motril, Alikante, Malaga, Granada, Jaen, Kordoba, Sevilla, Jerez, Kadiz, Huelva, Kazeres, Koría, Trujillo, Guadalupe, Toledo, Kuenka, Teruel, Madrid, Segovia, Salamanka Avila, Valladolid, Burgos, Orense, Vigo, Konpostela, Koruña, Lugo, Ovieclo, Santander... Eta etzeriak, Frantzia, Portugal, Italia (Urte Santuz, beetik goraj, eta abar.

Txango guztiotan ez dot, ez ixtripurik ez beste ezer, iñoiz be izan, ez mugetan ez bideetan. Bein bai osterá Irun'go mugan izan genduan zerbait. Andorra zan gure jomuga, eta angoa beterik, Lourdes'tik zear gentozan etxeruntz, Berandu samar, eta Irun'en berebil txiki ta aundiz lerro luzea; mugazaiñak kotxe ta kamioi guztiak arakutzen. An zabaldu zanez, marrokiar andra-gizon bik drogak croiezan euren kotxean, eta aren pekatua guk guztjok ordaindu bear, Kotxe pekatari au baitu ta ikusi ondoren, gure aurretik egozan beste ogetamar bat berebil ta autobus zeatz-meatz ikuskatu arte an egon gintzazan gu papao antzean, pazientziari benetan oratuta. Zerga-zaiñen patxadari, jakiña, noizik bein aiñen gogorak egotziaz.

Beste bein, amar bat urte dirala, Urte Santuz Erroma'n izan giñanean, naigabe galanta izan eban gutar batek: apal ostein, oteletik ez urrun, ogera orduko akeita artzen ziarduan andra talde batek, eta eurok konturatu barik, mutil gazte bi motuekaz mai ingurura urreratu jakezan, eta gure taldeko bilbotar emakume bati, besoan eukan boltsatik oratu ta egin ebezan garraxiakaitik,

eroan eutsoen boltsea diru, dokumentu, igaro-txartel eta eukan guztiaz. Onek naikoa garrastu euskun osterea. Alan be, etxeruzkoan, Asis, Florenzia, Ravena, Venezia, Padua, Milan eta abar polito ikusi genduzan. Erroma'n, Batikano'ko eleizatik euskeraz bota genduan mezea, irakurgaiak eta erri-otoitzak beintzat, erdi-Europa-ko beste talde batzuekaz batera. Eta bidean be, autobus barruan, egunero geunkan euskerazko mezea.

Onako ibillaldietatik askotan parte emon dot nik aldizkarietan: «Zeruko Argia», «Goiz-Argi», «Agur», «Olerti», «Karmel» «Principe de Viana», «Zer»... Euskal lurra ezagutu nai dauan adiskide zintzo bat daukat eta oni lagunduz egiten ditut askotan ibillaldiok, Araba, Gipuzkoa, Naparroa ta mugaz bestaldera. Leengo larunbatez, Donarnaria'ra joan bearra neukala-ta, onuzkoan, Lesaka'tik Agiña'ra igon genduan. Emen miretsi genduan 1958'an Aita Donosti'ri jasotako oroigallua. «Xori kantazale ederra, nun ote aiz kantatzen?» diño aurrekaldean arrimokorrak. Eta ur-ur dagoz lanpara bi legez «Burdin Aroko ilobiak —mairu-baratzak» diñoela «Gorosti» Zientzi-alkarteak 1987'an jarriak. Beerago agiri da kronlek aundi bat bere, Onako asko ditu Agiñak.

Beti izan jat gogoko ibilliz jasotako biotz-zauskadak paperean xakitzea, gero asti-uneetan, eurok irakurriz atsegin artu al izateko.

31 BERTSOLARIAK

Erdi-ezetsirik daukagun aozko euskal literaturak, aspaldi-aspaldikoak, ba dauko bere inportantzia. Beste izkuntzetan texturik mirriñenak be arduraz jaso ta gorde oi dabez. Damaso Alonso'k Errioxa'n, au da, San Millan monastegian, antxiñako paper zaar artean lez, X'garren gizaldiko gaztelerazko otoitz bat, gramatizko otoitz bat aurkitu ebala-ta, «Eureka!» oiuez ba daukagu, zergaitik ez guk liburu berean, San Augustin'en sermoe baten gure texturik zaarrenak be aurkitzen ba dira? Latíñezko lerro bi ta erdi ez eukazana argitzeko osotua dozu erderazkoa, eta gurea be ortxe-ortxe,

Nik bein eta barriro idatzi dot gure bertsolarien jarduna kon-
dairaren ondar-ondarretik datorrena dala. Ikus, nai ba dozu, nik
idatzitako «Gure Bertsolariak» 336 orrialdeko liburua, 1965'an
«Agirre Saria» irabazi ebana. Gaur, errazoi urriko eritxiz, ezta
nai dokumentu bageko texturik. Eta gure kanta zaarrak? Atzokoak
bear bada? Ori esateko be ez daukazu datu ziurrik. Oraintsungo
euskaldunak asmatu ete dabe, orduan, bat-bateko bertsolaritza?
XVI'garren gizalditik onuzkoak? Ez dot uste.

Aurretikoak niretzat naikoa argiagoak ziran, garai a baiño bee-
nago, erri ta tokien izenak diñoskuenez; ainbat urte joan dirana-
rren, eta ikasteari ain gogor ekin, gaur ez gara oindiño areik bai-
zen trebe leku bati ondo datorkion izena jarteko. Ez asi deada-
rrez, ez: or daukazuz egiñak. Or daukazuz Euskalerrian berton
eta atzerrietan zabal millaka ta millaka euskal abizen, eta ba al
dakigu euren egiazko etimologirik? P. Lafitte'ek eta K. Mitxele-
na'k lez, gure izkuntzak euneko ainbat itz latiñetik arturik dau-
kazala esatea. Eta zelan deituko dautsazu beera jausitako arri go-
tikoz jasotako euskal erako etxe bati? Gotikoa dala esan ete leio?

Zarra da auzi au. Nik esaterako naiz nire sasoikoak or-
duan itz arrunta zanik gaur be erabilten ba dogu, beste idazle as-
kok —ori da gaurko gazte askoren joera— beste itz bat, Axu-
lar'ek dakarrena adibidez artu ta lantxo baten amar bider gitxie-
nez, axe erabilliko dauskue begiak erre ta belarriak durunduz ipi-
ñi «Izotz» eta «horma» gauza bardiñak dira, baiña Axular'ek
be horma darabileko geien bat be horma erabilli ta kito. Liburu
eder-ederra da «Gero», Axular'ek borobildua; ba-ditu akatsak
be. Akatsa itxi ta ar ederra. Ez uste mugaz bestaldekoa dala, oro
bitxi danik.

Gaitik igeska nabil itxura danez. Bertsolarien txapelketa egu-
netan ni izan naz iñoiz epai-maiko. Baiña egiteko ori ez neban atse-
gin eta itxi egin neban: z■ntzoak ez dira ortarako. Urteak dirala
Bilbo'n, Areatza plazan, Arriaga antzokiari aurrez-aurre, ospatu
zan Bizkaiko txapelketa. Ara eroan ninduen. Onetzaz «Olerti»-n
idatzi neban naikoa zeatz. Lau-bost giñan maiko. Bertsolariak saia-
tu ziran. jardun bitartean, neure eritxiaren arauz, bertso onak mar-
ka gorriaz eta ez ain onak baltzez bereizten nitun. Epailleok az-

kenez danok alkartu ta estu-ariñean ona zana artu ta txarra albora itxiz, Balendin Enbeita'fi emon geuntsan len-saria, au da, txapel dotorea.

Nik orduan ez nekian gaur beste: gaur ba dakit, leenengo epai-maikoak aurretik erabagita daukiela nori emon txapela edo saria, eta bigarren bertsolariak eurak oso eurenkoi dirala: bekotxak uste dau besteak baiño obea dala. Ona bada etsai bi, maikoak eta bertsolariak. Au edozein konkurtsotan. Eta askotan alkarri kontuak eskatzen, bertan ezpada kalean.

Zuur ibilli bear dabe maikoak. Ordutik ona, egia, asko aurre-ratu da gauzea. Sinalefak porrot egitea ta olakoak gogotan euki oi ziran orduan. Gaur, orrez gain, b2rtsoaren kalitateari begiratzten jako, esan zorrotza, ekinñaren jasa, gaiaren bazi-gesa, barne ritmu bizia, euskera garbi, gozo naiz trinkoa, jardunari dagokionari ezarten jako balioa. Aurrez erabagi bear leukie bertso-legeetan nola jokatu, aldea bait dago onetan Gipuzkoa'ko oituretatik Bizkai-koetara.

Anoeta'ko txapelketa An nintzan ni be, beste toki askotan be-zela. Oar zan une batzuetan gero miin txarrak zabal-azo ebena: txapeljabe ziran bizkaitarrak menderatzeko griña. Ori, gaztelarrak esan daroenez, berakatz-oskolean kokatzen giñanontzat; an alkar-tu zan jentetza bikaiñarentzat, gauza zoragarria.

Beste ekinñaldi eder-eder bat, Gabonaldera, Bilboko Arriaga'ra. Nik ez neban ara joaterik izan. Baiña entzun neutsen telebistatik; an entzunak eta kalean aldarrikatuak ao batez iñoen Anoeta'n bai-ño bertso biribil, zorrotz, eder, sutsuagoak kantatu zirala Bilbon. Lopategi txapeldun, baiña beste guztiak be, euren maillan, ederto be ederto. Onek irakasten dausku gure nortasunaren doai berezi-' berezi onek zaindu ta indartu bearra daukola.


Gai ontaz aspertu barik idatzi da azken urteotan. Txapelketan bizi-bizi jarten dau bertsolaria, ta etenbage obetuaz doa pentsamen-tu,esan-molde ta neurkeraz. Bertsolaritza da gaur erriak irrikatzen dauana; beronen oiartzuna izan bedi gure biotz, erri ta mendien zuzpergarri.



Amoroto. Atxuriarte, neure jaiotetxea.



Urteak geroago,
ames-erioka,
ara egin neban
joan-etorri
zorionsu baten.



Larrea-ko Jauregia, 1915-1930
kermeldarren Ikastetxe. Emen osotuko
nebazan neure len-ikasketak.



Larrea gaur,.



Larrea-ko karmeldarrak, 1924-garren urtean.
Ni irugarren, gorenengo lerrean.



Logroño inguruko landa baten,
urrats-otoitzak osotzen. 1947.
Landa ta zelaiak baizen eder
dituzu Dabid erregeak ondu zituan
salmu-eresiak.



Atsedn-aldi batean,
gure ortuan.



Eibar-ko karmeldar eleiz
barria asi zanean, 1966-an.



Barzelona-n, Gogo-jardunak
karmeldar lekaimeai emoten.
1962.



Napar-Itzaltzu gaiñean,
joan-etorri orokor baten.
1976.

32 ESKUTITZAK

Geure barrua, ixil lapiko nunbait, modurik asko darabilguz berau erakusteko. Berbaz, itz egiñez geure izate oxina ustu oi dogu; kantatuz bardin: bidez doan edo soloan lan dagian baserritarak, naiz josten diarduan emakume bat abeska ba dago, guk entzuleok laster jabetzen gara olakoaren barren-giroaz.

Gaur batez be kominukabide asko doguz geure gauzak, lau aietara, zabal azteko. Or prentsa, irratia, telebista, errien, familien eta norbere goraberak edatu naiz artu al izateko. Oneik, oster, geure garaiko frutuak dozuz. Baiña beste au, idazki bidea, idatziz mezuak alkarri bialtzeko oitura, oso antxiñakoa dozu; gizasmeak beti erabilli dabena. Begira, aurtan bidai-kutzak blei-blei euki doguz kartaz gaiñezka, zabaltzailleen kasetaldia dala-ta.

Neuk be, liburu arteko ekanduari erantzunez edo, eskutitz ugar artu izan dot, eta erantzun. Ad:skide ta jenteari idazteko, naitaezko zeren bat gaitik izan ezik, ez dot alperrik astirik galdu. Bear izan dodanean, idatzi ditut kartak, eta ez gitxi, batez be «Euskal Literatura»-rako datuak bear izanik. Beraz, or datozan nire datuak aintzat artzeakoak dituzu.

Egubarrri ta Urtebarriz be naikoa idatzi izan ditut, adiskideai zorionak opa izanez eta eurak bidalitakoai erantzunez. Garai orretan, ondo; baiña urte barruan, beste eskutitz zirtzil orrei erantzuten naiko nagi agertu naiatzu. Erantzun, baiña, artutako danak erantzuna izan dabe.

1974'an dakizunez, «Eskutitzak kaleratu neban 110 idazleen 257 kartarekin. Nik ez daukat ari ta oni idatzitakoen kopiarik, baiña artutakoak gorde egin dodaz, bereziki euskal literaturari buruzkoak; besteak ez ditut gordeten. Emen daukat oindiño beste liburu bat osotuteko besteko mordoa.

Liburu orren itzaurrean au niñoan nik: «Eskutitz batzuk ba dira oso ixillekoak, iñori be ez erakustekoak nunbait; baiña ba dira beste batzuk agiri antzeakoak, edozeiñek irakurrita be kalterik ez dakarskuenak. Mailla ontakoak ditugu, nik uste, esku artan daukazuzanak: ederrak eta iñori min ez emotekoak». Ez jatan iñortxo be kexaz etorri.

Oneik dirala-ta ez dot inoiz be goraberarik izan. Nire erruz beste batek, orraitino, itxituko illuna iruntsi bear izan eban. Gerra ostean izan zan, une bildurgarrian. Guda-egnetan, asko izan ziran, euren etxeak itxi ta Santander aldera jo ebenak; orrelaxe emen Ategorri ta Epaltza bitarteko trokan bizi zan Axuria familia be. Guriezo'n egon giñan alkarregaz, gero ni Dueso'ko espetxera ta eurak —ama, iru alaba ta auzoko bat— etxera biurtutuz. Andik iru bat illabetera, ni nun nengoan jakiñik, karta bat idatzi eusten, «pelotea oindiño teillatu gaiñean dantzari ebillela» eta olako gauzak niri esanaz. Iruretatik erdikoa, niri idatzi eustana, kartzelan egon bear izan eban denporalditxoan.

Espetxera bialtzen euskuezan kartak, batzuk bidean galtzen ziran eta beste batzuk polito azterturik eltzen jakuzan. Gaiñera, gurasoai ta abizen bardiñeko etxeokoi bakarrik geunkan idazteko baimena, Zuur, bada, jokatu bear!

33 KOLDO MITXELENA

Olantxe da gizona ta beste biderik ez dala dirudi. Bat merezi edo merezi ez, ospetsu egin oi da giza-zurrunbilloan. Eta zurrunbillo orretan talde bi sortu dira, batzuk giza-seme orren alde dagozanak eta besteak aurkakoak, oneik ez dabe ikusten aupatu ori orrenbeste goratzenko zio ta errazoirik. Labur: adiskideak eta izterbegiak. Or gure istoria, kario bakoia askotan.

Nik Dueso'n ezagutu neban K. Mitxelena. Gudu-zelaian ez. Espetxeko egon bardiñean egon gintzazan ia zazpi illabeteen, ni goian eta bera beian. Egurats-tokian alkartzen giñan noizik-bein, eta andik gure alkar ezagutzea: sei millatik gora gengoan bertan giltzapeturik eta ez da arritzekoa alkarrekiko barrutasunik eza. Gero gu Nanklares'era ta a Burgos'era aldatuak izan giñan. Arrezkero, Euskaltzaindia'ren billeretan eta itzaldi berezi batzuetan ezik, ez neban arekin artu-emon aundirik izan.

Beti izan neutson nik sinpati ta ondo-eritxia, jakituna zalako ez-ezik, euskeraz ederto idazten ebalako be bai. Atsegin jataz aren euskal lanak, Berari, ostera ez jakon eder nire zeredo-ezer. 1954'an

nik «Milla euskal olerki eder» liburua argitara atera neban, mundu guztiak txaloka artu ebana. Eta txalogarria zan, izan be. Gaur oraindik ao batez goratzen dabe.

K. Mitxelena'k ez, ez eban gauza onik or ikusi. Orduantxe argitara emon euskun bere «Historia de la Literatura vasca». Eta zer diño? Aitatu bere ez. Berea idatzi aurretik, alan be, esku artean euki eban nirea, au diño-ta atze aldeko nota baten: «El P. Onaindia ha dado paternidad a algunos autores que sOlo han sido padres de familia». Au irakurri ondoren, A. Akesolo ta biok ibilli giñan liburua arakatzen, nire idaztian etozanetatik aragiz baka-rrik aita-izena merezi eikeenen billa; Tolosa aldeko bat aurkitu genduan, e₁a mugaz bestealdekoen artean beste bat, P. Lafitte'k bizitz xeetasun eta guzti niri emona. Olan izanda be, ez eukan bape zer-ikusirik: ondoren aski erreza da nor nor dan jakitea, baiña nik ez neban aukerarik izan euskal literatura osoko idazleak azke-nengo zeaztasun pitineraiño banan-banan begi-etsi al izateko.

Koldo Mitxelena erdi-zoratua ekarren garai aretan, euskal literatura begira, laikoak eta eleiz-gizonakiko auziak; bera eleizkoia zan, baiña euskal idazlerik geienak sotanadunak zirala jakiteak sumin aunditan sartuta izten eban. Gero, egia esateko, BAP-en goretsi eban nire lana. Arrezkero, alkarri eraspén aundirik izan ezta be, ez genduan iñoiz ezeren irrist-ikaturik izan.

Zer bat larregi aipatu ezkerro, egia ala guzurra ete danaren susmoa sortu oi jaku barruan. Mitxelena ilda gero be batzuk, idatziz eta telebistaz, geiegi nik uste aitatu ta goretsi dabela aren apaltasuna, Zergaitik ori? Arroa zala otsegiten dabelako? Ni be orretan nago, arro-arroa ezpazan be, askotan beintzat ori erakusten ebala-ta. Ba leiteke, barriz, olan agertzea ezjakin askoz bere burua esiturik ikusten ebalako.

Akats ori egozten dautsoenean, gogora dakarrez jazokun bazuk: 1) Arantzazu'ko burruka; 2) Deustuko Paraninfoan bein an sortu zan eztabaida garratza; 3) Euskaltzaindiak eukitako batzar batzuetako mukerkeriengaitik, eta 4) Aita Gaizka Barandiaran jesuiteari, Iliasen itzulpena zala-ta egin eutson kritikagaitik. Lau gertakisunok sustraitik aztertu ezkerro, orrela dala esan daikegu.

Zelan bota olakoak maisu aundi izan danagaitik? Ori leenago, baiña gaur ez dautsogu ez aundi ez tiki, ezen lotsarik. Bilbon nintzan ni Mitxelena ilda urrengo egunean. «Mitxelena il jaku!» esan neutson nik zubia igarotean aurkitu neban adiskide bati. Penarik ez ba leu lez, bereala asi jatan gure izkuntzari egin dautsona gogoratzen, arek eta aren lagunak egin deutoen kaltea gero! Dajak ez dira, ba, errenderitar jakintsuaren alde mintzatzen! Au' sarta, ez bestea!

Txina'ko ormeak badau izateko errazoia; ez, oster, ortziaren eta Iurraren artean ipiñi nai dauskuen laiñoak. Mitxelanak, gure amona zarra bzi zedilla, gartsuki opa eban. Guztiok uste dogu xariz apartak eraginda gabiltzala.

34 IRUÑARRAKAZ

Sarri artu izan ditut olako deiak gitxien uste izan dodan lekutik. 1973'garren urtea zan. Orduantxe asi ebezan Iruña'n, Bizkaiko ta Gipu koako jakintsu ta andereñoak lagunduta, udako ikastaroak; iru urte, 1973, 1974 eta 1975, egin nebazan nik ikasgaiak emoten. Leenengoak izan ziran areik eta gai guztiak ikutzen ziran, au da, izkuntza, eziketa, literatura, metodologia eta abar. Irakasle bakotxak bere sailla ta taldea. Ni egon nintzan iru urtetan jon Oñatibia izan zan zuzendari 73 eta 74 urteetan, eta Larrarte 75'an.

Ni, urte luzeetan Napar Aldundian euskereari buruzko ardurea daroan Bakarne Erbiti'k eta Gerde'tar Markelin apaizak deituta joan nintzan ara. Ondo be ondo artu ninduen orduan eta gero. Talde aziak ziran eta nik euskal literatura ikasi bearra batez be azpi-marratu bear neutsen. Geroago, asmo ta jokabide eder

porroteginda jausten diran lez, ikastarok be moteldu ziran arren, interesgarriak izan ziran. Ondorio lez irikiak agertu ziran bertako Izkuntza Eskola eta Magisterio'ko euskal katedra bere. Informe politak datoz «Principe de Viana» aldundiko aldizkari aretan, euskal ikastaro onei buruz.

Urte batzuk aurrerago, «Principe de Viana» aldizkarikoak etorri jatazan laguntza billa Ugarituz joiazan bertsolariak, Naparroa'n eta andik kanpo Euren aldizkarian, beraz, orri berezi batzuk ate-

ra nai ebezan «Bertsolaria» izenez: nik zuzendu bear neban dala-ko Bajetz erantzun neutsien. Eta emongo ta angu bertsolarien artean olan egin genduan zortzi-bederatzi urtean. Bizi-bizi etorren orri ori, Bizkai aldera bo.

Urteak joan urteak otorri naiko aldakuntza izan zan Naparroa'ko Aldundian eta «Principe de Viana» Erakundean eta olako aldaketak ez dira geionetan euskerearen onorakoak. Euskal auzietan ibilli ziran Urmeneta, Ezponda, Iturralde ta Malon, eta «Principe de Viana»-k iru zuzendari alkarren ondoren, Uranga, Galbete ta Redon. Irarkola dala, diru laguntza dala, beti eragozpenak jarten. Eta «batera naiz bestera —ederto diño M. Garde'k— beti gauza bera: euskerarentzat maitasunik eza».

Markelin Garde azken zuzendariak, maiz jo oi eban illeta, baiña alperrik, eremuko abots oiartzunik bagca. Etzan ezegarri aldizkari au: kolore bitan etorren, 16 orrialdekoa. Argazkiz, musikaz, itz-lauz eta olerkiz apain; euskal erriko, Naparroako errietako albistez ta marrazkiz dotore; idazlan labur, bizi ta intoresgarritan. Oraingoan be, 1983'ko ilbeltz-otsaillean, Garde'k onela: «Oraingoan ere alperrik izango ote da? Ezetz uste dugu. Oztopo guzien gaiñetik, goazon aurrera! »

«Principe de Viana» itzali egin zan, baiña ez Garde'ren euskal griña bizia. Ak porrot ba dagi, bestera doa, beti lanera. 1988'ko urtarrilak 14, Erbiti'k idazten eustan Iruñetik: «D. Marzolino'k egiten du Napar-Izkuntza orria; ongi ateraten zaio, baiña bear luko laguntza geiago, emengoek ez bait diote deus laguntzen... eta alaxe goaz».

Ona beste jazokun bat be, niretzat atsegingarri dana: eguerdi aurre baten Aita Murieta (*Umeen Deia'ren* zuzendaria) etorri jantan Larra'ra. Urteak eukazan bizkar-gaiñ, baiña gaixorik aurkitzen zan batez be, eta bore aldizkaria nire eskuetan jtxi nai eban euskal erriko umetxoentzat sortua, 1966'arte, il zan arte, zuzendu euskuna.

Beti agertu izan naz gertu mesedeak egiteko; a'nbat errazoi arildu eustazzan Aita Felipe Murieta'k, baiña azkenez, ezetz esan bear: etxeko ta edu orrotako lanakaz bete-bete egiñik aurkitzen

nintzan. Gaiñera, zeregin ori aita kaputxinoak eurak artzea nai neban, nik baiño obeto bete al izango ebela-ta. Pena aundiz biurtu zan etxera A. Murieta, biziak jota il-zori sentitzen zan euskaltzale porrokatua.

«Umeen Deia» etzan geiago agertu. Baiña bai neska-mutikoak zazpi urtean ari egindako kartakin eta beste ainbat gauzakin eder' turiko liburu mardula, «Umeen Deia» izenekoa, argitaratu zan 1971'an (Bilbo), 466 orrialde.

35 NOR IDAZLE OBE?

Zail dozu benetan itaun onj zuzen erantzuna emotea: nor obe? Samurra da izan be, eta ausarta. Badira batzuk, lotsea pitutara bota ebenak, «nor ni baiño obe?» diñoenak. miiñez otsegin ezta be, barruz orrela uste dabenak. Danetatik gara munduan.

Idazle ona izateak azken baten zer asko daukaz ingurumari, ikaztoi batek mendi-ertzean lez. Orain ez dot nik astirik olako azterketarako. Gaiñaldetik baiña so-egiñaz iru gai beintzat oar geinkez itaun arriskutsu orri erantzun naiko zeatza emoteko: nik iru gaiak jarriko neukez asteko: a) lanaren barru-mamiña; b) joskera edo, esanaren trebetasuna, ta z) lexikon egokia. Au ez uste zaparrada utsa danik. Emen erdikoari, euskal joskerari zizta ariña nik egingo. Garrantzizkoak diralarik be irurak, joskorak dau gorarik beteena, berau dalako idatz'a ñarñartzen dauana.

Antxiñako euskal idazleak ez eutsoen oni kasu aundirik egiten; zabar samar jokatu oi eben orretan; gaur, oster, zorionez, polito begiratzen dautsagu idazlanaren joskerari. Orixe'k onela idazten dau: «Atzeko berrogei ta amar urteetan euskeraz idatzi dabenen artean, batzuk idazlerik onena ta beste batzuk mordoillozale dala (itzetan eta joskeran)». Eritxietan oso ariñak gara sarri askotan. Axular'i buruz, nor ete dago izpidean? Lenengoak, Orixe'rentzat. Baiña jausten da utsetan be.

Guk joskeraz ulertzen doguna —itz, gogai ta esan sailketan-bitan zatitu daroa Orixe'k: a) *Itz-urrena*, itzen segidako esana, adibidez (or dator aita), eta b) *itz alkarjera*, itzak alkarregaz daben

zer-ikusia (zu baizen gaztea da Mikel). Axular jatorra dozu i tzurrenean, itz-alkarkeran ez, oster; uts bait dagi «zeren», «ezen», «nun» eta olakoetan. Or dago Axular'en erdalkeria.

Latiña ta euskera biak bat dira itz-urrenean, sarri idatzi euskun orexarrak. Ez gero bata bestea baiño zarrago dalako, ezta latiñak euskereari ta euskereak latiñari artu dautsolako, biak lenagoko batetik dabelako baiño. Ak idazten dau: «Euskerak esan dezake latiñarengatik, arako anai arek beste anaiarengatik ziaona: «anai al duzu alako?», eta «ez, arek nau ni anai».

Ezpan ariñez edozer txantxiku bota oi dan garai ontan be, gure baserritarren joskera dala eder, oparo ta garbiena, naitaez eta bekoki-zu_r adierazo bearko dogu. Orixe'k onan: «Euskera ta latin jatorren itzurrena berbera da, eta euskal idazle berriena iatorrago oraindik, baserritarrekin alkar aztren dutela. Or esaten diran eguneroko iarduneko utsen gaiñetik, baserritarrak euneko ia ia eun aldiz itzurren iatorra du, eta, galderari dagokiona».

Onako gauzetan, gramatika gaietan aurki, bitxizale zan Orixe, Axular'ek, Mendiburu'k eta Lizardi'k dituen orri buruzko utsegiteak be, zenbatzeraiño eldu zan. Axular'ek, sarreran, bere Gomendiozko gutunean, euneko sei ditu gitxi gorabera; Kikeron euskalduna deitutako Mendiburuk, XIII'garren atalean, euneko amabost uts, eta Lizardi'k, «Onek, bai, **garbitzen ditu** Mendiburu, Axular eta Kikeron ere. *Itz lan* deritzan liburuan, euneko eunetan itzurren egokia darabil. Eta neurtizetan ere, etzaio arkituko, bear ba da, euneko bitatik gor».

Gaur-eguneko euskal idazle askoren gorapenez diñoan au be, bego emen barruti ortan dabilzanentzat biotz-asegarri. «Berrogeitamar urtez atzeko idazleetan eta azkeneko labealdiko auetan, badira —diño— Lizardi'k bezain ongi egiten dutenak. Gure inguruko izkuntzetan ez-ezik latiñean ere, eta ezago grekoan, itzurrena ez da ain iatorra. Euskal-itzurrena emendik ara gotor geldituko da, ta ez da kaxkartuko beste izkuntzetakoa bezala, Azkue'ren Azkuenze'ri ta Altube'ren *Sintaxis del Euskera'ri* esker. Ez ete da egin ezer berrogeitamar urte auetan?» (*Euskera*, 1958, 17 orr.).

Areik eta oneik, angoak eta emangoak baiño obeto dagigulata, saia gaitezcan senez geure gogaiak eta biozkadak jalgi ta zuritzen.

36 EUSKALTZAINDIA

Egia bai eder, gogoan eta aoan! Egitik ez nabil okertua ni, euskaltzale izanik be, ez nazala bizi izan Euskaltzaindi erriñaz. Urte asko joanak dira euskaltzain urgazle izentatu **Baiña** zertako? Lan gitxi-gitxi egin bait dot bere altzoan. Lotsaz dautort, baiña orrelaxe da. Zergaitik izentatu ninduen? Artikulu batzuk, liburu batzuk («Milla Euskal Olerki Eder» eta abar) argitara emon nebazalako? Eta zertarako eukeratu ninduen? Euskeraren alde lan egin nengian? Ederto! Batzarretara joan nendin? Damu naz...! Bai, gitxitan ioan izan naz. Egin-barri n̄ntzala, al nebanetan, bai Donostira, Bilbora batez be; gerora, denpora geiegi orretan urtu oi nebala-ta, itxi egin neutson joateari.

Bazan beste errazoi bat be, ez joateko. Eztabaida ta zizka-miz-en etsai izan naiatzu beti. Alako batzarretan, banaka batzuk euren jakituria erakutsi ezik, ezta ezer ikasten. Ekin eta ekin, orduetan, gauza berberaren ingurumari, ausart eta zaratatsuenak beti oillar geratzen dirala; bolu-kalakaren ots bardiñaren ekiñ gogaikarria. Izlaria ez da itxura danez konturatzen, entzule guztiak larregi be bai. Olakoengandik urrindu egin oi naz ni, berekoi ta eritxi itsukoa baldin bada bereziki. Baiña izan naz, errukiz edo, Euskaltzaindiaren, Kardaberaztarren eta Euskerazaintzaren batzarretan; gitxitan, baiña izan naz.

Norbaitek erakutsi bear; maisu geiegi agiri ziran, baiña, Euskaltzaindian. Oker ete nago? Oba! Geure izkuntzaren gaiñean eta inguruan, euskal idazle zaar eta gazteai buruz eritxi ta aburu merke ariñegiak saltzen ziran, eta edozeiñek saldu be. Garai baten, 1955 inguruan, eztabaida ziztrin bat zan nagusi, aurrez eraturiko jokabidea ziur asko; garbizalekeria ito-azo bear zan, ondo lurperatua gera zedilla aranatar eskola. Orri ekin bearra batzar guztietan, solo bikain baten gabetik goizera ermetako sasi-bedar gaiztoa bai litzan. Ni be, antza, kutsu orrek ondatua nintzan: kartzelatik urten-barria... «Milla Olerki», «Karmel» eta abar, eskola ortakoak argitaratu nebazana. Eta, badakizu, gaur ez dogu itzez alkar ulertzen egitez baiño, eta niri arpegira ezer bota ezarren, antzokiko zapi ostean «ori be olakoa da» ots-egin oi zan.

Bein baten, esan dodanagaitik, guztiz asarre urten neban an Donostia'n ospatu zan batzar batetik: Zornotza'tik araiño, gogorik onenaz, joan eta alkarren arteko irain-itz gordiñak entzuten orduak emoteko...!

Beste bein, 1958'ko abenduaren 13'an, Euskaltzaindiak biltzerra Bilbon Bizkaiko Aldundegiaren liburutegian. An nintzan ni be. Maiburuan: Altubc'tar Seber, Nazario Oleaga, Juan Gorostiaga, Aita Villasante, Aita P. Muxika, ni, Jauregiberri andrea -ta A. Irigoien idazkari legez. Gorostiaga'ren itz laburrak eztabaidatu ondoren, A. Villasante'ren «Bizitzatik urbil» solasaldia. «Gure literaturaren aurrenengo eginbidea —esan eban— ta betebearra da, nere ustez, euskeraren bizitzari begiratzea, eta ortarako euskera biziakin eskuz esku eta urbil ibiltzea». Pentsamentu ontaz luzatu zan batez ere aren itzaldia.

Ondoren datoz gogoeta bakanak. Idazle mota bi daukaguz: garbizaleak eta mordoillo-zaleak. Batak eurrez darabiltz erdel-itzik, besteak ez; batek «kafe» ordez «akeita», «kolore» ordez «margo», «aingeru» ordez «gotzon». Txinpartaka diardu A. Villasante'k garbizaleen kontra, aranatarren aurka. Ur asko daukan iturriak borborka botaten. Zer erru dau garbizaleak, gaur batuzaleena dan lez, orduan garbizaleena bazan? Garbi-joera arek gaiñera —gai-tezan zintzo! — loi-sorta itzaletik garbitu baj eban euskera?

Errierentzako idatzi, esaten dogu. Gaur ez dakigu ostera erria zein dan. Zer edo zer dakiana, ala ezjakiña? Leen euskal irakurle zan gure erria, naikoa irakurle. Nik au esan nengike: gerra aurreko «Karmengo Argia», ementxe Zornotzan ateraten zana gaurko aldizkari apain guztiak baiño atsegingarriago jakola erri irakurleari. Nik orduan naiz gaur bardin samar egin oi dodaz neure idazlanak. Orduko pentsamentuak lau-lauak zirala, lau-lau adierazota? Egia diñozu, baiña gaur-egun ez ete gabiltz idazle guztiok ideia zorrotzen billa? Itz-urrenean be orobat? Idazleak, jakiña, alik eta txukunen idatzirik, apain eta dotore agertu nai ditu bere lanak. Gaurko irakurlerik geienak olan eskatuz. Kanean ez agertu soiñe' ko trauskil.

Giro baldarrak erdi-jota ekazan cuskaltzalerik naiko. Idazle edo itzegiren batek jaso baldin ba eban badaezpadako itzen bat, «ar-

nari» esate baterako, laster ziran ogei toto txau-txauka, gaiñerako gaiak ez bide eben gorarik, itz barrabas a suntsitu arte beintzat. Beiñolako batzar batean, J. Kerexeta ta L. Mitxelena agertu jakuzan ortaz ekiena ta geiago azal-azoz. Nik he, ¿ai oni buruz zerbait nekielakoan, zango-sartzea egin neban, esanaz: «Azkue jaunak ez-ezik, J, B. Eguzkitza'k be, bere «Loretako Illean» ba dabil itz ori». Eta ur neukan Txillardegik'k zast: «Erriak ala Eguzkitzak dau inportantzi geiago?» Nik orduan: «Literaturak be badau bere garrantzia», Marmar ixilla.

Txillardegiren jarduna ondoren, luze ta sakon, Orain leun, eta bertatik txinparta-jario. Ona «Gure anarkiaren sustraia» titulupean datorren zati bat, «Euskera» ala «Euzkera», biotatik zein dan klasikoena erakutsi nairik, onela diardu: «Betidanik eta euskalki guzietan, euskera izan da, «s»-kin: «heuskara», «euskara», «euskera», «eskara», «eskuara», «uskara», «uxka»; sekulan ez, ordea, «euzkera». Eta, alere, «euzkera», «euzkaldun, eta abar. Zergatik? «Euzko» ori «eguzki»-tik datorrelakoan? Alere «euzko» oraindik izkribatzen dutenak edo defenditzen, batasunaren alde daudela esango digute! (Bai, motel, aranatarrek be beti nai izan dabe euskal batasuna, baiña zentzunezkoa). Gaur, «euzko» defenditzen dutenak ez dute batasunak nai: beren setak eta egiak nahastuz, setak hahiago dituzte aurrera eraman, euskera bera baiño». Au seta.

Geiago, idazkera au benetan setatsua dala jakin arren, aurrera jarraitzen dausku bere predikuan. «Auetxek dira —diño— gure anarkian errudunenak, Beti «euskera» esan baldin ba da, arrokeria gogorra da orri kasorik egin ez eta «eguzki»-aren teoria orri lotzea. Zer da jokabide ori? Seta bati inportantzia aundiagoa ematea, euskaldun eta euskalki guztiai baño».

Zer oneik gorabera, nik miresten dot Txillardegik. Euskaldun barria da, sakon ikasi dau gure izkuntza; euskal kezkek eragiña agertzen jaku beti. Asko idatzi dau, euskera bikaiñean. Edu orretako gizonak nik maite ditut, eta miresten. Gaitz orokorrak bere, gizaseme guztiok doguzanak errez parkatzen jakoz.

Inguru-mingura onen ostean gatozan oraindik leen-auzira. Ajtaturiko batzarrean an ziran guztiak eragin eutsoen miin-maratillari,

nai bestean eragin be: itz egin eban Aita Mokoroak, itz Aita Villasantek, itz Altubek... danak izlari **Eta, politena, danak** errazoidun. Gero, euskeraren batasuna egin bear zala... Etzan, ez, errez izango ixtillu naasi aretan bat-etorte. Txillardegik Euskaltzaindiari kontsejuak, lenengo ta bein zer egin bear leuken esanaz: a) Auzi orretan egin leikezan alegiñak berak zuzendu, ta b) bere aipu guziarekin, euskeraren batasuna zeaztu ta euskera «personala» ta euskal berrikeri guziak ezetsi ta kondenatu». Kontseju gogorrak! Gogorregiak, nik uste.

Ogeitaamabi urte dira ori otsegin zala. Eta jenteak diño: «Zer, egin da ordutik ona? Bai, euskeraren batasuna, askorentzat betiko egiña, or daukagu goitik beerakoa. «Ondatuak» izan dira euskera «norbera» ta barrikeriak; aurrerantzean danok bat: «ba» ez da esaten «ados» baiño. Tira, txo! Danok konforme. Bai? Zulo baten larako bi ez ete? Itz «madarikatu» arein ordez beste milla madarikatugoak sortu jakuzala diño jenteak. Eta orretan Euskaltzaindia dala pekatar.

Araiñegun gazte bat etorri jatan gelara. Esku artean nekarren lanaz mintzatean, Euskaltzaindia be aitatu genduan. Erakunde guztiak dabez alderdi onak eta ez ain onak. Ni —maltzur sama r— Euskaltzaindia aupatzen asi nintzan, eta arek:

Eztanik ez lar goratu.

Zergaitik baiña?

—Aspaldi ez dogu ikusten bere lanaren fruturik. Diruak ondatzen ditu erakunde guztiak, baita Euskaltzaindia be. Leenago ikusten zan euskaltzaiñen izerdia. Gaur ez, euskerea iltzear dagoe-la, jaunok nasai-nasai.

—Sosik bage, ez dago ezer egiterik.

Ba, Euskaltzaindia, diruz bete danetik, alpertu egin jaku osotero.

Liburuak eta, argitaratzen ditu.

—Zer geiago?

Zer erantzun ez nekiala, aizeak igurtzitako ostoa antzera, itxi ninduan gazte arek. Eta nik be, egia autortzeko, ez dautsot Euskaltzaindiari eraspen aundirik izan. Urte asko dirala, esan dot, egin ninduen urgazle, geroago, urte mordo dala, 1979'ko abenduaren 23'an Batzar nagusi bat ospatu eban Euskaltzaindiak Arrasate'n, Euskaltzain urgazle ta ohorezkoak izentatu ebezan; ni be an nintzan ohorezko zazpiren artean, Titulu bi ditut, beraz, euskaltzain izateko. Baiña euskaltzain urgazle, apal, iñoiz bere ez «oso», ezta pentsatu bere. Beti izan jat atsegin aske ibiltea, baita orretan bere.

37 LIBURU AZOKA

Ez dakit zenbat urte lez diran, askotxo bai. Gerediaga erakundeko euskaltzale zintzo batzuk erabagi ez esan eben: Goazan eta antola daigun liburu azoka. Etzan suster bako guraria. Orduan landaturiko zugatz onek fruturik ekarri dau, ba, 1966'tik onantz.

Ordurako be, bai, ospatu izan ziran Bilbo, Donosti, Gasteiz, Tolosa ta abar euskal liburu azokak. Mugaz andik eta emendik, sarriegi ez baiña noizik bein euki izan dira Euskalerrri osoan olako liburu erakusketak. Euskal liburuak indar-azteko ipiñi izan zan azoka onek aiñako zer-ikusirik, baiña, Euskalerrrian ez dau beste liburu-azokek izan, euskerazkoak ain zuzen. Urtean zear, birritan ospatzen da orain, aurrenik euskerazkoena bakarrik eta gero euskeraz eta erderazkoena.

Ez naz ibilli oi merezi ezari intzentsu botaka. Igaz, adibidez, Sorkunde inguruan ospatu zanean birritan egon nintzan ni; lenengoan, tira! , ibilli zaitekean toki naikoa zabal aretan; bigarrenez, abenduaren 8'an, ezta oinkadarik emon be, saka oni ta saka ari, ez erditik ez alboetatik, an ez egoan bide egiterik. Liburuak ikusi? Alegiñak egiñagaitik, nik ez neban jadetsi ezagun batzuk agurtu ta libururen batzuk eskuratzea besterik.

Ainba, argitaletzek eukezan euren standard luze ederrak, liburuz gaiñezka, kerexa gorritzko zugatz gazteak iduri. Saldu guran.

eta salgaiak eskinka, Euzkadi osoko liburu-dendak bertorako jakuz; gaur aize-naspillak firi-firi dagiala-ta, zerbait beti saltzen dala-ta, argital-etxeak joranez ari dira saltzen. Urteetik urte geiago jatorkuz saltzailleak. Ba dakit askok galdu egiten dauana, sal-maiak erostea garesti samarra bait da, diñoenez. Alan eta guzti be, ent-zute ta osparen loxinga be zerbait dala-ta, urrengo urterako be joan-naiaren arrak zirikatuta etxeratzen jakuz

Ni be pekatari nozue orretan, Nik be euki izan dot urteetan neure izeneko sal-maia, 1967'an edo asita. Ez nintzan neu sartu orretan, beste batek ipiñitakoa zan. Mañaritar euskal idazle jatorraren «Abarrak... eta abar» idaztia argitara neban nik. Or egoan zaiñ, aitz-gaiñean aranoa lez, nire argitalpenaren zaiñ euskal kulturaren babesle errime dogun Leopoldo Zugaza durangarra, eta onek ipiñi eustan salmai bat nik argitaratutako «Abarrak eta... abar» liburuagaz goitik beera ondo ornidurik. Ikusgarri egoan egon be Kirikiño'ren abar-txorta Ale askotxo saldu ziran. Urrengo bost-sei urteetan be barak ipiñi eustan salmaia, apain eta dotore. Geroztik be urtero agertu izan cla nire saila, ez nik ipiñia, beste batzuk euren liburu artean egokitutakoa baiño.

Egi-egiaz nik ez dot ortan izerdi geiegirik bota. Nire lanak, alan be, or izan dabe salmaia, ta guzurra niñoke gitxi saldu dirala esanaz. Durangoko liburu azokan iñoiz parte artu izan dot, jazoera ortantxe euki izandako mai-inguruetan be, eta beti urten izan naz eurotatik atsegin aundiz, gauzak eztabaidatu, zerbait geiago ikasi ta euskal idazle barriak agurtu ta ezagutu al izan dodazalako.

Labur: Naibeste salmenta egon ez arren, interesgarri dira nireztat liburu-azokak, naiz Bilbon egin naiz Durangon. Oro-ar eta guztien gaiñez, zer berezi-berezi dau nireztat Durangokoak. Durangoko azokak badau zerbait, ainbat ikusle ta erosle ara daroanean.

38 GORBEIA

Menditsua da Euzkadi, enparau lurraldeak baiño eder galantagoa, geuk eta kanpotarrak ao batez autor dagienez. Naparroak ba ditu bere mendi zangarrak, Aralar, Urbaso, Andia; Zubero, Baxenabarra ta Lapurdi'k or dabe Auñamendi gaillur-lerro jagi luzea;

Gipuzkoak Aizkorri, Urbia, Aia; Bizkaï'k **Gorbeia txairo** aundien dalarik, eta Araba be or dabil besteokaz ez urrun, Toloño eredu.

Neurri danetako mendjak daukaguz Bizkaian, txikiak eta aundiak, zelai, troka amildegi ikaragarriz eta ikuspegi zabalez eder; arkaitz-mokorrak eta bizkar-azur berdezko muiño pitiñagoak, Kalamu'tik Karrantza'ra bada zer **Igotz-rnendi, Oiz, Bizkargi, Sollube, Ganekogorta, Golitza...** Baiña guztiotan Gorbeia, oillar gangar gorridun. Nik, neure bizitzan, 75 bider gitxienez ondo-ondotik agurtu dodana.

1934'an agurtu neban lenengoz. Ikasle nintzan oindiño Begoña'n. Ubidea'tik gora, trokaz troka, igon gintzazan, gaur Eldu ta Karmelo aterpeak dagozan muiñotik, Aldarnin gainetik gora, Gurutzeraiño. Egun beroa ta nekeza igoera. Alan be gure poza! Gorbei tontorrean gengozan! Begipe geunkan Bizkai osoa. Zoragarria benetan! Ez genkian ordurarte gure erria ain ederra zanik! Arrezkero be amabost aldiz igon naz ona, tontorrera ta, mendi ta erri, beti iruditu jat mazala, atsegiña.

Ni Larra onetan, 1952'an, aginpidez nengoala gazte batzuk etorri jatazan, bilbotarrak, Areatzako alaba Maria Jesus Aldekoa eta «Kapï», Gorbeia'n, Igeriñao'n aterpe bat eukela, berau nasaïago egiten iñarduela, ta meseda bat gura eben. Zer mesede? Eurak Bilboko «Juventus» alkateteok ziran, askotxo izan be, ta danen artean euren aterpea —gaur etxe ederra— atonduten ebiltzan, zapatuan eta igande-goizez lan egiñik. Eta, jakiña, goizeko amabiak in uruan, antxe bertan, Edurretako Amaren basaleizan mezea nai eben, maiatzaren lenengotik urrillaren azkenearte,

Nik ez dakit olako erreguai ezetz esaten. Eta baietz erantzun neutsen jaongo giñala. Eta ara joaten asi giñan, Larra'tik domeka ta jaietan. Nagusi lez neuk itz emon neutsen ezkeron, nen joan be egin nintzan geienetan. Zornotza'tik Lemoa'ra ta Lemoa'tik Zeanuri, Zibururu, Lekanda azpitik, Arraba'ko landatik zear, Igeriñao'ra. Ia beti, Zeanuri'n Sagarna'nean zerbait artu ta San Justo'tik gora zan gure igoera. Iñioz baita San Tuan aldetik be.

Juventus alkartekoak, neska ta mutil, mendi-zale amorratuak ziran garai aretan, eta Lemoa'tik goraiño aldra aundia joaten giñan. Bakarrrik be atsegin jatan joatea, eta bakarrrik niñoianean, an naiz emen jarri ta neure biriki-auspoak aizatzen nebazan. Birako ikuspegi ederrez borbor egistan barruak eta orduan aldean neroian arkatza artu ta paperean jarri oi nituan pentsamnturik gozo-leunenak, Baita, batzutan, olerki sotil bat arildu be: olantxe osotua dozu «Lekanda!» deritxona, adibidez, edo bean Zanburu gaiñeraiño tatarrez ekarri ta lagata aurkitu neban agin-ondoari egiña.

Meza amabietan. Naikoa jente ermita aurreko pago-kerizpean tente kanta ta otoitz. Ondoren, bazkal aurretik, lan pizkat. Makiña bat burkada-lur eroana naz ni be alboko trokara, aterpe aurrea bardindu ta txukun jarteko. Ateatza'ko alaba Maria Jesus Aldekoak esku leunez eta biotz samurrez atondutako bazkaria, mai zabalean asko ta asko danok batera. Gazte taldeko janariak beti dau gozotasun berezia. Gero, kantak eta ipuin-kontuak. Eta etxeruntz mencli'beera. Egun bikaiña!

Bost-sei bider bertako jai-egunez, Iñaki Deunaren egunez be, an nintzan. Aurreko egunean bertaratu, apal-ostean gau-berandu su-inguruz akelarre egin, biaramonean eguzkiaren urteiera Aldamin ondotik ikusi, meza aurretik txanbolin-otsean **mezea**, itzaldia, jolasak... eta abar. Egun aztu-ez:ña au be!

Pagomakur. Itxiña, Arraba, Atxuri-alde... Beste aldetik Agiñalde, Zementos, gure aterpe nasai txukuna. Emen sarritan esan bear izan dot mezea, Lanbreabe'tik igonda. Emen eta Igirifiao'n lagun kutunakz, mendi-altzo zoragarrian, egun eta ordu alai eztiak igarora nozue. Eguzkia mendian gozoago da, illargia sorgiñago.

39 AITA BEDITA LARRAKOETXEA

Zeanuri, naiz bidenabar esan, eleiz-gizon ez moteletan, oraiñar-te beintzat, oso ugaria izan jaku. Oroí daiguzan emen Larrakotxea'tarrak, iru anai jakintsu Maurizio ta Ipolito karmeldarrak eta Bedita laterandarra. Aita IVIaurizio berrogetaz urteak Kolonia'n mixiolari egiña ta Ipolito Erroma'n nagusi ta euskal soloan,

Irurotatik lenengo biak, karmeldar biak, illak dira. Bedita, bariiz, bizi da oraindik Oñati'ko bere lekaidetxe ixillean. Euskal arloko langilleen artean iñoiz nagirik erakutsi ez dauana, batez be amasei-amazazpi mendetan ingelandar andikiak eta erria «bere erai-lan gain-gaiñekoz eta ezin-obeakaz alaitu ta eskolatu zituan». Shakespeare'n trajedi, drama ta komediak, oso-osorik, euskeraz jarri euskuzana.

Salta'n (Argentina) bizi izan zan luzaro irakasle. Osasun onekoa izan arren, geixorik aurkitu zan bein, idatzi eustanez, eta ge-xoaldi ostean be zeregin aundi barik egon bearra. Bitarte ortan, zeri ekiñez aldia erre? Teatrugilla bizkorraren lanak euskerazten ekiñaz. Asi ta ekin, eta aurrera! 36 antzerki dira. Eta zer? Gorbeia'ra igoteko, bein bidea artu ezketiño, gorantz egin bear da, iñoiz be aspertu barik, gaillurrari gaiñak artu arte.

Itzulpenak, errezak eta gatzak dira. Niri griegotik «Odisea» biurtzea ez jatan zail egin, bai ostera Dante'ren «jainko-Antzerkia». Shakespeare'k ingeles berezia dau, labur oparoa, esaera zaar ederrez josia, eta guzti au euskera bizi jatorrean iraulita emotea, naitaez aldatz-gorako lana izan bear.

Itzultzaileak bostgarren liburuari egiñiko itzaurrean onela

«Yaietako soñeko lirain, dotore, txairo, orratzetik arakoz jazen dauz Shakespeare'k bere bulko pentsamentu, biotzaldi ta irudi zoragarri arrigarriak ingalanderaz. Au onan dala egoki ete zan ba, aren olango lanak euskera baldar-traketsez emotea?». —Olan be, darrai: «Euskera jatorrez al izan dodanik liraiñen, dotoreen, txairoen eta txukunenez euskeraztu dot Shakespeare, irakurriago ta zoragarriago, atsegingarriago egiten jakun Shakespeare».

Bere lanak, zatika, nik argitaratzea nai izan eban. Ez neutsan ez baietzik, ez ezetzik esan. Londres'tik bialdu eustien tomu lodi bat aren teatru-lan guztiakaz. Eta asi nintzan lanean, aren antzeko ale gizen eder bat burutzeko asmotan. Aldi berean, itxura zanez, Oñati'ko beste adiskide on bat be zeregin orretan ipiñi eban Larraoetxea'k, Korkostegi'tar Santi zan au. Ez dakit nok, baiña

alkar lanean sartu ginduezan biok; Korkostegi'k nigaz itz egin eban, Donostia'ko Aldundi ta olako erakundeak jakitun jarri zituan, Arantzatu'ra jo eban, an esan eutsoen nigaz «kontuz» ibilteko, espetxe egona nintzala-ta. Euskaltzaindia'k, dirurik ez eukalako edo, ez eutson aurrerapiderik emon. Zaarren deus orduko ez eben onartzen.

Zentzunez izor diño Santa Teresa'k pazientziz dana lortzen dala. Azkenez Kardaberaz Bazkunak argitaratu eban Zeanuritarraren itzulpen-lan osoa, bost liburutan, olan itzultzailea eta euskaltzaleok poz-eztitan itxirik. Au zala bide, omenaldi eder bat egin geuntson Zeanuri'n, eleizan eta plazan. Nik, erritar eta kanpotarrez bete-beterik egoan Udaletxe osteko aulkitik, teatru-egilearen gurentasuna ta itzultzaillaren azkartasuna adierazo ta goresteko alegiñak eta bost egin nebazan.

Bego azkenik, Bedita'ren kezketarik au. «Gitxienez —idazten dau— urtebete ba'da Shakespeare'n antzerkietatik azkenengoak nire anai Maurixi'ri bidali neutsozala, baña ak, nagitzarrak eztaust iragarri oraindik artu dauzanik be. Bat bakarrik dot bidaltzeko, zera, LEAR ERREGE, baña au be barriro orrazturik garbi idazteko gertu-gerturik dot». Orraztu egiten zituan bere lanak. «Eun bider orritzuko baneuz be oraindik zer orrazturik aurkituko neuke. Birgili Erromar idazle ospetsua **egoa**—nean bere Enearena bikaña suari emoteko asmotan ei egoan, eta orrako orrek enau bape arrituten. Eder da Enearena ta tamalgarri litzakean lan bikain ori suak irunstea».

Shakespeare dozu ingles literaturan gaiñen-gaiñengoa. Euskeraz daukagu, Arrati'ko euskaldi bizi-doiñutsuan. Irakur egizu, ederpentsamentuz eta euskal-era bikaiñez jabetu nai ba-dozu.

40 ETA NAGUSIEKIN?

Lekaidetxean ezta bat bakarrik bizi. Erbestean, mixiño etxetan bear bada, ba leiteke gitxi izatea, bi edo iru. Euskalerriko komentuetan amarretik gora beti izan gara karmeldarrok leen, etxe

bereziren bat kendu ezkerro. Emen, Larrea'n, aldra dexentea eza-gutu izan dot nik leen eta orain. Nagusia ta menpekoak.

Zelan nagusiakaz? Galdera au ezta nik asmautakoa, albiste edo beste zerbaiten eske ona datorkidazanak ia beti, uts eg:take, zu-zendu oi daustona baiño. Zergaitik ori? Sarritan izten nabe ni pentsakor: jenteak usto dau bere aburuz gu etenbako burrukan bizi ezta be, sarri izaten doguzala topekaldiak. Ezta egia, osorik beintzat.

Danok daukagu, gizaki gareanez, geure seta, izakera ta mendu aparta. Bizitzako une askotan ezta errez izaten barne-ari ori neur-rira ekarten. Eta ortik etorri leitekez, tximist-argian lez, zatraka ta txinpart urtika batzuk. Baiña guk lekaideok, mundukoak ez dau-kiena, iru boto daukaguz eginda, euron artean menpetasuna. Eta au, eta beste biak be, abitua artu gendunetik ondo erakutsia. Beraz, ba-daki batek olako zerbait gertatzen danean zelan jokatu bear dauan: burua makur-azo ta aurrera.

Niri egiten dausten galdera onek ba dauka bere errazoia. Aba-de naiz praille, abadetza ta prailletza itxi ta mundukotu edo ez-kontzen diranean, nagusiagaz eukitako goraberkaitik dala aldarrika-tu oi dabe: ez dakit nik beti egia izango dan; baiña orrela esaten dabe. Norbere izan-aria dala-ta, batzutan sor daitekez eztabaida latz gogorrak, aisa eroan eziñak. Eta orduan artzen dira, beste zerik ez ba dago, edu orretako erabagi zorrotzak. Gizatiar gara-ta, nik ulertzen dot.

Galdera ori beste bide batez be joan oi da; jakin nai dabe, nik uste, ia nik oztoporik izan dodan nagusien aldetik euskera auzian. Niri ez daustie ezer galazo, ezta besteai be gai orretan. Gudatean eta ostein izan ziran oztoporen batzuk, ikasleen artean eta, baiña besterik ez. Gure artean, arlo orri buruz, azkatasun osoa izan da nai bezela jokatzeko. Eta, egiari berea emoteko, iragar-tea dagokit gure komentuetan lan polita egin izan dala, gerra aurretik, gerra aldian eta ostein; beste Ordenai ezer kandu barik, garai ontako karmeldarren euskal lana egi-egiaz bikaiña izan da.

Uste ezta be, ba-dauka oberik alkartean bizi izateak. Misteri uts gara guztiok, baiña iñok badau zauririk edo naigaberik, laster

igarten jako arpegikeran be. Eta or daukazu anaia poztuko zaituna, arriskuan ba zabiltz, or daukazu laguna zuri eskua luzatzen. Au da, otzara bakarrik bizi anai artean baiño. Edegia ba zara, ixilkoi baiño oba. Eleiz-kantak onela:

Anaiak anai
alkar maite...

41 ARANTZAZU ETA «JAKIN»

Sarri ez, banaketan, izan naz Arantzazu, Urbia eta Aizkorri'n; ez dot izan nai aiña ebagune ango aize osasuntsuz neure biriki-auspoak asetzeko. Birloraturik itxi nabe nai-noz ango arkaitz-mukurrurru, zapalune ta trokarro baltzak, negu naiz uda, arima asegarri erdiko santutegia dauala. Berton egin ditut ezkontzak, gogo-jardunak, ixil-egotaldi luzeak. Beerago, Araoz'erako bide ertzean daukazu Sanda Ilia, misteri itzaleko koba-zuloa.

Euskaltzaleok ospatu ditugu batzarrak Arantzazu'ko bakartegian, batzuk barne-gozotasun aundian eta beste batzuk ego-aize zakarpean. Gogoan dot bein egun eder batez burutua, batzar naiz bazkari, anaitasun bero baketsuan eukia. Iru adiskide gero, Laspiur, Kapanaga ta ni, oiñez jatsi gintzazan Oñati'ra, euskal umore bizi garbalari berea emonaz. Aloña, Azkarraga, Joanes artzaiña... Igarri barik gengozan aspaldiko uri sonatuan.

Arantzazuko ikasle gazteakaz artu-emon naiko estua izan neban aldikada baten, 1958'rantza. «Jakin» atera eben areik eta «Olerti» nik. Idazle ta olerkari giñan guztiok, Enbeita'tar Kepa zan «Jakin» zuzentzen ebana, eta berarizko zer-ikusia nai eban ak bion artean. Bere aldizkarian etozan lanak nik kritikatzeari nai izaten eban guen baten: asibarrienak ziran, baiña ez txarrak. Bide aretatik jo ba'leu «Jakin»-k euskerea bai izango zala egiazko euskal izkuntza jatorra. Gazte areik «Olerti»-n idazten asi ziran, eta egia esateko, S, Mitxelena ezik, beste frantziskotar olerkari guztiak ementxe gaillendu jakuzan.

«Jakin»-en idazten ebenak udan billera bat egun bikoia, eukiten eben Arantzazu'n bertan. Ordena guztietakoak aratzen ziran, be-

neditarrak, pasiotarrak, karmeldarrak, agustindarrak, sakramentinoak, jesulagunak, apaizgaiak... Ikasleena zan billera ori. Beronen asmoak? «Elkar ezagutu, egindako lanak kritikatu, gerorako amets egin...».

Kepa gaztea, muxikarra, aldian bein edo igaro oi zan Larra'tik. Bein alkar izkera luze ostean, Arantzazu'ra joan bear nebala esan eustan; ango ikasle gazteai nik itzalditxo bat emotea nai eban. Baietz erantzun neutson, ezingo nebala iruzur itxi adiskide ain onaren guraria. Eta egun baten an nintzan, itzaldi bi gazte arei emonaz. Kezkatan urtzen egozan gazte areik.

1959'garrenaren asteran onan idazten eusten Kepa'k: «Joseba Intxausti jarri dogu zuzendari, Aldaketa aundiak egiteko asmoan gabiltz zarrak gurekin bat etorri ezarren. Ixillean lan egin nai dugu, ille pare batean, miñik iñori ez ematearren. Ba-dakigu ordea, orain bat etorri ezarren emendik urte pare batera ziñez onartu dutela egiteko asmoa dugun lana. Ez da ez, gure burutik bakarrik erten dan lana, Euskaltzaindiko gizonik trinkoenak eta beste benetan zintzo dauzkagun askok onartu bai digute. Eta, ori faltako, euskeraren Iaguntzarik ederrena deritzaigu! ».

«Jakin»-darrak ba eben beste asmo ederrik. Gazteen aldizkari orretan ain zintzo idazten ebenak merezi eben saritxoren bat, eta sari bi jaztea erabagi zan, zuzpergarri noski. Edozein idazle ziralako ez eben maiburuko jarri, Nortzuk, ba? Lekuona zarra, ni, Aita Iturria, Mitxelena ta Txillardegi. Urteko lan guztietatik, teoloji, filosofi ta kultura-jakintza-antze ataletako lanak, oneitatik lau aukeratu bear ditu epailleak bata bestearen atzean beren balloz erreskadan.

Olako asmo bikaiñez beterik ebiltzan gazte asmotsu areik. Eta eretxia eskatzen eben bide artezez jokatu nairik. Deabruak, orraitino, giza-asmorik ederrenak naspildu ta porrot-erazo oi dauskuz. Orrelaxe Arantzazu'ko gazteetan be, Nik sarri esa na: gazte arein «Jakin»-ek jarraitu ba'leu, euskerak gaur beste margo bat leukean.

42 MAITALERIK?

Iñoiz edo beste —maliziz edo pekoz ete?— oneik gauzok idazten nabillela jakitean, itandu dauste: «Eta maitasunik?». Eta nik

beingoan: «Biotza zetarako dozu, ba?»). Eta ondoren datoz azalpenak.

Jainkoak bere antz eta irudiko egiñak gara. Eta arimeak indar bi daukaz: *adimena* gauzak ulertu ta pertsonak ezagutzeko eta *nai-nzeila* gauzak eta pertsonak maitatzeko. Doaiok ez doguz ito-azi hear, ezta sarritan euren gurarj ta ariora ibilten laga be: neurria beti ta nun-nai. Galgan jarri bear da biotza, ez gaur esan oi danez, edozeill bedar-landara zapart egiten itxi.

Guk lekaideok, amasei-amazazpi urtedun **garbitasun** botoa egin genduan. Agur egin dautsagu ezkontzari, ezkongez biziko gara, ez bakarrik pertsona baten edo batzuen zerbitzari izateko, Jainkoari dagokionez gertuago egoteko, geure inguruko pertsonak, al dogun giñoan, beroago maitatu daiguzan baiño. Ain zuzen be, ezkontzeari uko egite orrek ez dau esan nai maitasun oskol barruan bizi izatea, ozta gero bakartade antzuan irautea, maitasunari uko biribilla eginda; ez, bestera da, zu bizi zeinke maitasun betean, besteai emondakoan, maitasun bizi sakonean, zerbitzuzkoan.

Eziketa bat dozu maitasuna be. Gogoz ni Santa Teresa'ren eta Juan Gurutzekoaren seme naz. Gaztetatik ikasi neban, arein bizitzak eta irakatsiak irakurrita, zelan jokatu eben eurak maitasunart buruz eta nik zelan jokatu bear dodan. Teresa deuna, oso biotz-zabal agortzen jaku bere idatzietan: Jainkoagandik doa izakietarra. Juan Gurutzekoak bardin, goi-gaillurretik ikusten ditu izakiak, munduko gauzak eta pertsonak; jainkoa maitatuz maitatzen dju pertsonak. Sua darioe idazten ebazan kartai. Bere idatzioetatik *Maitesugar bizja* dau libururik bikaiñena, lau estrofa sutsuk osotua, arimea Jainkoaz sutan alkartzen danekoa, Peñalosa'ko Ana karmeldar lekaimearentzat, 1584'an. Garbientzat dana dozu garbi.

Modu orre:an Jainkoari cmona b'zi dan arimoa, gogo-zaletasun jan-naizuko ezin'obez jantzita dago, gertu daukazu jenteari, naiz andrazko naiz gizonezkoari zerbitzu aldia ogiteko. Jenteak ba leiteke oker ulertzea, baiña bera zuzenean doa urkolagunari on egitera, zer-esanak ez dau bidean geldi-azten. Olakoa bait da jentetzan egiazko ona dagiana, ez txolin bizi jatzuna. Ez dautso arduririk bekaiztien esanakaitik: Kristori be esaten eutsoen pekatariakaz eta emagalduek ar-emonak eukozala.

Ni on-eritxia ta onartua izan naz gizaratean; au da, neuk maite izan dodaz pertsonak eta neu be maite izan nabe. Komentuetako kofradi, erakunde ta alkarteetan, eta parroki-lanetan (Logroño'n, Etxano'n eta Larrea'n) etenbako lanari ekin bear izan dautso; ez nazi egundo egon laguntzaile barik, eta geienetan, arrizko ez gara-ta, ortik sartu oi da alkarganako maite-sua. Nik, alan be, beti oar izan dot izatez gaiñetiko laguntza sentikorra —Jainkoak gaitu jagoten eskiña betetzerakoan—, eta laguntza orri esker, aurrera egin dot beti zintzotasun betean.

Batzuk bai dabe au ta ori esateko oitura, norbere pekatua iñori leporatu naian, bear bada. Onakoai, baiña, laster igarten jake zelako asmoz dabilizan. Zintzo dabilienari ez dautso orrek esateko kalterik egingo: orrako ikatz-txingarrak askotan norbere begira doaz. Barriro esanda be, Kristori aundiak bota eutsoezan, baita Juan Gurutzekoari be. Zelako salakuntzak!

«Goiznabar» neure olerki liburuan agertzen diran poesi batzukai-tik, batzuk esan dauste ni ma¹te-mindurik egon ete nazan. Ez ibilli arratoiari bost anka aurkitu gurarik. Idazkeran enaz izan na-saia, ezta mintzaeran be, iñoz baten berdekeriren bat esan izan ba dot be. Egitez, itzez eta gogapenez txau ta giza-legekoak izan gai-tezala, eskatzen dausku garbitasunak.

43 KARDABERAZ-TALDEKO

Ez jat egundo be eder izan iñoren batzarretan sartzea, bai os-tera ari ta oni, al izanik, laguntzea. Asi lan izan dot beti, «Ka; mel» eta «Olerti»-gaz, besteen gauzetan kateatu barik be. Lagun-tasun billa urreratu jatazanean, baiña, ez dautset ezetzik emon nai izan. Kardaberaz Bazkunak be orrelaxe artu ninduan bere lagun-tzailleen artean.

An Gasteiz'ko Apaizgaitegian emon jakon asiera «Kardaberaz Akademiari», 1924'an, On Manuel Lekuona buru zalarik, euskal kulturarako gogo beroa ikusiaz, ain zuzen be. Beetik gorako era-kunde bat zan, «ikasleak berak ner; beren asmoak ekarrita», diño M. Lekuona'k.

Bazkuna aren taldekoak eta burua (M. Lekuona) oraindik bizi zirala-ta, urteetan, 1936'tik, ixil-ixil egoanari barriro be bizia emon nairik, 1970'an, apaiztalde bat batu zan Donosti'n eta Ernanin. Urrengo urtean, otsaillaren amazortzian ospatu zan Batzar nagusia Loiola'n. Oneik ziran an alkartu giñanak: Manuel Lekuona, Anastasio Arrinda, Pedro Berrondo, Joakin Arostegi, Gozton Rementeria, Esteban Abrisketa, Gorostidi'tar Pedro, Albisu'tar Anastasi, Jose Mari Laborde, S. J., Garmendia'tar Juan Jose, Galarraga'tar Juan Mari, Bergara'tar Jose M. S. J., Larrañaga'tar Luis, Zamora Jose M., Dorronsorotar Jokin, Sotero Plazaola, Puxana Pedro, Amutxategi'tar Andoni, Aita Onaindia, Galarraga'tar Luis Mari, Irigoien'dar Txomin, Gantxegi'tar Saturnino, Gaztañaga'tar Jesus, Artola'tar Errapel, Loidi'tar Paben, Esnaola'tar Serafin, Juan Arantzamendi eta P. O. Ramon Narbaiza.

Bizkaian, Donostia'n lez, talde bat osotuko dabe, eta beronen batzarrak eukiteko Zornotzako «Larrea» lekaidetxea aukeratu oben, «Aita Onaindiaren eskeintzari» eskerrak emonez.

Bazkuna onek bere zeregin aparta dau: «idatzi ta zabaldu», Aita Kardaberatz'ek bere idaztiakaz egin eban antzean. Idazle eskola sortu zan, eta urrengo billeretara bakotxak lan bat ekarri bear eban, alkarren artean gero irakurri ta aztertzeke. Naiko lan egiten zan olan, bai Donostiako eta bai Bizkaiko batzarretan. Orixe zan, izan be, eta aurrerantzean izango, euskal idazle jatorrak plazaratzeko biderik onena.

«Idatzi» eta «zabaldu», «Idatz eta mintz» ez dira goiburur bi-txiak bakarrik. Kardaberaz beintzat ur gaiñean dabil liburu kontuan, e_ta Labairu, bidenebar esanda be, ez doa etzetik, urriñegi.

Ederra da Kardaberatzen liburu saila. Txalogarri dogu onetan Juan Jose Garmendia; beronen idazti bilduma interesgarria. Amar-amabi bat liburuxka albora itxirik, aundienak aipatuko dodaz emen: Luis Egia'ren «Neurriztia»; Uxola'ren «Suge gorria» eta «Ezpalak»; A. Albisu'ren «Erreka zuloan eta...»; Shakespeare'n «Komediak» I ta II, «Dramak», «Trajediak» I ta II; G. Larrañaga'ren «Landare Jakintza»; Anes Arrinda'ren «Euskalerrria eta eriotza»; Umandi'ren «Gramatica Vasca»; Loidi'tar Paben'en

«Txiruliruka», olerkiak; «Lekuona'tar Manuel jaunaren ome-nezko idazki bilduma», I, II, III; Umandi «Complemento Gramkica Vasca»; Aita Ipolito Larrakoetxea'ren «Erroma'ko Ele'zearen Araudia»; Iztueta'ren «Olerkiak», eta abar. Aita Mokoroa'ren «Esakun Bilduma» aundia argitaratzekotan be beraiu ibilli jakun lenengo urratsak emoten.

Bazkuna onek euskera ikasi, idatzi ta erreztu egin nai dau. Ikasi nai dauanari, errezten alagindur Eta inguruko istillualc, H, batasuna ta abar? M. Lekuona'k: «Batasuna euskera asmatu zala; asmo ori genduala, arazo ortan sartu giñanok... Orra bada: erreztu bearrean, zitaldu egin diguela batzuren batzuek; asma diteken zaltasunik aundiena asmatu digutela ortarako: mundu guztian, erdetan ere nazkarik aundienetako bat emoten duana: H.».

Onela Jarrai Lekuona'k: «Euskera ez da bere baitan datzan gauza bat; euskera euskaldunen baitan datza, euskaldunen coan; eta ez da iñor euskerarekin berak nai duana egin dezakeanik, euskerarekin agintzen duanik; ez iñor-iñortxorik, ez iñongo batzarrik. Ederki esan ba: t zuan, bere orduan, Mitxelena jaunak, Euskaltzaindia bera ere ez dala iñor, H euskerari ezartzeko, H'eren txalma, naita ez, *derrior* euskaldunai ezartzeko; kontseillatu bai, ezarri ez. Ala ere, ba dakigu zer gertatu dan H'rekin. Txalma norbaitzuek euskaldun guztiei, *derriorrean*, «dogmatiko», Uzkarrean ipiñi nai digutela.».

Zetarako ori? Batasuna egiteko. Baiña jazo zan jazo bear ebana: «Batasuna» egin bearrean, «bitasuna» egin jakula. Iru mando izan eta lau karga.

Zailtasun eta nastetik iges dagie Kardaberatz taldekoak.

44 OLABIDE

Aita Olabide gasteiztarra ez da niretzat gizaseme makala izan, an galiziar Miño ibai ondoan, Portugal'era begira, Santa Tekla azpiko La Guardia'n, «Loiola'tar Eneko Deunaren Gogo-iñarkunak» eta «Kristo'ren Antz-bidea» idatzi zituenetik. Aundia ikasterako eukan zaletasuna. «Zaletasuna ez ezen —diñosku

Muxika'k—, adimera ere oso aundia zuan Errairnun'ek eta gauza askotarakoa gañera, Matematiku iaioa zan, musikaz asko zekina, Izadi'iko Jakintzetan benetan trebea, izkuntza asko ikasitakoa, ikasgai guziak errez ta sakon ikasten zituna, Buru azkarra benetan Olabide A.'k, ezagutu zuten guzik diotenez».

Aundi agertzen zan niretzat an Begoña'n, ikasle nintzala, aren «Kristo'ren Antz-bidea» irakurten nebanetik. Egiazki, gizona zelakoa dan jakiteak garrantzi aundia ba dau be, olakoaren lanak irakurteak ez dau gitxiago. Gero, 1931'an argitara emondeko «Itun Berria» gure eguneroko ogia bai gelan eta bai otoitz-aldian. Idazti au guretzat izan be etzan edozelakoa, geure-geurea **bizitza** guztian esku artean erabilli bear genduna.

Beronen idazleak be ez uste edozelakoak diranik, Mateo, Paul edo beste izeneko norbait. «Edozein idazlek bezela —diñosku Olabide'k—, gure auk ere, xede baten guraz, idazteko asmoa gogoan Zenik erabaki zuten. Gero, berriz, esatekoen arloa autu, arlo onen mugak zedarritu, azaldu bearrak ondo ezagun arte azterketan ari izan, ta zer artu, zer utzi, nondik asi, yarra ta amaitu bear zuten asmatu ondoren, azkenez, orrela gogoan erabillia, egokienik zeritzaienez, itzetan gatzaturik, idatzita utzi ziguten. Ori ez zuton, ordea, beste idazle guziek bezela, beren buruz egin, Yainkoaketz bakarrik, idazteko Berak vano ta arteztuta baño».

Geroago etorri zan bestea, «Itun Zar eta Berria», 1958'an «Idazteuna» izenburuz, Etxeberria'tar Pantzeska josulagunaren ardurapean, Bilbo'n Jesus'en Biotzaren Deiak argitara emona. Itzulpen euskera b'zi, garbi, jakintsuan osotua. Bene-benetan gogoz artu eben, eus';altzale ta jakintsuak batez be, Arrezkero -egin diran itzulpen guztiak auxe izan dabe oiñarri.

Liburuetatik bai-baiña arpegiz ez neban nik Olabide ezagun, 1936'an Lekeitio'n alkarregaz bazkaldu genduan arte. An ospatu zan Olerti-Egunean ango Udaletxean euki genduan bazkaria. Aretu zabalean, erdi inguruko maian jarri gintzazan Orixe, Olabide, Aita Tose Domingo karmeldarra, ni, Klaudio Onaindia nire osaba, ta beste iru abade. Jan bitartean lenengo iru bazkaldarrak, atertu barik ekin eutsoen Gurutzeko Jaun Deunaren m'sitkari buruz. Mistiku ta olerkari bait zan karmeldar Santua...

Gizona ezagutuz maitatzen. Leen irakurriaz miresten neban euskaltzale zintzoa, gero gizasemez maitatzen asi nintzan. Lekeitio'n mistikariazko autu luzearen ondoren, gogotsuago irakurri oi nebazan aren itzulpen lanak. Gauza askotan dot arrezkero maisu, baiña adizkera batuak erabiltzen erne-erne dot. Egiazko almena dau euskereak adizkera batuak eratzeko, eta eunka dira Olabide'k damoskuzan adizkerak, aditzaren era guztietan emon be gero.

Euskaltzale kaxkarrak ez —goregi egon antza oneintzat tantaiaren gailurra—, baiña euskaltzale jakintsu guztiak txalotu izan dabe Olabide'ren euskal lana. Or Orixe, J. Zaitegi, M. Lekuona, L. Akesolo... Urrestarazu'tar Andoni'k onan: «Olabide'ren lan guztien artean, geron ustez, «Idazteuna» dugu garrantzi aundienekoa, erraz irakurtzen dana ta ikaskizun aundiz aurkezten dizkiguna. Bertan, joskera jatorra erabiltzean, itzetan eta itz garbietan aberastasun aundia ikus diteke, ta lanaren barna euskeraren almenak agertzen dira ongienik ustiatuta, batez ere aditzetan».

Gogalpenetan gogaitu barik, barriro be au diño: «Eztitu Olabide'k erderakadak onartzen, berak darabilen itz-bilduma yoria dugu benetan, eta bere itzen iturburu nagusia Azkue'ren iztegia izan bide zan. Ez ote zuen esaten Azkue'k, bere iztegia berak baño obeto Olabide'k ezagutzen zuela? Alaz ere itzan izan ura berarentzat iturri bakarra; ongi zekien arek idazle zarren artean eta batik bat errian bertan ikastea».

Idazlerik geienetan jazoten dana; zaila iruditu arren, gero gozotasuna aurkitzen.

45 NI BATU-ERAGILLE?

Askotan ibilli diran arren ni «lider» jarri nairik, nik ez dot uste iñoiz izan dodanik ortarako barne-deirik. Ezta taldean burumakur lan egiteko be. Naiago izan dot aldi oro bakar-samar lanari ekin. Bestalde, Urtzik emondako aldigitxi au, urrea da-ta, lanerako erabilli bear ta ez batzar antzu ta barriketa suster bakoe-tarako.

1972 argitaratu neban nik neure lenengo «Euskal Literatura», eta au egoki samar egoalako edo, bala-bala ebillen batua aragitu al izateko, itxura zanez, andik eta emendik gutunak artu nituan auzi orretan parte artzeko inostenak. A. M. Labaien geien zirikatu ninduna onetan. Ez neutson kasu aundirik egin. Bizi-bizi egoan gauzea ta ni guztiz lanpeturik.

Euskaldunon batasunik eza, naiz politikan naiz izkuntzan, orainartekoa diñot, oso banaturik bizi izan garealako izan da; aurre-rantzean, barriz, ainbat tresna dukaguz alkarganatzeko; sal-ero-siak, liburuen zabalketa, turismua, urrutizkiña, berebil, tren eta egazkiñak; gaur ez dago bakar bizi izaterik, eta guk darabilgun izkuntza be, pizkaka-pizkaka, bateratuz doa. Irudi au dakargu Gamiz'ek: «Euskerearen batasuna, mendi-gaillurretik bera zetorren edur-billa lakoa da: urteetan, mendi-gaillurretik ur, txikia ta astiro etorrena, baiña gaur aundia egin jaku edur-bil ori eta abiadan dator goitik bera. Gero, beste edur-moltsoak urtu edo zuloetan gelditu egingo dira, eta Erriak kondaira luzean sortu dauan euskera bakarria izango da euskera batua».

Gaur oster, euskal batasunerako bide oni, astiroegia edo iru-diturik, goitik berako bide latza artu dau Euskaltzaindiak, goierakundez eta diru-kopuru galantez baliaturik. Itsu-itsaun Axular'en euskera artu ta kitu; olako zerbait egin eben italiarrak Dante-gan eta alemanak Lutero'rena artuz. Baiña atzera jotea litzateke ori. «Axular'ek egin ebana baiño askoz batu obea egiteko giroan gagoz gaur», diño Gamiz'ek.

Baturako bidean lan egin eban Larramendi'k bere iztegi ta «Eziña Egiña» gramatikearen bidez; Azkue'k lan ederra burutu eban bere iztegi, gramatika ta «Gipuzkera Osotu»-aren bitartez; eta Kardaberaz, Txomin Agirre, J. B. Eguzkitza, eta besteak; eta mi-xiolariak, Añibarro ta Prai Bartolome'k, adibidez; eta gaurko eleiz-izlariak; eta euskera sakonetik ikasi, idatzi ta elertian saiatu diranak, eta aldizkariak atera, euskal sariketak eratu ta piztu dabezanak... Oneik danok, eurak konturatu barik, bear bada, batasunaren bidean lan bikaiña egiten diarduenak doguz.

Gamiz (Olazar'tar Martin)'ek barriro: «Idazleak ez dau geienetan erriko izkuntzea errikoa dan lez artzen, beti alegintzen da,

garbiago, apaiñago, jatorrago itz egiten. Eta ori bai ba-dala baturantza jotea. Gaiñera idazten dauanak, askontzat idazten daurncz talde txiki batentzat. Orregaitik bere erriko ta inguruetakosake-rak eta jtzak batzen alegintzen da. Idazteak baturantza bultzatuten *gaitu*»,

Au ez gero antxiñako idazleak bakarrik, baita gaurkoak be. Eta Garniz'ek oneik biok gogoratzen duaskuz: «Zer egin dabo —diño— «Kosmos»-en itzultzaileak? Euskera osotu. Zer egin dau Aita Santi Onaindia'k bere Euskal Literatura'n? Euskera zabal eta Euskalerri guztirako balio al dauan euskera jatorra erabili. Ezin ukatu: idazleak baturantza bultzatu gaitu kondaira guztian eta alde orretara garoaz gaur be. Etxepare ta Leizarraga doguz ba batuaren bultzagiñak gai onetan, eta euren urratsai jarraitzen dau-tsegu idazten alegintzen garanok; guztiok diardugu batua egiten». Ederto esana.

Nik idatzi dana ikasleak mañsuarena lez artu ez arren, Irigarai jaunak maite zitun nire lanak, «Milla Euskal Olerki Eder» eta «Euskal Literatura» batez bc. Ikustaldiren bat ogiten neutson bakotxean, Iora-jaurtika asazkatu oi jatan. Euskera batu-zalea zan, baiña ez egiten ziarduen antzera egiñik, geien-geienok, beintzat onartua, ta beetik gora *emeki-emeki* hateratua baiño. Ni ederki ari nintzala esaten eustan, eta batu-eragille izan bear neukala.

46 NEURE «EUSKAL ELERTIA»

Bearrezkoak dirala, ez da errez ikastola, eskola ta irakaskin-trarako textu liburu egoki-crosoak umetxoai esku-arteratzea. Orain irar-etxe ta idazle, ikas-liburuak ondo neurturik eta loturik dagoz gure artean: guda-zelaiko mugak eta lubanak benetan ondo zaindu ta gorderik daukaz.

Nik alan be istillu, kalapita ta estura orroik asi aurretik be ba-neban asmoa, eskoletarako euskal literatura bete, eskuko ta atse-gin ba, osotzeko. Ba-nenbillen eta ba-niñoian apurka-apurka lan ori egiten. Zazpi aletako «Euskal Literatura», 1.972'an asitakoa, aurrera joian. Bestea, ale batekoa be, aurrera neroian.

Baziran n̄prearen aurretik beste elerti-kondaira batzuk be, Mitxelena'rena ta Aita Villasante'rena, esate baterako. Ikastoletarako, baiña, ez eben balio. Zergaitik? Erderaz idatzita egozalako. Gerago etorri ziran euskerazkoak be, nirea, Etxenagusiaren lorategia, eta Mikel Zaratere'n Bizkaiko elertiaren kondaira; utsak uts, lan ederrak, baiña «bizkaiera baturako» onurakor. Geiago bear zan.

Eta Olazar'ek idazten dausku: «Aita Santi Onaindia dogu bide onetan maixu eta berak aspaldion ateratzen ditun aleak oso goragarriak dira. Batu-antzeko euskera bat darabil: garbia ta ederra. Eta liburu aundi onetan edo oneitan ez da idatzia alkarren parean ipinterik, baiña beste lan eder bat ezagutzen dot, oraindiño argitaratu bakoia, ikastoletarako labur-labur eta jardunkizunakaz egiña, Antxiñatik irarkolara eroana da liburu au, baiña urteak igarota be, ez da argitaratzen. Zergaitik? Santi'k bere ardurapean ateratzen ditun liburuak azkar eta bizkor ateraten ditu, boria au beste batzun esku itxi dau eta or dago akatsa»,

Alakoren baten, azkenez, argitaratu zan arako liburuia. Eta Olazar'ek beromen obariak goratzen. «Oso interesgarria —idazten dau— ta erria baturantza bultzatuteko bearrazkoa da esku-liburu au. Ementxe agertzen dira eskualde ta aldi guztietako euskerak aztertuta eta alkarregaz konparatuta: zetan diran bardiñak eta zetan ez bardiñak argi ikusten da, euskalki bakoitxaren berezitasunak errez konturatzen dira. Iru urte dira liburu ori eskuan dogula irakasten diardugula eta ikasleen aurrepena agiria ta ugaria. Oneik dira oneik, benetako baturako bideak...!».

Liburu au, izan be, guztiz ederra asko ta askoren eritxiz. Eta au egoki dagokit aldarrikatzea, gero jazo zanagaitik. Eusko jaur-laritzak ikastola ta eskolen ardurea bere gain artu ebanean, eta eurotan erabili bear ziran liburuak aukeratu, euskal literatura irakasteko nire «Euskal Elertia» autatu eban; olan iragarri eusten niri Gasteiz'tik. Or egozan, baiña, zuur eta ernai azpi-lanerako morroiak, illun-satorrak arma fiñakaz. Nire elertia, ederra izanik be, ez ei egoan batuan, ez ei ekarren H-rik, beraz etzan argarri ikastoletako. Eta etzan ipiñi testu lez ikastoletan, ez eskoletan.

Iru milla bat ale atera ziran. Bizkaieraz egoan, baiña taket artean etorren gopuzkeraz be. Liburu jakingarria, eundaka argazki,

dibuju ta marrazkiz ornidua. Ez dau gitxik txalotu, aitag bere semea lar govestea azaiera onaren kaltez ez ba lego ere. Zuzpergarria dau azala, neskato ikasle bat euskal literaturaren ur b'zitik esetzen; iru koloretan barrua argazki ta marrazkiak dotore-dotore jarriaz; euskal kutsuzko irudi txiki ta aundiz 228 orriraiño lirain-lirain bitxitua. Aita Felix Zubiaga pasiotarrak egin eban irudi guztien antolaketa.

Ikasteko erreztasun aundiz egiña da. G zalditan datoz euskal idazleen bizitz-zeztasunak eta ;;zterketarako lan-zatiak; prosalariak, olerkariak eta teatrolariak sailka datoz geienik. 56 kapitulu guztira, idazlerik urtenenaren izenaren inguruan beste ainbat txikiago emonik: mendez mende zeozer idatzi daben guztiak aitatzen dira.

Idatzi danez, ba leiteke beste batek urte luzeetan obarik ez erateza. Egin dira geroztik be saio batzuk, nire au begi aurrean dabela; baiña «Euskal Elertia»-ri urrik emon bere ez, ez gunez ez ederkiz.

E_ta liburu perkatz au, Eusko Jaurlaritzak ikastoletarako liburuak aukeratzean, zapuztua izan zan.

47 EUSKALTZAINDIA ETA EUSKERA BATUA

Amaika istillu ta gorabera izan da, eta izango be bai, gai oneztaz. Danak apika egiak izan ezta be, siñistu ezin besteko zerak cio izan dabez ortik zear. Ainbat izan dira gai au astindu dabenak: danok gitxi-asko maisu izan nai.

Ni neu, esanda daukadanez eztabaida zale ez nazalako, osooan ez naz egundo be sartu berakatz-sail orretan; okerretera edo, zeozer ba'leiteke, baiña beren-beregi ez dot auzi orretan

lorrindu. Alan be, mundu guztiak daki, baita eskoletako sasi-santuak be, ni ez nazana batu-zalea. Nire liburuak ez daroie atxerik, eta askorentzat, ge:enentzat ezpada, H da auzi ontako iku-riña. «Aita Onaindiak ez darabil atxerik», dⁱñoe. Batzuk au be, ba-diño: «Ez erosi orren libururik». Sariketa batera bein, batuan

bialdu neban nobela antzeko bat, ela lenengo saria eskuratu; !ana ondo egoala, baiña itz bat, *herensuge*, H gabe idatzi nebala.

1918'ko urtarrillaren 25'an jaio zan Euskaltzandia. Bizkaikg Aldundjaren lana zan. Kosme Elgezabal jaunarena bereziki. Gero Bizkai, Gipuzko, Araba ta Naparroako Aldundiak babespean artua, Agerre, Agirre, Azkue, Broussain, Kanpion, Eguzkitza, Eleizalde. Intzagarai, Lhande, Olabide ta Urkixo izan ziran lenengo euskal tzaiñak, Azkue zazpi autarkiz buru aukeratua izanik. Lekeitiar jakitunaren ardurapean lan bikaiña osotu eban Euskaltzaindiak urte mordoan. Ondoren guda etorri zan, eta erakunde au be sakabanatua izan zan.

«Azkue ta Urkijo —diñosku Olazar'ek— bakarrik geratu ziran, eta oneik España'ko akalemikoak ziralako. Azkue'k Euskaltza.ndiko batzar-tokia, liburutegia ta ag'ritegia salbau zituan. 1941'ean batu zan barriro Erakunde au, sei bazkide ziralako. Lau bazkide barri aukeratu zituen, baiña bere senera etorten urteak igaro zituan eta bazkide batzuk askatasun barik artu-azo eutsezenak izan ziran. 1951'n il zan Azkue Andia eta urrengo zuzendariak Etxaide ta Lojendio izan ziran. 1966'an sartu zan ardura orretara Lekuona jauna. Gizon jator au beti izan dogu euskera batua bearrezkoa dalakoan, eta orretarako iñoz atxe batzuk onartzeko be gertu egoan, izki bakarri biren erdian eta izan-lagun edo izen-orde erakusleen asieran eta atxedun itz lapurditarretan, baiña argi ikusi dau atxeak eta atxedunak ekarri dituen ondoren bildurgarriak eta gaur euskaltzaindiak beti izan dauen bidean sendo dago».

Guzti onen sustraiak nundik etozan ad¹erazten dausku ondoren. 1964'ko dagonillaren 29'an, Euskaltza¹ndiagaz zer-ikusirik izan ez arren, garrantzi aundia daukan batzar bat egin zan Baionan. Batzar aretan asi zan gero obeto aztertu bear dogun ondamendia eta euskera batuaren sakabanatzea dan Batu-berri taldearen lana. Idazkerrea, deklinabidea ta aditza aztertu eta atxe non erabilli ebatzi eben. Gero Ermua'n egin eben beste batzar bat eta Letamendi, Salvador Garmendia ta Laspiur izan ziran izlari. Laspiur orduan, berak diñoñez, ez zan atxe-zale. Baiona'n artutako «erabagiak» aurrera eroateko berbatu ziran».

Aurrera eginik diño: «Kondaira onetan garrantzirik aundiena daukan batzarra, Arantzazukoa izan zan, 1968'garren urtean urri-llaren 3-4 ta 5'ean. An eztabaida gogorak izan ziran eta euskaltzaiñak alkarrerri irain mingarriak egin eutsoezan. Lekuona Lendakaria, batuaren alde lan egiteko Ermua'n berbatu ziranen auke-
rakoa ez zalako edo, lekutik kendu eben eta bere ordez, geroago gaur Euskaltzainburu dan Villasante jarri eben. Euskaltzaindian sortu zan banaketa, negargarria izan zan eta gaur arte jarraitzen dau. Mitxelena'k agertu eban atxearen arazoa eta aurkalari asko ta sendoak izan ebazan. Baten baiño geiagotan aitatu zituan Baiona'n artutako ebatziak. Eztabaida gogor onek apurtu zituan batasunerako itxaropen guztiak. Batzar onetarako Mokoroa, Onaindia ta Kerexeta'ren idazkiak artu ziran: ondo aztertuak eta sakonak lan oneik».

Burruka gogor nazkagarri baten egin zan zatiketa. Orduantxe asi ziran gaur maiz samar daukaguzan talde zakar erasoak: egiaz baliatu ezin danean, makillaz baliatu bear. Gizona, bai, arrazoirik ez dauanean aberetu egi ten. Ni ez nintzan egon batzar aretan, zoriez, baiña egon ziranak gizon ain kaxkarren jokabidez nazkanazka eginda etorri ziran.

An zan Lafitte jauna eta itz arturik egoaldeko euskeran atxerik ez sartzeko eskatu eban, euskereak bizi bear ba eban, etzala izango iparraldean daukan indarragaitik. Batzarra amaitukeran euskaltzaiñak alkartu ziran erabagia artzeko; baiña etzan egiazko erabagirik artu, eritxi batzuk agertu baiño. «Erabagiak artu ez ziralako eta, artu ba'ziran be, bear dan lez argitaratu ez ziralako, ez dauke indarrik... An agertu ziran eritxiak, erabagiak balira lez artzeko ez dauka iñork eskubiderik, eta Mitxelena beraren eritxia be dan lez artu bear da. Berak ez dau besterik egiten, Euskaltzaindiari, ensaio lez, atxea erabiltea zjllégi dala eta begi onez ikusi dagiala eskatu baiño».

48 EUSKERA BATUA DALA-TA

Ogei urte joanak dira Arantzazuko batzarra ospatu zanetik. Eta zer? Euskera batuaren ondorenak? Txarrak ala onak? Bietako eritxidunak errez da aurkitzea. Ogei urte oneitan gure izkuntzak

atzerakada itzala egin dauala, danok begiz dakusguna danik ezin ginke ezetara be ukatu. Aldatz-bera joakun izkuntzari eusteko ori ete zan biderik onena? Orduan egin zan euskaldunon banakuntza, eztabaida ta alkar ezin-ikusia ez ete dautso euskereari kalte ikaragarria sortu?

Kalte onen iturria ta jariora, iduri polit baten bitartez adierazten clausku Olzar'ek. «Euskera batuaren landarea —diño— guriguri ta mardul etorren, baiña «Batu-berri» taldeak landara txikiegia zala ta astiroegi azten zana uste izan eban, eta azkarrago azi daiten orrietatik tiraka asi zan. Zer gertatu jakon landara mardul areri? Tximurto, auldu ta gaisotu egin zan eta ara nun daukagun betiko arrisku larrian. Obeto izango zan lurra ondo atxurto ta ongarri indartzailleak inguruan ezarri ba'eutsoezan, baiña ez zan olakorik izan. Gaur euskerea batuagoa izan bearrean, iñoz baiño sakabanatuago eta batzeko bidetatik urriñoago aurkitzen dogu».

Barrero esanda be, orduan sortu zan eztabaida giroa bardin agertzen jaku ^saur be. Mitxelena'k eta bere jarrailleak tinko dagoz, eta eurak irasitako batu orren alde, politiku setatiak legez, arnasestuka lan dagie. Batu-berri zaleak ez dagoz lo. Talde biok, beñola Mitxelena'k Arantzazu'n eta Deustu'ko Unibertsitatean Aita Mokoroa'ri ta abarri legez, alkarri irain-itz iguingarririk bota ez arren, barruan bizirik dirau orduko giroak.

Batu-barriaren alde jokatu eban erreteriar jakintsuak. Eta gazteak berarekin eukitearren edo, bere errazoi b;olojikuak jarten ebezan: gazteak indarra dauken lez batu barriak be garaille urtengo. Auzi orretarako errazoi kaskarra, barregarri samarra, pixu gitxikoa agiri danez: gazte izatea beste errazoirik ez ete daukagu geure izkuntza jagon, indartu ta edertzeko? Gazteena bakarrik al da izkuntzaren geroa? Gazteak eta zarrak ez ete dabe egiten, munduko izkera guztietan?

Gazte naiz zaar izan, euskera egiazki maite dabenak, erri-izkeratik joko dabe. Olantxe da, izan be; aldizkariak orretan dabilto, leen eta orain: «Goiz Argi», «Agur», «Karmel», «Zer», «Olerti», «Kili-kili», «Saski-naski»... Erakundeak ortatik: «Kardaberaz», «Euskerazaleak», «Euskerazainta», ta besteak.

Euskerazaintza sortu zanean, an urteak dirala, izena aukeratze-ko ta, ez genduan oster a gitxi egin Durango'ra lenengo, Aita josulagunen etxera, ta llonosti'ra gero Anbrosio Zatarain'en etxera, Gotzon Garitaonandia zana ta biok. Edu orretan asi zan ibiltzen «Euskerazaintza» taldea, erri euskerari eutsi nairik sortu zana. Eta urteak daroaz orretan, erri euskeraren soloko arloan. Illaren azkenengo larunbatetian alkartzzen gara Eibar'ko karmeldarren aretoan edo Deba'n. Bakotxak daroan lana irakurten da, erabagiak artzen dira, liburuak argitaratzen dira: liburu mordo a dauka Euskerazaintza'k, Aldundiak eta emon oi dautsoen laguntzaz, argita'ratuak. Argitaratu bageen artean «Dudem» deritxon doixtar iztegi sonatua irarkolarako prest dauko.

Durangoko azoketan bere idaztiak jarten dauz, erakusteko ta saltzeko; ezta, ba, illunpean lan dagian erakundea, argitan dabilena baiño. Batu-barriaren bildurrez edo, erriko euskeraren alde diarduana. Omenaldiak eratzzen ditu nainoz, Donostia'n Elbire Zipitria'ri, Errexil'en Jose Zinkunegi'ri, Azkoiti'n Nemesio Etxaniz'i, Mungia'n Lauaxeta'ri, ta abar. Olerki ta ipuin sariketak, umetxoentza, batez be, eraturten ditu, urtero, an eta emen. Ez da, ba, lo dagoana; ez dau garrasi aundirik egingo, bai oster a, polito-polito, euskereari arnas emoten alegindu.

Danok nai dogun batasuna urrin samar dago oraindik. Baiña poztu gaitezzen azkenengo eun urte oneitan, batasunari buruz, egin dana ikusiz. Olazar'ek onela: «Gaurkoz egin bear doguna, Erribidekoakaz lanean sendo ekitea da». Euskaldunok alkar artu ta aitu, ikasi ta idatzi, erria biztu irakurtera zaletu dedin, guztiok daukaguzan cflerentzi txikiok neurtzen jakin, alkar maite izan apaltasun betean. Eta giputzak diñoenez «emekiro» euskera batasuna lortuko.

49 NASTEAREN ONDORENAK

Nastea beti kalte. Ikus aize biurriak, ekaitz aldian, piñudi baten dagiana. Zelako triskantza! Iñok lengora eziña! Or **ba**-teko goraberak, eztabaida bat dala-ta, odol-irabiatuak gelditzen jatzuz gurasoak eta seme-alabak, sendia. Ikus politikazko zatiketa

baten, gerra bera baiño kaltegarriago jatzuz gizarte barrutian. Ondorio egi-egiaz kalretsua!

Olako zerbait, ba, jazo zan gure euskera zelaian. Urtez urte egin izan ditue inkestak-eta, urteen «epe» jakiñean batu orrek zenbat eta zelako frutuak emon ditun ikusi nairik. Ikerketa zorrotzak burutu dira, eta diñoenez, liburuak aztertu ta oneik dakarren izkuntzari begira egiñak dituzu, ain zuzen. Eta au ikerketa «soziologikoa» ei dozu. Beraz, ikerketa orretarako itaunka ibilli jatzuz batzuk, itaunka moltsoka ta bakarka eritxi eske.

Batuaren biran badau garrantzirik ortografiak, H-ren erabilteak batez be. Onen auziak arrotu bait ditu bazterrak, esan oi da. Euskaltzaindiak berak dau orren erru galanta, «begi onez» ikusten da esan bait eban, eta ez «zelan eta noraiño», eta ondoren H-zale bakotzak nai dauana egiten. «Zahar», «zaar» edo «zar», naste polita liburuetan eta idazleengan. N. ta L. bustiduradunetan orobat. Aditzean, *dut, det, dot; dezai, diezai; It* pluralgillea, ta abar.

Inkesta onen ondorioa ikusiz, azken itza: «Euskara batuaren eredu honek lortua du jadanik frantsesek esan ohi daten «point de non-retour» hori. **esan duen bezala «imparable» da,** atzera nekez egin dezake aski onartua eta Lnkatua dagoala, nahiz eta erabaki asko oraindik hartu gabe eta finkatzeke egon».

Beraz, zaratatsu ori, ez adi ibilli aizea astintzen; alperrik dok, batuarena egiña dok, bein-betiko; ire oi ta deadarrak ez joek onezkero aldatuko. Nai ba'dok edo ez telebista ikusi eure eskuan daukak: alkarte orrek or jarraituko jok, gogorrigo ta zentzun geiagoko batek ankaz-gora jaurti arte; orain bera dok jaun eta jabe. Gure andratxoak ezin dabe ikusi, euskera txarra, eurak ulerzen ez dabena darabilrelako ta irudi motz-motzak emoten dabelako. Eta zarratu egiten dabe txitean pitean.

Ikastolara doazan umeak asko, euskera asko ikasten dabela, eta zuk ez dozula ulertzen umetxo orrean izketea, ikas eizu zeuk be batua, jatorrizko zeure euskera gozoa, amaren altzoan ikasi zenduana, albora itzirik, eta kitu, or dozu zu ta umetxoak alkar aitzeko bide bakar egokia. Orduan ez dozu ikastolen aurka ezer esango. Bat etorri zaitze polito polito.

«Eguna», gazte ta aguretxu orreik, ez dozuela ondo arrapa-
tzen, dana batuan datorrelako? Bilbo'n ateraten da, baiña agin-
duten dabena giputzak dira, batu zaleak. Guk ordaintzen dogu,
baiña ez da guretzat; iñoren zigorpean bizi gara. Noiz amaituko
ete zigorpe egote ori? Bizkaian ez ete daukagu bizkaitar idazle
jatorrik? Bai, baiña lo gagozala diño, bape lotsa bagarik. «Egin»
eta «Hemen» ei dira obeak.

Zergaitik artu ete dauskuez gaiñaldiak ainbat eta ainbat kan-
potarrek, euskaldunak baiña bizkaitar ez diranak, euskal literatura
soloan batez be? Tentelak garealako, diño. Egia da: diruak ez
dausku uts egiten. Ara ta ona zoli ta ko'petsu dabiltzanak, oster,
gabezian bizi ei dira, Badakizu, ba, daukanak ez daukanari emo-
tea beti dozu atsegingarri, naiz-ta txiro orrek gure lepotik irri-
barre egin.

Euskal idazlerik bada or zapuztuta, esaten dala: «Ez erosi,
ez irakur orren libururik, kutsutu etzaitzezan». «Ez joan olakoaren
itzaldietara», «Ori ez da gurea». Lan ederra euskera zaindu ta
eder-azteko. Marx'ek iñoan: egin lan onan edo alan, baiña ekin zuk
gelditzeka.

Nigana sarri kontseju billa datorren erri xearen kezak dituzu
oneik. Ez dira nik asmatutakoak. Origaitik, kontutan artu ta aus-
nar egizuz. Aspaldi o'u otsean artutako erdi-erabagi batzuen on-
dorioak. Geurko esan-itzok leundu eta askoren kezak uxatzeko
ez ete litzateke ekoj zerbait aldatzea?

50 LARRAKO OLERTI EGUNA

Ogeita zortzi urte daroadaz Larrean «Olerti Eguna» ospetzen.
Beti gogotsu ta biotz aundiz. Urtero idatzi oi genduan zerbait one-
tzaz. Ona zelan datorren «Zer» illerokoan, Arregi'tar josu'k ida-
tzita, 1980'an, J. Zaitegi'ren omenez ospatutakoa.

«Urtero lez —diño Arregi'k— Larra'ra joan giñan pozarren
Kristo Erregeren azilleko azkenengo igandean egun zoriontsu bat
emoteko asmo biziaz, eta alan gertatu jakun, Goizez ozkirria, ga-

gozan aroaren araberan, eta eguna, eguzkitan batik bat, oso atse-gintsua, egitan. Aurten 20'garrenez ospatu genduan, 1960'garren urtean asitako Olerti-Egun gogoangarri au. Ba-eukan aurtengo egun onek beste alderdi edo ikuspegi alai eta txalogarri bat guretzako, aurtengo jai txeratsu ta berezia aita Jokin Zaitegi zanaren omenez goraipatzea. Neretzat, beragaz urte bitan Guatemala'n egonikoa nintzala-ta, txit unkgarria zan izan be.

«Beste urteetan oi genduan legez, bertaratu giñan guztiok al-karri on-etorriak emon eta Aita Santu agurtu ala, beragaz eleizara-tatu **Euskal** *ele* elerti-kutsuzko mezea benetan Aita Santi'k berak emondakoa. As:eran olerki sentikor bat irakurri euskuen. Meza oosa euskal senez, abestiz eta doiñuz josirik izan genduan, ortarako organu-jotzaillea laguntzaille bikaiña genduala. Azkenez, «Agur Jauna»-ren eresiz amaibide gurgarria emon geuntsan me-zeari,

«Zer esanik be ez, Aita Santi'k emon euskun itzaldi beroan Kristo'ren erregetza gure sendietan, errian, aberrian, au da, bee-tik gorako doguzan mailletan, agertu bear dala eta euskaldunen bene-benetako batasuna bear-bearrezkoa dogula, ondo baiño obeto adierazo euskun. Laterri asko ikusi dira kondairan zear batasun-ezagaitik betiko suntsituak izan dñranak eta ez genduke guri be olakorik jazotea gura izango.

«Danak ondo urten ba'eban, meza ondorengo Olerti-Batzarra ona izan zala, nire uste apalez, azken urte onetan ikusi doguzan onenatariko bat ziur asko. Eleizalboko ikastol-aretoan berein urte-tan legez, izan genduan bera. Urtero bezela sarrerako mai baten ga-nean, edonoren sakelak ordaintzeko neurrian, azkenengo idaztirik ospetsuenak, bai itz lauzkoak baita olerkiz osoturikoak, salgai egozan.

«Aita Santi Onaindia maiburu genduala, maikide lagunak izan ziran Arrasate'ko alkate jauna ta Velez de Mendizabal izenez Mend'aga jauna, Aita Zaitegi'taz batak sarrera labor ta egokia bi-garrenak idaz-lan txukun, luze ra sakon-sakona gipuzkerarik gar-bienez irakurri euskuezan. Eurakaz bat E. Erkiaga ta Labaien Euskaltzaindiko jaun agurgarriak osotzen eben maia.

«Asieran Aita Onaindiak aurtengo irabazlo izan diranei diru-sariak banatu eutsezan. Olakoetan ez dogu txindi-saria begiratzen, ez bai gara aberatsak, bai bestalde aurkeztu oi diran olerlden balioa eurengandik jalgi oi dan barne-arnasa ta olerki naiz bertsoen sen bereziak batik bat.

«Leiaketarako lanak, beti lez, iru sailletan banandu ziran: Lirika-saillea, poema-saillea, ta bertso-saillea. Lirika-sailleko 74 lan irritxi ziran, poema-sailleko bi bakarrik eta bertso-maillerako 22. Guztiz 118 idaz-lan. Lirikan irabazicak Sabin Muniategi ta Eusebio Erkiaga jaunak izan ziran. Poema-saillean, Martin Ugarte ta Te-sus Gaztañaga. Bertso-saillean Xabier Lete ta Pedro Mari Esnal. Ez ziran guztiak agertu, baiña diru-sariak Aita Santi'k, bertaratu giñan oroen txalo ugariakaz batera, bananclu ebazan.

«Oleri-jai beroari jarraituz, len esandako Arrasatear Alkatearen eta J. M. Velez Mendizabal gaztearen *lan* baliotsuak irakurri ziran. Azken ona beraz, asieran esan dautzuedan lez, Zaitegi'ri buruz entzun dolanik onena, ezbairik gabe. Asko ezagutzen neban Zaitegi zana, ori ta be ez nekizan bere ainbat bizi-zeaztasun. Danok nik uste, txundituta geratu giñan bere bizitzearen barri jakin-garriak entzutean.

«Gaia luzatu egin zan eta Aita Santi'k maisuki, trebetasun osoz idatzirko Zaitegi'ren olerkiari buruzko lan luzearen ekintz berezienak irakurri euskuzan. Azkenez, eta amai-bidez, Bordari jaunak jatorrizko olerkari sutsuak, bere gogarte ta umore oareba-koagaz Zaitegi'ren olerkietatik, andik eta emendik, arturiko bana-ka batzuk, abots eta oguzkera bereziz, irakurri euskuzan.

«Jarraian, azkenengo urteetan bezela, Txaltxa, renean bazkaldu genduan. Bazkari ugaria ta txit ondo gettaturikoa. Akeita, atariko, txokor eta guzti. Eta ez inolaz ere ospatzeko. Datorren urteko olerki-jaiia Zamarripa naiz Mikel Zarate abadeen omenez ospatzeko erabagia artu zan. Azken baten, geienen iritxiz, Zarnarripa'ren oroj-menez, ospatuko zala uste genduan; bera lentxuago be bizi zan eta, zergaitik orj bultzagai lez artu genduan.

«Gero andik bakoitza bere artegia. Eta ni Xabier Peña ta Labaien Euskaltzaindiko jaun langille porrokatuak lagun nebazala, neure txakora.-Bilbo'ra» (*Zer*, 1980, urtarrilla, 2 orr.).

51 ELEIZ-EUSKERA

Aunitz urtetan latinez oitu zan Eleizea, Vaticano II Kontzilioari esker, tokian tokiko izkuntzaz baliatzen asi ziran eleiz-gizonak eta lekalmek mezatan eta liturgi'otoitzetan, San Zirilo ta Metodio anai doatsuak Eslabonio'n urteak aurrerago egin eben lez.

Zer bitan gertatu zan barrikuntza au: «Orduen Liturgia»-n eta «Meza Liburua»-n. Nik biok ikusiko ditut, neurez ikusi be, gure izkuntzari ekarri dautsan on ikaragarria bakandu ta nabarmon ipiñiaz,

a) Orduen Liturgia

Nik, Larrako aztetxean sartu nintzanean asita, gaiñerako eleizgizonen antzera latinez egin izan nituan neure koru-otoitzak, edo «Officium divinum» deritxona, luzea ta ez ain leuna sarri. Egin bearra zan eta egiten genduan. Gaur laburragoa da ta euskeraz egiten dogu. Eta gaurko otoitz-egite au, Eleizearena nunbait, askoz be labur, errez ta atsegiñagoa dozu. Ni neu askotan korurako ordua noiz joko egon oi naiatzu. Gizonak bere lan artean bear bait dau olako gozotasun pitiña.

Latinez edo euskeraz egin alde aundia nabari da. Obeto uler-tzen dozuz salmuak, kantikak, otoitzak, irakurgaiak, goratzarreak, galderantzunak, eta abar. Nik ez dakit nortzuk lan ogin eben Orduen Liturgi au eratzen; dakidana auxe da bakar-bakarrik, Manuel Lekuona izan zala arazo onetan lan egin ebenen buru, ta Salnauetan, aldaketa txikiren batzuk izan ezik, «Orixe»-ren itzulpena da goala oso-osorik. Oneik biok eta besteak, esku on jakintsuak ziran lan eder onetan.

«Orduen Liturgia»-n sartzan dira *Gorespenak* (Laudes), *Tarteko otoitza*, *Bezperak* eta *Konpletak*. *Irakurgaiak* ez datoz emen, baiña oneik euskeraztuta dagoz. Beraz, eleiz-gizonak ota lekaimeak koruan osotu bear dabezan eleiz-otoitz guztiak euskeraz daukaguz. Eta, esan dot, bakarkako jardunari ezer kendu barik, koruan askoren artean bein-banan ogin oi dana, gozo-leunagoa dala autortu pengike

Bekit zillegi pasarte au emen jartea. «Kristau oitura zaarrak erakusten duenez —diño aurkezpenean—. Elizaren otoitz-era berezia eta nagusia de *Orduen* Liturgia. Beraren bidez, apaizek —batez ere pastoralgintzaren serbitzuan d'ardutenek— San Pauloren agindua betetzen dute: «Egizue otoitz etengabe», oarturik Jaunak bakarrik eman dezaiokeela eragimena eta fruitua beren lanari; eliz-otoitzaren bidez, erlijiosok —beren burua Jainkoari eskaini dioten gizon-emakumeak— aurkitzen dute eta adierazten saagaratze onen azken-esanaia, au da: Jainkoagandik datorrigun erabateko salbamenean sinisten eta itxaroten duen Elizaren testigantza: kristau elkarteei; ere eskuartzen dute Elizaren otoitz nagusian eta, norberaren barne-bizita indartzearekin batera, eliz-otoitzak berebera duen elkarte-alderdiaren iduri jatorragoa adierazten dute».

Tinta baltz eta gorritz Bilbo'n «El Noticiero Bilbaino-»ren irarria da 1456 orrialdoko otoitz-liburu au, 1977¹garren urtean. Ordutik darabilgu guk koruko eta bakarkako errezuetan.

Gipuzkeraz dago, Euskera ederrean. Eredu lez, ai auxe ba'litz euskera batua; Dabilguzan mokoketak aienatuko litzatekez. Gipuzkeraz dago, dñot ostera be, beste batzuen jokerari buruzko neure sumiña erakutsiz. Nik sarritan neure buruari egozten dautsodana: «Nork ete dauko erru geiago, euskalkiak ala euskalkidunak? Ni bizkaitarra naz eta bizkaieraz idatzi ditut neure lanik geienak, baiña baita gipuzkeraz be, or zazpi aleko «Euskal Literatura». Alderantziz, beste izkelgietako jakintsu asko bizkaieraz itzik be irakurri ez dabenak, ezagun dodaz nik. Gabiltzan erriz-erri, irakur daiguzan euskalki guztietakoen lanak, maite daigun euskera, eta or batuarena

Azkenez, ikus daigun, euskal idazleok! Nortzuk idazle obe, eleiz-gizonak, *Orduen Liturgia* egunero darabilenak ala olako aukerarik ez daukienak? Leenengoak abantail aundia dabe izan. Baiña ez kikildu, gogotsu ekiñak **egiten!** Nik neure koru-errezuetan eskatuko dautsat Jaunari orrela izan dedin.

b) Meza Liburuak

Bizkaitarrok ez gara emen zentzun geiegiz mugitu. (Giputzak, take, artean esanda be, gaizkiago oraindiño, ez bait dabe ezer

egin). Eta oso fin eta gozo osotu leikena zan, dudarik gabe.

Lau liburu daukaguz altaran erabilteko: 1) *Mezaren Egunerokoa*; 2) *Meza Santua*, esku arteko txikia; 3) *Jaunaren itza*, eta 4) *Meza Liburua*.

Mezaren Egunerokoa. Joxe Maria Zirarda, Bilboko gotzain zala, Donostia'ko *Izarra* irarkolan argitara atera zan. Ez dakit zeintzuk ibilli ziran leen liturgi onetan langille. Nik dakidana auxe da bakar-bakarrik, Gure Aitan giputz adizkera «dlegun»-a bizkaieraz nola bear zan ordezkoa eskatu eustela.

Lenengo lanak sarri, ardura geiagoz osotuak diralako edo, ondorengoak baiño bikainago egiñak izan oi dira. Emen olantxe da. Bizkaiko meza liburuetatik, edo altarakoetatik, zentzun betez egiña dozu «Mezaren Egunerokoa». Bitxikeri bako euskera garbi gozua ulert-erreza. Letra aundi dotorez ornidua, ondorengo argitalpenak aintzat artu ez dabena.

Meza santua berdin, euskeraz ta erderaz, erriak eta nai ezker, meza-emoilleak erabilteko egoki-egokia. 48 orrialdeko esku-liburu aukerakoa. Bilboko gotzaintogiak Pasaiko Kortajarena irarkolan argitaratua.

Jaunaren itza. Iru ale (A, B, C). Gipuzkeratik bizkaierara itzulirik. Igande ta jaietako irakurgai liburua. Naiko kritika izan dau liburu onek, esan bei bakotzak zergaitik, askok dakigunez iñoren aoz berba dagien arren.

Guk Larrea'n, eta Bizkaiko beste eleizetan be, euskeraz diardenetan beintzat, bardin, auxe darabilgu irakurgaiak egitean. Eta beronen joskera eta bertan sartu ziran «bere» ta beste barikeri batzuegaitik, irakurtaldia ez jaku gozo egiten. Labur esateko, onako akatsak joskeran: «Esan eutsen Jesusek bere ikasleai», «Be» ordez «Bere» erabilli ezker, illun geratzen da esatera au: «Kepa bere (be) txakurraz joan zan mendira»; eta olako asko datoz «Irakurgaiak» liburuan. Aurretik irakurri ez k, errez dagi koska irakusleak. J. Kerexeta'ren *Biblia*, esaterako, olako ostopo barik daukazu.

Gaiñera bizkaitar idazleak —Azkue, Arana-Goiri, Kirikiño, Eguzkitza, Ibargutxi, Manterola, Onaindia, Olazar, Solazabal, Aurre-Apraiz... zeozer diran guztiak kontixu! , gizaldi batez gixienez ez etc dabe «Dautsat» idatzi ta ez «Deutsat»? Orixe bai dala gabi-maillua astun erabiltea! Eta nun geratzen dira T. Kerexeta'ren «Biblia» ta «Eguneoko *Meza*», Eguzkitza'ren semoi-meta ikaragarria, Ibargutx¹'ren dotriña idaztiak, eta nire bizkaierako lanak, eta nun aurreko «Mezaren Eguneroko»?

Azkenez, elduontzat beste uts bat, letra txikiegia kanonen barrena beintzat. Izki egokia ortarako «Mezaren Eguneroko»-n datorrena. Ikusten danez, gazteak egiña da lan au, baiña Bizkaian elduak, urteetan aurrerauak gara goienok, eta esker onez artuko gendun zati ortako letra aziagoa.

Eta euskaldun guztiok pitin bat baturantza egiteko, ez legokean txarto len etorren lez *eliza* ta abar erabiltea. *Eleiza* edo *elexea* bizkai-keri batez ete?

Meza liburu eder onen agerpena zelanbait ospatzeko, urte orretan bertan egilleak eta Bjlboko gotzain jaunak, Urkiola'n jai-egun bat egitea erabagi eben. Baita B'zkaiko idazle batzuk, ni euren artean, omendu be. Abade ta Praille pilloa batu gintzazan Gotzain jaunaren ingurumari, Santutegian kantu ta itzaldi guztion artean emondako meza ostean, bazkari guria Bizkarra jatetxean. Azkenez, Gotzaiñaren eskutik «Meza Liburua» atseg'n-sari lez. Nik jasoak onan diño: «Ai ta Santi Onaindiari: Eskerrik asko zure laguntza ederragaitik. .1' aunagan biotz-biotzez, Larreatar Kol-dobika Mirena , Bilboko Gotzaiña. 1984-VI-14».

52 ESTEBAN ASTARLOA

Ona euskal abeslari zintzo bat, 1917co abenduaren 26'an Mallabi'n jaioa ta urte luzeetan Madrid'en bizj clana. Amar urteko zala Zornotza'n daukagu karmeldarren ikastetxean, gero Larrea'n eta Iruña'n Filosofia ikasten. Ondoren gerra urteak. 1941' an Madrj'd'era doa eta, lan egin bitartean, kantua ikasten dau Karlota Dahmen eta Eladio Txao maisuakaz, geroago Barzelona'n

Zelestino Sarobe baritonoagaz eta Madrid'en Luis Arnedilla'gaz osoturik.

Asieran opera kantuari ekin eutsen, eta berak parte artutako operen artean datoz: «Carmen», «Butterley», «Tosca», «Bohème», «Rigoletto», «Traviata», «Pagliacci», «Fausto», «Manon», «Marina», «IVIaruxa», «La Dolores», ta abar, Viktoria Anjeles, Montserra_t Caballe, Beniamino Gigli, Philipeschi, Alfredo Kraus, eta abarrekin batera.

Zarzuelara jo eban gero, Europa'ko gerra ostean, Madrid'eko «Teatro de la Zarzuela»-n *Viuda Alegre* abestuz asirik. Zarzuela Konpañi guztietan parte artu dauala esan daikegu. Eta beronek be euki eban «ESTEBAN ASTARLOA - MARIA FRANZISCA CABALLER» izenekoa.

Zarzuela kantari lez ba'leiteke beste inok baiño geiago abestu izatea, ainbat eta ainbat sopranoekin txanda izanik, eta Faustino Arregi, Florenzio Calpe, Mariano Ibarra, Karlos Mungia, Pedro Lavirgen, Ebelio Estebe, Migel Alonso, Fabian Hormaetxe ta besteekaz batera abestuaz.

Ainba_t zarzuela estreñau ditu Viena'n eta Paris'en, Solozabal'en «Las de Cain» euren artean. Eta gaur be urteak lepoan ditun arren, Madrid, Kordoba, Valladolid, Logroño'n..r parte artzen dau kontzertu ta antzerki-jaietan, An eta emen omenaldi asko izan ditu.

Onez gaiñera, au da, kantua alde batera itxi barik, euskerazko ikasgaiak emoten ari da. «*Gaitasun*» titulua Bilboko Hizkuntza Eskolan atera neban eta badaroadaz hamar edo hamabi urte hemen, Mdrilleko «Euskal Etxe»-n klaseak emoten. Antzetzlan laburrak e_ta abestiak be irakasten dautsedaz eta orain euskaraz bakarrik egiteko apariak prestatzen gabiltza», idatzi eustan oraintsu.

Bein Gasteiz'en, Guridi'n «El Caserio» zarzuela abestu ebanean, kazetari batek, galdetu eutsen ia, euskalduna ta baserri-tarra izanik, obra ori erderaz sentidutzen ete eban. «Ezetz —erantzun Astarloa'k— gaztelaniaz sarri-sarri antzetztu izan arren, beti euskal baserri batetik kanpo sentitzen zela, baiña ez egoala itzul-

penik». «Ba egin zuek», izan zan kazetarjaren erantzuna. Bereala asi zan lanean.

Mallabiarrak gero: «Baina euskaltzale ospetsu bat behar neban, neure ustez, neure lanari beharrezko birjibiltasun eta bulzada emoteko eta, Karmeldarrekin ikasi neban ezker, zeugana joatea erabaki neban. Ta atsegiña eta zintzoa izan zan zeure karre-
ra. Goitik behera irakurri ta behar zana zuzendu ta gero, ofizialtasuna emon neutson eta ordutik biok agertzen gara itzultzaile lez Madrileko Egile Alkartean (Sociedad de Autores)».

Ondoren beste albiste oneik damostaz, arentzat eta niretzat jakingarriak. «SASIBII, BASERRIA —diñ aust— birritan antzeztu da: Bilbon eta Madrilen. Emonaldi biotan arrakasta handia izan eban eta Bilboko Foru Aldundiari esker, egin ahal izan ziran. Bidezkoa da abeslari garrantzitsuenen izenak be emotea: Idoa Garmendia (soprano), Fabian Ormaetxe (tenor) Bilbon eta Eustakio Iraola (tenor) Madrilen, Esteban Astarloa (baritono). eta Madrileko Euskal Etxeko Abesbatza eta illtzezlariak».

Andik laster be, A. Ruiz Tarazona'k, «Gaceta Real Musical»-en, 1986'ko apirillean, idazten eban ez, urte ortako otsaillaren 24'an Madrileko Teatro Manumental'en antzeztu zan «Sasibil» euskeraz, indar barr bereziz gotortua, J. Guridi'ri angu Euskal Etxeak gasteiztarrar, n jaiotzatiko eungarren urtebetetzean eskitako omenaldian, Tarazona'k onela: «La inmortal partitura de Jesus Guridi (1886-1961) se ofreció en Madrid, en una traducción del castellano al euskera realizada por E. Astarloa v S. Onaindia».

Izan zituan istillu ta goraberak be gaineratzen dauskuz. «Eztabaida gogorak —idazten dau— izan nituan legeztatzeke eta azkenik, gure izenen iragarpena egiteko behar zan diru kopururik txikiena jarriz, jaso neban jatorrizko egileen antzezteko baimena. Baina ez gara aberastuko euskerazko itzultzaileok! Bai Bilbon eta bai Madrilen aretoa puntaraino beteta egon arren, 227 pzta. jaso genduzan bakoitzak emonaldi biotan. Horrenbeste edo bestela ez egoan euskaraz egiterik».

Era onetan idazten eustan Madrid'etik Esteban Astarloli Mallabi'ko seme kantari bizkor eta euskaltzale zintzoak, I.988-II-6'an.

Emen be, itxura danez, izterbegiak egin eben euren lan-jokoa.

53 KIRSTI FINLANDIARRA

Bizitzan badira alkar aurkitze bakanak; uste ezik jazoten jakuz eurok. So zelan suertatu jatan niri Kirsti finlandarra, emeretzti urteko neskatx liraiña ezagutzea.

1969'garren urtea zan. Arratsalde gozo eguzkitsua. Urretxindorra diñotsagun muxikar Kepa Enbeita zanaren bertsoarik geienak baturik neukazan. Eta oneikaz «Gure Urretxindorra» deituko jakon liburua Erdi-Amerikako euskaldun jatorrak Buenos Aires'ko «Ekin» argitaletxean aterako eusten. Liburu mardula izango zan, 450 ba, orrialdekoa, tamaño aundikoa ta zutabe bitan bertsoak.

Usparitxa'ra, Kepa'ren jaiotetxera jo neban albista billa. An, nik itandu eta Kepa Txiki neritxon aren illoba argiak erantzun, ainbat barri pillotu genduan. Ondoren emengoai agur egiñik, Zabale'ra jo neban aren seme Balendin Enbeita, ezkondurik, bere emazte ta seme-alabakaz bizi zan baserrira. Emen be bardin, itaunketa luzea ta ainbat barri izpar-zorrora. Pare bat ordu gitxienez orretan emondakoan, onei be agur egitera **nekatilla bat** jantzi ñabar, arpegi irribarretsu, goiko gelatik gu gengozan sukaldera etorri jakun, eta «arrasti on!» esanaz, alboko mai egalean jarri, paper batzuk zorrotxotik atera ta idazten asi zan.

Nik ari be, andik alde egiterakoan, agur egin neutson eta berak, ni praille jantzitan ikusita arriturik lez, adeitsu erantzun eustan, Etxekoandreak orduan: «Finlandiarra dozu au, euskeraz ikasten ona etorria; neska ona ta argia». Nik orduan, jakin-miñez, etxe-koai eta orduko euskeraz zerbait ekian neskari ainbat galdera zuzendu neutsezan, neskari batez be, berari, euskerearj ta Finlandia'ri buruz.

Ikasle zan eta ikasten inarduan neskatillak. Izkuntzak erdizoratua ekarren. Ba-ekizan jadanik suera, ingelera, doitzera ta abar; gero ikasiko zituan turkera ta besteak. Orain euskeraz ikasi bear eban, Zulaika donostiarrak Sestao'ra bialdu eban, eta andik Bilbora Xabier Peña'gana, eta onek eroan eban azkenez Enbeita-rron etxera. Pozik egoan emen, eta euskera arloan aurreratuz joian.

Helsinki'n jaio zan Kirsti. Suomi bere izkuntza, leun, doiñutsu ta aberatsa; ezta indo-europear moltsokoa, ez dauko sueziar edo erruso inguruko izkuntzen antzik; bertsorako egokia da euskera legez. Bein ango maisuak esan ei eban ba-zala izkuntza bat fine-saren antzekoa: *euskera*. Eta barruak biztu-azo eutson euskeraz ikasteko gogoia. Ikus zuk nai dana zelan lortzen dan: Muxikan egona Kirsti eukeraz ikasten.

Finlandia zan bere aberria eta maite eban; baiña ba-eban bigarren aberri bat be, Euskalerrria, eta maite ebalá iñoan: maitasuna egitez adierazteko, ainbat osterá egiña dogu Helsinki'tik gure errira. Erlejiñoz bateatu barik dagon arren, maite ditu euskaldun fe' dedunak; onetaz sarri mintzatu gara, baita gutunetan azaldu be. Azkenengoz emendik ibilli zanean, Leire'n Zister lekaideen bizitza, barru ixillari buruzko liburu mistiku aundia erosi euskun. Ez dira olakoak sarri aurkitzen.

Askotan egin izan dauz emen egotaldiak, gure euskera sako-nago ikasi ta gure lurraldea obeto ezagutu guraz beti. Amar urte dirala Goiaz'tik idatzi eustan nun aurkitzen zan iragarriaz; ango baserri uts baten egoan bere ama ta seme-alaba birekin Eguraldi bustia zalarik be pozarren aurkitzen zan Euskalerrrian. Liburuak eta pare bat whisky botella ta gozokiak eroan neutsezan. Beste bein Bilboko Artekale muturrean erre eban illabete berton euskerazko klaseak arturik.

Oraintxe lau urte izan jakun adiskide bategaz, au be bere alaba bigaz. Donostia'ko famili batek laga eutsoen Itzaltzu'n euren etxea, eta Xabier Peña ta ni be an alkartu giñan, geure kotxeaz, eta zortz:rok berebiziko egunak emon genduzan Naparroako bazterrak oro alde batetik bestera naiko astiro ikertuz, atzenez, eguneroko erro-nerria amaitzeko, Kirsti'k eta bertako andrak eskatuta, Itzaltzu erriko eleizan euskeraz mezea esaten neutsen.

Irurogei bat karta eukiko ditut Kirsti'k idatzita, orobat ez gitxitan Helsinki'ra joateko erreguz be. Xabier eta ni joateko. Bein nik ezin, eta Xabier eta beronen arrebea joan ziran, Helsinki'n eta inguruetan ez-ezik, Laponia aldean be ordu atsegiñak emonaz. Liburu bat dauko Kirsti'k emakumeetaz euskeraz idatzirik, eta

irarkolara orduko nik ikusi ta orraztutea gura leuke. Urte bi dirala emengo ta Arratjalco jente mordoia joan zan ara egazkiñez; nik ainbar liburu bialdu neutsazan euskaltzale miresgarri ari.

Artutako kartok euskera txukun, errez eta interesgarrian dagoz. Asko irakurri dausku, eta edozein euskalkitan adierazten ditu bere ideia ra gogorakizunak, Euskal aditza ondo-ondotik daki. Ni be bere antzeko biurtu nairik, arren, eskatu daust suomi-era ikasteko; baita ortarako gramatika txiki bat eta liburuak bialdu be. Ni, baiña, ez naz izana euskeraz ikasteko baizen setati, suomieraz jabetzeko.

Azken baten euskaldunok esker ona zor dautsagu Kirsti'ri.

54 ERITXI-EMOTEAK

Gizonak, bere izatez, ontzat joten dau atsegin jakona eta txarizat atsegin ez jakona, min emoten dautsona. Idazlan bat edo liburu bat atera dauanean, zelakoa dan jakin gura dau, enparauen agotik naiz artikulu batetik. Eta emen gorlpenak ixuri bear dira, baita bear *ez* dan lekutan be, ondo geratu nai badozu.

Amaikatxu eritxi-emote edo aburu-azaltze egitea egokitu jat niri! Zein idatziz eta gutunez, zein berbaz eta itzaldiz, atertu barik egin bear izan dot lan ori. Zeregin eta ardura bilxienetan be bai, mozorro-erakusketa, olentzero jai, aratuzte egun naiz txitxi-burduntzi baterako etorri jataz takian takian barri bñlla.

Naikotan baita liburuen sarrerak apaindu bear izan dodaz, egilleak nire kerizpetan obeto agertu ta geiago salduko dabezala uste izanik. Nik geienetan olako itz alperrik ez dauala bear bere lanak otsegin arren, azaierari noski dagoki onez, orretan alegindua nozu. Ez dakit zenbat itzaurre burutu dodazan iñoren liburuetan, baiña pillo azitxoa izan dana, bai ba-dakit.

Eundaka dira, barriz, nik neure «Euskal Literatura»-n osoturiko eritxi emoteak. Ondo ala txarto? Gaizki beintzat ez dot iñortxoren lanakaitik idatzi. Ori dala-ta, ziur asko, ausartaren batek esan daust niretzako idazle guztiak dirala onak. Eta nik alakoari:

«Eta zeure idazlan bat txarra dala esatea, ondo artuko ete zeunke?». Sudurrari eragin oi dautso olakoetan, eta miiña barneratu. Bai, gizonak berez goralpen-itzak opa doguz. Niretzat, gaiñera, euskal idazleak ez dau merezi arbuia berbarj̄k, ederkaturik baiño; oratharteko euskal kultura aundi barik ez ete dau naikoa enparetan jakozan asti-unetan egiteko? Saia zaitez zu be orretan.

Nik ez dot iñor gitxi-eritxi ez «Euskal Literatura»-n, ez «Karmel»-en naiz «Olerti»-n osotu ditudan ainbat eta ainbat eritxi emoteetan. Lzagutzen ditut euskal idazleak, eritxi-emoille setati bati emon euren lanak eta orruki bage gaitz-etsi zitulako lumarik geiago artu ez dabenak. Gure komentuko ortu-barrenetik doan erreka ertzez egurasturik, alboan dakusdan madari-landaratxo erkindu battegaz bardindu oi ditut olako idazleak; zortzi bat urte dirala mar-dul-guri aurkitzen zan landatu-barri ori, baiña negu-aldian artalde goseti bat sartu zan bertora; bedarraz batera, sartu eutsoezan euren agin pozoituak zugazño oni be, eta igaz ale bi emon zitua-nagaitik, oindiñokarren txj̄ki ta erkin daukagu.

Zer esan? Euskal idazlerik ez dogula alperrik galdu bear. Zugatz eder bat murriztutea lez litzakigu. Eta bere baratza maite dauanak ez dau olakorik egiten. Badira gure artean, iñoren lanak ebazterakoan diñot, nobere lagun, kideko ta joera bardiñekoren bati ezj̄k, beste danai akatsen bat edo ez-akatsen bat aurkitu ta orretan ondo eio arte porroka asetzen jakuzanak.

Bestalde, eritxi merke saltzailleen taldea be aski ugaria dozu. Liburu ziztrin bat, esaterako, laiño gaiñeraiño jasoten dautzu, ta dalako bestea, balio aundikoa, joskeraz, izkeraz ta pentsamentuz eder, ozt-oztan aitzen emon, eta azkenez, ilten dagoan zezenari lez, sastakaia sartzan, «onen idazkera erriak epaituko» esanaz. Berak ez daki zer adierazo, liburu eder-ederra izan arren, H barik ba dago. Onako arlotekeri asko da, gaur atan be. Nor nor *dan* orrek laster erakusten.

55 UMETXOREN OLERTI JAIK

Gaztetxoen artean be olerki-zaletasuna indartu nairik, urte as-kotan ospatu izan dogu, eta ospatzen, Zornotza'n umetxoen arteko euskal olerki Txapelketa. Ona 1980'koa zala-ta nik «Zer»-en idatzi nebana,

«Aurretik iragarrita egoanez —idazten dot—, aurtengo urtarri-llaren 28'an ospatu zan poesi jai au. Amar urtetik amabost bitar-tean dabilzan gaztetxoak artu eben esku, egitarauak iñoanez. Oler'kigintzan, bakotxak nai ebana izan zan, euskeraz izan ezkeru, ta norberak idatzitakoa, ez iñorena. Konkurtsoan parte artu eben bakotxak bere olerkia irakurri eban epai-maikoen aurrean, baita «Enbeita Oleskaria» liburutik noberak aukeratutako beste bat be. Sariak oso onak ziran. Txapelketa au Zornotza'ko «Erti-Kultur Alkartek» eratu eban, beste urteetan lez,

Amabi-amabietan an giñan guztiok, Alkartearen areto txukuna jentez ondo betea. Gaztetxoak, mordo polita, andik eta emendik ona etorriak, alai ta urduri agertzen dira, berezko danez. Txapelketa oni asiera emoteko, gazte batek, Mikel Etxebarria, Deustu'n ikasle danak, itzaldi labur mamintsua egin euskun. «Txapelketa au —iñoan— euskeraren aldeko eginkizuna da. Euskerari gaur egoera larri bat agertzen yako: Autonomi-egoera. Egoera onetan izketa euskal euskuetan geratu bear da, eta eziketa gure eskuetan gelditza garrantzi aundi-aundikoa dozu. Ikastolak ugaritza sortu bear dozu, eta duban izatea.

Danon zeregiña, zar eta gazteona, auxe izan bei: euskera ez dakianak, ikasi; euskeraz itz egiten dauanak, geiago ikasi ta alfabetatu; euskal prentsa irakurri, ari ta oni lagundu. Euskeraren etorkizuna geure eskuetan dago; geuk nai ba'dogu, biziko da; geuk nai ez ba'dogu, ilgo yaku; lotsagarria izango litzateke ainbeste urtetan iraun dauan gure izkuntza maitea geure egunetan, geure itxitasunagaitik, betiko galduta geratzea».

Saria irabazi daben bostai sari bereziak emon yakez: Alkarteko marrazkidun platera, Bizkaiko Aurrezki Kutxak emondako liburu-txorta polita eta dirutan bertakoai 300 pezeta eta kanpotik ona eldu ziranai 500 pezeta bakotxari. Bostok oneik izan ziran: joseba Andoni Agirretxea (Ondarrutarra), Silbia Aldazabal, Nekane Gomuzio, Miren Gotzone Azpitarte ta Karmele Ansotegi. Beste bostek be, Karmele Aurtenetxe, Maite Alvarez, Zorione Etxebarria, Kristina Etxebarria ta Idoia Apraiz (Garbiñe'ren ordez) deduzko aipamenak eta saritxoak izan ebezan.

Ai₁a Onaindia, Ander Etxebarria ta Serapio Ugarte izan ziran maiko, Alkarteko nagusi R. Intxausti guztien buru izanik.

Norbaitek, bear bada, miin-zolitzu, esango dau: «Umetxuok, baiña, zelako olerkiak gatzatuko?». Zuk ez auzitan jarri, emen dozuz lenengo saria eskuratu ebenaren lau estrofa; «Udazken illuna» deritxa. Irakur eta zeuk emon epaia.

Urrian hasten dira
orbelak erortzen,
zuhaitzen aurpegiak
ba-doaz goibeltzen.

Mendi orlegi beltzak
ba-doaz leortzen,
aizeakin batera
belarra zanpatzen.

Kale txoko guztiak
hasi dira ixiltzen,
agureak doaz
geiago makurtzen.

Tristeturik ohean
hasi naiz sartzen,
beste udabarrirarte,
gero poz gaitezen.

Ondarruko seme joseba Andoni Agirretxea'rena dozu au, len-sariz saritua, eta beste au Silbia Aldazabal'ek bere baserriari abestua:

Ango arbolak, ango aizea,
ango zelai eta baratzak;
erreka garbi ta kantariak,
goitik beera soñuz aberatsak.

Euskera da ango izkuntza,
euskalduna angoen izatea.
Ai! , zoragarri bai dala
nire baserrian bizitzea!

Nekane Gomuzio'k bakeari eskiñi eutsozan bere lau estrofak.
Ona bigarrena ta irugarrena:

Bakea gizonen biotzean.
bakea neure ikastetxean,
bakea neure familian,
Bakea nai dot neure bizitzan.

Bakea da nire elburua.
Nai dozu, gizona nigaz lotu?
Alkar gaitezan guztiok,
ta begiak gora zuzendu.

Gotzone Azpitartelc onela:

Batetik aurrerapena
ta bestetik siñismena,
Euskalerrriak eskeintzen dauan
bere fruturik onena.
Baiña ez ete da asko geiago
ortikan artzen dabena?

Asko euki, geiago nai,
bide ortatik dago jai!
Gordeaz, galdu, galduaz *gorde*,
.Tesusen itzari jarrai;
artu ta emon, au da legez
danok izateko anai.

Karnele Ansotegi'k irakurri euskuzan, biotz-dardaraz:

Bizitza, ikurriña ta Euskalerrria,
zelako iru itz! ,
bat, besteak baiño ederragoa.

Bizitza: zoragarria!
Ikurriña: maitagarria!
eta Euskalerrria
euskal anai-arreben bizirokia!

Aipamena lortu eben beste bostenak be irakurri ziran, rnaikoak erabagia artu tartean. Bero-bero txalotuak izan ziran, euskeraren aldeko lan bikaifiagaitik. Gaztetatik sartu bear jako umeari bere izkuntzaganako beroa, eta oneik, poesi-sariketa onetan esku artu-tako gaztetxuok, ez dot uste egundo aztuko dabenik, guztiok emen igaro genduan egun ederraren gomuta. Gora gaztetxo olerkariok!

Sariketa onetan esku artu ebenai, azkenez, aundiai eta txikiyai, eratu, lagundu eta jaiari arnasa emon eutsenai eskerrak gogoz egi-ñik, amai tu zan aurtengo jaialdia. Betox, bai, onako jaiak ugari!

56 «ORIXE» SARIAK

Diruak ez daus, egundo buruko miñ larregirik ekarri. Lan egin ezkeru, komentuak beti emon deust jatekoa ta jantzia; aurre-rantzean be ez dot orren ardurarik izango. Alan be, ezin dot ukatu rxindi-usi ta naikunderik izan ez dodanik neure liburuak argi-tara ekarri al izateko.

Igazko uda amaitzer egoala, Donostia'tik bialduta «Orixe Sa-riak» eritxan iragarki iru orrialdeko dotore bat eldu jatan. Onela iñoan azpi aldean: «Literatur obrak Euskeratzeko Gipuzkoako Aurrezki-kutxa probintzialak eskainitako diru-laguntzen deialdia».

Ondo etorria diru laguntz, i ori! Lau bat liburu zain daukadaz emen aspaldi dan 'k —«Orati'ren Olerkiak», latinez eta euskeraz. «Milla euskal Olerti eder», irugarren alea, «Bizkaiko Olerkariak» eta «Izterbegiak» — bat-edo bateren laguntza zain, eta berezkoa nunbai, olako albisteak damoan poztasuna. «Ljteratur obrak —osaten eban jragarkiak— behar dute izan, klasikoak eta/edo modernoak. Epai mahikoak batez ere obra hauen interesgarritasunari orreparatuko dio, berauen gaia, idaztankera eta onaen —ospea kontan harturik».

• Nik urte neban itzul-arloan naiko lan egiña nintzala eta aurreantzean be zerbait egiteko gauza. Ori kontuan izan ^gc, goiz baten, Donamaria aldera joan-bearra nebala-ta, Donost'a'tik igarotean, pakota bat itxi neban Gipuzkoako Aurrizki Kutxa Probintzian, Garibai kalean; paketea joiazan nik ogindako itzulpenok, «Odisea», «jainko Antzerkia», «Faust» eta «Ipuiñak», eta iragarkiaren bostgarren tituluak eskatzen ebanez, «Erakuskari gisa, 5foliotatik lOra bitarteko lan bat, itzultzeko asmoa duen obraren edozein parteren euskaralbena oginda, zein orrialde eta ediziotan oinarritu den garbi adieraziz».

Eskakizun au betetako Moliere'n «Tartufo»-ren lenengo Ekiñaldiko V Agerraldia euskeraz bialdu neutsen. Artu zituen nik bialdutakoak, geroago jaso neban beintzat nundik eta zelan itzuli neban eta beste zeaztasun batzuk eskatuz.

Baiña ez nik egindako biurtzerik ez Moli 'ro'n «Tartufik» ez eben onartu; etziran bear bada ez klasikoak, ez eta modernoak be. Frantses antzezgille au, baiña, bera gaurkoa ezpada be, aren lana gaurkoa dozu eta zentzun aundiz osotua. Moliere da frantses lengo ta oraingo komeri-idazlerik bikaiñena, majsua drama-gaitan komikauzia nastean, «Tartufo» deritxon onetan legez.

Komeri au gure artean be ezaguna dozu. 1980'ko jaietan Bilbo'n antzeztua. Auxe dala-ta, Olazar'tar Martin'ek «Zer»-en onela: «Munduko antzerkitegian ba-dira, «nagusiak» izendatu leikezan lan batzuk, eta onein artean, zalantza barik Moliere'n «Tartufo» da bat, Ondo egiña, irakatsi aundikoa aldi guztietarako, elertian eztabaida bako garrantzia daukana,.. Bilbo'ko jaietan eta Adolfo Marsillach zuzendari dala antzerki-lan oder au ikusteko erea izan dogu aurtan».

Jente asko berau ikusten, baiña ikuslerik geienak gazteak izan ziran: E_ta «olako antzerkiak lenago zarren eta aberatsen gogojanari eztsua» izan oi zan Marsillach jaunak aldatu egin eban teatru aria, zerbait beintzat, jenteak errezago ulertu egian. Jenteak, barriz, naiago ez ete eban Moliere'k idatzi eban lez?

Dana dala, nire itzulpenik etzan onartu nai izan «Orixe itzulpen sariketan. Ez da arritzekoa, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak *milloi ta bosteun fnillabo* diru kopurua iragarri bañt eban! Eta onen otsak, jakiña! , errai-miñak ikarten! Leen itzultze asko egiña dala ta guri zer?

57 ALKAR AITU NAIRIK

Santa Teresa il zanetiko IV^lgarren eunurte burua zala-ta, 1981^l an, «Egoitzak» (Las Moradas) liburu bikaiñaren itzulpena argitaratu neban nik. Irakurri eban eta ondoren bere eritxia agertu Pedro Pujana apaizak, urte areitan Bizkaiko Foruak euskeraz emon euskunak. Onela idazten eban 1982^lan «Zer» aldizkarian:

«Lenengo ta bein, auxe agertu gura dautsut: iztegi ugari ta aberatsa darabilzula. Ainbeste ta ainbeste itz egoki ikas daiteke liburuok irakurrita. Aditzari buruz, esaldi bat edo beste aitatu nai dautsudaz, SANTA TERESA izeneko liburua onan amaitzen dozu: «Bedi guztion Irakasle». EGOITZAK deritxon liburuan be, azkenaldian, 237 orrialdean, onan diñozu: «Jainko gure Jauna *bedi* beti-betiko z goretzia ta bedeinkatua».

«Onango esaldiak ainbat datoz irakurri dodan liburuan. Gogozko dozu, bai, «bedi» soillik aginte eran (inperatiboan) erabiltea, nik ez neuke onelan idatziko. Ona zergaitik. *Bedi guztion Irakasle* esaldiak, esate baterako, nire eritxi apalez ez dau ezer esan gura. *Bedi* joko a *edin laguntzaillearena da*. *Edin* laguntzaille au aginte-eran, aal eran eta subjuntiboan erabilli oi da. *edin* aditz laguntzaille au, orixe da, laguntzaillea. Ezta bera bakarrik jokutzen. Aditz-izena (nombre verbal) bear orretarako (*etor bedi, egon bedi, izan bedi* eta abar). *Izan* aditza be laguntzaillea da, baiña ez laguntzaille bakarrik, lokarri aditza (verbo copulativo) be

bai. Esate baterako: «Ni euskalduna *naɣ*». Esaldi onetan *naɣ* jokia ez da laguntzaillea. Laguntzaillea be bada, «Ni etorri naz» esaldian, adibidez, *naɣ* laguntzaillea da. *Izan* aditza gaur ez da jokutzen inperatibcan, ez subjuntiboan, eztaal-era edo potentzialean be. Beste laguntzaille bat bear dau: *edin* laguntzaillea onelan esango dogu: *izan bedi* (bekit, bekizu, bekio...), *izan dadin* edo daiten (dakidan, dakizun, dakion...).

Nik ari (zozo baltzak zoro baltzari):

«Bai, egia, ausart edo urtenka lez agertu oi gara ez gitxitan, eta olakoari onela esaten dautsa erriak: «Ori ez dok atearen azpiko orria». Baiña orrexeri be norbere eritxi apala —beti apala ez bada be— agertzea ez da egundo be gizalegetik edo egokitasunetik urtetea. Bioa, ba, zerbait *bedi* ori dala-ta, Gure euskerak antxiña laguntzaille *izan* barik erabilli oi eban *bedi* ori, barriro be biztu ta erna barrituz doala esan daikegu. Guk, eliz-gizonok, egunero esan e, a ausnartu bear dogun *Orduen Liturgia* deritxogun liburu ederrean bertan ez datoz orrelako gitxi. Garizuma aldian gagoz nik au idaztean eta gaur goizean, ain zuzen, Gorespen ereserkia, onelan kantatzen:

«Egille on, entzun gure
otoitza eta negarra;
bekigu barau aldi au
salbabidezko indarra».

Eta azkenengo erantzunetan: «Kris̄to, Jainko biziaren seme, erruki askizkigu». Onako asko agertzen jaku bai salmuetan eta bai anparaueetan be. Zer esan gura dau, beraz, «bekigu» orrek? Zer «zakizkigu» orrek? Itz utsak ete? Ala bear bada, «bedi»-tik «bekigu»-ra aldea ete? Ez al datoz biok «edin»-etik? Nok askatu filosofo onen korapilloa?

Jarraituz, diñozu: «*Izan* aditza gaur ez da jokutzen, baiña leen bai». Gaur egunean ez ete gabiltz, ba, leengo euskal aditzaren alderdi bikañak be, gizaldien eta aurretikoen zabarkeriz galduriko forma zaar areik be, barriztu nairik? Rene Lafon'ek naiko sakon ikasi ta aztertu dau euskal aditza, bere liburu mardul «Le système du Verbe Basque au XVIIe siècle» deritxanean. Leengo zaarrak zelan erabilten eta abar, maisuki eskintzen dauskuz,

«Edin»-etik datorren *bedi* laguntzaille bakarrik ete dogu? Ala, nire *bedi* esaldian lez, beste zerbait be esan nai ete dau berez? Azkue albora itxita be, Schuchardt eta Lafon'ek «edin»-en sustrai «di» zerbait dala diñoa (*devenir*, au da, jazo, gertatul, edo-ta «llegar a ser», zauri bat gaiztotu, adibidez. Eta orduan «edin»-en sustrai ori emen ez da laguntzaille lez erabilten, aditz «independiente» lez baiño. Elizanburu'k onela «Arbasoak» deritxan poeman: «Zer haiteke, oiharzuna, / beien oihua baizen?».

Etxepare'k ez dakar «izan» aditza aginte-eran; Lizarraga'k ostera, «biz» (sea el) darabil, eta «bira» (bire). 1596'ko Errefrau txortan be «adi» dator: «Astoagaz acli kirolan, au da, jolas adi astoaz eta okotzean emongo au». Zuk diñozu: «Onelan esango dogu: *izan bedi* (bekit, bekizu, bekio), *izan aurretik dabela, izan daiten bezela*», Eta Lizarraga'k (1 Tim. 4, 13): Ethon nadin artean, *akio irakurtzeari...*. Eta Garibai'k: «Adin onari akio». Olaeta'n eta Berrizen: «Ementxe naukazu zeri *nakio*, Azkue'k bere Iztegian «ekin» itz-pean dakarrenez. Antxiñako aginterak onela ziran: «*Naizan* (sea yo), *aiz* (se *biz* (sea el), *garean* (seamos nosotros), *zara* (sed vosotros), *inra - bire* (sean ellos)»r *Flexiones del Verbo vizcaino*, 29'garren orrialdean. Gaur *biz*'cn orde z *izan bedi* (beite, bite) esaten cia. Geure egunotan be, baiña, gitxik *biz* erabilten dabe. Olabide'k adibidez. Eta guk *bedi, izan bedi* esan bearrean.

Zergaitik olan? Beste errazoi batzuen artean, augaitik be bai. Poetok, badakizue: olerkari ta poetai, latitar Horatio'k diñoanez, eskubide geiago emoten jake olako lege estu samarrak austeko, naro ta eznetan, jainko txikien garraxiai jaramonik egiteke, buruz_t aurrera joteko.

58 BARANDIARAN ETA LEKUONA

Begirune aundikoa izan naz beti,-eta izango euskal jakitunakaz. Egiz-ale naiatzuen aldetik, siñist eidazue, ez dot-izan eurokaz ar-emon estu-esturik. Geiagotan aurkitu izan naz M. Lekuonarekin ataundarragaz baiño. Urteak dirala egin neutson bigarren oni ikustaldi bat, eta beste bein Iruñatik nentorrela bere etxean geratu gintzazan antxiñako gauza batzuetaz agandiko eritxia jakin

naiean. Kartaz zer-ikusi geiago izan dot, eta omenaldietan bardin, 1980'en Gasteiz'ko seminarioan deduzko Irakasle izentaurik bai eskiñitako omen aldian, an nintzan ni be, beste asko ta askoren artean. Azkenez, Eusko Ikaskuntzak igaz Donostia'n J. K. Barandiaran'ek egindako omenaldian agurtu neban, bero-bero.

Gasteiz'en bai batera egiñiko omenaldia gogora ekarriz, one-la diño Olazarek: «Ordua zan gizon ospetsu onei esker ona agertzeko eta aundikiro agertu jake oraingoan. Ez dira gizon biak maila ia sailla bat.n langille izanak, naiz ta alkarren barria jakinda eta sarritan bide biak alkartzen dirala jokatu: Barandiaran'ek zagaietan, antropolojan egin dau lan, Lekuona'k ostera izkuntzarloan».

Biak aundi, biak euskaldun, biak langille. An eta emen artu izan dabez, eta artuko, omen galantak. Ederrenetarikoa izan zan. Gasteiz'en egin jakena, ainbat Gotzain, eleiz-gizon eta lagun mailalez inguratuta. Iru eguneko ikastaroa eratu zan aurretik, zezeillaren 13'tik 15'ra; izlariak, zetan esanik ez, danak jakintsuak, eta alkar-izketan oituak.

Euskal. kulturalan zein baiño zein sutsuago jokatuak ditugun eleiz-gizon ospetsuok, antxe Seminarioan gerra aurretik asita, etenbako euskal lanean ekin eutsen biok merezi eben, barrero esanda be, olako omena, Irakasle (Doktor) kapela buruan jantziz egin jakena. Eta eurak be euren jakituria erakusteko edo, euren erakustaldia emon eben: Lekuona'k euskerearen bokaliburuari buruz eta Barandiaran'ek giza ideari ta kristautasunari buruz. Kantu ta zorion artean amaitu zan omenaldia.

Lektiona'gaz beti izan neban artu-emon estuagoa, neure leenengo liburua argitaratu nebanetik. Poz-eztitan artu eban argitalpen ori, eta andik laster berak esanda itzaldi bat bota bearra euki neban J. Urkixo jaunaren Mintegian. Bi edo iru bider be, emen izan jakun Olerti-Egunez; eskutitz adoretsez eskertu nindun «Gurre Bertsolariak» atera nebanean.

¹ Azkenengoz, bera maiko ta ni izlari izan giñean, igaz Andoain'go udaletxeokak bertako seme Patrizio Orkaiztegi jakintsuari egin-

dako omenaldian. Santa Teresa zalea zan oso ta itzaldi osteko so-
las-aldian maitekor itandu eustan zelan bururatu jatan Avila'ko
Santa aundiaren «Onbidea» euskeraz jartea. Liburu orren zeazta-
sun guztiak emon neutsozan, noiz eta nortzuk asi giñan euskeraz-
ten, noiz eta zelan amaitu genduan berori euskeratzea. Eta abar.

Orain «Egoitzak» irakurten ei ebillen, baiña beratzat «Onbi-
dea» izan ei zan, arimearentzat, egunean-eguneango janari eztia.
Atsegin jakon egi-egiaz Aita Lino'k eta nik darabildun bizkaiera
jatorra. Berandu zan arren eta nik Larra'ra biurtu bear, etzan ne-
katzen esan eta esan.

Gure adiskidea il zanean, ni Algezira aldetik nintzan, eta ezin
egon Oiartzun'en egin jakozan illeta beroetan. Lau gotzain, apaiz
asko ta eleizea beterik. Dagonillaren 3'an norbaitek idatzi eustan:

«Ostiralez izan giñan On Maunuel'en illetetan. Ura jaikizun un-
kigarria! Barkamena eskatu zigun gorriak nozitu ginduezan apaiz
guziori, On Manuel aurrena zala Elizaren aldetik Gotzai Jaunak.
Malkoak ezin eutsirik egon giñan orduko ainbat apaiz eta onek
oartuko zara garrantzirik aundiena duala. Gure jokabidea bai eus-
kera zaintzean eta baita Euskalerrria ere, jatorra izan zala aitor-
tzea zan. Baiña gu apaiz gaixo oiek, atzeko aulkietan geunden bi-
tarteetan, Villasante, Satrustegi eta San Martin, aldarean lau Go-
tzaien alboan azaltzen ziran. Oriek daukate kopetako azala! Eus-
kaltzaindik On Manuel bota, ala irain aundiak aurpegiratu eta
jakintsua ez zala aitortu ondoren ludi guztiaren aurrean, orain
illik arj omena egitera azaldu! »

59 XABIER PEÑA

Nire baratzeako kañaberak ez daki kardantxilloa noiz kokatua
jakon lenengoz gaiñean kantari; ezta, nik bo ez dakit noiztik ne-
ban ezagun, eta maite, Xabier Peña. Lagun bik askoten ez dakie
nun eta zelan adiskide egin ziran. A ta ni mendiren baten, billeren
baten, ziur asko, alkar eragutu ta maite izaten asi giñan.

Uste dot, oker ez ba'nago, bera izan zala ni billatu ninduana.
Maisua zan Xabier, jaiotzez tolosarra, gerra aldiaren eta ostean be

Frantzia'n ibilli zana: ederto ekian frantsez izkuntza. «Seguros Bilbao»-n lan egiten eban, eta urte askotan eukeraz erakutsi eban Bilbo-n, Ikastaroa amaikeran, uda-erdirantza, Arana-Goiri ta Kirikiño lez, gure erri ta mendi-tontorrek ezagutuz egun ederra igaro-azo oi eutsen bere ikasleai. Eta urteetan ni eroan nindun mezea —igandez izaten zalako— emon eta itzaldia egin nengioan. Gogoan dot: Urkiola, Arantzazu, Loiola, Itziar, Arrate, Arretxiñaga, Amoroto ta olakoetara sarri joan giñan, bi edo iru autobuse-tan. Aurrenik arimea ta ondoren gorputza.

Xabier'ek eta beronen anai Sebe'k, egunero, Bilbo'n, Barrenkale Barrenako «Guria» jatetxean bazkaldu oi eben. Ni, barriz, gorabera bereziren baten izan ezik, arratsalde Bilboratzen, eta, a bizi zala, ara sartu-urtena egin barik ez nintzan geratzen. Gero, bere bizilekua urrin samar egoalarik be, Perez Galdos'era eroan oi nindun, alkarrizketa luzea egitera. Paper-mordoa euki oi eban nik ikusi nengian; bere ikasleen lantxoak ziran, nik batzuk «Karmel» gure aldizkarian argitaratu nengizan: berak aukeratzen ebazan geienetan, eta ikasloen poza euren lantxoak aldizkari baten ikusita!

Mendizaleak noski tolosar anai biak. Xabier il zanean, onela abestu eustan Muniategi'tar Sabin'ek:

«Ikusten ariko zara, biotzeko zenduzan
Uzturre, Txindoki, Ernio, Larun, Kanpanzar,
Oiz, Sollube, Bizkargi, Gorbei, Aralar,
Mugarra ta Atxarre, Unbe ta Ereñozar...
Euzkadi,ko mendi txiki ta aundiak,
erri barruz edo itxas ertzez (emen ta an)
opor egunetan gogo alaiz ibiliak,
aberri aldezko ikuste ta ereinketan».

Gorbeia'n «Legoaldi»'n euken berak eta lagunak aterpe txai-roa aitz-mokor aundi baten azpian. Bein, antxe beretan, igarri beko ezbearrez, lagun bat il jaken, eta gero, urtean urtean, meza ba, atera oi eben Ipiñaburu'n; abendu aurreko igandean, Kristo Erregez izaten zan, eta guk be geure Olerti-Eguna igande orretan ospatzen genduaneez, angoa amaitu ondoren, Xabier beintzat ona etorri oi zan. Oso kutun eban Larrako Olerti-eguna, eta, gaur

Arregi'tar Josu'k egiten dauanez, bera izan oi zan bazkal-sari jaso-
tzaille.

Biotz'samurreko gizasemea zan, on-egiteko beti gertu egoana:
Agirren «Sarría» artzera berak eroan rindun Baiona'ra; esan do-
danez, biok giñan Helsinki'ra joateko Kirsti'k gonbidatuta; biok
gintzazan aste osoan, a ta bere laguna, Itzaltzu'ra etorri zi-
ranean, Naparroako uri, oroigailu ta edertasunak ikusten are; la-
guntzen; ainbat lan osotu neban, arek eskatuta, euskeraz ikasten
cibi I tzanentza t.

Guri Egun Aundirarte agur egin baiño zortzi egun lenago
Suiza'tik idatzi eustan. Opor-egunetan, mundu au —ederra nun-
bait-- laga baiño leen, ango mendi ta troketako ederrez ase-azo
nai izan eban bere izate osoa, ondoren besteko an murgil beti-
betikoz zoriontsu izan zedin. Leuzemia gaizoak joa egoan, eta ba-
ekian laster ilgo zana. Ludi ontako bazterrak be, ain jakozan eder
zoragarri!

Izan zakiguz eredu, Xabier, geure erria maitatzen eta jagoten!

60 POLITIKU NI?

Aurten (1988) birigarroak negu-erdia baiño leen asi jakuz kan-
tari. Zergaitik ori? Giro ederra dalako ta barruko poza, arik

ager-aztea egoki dalako. Gizesemeetan batzuk barrura begira
bizi dira, beste batzuk kanpora begira; oneik adibidez, kanpora
begira bizi diranak, eun modutara ager'azo daroe euren barren-
aldekoa: zapata gorriak erabilliz, udan soin-gaiñeko grisa jantzi-
az, bazterrak usainduaz, ela abar. Nik ba'dazaudaz onakoak. Eta ale-
giña egiten dot olakoa ez izateko.

Politika —*politike* griegoz— erri bat zuzendu naiz gidatzeko
trebetasuna dozu. Edozein gauzatarako lez ortarako be berarizko
doea bear da, edonok ez daukana. Nik ez dot uste doai orrez ja-
jantzia nazanik. Iñoiz ipini nai izan ninduen orretan, baiña barruak
beti esan daust ezatz, eta gurago izan dot bakar-samar lanari ekin,

Bein eta barriro itz-aspertu billa datorkidazanak itaun au be zuzendu oi dauste: «Politiku al zara zu?» Eta nik: «Zer adierazo nai daustazu orregaz?» Olakoak barriz ez daki zelan zeatu itz ori; itz orrek egi-egiaz zer dikurren ezin azaldurik mamortuta geratu oi da. Alderdi politikuak, bai, ezagutzen ditu, au onen zalea dala ta bestea arena. Besterik ez, itzaren ganera ez da eltzen.

Nik orduan: «Nire aita, errege-zalea zan; ni gaztetxo nintzala, Alfonso XIII erregea Markiña-ko Munibe-ra etorri zan baten, ni be ara eroan ninduen. Baiña niri ez eustan sekula errege ta errege-osterik aitatu. Gudarien kapellau ibilli nintzanean pozik aurkitzen zan, euskal liburuak atsegin jakozan eta leenengoa («Milla euskal Olerki eder») argitara aterateko diTuz lagundu nindun.

«Politiku» itza aurrenik esitu bear genduke. Norbere lurralde, gizona lur-gaiñean, izkuntza, oiturak, legeak, kantik, eta enparauak ikasi, maitatu ta zaintzea politika baldin bada, bai, ni politiku nozu; erria kulturaz jantzi, fedez ta goibidez arnas-aunditzea, politika bada, ni politiku naz. Orixe egin bai dot bizitza osoan, Alderdi berezi bateri izena emon eta erriz-erri ta etxez-etxe aldarrika ibiltea politika bada, ni ez naz inoiz be politiku izan.

Autarkia leenengoz Begoñan nengoala emon neban, Eusko Abertzale Jeltzaleari emon be, Gotzainen eritxiz auxe zalako alderdirik zintzo ta jatorrena. Gaur-egun bardin, orretxentzat da nire autarkia, 55 urte oneitan ez bait da aldatu jatortasun ori. Anboto beti daukazu leku baten: aize ta edurren erasoz ez jatzu besterazten.

Urteetan zear ez dot egundo izan ezeren istillurik. Gerratean margo guztietako jentez inguratu nintzan: Santoña'ko espetxean danetatik egoan, sarri eratu oi genduzan nai eben guztientzat Jau-nartzeak, gorri ta zuri guztietatik aurtortzen ziran, gorriak leenengo zirala nik esango, guretzat, eleiz-gizonontzat danak ziran euskaldun, anai oiñazean. Etee! alderdikeria!

Neure bizitz-urteetan ez naz inoiz ibilli txamarra aldatzen, beti jantzi izan dot bardiña; ez Santander'en ez Logroñon ez eben jokin ni presondegian egon nintzanik. Santoña'ko epaian errutzat egotzi eustien euskeraz idaztea, eta geroago be, urteetan, errudun zan, politiku, euskal arloan izerdia botaten ebana: orj alakoren baten jaurti eustien arpegira.

Oraintsu, ostera, euskaldunak —zoritxar aundiz! — naastu diranean, eta banandu, ni be «politiku» nazala zabal-azo dabe. Onoi-men zabalekoak gara euskaldunok, baiña baita zaborreri pixu galanta barne daroagunak be. Ez ete da egia? Ala emen be, «bakotxa bere zoroak bizi dau» esan bearako? Ez, itxi daigun besteen' tzat be lekuaren pitin bat.

Politika ba'da jolasleku batzuk, batzokiak, dendak, ermitak Kultur etxeak, ikastolak bedeinkatzea, orduan bai politiku nozu, olako askotan ibillia naz-eta. Batzokiak, adibidez, asko bedeinkatu ditut: Zornotza, Lemoa, Usansolo, Galdakao, Bilbo, Berango, Laudio (birritan), Zeanuri'n eta abar. Antzeko tokietan bedeinkatu, meza emon eta itzaldia egin askoten egin bear izan dot, neure bizitzan zear.

Istillurik? Ezta; ez leen ez orain nik ez dot izan; egin eta kitu. Gerraldian eta espetxean gabetu egiten da, itxura danez, bitxikeriotako begirune ta lotsa. Franko'ren garaian alegintzen ziran, iñoizkoren batzutan, atzeragarriak (kalean naiz eleizan) jarten; baiña agiriko zoztorrik nabarmenen batek izan ezik, etzan iñoz ipinten. Gaur be baditugu olakoak, eta baleiteke orduan baiño ugariago, bideok ordukoai ikasita edo, erabilli nai dabezanak. Aita' tuko ete?

61 ENBEITATARRAK

Ao samurrak adiskideak geitzen ditu, eta ezpan maitagarriak biotzak, Ba dakizu ao gaizto ta marmarti zarean orrek. Nik neuk, eta ez dakit zergaitik, iges egin dot olako jenteagandik; baita barruan oldoztu be: «Onek urligaitik ori diñoanean, zer esango ete nigaitik?» Olako senekoa ez jatzu egoki aldamenen. Izaera gozo ta samurrekoa, bai, ostera, ederto datorkizu ondoan.

Nun eta noiz alkar ezagutu genduan ez dakidan arren, nik begirune lotsa ta maitasun miña izan dausat beti Enbeita sendiari. Zornotza-n ikasle nintzanetik ezagutzen neban Kepa bertsolaria (Urretxindorra). Uda batez, Txatxarramendi-n eguna igaro ta trenez etxera gentozala —gogoan dot— Areatza gaiñean, tunel txiki

batetik urten-ala, Aita Roman zanak esan euskun: «Otxe, ganeko etxe orretan bizi da Enbeita bertsolaria», Eta txaloak jo geuntsozan.

Usparitxa critxon baserrian bizi zan Urretxindorra, Ibarruri' ko alaba Benita Goirja-rekin ezkondata. Iru seme euki zituan, Balentin, Sabin, eta Imanol (umetan il paken Deunoro kontatu barik) eta iru alaba, Bñgene, Edurne ta itziar. Sabin dago etxean ezkondata Boni Martite'gaz. 1952-V-15'an, Ixidor Deunaren egu' nean sermolari an izan nintzanean, onein alaba Belentxu zazpi ute' koak egin eban bere leenengo Jaunartzea, egun eder aztu-eziña ospaturik.

Ni espetxean nengoala, 1942-an, il zan K. Enbeita, Benita Goiria oraindik urte gitxi dala. Guztiz ondo artu izan nabe, aratu nazan guztietan; baiña batez be Kepa'ren bertso ta bizitz-zeaztasunetan joaten nintzanetan, Kepa'ren bertso-lanik geiengeien'k «Euzkadi» egonerokoan datoz, 1913'an asita aurrera. Amar-amabi urteko aleak, pazientzi aundiz, arakatu ta kopiatu bear izan genduzan Aita L. Akesolo'k eta biok. Esku artean genkarren lana baliotsua zala konturaturik, ez jakun bape aldatz gora egin.

Bein, garizumarantza, Gogo Jardunak emon nebazan Areatza'n, jan eta lo Bingene'renean egiñik; gogoan ditut oraindiño, ez, ez daukadaz aztuta aren seme-alaba txikiak, Itziar, Elisabete ta besteak. Nork ez ditu bizitzan ezin aztutako gauzak? Eleizako jardunaldien ondoren, eta baserrietako gaixoak ikusi ta autortutakoan, kromoetara jokatu ta aur-ipuiñak urkuldu. Era askotara on egin daikegu.

Ez datorkit txarto, emen, euskal esaera zaar au: «Lur gurian zila andi». Famili on txeratsura joera izan oi dogu, igarri bage izan be. Au bear dozula edo bestea eskatu, ara zoaz ustetsu. Alkar maite dabenak sarri izan oi dabe arpegi ikustea. Niri, alan be, ez jat egundo eder izan larregiz iñori eskua artzea. Ikustaldiak urri, labur eta txeratsu; bestelakoak gogait eragiten.

Zabale baserrian, Areatza gaintxoan bizi da Balendin Enbeita zanaran sendia. An be, sarriegi ez, baiña izan naz, adiskideai la-

auntzen, kasetak ateraten, bertsoak batzen, bizitz-zertzeladak idazten. Kirsti finlandiarra ikusten... Balendini Larrerako naiz beste toki baterako bertsolari deia egiten, beronen bertso-liburu bati, *Apurra-ri* ezarteko datu billa, esate baterako.

Kepa-Txiki'gaz eta Iontxu'gaz euki izan dot artu-emona, Areatza, Gernika ta Abornikano-n. Eurok bait dabiltz, Tzeko Itziar'ek lanik geien dagialarik, nik 1971'an Buenos Aires'en, Andima Ibi' ñagabeitia'k Venezuela'n eta Patxi Abrisketa'k Kolonbia'n lan egiñaz, atera neban «Gure Urretxindorra», barriro argitaratuteko asmotan.

Familia au, beraz, ez da asto zuri zaldi urdin, euskal arloan. Au da, zaar eta gazte guztiak zerbait egin ebela gure izkuntzaren onerako. Bingene'n alaba Begoña'k Santoña'n monja aurkitzen zanak ainbat olerki bialdu eustazan, eta gero, Eibar'tik, il aurretxoan, beste txorta bat artu bere lekaima lagunak bialduta. Bai, Euskal-lerriari sakon adiñondurik bizi izan dira beti Enbeitarrak. Labur esanik: egi-egiazko euskal sendia. Au alan dala jakiteko ba-pjo; nik ziorik.

62 ELEIZ TA GOGO-ZERBITZARI

Lana dagokio gizonari. Nik ez dot sekula destaiñaz itxi. Luzaro bizi nai dauanak ekin beio ari edo oni. Errazot ez ain ariña: eusko baserrietan ondo luze bizi izaten dira. Botikeak baiño areago lanak emon oi dautse bizi-kemena. Adimen-lana bardintsu ona dozu luzaro bizitzeko; or gure artean I. M. Barandiaran, M. Lekuona, A. M. Labaien... Lekuonak igaz esaten eustanez lanak luzatzen eutson berari bizia.

Aspertzeraíño otseginda be, Larrako komentuan bada lanik ortara jo Gura dauanarentzat. Eta ardura geiago artu genduan oindiño nire bigarren nagusitza denporatik. Pablo Gulpide Bilboko gotzain zala, Etxano'ko eleiza ta eleiztarren arima kargua guk artzea nai izan eban, eta guk artu 1967'ko abenduaren 24'an. Orain eleizaz txikia dala be, orduan zabala genduan erriz ta eleizaz. Geuk daroagu oraindik. Eta neu arduratu nintzan ango gauzakaz urte

mordoan, 1972'tik 1978'rarte. Urte ontararte neuk izenpetzen ditut ango liburuak, eta ondoren Aita Benito Etxebarria, Julen Urkitza ta 1987'ko urrillaren 4'tik A. Eusebio Etxebarriak.

Urteotan praille-gaiak urrituz doaz. 1968'garen urtearen erdialdetik ez daukagu gazterik Larrako aztetxean. Neu nintzan nagusi irugarrenez 1972'ko majatzaren 4'tik 1975'rarte. Eta leku eder oni zerbaitez urteera emon nairik, Gipuzkoatik ango apaiz jator batek, Bermeo ta Bilbotik be gazte-zale leialak ekarten eustezan neska-rnutillai eterpea **igandetan eta iñoizka** aste barru osoan, gogo jardunak emon oi geuntsezan gazteoi; pozarren egoten ziran berton, jan, lo ta arima gaiak ikasi ta aztertuz. Orrela iru bat urtean.

1974'an, gaur Erroman karmeldarron Aita Nagusia dan Sainz Baranda, burgostarria, igaro zan emendik bisitaz. Onek zirikatuta asi nintzan ni gizaldi ta erdian lez Aztetxe izandako komentu onen zati bat Gogartetxe izan zedin gertaketak egiten. Osotu nebazan aurre-kontu, egitamu, montio ta abar Martin de la Torre, arkitek-tua ta Hernandorena jauna aolkulari nitula. Onela, antola-lanak asteko nengoala, Nagusien aldaketa egingo eban Batzar nagusia Gasteiz'en; Aita Arantzeta aukeratu genduan bertan emengo buru eta beronek jarraitu zitun Gogartetxe lanak, Aita Zuazua probintzi alaren ardurapean.

Andik urte bira, egitekoak **martxan jarri zan Gogartetxe**, gaur ederto doana. Karmeldar M'x;olari Teresiar Aitzak daroe beronen ardurea. 1977'ko abenduaren 1 l'an ospatu genduan asiera, alkar meza aundikiro Jainkoari opatuaz.

Aurretik be, esan dodanez, bakotxak bere lanbidea —batzuk gelan itzaldiak gertatzen, beste batzuk atean eta eleizan, eta irugarren batzuk ortuan eta baratzean— geunkan arren, 1975'an eskabide barriz Gurbide gotzain jaunak. Zornotza eleizaz eta arimaz aziago egiñaz joiala-ta, Larrako eleizea, Karmeno Amaren santuegia, antxiña baten Juan Bateatzailleari **parroki biurtzea** nai eban, gu beronen arduradun **Naiz-ta karmeldar Orde-neak** erdi galazorik euki olako erakundeetan eskua artzea, erriak gaur ori be berezko zertzat eskatzen dauskulako, Nagusien bai-menaz, baiezkoa emon geuntsan.

Eta legezko izapide ta jarrai-marraiak bete ondoren, 1975ko apirilaren 13'an, Zapatu Santuz, egin nebazan lenengo bateoak. Parroki barrutia, arimaz oz baiña lurrez bai, naiko zabala da: Plazatik, Obena, Tantorta, Kortederra, Boroa, Garaitondo, Ergoien, Autzagane, Ofrendo, Zornotza, Karmen kaleraiñokoa. Parraide nintzan mugak jartzerakoan, eta etzan eztabaida esatekorik sortu ez Andra Mari parroki aldetik ez Larrakoen aldetik; gaur alan be, osoagotu leitekena dozu.

Parroki barriren zerbitzua, barriz, :1976'ko apirilaren 13'tik urte bereko azaroaren 17'rarte neuk eroan neban. Nire ostean, 1975'ko karmeldar Batzar Nagusiaren ondoren, Eusebio Etxebarria izan zan parroku ta gero Paben Juaristi, gaur be dana.

63 EZ ITZUNDU ERRIA

Ainbat bide ditugu erria bere doai jatorrez murrizteko. Tokiaz naiz jentez miresgarri izan da Euskalerrria, oraintsu arte, gaur deitoragarri bada be. Inork leporatu eutson gerratean eta ondorengo urte luzeetan zigorpe erabilia dogu, errukarri, eta azken urteotan geuk erdi-ondatu dogu, era askotara jorik ondatu be. Erlijiño ikuspuntutik ezarriko dautsot emen begia.

Gora aundikoa da gai au norbere naiz erri'maillan. Ez gara abere soil-soil, beste zerbait be ba-gara, errazoizko abere: Jainkoaz ar-emon estu-estuak ditun gizakia. Eusnar pizkaten... Orrek damotsa gizonari berebiziko itxura, errazoizko itxura nunbait. Fe-deak ezarri oi dauan itxura sotilla.

Euskalerrria, aspalditik, Kristoren ostetik laster, ez beranduegi, bere len oitura, mitu ta olakoak osoan laga ezta be, orduan artutako kultura ta fedeari zintzo eutsirik, beti izan da kistar fededun leial. Gaur, zoritxarrez, antxiñatik daukan izen goiti au ia aozkatzea be askorentzat inozokeri dala be, ez leuke orrela izan bear. Orrek autortzen dauan siñismena bai da bere bereizkuntza doarik Zer ete dau balio geiago pelotari, aizkolari edo arrijasotzaille izateak, ala fede biziko izateak?

Gaur, oster, ez dĳra gitxi artean Euskalerrriari fedea —edo orrez nasteko beste tasun bikaiĳnak — kendu, makalazo ta ondazten alegintzen diranak. jar nertsona bat, erri bat fede-auzian zallantzan, naiĳz oreka bage, eta laster da abere biurtua, zeuk nai dozun bidetik erabilteko gertu. Doillorra egiz pertsone bat zoritxartzea, ebere maillara erastea. Olangoari daukan gauzarik ederrena ez ete dautsazu lapurtu? Zuretzat ez dauala baliorik? Zeurekoĳi zatar! Eta niretzat balio ikaragarria baldin badau, zuk ze eskubide dozu niri ori kentzeko? Ez, ez itzundu erria, ez iĳnor!

Miĳnetan dago Euskalerrria taldetxo batzuk, biurrikeriz, gauzazten dabezana egite nabarmenakaz. Zuzentasunaren kontra doazana zenbaĳt gauza, oitasun, ekandu, moral-alor, irain, gorroto, eriotz, aldizkari ta liburu zantar, itzaldi guzurrezko ta aobero... Eta guztia, danon etxea, gure arbasoak jasotakoa pikutara jaurtzeko. Ez al dozu au gaiztakari lotsagarria? Ez diĳnot, erriak baiĳna: Komu' nikabideak, zer eskintzen daskue? Zar eta gazte, guraso ta seme-alaba, nazkatuĳrik goaz sarri ogera. EZ eto gai gauza oberik emoteko?

Orreik —ez dira asko, bai langilleak— eurak zabarkeriz galdua anaiak be gal dagiela nai dabe. Zer galdu, baiĳna? Ori, barruko gozotasuna, erleĳiĳnoaren ezti atseĳiĳna. Umetan etzan ezer ikasi, «mezak» ez daust ezer esaten, autortu zan; «ni ez orren zale, nik ez dakit olakorik»; «jakin gura be ez, ni agnostiku naz». —Eta zer dok ori?— Ez dakit, baiĳna orrela bota oi da. Erleĳiĳnoan bakarrik ez dakizu ezer. Beste gaietan, oi!, jakituna nozu,

Gauza bitxia, nik uste dodanez. Erleĳiĳno biran bakar-bakarrik ez dakizu ezer, diĳnozu; bestelan bai, buru-jantzia zara. Eta alan eta guzti be gizarrean zabiltz, erantzunkizunik ez dozu ta beste edozein legez lagun artean urrats dagizu, robot biurtua. Edo ez zara ezer ez dakizuna. Ez al dozu ausnartzen, ez pentsatzen?

Ala zuk dozun ez jakite ori erleĳiĳnoari buruzkoa da bakar-bakarrik? Ba leiteke. Onakoak, egia, ez dau Jainkorik ukatzen; ez dau sentitzen jainko premiĳnarik; obeto esanda, ez dau kemenik jainkoa ezagutzeko, gura ez daualako sarri. Toki itxi batean, illunetan murgildua bizi jatzu. Ez dau Jainkarik il gura, baiĳna bai bere burua goi-bizitzarako indargetu, mekotu, deuses biurtu.

Bada jainkoa, nik alan be ez dakit ezer orretzaz. Ondorioz ez dakizu zer dan bizitza, eriotza, zer dan bizi-naia, oiñazea, maitasuna... Noren asmaketa da espiritua, zer da, nundik dator? Zer ardura, beraz, Jainkoaz, Kristo'gaz... Uko kondairari, kulturari, eskintza bikainai, opari gurenai? Baiña Jainkoak zer galtzen ete, zuk olan pentsatuagaitik? Zeu zara, ergel, galdu daroazuna.

Ez jarraitu, ba, Euskalerrriari fedea kentzen. Bear da fedea zoriontsu izateko. Patari antzo ikusi nai dozu gure erria, Jaingoiko barik, lurrari itsatsia, biotz-adimen intzirika, norabide ezean? Edota, leen eukanaz gogoraturik, siñismen bage —or Txina, Errusiazoritzar baltza iruntsi eziñik? Nik ez dot nai olakorik euskal erriarrentzat.

Zu be etzaite, otoi, zeure erria fedegabetzen alegindu; ez eizu orretan kemeik erre, ez prentsaz, ez irratiz, ez telebistaz, ez musikaz, ez antzerkiz, ez zinemaz, ez bertsoz, ez politikaz...

64 «EGUNA» SALATZEN

Bilbo'n ateraten dan «Eguna» astekari barria al da? Ez, ezta egia. Lenago 1937¹ko urtarrillaren lenengoan, Euzko Jaurlaritzaren deiez eta laguntzaz sortu ta sei illabetean zintzo-zintzo kale-ratu zan. Orain, aregaz etenik egiteke, diñogu, 1986'ko urriaren 6'an asita, eguenetan datorkigu zintzo-zintzo. A Bilbo'n argitaratzen zan, baita au be; a bizkaieraz, au batuan; a orlegia, au gorria,

Lenengoaz eten barik izenburuz, baiña eritxi ta jokabidez ordokuaz ezbaridiña. Ni guda-oñean nenbillela, gudari geienok irakurten genduan leiaz; nik lanak bialtzen nituan eta argitaratu egiten eustezan. Orduan Manu Ziarsolo, «Abeletxe», zan Eguna'ren zuzendari, gaur Amatiño'k dauka orren ardurea. Oraingoa aren jarraipena ba'da, zergaitik olako diferentziak? Gizonak ez izan bardidiñak. Katea eten ezpada be, bai jokabideak: gaur ez dauste niri lanik argitaratzen.

Maitasuna (sinpatia) eta izterbegia (antipatia) askotan, kutsadura legez konturatu ezean geuganatzen doguz. Nik ezagutzen do-

daz, neu konturatu barik maitemjndu jatazan pertsonak, eta beste-
ra, ezagutzen ditut ezeren errazoi barik asarratu jatazananak, izter-
begi biurtuz. Giza-biotzaren goraberak. Ain dozu aldakor!

Nik ez dot «Eguna»-z ezer izan; eguenero artzen dot, eder
jat; orainarteko aleak danak daukadz apain-apain azal ederraz jan-
tzita. Alderantziz ez dauste lanik eskatu, eta nik eskatu ezik, ez
dot iñora lanik bialtzen. Guzurra diñot, «Oleri-Eguna» iragarteko
txosten labur bat, eta leen olerti-zale genduan Amatrio'ri ain zu-
zen, bialdu neutson. Ez eustan ezer bere argitaratu, ta kito, ni ez
naz ibilli oi, nai ez dauanari kilikilika.

Orixe berori egin eusten «Deia»-koak be. Martin Ugalde eus-
kal atalaren artezkari zanean, ak eskatu ta nik bidali, nire lanak
an agertzen ziran, Baiña gero, prailleen kerizpeak begizkatu ta
itsu-azten dituzanak zeregin ortan arduratu ziranean, ez lanik es-
katu, ez bialdutakorik azaldu, ez onik ez txarrik, ezebez... Orixe
ziur asko Marx'en bidea. On egin daioela!

Sarri itandu izan dot nik jokabide doillor orren zergaitia. H-
zaleen lana dala, erantzun dauste geienak. Nik, barriz, diruari
egozten errua. Izerdiak bota oi dira goiak artzeko ta gero eutsi
egin bear diru'iturriari, gaur oso oparoa. Eta ostean, ainbat aldiz
gerria malgundu bear izanarren, alegiñak erretoko daukanari eus-
teko: diruak errez makur-azten dau gizona. Gora ta beera, aizeak
jo dauan kañabera iduri, txintxiñaren otsera dantzari dabiltzanak
konta-ezin beste dituzu. Dana dala, H-zale naiz diru-griñati, kalte
galanta dagitse gure euskerari. Iltekoa bada, gaitz orrek dau
eratsjko.

Zergaitik diñozu? Gizona gizonarentzat otso diñoan esakuna
ez dago mamin bage. Azken-gerra zoroa amaitu ondoren kartzele-
tan egon ziranak, gudariak, onein agintariak eta gudarien jaupariak
alderatu ezker, ogibide bat-berekoak izan ziran geienak. Or eus-
kal idazleak. Gora igonik dagozanak diño: «Begoz ixillik bee-
koak! ». Eta lan ikaragarria dagie beekoak ixil-erazten: ez argitara
emon orreïn idazlanik, ez aitatu bere, ustel beitez leza-barnean.
Orreik, izkuntza galdu, zer dagie besterik?

Bizkaian gaur be berreun milla batek euskeraz berba egiten dauala? Eta zer? Gal bedi bizkaiera ori! Oztopo jako batuari, zabaltzeko, gizentzeko... Zortzi edo geiago izkelgi dira, eta zein il-azoko? Bizkaiera, urruti be aurkitzen da-ta. Norbaitek esan dau, bizkaiera izango dogula galtzaille, eta Abendui'k *Arantzazu'n*: sendoena ilten (edo il daien) itxiko ete dogu?».

«Eguna»-ak eta «Deia»-k ez dabe oindiño guztiz gitxi baiño bizkaieraz argitaratu, A. Zubikarai'ren artikuluak izan ezik, eta ori onen ,sema tarteko dala. Eta nun geratzen dira, baztertuta ezik, Bizkaiko euskal idazle ta olerkariak? Bizkaitar idazle ezagaitik? Eta nun diran L. Akesolo, Martin Olazar, E. Erkiaga, A. Zubikarai, K. Etxenagusia, P. Pujana, Aita Onaindia, Aurre-Apr aiz, Paulin, jon Gotzon Etxebarria eta abar? Ainbeste euskal liburuen jabe ez ete dira? Idazteko gogoz daukazuz, baiña zapuztuak dira euren lanak: orixe bai dala erbestetik etorriak etxe koai uzkia emotea. Orix e bai dala lotsarik eza!

Nik liburu pilloa daukat, 87' rairio argitara emon ditudanak, baiña eurotarik ez dot bidali bat bere eritxi emoteko eskatuz. «Kirikiño» dendakoak, alan be, bidali dabez alakoren baten, eta oraintsu adibidez nik antolatutako «Olerki Guztiak» —Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta»— 524 orrialdeko liburua, aipatzeko beintzat eskatuz, Oraindik ez dabe artu dabenik be esan.

Nazkagarri jake, itxura danez, nire izena. Eta nik errugabe nazala uste. «Eguna»-n, dakizunez, euskal literatura saillean, eta sail berezian, lau edo bost euskal idazleren bizitz-zeetasunak eta lan-zerrendak agertzen dira zenbaki guztietan. Nik oster a, naiz-ta arto-bero usain pitiña emen ixuri, ikasketa sakonak egiñak daukadaz euskal literaturaz (5 tomu aundi) eta «Euskal Elertia» deitxon liburu dotorea argitaratuz.

. . Asteroko orretan ez da oindiño nire izenik aitatu. Oso zailla da, barriz, nire idaztiak begi aurrean euki bar k, orretaz zerbait osorik egitea. Or ez ete da egongo, *ni* azterketan ibilli ez nazanarren, «plagio» pizkarEk? Egia esateko, bizkor eta trebe da olango kondaira egillea, nundik nora mugidu dan adierazo barik ainbat zeaztasunez euskal idazle bakotxa jazteko.

Olan ezpada gogor zigortua da gaur «plagio» deritxona. Orain tsu emon dira lege barriak liburu egillearen eskubideei buruz, leengoak baiño zorrotzagoak ziurki. Zigor-araudia barriztuz iru lege bari agertzen dira bertan, besteren lanaz jabetzea dala-ta. Geiago edo gitxiago izan daiteke zigor au; 30.000 pezetatik 500.000'koa, bai ta giltzape laburrez zigortua be, egilleari egindako kaltea zelakoa dan. Espaiña'ko azken-legea atzerrietakoa baiño aurrerago joan da onetan.

Lur-sabel onetan laban eginda jausiak ez dira gitxi Inoiz nik etxa naiz izenen baten uts egin ba'dagit, atzetik datorkidana be, bere ikerketa lana buru tente bere-berea lez salduz, or jausi jatzu nik uts egindako zulo berean. Au lapurreta ez danik nork esango?

Astero ez baiña «Eguna»-k sarri dakazan ustezko omenaldiak be ez dakit zergaitik diran ain urriak, beti bardin samarrak. Ez al dago besterik, Bizkaia'n bertan be? Tateko bardiñak bizkor gaitu gogaitzen. Ia, mutillak, sail ori daroazuenok! , lanera bizkor, eta ez Gipuzkoa'ko artxibu ta liburutegietan bakarrik. Bizkaia'n be, leen eta orain, euskal idazle ugari ta bipillak daukaguz. Azter onein lanak, nor dan zerbait eta nor ez dan ezer. Eta saldu parraparra, ez nik barriatua bakarrik baita zeuen iker-frutua be. Nik adibidez 87 liburu daukadaz neuk idatzi ta argitalduak eta oraindik ez dozue, bat ezik, aitatu be egin olakorik.

Beste aldizkari ta erakunde batzuk be, ezagutzen dodaz oitua ori dabenak. Esanak esan giz semeok, —ez jak inean ete?— noizka orpo-sartzeak egin oi ditugu-ta, nik be olako zerbait egin dodala autortu bear: liburu onen irar-utsakaz nabillela, «Eguna»-k, 1988-ko maiatzaren 5-garrenean, eta «Deia»-k, maiatzaren 15'an ekarri dauskuez nire bititza ta euskal lanai eskiñita.

65 SARIKETAK

Sariketak ez diñot txarto dagozanik. Indarketak, nor-geiagokak edonoiz ezagutu izan dira munduan. Baita kultur-zelaian be, greziar eta erromatarren egunetatik asita. Eta euskalduna be beti izan da, ez kultur-zale, baiña kirol-zale bai, amorratua izan be.

Kultur-saillari gagokioz emen, bertsolari, olerkari ta idazleen urekaintz inguruan; sariak ipiñita eratu oi ditugun leiaketak: bat-bateko kopletan, nok olerki obeak aurkeztu, nok ipuin, izkirimiri, esakun obeak batu, nok liburu ederrena, teatru-lan, itzulpen dotoreena, ta abar.

Euskalerrian gaur, ego ta ipar, sariketa asko eratzen dira, euskerazkoak diñot, idazleak bizkor-azi, erria irakur-zaletu ta geure izkuntzari gora emoteko. Lanak, barriz, galanki sarituak dira. Alderdi ontatik ba-dabe laguntza euskal idazleak. Baiña emen untzea, untze gogorra gaur-egun, diru-moltzo ederra tarte dalako; urrezko giltza sos-kutxa areintzat edegiteko ta beste areintzat isteko.

Olakoetan oba begiak eta belarriak itxi. Begiak baiña ikusteko izan eta belarriak entzuteko. Ni neu ez nozu meko epai-maiko egiterakoan. Geienetan, laster agertzen jatzu epailleen artean bateren bat erasoka, naiz-ta beste guztiak aurka egon, berak ekin eta ekin «ene eritxi apalean, auxe da lanik onena» esaka. Besteak, ain lotsagalduko ez izatearren, ixillik. Olan, ao-bero kaskar orri esker, milloierdi naiz milloi bat daroa saritan. Beste lanak, geiago balio dabenak bear bada, baztertuak geratzen dira, «praille-sunda» dabela naiz eskaturiko «baldintzak» ez dabezala beteten esanaz.

Edu orretako mai-epailleak dira sariketetan «oiu» geien ateraten dabenak, esan dodan errazoa gaitik. Eta nik sarritan esana: «Orreik betikuok baiño besterik ez ete dago Euskalerrri osoan zeregin ori bete daikeenik?». Aurten oraindik, Bizkaiko Aldundiak antolatutako sariketa baten (milloitik gorako sariak banandu ziran) maiko izan zan batek, eskuak buruan, iñostan: «Azkenez, saritua izan zan urluari ez jakon saririk emon». Mutillak! , azken orduko azpi-lana. Eta sariketa eratzailleak uste dabe zuzentasunez banandua dala jarten daben dirua! Bai zera!

Jokabide oker onek zer ondorio ete dakar? Idazle askok, au jakiñik, atzera egiten. Batuan idatzi bear da gaiñera, H-z ondo zanpatuta. Bizkaiera baztertua. Zergaitik? Norbaitek esan eustan: orreik ez dakie Bizkai-aditzik, ez deklilibabiderik. Ainbat euskal idazle doguz Bizkaia'n; lengoak, Mogeldarrak, Prai Bartolo, Añi-

barro... eta oraingoak, Eguzkitza, Ibargutxi, Larrakoetxea anaiak, Otxolua, Lauaxeta, Erkiaga, Zubikarai, Akesolo... Nok ezagutzen ditu? Gitxi batzuk. Jakiñaren gaiñez txalotu daroe ezjakinkeri lotsagarri ori.

Onak gagoz euskera salbatzeko. Zuberoa ta Bizkaia urrunegi ei dagoz «batuaren» seaskatik. Ortik gero arrantza: «Egoki da eurok iltea». Il beitez, bada, biotako izkelgiak, guk ikasi ezin doguzanok! Eta bizkaieraz, gaur be, berreun millatik gora gara euskeraz dagigunok. Zentzuna galduta dabiltz ori otsegiten dabenak.

Euskaltzaindiak Bergara'ko batzarrean: «Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu ta landu behar direla uste dugu». Eusko Jaurlaritzak bardin diño, au da, zortzigarren EGB'rarte tokiko euskera irakasteko. Baiña aren eta onen esana ustel geratu da. Nor da onen arrudun? Itandu eskola ta ikastoletako andereño ta erakusleai ta oneik erantzungo: «Guk agindua dagigu». Batzuren batzuk au bere bai: «Ez daukagu libururik, batuan izan ezik». Eta nik diñot: «Atera al daike gaur, edo zabaldu ikaslekuetan, batuan ezik? Zer deritxazu? Au ez al da euskeraren eriotza? Emondako elburuak beteten ez diralako?

Gaurko truizu baltz biurri onetan nik be, Arendui idazle jatorrak diñoana bir-esan nai dot: «Euskaldun iraungo dot, euskaldun ilgo naz, euskal gizon nazalako amaren sabeletik, amaren bularretik, gurasoen belauetatik, sutondo gozotik, anaiarte berotik... Euskeraz bizi gareanok gozuz euskal barkua, aretx-egurrez egiñiko itxas-ontzi jatorra; enparaduak euskaltzale badira be, itxasoan aizebolara lez dira» (*A ranzazu*, 1981, 598 zenbakian, 16 orr.).

Jokabide orren eragiñez euskal idazleetatik naiko atzeratu egin ziran, bizkaitarrak batez be, euren lanik etzala aintzat artzen eta. Olan leengo idazle zintzo eta onenak ixillaren lezara jo eben, eta leengo izkera garbi, bizi ta egiazko euskera oso urrituz doa, oraingo euskera barri orrek ez bai dauka ez bizitasunik, ez jatortasunik, ez estiloz ez teknikaz, gerra-denporan palangistak erabillen izkera zakar gordiña damoskuelarjk. Gerra aurreko euskera gozo bizia, «euskera» jator berezia ez daukagu oraingo idatzietan.

Aren ordez —zoritxar aundia! — atxur-kolpe doillorrez geurea eztan giro barri deuseza iruntsi eragin nai dauskue. Literatura —diño Kamil Zela'k— ez da literaturaren aurkako liskar irau-

kor bat baiño. Arimearen izkera da lumea, baiña lengo aldi areik urrintxu geratzen jakuz. Alan eta guzti be, lenaz oretu bear genduke gaurkoa.

66 TXANGO GEURE BIZIKOAK

Aitatu ditudan txango ta joan-etorrietaz gaiñera, bioaz emen beste batzuk neure-neureak diranak. Gaur ez baiña len illean pare bat aldiz beiñik-bein egin oi nebazanak ez dira burutik errez erauztekoak. Ez orixe!

Adiskide on bat egin edo aurkitzca, ezta ogi-kuskurra jatea legez. Ezta gitx; idatzi gai onetaz. Bibliako «Sirak»-en onela: «Edozein adiskidek dau agertzen adiskidetasuna, ba-dagoz baiña izenez bakarrik adiskide diranak. Adiskide zintzoa burrukatuko jatzu zeure alde» (37, 4).

Ba ditut nik olakoak —adiskide zintzoak— komentuan eta komentutik at. Egia esan, ez naiatzu iñoiz ibilli lagun eta adiskide billa, ez bait dot ortarako astirik izan. Eta euki dodazanak, nik uste, biotz-laguntzaren premiñan egon diralako, izan da soil-soilki. Gizartean on egitea bai dala egintza bikaiña!

Nork ez ditu adiskide onak? Zabal barrena olakoari, ta zoaz noznai ta noranai ta zorionak irripar egingo. Egiazko adiskidea liburu bat dozu, irakurritz naiz mintzatuz zorionaren ortuan sartzen zaituna. Olakoren bat daukazunean, emon eskerrak Jainkoari, doe gain-gaiñeko baten jaube egin bait zaitu.

Nik badot, bere izena ixil-azo arren, olako bat, neure joera, griña ta eraspentak dituna, Olerkaria bera, euskal idazlea, kultura aundikoa, iru edo lau arlotan Irakasle dana, Amerika osoa goitik beera ta Europa sarri arakatua, zortzi bat izkuntzaren jaube dana. Butroi aldeko gizaseme jakintsu apal onekin, igande arratsaldetan, illean birritan beintzat, Bizkargi'rantza urtenik, alkar-izkera barru-barrukoetan murgildu oi gara biok.

Bera etorten jatan billa, «goazen mendiruntz» esanaz; nik ez neutsan egundo ezetz esaten, artu neure makilla —irugarren zango— ta Arazoza'tik gora Zabale, Ergoien, Arburu ta Bizkargira;

baita gitxiagotan, Etxano, Muniketa, Boroa ta Lomoatx'era bo. Zer-esanik ez jakun palta, eta gure autua geienez poesiari buruzkoa izaten zan. Muiño-ertz bat, lora bat, txori-kanta bat, edozein zugatz txiki naikoa zan... Euskal itz arraru bat, aditz-joko bat, esakun bat... Gurasoen urratsak, arein espirituua genkusan edozein bidekurutze ta arri-gaiñetan.

Arrasti baten, Bizkargirako bidean giñoiazala, len eguraldi bikaiña zan arren, laiño baltzez illundu jakun Zabale'rako bidean. Iru etxe dagoz euzunean, guk arantza jo genduan euri-tanta lodie-
atik igeska; etxeetara baiño leen, burdi-bide sasiz josia ta oin-bide sarri ibilliaz topo egiñik, ortik zear jarraitu genduan. Gure arbasoen arnasa bizia somatzen *genduan* bertan; orren giro berotan aurrera egiñaz, bide orreik joiazan iturri ondora eldurik, luzea ta beroa gure alkar-izketa. Abetxo, gurbiz, ota ta sasiz edertutako iturri panpoxa antxiñakoen gogoz dardarka egoan, bai orixe! , gureztat.

Eusko baserri, bide, sorburu ta bazter magiku; eurotan b'zita-
tako guraso ta seme-alabak, illak eta biziak gogora ekarriz, arein onak eta akatsak goretsiz, euskaldun gizakume ta emakume sotillak, neska-mutil zangarrak, iturri ondoko berbaldi maitekor *lu-
zeak*, sorgiñak eta lamiñak... Eurja zanarren, ez giñan oartzen.

Beste bein Ategorri ta Epaltza'tik gora, Etxano eskuetan itxi, Torreburu'ra jo ta gaiñez gain Muniketa'ra gintzazan. Oindiño be gure lurrean aurkitzen dira euskaldun famili zintzo jatorrak; Muniketan bat, an tontor-tontorrean, bitxabalari dautsola; guk ez genduan ezagutzen, baiña etxeakoak ba'giña lez artu ginduezan, aiti-
ta-amama zarrak, guraso gazteak eta seme-alabak osotzen daben sendi onek. Ez dira gaiñera itz utsez bizi, ba dakie bidez dabilleanari zerbait emoten be, guri adibidez askari ederra: gerora, urtean bein beintzat, egin izan dautsagu ikertaldi atsegiña, nik euskal liburu mordoia eroanik, euskaltzale ta irakurle fiñak ditugu-ta.

Era berean, itxas-erri ta mendjatera, Gipuzkoa, Nafarroa ta mugaz andiko euskaldun lurraldetara txangoak egiñak gara. Edo-ta Balmasedn'tik zear, Oña. Pankorbo ta San Millan'era, ango artxibu ta liburutegian gure aspal-aspaldiko itz zarrak mirestera; edo-ta Gorbeia, gaur Areatza'tik gora Upo ikutuz, Pagomakurra, Lekanda, Arraba, Igiriña'o'tik tontorrera, biar Zeanuri'ik Lanbreabe ta Mendizabal'en urmaeletik gora Agiñalde ta karmeldarron Ater-

pera, eta andik Aldamin bizkarra zapalduz Gurutzera, ikuspegi zoragarriak begiz jo ta gozatuz.

Besteak beste Enkartaldeak ez dozuz gitxi estekoak. Goiz batean iru adiskide, jakin-egarriz, ba goaz zori billa bezela, Artia'tik oraintsu amaitua dan bide nasai ederretik zear Orozko'rantza; an gelditu ta emen asi, Audio ta Amurrio atzean lagarik, Errespalditza zear ibilli ta ibilli Artzeniega'ra; emen Arte'ko eleiza ta in' guru apaiñak miretsi, goragoko sakon-unean gosalduta Balmatse-da'ra; uri zaar au arakatu ta Otxaran, Artzentales, Villaverde, ta abar atzera itxiaz, Karrantza'ra; emen ezkerretik Sangrizez azpian Bizkaiko ozkenengo erria, Lanestosa, daukagu; bertan itzul-inguru bi emonaz, Ramales, Gibaxa, Linpias, Kolindres, Santoña'ra; Dueso'ri begirakun samurra egiñik azken urteotan eregitako Nueva Berri erritxoan gagoz. Bertan daukagu itxasoa aurrez aurre ta Dueso espetxea eskumara, 1937'an ainbat euskaldun tiroz eldakoen azur-ondakiñez beteriko obitegia alboan dauala. Ementxe dagigu bazkari-izkia, ainbat jazokun gogora ekarriz eta miñean irauliz.

Azkenik, «Illunabarra» abestu ta eguzkia, egitan, itxaspera murgil naiean ikusiz, etxeruntz gu irurok, Montehano, Treto, Laredo, Guriezo, Kastro, Muzkiz, Trapagaran, Bilbo, Zornotza...

Egun oso biribilla, ez gero aizea artuz lurraldeak ikuskatzeko bakar-bakarrik, baita, jainkoari lotsa dautson edonok egin bear dauanez, arimeari dagokiona ordainduz be. Esker ona beti eder, eta guk jainkoari esker gartsuak emon geuntsazan euskaldunok toki ain ederrez inguratu ginduzalako. Eskerrik asko baita erabilli ginduzan kotxedun begikoari erabat.

67 SARITUA

Artu-emon ugari euki oi doguz telefonoaz; adibidez, barri onak eta txarrak dakarskuz aurrerapen bikaiña dan ari-tresna onek. Pozgarrizkoa emon eustan niri aurtengo jorraillaren 15'an. Askok bai, baiña nik ez dot iñoiz aiñenik bota illaren amairugarreneren kontra; niri ainbeste on ekarri eustan zenbaki onek.

Amarrak jota laster, goizean, or Bilbotik telefono otsa; abots erdi-ezagunak iñostan: «Zorionak, Aita Onaind'a! Atzoko batza-

rrean, zu egin zinduguzan sari baten jaube, aurtengo «Ander Mañarikua» saria zuretzat izan da». Nik emengo aldetik: «Zer dalata?» Barriro ango abotsak: «Zuk lan aundia egin dozu euskeraren alde: orixegatik».

Ez diñot guzurrik, poz-zirrara ezta somatu neban neure kautan. Olakoetan edozeiñek somatu oi dauan lakoxea nunbait. Altzadar batek, zozo kantaria gain jarten jakonean, *e*z ete pozaren ikara sentitzen? Eta nik, txirri-mirri lez bota ezta be, aspaldian askok adierazoa da idazle onek merezi ebala onako zerbait. Ez gaitzezan alan be iñoiz sumindu, ustekabez etorri oi jako-ta, eiztariari erbia lez, idazleari saria.

Niri beintat uste barik urreratu jat dalako saria. Eta diru-primiñan Omenaldi edo aipamen bat naiko izaten da sarri giza-biotia alai jarteko. Ezean ha zagoz eta diru-mordoz saritzen ba zaituo, askoz obeto. Guztiz ondo datorkit niri sari au. Liburu au —Izterbegiak— ha doa aurrera, eta berau ordaintzerakoan, diru mordoa bearko, milloitik gorako aurre-kontua daukat, Sospillo ori, beraz, ordu erdiko euri-zaparrada baserri-solora lez etorriko jat.

Sari au dala bide, eguneroko, asteroko ta izparringiak oiuka asi dira, leenago ezer iragarten ez ebenak be. Ni barriz lengoa nozu, ikasle nintzanetik euskal arloan lan egin dodana, larogeta sei-zazpi liburu argitaraturik daukadazana, Ez doa txantxetan, ez naz parolargika dabillenerikoa; egi-zale utsa ta Santa Teresak egoki diñosku bere idatzietan apaltasuna egitan ibiltea dela, ez zokoz zoko ez dagoan lekuan argiaren keñuak erakutsi gurata.

Eskuratu dodan sari orren laguntza bikainkiro datorkidala esan dot, Eta egia besterik ez diñotzut. Txintxiñaz, baiña, kontuz, gaur diru-lapurreta asko egiten, ez banketxeetan bakarrik, baita kale ta bide-egaletan be; eztira lez, ezer jausiko ete, eltxoak, mande luak eta kulemiñoak eltzen jataz moltzoka. Kontuz, ba! Bear-izanez nengoanean, etzan olakorik urreratzen, etzan zurrun-zurrunik!

Labur: ordu onean betorkit saria, eta begoz urrintxu erlabio burrundalariak. Nik euskal arloan dot jarraituko, betiko euskal auzian ziur. Sari emotea maiatzaren 31'an egin zan, Bizkaiko Aldundi-aretoan; jentez polito, itzaldiak Diputatu Nagusiarena eta Kultur-sail buru dan Tomas Uribe-Etxebarria'renak batez be, eus-

kera garbi ta ederrena, gozo ta adeitsu. Neure bizitza ta liburuak goratuz nik urteetan zear euskeraren lana azpimarratu eben: orixegaitik emoren jatan «Andres Mañarikua» saria.

Dirua ta plxka eder bat, esana danez, emon eustazan Aldundiak. Gero beste esku-erakutsj ta ariguri batzuk izan nituan, biotz zintzoak eskiñiak, euren artean Amoroto neure erriko alkateak eta ziñegotziak euren eskuz ekarria batez be. Atsegingarri da, izan be, erritarrak bertako serneakaz gogoratzen dirala jakitea. Nire eskerrik beroenak!

68 SENIDARTEKOAKAZ

Onaindia. Beronen itz-erroa ez da errez aurkitzekoa; etimolojistik beronekin topo egitean, berau aztertu baiño gurago dabe gaiñetik zapart egiñaz aurrera jokatu. Eritxietatik ziurrena izan daiteke auxe: *On* (muiño, bizkar) eta *andi*, *aundi*. Au da: lir-zati baten pizkat jagir;k agiri dan muna naiz menditxoa.

Ziarrotza'n daukagu deitura onen jatorra. Gure izen-ondoko ta familiko erroak, geien-geienak beintzat, sendi-enborretik dakarre asiera, urteen eragiñez munduan zear be naikoa zabalduak izan arren. «Onaindia» Oiz iparraldetik dator, Ziarrotza ondotik, an bait dago «Onaindia» izeneko baserria. Santa Eufemi azpiko Mibe (Meabe) auzotegian be, nire aita jaio zan etxeak «Onaindi» izena daroa, baiña zarrago dozu Ziarrotza'koa.

MarkIñaldean gaur, eta andik zabalduta Durango, Gernika, Bilbo ta abar, polito edatua dozu, beste abizen asko lez esan bearko.

Edozelan be, nik eta Onaindia izen-ondoko askok ez dogu nai geure odol-jarri argia galtzerik. Berau indardu ta maite-lokarriz urteetan zear estuago egiteko, aspaldi danetjk, egun aparteko bat ospatzen dogu asmo orregaz. Egun bat aukeratzen da urte barruan, bagillean geienez, igaz an eta aurten emen, abizen bardiñeko ez-kondu gazte pilloak alkarren artean egun *eder* bat ospatuz.

Talde azia gara aukeratu dan errian. Itziar, Zarautz, Markiña, Elorrio, Larrea, Goiuria ta besteak izan dira azken jaiak egin ditugun erriak. Lenengo mezea, arimeari berea emonik, gero bazkari oparia, gorputzari be berea **Labur: egun atsegiña seni'** deen artean emona.

BIGARREN

GUDARIEN KAPELLLLLAU

*.langoikoa, orai dizit egiteko handia;
Hiri bonetan eriotzaz hiltzen duzu jendia;
Gathibutan hil enadin gizon ogengabia,
Osorik, othoi, ialgiteko Zuk idaziu bidia,
Izterbegiak eztakidan gibeletik
«Ogendurn zuyan eta han galdu dik bizia».*

Bernat Etxepare (1545)

1 ZURRU-MURRUAK

jazokun zozo bat gain ciatorkigunean, esarn:sa, txitxuputxu ta ixil-esan ugari izaten da bazterretan; rrumol ondoren euria lez bear bada.

Eibar-en nengoan ni. Karmengo bederatzi-urrena otsegiten, 1936-an. Ba-zan an zer esana gure eliztarren artean be, laster sortzeko zan gudari buruz: egun batet'k bestera jagiko ziran militarrek Madrid-eko gobernuaren kontra. Eta, lenengo su-txistar bezala, garagarriaren 13-an, goizeko iruretan, Calvo Sotelo jausi zan tiroz ilda. Onek, illabete bat leenago Korteetan, arpegira bota eutsen Casares Quiroga lendakariari ler-zori egoala odolezko naspil gordiña; bakea ta ordenea zaintzeko ez bait zan gauza, euren esku artuko ebela gobernuaren edea. Eta Indalezio Prietok, ilketa urrengo egunean. Bilboko «El Liberal» egunkarian onela iñoan: - «Calvo Sotelo jaunaren eriotza izugarria, atxaki izango da, kalean bala-bala clabillen zalantzari su emoteko».

Mixto bat naiko dozu sasitza legorra sutan ipinteko. Leendik Espaiña. lasto idor, argai zain egoan, ota argaia urreratu jakonean, zelako sugarrak! Gobernua bera konturatu zaneke, sekulako sutzarrak ziran an eta or-emen. Melilla-k asten dau. garagarriaren 17-an, bere buru-zutitzea, gero «jasoaldi aintzatsu» esango jakon matxiñada luze mergatza. Erriak autarkiz aukeratutako Gobernu legezkoa ankaz-gora jaurti bear zan, orduko «Frente Popular» eritxona txepel utsa zan-eta.

An doaz artega iru gerra-ontzi suntsitzaille Cartagena-tik Melilli-ra. An dabil Franco, matxin-zaleen buruzagia, ari lagundu bear jako jaso-deiari erantzunik, aren alde burrukatu bear da, erea ta

balca Espaiñan jarteko. Gerra otsegiten Las Palmetan, gerra Sevilla, Cordoba ta Malagan, naiz ta emen gero atzera jo. Mirallaz anaiak, kideko askok lagundurik, Somosierra gainak artzen dabez. Gobernuak, Marruecos aldeko militar guztiak aginpide barik itxi arren, Francok irratiz dei dagitsc espaiñar guzt'ai.

Urrengo egunean gudaiburu au, garagarrillaren I9-an, Tetuanera joanik, Afrika-ko gudaroste osoaren jaun eta jabe egiten jatzu; andik eta emendik ainbat laguntza bialtzen dau peninsulara. Garraile dira matxinoak Huesca, Mallorca, Extremadura-n; Molak guda-legepean jarten dau Madrid-erantz b'alduz napartar gazte talde bat. Cataluña, Madrid, Valencia, Galizia, Bizkaia, Gipuzkoa, Oviedo ta abar, legezko Gobernuaren esanera dagoz.

Or Espaiña ta inguruak zati bitan, alkarren arteko indarrak neurtzen.

Afrika-tik Madrid-era eldu dira guzur mezuak, kezkek nainun erein nairik. Romerales, ango komantante orokorra espetxean sartu dabe; batzuk Madrid-era bidean jarri dira, barre egiten dabe beste batzuk iges doazanen lepotik. Tetuan eta inguruetako gudari taldeak azkenez alkartu ta peninsulara datoz urez eta egazkiñez. Naste guzti aren gidari Franco genduan, urduri ta errime. Tetuango militar andana bat, Casares Quiroga-ren esanera dago, naiz-ta laguntza-eske, asaldatuai arpegi egiten dautse legezko gobernuaren aldean jarraituz. Legiokoak eta Erregular taldekoak Ordezkari etxe nagusiaren aurka datozala alkarri eskuak emonaz bakeak dagiez.

Franco-k eta bereak, gobernu naiko meko ta iskillu bage ikusirik, su ta ke aurrera joiazan euren xede doillorreen; ez egozan atzera egiteko. Afrika-n eta espeñar lurraldean, aize-baltz, turubio ikarakor antzera, asieratik nai eben dana erne ta austu, euren asmoz bat ez etozanak aurretik kendu, garbitu ta kito.

Bildurra ta kezka barraiazozan, beraz, Espaiña guztian. Bai Marruecos-en eta bai Espaiña barruan bazan naste-zaleen indarraren eragiña. Or Badajoz lekuko. Eta gobernuak erria kezkatu ez zedin: «Illa izan da matxinada, bedar txarrak lez erauzia, erne-ala suntsitua; porrot egin dabe alegin anker guztiak. Ez izan bildu-

rik! Lur ta ur, airekoak bardin, geureak dira indarrak oro». Baiña etzan olan.

Lenengo naspil-aldian, beti jazo oi danez, esanak esan eta gurrak guzur, areik eta oneik ziran garaille. Auxe, baiña, ukatu eziña: zatiturik geratu zan Espaiña legezko gobernua eta onen aurkakoen artean zati bi egiñik. Batzuk eta besteak ez eben urte bitan burua makurtuko; eta bai odola ugari jarioko, 1936-ko garagarrillaren 18-tik 1939-ko apirillaren 1-rarte. Madrid izan zan azkenik jausi zana. Urte bi, lau illabete ta 21 egun erriak aukeraturiko gobernuar eutsi ondoren. Julian Besteiro sozialistea izanik Madrid Franco-ren eskuetan itxi ta gero abade-prailleokaz giltzapetua Carmona-n bizi ta il zana.

2 BURRUKA ETA LAGUNTZAK

Asierako naste egunetan ez da jakiten, ziur beintzat, nor daukazin alde eta nor aurka. Ezta Francok berak be, agiri danez. Au Tetuan itxi ta Tenerife-ko Santa Krutzetik azaldu eban, 18-an, aberri jaikitzearen zergaitia. Orduantxe urtu ziran osoan aurreko egunetako zurrumurrak, Espaiña oraingoan zati bitan banantzen zala, Gobernuaren aldekoak eta asaldarien taldekoak: 21 probintzi ziran Gobernuaren jarraille leial eta 29 onen aurkakoak. Alderdi bakoetak eukazan bere guda-gizonak eta askotako guda-tresnak Martegaiak aurrez aurre soildu al izateko. Uribururu nagusiak —Madrid, Barzelona. Valenzia, Bilbao ta abar eta industri-urriak batez be— Gobernuaz egozan eta nekazari-lurraldeak —Andaluzi, Gaztela Zaarra, Naparroa ta abar— matxin-zaleakaz.

Sanjurjo jenerala, naste orren buru izateko zana, egazkin-ixtripu baten il zan. Eta Burgos-ko Zaingo nazionalak, Jose Maria Cabanillas-ek, Franco ipiñi eban Marruecos eta Espaiña egoaldeko guda-egintsen buru. Queipo de Llano-k Sevillatik zuzentzen ebezan Andaluziko burrukak, ango irratiz guzurra ta azpikeria eurrez ereiñik. Ipar aldean Molak eukazan Naparroa, Aragoi ta inguruetako saillak, Somosierra ta Guadarrama-ra be gerrari batzuk bialduaz. Yague jenerala ebillen lenengo Afrikan eta gero Badajoz aldean. Varelak askatu eban Toledo, Martin Alonso barriz Oviedo gogotsu zaintzen oban Aranda-gaz bat egitera eldu jakun. Gudalburu bako-

txak bere aldetik jokatu arren, urrillaren lenengorako aginpide osoaz jabetu zan Franco

Legezko gobernuak bere aleetik adoretu eutsi nai izan eutsen berea zan lur-arloari. Agintariak aldatu ziran, Casares Quirogaren ordez Jose Giral-ek kargua arturik garagarillaren 19-an, Azaña lendakari zala. Francotarrak, alan be, aurrera egien, uiol indartsu iduri. Arrotz gobernu batzuk, au ikusiz, Italiak eta Alemaniak adibidez, ontzat emon eben Franco-ren agintaritzan, lagun urgaiztea be —gizonak eta guda-tresnak— eskiñiz. Or italliar araupeko guda-gizonak eta doixtar Condor Saldoan, gure artean ainbat zer-ikusit izan ebenak —areik itxasaldeko erasoetan lez Laredo itunbenean eta oneik Gernika-ko bonbaketa izugarrian. Zaragoza-ko italiar soldadu illen mausoleak eta gure Gernikak, itz-egingo ba lebe!

Urte orretako azaroaren lenengotik eraso gordiñak jasan eban zan Madrid-ek. Onek egia esateko, naizta etsi-tsian, kementsu jokatzen eban gudaren amairaiño. Largo Caballero, baiña, Madrid zaintzeko Miajara Batzorde berezi bat itxirik, Valencia-ra iges bear izan eban. Zakarra zan bitartean Francotarren erasoak: Bilbao, Teruel, Santander, Gijon, Darman, Guadalajara, Zaragoza, Valencia...

Largo Caballero gobernu-burua, azaroaren 2-an, estu ta larri, itxitutik igeska, Valencia-tik Barzelona-ra joan zan egoitza ziurrago baten bila. 1939-ko urtarrillaren erdirantza nazionalen mende jausi ziran Tarragona ta Barzelona, otsaillaren 9-rako Frantzi mugaraiño elduaz. Frantziak eta Inghaterrak illa aretan, eta Ipar-Amerikan apirillean, Franco-ren gobernuak ezagutu ta onartu eben. Francok azken baten Madrid artzen dau, apirillaren 1-an, esan dogu, Burgos-ko irratitik «Guda amaitu da» iragarritz.

3 EUZKADI ZAPALDUA

Eun urtetik gora daroaz gure erriak ondo zapalduta. Alegiñak alegin erre ditu buztarri doillor ori gaiñetik astindu nairik, iñoren ostikope ez bait dau bizi gura, bere lege ta eskubideen azantz barruan leial ta zindo jokatzeko, Ez dau jadetsi oraindik, gizaldiak

zear euki eban berezko buru-jabetasunik, guzurrez eta indarrez lapurtu eutsoena bereganatzerik; ez, ez dau oindiño «pizkat» baiño eskuratu. Karlatar burrukak ixiltzean lez, oraingo onetan armen dunbotsak oiartzun bagarik geratzean be, erruki-izpirik bage zigortua izan zan Euzkadi. Eta gaur-egun oindiño guztiz osatzeko daukaz orduko zauriak, gerraz gaiñ gorbizak izanik alkar-ilte arek itxitako ondorio baltz ik. Ba-dira zauri batzuk izten ez diranak.

Oso dira jakingarri guretzat gerra aurreko urteak. Orduko giroa J. A. Agirre-k «Askatasun eta Iraultzaren artean» deritxon idazlan zeatz, bizi ta oro-ikasiz aztertu ta adierazten dauku. Monarki ostein Errepublika zala-ta, lan txalogarria osotu eben eusko agintariak, Aldundiak eta Udaletxeak: ainbat oinkada balioitsu emon ebezan Madrⁱden eta berton; Madrid-en zerbait lortu al izateko, ots, Estatutoa, eta berton(euskaldun guztiak, mugaz emendikoak beiñik-bein —napar, arabar, gipuzkoar eta bizkaitar— alkar batu ta euskal erri bat, bateratua, bakean eder lez lanean zintzo, famili aundi lez, munduaren aurrean agertu gendizan. Or sasoi aretako alkate ta ziñegotziak Gernika, Lizarra, Zumarraga ta beste leku batzuetan indar eta aalak egiten, abaguneari egokioenez, geurea zanari zerbait ateratearren.

Alegiñok, baiña, etziran ondo artuak izan, Madrid kezka ta bildur-gibel agertu izan da beti euskal erriari begira. Espaiñak, izan be, naiz-ta maltzurkeriz ta iruzakuz beragandua izan, bere burdⁱan daroan zatirik eder, aberats eta oberena, eta ba-dau arrazoirik beroni atz-artetik labanka, iskiera antzo, iges egiten itxi nai ez izatea. Eta iñorenari euste ori aspaldiz orren gutartsu zaindu ta jagon ezta be... espaiñar probintzi danak bardin iragarri ebenetik, Madrid'eko gobernuak alak eta lerrenak egin dabez —eta dagiez— Euzkadi euren dala otsegiten eta zaintzen.

Bildur dira dudarik bage; guk uste baiño latz gogorragoak dira, gaiñera, emen jarten dabezan gobernariak eta poliziak eta oneik darabilezan bideak euskaldunak menpe eukiteko. Ori olan dalarik be, euskal erriaren etsai ta otsein, zerbitzari ta menekoak ez doguz andik datozanak bakarrik, berton jaiok be, arein esanera bizkar-azurra zume iduri biurtzen dabenak, ez dituzu gitxi ta ez dituzu obeak. Lotsea, baiña, ta odolak odolari dagion deiari erantzutea, beti eder.

Euskaldunak bere lur-gaiñean, bere gauzak eta onak jagoteko ipiñi dautsezan agintariak dirala-ta, makiña bat aldiz jasan bear izan dauz oiñaze, espetxe ta samiñaldi ikaragarriak. Edozein izan da gure artean, goitik aginduz jantzia izan baldin bada, edozer egiteko eskubidea ta indarra eukala uste ebana. Iñoiz egin dabez, menpekoak abere bai-litzaz, zakarkeri aundi ta motzenak be, gauzea gero ixildu naiz ogiña naitara biurrituz, jokabide zuritzaille azkar agertuaz.

Euskalduna, oraetiño, ez da errez lilluratu leitekena; ba-dak■ noiz trankart egin eta ziria sartzen dautsoen; ba-daki zein dan barru zindoa ta zein barru mokola. Gazteok, beraz! , ez uste izan zeuek bakarrik zariela asko sufridu ta gorriak ikusitakoak! Ez, zuen aurretikoak, guda aurretik, guela bitartean eta ostean, amakatxo giltzape, zauri ta soin-oiñaze, tortura ta eriotza ikusiak eta eroanak dituzu, beiñola gazteak eta orain zaartuak.

Agirre onela: «Errien eziketa zelakoa, alakoa izango da euren buru-ukapen espiritua be. Gure erriak, gogai ta asmo garbi jagietan azia, ondo daki, eragozpen, oker eta lorrak, ez dabela ezer balio; amaitzen diranean, bada —eta au jazo oi da goiz edo zerandu— morroitzarik onartzen ez dauan espiritua leen baiño dararatiago ez bada garaille urtetan».

Eta adibidaz orduan Larrinaga-ko espetxean preso egozanak abestutako «Espetxe Abestia» dakarsku gogora. Onela zan ereser' kiaren letra: «Espetxe illun barrauan, alai abesten abertzaleak dira; giltzapean be pozik dagoz, pozik, Aberria onelan askatuz».

Gurea lango erri batek, etsaiak eta izterbeg' ak gu iruntsi naia-go ta eten barik gorago doanak, barruan sakaz daroan arnasa sakon biziari erantzuten dautso eta egun obeen itxaropenen lurra antolatu.

4 MATXINOEN LANA NAPARROAN

Arin su-artu daroa erriak. Zergaitik orren aldakor? Fede-gogaiak ondo erroturik ba dagoz gure izate barrenean, ez da errez gertatuko olako aldaketarik; baña are gaiñean lez aurkitzen ba cli-

ra, gaztain zaarraren ostu igar iduri, laster dagiketzu porrot sendo barrendua uste zenduan erri-jenteak. Guda asi aurretxoan, napar lur zear Estatutoaren alde lau aizetara egin zan zabalkunde aldian, ez ango abertzale taldeak bakarrik, baita erritar jente ugari-ugari be euska'dun zintzo lez nabarmendu jakun. Beti izan dira erriaren lepotik, gauza garrantzi geienetakoetan be, ixeka ta barre poPto egin dabenak; orduan ere, erriak ez baiña jauntxo mordoxkak —or Rodezno— zabalkunde aren aurka jokatu eban, napar erriak onartua izan zala esan gengikean Lizarra-ko Estatutoari porrot eragiteraiño jokatu be. Zer gero? Erria erdi-lo ta jauntxoak zuur. Illunaren semeak...

Legezko gubernuaren alde egozan Bizkaia ta Gipuzkoa. Arabak eta Naparroak bardintsu egingo eben, ziur asko; baiña itxarrik etsaiak, eta errez menderatu ebezan zemaiz ta eriotzaz leen-unean zalantzaz aurkitu ziran gobernadore ta guda buruak; oneik, jakinñā, ez eben nai odol-jariorik. Gauzak eta jazoerak aurrez ez ikustearen ondorena izan zan antza euskal erria osotzen daben probintzi bion jokabide oker artua. Bizpairu iruzurti, matxino ta erri-nasleri errezegei kasu egin eutsen erriak.

Argi diño Agirrek; «Naparroan bertan be, aurrez ikuste pizka_t izan ba'litz, tarteko, ez eban or nunbait eztanda egingo mugialdi iraultzaijleak». Esan au indartu nairik, jazotako au dakarsku gogera. Iraultza asi baiño lau egun leenago, etziran geiago izango, Iratxe,ko Lekaidetxe zarrean, Lizarra ondoan, ixil-gordeko batzar bat ospatu zan; ona deituta egozan eta esku artzen eben Mola jeneralak. Gazteiz, Iruña, Donostita, Logroño'ko gudagizon taldeetako koronelak, Naparroa'ko ta Logroño'ko beste gudalburu ta ofizial-lagun palanjista ezagun batzuk tarteko zirala».

«Garai aretan —darrai— Agirre'tar Portunato zan Lizarra'ko alkate, jeltzalea, ikusi zabal artezeko ta nai erabagitsuko gizona. Batzar onen albistea izan ebanetik, ixillekoa zala-ta, bere mendeko indarrak, bai Udaletxeak eta bai ertzaiñak, eta, Naparroako gobernadoreaz artu-emonean jarriz, ixil-batzarrean egozanak baituteko baimena eskatu eutson, premiñazkoa zala-ta arin erantzun egiola arren bai arren esanez».

Gobernadoreak itxaroteko erantzun eutsen berak Madrid-era dei egin eta ango erantzuna euki arte. Au **Agirre-ri** erantzun eutsoen geldi egoteko, Molak egun areitan Errepublikako Gobernuari emondako segurantzak zirala bide. Molak leialtasuna zin-egin eutsen Madrid-ekoai. Mola, baiña, andik bi-iru egunera Gobernuaren aurka jagi zan Iruña-n. Eta Lizarra-ko alkatea, Agirre'tar Portunato, fusilatu egin eben.

Guzur eta eriotza, barriro diñot, joan-etorri askoren ondoren, Naparroa gertuz joian gudarako. Karlistak ez datoz bat lenengotan. Baiña bein eta barriz esana. Espaiña salbatu bear zan, arrisku aundi-aundian bait egoan, gorriak, erria ta erlejiñoa benetan suntsitu nai dabez, bazterretan konta-ezin beste gaiztakeri egiten diarduelarik. Urduri dabil Mola, milla mezu bialduz ara ta ona. Ekiñaren gudarako jarri ditu erreketekak be. Au diñotse: «Kontuz ibilli Emilio! Ez ete zara bakarrik geldituko?» Lanari ekin dautso gau ta egun. Napar lurralde osoan oiukatu da gerrarako deia, irrintzi ozena! Alderdi batekoak naiz bestekoak danak daukazuz gertu fusil bat, naiz eizako eskopera... zerbait eskuetan artu ta kalera, mendira, bide-kurutzera urtenik, aurrean jarten jakena lurreratzeke.

Maltzurra da Mola. Legezko gobernuagaz dagozanak, Mola maxin-lanean ikusiaz, Tafalla-ra aldatu nai dabez euren indarrak, probintziko kapitan jeneralaren egoitza antxe jarri ta Ebro aldeko erkalar eta kidekoakaz baturik gairi etorkioela konturatzen ziran kolpeari gogor egiteko asmoz. Ori nai dau Medel, guardiazibillen buruak. Molak onela:

•—Espaiña salbatu gura dot; prest zagoz niri laguntzeko?

Nik ezingo dautzut lagundu —Medel-ek ari.

Neugaz daukat emengo gudarostea ta napar jentea.

nik neure guardi-zibillak.

—Olan uste dozu?

Bai, jauna.

—Latz dakiket neure gudarostea guardi-zibillakaz aurrez aurre jartea!

Nire .gizonak Gobernuaren alde jokatuko dabe.

—Zuretzat orduan oz dau ezer esan nai Espaiñak? Ez dautzu ardurarik egun gitxi barru komunismua bertan jarrita be?

Egoki dana beteko neuke.

—Eta zer da guri dagiokiguna?

Daukaguzan agintarien alde jokatzea.

—Naiko! orrela bada, neuk ikusi!

—Zemai bat, ene jenerala?

Ez; jakiñean jar bakarrik. Ba-dakusazu zein nare mintzo nakizun.

Ez nozula, uste dot, *ona* ekarri iruzaku batera.

Zuk ez nozu ezagutzen. Zoaz bakean. Zuk ez nozu ezagutzen, diñotzut barriro be!

—Zeure esanetara!

Urrengo egunean, goizetik, zortziretan ¡l eben Medel, kuartleko atean bertan. Molak Beorlegi-ri Guardi-zibillen buru egin zedilla, agindu eutson. Eta beingoan egin zan. Geiago luzatu barik, ari ta oni dei egiñez, au kendu ta bestea jarri, gerra egoera iragarri eban Iruña-ko «Diario de Navarra»-k. Berdin iñoan «Napar Irratiak» be goizeko atnarretan. Naste ikaragarrija bazterretan, au aren alde, bestea bestoarekin. Egunkari berberak iñoanez, Burgos, Logroño, Gasteiz, Zaragoza, Donosti, Ueska ta Jaka-n bardin egiña zan, gerra zantzua iragarri.

Berealakoan asi erasoak, ezpatak odol-gorrituz. Aurka agertzen zana, jo ta eratxi. Edo giltzaperasusmoti zana. San Kristobal ton-torra laster bete zan atxillotuakaz eta .napaz gudal-etxeetan batutakoakaz ornidurik. Uriburuko espetxe ta presondegiak ezin eben geiago artu. Erritar jentea zigortu, bildurtu! Azken g;zaldietan au, matxiñada guztietan egiña dozu, Errusi, Europa, Espaiña... Olan, badakizu, errezago menderatu oi da erria.

Anai arteko gerra onetan oso-o. orik jokatuz, «Gudu Santua» ei zan; orixe ga;tik edozer jatzun Oar zenbat euskeldun

zintzo —elizgizon, jakitun, emakumo ta gazte--- jausi zan or-emen, bapere zentzun bage, Naparroan bertan, Gipuzkoa-n, Bizkaia-n, Araba-n... «Gudu Santua» *ei* zan! Guduak alan be malkoak ezezik odola ekarten.

5 ARABA MOTEL

Ego aldeko lau euskal probintzietatik Naparroa izan zan zigortuena, Franco-ri gogotsuen lagundu eutsuna berau izan arren. Bizkaia ta Gipuzkoa zelanbait legezko gobernuari itsatsiago dakusguz. Araba ostera erdi-illik bizi zalako politikan atan be, or geratu zan norantz jo ez ekiala, ezpata biren artean atxillo lez, Eusko Araudiaren alde, pozik zirudianez, jokatu eban arren, barruan eukazan arerio zital samarrak: or Luis Oroil Uriguen, tradizionalisten alderdikoan buru zana, eta Naparroa lez Araba be Estatu-totik kanpo geratu zedin alegiñak egin ebazana. Araban guztialduntzat joten eban bere burua.

Gasteiz-en Oriol-ek girotu eban arloa, erreketek, palanjista ta militarren artean Bilbo, Donosti ta Iruña-ra ainbat joan-etorri eratu. Guda-saioak cre bai egin zituan, Moreda-n eta abar, Oriol-en semeak eta arabar erreketek Orduña-n eta inguruetan erazo-saio ta jokoak erakusten ibilli ziran; Urkabustaitz mendian, esaterako, mendi orren gaiña menderatu ta bertan aurretik ipiñitako ikurriña artu ta erre eben.

Militarren artean Kamilo Alonso Vega izan zan su-emoille, aurretik be Mola-ren adiskide zana eta, Flandes eritxon gudarostearen buru, garagarrillaren 19-an erriaz be laster jabetu zana. Aurreko astean ba-zan zalapartarik Gazt&z-en langilleen eztabaita ta lan-iztea bide. Gil Yuste jenerala, 21-an, Erri-Jauraritzaz egin zan. Bizente Abreu Madariaga, Luis Campos, Kandido F. Itxaso jeneralak, eta beste indarrak laster bat artu eben. Orduko gaber-nadore Navarro Vives-ek ez derakuz adore aundirik. Indar guztiak, beraz, naste-zaleen eskuetan alkartzen dira.

Arabian abertzale asko etzirala be, mordo bikain bat bazan eredugarri zana. Eta kinka onetan, zer? 18 an Donostia-n alkartu zan

Euzkadi Buru Batzarra; an zan Julen Agirre, Araba Buru Batzarreko lendakari zana be, Gau aretan bertan batu ziran Gasteiz-ko abertzaleak nundik eta zelan jokatu bear zan jakin nairik. Iski-lluak zabaldu? Naspil utsa! Urrengo egunean, igandez, argitu zaneke Alonso Vega-k bere guda-gizonakaz Gasteiz-ko tokirik garantzitsuenak artuta eukazan.

Abertzale jeltzaleak, Julen Agirre buru zalarik, Gasteiz-tik urten eta Urkiolan batu ziran Bizkai Buru Batzarreko Axuriegerra ta Solaun-ekin, orduko egoeraz itz-aspertu luzea egiñez. Gasteiz-a itzuli ta Euzko Gastedikoak —baita errepublikanoak be— fusil

ziran Parkean, ez eben baiña eurak eskuratzetik lortu Goiko ta beeko denak jokatu eben naspil utsean: goikoak ez iñoen ezer badaespadan eta beekoak etziran ausartzen ezer egiten. Onek dudamudak jota ebiltzalarik, matxinoak joko zolian. Abertzaleak —Landaburu, J. Agirre, Manuel Ibarondo ta Jose Luis Abaitua— Gobernu Zibillera deituak izan ziran eta an, zemai ta itz gogor askoren artean, idatzi bat, jagi ziranen aurka ez ebela ezer egingo, izenpetzera beartuak.

Ori ta guzti, arein ustez kaltez eukezanan edo-ta egon leikezanan tiroz ilten asi ziran laster. Landaburu-k diñoanez, 200-tik 260-ra izan ziran Araban eta inguruetan olan ildakoak, batzuk epaituak eta beste batzuk auzitara barik illak. Oitura ebenez, bildur-azia erein nai jentetzan. «Otz eta epe!» ei ziran arabarrak.

Abustuaren 20-an Millan Astrai eldu zan Gasteiz-era emengoak sugartu nairik. Beingoan asi zan ekarren asmoari berea emoten: ainbat sartu zituan gilizape eta aurretik atxillo egozanan au iñoen: «Oraintxe gure azkena! ». Sendikoen ikustaldiak galazo eutsezan espetxekoai, ta ainbat agertzen ziran bide-bazterretan ilda. Onelaxe bildur-zigorra abustuaren azken-egunetatik azaroaren amairaiño. Jemein idazleak diñoskuñez, karmeldar komentuan 800 bat preso aurkizten ziran 50 geletan.

Iru euskotar mendigoizale arrapatu ebezan Gorbei mendiko aterpe baten, bizkaitar bi ta arabar bat, garagarillaren 31-an. Iru gazte ziran, Esteban Elgezabal eta Jose Kortabarria bizkaitarrak eta Jose Estabillo gasteiztarra. Eriotzara epaitu ta illak izan ziran.

Ekaitz aretan zelako aizea alako eriotzak egiten ziran. Mola, egun batetik bestera Bilbo-z jabetu nairik, amorru bizi-biziz ebilkigun, eta goiz triste batean 60 opagai bear zirala iragarri eban oindiño bo otz agertzen zan errian. Eta 1937-ko martxoaren 31-an —Durango-ko bonbaketa eguean— bere odol-egarria ase nairik, 16 giltzapetu euren geletatik atera ta Azazeta mendi-lepoan tiroz zituen, Onoin artean jausi ziran Luis Apraiz, Jose Luis Abaitua ta Teodoro Gontzalez Zarate, erri alkatear.. Espetxetik ateratzean atrikulu onez baliatzen ziran; izenak artu, banan-banan urten erazo; *gero*, Donostiatik ontarako ekarri talde bat egoan ate ostean, erreketeta ta txapel-okerrakaz, eta presuak kotxetan sartu ta Azazeta gaiñera eroanik, an fusilatzen ebezan.

Bizkai aldera bizi ziran arabarrak, Aiala ibarrekoak batez be, Errepublikaren aldeko gudarosteak osotu ebezan, zintzo ta bular-tsu euren lur-sailla jagonaz. Gudua sortuaz bat asi zan mardultzen, Okendo-n ain zuzan, arabar batailloetatik geien gailendu zan «Araba» abertzale gudarostea, bero «Estabillo», «Ayala», «Elaitzalde» ta «Alaitza» konpañiekin. Argi ta garbi erakutsi euskun onek, leenengo eztabaida, koloka ta dudamudakaitik eta ondorengo bildurrik eraginda geratu zala arabar lurraldea, ia guztia, frankotarren orpopean.

6 BIZKAIA SENDO

Zuur samar dozunak arin igarten azpitik dabillen jokua: satorrak ezin gorderik euki bere ibilbidea. Ezta Bizkaian be Errepublikan erasteko asmoz eskumatarrak erabillen ixil-eundura. Pizkaka pizkaka joiazan eiorik euren burubideen irazkia, sentipen eta pentsakera kidekoak alkar artu ta lanari ekin. Gobernuak ba ekian jakin gudarosteko buru askoren gurari ez-on, atzerritar ez gitxiren jarrera ta jokabide ala-olakoa. Zuldar bat laster lertuko zana. Batzuk agirian be erakutsi eroien legezko gobernuari eutseen destaiña.

Garagarrillaren 18-an Bizkaia, odei tximur arte ekaitz-txinpartak dizdiz egin arren noizpeinka, naiko baketsu aurkitzen zan, zantzuk okerrak bage. Samur itz egian Jose Etxebarria Novoa, Bizkai-

ko g,obernadoreak: militar buruekin mintzatu da ta guztiak daukaz laguntzeko gertu. 19-an, igand2z, manifestapen aundia dauko Garellano-k Bilboko Gran Vian zear gobernuaren alde. Egon ziran alan be bai-ezak militarren artean, Mola-k Iruña-tik esana bete ala ez bete. Mola-k bizkaitarrai laguntzera etorri nai eban, Bilbon egoan giroa ikusita, bertanbera itxi eban asmo au.

Bizkaia ez da egundo naste-zale izan. Bai ostera legearen aldeko. Oraingoan be, naiz-ta ez bere gogoko, erriak aukeratu Madrid-eko gobernu legezkoa zala-ta, aren agindura makurtu zan. Erdi-lorturik eukan gaiñera berak nai eban Estatutoa. Beraz, gorririkaz batzea askorentzat oben larria zalarik be, makiña bat bider esan eta entzun zanez, Bizkaiko alderdi politikuak, abertzaleak tarteko zirala, legezko Errepublikaz egozan.

Danon artean Erri Talde (Frente Popular) osotu ebon, eta onek gobernadoreari ta militar zintzoai eskiñi eutsen bereala euren laguntza biribil-biribjlla. Orrelaxe antolatu ziran leenengo guda-gizonen saillak eta taldeak, onelaxe diru-laguntzak, onelaxe mendira joiazanentzat janari ta jantzitakoak. Udaletxeak eta Aldurdiak emondako laguntza etzan txikia, ez urria izan. Etzan orduan alderdirik ezagutzen, danak bait ziran bat eta anai. Elburua? Arriskuz egoan gure etxea, gure lurra, gure erria salbatzea; onik atera bear zan. Auxe, ta auxe bakarrik zan guztion elburu. Iñoiz esan da 1985-ko uiolean ezagutu zala bizkaitarren alkarrenganako maitasun zintzoa. Ez jakon orduan aren edo onen ideologi ta pentsakerari begiratzen: beartsuari luzatzen jakon eskua. Orobat garai aretan be. Aberria galzoriz ikusita, «goazen danok lanera! ».

Alderki Jeltzaleari buruz izan zan aurrenengo dudamuda, susster bakoia nik esango neuke. Alderdi au, munduak ondo dakianez, beti izan da katoliku, oso eleiztar, Sabin Arana-k sortu ebanetik. Zer egingo naste onetan? Madrid ala Mola, zeinen aldeko aukera? Alderdikide batzuk iñoizkoren baten aiko-rnaiko jbillita be, esan dogun lez, euskalduna ta abertzalea, ez da egundo matxino-zale agertu dagokiona lortzeko onean eta eraz jokatu badau be; auxe izan da beti, leen eta orain, aukeratu izan dauan zentzunezko bidea.

Eta berau izan zan Euzkadi-ko gerran be munduaren aurrean leial, bulartsu ta errazoitsuen burrukatu zan alderdia. Egia autor-tzeko, eusko abertzaletasunak ez dau iñoiz artu-emon biozkorrik izan, ez orduan ez gero, Madrid-ek beti susmoti begiratu izan dausku-ta, Baiña ezker ta eskuiñen artean, ezkertarren jokabidea beti izan dala ohea esan bear dogu. Euskal izatea obeto buztur-tzen da, jakiña, Errepublikaz fazismuaz **Lenengoak demo-krazi-idea** aldezten dabe, euskaldunak azke ziranean aldezten eben bezela, bigarrenak kendu egin dautsez gizaldiak zear berezko in-darrez ernetako eskubide, usario ta legeak.

Naparru ta Araba Franco-ren alde zirala ta Gipuzkoa burrukaz-elai latz zalarik, Bizkaitik eratu ziran gazte taldeak erri-alde e-bil-tzan angoai lagundu egien. Beste talde batzuk Bizkaiko mugetan jarri ziran, etsaiari eusteko batez be. Otxandio ta inguruetan ko-katu zan, zaindari, Garellano gudaroste bat, Mendikoa eritxon VI-garren batailloa, Vidal kororelaren egindupean. Motoristak zabal-du ziran Orduñan, Aldundiak bialduta.

Jazarle ta errebelak laster erakutsi eben barruan bolboka eka-rreren odol biurria. Otxandio, erri baketsua jaietan aurkitzen zan, eta bat-batean, erriak gitxien uste ebanean, bonbaketa izugarria gaiñ. Jente geiena olazan egoala, Mola-k Gasteiz-tik itxura zanez bialdutako egazkiñak antxe erriaren erdi-erdian 34 ildako ta 66 zauritu egin ebezan. Garagarrillaren 22 zan, matxiñoen egaldaketa asi-barri genduala. Basatikeri lotsagarria! Olan iñoen gero egun-kariak. Zibilizaziñoaren lege zapalketa dongea! Probintzi guztia, suak joa, gora-gorako geratu zan. Itzetik ortzera, illez beterik su-kalde asko... Negarra ta eroan-eziña bazterretan!

Egun berean Molak, gerora be sari egin ebanez, paper mor-doak zabalduko zituan Bilbo gaiñ egazkiñez, garaitutzat emon cie-zala Bizkai erritarrai eskatuz: aurrerantzean be bondaz zuzituko eban Bizkaia, burua makurtzen ez ba eban. Eta ase eban bai bere gurari zitala Bilbo uri baketsua ta inguruak odolez eta negarrez beterik.

Orrez gaiñera, Ernesto Erkoreka, Bilboko alkatea, gerra sor-tzerakoan Madrid-en aurkitzen zana, Burgos-tik Gasteiz-era etxe-

rantz etorrela, atxillo artu eben Mirandan. Donosti-ra eroan eta urrillaren 2-an, «Altuna-Mendo»-n preso egoan Esteban Bilbao-ren ordezkariak, azke itxi eben arte,

➤ BABES-BATZORDEA

Arriskuak alkar gogoan sortu oi dau-ta, Bizkaia etsai mende aurkitzen zalako, babes-batzorde bat osatu naiean, orretarako alegiak egiten asi ta alegiak ez eben ustel urten. Gura zan bestean ezpazan be, na'koa beintzat zaindua izan zan Bilbo, lenegotan naru-gorri aurkitzen zalarik, ezeren laguntza bage. Zemaika geunkan Mola irratiz, oso-osoan bere eskuetan jarteko eskatuz. Berandu zan, baiña; Naparroan, Araban eta Gipuzkoan egiñaren ondoren eziña zan burua makurtzea, Jaungoikoak oba!

Asiera-asieratik Bizkaia berean egoan legezko agintariakaz, eta ez aurreko g'zaldietan lez azpi-lanari esker alperreko burukara eroan ginduzanen antzekoakaz. Probintzi osoa, gorputz bat eginik, bere lurrari ta nortasunari eusten saiatuko zan. Gorputz-mukuru ontan, ots, Erri-Talde ontan, abertzale, sozialista, euzko indar, komunista, eusko-langille, exkertiari, mendigoizale... labur, alderdi ta talde guztietakoak alkartu ziran. Erakunde orokor onek osotuzko Egin-Batzordeak maminduko zituan zeaztasunik beñenak eta txikienak be, gudariak batu, lerrotu, jantzi, izkilluz ornidu, janaria, barri-emoille, alkar-lotura ta gaiñerakoak, eta guzti au erriari ta guda-gizonai egokienez. Osasuna, garraioa... Batzorde nagusi orren ardurapean jarten zan. Batzorde au, alan be, iraunpen laburrekoa izan zan, 1936-ko urrillaren 7-an guzti ori Eusko Gobernu barriak bere pentzura artu ebalako.

Izterbegiak onakoetan zuur eta erne egon oi jakuz. Bilbo ta inguruetan gaiñera eskumatar, erregezale, karlista ta paxista naiko bizi zan, aberats eta aundikiatan batez be. Oneitatik batzuk, espetxeratuak izan ziran lenen-lenengotik. Garagarrillaren 24-an aurkakoen arteko batzuk Larrinaga-n, protesta zarata aundiak aterazo ebezan: Bilbo laster jausiko zala uste eben, itxura baten. Orduan, segurantzana naiez, gaiñeko espetxe lez zan Cabo Quilates-era, Axpe ondoko ditxo edo kai barruan aurkitzen zanera eroan ebezan 800

ba, preso, garagarrillaren 26-an. Beste atxillotu moltzo bat, Gipuzkoatik ekarritakoakaz, «Altuna-Mendi» beste expetxe-ontzi baten, Barakaldoko Laba Garaian ondo kokatutakoan, egokituko zan. Gero Angeles Custodios eta Carmelo be pr.: -sondegi izan ziran.

Mola, Bilbo ta birak zentzatu laster asi zan bonba ilkorra geiagoko barik botaten. Iñoiz ez al dozu ikusi sugea bide egaleko bedar edo sasi artean, narrua itxita, mintza dardarati edozeiñi sartzeko gertu? Antzera geunkan Mola. Eta asi zan Bilbo zigor-azten. Abustuaren 31-an eroan eban Bilbok matxiño-zaleen len-bonbaketa; zortzi lerkai bota ebezan, eriotza bat egiñaz. Oso-osorik iraindu zan erria eta ordaiña itzuliz faxista batzuk jausi ziran, euren artean Gregorio Balparda, bilbotar edestlaria, beñiola baten alkate ere izana. Arrezkero zelako bonbaketak alako erailketak gertatu oi ziran.

Anoik laster, irailaren 26-an goizez ondo suntsitu ebezan Bilbo. Barakaldo ta ingurumariak Gasteiz-tik etorritako airekoak. Egazkin bik suzko eun bat lerkai bota ebezan, ezeren arrisku barik eurak nai ebena eginaz, ordu t'erdian. Zemai paperak be eurrez etozan. 88 izan ziran illak eta 600 bat zaurituak. Bilbo-n ez egoan gorde lekurik oindiño eta asko jausten ilda igeska joiazala. Onek zoratuta ipiñi eban erria eta etsi-etsian, bonbaketa atertu zanezo, bertoko ta bertora etorritako kanpotar aldia azi samarrak «Cabo Quil.ates»-era ta «Altuna-Mendi»-ra eldurik, lenengo barkuan 41. eta bigarreanean 30 pertsona il ebezan.

Entzun ziran egiaz agintarien erreguak, irratiz eta prentsaz. Onakoetan baiña, gerran ibjlitakuok ondo dakigu, gauza

dala erria, zoratua, senetik urtena, zentzatu ta onera ekartea. Etsaiak ostera ori nai eban, itxura zanez; urrillaren 2-an ba barriro datoz bombak Bilbo gaiñera, eta ondorioz erailketak,

· Gero, alan be, Eusko Jaurlaritzak gobernu-edeak eskuratu ebazanean, gauzak obeto zaindu ta eratsuago atondu ziran. Ekandu txarrak, egia esan, ez dira beingoan uxatzen eta Molak, andik-irurillabetera, 1937-ko urtarrillaren 4-an, bonbaketa larria egin eban Bilbo ta inguruen kontra, eundaka eriotzaz. Orduan he UGT-ko 8-a Bataillokoak eurenak egin zituen Bilbo-ko espetxeetan.

8 GIPUZKOA AUSKOR

Egun gitxiko burruka uste zan, uri aundi batzuetan —Madrid. Barzelona, Bilbao ta abar— izan ezik. Molak, Francok eta jarraillak porrot egiñak dira euren usteetan. Zergaitik? Molak atondu bear zituan ipat-aldeko gorabera danak, eta berak uste baiño mukerrago idoro eban gauzea; probintzi danetan etzan bere deia onartu, eta olakoetan berantago ta txartoago joaten gauzak. Egon ziran, baita be, uts eta ustel urteteak. Ariñegi asi Mola bereak egiten, ango ta emengo kuarteletako giroa neurri batean ezagutu bari. Or, adibidez, Loiola-n Leon Carrasco koronela, luzaroan ezin erabagirik; bardin Valiespin, biak egon ziranarren Iruña-n Molarekin.

Beste aldetik, lenengo ezpai-laiñoak ezin urratuz oindiño, burrukarako gertakuntzak egiten dira, bai Erri-Taldekoen eta bai abertzaleen aldekoen artean; an doguz Iruxo ta Lasarte, gubornadoreari iskilluak eta laguntza eskatuz; Carrascok, bildurrez, gualtegietakoi kalera urten eitezala agintzen dautse, naiz-ta erriak au txarto ikusi ebalako euren egoitzetara itzultzeko esan. Duda-muda ikaragarria, ez bait dakie zelan jokatu. Eskuindarrak bitartean, zuur, Maria Kristina otela artzen dabe, guardi zibillak lagun. Bardin dagie Kasino, Klub Nautiku ta beste leku garrantzitsu batzuekaz be.

Naste orretan, itsumustuan, gobernuaren aldeko agintariak, askok beintzat, iges egin eben Arrasate ta Eibar aldera, donostiar kaleak bertatiko baten sartu ziran burrukalaria ta zaintzaileen monde geraturik. Babes-batzar bat sortu zan eta onen erabagiak onartzen ziran une estu areitan. Zain-orduak alderdi guztien artoan osotuz. Donosti gorri neurribakoen eskuetan egon zan egun batzutan, ostu, il ta arakatu eurak nai ebena egiñik. Komunistak eta anarkistak ziran geienak, iraultza odoltsuan saioak egiten. Arma geiago ta oztopoak ugari kaleetan, Amara-n batez be. Eta eskuko bonbak...

Zemaika Loiola-ko kuarteletik. Gabaz, egin-egiñean be, kalera urten da Velasko komandantea 200 bat guda-gizonekin Urian sartu gura dau Amara aldetik, Easo ta Urbieta kaleetan zear. Erritarrak ostera, ainbat oztopo jarri dautsez, esi, upel, andarri ta zugat-mo-

kor, balkoi, leio ta teillatuetatik orobat, aurrera egiten izten ez dautsienak. Orduetako burruka, ez goxoa, atertu bako tirosean. Asko dira illak eta zaur:tuak.

Azkenez be, militarrek kukua jo ta burua emon bear. Biaramonean, baiña, ortan jarraitu eben goizean goizetik. Militarrek alde batetik, Loiolakoak eta aldeko erritarrak, eta lengoak bestetik, Bilbo-tik eldu diran milizianuakaz ugarituaz, alkar jote ikaragarria dagie, bost bat ordutan, Larramendi, Urbietta ta Easo kaleetan. Molak egazkiñez laguntzen dautse matxiño-zaleei paper idatzi ta oktabillak ugari zabalduz. Militarrek oraingoan be burruka itxirik Loiola-ko egoitzera biurtu bear.

Mola-ren laguntza zain, baiña eltzen ez. Loiolako kuarteletik orduan mezu bat bialtzen dabe Aldundira, alkar izketa eskatuaz. Ara doaz Iruxo, Lasarte, Irazus ta, Amilibia ta Pikabea aldunak; kuartel ondoko landan daukie buruz-buruzko alkar ikustea Carrasco, Vailespin eta beste ofizialakaz. Baldintza batzuk: oneik arein eskuetan jarriko ebezan euren armak, muniziño ta guda-tresneri guztia. Istillu ta gorabera batzuk ain ondo ikusiak izan etziranarren, erabagetakoa zeatz bete zan. Urrengo egunean, Valiespin eta onen lagun batzuk igeska joan ziran gudalgetitik. Carrasco Aldundian geratu zan baiturik. Lenengo egunetan, 18-an jazo zan au.

9 NAINUNDIK ERASOKA

Erdi-esan dogu zein zan Mola-ren asmo orokor. Epe laburreko guda izango zan. Egoaldetik gorantz, ziri sendoa sartuz joko eben Francok, Queipok eta Yaguek. Berak Somosierra ta Guadarrama aldera bialdutakoak, Etxamez buru zalarik, Madrid-erantza joko eben alkarren leian.

Molak berak, Cabanillas'ek Zaragoza-tik bialdutako iskillu ta guda-gizonakaz ornidurik, Gipuzkoa ta Bizkaia beingoz menderatuko zituan. Pentsa ta egin, asko luzatu barik talde sendoak igorri ebazan Baztan eta Bidasoa ertzetik zear Irun-era, Beorlegi buru zala; muga itxi bear zan, iñortxo be igesik egiteke, etsai, arerio ta izterbegiak oro itxituan batuaz. Etzan makaia gero burrukalariaik euskaldunen aurka ekarren gibelmin, kurrrika ta amorrua.

ñola baten Beotibar'ko peleakoa ta azken-gizaldiko karletar joal-
diak oindiño be gomutan ekarrezan antza. Ulert-eziña bestelan.

Beorlegi komandantea ta beronen gizonak Endarlatza-n kokatu
dira: ezin dabe ibaia igaro Irun-era eltzeko eta Aia arkaitz oster-
rik Oiartzun-erantza doaz, ondoren Loiolekoai laguntzeko asmoz.
Au baiña gobernukoen eskuetan dago ta Oiartzunen luzatzen dau
egona. Ortiz de Zarate Leitza ta Goizueta-tik datoz Beorlegi-gaz
alkartu naita. Beste andana bat be Lizarristu-tik zear Ataun eta
Lazkau-rantz; beste bat Etxegarate-tik, Zegama, Idiazabal-ez ja-
beturik.

Mendi ta uri etsai gainditu ezin bestez esiturik ikusiaz, bake-
zale ziran alderdi guztien artean esandako Babes-Batzordea osotu
zan, egoera larri aretan erabagiak asko luzatu barik artu bear zira-
lako. Alderdi bakotxa arlo batez jabetu jakun. Jaurlaritza, adibi-
dez, Telesforo Montzon eusko jeltzaleak; Gerra, Jesus Larrañaga
komunistak; Diru-arazoa, Jose Imatz eusko indarrekoak; Komu-
nikabideak, M. Gontzalez CNT-ekoak; Garraioa, J. Aguado ez-
ker-errepublikanoak; Janari orniketa, S. Etxeberria PSOE-koak;
Osakintza, J. Rodriguez UGT-koak, Migel Amilibia sozialistea len-
dakari zala.

Betiko naspil-zaleak, egoki da jakitea, ez eutsoen Batzar oni
jaramon aundirik egin. Montzon-ek bestera esanarren, CNT-eko
talde batek Loiolako kuarteleko iskilluak ostu ebezan; beste mi-
litzianu batzuk Aldundira joanik an aurkitzen zan Carrasco atze-
mon eta Amara-n fusilatu eben; irugarren aldra batek, milizia-
nuak. Ondarretako espetxea indarrez artu eta Loiola kuarletek
ara eroanda egozan militar urtenenak, gabaz, tiroka il ebezan. Ga-
txa zan erritarren artean ordenea jartea ta Montzan'ek itxi egin
eban kargua, bata ondoren izentatuak izan ziran Juan A. Kareaga
ta Teodoro Hernandorenak be. Azkenez Ander Mirena Iruxo-k,
Manu Iruxo-ien anaiak artu eban. Zailla zan bai une aretan anar-
kista ta komunisten gogorkeriari eustea. Ekatxa be, oster, lenen-
go aize-bolada latz-zakar ondoren, mectu ta ibitzen; orrelaxe odol-
zale arein zakarkeria be,

10 IRUN SUTAN

Bestaelde, Irun eta onuntzagoko barne-aldietan ernetako gerra-ekiñai arpegi emoteko, ba eben zeregiñik. Gudari, mun;ziño, jantzi, jateko ta beste zer guztiak billatu ta eratu boar izan ziran; aítaturiko Batzordearen egitekoa nunbait. An eta emen sortu jakuzan beste batzorde berezi batzuk be, Azkoiti-n, Eibar-en... Orduantxe asi zan jaiotzen gudari-muskil bat be, geroago Euzko Orduantxe esango jakonari asiera emonez. Loiola-n eukien euren egoitza. Abertzale taldez osotua zan batez be. Kandido Saseta izango zan moltzo guzti onen zuzendari. Ementxe orniduko dira jantziz, iskilluz, gerrarako lenongo saioak be berton egiñik; ementxe artuko dabe euskal-sua, adorea ta kemena geure lurra zainduaz etsaiaren erasoari gogor egiteko. Euzko Gudarozte au, Donostia galdu zanean. Bizkai aldera tolostu zan, lenengo Saturraran eta gero Lekeitio babes-lekutzat arturik.

Ezustean gaiñeratu jakun iraultza ta gertakizun bage aurkitzen zan Gipuzkoa bere lurraldea jagon al izateko. Irun-en gogor be gogor burrukatzen zan; lenengo saillak etziran gauza muga-uri a menderatzeko, eta Molak taldeak eta taldeak bialdu bear izan zítuan. Olan, andik eta emendik, Ortiz Zarate, Gartzia Valiño ta Arcos agintariak guda-gizon sail aundien jabe, il edo bizi. kement-su ta zakar bultz-eragiñez, Irun su ta gar kiskaltzen itxiz, aurre-ra etozan, batzuk Aia, Erlaitz eta Pagogañatik zear eta beste batzuk Ondarribi artuta Jaizkibel gaiñetik azkar Lezo-runtz. Baiña bos_t egun bear izan ebezan milizianuai atzera eragiteko, goi-barna egazkiñak eta itxasoaldetik «España» eta «Cervera» lagungarri ebezalarik.

Arein eta onein guda-oreka ez da bardiña. Irun, Pasai ta Donostia-ko langilleak, anarkista ta komunistak geienak, txarto ornidua dagoz arma ta muniziñoz, ez daukie esateko laguntzarik. Muga itxi jake, Katalunia'tik ez jatorke armarik, «Ez sartzeko Itun» naziño artekoak be, bere pentzu izten dau giputz-lurra, ezeren so-rospen bage, amak zapuztu dauan ume jaiobarria lez. Donostiko ta Azpeitiko batzarrera jota be, gorriak barrabaskeri geitxo egiñak diran ezkerro, ez dabe laguntza aundirik izango,

Fede ta entzimena galduaren ondorioa. Or egozan abertzaleak, baiña naste ta aurrenengo jo gurez susmo txarra ta gibelbildurra jagi-azo eben orreik errian eta abertzale zintzoetan. Larri-aldi onetan Alegeri, Altzo ta Tolosa jausi ziran: gorriak emen igesari emon eutsoen eskuindar batzuk tiroka il ondoren. Saseta-k eta beronen gudariak Bidania artu eben, baita Andoain eta Ernari be, Donostia-z jabetu nairik.

Ez oneintzat eta ez areintzat ezta erreza izan Donostia azkenez artzea. Illabete ta erdi joan dira eraso latzean. Gartzia Valiño zauritua izan da irallaren lenengoz San Martzial-go alkar-jote gordiñean. 4-an, Irun-i su emonik, Donosti-rantza datoz ainbat egunez uria aldeztu dabenak. Beorlegi, Irun-en sartzean, bala batek jo ta andik il zan. Eriotz batzuk, Joakin Beunza ta Onorio Maura Guadalupe-n eta Biktork Pradera Donostia-n.

Felix Luengo-k onela: «10, 11, 12-an Mola-ren guda-gizonak San Markos, Txoritokieta ta Santa Barbara gazteluak artzen dabez, Donostia bardin esitua dago. Bertako Babes-Batzordeak uria beingoan utsik izteko erabagia artzen. Euzko abertzale jeltzaleak bakar-bakarrik dagoz nai orren kontra, eta eurenaz 100 gudari bertan iraun-azotea erabagiten dabe, azken uneraiño iraun be, uribazterrak zaindu dagiezan, arrapaketa, lapurreta ta ilterik gerra ez dadin, Irun-en bezelaxe. Kalte barik itxi nai da uria». Illaren 13-an sartu ziran francotarrak Donostia-n.

11 BABES-TRESNA BAKO ERRIA

Erdi-asmatu dogunez, ixilka jo ta ke egiñik amenekoan uste eben Gipuzkoari ta Bizkaiari egingo jaken eraso; probintzi biok itzetik ortzera jausiko ziran matxiñoen eskuetan. Orrelaxe jazo zan jazo be: Euzkadi ez egoan gerrarako gertautea.

J. A. Agirre-k argi-argi adierazten dau txosten baten gure erria orduan aurkitzen zan egoera. «Arerioen eraso —diño— irriarra batean zabalazi ta koskondua izan zan Gipuzkoa gaiñ, eta batez be muga-galtze zan Irun gaiñ. Euzko erri onetan armaz ornidu al izan ziran euskaldun talde gitxiak etsaiari jarri eutsoen gibel-ol-darra, arrigarri lez ezagutua izan zan. Guda-tresna, muniziño ta

iskillurik eza izugarria zalarik, Irun jagoteko ozt-oztan erabilli ziran zortzireun fusil eta dozena erdi ametrailadora. Beraz eraso nai eben gazte-mordoak burrukara barik armarik ez eukielako».

Onen errua izan eben C. N.T-koak, eta aundia izan be, Loiolako kuarteleko armen jabe (1.800 fusil lez) egiñik, euren alderdikoaren artean areik banandu ta olan besteen artean etsipena ta susmo txarra eren ebelako, Ezta arrigarri lenengo egunetan, bakoitxak al eban lez zerbait egin nai izatea.

.Asieran etzan errez gaiñera, dudamugaz josirik, lerkai ta iskilluz orniduteko bearrezko zana bat-batean eskuratzea. Muga itxi ebenean nundik ezer ekarri? Frantzitik zerbait ixilka. Madrid'etik? Gaitz zan. Eta etorrena be, Santander zear. Eta Oviedo zan beñera. Ona ezer ez bialtzeko, au iñoen: «Eror-zori daukagur Oviedo». J. A. Agirre-k diñoanez, «gerraldi guztian naiko egin euskun esaera». Beti zan arako, ez guretzat, eta guk eskatua be sari ara bialdua izan zan; etzan kontuan artu nai, agiri zanez, Iparralde guztiko giltz etzala Oviedo, lenengo muga ta ondoren Gipuzkoa ta Bizkaia baiño. Osiñak osiñari dei, ez al da egia?

Prietok berak autortu eban geroago laguntza barik surkijtu zalako jausi zala Iparraldea oso-osorik. Elgeta-tik Laredo-ra guda oiñean ibilliok ba-dakigu zerbait oni buruz: oraintxe datoz fusillak, tankeak, egazkiñak esan eta idatzi arren, oneik etziran egundo eltzen gure gudariantzat. Onez gaiñera, bazan beste zerbait be aurka geunkana, eta Agirre-k autortuari nagokio onetan Irun galteaz gaiñ, bazan beste baltzune laidogarri bat, C.N.T-ekoak eta komunistak Tolosa-n, Ondarreta-n eta Guadalupe-n egiñiko ilketak. Onek orduan eta gero g&entsuak kristiñau espiritu zintzoko ziran euskaldunen artean zorigaitzozko ondorena erne-azo eban. Erri ordenea zaintzeko ardurea eukan Telesforo Montzon-ek, Gobernadore zan Artola jaunak, Tolosa-ko alkateak eta Udaletxeko Batzordeak itxi egin ebezan euren karguak.

Etzan goizetik gabera atontzekoa etsaiari arpegi emoten ebiltzanen arteko era, itzal eta begirunea bear aiñako maillan sartu ta jokoan jarrea, Gauza bi ziran etxea konpondu ta arerioari ortzak erakutsi, bata zailla bazan bestea zaillagoa. Lenengo auzian an zebiltzan Iruxo, Pikabea, Irazusta, Lasarte ta besteak zuur eta

esku trebez indarrak batu ta moldatzen. Eibar-en eta Arrasate-n gazto pilloak gipuzkoar eta bizkaitar gazte pilloak gertu egozan euskal lurra zaintzeko. Donosti oraindik ez egoan etsai-mende, naiz-ta zortzi bat kilometrora bai, eta igurdizi ta maiñaz Loiola-ko kuartelekoal armak kentzea jadetsi izan eta gudariak fusil, ametraillora ta ogetamar bat kañoiren jabe egin jakuzan. Skillu oneik noski oiñarri lez izan ziran illabete ta erdiz etsaiari eusteko Gipuzkoan erre ziran alegiñetan.

Frankotarrak baiña gogor joten eta gutarrak or-emenka erriak eta illak lagarik atzera egin bear. Bazan kezka probintzi bietan, ots, Gipuzko ta Bizkaia-n; eta ez adore gitxi etsaiari eusteko. Gutarrak, Gipuzkoa barruan, Loiola-ko Santutegia aukeratu eben eusko gudaroste gotor bat eratu egien, eta indarazo; gudari ta gudalburu bulartsuak agertu ziran bertan, gudaldi osoan egintza txalogarri asko burutu ebezanak. Asko izan ziran nik Bizkaiko mendietan or-emen, eta espetxean, ezagutuak eta gaur be gogotan ditudanak. Begoz danak, illak eta biziak, ereiñozko koroi ederrez apain, gure Aberriaren oroitegi aintzatsuan.

Ondoren baltzez beterik Donostia-ko tirabirak. Artegatzen asia zan jentea, eta erria. Gazte ta zaar asko prest egozan sendiak eta erriak jagoteko, eusko lurragaitik bizia emoteko. Eta illak eka-rrezan asko, mendi ta bide-kurutzetan jausiak asko. Negar bako illetak ospatzen. Odol-erioka etorren etsaia gero ta urrago.

Eta olakoetan jazo oi dana: jente asko, izuak joa, noraezean... Bizkairantz askotxo, baita su biren artetik igeska be, Eibar aldean adibidez. Ibillaldi errez egiña jakon etsaiari Azpeiti, Tolosa, Zumaiia, Oñate, Arrasate, Bergara-z jabetzea. Urrillaren lenengoetarako Motriku, Ondarru, Elgoibar, Soraluze ta abar arturik, Elgeta gaiñeraiño eldu zan, Bilbo-tik 40 kilometrora lez.

Ibillaldi onek giro ona laga ete eban Gipuzkoa-n? Ala kiratsunda bear bada? Egia esan, bereak egin ebazan.

12 TXIBITAREN OTSA

Alkar-joteak, triskantzak egiten ditu gizartean, gerra garaian bezeziki, Olako zerbait asmatu ta gure lurrean mamindu-azo izan da-bezan liskar-eztabaida baltz guztietan, beti gaillendu izan da arerio

ta izterbegien barne-errea bertoko lege, oitura, izkuntza ta gaiñerako euskal doe ta balioen aurka.

Ez arritu, irakurle, emen guda-ots artean izkuntza aitatzen ba dautzut. Izkuntza bait da erri baten arnasa ta izatea, arima, eta erri-zapaltzailleak orra joten dabe aurrenik, erria arnasa bage iztera. Erriaren gorputzari, izan be, eriotza emonarren, arimeak zirkin ba dagi oraindiño, erri ori zuzpertz ta zutik jarriko jaku. Olako erriaren arima, ba, zapaldu ta birrindu egin bear da, beronen tasun guztiakaz, esan dogu, berbera, foru berezi, ekandu, uzkurtz eta barruagiriak zapaldu ta lardaskatuz. Aurre-gizaldietan bezelaxe gertatu zan oraingoan ere.

Matxiño-zaleak ba ekien ondo be eleizeak, asko beintzat, zuzendua zala orduko euskal erria. Gorriengandik zematua izatea atsegin jaken frankotarrari; ez betera. Garai aretan etzan errez bat ze eritxikoa zan jakitea; eta orretarako bat nogaz ebillen, zer irakurten eban itanduten zan jakin-miñez. Gorri batek iño izkoren baten kalterik egin ez ba eutzun, olakoaren lagun edo kideko zu artzeko. Gipuzkoan naiz Bizkaian, kalean naiz eljzkizunetan, naikoa euskeraz mintzatzea Espaiña-ren areriotzat joteko.

Berrogetaz urteak joan izanarren, ainbat testigu daukaguz errietan ori autortzen dauskuenak. Ona oraintsu irakurri dodana ta Markiña-ko abade zartxo bati jazoa. Jente mordo erriko plazan, bertan angokomandante militarra be, politika gaiak dira astintzen. Militarrak, bape lotsa barik, bizkaitar guztiak garbitu bear litzaitezala diño.

—Errubakoak iltea ez da legezko —egozten dautso On Markos abadeak.

—Zergaitik ez? Orduan, errusorik be ezin daiteke il?

On Markos-ek, apur bat bildurtuta:

—Errubage ba-dira, ez.

Komandanteak:

—Zu abade zara, eta esango zeunke «Gora Errusi»?

—Zergaitik ez? Bizi dedilla Errusia, munduko beste edozein errialde lez.

Komandanteak oi:

—Eutsi oni!

Eta orduantxe asi zan On Markos abade zartxoaren egiazko kalbarioa, Gasteiz-era lenengo ta gero Donostia-ko espexera eroanik.

Zigorgarri ziran itzaldiak euskeraz egitea, dotriñea erakustea, edo-_ta errezatzea. Irakur, esaterako, Loiola-n bizi zan Feliziano apaia artutako gutuna, Azpeiti-Azkoiti-ko gudaletxetik artu ebana. «Jakitun egin naizanez —diotsa— joandako igandean, Loila-ko Monastegiko basilikan egindako ospakizunean, zuk euskeraz eta agirian irakurri zenitun Gure Jaunarekin emandako onesp_m osteko otoitzak, eta Gudaltegi onek egiten diran otoitz, erregu ta itzaldi guztiak erderaz egiteko adinduta daukan ezker, eta zuk beraz onetaz emondako aginduen kontra jokatu dozun ezker, ondo eritxi izan jaku 500 pezetako diru-zigorra zuri jartea; berau karlisten Guda-Batzordeko kutxan ordainduko dozu, berrogeta zortzi orduko epe barruan, Azpeitia, 1937-ko urtarrillaren 25-an. Emilio G. Vidab».

Au gertari kaskar bat besterik ez dozu, an eta emen egunero erretako opilla dozu-ta. On-onak genduzan emakumak buru'soil dabiltz kaleetan, irrigarri. Gitxien uste danean dira deituak polizietxera; gabaz, gaur eta biar gaukiez etxe-arakatzeak. Urduria, egon-eziña, kezka bizia bazterrik bazter. Illak nun-nai agertzen, etxeoak, auzokoak, kanpotik etorriak. Ez da errez bereizten. Txj-bitaren otsa gau ta egun. Eta etsaiaren poza!

13 «ARRAIN LODI BAT JAUSI DA»

Aberria odolez askatu bear ei da. Gureak ez eban gitxi ixuri, azken gudate ontan beñik-bein, Gipuzkoan eta Bizkaian baitik bat. Gure erria martiri bearrez egoala-ta, or ainbeste Euzkadi-ren alde opari odoltsua eskiñi ebenak. Nik orain emen —gerorako itxirik beste batzuk— apaiz eredugarri bat aipatuko dot.

Jose Ariztimuño Olaso —abizen bi orreikaz «Aitzol» egiñez-Tolosa-n munduratu zan 1896-an. Umetatik argia. Comillas'en eta

Gasteiz-en osotu ebazan bere epaiz-ikasketak, 1922-an apaizgoa arturik. Zazpi urtez Gasteiz-en bertan ari izan zan mixiño lanean. Berak sortu eban «Gure Mixiolaria» elebdun aldizkaria, eta lan ikaragarria egin eban gai orretan 1929-an Barzelona-ko naziño artako Mixiño astean. Osasun billa lez Donosti-ra aldaturik, gogotsu lan dagi euskal kulturari, ango «El Dia»-n eta Bilboko «Euzkad-b»-n aspertu barik idatziaz: Egunkari biotan 300-tik gora artiku-lu daukaz.

Orrezaz gaiñ, bultzaille crime zan; berak artu eban parte ainbat kultur arazotan, bertsolari, olerkari, antzerki-saio, sariket-a; besteak beste bera izan akularirik urduri, zorrotz eta kezka-tuena; berak sortu eban «Yakintza», makiñatxo bat jakintsu ta idazle ta olerkari euskal arloko lanean jarririk. Burutapen giarrak dauskuz azaltzen aldizkari onetan eta «Olerkiak» liburuan eginda-ko itzaurre jorietan, Eder-sen aundikoa zan Aitzol; asko ikasia, idazle erreza eukeraz eta erderaz. Erderaz, eundaka artikuluz gaiñ, liburu oneik itxi euskuzan: «La muerte del euskera», «La lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa», «La democracia en Euzka-di» ta abar.

Mintzokari be ba-zan, oparo ta sutua. Sozial dotriñaren za-baltzaille. Alberto Onaindia, Polikarpo Barrena, Eujenio Larraña-ga ta beste batzukaz ebillen. 1932-ko abenduan, Aitzol-ek eta Onaindia-k orduko eztabaida izan eben Barakaldo aldean sozialis-ta, komunista ta anarkistakaz: giro gordiña lenengotan, baiña gero lotsa ta begirunea jarri ebezan entzulego ugariaren aurrean.

Gerra astean, matxioien asmo doillorak ikusiz, Aitzol beste askorekin mugaz bestaldera joan zan, Beloke-n ego'tza baketsua aurkiturik. Kezka erne jakon, alan be; galzor an bera erria, etsaien irrigarri, odoletan, eta bera geldi, atsedan bitsetan? Au etzan bi-dezko, eta bere errira biurtuko zan: Bi'bo-ra biurtu ta, etsi-etsi, Euzko Jaurilaritzari eskiñiko eutsozan bere zerbitzu leialak. Ten-taldi bizia aurrean: nai baldin ba-dau naziño arteko kazetaritzan lan egin dagike. Baiña naiago dau bere erria jagon. Urrillaren 15-an idatzitako gutun baten au diño: «Laster jasoko dot neure egaz-kadea. Norantza ez dakit oindiño, Bilbo-rantza bear bada, an ba onurakorrago izan daitekez nire zerbitzuak. Naziño atreko albiste

ta kazetaritzan sartzeko dei-aukerak izan ditudan arren, nik asmo sendoa dot Aberriari onurakor izateko».

Baiona-ko portura zuzenduaz, 1936-ko urrillean ber-bertan Bilbo-ta etorren «Galerna» itxas-ontzia artzen dau, arratsaldeko iru terdietan. Ez eukan bidean zain agertuko jakon etsairen susmorik: Pasai aurrez aurre eukazan lau bous arerio ondo iskillotuak. «Galerna» arrapatzeko. Etsaiaren eskuetan ontzia, eta bertan etozanai esan jaken iñori ez jakola kalterik egingo.

Donostia-ko «El Diario Vasco»-k, 1936-X-17-an, Aitzol'en barri emonaz, onan iñoan: «Arrain lodi bat jausi da, txiki batzuen artean». Jausitako guztiak fusilatzeke agindua emon zan, baiña agindu ori etzan osorik bete.

Giltzape dago Aitzol, Donostia-ko probintzi-espetsxean. Baita Jean Pelletier be, au frantsesa zalako fusilatzeke ziran taldetik bereizia izan zanarren; onexek idatzi zituan gero «Le Soir» agunerokoan baitze orri buruzko ainbat zeaztasun. «Gabean zear —diño— arma otsak eta pausoak. Geletatik atera ta «Galerna»-tik ateratakoak pillatzen. Itxura barik dakust Arriztimuño apaiza, arpegi laru ta puztuaz. Ez dot garbi ikusten. Zaintzaille bik *en-tzita* dago, narras daroe gero. Oraintxe fusilatu bear dabe).

Aitzol eta besteak, aske geratzen zirala esanaz, Ernani-n kanposantuko orma ertzean izan ziran tiroz illak.

Aitzol, euskal kulturaren ziñopa! Ba ekien au gure izterbe'giak. Erronkari-tik Matxixako-ra berak dardarazten eban gure oitura, lege ta izkuntzaren ardatza. Kaltegarri jakon ba etsaiari onen pertsona. Lurpera, ta kitu! Kultura arloko guztiak beatzarri kez-katsu jakezan matxiño-zaleai. Orma arein atzean jausi ziranen artean —Markiegi, Onaindia, Peñagarikano, Martin Lekuona...— ba-ziran beste euskal idazle batzuk be. Begoz gugaz an jausiok!

«Beti'betiko zoriona
gure illeri emon, Jauna».

14 ETXETIK JAURTIAK

Oraintsura arte lugin eta arrantzale izan da euskalduna. Toki estua gurea, baiña lur-pusketa onexek, gozatsu landuz, emon izan dautso ze jana ta zer-jantzia (gogora lino-saillak leenago). Bestetik, itxas-gizon erne ta zangar izan ditugu beti euskaldunak, arrantzuan eta urriñetara zori-billa joanak.

Lur ta ur beti, orraitño, nobere etxe maitale. Iñoiz itxi izan ba-dau be bere erria, ez egotzia berbere gogoz baiño, aren biotzak, itxas-orratzak iparra lez, jaiot-etxea, bere lur-zatia dau markatzen.

Oraingoan barriz indarrez jaurtia izan da euskalduna bere etxetik, bere lurraldetik, tiroka, zemaika, odoletan... Bideak zear, gau ta egun, urrindu bearrez zenbat zaar eta gazte ikusia nazan gudarien jaupari nintzalarik! Sarri egin nituan alegiñak arein biotz-barne poz pizkat eta eroapena erne-azo naiean. Gaur oraindik, gertakizun triste areik gogoratzeak, sentimentu naigabetsuz beea oi daust espiritua.

Irrintzika esanda be, ez doguz iñoiz bear bestean adierazoko euskaldunak orduan jsandako neke-min, oiñaze ta ixekak. Leen ibar ta mendi eder-ederra zan eusko lurra loi dakusgu gaur, baiña loaigotuago egin jaku guda ostean euskal arima. Gure lur-bazterrak gaur arrotzez, izterbegiz gaiñezka daukaguz, iñoren ona ezin ikusiz. Etxekoak eta kanpokoak egin dabe giro nazkagarri au.

Askorik beintza, orduko, guda ta guda osteko, bedar txarra dogu; orduan joan jakuzan euskal ekandu, lege ta ondasunak atzerritarren menpera. Ez da esan zoro, zentzun bako. Gure asabak, gerra zala-ta, gizun eta emakume, lur-etxe-abere lagarik, alde egin bearrean aurkitu ziran euren bizileku ta lur-oillotik. Surik ez eskaratzik bage gure baserritarrak, biderik bide noraezean, atzerrirantz asko...

Or gaurko basatien lana, giza-legeak oinperatuz! Zitala nunbai, emakume ta umeak olan erabilli bearra! Nun kristiñau maitasuna? Noren eta zeren izenean, jaiotetxeak itxi bear? Ez ete orreintzat errukirik? Iru-lau urteko umeak! Samiñeko ibillaldi latz! Noiz etxeratuko barriz? Asko, iñoiz bere ez! Oi euskal-erri

doakabe! Nik kapellautza astean ainbat onako familia etozan Kanpanzar, Elgeta, Eibar-tik, euren sukaldeak izuaren jzuz itxita. Etsaia atzetik tiroka...

Aberri bat dauka alan be euskaldunak; orrela ots-egin euskun Arana-Goiri'tar Sabin-ek. Egi oni odolaz be eutsi dautsogu, ainbat gudarik bizia emonez. Burruka, miña, eriotza bera dira geure Aberri bakarrari dagiogun oparin. Or zain gure gazteak arrotz etsaien aurrean, gertu eurena daben lur-zati au zaindu ta babesteko. Gazteotatik orain jausten da bat, gero beste bat; jausi orren odola, baiña, euskotar kimu barrien azi bipil.

Aberriaren alde burruka egiteak giz-urenak sortzen, giz-urentasuna barru-barruko sentipen zintzoak eraginda jagiten dan onereduzko frutua da-ta. Orrelakoa izan jatzun eusko gudarrien burruka: odola ixurtzerairio Aberria jagon. Ederto dirausku Lauaxeta-k:

«Dana emon biar yako
maite dan azkatasunari».

Olako gizurenak ez daukazuz mendian bakarrik, baita etxean, kalean, solo ta bide-kurutzetan be, konta-ezin ala etsai-lerkaiz zaurituak, illak, zutik dagozanak. Euzko amak, neskak be ama-guren Euzkadi salbatzearren. Umetxoak odoletan! Lauki tristeak! Oneik oroba, gerra opari santu, izkillu-ots, eriotz eta negar artean alkarri laguntzen diardue aspertu barik. Soñez soin, lubanetan, zelaian, kale estuetan etxeak eta espaloiak zaintzen dagiltzan gudariakaz bat eginda amak, emazteak, emaztegaiak, eta umetxoak... Danona da Aberria.

Odol ta negar Aberria askatu bear da etsaiak, izterbegiak ipiñi nai dautsozan lokarri zitaletatik. Etxetik jaurtiak garanarren, ez dogu on-artzen etsaiaren buztarririk. Zaarrak gazteai: «Txispaz armaturik, guztiok zutik».

15 ESTATUTOA

Estatutoaren edo euskal berjabetasun Araudiaren alde lanik zindo, gogor eta neketsuana burutu ebana, Jose Antonio Agirre,

orduan Getxo-ko alkate zana dozu. Naiz-ta jatorriz Bergarakoa izan, Bilbo-n jaio zan, 1904-3-6-an. Orduña-n eta Bilbo-n batez be ikasia; legegizona ta gaztetatik Ekintza Katolikuan sartu ta jarduna; 1931-an Errepublika etorri zanean Getxo-ko alkate izendatua, Getxo, Algorta ta Areatzakoa. Ori zala-ta, erriari eskerrak emon nairik, udaletxeko balkoira urtenaz eusko ikurriña goi-goi zabalazoz, itzaldi gartsua bota eban; domeka aretan bertan eta Gernika-n asi zan Estatutoaren kanpaña. Ba ekian erriak zer nai eban. Orditik berak eta bereak kementsu jokatu eben eusko Araudiaren alde.

Berak diño geroago: «Bizkaiko udaletxeetan beingoan aldarrikaturik Errepubliketa, ia guztietan Foru-legea ezereztu eban 1839-ko legea indarge izteko eskatuz, gure erri geienaren zantzua dan euzko ikurriña euren balkoietan dingilizka egoala, Euskalerrri osora zabal-aztea erabagi zan euskoak leeneratzeko mugimendua. Gernika-n antxiñako Zugatz sagaratuaren azpian egingo zan Batzar batera dei olan barrizaturik gure usuario politiku zaararen buru-jabetasuna» (Loc. cit. 5 orr).

Ez egoan lo egiterik. Erea ta abagunea eskura etozan ezker, lanari ekin bear ziztuan. Asmo au bertatik onartua jzan zan eta 17-an Gernika-ko batzar orokorrean, euskal erri osoa pozarren jauzika aurkitzen jakun. Ekintza oni asiera ta indarra geien-geienik ezarri eutson Madrid-eko gobernuak ordurarte zapaldua euki eban Alderdi Jeltzaleak. Onpean eukia, izan be, gertu egon oi da noznai buztarri doillora astindu ta zapaltzailleen mendetik urtetea, lanari gogoz ekiteko.

Arnas-une ak bizkortasuna eskatzen eban, erabagiak bizkor artu ta betetea, Tarteko barik lanera. Eta or Gernika-ko billera. Or baita etsaia be. Gorbeian izanik, Arraba-ko zelai ertzetako arkaitz-buruetan ikus al dozu iñoiz arranorik Zeanuri aldera begira? Saraskiren baten —ardi, auntz, zaldi naiz bei— zain dagoz, jakiz asetzeko. Antzera gure izterbegiak. Berealakoan asaldatu zan Madrid. Eta batzar egunean bertan an agertu ziran bederatu kamioi soldaduz ondo beteak, Gazteiz-tik Gernika-rako bidean, eguna urratzen asi zaneke; baita beste autobus batzuk be Bilbotik txapel-okerrez beterik. Eta ezertxo falta ez zedin guardi-zibillak eta soldaduak metrallakin erriko leku berezietan jarri ziran. Giro txarra, benetan!

Monarki egunetarik be milla eragin osotu zituan euskaldunak, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak baitik bat, euren burujabetasunari dagokion legedi berezi ta aparta lortu nairik, eta Espaiña-k beti ipiñi izan ditu zoztor ugari olakorik jadesi ez dagigun. Euskaldun eskumarrak zein ezkertarrak alkartu izan dira gitxi asko, baiña ezker-eskumarrak esku artu izan dabe bestaldetik guri ezer ez emoteko. Proba bat nai ete? 1917-an Bizkai, Gipuzko ta Araba-ko aldundiak Gobernuari egin eutsoen eskabide berezi-berezia, eta Romanones-ek batzorde bat osotu eben Euzkadi ta Kataluiña-rako buru-jabetasunaren lege-txosten bat gertatu egien. Kontserbado-reak, barriz, agintari jarri ziranean, torpillatu eben gauzea, oso osorik ixillazoaz. 1924-an beretzat artu eben Eusko Ikaskuntzak auzia, baita batzar orokor bat ospatu be, baiña Primo de Riveraren diktadura zala-ta, etzan ezer aurrera atera.

Bigarren Errepublikan gagoz. Ur bitan igeri ibilli zan, itzez beiñik-bein euskaldunen guraria beteko ete zanaren zera. Prietok, esaterako, 1931-ko maiatzaren 2-an, Bilbo-n, Mallona-ko illerrian, onela: «Gobernuko egintariak egiñiko eskaiñian arean agertzen da Euskalerriri bere eskubideak eta buru-jabetasuna biurtzekoa». Baiña Prieto be, ia bertoko egiña zana, egiñetan etzan miñez esaten ebana errez beteten euskuna; guda garaian batez be sarri agertu zan itz-jale.

Autonomiaren auzibideari urretik jarraitu ezkerok, sakosta itzala egoan Euskalerriak eskatzen ebanaren eta Gobernuak emon nai ebanaren artean. Iñoiz ez dabe begi onez ikusi espaiñarrak Euzkadi ta Katalunia euren buru-jabe izaterik. Espaiñarrentzat, zein gorria izan zein zuria, batasuna zaindu bear zan, eta beste edozein lurralde lez daukezan probintzi onein buru-jabetze ta olakoak, ames suster bako ta eritxi uts jakezan, eta jakez gaur be. Lupeztegitik ermetako landara erkiñak,

16 LANGILLE PORROKATUAK

Euzko Alderdi Jeltzalea izan zan, ez izan ezmezik, eusko burujabetasuna udalen bitartez, martxan jarri ebana. Getxo-n sortu zan asmoa. Urrengo egunean Getxo, Bermeo, Mundaka ta Elorrio-ko alkateak erabagi eben batzar nagusia etzan ospatu aitatu doguzan

eragozpenakaitik; udalak baiña bide erdi-erdian izenpetu eben agiri bat: Euzko Errepublika iragarri, munduaren aurrean berau eza-guteraziz.

Egin ziran Araudiaren len-lerroak. Or bada Estatutoaren aurre asmoa alkateek osoturiko batzarraren eskuetan; 1931-ko bagillaren 14-an gertatu zan ospetsu Eusko Ikaskuntzak buruturiko Araudia onartzea, geien-geientsuak bere alde emonaz autarkiak; arrezkero, Lizarra-ko Araudia deitzen jako oni. Madrid-era eroana izan zan onartua izan zedin, baita beroni indarra ezarteko 420 alkate ara aldatu be. Orduantxe ebiltzan Korteetan Konstituziño barria antolatzen, eta onen orri artean sartu bear zan gure Araudia erabat.

Batzorde bat sortu zan auzi au aurrera eroateko, 1931-ko abenduaren 15-an. Lau probintzietakoak ziran orretan lan egingo ebenak, eritxi danetakoak ain zuzen be. Etzan erreza aragitu hear zan lana; sarri esan oi da, euskaldunakaitik batez be, zenbat buru ainbat aburu. Etzan abertzale gure erri osoa, baiña abertzale ez ziranak be euskotartasuna zim¹ko lez eroien barruan, mamiña eukan eta mamiñetik eragiña sortzen, berezia aurreko urteetatik onantz.

Bazan emen zoztor bat. Ezkertar edo gorrirentzat gu, euskaldunok, zuriegiak giñan, Eleizeari ta apaizai geiegi itsatsiak. Erkalak ez euskuen begi onez so egiten. Eskumentzat barriz banatzaille giñan, Espaiña zatitu nairik genbiltzanak, ez eben gugaz ezer nai. Oneik lenengotan gobernuaz egon ziran zer jazoko be, gero umetxoek lez konfiantza artzen asirik, goberun ori laster porrot eginda jausiko zala-ta, euskotarren autonomi ames eta olako asmoetatik igeska asi ziran. Foruak barriztatzea obe zala iñoen. Estatutoari begira, ba, ikuspegi naiko zalantzazkoa.

Gai oni eutsi ta alegiñak erre ondoren, euskaldun udalak Iruñian batzar nagusi bat egiteko erabagia artu eben 1932-ko bagillaren 19-an. Izterbegiak aurretik Naparroa goi ta bee nastutzen jardunak ziran Estatutoaren kontra zabalkunde gogorra egiriaz. Botetara jorik, Napar erriak ez eban atera gobernuak eskatzen eban euneko ainbestekoa, eta atzera gelditu zan etsaian esku. Gero, 1933-ko abustuaren 6-an Gasteiz-en batu ziran Udalak batzarrean,

eta 1932-ko urrillaren 8-an eusko parlamentarioak Madrid-en izen-taturiko Batzordeak osatu ebana ikusi, aztertu ta oneritxi ostean, Udalik geienak bietza emon eben.

Erriak eritxia emotea, erderaz «plebiscito» deritxona, 1933-ko azillaren 5-an egin zan, Araba, Bizkai ta Gipuzkoatik 489.887 boz-emoille. Gobernuak eskatzen ebanetik 323.285 autarki emon bear ziran alde, beraz % 84,05 izen-arroldeko. Probintzika onan banan-tzen di_tu J. A. Agirre-k: Bizkaia: 236.864 (% 88, 44); Gipuz-koa: 149.177 (To 89,52); Araba: 26.015 (% 46,40). Azillaren 15-an Gernika-ko Batzar-Etxean egin zan autarki-kontaketa, ta ge-ro Madrid-era jo eben Estatuto onartua an izteko: eta abenduaren 21-an eldu zan Alkala Zamora, Errepublikako Lendakariaren es-kuetara.

Nekeak, zauriak, odola bear izaten da sarri gauza garrantzitsu bat aurrera eroateko. Labur, eusko Estatutoak izan eban bere kal-bario ez samurra. Udaletxeak eraturiko Batzardeak, Gasteiz-en era-bagi ebanez, Zumarraga-n ospatuko zan Batza nagusi bat, bertara deituak izango ziran katalan parlamentarioak eta napar alkateak. Asmo bikaiña. 1934-ko iraillaren 2 aukeratu zan ortarako. In-dalezio Prieto izango ziran billera ortako buru. Alan be pozak ne-garra ekarten: ara joiazan alkate ta ziñegotzi askok eragozpenak izan ebezan bidean, beste batzui ez jaken itxi itz-egiten; indarrez artuta egoan erri osoa, armadunez inguraturik. Biaramonean, jazo zanagaitik naigabea erakutsiz, udaletxeetako alkaterik geienak itxi zituen euran karguak, eta eurotatik 1.500 bat zigortuak izan ziran, baita batzuk giltzapetuak be.

Gobernuari ez jakon atsegin Estatua, Gil Robles berak Ko-vadonga-n esan ebanez. Prieto-k Bilbo-n egin jakon omenaldi ba-ten, onela: «Estatua danok nai dogu, ta itxaroten; egi biurtu-ko dala uste dot, au lortzeko nik neure arnasa eskintzen dot, neu-re arima ta neure espiritua». Berba ederrak, baiña ez izan uste geiegirik, Prieto-k ba ekian emondako itza jaten.

Azkenez be, ezin bestean lortutakoa da Madrid-etik eskuratu genduan Estatua. Txinpart-urtika gerrea, estu be estu Madrid eta inguruak. Ipar edo ego, an eta emen eraso-aldiak, tiro otsak, eriotza,,. Erkala larri, Iruxo-ri eskintzen dautsoe kartera bat, eta

Iruxo-k artzen. Baldintza birekin: Estatutoa onartua bazan eta Euzko Alderdi Jeltzalearen baimenik ba-zan, alderdi onena bait zan Estatuto ori. Alan eta guzti be, Largo Caballero-k eta besteak ez eben onartu nai izan.

Eta, azkenez, J. A. Agirre, Frantzisko Basterretxea, Ander Arzallus eta Jon Axuriagerra-ri esker, 1936-ko urrillaren 1-goan, oa batez onartua izan zan Eusko Araudia.

17 JOSE ANTONIO AGIRRE, LENDAKARI

Bazan ordua, ainbateko dantzaldi ondoren! Artea ta biotz-zabala bear zerbait jadesteko. Ortarako egoki-egokia zan Agirre; egoarri aundiko ta biotz-zabala, ta lanaren Janez, etxeratu egin euskun azken baten ain biziro opa genduan Estatutoa. Madrid-en, egia esateko, azken-azkenean be ez eben gogo onik agertu. Baiña Gipuzkoa frankotarren mende jausi zan eta arrapaladan etozan Bizkaia be iruntsi nairik, eta iskillu bako probintzi au beingoan izango zan arerioen erpa-artean. Etzan olakorik jazo Lezo Urreiztieta trebeak etsaien itxas-lerkai, bonba ta zoztor guztiai ixeka egiñaz, Hamburgo-tik bere ontzian ekarrirako ogei milla fusillei esker' Gizaseme erne onetxeri zor izan eutson Bizkaiak, Gorbei, Legutiano, Udala, Intxorta, Kalamu, Ondarru guda-lerro luze ori antolatu ta etsaiarj arpegia emoteko kemena ta adorea. Guda-tresna areik etorri ez ba'llitzaz, egun gitxitan azpiratuko eben frankotarrak Bizkaiko lurralde osoa.

Ezeren oker-jauste barik autor daikegu, Gipuzkoa galdua ta Bizkaia galzori ikustean, orduantex bakarrik bizkortu ziran Errepublikak gobernukoak Bizkaiari ta Gipuzkoari buru-jabetza emote, ra. Gogoz ezta be, barru-izua beartu zitun ortara.

Estatutoak berez bein-beiñeko Gobernu eskatzen eban, eta Gobernu orrek lendakari bat. Nor lendakari? Iñok artzekotan Agirre-Lekube'tar Joseba Andoni'k artu bear aulki ori. Eretxi ta ideologi askotakoz osotua zan, alan be, Euzko Jaurlaritza, ta egoki nunbait autarkiz aukeratzea. Olantxe egin zan. 1936-ko urrillaren 7-an, Bilbo-n, goizean eta lau maitan; leenengo maia Bizkaiko Gobernu Zibijlean egongo zan, Gobernadorea bera. au

da, Jose Etxebarria Novoa, buru izanik; bigarrena, Bizkaiko Al-
dundian, Errufin Laiseka, buru zala; irugarrena, Bilbo-ko Udale-
txean, Erkoreka-ren ordez bertako alkate zan Fermin Zarza buru
izanik, eta laugarrena, Bilbo-ko Auzitegian, Gipuzkoako Gober-
nadore zan Antonio Ortega, buzu zalarik.

Autarki emotea eguerdian amaitu zan. Eta egun berean, urri-
llaren 7-an, arratsaldeko 5-etan, Bizkaiko Gobernadorearen eta
idazkari zan Gregorio Ponzoa-ren aurrean, Gernikako Batzar-
Etxean batu ziran Laiseka, Zarza ta Ortega jaunak aukerakearen
ikerketa zeatza burutu asmoz. Leenengo maiak 15.951 boto emon
ebazan Agirre-ren alde; bigarrenak, 84.498 boto Agirre-ren alde
eta 100 boto Ramon Madariaga-ren alde (errepublikanua zan au);
irugarrenak, 106.011 boto Agirre-ren alde, eta laugarrenak, 85.011
bota Agirre-ren alde. Erabateko kopurua: Agirre-Lekube'tar Jo'
seba Andoni-k, 291.471 bota, eta Erramon Madariaga-k 100 bota.
Bizkaiko Gobernadoreak, beraz, Agirre oiukatu eban *Euzkadiko
Lendakari*.

Gisa onetako jazokunetan oi danez, txalo-ots ikaragarritz artua,
or datorkigu Agirre, zaldun gotor, agintariak eta erriak inguratua,
jentez bete-beterik aurkitzen zan Batzar-tokira. Arto ontan artzen
dau bere kargua. Baita antxe irakurri ziran gobernuan lagunduko
eutsoenen izenak be. Ondoren, danak jarraka zituala Zugatzaren
azpira aldaturik, ospe aundiz egin eban bere zin-itza, bere jura-
mentua:

*«Jaungoikuaren aurrean apalik
Euzko-lur .gania zutunik
Asabaen gomutaz
Gernika'ko zugazpian
Nere aginduba ondo betetzia
Zin dagit».*

Agirrek emen bere egitekoa zintzo beteko ebalaren ziña burutu
eban. Aurretik ba-eukan alan be beste zin bat. Begoña-ko
Andra Marjaren eleizan egiña. Agirrek bere eskuz idatzita dago
au, .Onela: «Oteunaren aurrean zin dagit zintzotasuna daukadan
fede katolikuarentzat, Elejza katoliku, apostolutar, erromarrari
jarraitu ta beteaz; zintzotasuna zin dage neure Aberri Euzkadi-ri,

eta beronen onerako eskiñia geratzen da nire bizia. Onen ardura izango dabe, ondoen deritxen neurrian, eta unean, Euzko' Alderdi Jeltzale edo Euzkadi Buru Batzarraren agintari bakar eta legezkoak. Orrelaxe zin dagit neure izate barru-barrutik Ogi-Deun Sagaratuan daukadan neure Jaungoikoaren aurrean».

18 ONDORENGOAK

Eusko Gobernua osotzen eben beste soin-atalen zera, itunez egin zan itxura danez. Agirrek artu zituan Lendarakiritza ta *Babesgoa*; *jaurtza*, Telesfor Montzon-ek; *Diru-zaingoa*, Torre'tar Eliodorok; *Zuzentza ta Kultura*, Jesus Maria Leizaolak; *Nekazaritza*, Gontzalo Nardiz-ek (Eusko Indarrekoa); *Salerosketa ta Ornitzea*, Roman Maria Aldasoro-k (Ezker-errepublikatar); *Osakintza*, Alfredo Espinosa-ak (Erkal Alkartasunekoa); *Lana, Ardura ta Komunikabideak*, Juan Toyos-ek (sozialista); *Gizarte Laguntza*, Juan Grazia-k (sozialista); *Industri-araia*, Santiago Aznar-ek (socialista); *Erri-lanak, Juan Astigarribia-k* (komunista alderdikoa).

Naiz-ta alboka ta irazezan lez esan, zuzentasunari berea emonaz, gaurko giroari egoki datorkio-ta, ondo deritxat au azpimarratzea: sei alderdi ez-bardiñekoak zirala be, leenengo euzko-gobernua aragitzen ebenen artean inportantzi aundiko eztabaida ta istillurik etzala izan. Ez gudatean, ez guda ostean.

Gizaseme mazala zan Agirre, biotz aund'koa ta sen bereziz jantzia. Jaurlari-buru izateak, ba, ez eutson buruko min aundirik ekarri; ondo ezagutzen zitun ingurumari eukazanak. Ori bera ezin autortu gerrako zeregiñetan. Une larrian emon euskuen Estatutoa; une larria izan zan guztiontzat. Bizkaia esiturik, eta Bilbo-tik berrogei bat kilometrorra geunkan arerioa, Bizkai osoa dragoi parreko iruntsi gurata. Eror-arriskuan, laguntza barik, Lezo-k ekarritako armakaz bakar-bakarrrik. Egia da, andik eta emendik pilloturiko kañoi, fusil, granada, kartutxo ta abarrekin azpiratu eziñak giñeala uste genduan. Laiño gaiñeko ustea!

Geroago eldu zan —egia au be— Errusi-tik etozala esan euskuen gudu-tresnazko kargamentu berezi-berezi bat. Espaiña-tik etorena zan, Errusia-n erosita. Kopuru au: 15 eize-egazkin, 5 kañoi

lodiera erdiko (11,50) —guk onei guda-oiñean kañoi astunak esaten geuntsen—, 15 tanke, 200 ametrail-tresna, 15.000 fusil, kartutxo oso gitxigaz. Leenengotan, berezkoa ta jakiña danez, pozarren gengan danok gudaroste errime bat osotuko gendulakoan. Gure poza ostera uts egin zan laster, euri-zaparrada ostean pozuetako ur-pustillak iduri.

Errusia-n egindako Curtiss eize-egazkiñak etziran txarrak; tankeak, barriz ajez beteak, gomazko gurpil gain ebiltzanak; itxura onekoak genduzan kañoiak, naiz-ta ekarren muniziño urriak iraun arterako baiño balio ez izan; txarto ebiltzan metrail-tresnak eta erdiak baño geiago lenen-lenengotik albora itxi bearrekoak; eta fusillak Krimea-n erabili ta atzera itxi ziranak.

Euskaldunak origaitik etziran kikildu. Estatutoa ta eusko Gobernua geunkanetik batez be. Arriskuak alkartu ta indar ezkutuz adoretu oi dau. Orrela orduan, eta nainoiz. Ez dakust aritik kanpo gerraldian gurekin ibilli zan G. L. Steer, London-eko «The Times» egunkariaren ordezkari zan jaunaren esana.

«Arro dira euskaldunak —diño— eurak euren burua, euren gauzak zuzentzen dabezan urteaz; zelan jagon erria, egiazko bake erlejiozko baten barruan. Askatasuna kontzientzi guztientzat, eta ezeukiak janaritu, zaurituak osatu zituezan; ezetariko istillu bage bete ta aurrera eroan ebezan Gobernuari egokiozan zerbitzu guztiak. Espaiña guztian erakutsi eben orrela erria gobernetako gai zirala. Besteak or-emen ilketak egiñik, langilleria izutu ta euren aberria arrotzai saltzen eutsoelarik, oneik giza-alkartasunezko loki sendoz lotu eben euren aberri txikia... Itxaron leikena da, nik uste, euren egitekoa aurrerantzean be arrakasta aundiagoz koroitua izango dala; baiña ezta errez izango euren jokabidea duiñago ta aintzatsuago izatea».

Zindo ta bizi jokatu eban Bizkaiak batez be guda egunetan, berea eban eta galzori aurkitzen zan lurraldea zaintzen. Arazo latza, ardura aundikoa nunbait Agirrek lepo-gain artu ebana. Baiña lagunduko jakon eroaten, negar, eriotz eta triskantza artean be lagunduko jakon. Lendararitza artu eban arratsaldean Bizkai osoa beragaz egoan.

A bai poza erion eguna! Bizkaia-ren biotz lez dozu Zornotza, zazpi bidek kurutzatua. Orduan ez baiña orain autopistaz bipildua. Ni gaur lez emen nintzan orduan be, Larreako blzitegi baketsu ontan, komentuko leio ertzean adi ta erne, Bilbotik Gernika-rantz joian agintari, alkate, ziñegotzi ta erri-jente xumez beteriko kotxe erreskada luzeari begira. Erletxe ta Boroa-n ba-zan txapligu ta turut-otsa, ctenbakoa! Zornotzak arrera bero sutsua egin eutsen. Txapliguak eta txapliguak, eta etenbako turut-otsa Arnabate, Ategorri, Katia eta Autzagane zear...

Ni leioan turubio, Gernika-ra joiazaneri eta Euzkadi osoaren barne-poza geiago ta geiago sentidu ta ausnartu nairik. • Eguzkia, didzitsu, beerantza joian azken izpiak Anboto, Oiz ta Sollube gorri-bizi lagarik.

Joan zan arrastia, joan barik: Birloratua geratu nintzan ni, joan etzanari begira. Gaur oraindik ak itxitako gozotasuna, iliezkortu nairik bizi naz. Arrasti aren gomuta, gozo ta bizi, neuregan darabilt.

19- ETA ZER IÑOAN ELEIZEAK?

Ez nasta, arren, gure gauzak erria adimenez eta biotzez irauli naita. Iru gauza berarizko dituzu Eleizea, eleiz-gizonak eta eleiz-tarrak. Eleizeari oiñarriak jartean Kristok onela: «Zu Kepa, aitzarri zara ta arri orren gaiñean jasoko dot neure Eleiza». Kristo da Eleiza ta Eleizaren buru. Eleiz-gizonak dira Kristoren Eleiz orretan ber-bertako zerbitzuan lan dagienak, ota eleiztarrak, azkenez, Eleiz orren atal izanik, Eleiz osoa, burutik oiñotara osotzen dabena. Labur: gaur Aita Santua buru, gatzaiñak eta eliz-gizonak zerbitzari bein-beiñeko ta eleiztar bateatuak elez alkarte ortako Kristoren artalde jator.

Lau-bost gizonak, arroputz, muker eta goizalek geienik sortu darioez istillu ta gerrak. Ixjllean al bada, nortzuk joko orretan dabiltzan, laster jakiten dalarik be. Bat utan Eleizea be naste orretako matazako biurtu oi dabe, beste batzutan berandu arte Eleizea ezta konturatzen zelako gertakuntzak dabiltzan bere inburumari, ixilka noski. Oraingoan, nik uste, antzeko zerbait jaro•zan, Eus-

kalerrian, Eleizea konturatu orduko sua naiko zabaldua bazterretan. Eta eusko alderdi politikuk, nora jo ez ekiela, ez-erabagi ta kolokan.

Arrigarri izan zan askorentzat Euskalerrria ain katolitu ta eleiztar izanik, gerran gorriakaz alkartu ta eskumatarren aurka burruka bizjan jardutea. Arrigarri jakon au munduari, eta Eleizeari batez be. Arek eta onek pausu asko emon ebezan euskaldunak zentzatu ta arma ilkorrak bide egalean itxi egiezan. Batikano-raiño be eldu ziran euskaldunen gauzaen barri.

Euzkadi-k ostera Lizarra-n onarturik geratu zan Estatutoaren arauera, zuzenean atonduko zituan bere gauzak, Aulki Santuarekiko ar-emonak. Beraz, onek oraginda, 1936-ko urtarrillaren 18-an, gau aldera, Erroma-n agertu zan eusko aldun eta kargudunak osoturiko talde bat, au da, sei aldun abertzale (Agirre, Iruxo, Robles Arangiz, De la Torre, Kareaga ta Landaburu), Basterretxea ta Eizagirre Auzitegikoak, E. B. B.-ko Doroteo Ziaurritz eta Egibar, E. B. B.-ko idazkaria, Ebaristo Etxebarrieta, Bermeo-ko apaiza curekin ebelarik.

Orduko naiko argi jakin leikean Erromak zelako erri gintzazan euskaldunok. Ez Eleizeari euskal odoleko santu aundi bi —Iñaki Deuna ta Xabier-ko Prantzisko mixiolari bikaiña— emon eutsotalako bakarrik, baita konta-ezin alako eleizgizon eta leka'me kopurua Kristoren fede-ereille or-emen ziarduelako be; baita orrez gaiñ, etsaiaren guzur eta jazarpenak egin-azota, ainbat idatzi ara bialduak ziralako be. Euskalerrria etzan komunista, orduko mamu bildurgarr'; katolikua zan bene-benetan: Sabin Aranek ez eban nai jaingo bako Euzkadi-rik. Eta oraingoan be euskaldunak, Batikanok berak dei ginda joiazan ara.

Otel Flora-n egozan ostatuz euskaldun bidalariak. Biaramonean, urtarrillaren 19-an, an irakasle egoan eta euskaldunai ainbat mesede egindako Ipolitito Larrakoetxea Aita karmeldarrak iragarri eutsen azken orduan Batikano-n joten eban aize orrazitua. Olako oztasuna idoro eban Aita Ipolitok ango diplomatikuen atrean. Aldakuntzak izan ziran azken aldiko ikertaldietan. Laterriko Idazkaritzara joan zanean Pacelli kardinalaz itz-egiteko baimena eskatu nairik, au erantzun eutsoen: «Kardinalak ez dau artu oi talderik:

beraz gureak be ezingo ebazala artu». Ezagutzen eban gaiñera auzia, Luis Bereziartuak bere egunean, bere izeko Biktoria Larrinagaren bitartez, eskuratu eutson ezkeru.

Aurrera alan be gureak, Pacelli-gaz, urtarrillaren 20-an Aita Santu izentatua izango zanagaz egon nai eben; Laterri Idazkari-tzaren bitartez, eta ara zuzendu ziran Agirre, Basterretxea ta Iruxo, Aita Ipolitok lagunduta. Pizzardo kardinalak artu ebazan, oso txeratsu; ak ba ekian ondo be oneik eroien asmoa. Onentzat, alan be, aurrena gaiñ etozan euteskudietako batasuna zan: Jainkoa lenen, gero Aberia. Batasuna otsegin, ez egoan besterik. Alperrik jardun eben aldunak esan eta esan, eta kardinala berean tinko. Ondo ikasia eukan erantzun bear ebana.

Gaututa otela ziranean, paper bat aurkitu eben an euskaldunak, urrengo egunean 11-etan Pacelli-k artuko ebazala iragarten jakena. Urtarrillaren 21-an, ain zuzen, euskal ordezkariak an egozan

zain. Etzitun artu, Ingalaterra-koerrege Jorje VI-garrena il zalako, ingles ordezkari-etxera dolu-miña agertzera joan bear ebalata, Otelera barriz be gure mezulariak, kexuz ta marmarka. Marmarrak alan be mututu ziran, arratsalde aretan bertan, Aita Santuaren gelari batek onela iñoan paper bat itxi eutsenean: «Ez biar, ez etzi, ez irugarren egunean, Aita Santuak ez dau iñor artuko». Margo nabar geratu ziran euskoak, ate danak itxi jakezan eta ez ekien zer egin. Zirudienez, mataza larria jarri eutsoen bertan jausi eitezan. Ixilka egin nai ebena, ango ta emengo egunkariak lau aizetara edatu eben. Trankart egiñik gure gizaseme zintzoak.

20 GURE GOTZAIÑEN JARRERA

Egia estaldu gurata bear bada, eder jaken fazistai eurak sortu ta aurrera eroien gerrea «santu» zala edieraztea, Saio biziak burutu zituan ori jenteari siñist-azoten. «Gurutz-guda» da autortzen eben. Eleiz-agintariak be bedeinkatua. Lenengo tiroak asi-barri, palankistak, erreketek eta margaritak Iruña-ko gotzaintegira urreratu ziran gerrera joateko ziran soldaduak eta abar, indar guztiak, bedeinka egizala Olaetxea jaunari eskatuz. Onek zentzun aunditan erantzun: «Ezin ditut bedeinkatu gerrariak, anai langillearen aurka doazalako, eta ori egin ezkeru, Eleizea kapitalaren zerbitzura

joango litzakelako... Nik ezin neinke aaztu gotzain-jantzi onen barruan Barakaldo-ko langille baten maon-soiñekoa daroadala».

Errez izan ez jakonarren, Olaetxeak zintzo jokatu ebala irakurten da liburuetan. Zuzenari eusten alegindu zan beti, Asieran apaiz-gaitegia atxilotuentzat eskatu eutsoenean, orren kontra agertu zan ausarditsu. Baita apaiz zigortu ta gaiñontzeko jazartuen alde be. Urrengo urtean, 1937-an, meza zaratatsu bat eratu eben matxiño-tarrak Iruña erdian, Gaztelu Plazan; Gotzaiña etzan an agertu.

Erri-gauzetan bere eritxikoa zalarik be, gizaseme egiaz arteza genduan Mateo Urrestarazu jauna, Gasteiz-ko gotzaiña, Alfonso XIII-garren egunetan izentatua. Zintzoeg¹a zalako bear bada, ara ta ona erabilia Errepublikara garaietan zein gudatean. 1936-ko garagarrillaren 25-an, Gasteiz-era eldu-barri egoan Millan Astrai-k, zer askotan apal-azo ta iraindu eban, olan lendik be lepo-gaiñ ekarren zama ez ariña gogorrigo biurtuz. Araba, Bizkai ta Gipuzkoan bera zan arimen arduradun, eta zati bitan bananduta alkar-joka egozan era ebiltzen bere ele²ztarrak. Eleiztarrok, baiña, militarrak gura ebenez gaiztetsi egingo ete? Gauza latza bene-benetan; abertzale naiz ostantzeko, ba-ekian arek Kristoren jarraile on-leialak zirana. Zelan, ba, eleiztarrak kondenatu? Eta agintariak orixe eskatzen. Ezpata biren arte, egoera larria...

España-ko Eleizearen buru zan Goma kardenal nagusia Nafarroan aurkitzen zan gerra astean; eta jarraitu be antxe jarraitu eban gudaldi oso-osoan. Belaskoain erritxoan egoan urak artzen eta ez eban andik alde egin. Atxaki polita nunbait susmo txarrak astintzeko. Ler-zori zan guduaz ez ete ekian ezer? Ez eban begi onez ikusten bertoko gotzaiñen jokabidea, ezta bizkaitar eta gipuzkoar erriarena be: ez joiazan oneik bere asmo ta eritxien bidez. Dana dalarik, artzain-idazki bat idatzi eban, «Non licet» izenez ezagutzen doguna, eta gotzain biali —Olaetxea ta Urrestarazu jaunai— emon eutsen izenpetu egien. Orduan Orreaga-n aurkitzen zan Olaetxeak, naiz-ta gogoz beste, izenpetu eban. Mugikak, geroago autortu ebenez, orduan ez ekian ziur idazki arek ekarrena.

Idazkiak au iñoan: Zoritxarrez, erraza bat-bereko anaiak alkarren kontra ziarduela burrukan. Bada-ezpadako usteak albora jaurtiz, politika litsak eta goraberak aztu ta erlejiñoaren alde jo-

katu bear zala. Lotsagarria ziñez, uste ta erlejiño batekoak, alkarjoka, mendi ta kaleak odolez gorritzen jardutea. Danok ez ete dogu Jainkoa maite? Zergaitik orduan alkar ilten? Onela zerua irabaziko ete? IGSiñez dot biotza, neure ardien itsukeria ikusita. •Ez ete gara ger'd geure etsai gogorrazak batu, komunista ta anarkistakaz? Ez; ez gaitez an orrelakoak izan, Kristoren jarraille zintzo baiño. Ezin daiteke etsaiagaz alkartu, zazpi buruko erensuge marxista danean bereziki. ene—maiteak, ezin daikegu olan jokatu. Neuk diño-suet: «Non licet», ezin gaitekez oian ibilli».

Menpetasuna zor jakon nagusiaren itzok gogoznartuz, Mateo jaunak be bere izena emon eban, eta 1936 abustuaren 6-an Iruñako ta 'Gasteizko gotzaiñak idazki ori argitaratu eben eleiz-barrutiko boletiniñtan.

Muxika jaunak, alan eta guzti be, asko sufridu bearco eban, ez eutsoen baketan itxiko. Mukerra zan, zarata geiegi ateraten eban, eta ixildu zedin, bota egin bear zan bere gotzain-aulkitik. Inguru txarrean bizi zan Mateo jauna. Fusilatuko ebela be uste izan zan. Erdiko bidetik jo eben etsaiak: kanpora bota. Gomak berak iragarri eutson atzerriratze ori, Cabanillas jeneralak orixe eskatzen cbala-ta. Jaime Berastegi bardin, etzan ondo ikusia ta ken begien aurretik. Eta urrillaren 14-an, Perez Ormazabal goterkiko buru itxirik, Irun zear erbestera bidean geunkan Mateo Muxika gotzaiña. Erroma-ra joaz, an egon zan luzaro Euskalerr'ra begira, mindua, pentsakor... Gero, an eta emen bizi izan zan. Azkenez Zarautz-en. Nik iru urtean —1955-56-57— emen zoriondu neban bere 'jaiotegte mez. Eta Eibar-en karmeldarren eleiza barriaren asieran, berak meza nagusia abestu ta itzaldia egin euskun, euskera garbi sutsuan. Itsurik egoan orduko.

Gasteiz-ko apa[†]ztegiko zuzendaria ta zuzendari-ordea be, irakasle askorekin, baztertuak izan ziran gurutzedunen alderako barne-su gitxitxo erakusten ebelako. Bikario jenerala, ostera, begiko jaken militarrai, euren esanera errez makurtzen bait zan. Beste lekuetan be atsegin ez jakezan abade ta eleiz-gizonak errez aldatzen zituen, baita gaztelerrirantza bialdu be angoak onantza ekarriaz.

† Kargu onak eukezanetat; k be naiko izan ziran aldatuak, Gasteiz-en eta- andik kanpora. Ormazabal-ek iru maillatan sailkatu zi-

tuan apaizak: lenengo «jagiak» orrela deitu, au da, abertzaletasuna agirian txalotzen ebenak; bigarren, zuurrak etozan, euren autu, alkar-izketa ta eritxietan abertzale agertu arren, zuur jokatzan ebenak, kontu aundiz ebiltzanak; irugarren, «Euzkadi» ta «El Dfa» irakurten ebezanak. Zigorrak: lenengoak goterkitik kanpora, bigarrenak parrokiak aldatu ta irugarrenak dei mergatzeaz zentzatu.

Euskaldunak beti izan dautse Eleizeari ta agintariai egiazko lotsa ta begirunea, tasun biok gaur-egun beeruntz joan diranarren. Euskal biotzetan, beraz, nainoiz sortu izan dau kezka menpetasun ori urratzeak. Euzko Alderki Jeltzaleak eta euzko Jaurlaritzak, ha, jazoten zana Erroma-ri adierazo nairik, Alberto Onaindia bialdu eben ara. An argiztekoa auxe zan: «Babes ete eikezan euskaldunak euren buruak paxisten aurka?», Pizzardo ta Caffana kardenalakaz egon zan Onaindia eta biak erantzun eutsoen moral-maillan euskaldunak ez eukela ezer zentzatu bearrik; politikan, barriz, oker egozala, gerrea galdu egingo ebela-ta. Batikanok untzean jo.

21 TIROZ ILDAKO ELEIZ-GIZONAK

Etsai lez agertzen zan gorrientzat Eleizea. Gerra aurretik eta bitartean zenbat onetariko jausi ziran! Nazionalak be ikasi egin eben joko ori; oneik be ezeren kezka bagarik il ebezan eleiz-gizonen artetik kopuru ederra. Gipuzkoan, sartu-ala askotxo garbitu ebezan or-emen. Goroago aitatu dogun Aitzol-ez gainera, beste oneik be matxindarren izkillupe jausi ziran, Mateo gotzain jaunak bere garaian biotz-miñez gogoratu ebazanak:

Jose Joakin Arin (1875-1936). Arrasate-ko artziprestea, 1911-tik. Eleizgizan artez zintzoa, Gipuzkoa-n eta bazterretan ondo ezaguna ta maitatua. Urrillean atxillotu, Ondarreta-n giltzapetu ta il ortako 26-an gabaz Oiartzun-go kanposantu ostean tiroz illa.

Leonardo Guridi Arrazola (Onati, 1896-1936). 1923-an apaiztua, Arrasate-ko abade-lagun, Ondarreta-n preso, eta urrillaren 26-an gabaz Oiartzun-en fusilatua.

joseba Markiegi (Deba, 1896-1936). 1926-tik Arrasate-ko apaiz-lagun. Dueso-n 1937-ko urrillaren 15-an fusilatutako Ploren-tzi Markiegi, Deba-ko alkate izan zanaren anaia. Ondarreta-n bai-

tua ta Oiartzun-go illerriaren orma ost an illa. Beronen anai-arrebetatik bi: Peli euskal idazle gozo, Argentina-n il zana, eta Aintzane, karmeldar lekaiamea, oindiño Amerika-n bizi dana.

Jose Inazio Peitagarikano Solozabal (1872-1936). Gerra sortu ta laster su biren erdian geratu zan Etxebarria-n jaioa eta berton arima zain egona. On Josek, babes-billa, Elgoibar-era jo eban, On Zelestino Onaindia-ren etxean ostatuz jarririk. Urrillaren 21-an, baiña, biak artu, Ondarreta-ra eroan eta 27'an gabaz Oiartzun-en garbitu ebezan.

Jose Adarraga (1881-1936). Billabona-ko semea, 1906-an apaiz egiña. Ernani-ko eleizatik bizi izan zan bertoko lanak egiñaz. Aitzol-ekin batera fusilatu eben, diñoenez.

Zelestino Onaindia Zuloaga (1888-1936). Markiña-ko seme ta Elgoibar-en arima-zain. Erriak maite ebana. Onaindia ta Peñagarikano biak Ondarreta-n, baiña biak ez ebezan egun berean **Joa**-kin Bermejo Andoain-go txauburu zanak diñoanez, urrillaren 24-an Onaindia ta Peñagarikano, eta bere gela bat-batean aurkitzen ziran; Bermejo jauna andik aterata be, beste biak an geratu ziran, Peña fusilatu ta andik egun bira Onaindia be su-skullutu ebela-rik.

Onekin batera eta egun berean, Errenderiko baserritar gazte ba_t il eben; gazte orrek, ostera, karta bat idatzi eban, emen aita-tzea merezi dauana. Onela diño: «Nere aita ta anai maiteak: Gu ola iltzea naiko zuan gure Jangoiko maiteak. Zuek ere ditxa on ba_t dizutela eman Birgiña graziaz beteak. Gure odolarekin garbi ditzala gure munduko kalteak. Agur egiten dizuet nere aita ta munduko lagunak. Bukatu dira kontatutako egunak. Munduan ez dira danentzat alako portunak. Emengoak utzi ta zeruan eitera noa ezagunak». Ondoren datoz legezko agur-miñak eta...

Jorje Elgeta-ko semea; Marin-en parroku. 1936-ko azorari atxillo ta illabete orren 7-an fusilatua. Marin eta Gatzaga bitarteko mendian egozan nazionalak, txarto ikusia zala-ta, Ondarreta-ra eroan eta andik laster tiroz il eben, Artikutze-ko bide egolean, antxe bertan lur-erotik.

Jose Sagarna (1911-1936). Zeanurikoa. 1936'ko bagillaren 18-an artu eban apaiztasuna: 49 gazte izan ziran egun orretan abadetutako ziranak, eta oneitatik sei zeanuistarrak: Jose Sagarna, Juan Añibarro, Eladi Agirre, Jose Etchezarraga, Leonardo Atutxa ta Maximino Gisasola. Zeanuri-n ospatu eban seiok euren meza barri jaia, bagillaren 28-an, Mateo Muxika gotzain jaunak lagunduta. Amaltoa auzunean, Markiña-tik 9 kilometrora fusilatu eban Sagarna, ango arimazain zale. 1936-ko urrillaren 20-ko goizean.

Alejandro Mendikute (1891-1936). Altzo-ko semea. Ernani-n bizi zalarik, Donostia-n kapellau. Gizon on baketsua. Ondarreta-n atxillo, baiña urrillaren 23-tik 24-ra tartean, gabaz, tiroz illa izan zan beste askoren antzera. Bere errua? Alako gizon ezagun baten kontra zerbait essan ebalako.

Jose Otaño Mikeliz (1898-1936). Mibibus-tarra, Tolosa-ko ko' mentukoa, Lerga-Naparroan jaiotakoa. 1923-an apaiztu zan. Organo-jotzaille errimean, Paris-en ikasi ondoren, 1934-tik Tolosa-n egoana. Euskera, umetan ez ekiana, ederto ikasi eban. Aita Otaño be, beste moltzo bategaz, Ernani-rako bidean fusilatu eban.

Martin Lekuona Etxabeguren (1907-1936). Oiartzuarra. On Manuel-en anaia ta au baiño 13 urte gazteago, Apaiza, 1932-an mezakotua. Araba-ko Musitu erritxuan leenengo urteetako arima' zaintza burutu ondoren, Donostia-n daukagu berealaxe, «Avasc» eritxon Kristau Gizarte Egintzaren euskal alkartean, Eleiz-barrutiak an eukan idazkaritza lanari emona. Gerra sortzen zala, Errenderi-n egoan JOC gazteen erakundeetan, Urr.11aren 4-an Ondarretara eroan eta 8-tik 9-rako gabean Ernani barruko Galarreta deritxon lekuko arrobian fusilatu eban. 29 urte eukazan.

Gerbasio Albisu (1871-1936). Errenderi-n jaiotako ta bizi. Gerbasio zartzarotumotuan eta Lekuona gazte langille, biak egien, guda sortuta be, euren oizko lana, apaiz jantzitan. Baiña egun batez etsaiak erri-jantziz jantzeko agindu eutsen, ete olen biak Ondarreta-ara eroan zituen, eta andik, urrillaren 7-an, gabeko 11 t'erdietan lez... Urrengo egunean, Ernani aldean, Galarreta kanteran fusilatuak izan ziran, antza,

Zerrenda its onen ildotik joan ziran beste batzuk be. Naparroan Pitillas-ko *Santiago Lukus Aranendia*, esate baterako bape errazoi barik il-azoak. Aita Erroman, karmeldarra, ementxe Larrako ortu-ostean tiroka illa, lenengo zatian aitatu dogu-ta, emen ez dogu sartzen, Gipuzkoa-n ainbat garbitu ebezan faxistak, Bizkaia-n ez ainbeste. Odol-egarri etozan Bizkairantza be, baiña etziran ausartu: munduak oi u egiten. Guda-zelai ta mendietan kapellau ibillitakoetatik eunez gora gintzazan arren, eriotzaz zigorturik etzan iñor izan, edo-ta iñor ez eben eurotatik fusilatu; amabi espetxez eta gaiñerakoak lan-arlor a bialduak izan ziran. 30 urteko zigorra leporatu eusten niri, eriotzea be merezi nebaia ozen esa eustien arren.

22 GUDARIEN ARIMA.ZAIRAK

Au egi-egiaz arira ain betetsu ez datorrela be, naiz-ta danok anai izan, lur-gaiñ bardiñean, etxe barruan ogia irabazi ta jan, aterpe baten bizi ta lo egin, euskaldunok Euzkadi-n lez, errazoi zabalagoz otsegin gengike benetako anaitasuna osotzen dogula. Eta etxeakoak etxeakoari, anaiak anaiari eskua emon ezik, noregandik artuko ete dau laguntza. Euskaldunak euskaldunari laguntasuna emonez, bada, giza-legea bere betetasunean osotzea besterik ez da.

Egiteko au, batez be, arriskuan dagoanari erakutsi bear jako. Eta gudan iñun baiño geiago somatzen da, eraso aldian arerioaren aurrean tiroka zabiltzanean, guda-tresnak esku artean dozuzanean, mendiz naiz bidez igeska zoazanean, bonba bat, granada bat, fusil bat eskuetan... Orduan bai guri emoten dauskula kemena norbaiten itzalak, norbaiten laguntzak.

Orixe da ur-samar daukazan apaiza, arnas emoille. Fusillik ez daroa, ezta pistolarik be. Espirituzko giltza daroa bere ixil-duintasunean, zuri gorputzeko ta arimako zauriak Jotzen dautzuzana. Eta, esan dot, anaiak anaia, galzorian atan be, bakarrik itxi ezinda, euskalduna berez saiatzen da premiñazkoari laguntzen. Eleizeak ez ditu, ez, bere semeak bertanbera lagako.

Gure gudariak asieratik ebezan apaizak euren artean, adore ta pozemoille. Orixegaitik auzitan epailleak guri leporatzen: «Zuek indar-azten zenduezan gudariak», Eta au pekatu larria jaken. Euskaldun gudariak eskatuta, beraz, laster antolatu zan kapellau-taldea: Loiola-n, Eskoriatza-n ba-daukaguZ gudari-jaupariak, gero Bizkairantza etorri ziranak.

Gipuzkoa ta Bizkaia tartean sei-zazpi illabetean frentea luze ta zabal —Motriku, Kalamu, Elgeta, Legutiano, Gorbeia— gelditurik egon zanean, astirik naiko izan genduan, ez gudarosteak bakarrik, kapellau-gorputzak be osotu al izateko. Olantxe egin zan: gertatzeko gengozala ain eroso bide egin eban etsaiari eutsi ta erasorako antolaketak burutu; gerrarako gazte pilloak moldatu ziran, batalloiak sailletan bananduz eta gudarosteko sail bakoetak bere kapellaua ta geiago eukan azkenerako.

Mezako ziranak eta oIndiño soldadutza egiteko egozanak, eta norbere gurariz ortarako arazoa bete nai ebenak, kapellau alkarrean emon oi eben euren izena. Mezako etzirenak, baiña abadetzarako edo prailetzarako ikasten ebiltzanak, edo gudarien artean gexo-zaintza, zauritu ta illen garraioa egingo ebenak, edo-ta aronako barri-ekarle ta egoala ziranak, er'kizun ori beteaz soldadutza egiten eben. Oni erabat bidaltza-gorputza eritxon; eta ementxe Larrako gure komentuan eukan bere egoitza nagusia. Eleiz-karretan ebiltzanak ez eben fusilik artzen,

Emen Bizkaian, J. A. Agirre lendakaria Babes-zaingoaren jabe egin zanean, ez gabetik goizera, baiña bai apurka apurka, bere jaur-edeia estutu ta nasaituz, egikizun danak obeagotuz joiazan; ezin daikegu bere asmoa bete ez ebanik esan. Probintzi onetan, izan be, naiz-ta gudatean bizi, egokitasun polita igarten zan. Orduko egoera jakin nairik, batzuk uste onez ta beste batzuk triki-mailluz, itandu izan dauste niri:

—Zelan jatekoz?

—Esateko goserik ez genduan izan —nik erantzun,

baserrian neukan oe apatzean biao gozoa, ordu betez edo, egiten neban geienetan. Lenengo egunetan gudari areik ainbat gauza eukezan niri esateko: oso luzeak zenduzan ipuin, izkirimirj, kon-tak zun guztiz gatz-ozpiñetan igurtziak.

Zugazti aretan erdi-gorderik gengozala ez genduan erasoaldi nabarmenik izan. Laburrak ziran egunak. Eguzkia beetik ebillen eta arrastian laster ostendu oi jakun Mugarra txuntxur ostean, on-doren odei gorri-baltz orizkak itxiz. Jagoleen aldaldia orduantxe, etsaiaren ezkutuz jakiña, urruntxu egoanarren, kontuz **bear** zan-eta; balak guganaiño eltzen ziran ezkeru, egunez joan-etorriak egitea ta gabaz argi-djzdzitsuz ibiltea, beti izaten jakun arriskutsu.

24 GUDARI ARTEAN

Nik egunero esaten neban mezea Sagasta-n. Gudari mordotxo etorri oi jatan, eta orreïn arteko durangar neure adiskide kutun bi. Gerran beti daukazu zerbait eta arriskuan Jainkoak emoten dautzu bear dozun kemena. Orrez gaiñera, Orduak be errezatzen nitun; salmuak eta ereserkiak ekarsten adorea, biguna ta ezitia ez-ezik, zuzpergarri bc ba jatan niri, egia esateko.

Goiz batean, neure otoitzak amaitu ondoren, baserriko atadian nengoala, ildako bat ekarri eusten. Zer jazo ete xan? Aurreko gau-aldian erdi jakitun ipiñi ninduen, eta olakorik ez egiteko bein eta barriz adierazo be egin neutsen. Baiña, tamalez, ez eben nik esa-na ontzat artu. Kirikiño taldean politikaz ideia ezbaridiñekoak asko ziran, abertzale-zerrenda danok izanik be: Mañari, Abadiño, Du-rango, Yurreta, Garai, Zornotza ta inguruetakoak ziran geienak. Ezta arritzekoa, ba, bildurrez, eritxi diferentez, naiz gerrako legeai gogor eritxirik, dudamudan egotea, eta gabaz, gengozan tokian naiko erreza zala-ta, bestekaldera igaro nai izatea. Asmo ori era-kutsi izan eban, itxura danez, luban-zain egoan gazte batek aurre-ko gabea eta bere asmoa betetako mobidu zanean, atzetik tiroz illa izan zan. Eriotz doakabe!

Bero egoan oindiño aren gorpua. Bizi ala il ete? Dudan azken onespena ta igurtzia emon neutsozan, illen otoitzak eta abar be egiñik. Gexozaiñak Elorrio-ra eratsi eben. Ni gazttxo ta experin-

txi gitxiko oraindik, sermoi garratz samarra bota neutsen an egozani, areik errudun ezpa-ziran be. Errubakoari sarri egotzi oi dautsoгу errudunari egozten ausartzen ez gareana. Beste bein be Basalgo-n, Elgetara kontuak eskatzen ekarren bategaz egin eusten beste ainbeste atxilo eroena, bidean

Gauzok lenengotan arrigarri jatazan, gero oitu egin nintzan olako gertakarietara be. Lan-arlo ta giro barrian aurkitzen ziñan. Aurrenik adore bako dirudi batek, aizeak darabilen osto barria bai litzan. Gero etxekotu egiten zara, lagunak aiña egiñaz; lenengo oskil, gero ausart, ez baiña iñoiz be larregi. A illa ekarri eustenetik, ni goibel ikus'az begirune geiago eustela uste neban, eta begiruneak maitasuna sortzen. Aurrerantzen uste osoaren lorea erne ta garatu zan guztion artean; uste osoz eta lotsaz erabilli genduan alkarren artean, ari ta oni milla itaun egiñik. Norbait atzeratu naiz bildurkoi ba zan, alakoari autsak kentzen geuntsozan. Ni neu ez naz bein ez bein damutu gudari arteko bizitza eroanaz. Lagun-artean bizirik asko ikasten da. Nigaitik ezin esan: «Txakurgoseak, ogia ames».

An etzan nagusirik ez menpekorik, danok bardin. Bat-edo-batek gauzak atondu bear, baita une bakotxean zeri ekin bear jakon be, adierazo bear; baiña goiz-goizetik ekian bakotxak egunaren luzez zer egin bear eban: orduak eta tokiak ipiñita egozan nok, nun, noiz aldaketak egin eta eundu. Kontuz jokatu, alan be, zauriturik, eriotzarik gertatu ez zedin, Inguru atan egindako illetan ez neban ortan lan aundirik izan.

Umezarotik izan naz ni mendizale amorratu, eta guda-lerro aretan billakatuz be, giputz-lurralde zerdaiñetara begira, izan neban nun birikiak aize ozkirri garbiz ase-bete. Eta bazkal-ostean bi edo iru lagunekin, Gaztelumendi ta Intxorta aldera joaten giñan, inguruko lur, muiño, troka ta zapal-unak ezagutu ta arakatzera; baita bide batez Saseta sailleko metrail-tresna ta eurok erabiltzenak ikusi ta agurtzen be. Au lau-bost aldiz egin genduan. Eta bein Lauaxeta-rekin.

Ikusi nebanez, zail eta nekez izango jakon etsaiari leku areik irabaztea, odol-ixurtze ikaragarri barik beintzat. Sorkalderantz begira, troka sasitsuz eta mendixka gaillur ez-errimez inguraturik

gengozan; ez etsaiari, ez guri eziña jakun aurrerantza ariñeketa aundirik egitea; alkarri ortzak erakutsi ta eutsi bakar-bakarrrik, iru illabete luzean. Bergara-tik bai obusak etozan, mendi-bizkarrak sendo eusten eutsenak; egazkiñak, Arrasate aldetik ixil-ixil urreraturik, noizetik noizera okada ziriña ixurtzen euskuen; ez baiña arri kutsua, ez bait ekien gu nundik genbiltzan. Asentzio mendi gaintxokoai eder jaken naikotan aurrera naiez saioak egitea, baiña Intxorta-n geunkazan gure ametrailladoren suak laster uxatzen zituan. Alperreko kuku-urtenak zazpi illabete ta geiagoz.

25 EZBEAR BAT

Gudak berez dakartzu arriskua. Bakean eta biotz-ixuri gu, baiña goiz batean or naigabe latza, erio urbillaren ego-ots zurbilla.

Zabaleta-tik deia, joan nendilla ara arik ariñen. Azkenetan aurkitzen zan gazte bat. Igande ta jaietan nik meza emoten neban basseria zan, eta an nintzan arin be arin. Ezbear bat. Basetxe zabal onetan gudari pUloa bizi zan, neguan batez be. Goiko ganbaran fusillak probetan ebiltzazalarik, bati ez jako ba fusilla erauzi, zikirri-makarra ta ardura aundirik bage ibilli zalako edo, ta balea beeko sukaldean jokuan ziardien gudarietako bati gorputzean kokatu jakon, biotz-biotzean kokatu be. Iltzeaz aurkitu neban autoritu ta azken sakramentuak emon neutsazanean, baiña andik laster izan eban gaixoak azken arnasa. Elorrio-ra eroan eben gezozañak. Itxuraz ederra ta alai zan; ez neban alan be, urduri bait nengoan, nungoa zanik jakin.

Urrengo igandean, andik iru egunera, gazte lerdan aren arimearen alde eskiñi neutson meza santua jainkoari. Etzan makala izan nigaz oparitan alkartu izan ziran gudari gazte arein biotz-zauskada: intziri-otsak entzuten jakezan ez gitziri. Olakoetan bai otoitz samur benetakoa Goikoari eskintzen jakona! Urrengo astean, arratsaldeko seiretan, egunero Errosarioa eskiñiko geuntson gazte ari. Arek eta onek guztiok batera, iñok be utsik egin bage, polito bete genduan egindako agintzaria.

Olako ezbearrak eta alkarren arteko alkarri gurazko alegiñak errez samurtu daroaz giza-biotzak, eta are geiago guda zelajan edo txabolan, nagusiak bestekaz naste, erreguka lez iragarten ebezan

euren aginduak. Manda-zainak egunero jasten ziran Elorrio-ra noizik-bein Durango-raino, janari-zaingoa emen geunkan. Ni be b.i-naketan oneikaz jatsi oi nintzan, mezatarako ogia, ardaoa edo beste zer-edo zer ez neukanean. Beeruzkoa bitxabaletik egin arren, goruzkoa astiroago Gazeta auzunetik izaten zan nire bidea; neure senide batzuk agurtu oi nebazan emen eta gero tapa-tapa zidorrez zidor, txori-kantuz alai, Sagasta-ra. Au amar aldiz.

Otsaillez ba-dakigu gauak luze. Ango txabola ta aterpeetako gudariak, astia pasa, zer askotaz eskolatu naia erakutsi eusten: alkar-izketa ta itzaldi batzuk eratu ta egin nengiezala, eskatu eusten. Nik ezin ezetz esan. Astean bertan asi nintzan gura ebenai, erea eukenai ta ur-samar aurkitzen ziranai berba egiten. Alkar eskolatze atsegiñak izan genduzan; eurak jarri oi eusten gaia... Aina-_{ba} astetan jardun genduan orrelaxe, gaur itzaldia ta biar alkar-izketa. Gai jakingarriak, uzkurtzari ta aberriari buruzkoak: «Gure Aberria», «Gure lurra», «Sabino Arana», «Zergaitik guda au?», «Anaiak anaien aurka», «Gerra zuzena?», «Zer zaintzen dogu?». Lurra, etxeak, sendiak, guraso ta anai-arrebak... Oneik ziran geinetan areik eskatu ta nik azaltzen neutsezan gaiak.

Domeketako mezatan ariltzen ziran gaiak be etziran ez-entzun egi-en ziranak. Ez dakit beste gudari-taldeekin zer jazoten zan, baiña nik neure ardurara neukazanak beintzat erakusten eben ikas-guresa garai aretan. Egokiena iduritzen j:tan irakurgai edo Ebanjelio zatia azaltzen neutsen, alik eta sakon arg:en. Irakurgaiok, autor-tu daigun emen, barruko jakinduriz eta arnas-adorez aberatsak eta oparotsuak ditugu, ainbat gauza oar-erazo ta gogora ekartzaille doguzanak.

Orduan latiniñez izaten zan mezea, Nik euskeraz, al giñoen garbi ta ulerterrez, adierazten neutsezan azter-gai ta morapillorik asko, burrukarako be goi-janarjz asetu ta indar-azo egiezan euren gogo ta arimak. Adin askotako mutil gazte2tan, neure bizitzan, ez dot somatu orduan an beste ikas-gura ta zaletasun esaten jakena entzun, alkarren artean eztabaidatu ta ausnartzeko. Urrea dozu aldia, ta gulk geure barrua lantzen darabilguna urreago oraindik. Onetan ez nintzan ni bakarrik: emen geunkazan, besteok beste, On Migel Kañizal, Kirikiño-ko ta Ibaizabal-go kapellau zana.

Zeregiñok bete ondoren be nik ba neban astirik. Zetan erre oi neban? Ni umetatik izan nozu liburu zalea. Gorputzak lez ari-meak be jatekoa bear, eta irakurriaz gogoa janaritzen. Nik astirik ba neban, libururen bat neukan eskuetan. Eder jatan aro aretako —negua zan— izadiaren billoztasuna, soiltasuna ikuskatu ta ausnartzea. Eder jatan baita izadi soil orrek, izatea arrotuz, barne erne azoten eustazan pentsamentu ta zauskadak paperean marratzea be: «Euzkadi»-n eta beste aldizkarietan agertzen dan legez, ainbat lan idatzi neban bertsoz eta prosaz gudarien jaupari ibilli nintzan birtartean. Urte aretan (1937) Arana-Goiri'tar Sabin-en omenez Bilbon ospatuko zan Olerti-Jaira, ospakizun ori egin etzanarren, nik bialdu neban frentetik neure olerki lana.

26 ZORITXAR AUNDIA: JOSE MARIA KORTA IL DA

J. A. Agirre-k askotan salatua, txoillo bat zala Oviedo-ko moltsoa. Bizkaia-n bertan lar zeregin geunkala Madrid-etik arako eskatzen euskuen arako laguntza barik be. Jardun eta jardun askatu eziña zirudian korapilloa, araxe bialdu bear zan naitaez euskaldun jentea. Egia: gero aurak be, asturiastarrak —guk kaltegerria izan jakuzala esanda be— guri laguntzera etorri ziran.

Dana dalarik ara joan jakuzan gudari talde batzuk 1937-ko martxoan. Oneik adoretu ta barruz indar-azteko kapellau batzuk be bai ara alditu ziran. Ara joan zan beste batzukaz Intxorta-n, gure a'damenean, inguruok babesten egoan Kandido Saseta bere ametrailora taldeaz, eta ara joan zan Jose Maria Korta Uribarren, kapellauen burua, Enrike Arriaga apaiza lagun ebal. 38 urte eukazan Korta-k, Bilbo-ko San Bizente eleizan abeslari ta organu-jotzaille zanak. Beronek sortu ta eratu eban Euzko Gudarosteko Kapellautza, lenengo nagusi bera izanik. Bere ardurea betez ara egin eban jona'etorri baten. Oviedo-k inguruko guda-oiña ikuskatzen ziarduala, balak jota il zan 1937-ko martxoaren 18-an. San Bizente elizan ospe aundiz egin ziran aren omenezko illetak. Ni be an nintzan, Elgeta-n genbiltzan eleiz-abadeokaz batera.

Azken agur beroa zan erriak egin eutsona. Euskaldunak ona-koetan erakutsi oi dau nor dan bera ta nor maite dauan biotz-

biotzez. Gran Via-n zear, uiol bat zirudian jentetza; erditik, musika soiñu itsak lagunduta, Korta-ren gorpua eleizarantz, Lerro luzean buru, Agirre, Euzkadi-ko lendakaria, Zuzentza, Kultura ta Diruzaintzako kontseillariak ezker-eskuma ebazala. Gerran eta bakean Kristoren fedea itzez eta egitez barraiatu ebanari, Aberria egunez egun zintzo autortu ebanari lagundu bear jakon, otoitz eta kantu, azken egoitzera.

Azken-agur onetan parte artu eben, jakiña, Eusko Alderdi Jeltzaleak, Eusko Gudarosteak, guda-oiñean ebiltzan kapellaurik geienak, ainbat eleiz-gizon, lekaiame ta eleiztar, adiskide ta mundu guztiak igarri eban Oviedo-n jausitako apaiz leial gartsuaren omenez, kale ta eleiz-barru, azken-agur bikain bioztiaren dardara. Gu aren irakatsi ta adorez beterik biurtu giñan Elgeta-ra. Aren sua itzali bage iraun azo nai genduan errian lez gudarien biotzetan.

Korta jaunaren ordezkari ta ondorengo lez Juan Jose Agirre ipiñi eben apaiz kapellauen buruzagi. Elorrio-ko semea, «Padura» ta «Ibaizabal-go» kapellau izana Azkeneraiño jarraitu eban onek bere buruzagitzan, El Dueso, Nanklares, Dueñas eta Carn-lona-n giltzape egonik. Gero Jerez de la Frontera-n bete eban luzaro arima zaintza. Azkenik, Bilbo-tik Enkardaldera joiala, ixtripuz il zan 1975-ko begillaren 28-an, Gizaseme zintzo jatorra. Nik errazoi berarizkoz maite neban, El Dueso-n 1937-ko abustuaren 28-tik 1938-ko martxoaren 29-rarte, juañ jose, Eujenio Larrañaga (13:ok Elorrio-koak) eta nik, lan, lo ta jan alkarregai, egin gendualako.

27 SASETA BE JAUSI ZAN

Geure lurra ez-ezik, geure lurra bai obeto zaintzearren, nagusien agindua betez, euskal mutil erneak burukatu ziran Asturias aldean, kementsu be kementsu. An geratu ziran batzuk illik «Ama-yur» eta «Ariztimuño» saillekoak, Trubia ta biran, bipil ta zangar Euzkadi jagoteko beti gertu egozanak. Eusko gaztedia bear lekuan jokatzeke nainoiz prest eta biotz aundiko. Zapalketa ta buru-jabetasun, or lerro bi, or etsaia ta erri-zaintzaillea, buruz buru.

Zaindu, abertzale, izterbegiaren joan-etorri ta ingurumariak. Or lubanetan gure gazteak, an naiz emen beti ernai ta gertu; or le-zoin eta Iuban (parapetu) gaiñez gure esaben ezpiritu zarra arnas-jarioka. Begoz dizditsu odol-potzu ta zuloak goi-deiez.

Gudari maiteak, gora begira mendian jausiak! Asturias-ko mendi egalean jausi zan —esan daigun bai— bala batek eratsita. Kandido Saseta, gudari jator-jatorra, leenengo unetik Euzkadi alde bizi ta kementsu agertua. Neure ur jokatu eban aberri alde, astur-lurraldera orduko. Emen ez eban, Elgeta aldean, arrisku aundirik izan, baiña an jausi zan Euzkadi-ra begira. Biotz-zirrara izugarria somatu genduan aren eriotza jakitorduan. Ezagutzen neban eta adiskide giñan bein Lauaxeta ta biok, Gaztelumendi ta Intxort gaiñez txango atsegiña egin ostean, aren lurpeko egoitzan, agaz eta lagunakaz, izketaldi luze interesgarrian murgildu gintzazanetik. Orrela il zanean, biotza asazkatuz, antxe Sagasta-n «Saseta il da! » deritxon olerkia, sentipenez gaiñezka, eskiñi neutson. «Euzkadi»-n dator. Onan diño:

«Oi, jausi zara, jausi, Saseta kutuna!
Gaurtik illen arteko egiña zaitugu.
Aizea baizen arin da an-or edatu
zure eriotz miñaren il-izpar ertuna.

Leiatsu maite zendun euzko Aberria,
ta Aberririk urrin, oi! , jausi zara.
Betikoz, jausi zara, leñargi antzera;
biotzak ez nai ziñets, baiña da egia.

Izkillots atergea, lurrak dart oinpean,
sua, kea, garra, gudean gartsuki;
giza gurenak letxe ereiñoz bekoki
jausi zara azkenez etsaien aurrean.

Erbeste-lurraldetan emon izan dozu,
euskal lurra begira, azken arnasia;
baiña azkatasunaren lora apain-guria
ementxe jaioko da eder, naro, txairu,

Biotzean min dugu, Saseta maitea,
biotzean min dogu, begian negarra;
samin-uluz daukagu laztan dozue lurra,
errai-dardaraz, izu, euzkotar mendia.

Uso zuri-otzana basoan egazka,
biotzak samin-eunaz dituzu estali.
Baiña zu ego zuriz, arranoa iduri,
argi-itzal eziñera aldatua zara.

Atsedean, bai, atsedean betiko argitan,
barne-muiña eresiz, go'-argiz adiña.
Beukozu azken бага zero-atsegiña.
Laster gaituzu gu be, or, goi-alde ortan».

Ur la lur, geurea odola ixurita be za¹ndu bear dogu. Inguruan dogu etsaia, geurez jabetu nairik, baiña «begiak zur, biotzak bero, olantxe dagoz Euzkadi'ren semeak. Etsaiak etorri datorz, baña lotan ez gabez aurkituko. Otxandiano! Izen onek gomuta bixiak burura dakarguz. Antziñako aldi areitan, be, Muxjka eta Abendano, oñaxtar eta ganboatarren buru agiak alkartu zaran, eta Otxandiano zear etorren arerio españarrari emon emonak egin outsezan. España'ko erregeak berea artu eban».

Or-emen eusko-semeak jausten dira españar iskillu mende. Gaur be arma otsak datoz Araba aldetik, eta kañoi-durundiak. Or gazteak, naiz-ta iskillu barregarritz, etsaiari eusten; ez dira kikiltzen, ez dira koldartzon, «biotzak adorcz daukez, Aberri miñez. Euzkadi'ren izenak aboetan daukelarik guda-oñetan sartuko dira»,

Zur danok «etsaia geure lurrean dogun arte, Otxandiano'ko torre-puntan dagozanak eztira etxeratuko. Eta etsaiak berein bada, zer egin ba-dakie Amandarro'ren semeak egin ebena. Odol gorri ta gaztez zelaiaak busti, azkatasun lorak bertan erne da itezan». (*Gudari*, 2-garren zenbakia, 12 orr.).

≈ DURANGO ERRE DAUSKUE

Durango, aintxiñako erri ta gizaseme aundien sort-leku! Etsaiaren baitan etziñan ondo ikusia; lekuz ta jentez atsegiña ziñalarik

be, etsaiarentzat etziñan olako. Eta goiz baten zuziturik itxi zinduzan; 1937-ko epaillaren 31-an ondamen ikaragarritan errea izan ziñan, eriotza ta zauritu ugariz beterik.

Ibar laua Durango-tik Bilbo-rakoa, etxe ta landaz jantzia; Anboto ta Oiz, Mugarra ta Bizkargi, Aramotz eta Lemoatx ezkereskuna dituna. Bilbo beretu nai Mola-k, eta Elgeta-n, Otxandio-n eta Gorbei aldetan geldi egozan fazistak emendik igaro bear naitaez. Ortarako lenengotik, Durango birrindu ta izu-ikara zabaldu nai eban inguruetan. Aitatu ogunean sekulako negar-samiña izan *zan* ibar baketsu ontan.

Urkiola gaiñez urreratzen ziran airekoak, Mola-k bialduta. Fasisten zerbitzuan egazkiñak ziran, orduan, aurretik eta gero be, sarrri bizkortu izan dira gure erri maite onen kaltetan. Umeak, zarrak eta emakumak il dabez oraingoan, apaizak eta mojak ainbat, eleizak eratsi dabez eta komentua, etxeak deuseztu, kaleak zelaitu ta bideak troskatu, erruki gabe; amairu doixtar egazkin dantzatu ziran euren arrete zital doilorrean.

Iru eleiza ondatu ebezan eraso-aldi onetan: Santa Maria parrokia, Jesuitena ta Santa Susanakoa, zazpi t'erdia oindiño etzirala, eleiztarrez baterik egozalarik, meza'emoilleak gure Jauna emoten ziarduala, meza entzuten egozan geienak, arri-bakar, aga ta ondar artean obiratuak izan ziran. Paportua geratu zan Andra Mari eleizea, barru ta kanpo, orma nagusiak ezik beste dena. Jesuitena bardin, meza birtartean Aita Billalabeitia ta eleiztar asko il ziran. Santa Susana-ko komentuan, barriz, momentu atan koruan otoitzari emonda egozan lekaimeetatik amabi il ziran.

Ez da errez orduko illen kopurua jakitea. Gipuzkoa-tik eta etorriak naikoa aurkitzen ziran bertan. Zenbaketa zeatza egiñikan 127 bat izan ete ziran esan oi dogu, bonbaketa izugarri aretan jausitakoak; 150 lez Basurto-ra eroandako zaurituak eta illak. Zaurituak 300 bat edo.

Onegaz etziran naikotu, antza danetik: apirillaren 2-an be beste orrenbeste egitera itzuli jakuzan. Durango-ra jo eben ostera be aleman egazkiñak bigarren *raid* batean, Durango ta inguruetan bonba ikaragarriak jaurtiaz. Aizearen egoz esan gengike, laster

edatu zan gaiztakeri 'onen b -rria, mundu guztira edatu be. Bilbo-n aurkitzen ziran enbaxadore, arrotz; izparkari ta eleiz-gizonek bizkor aratu ziran triskantza siñist-gaitz ori euren begiz ikusi ta neurtu nairik.

Gaizkiña ixillazo guraz ainbat guzur zabaltzen as zan. Fran-kotarren zerbitzuko portugaldar irrati batek, guzur-jarioka, sekulako esanak zabaldu zituan irra kulunka uñez: sozialistak eta komunistak egiña ei zan Durango-ko sarraskia. Queipo de Laanos jeneral barritsuak, barriz, onela iñoskun Sevilla-tik: «Durango-n militar leku garrantzitsuenak zuzitu dabez gure egazkiñak, baiña gero komunistak eta sozialistak, apaizak eta monjak eleizetan sartu-azoz, onejk erruki bage fusilatu ta ondoren eleizak be su-emo-naz erre egin dabez».

Goiz atan ni o ñez Zaldibar-tik .Elgeta-ra niñoian. Santa Ageda ermita ondotxotik ondo nekusazan egazkiñen jirabirak, lenengo egonekoak ain zuzen. An jausi zan Berriz-ko nire koñetu baten anaia be, babesle uste eban orme lodia gaiñ etorri jakolako. Iru-garren egunean Durango lerkaiç ereiñik zearkatu eben egazkiñak Elgeta aurreraioñ eltzen ziran burrunbost gaizto ankerrean.

Apirillaren 5-an, kotxean etozan bost aleman egazkinlari arrapatu ebezan Otxandiano-n; ezin ukatu izan eben dongakeri aren egille ziranik.

Igaz (1987), berrogetamar urte geroago, Bilbotik deia bagillan. «Otxandiano» gudarostekoena zan: egun areitan egunak pasa Lekeitio-tik etorri ta Durango-n aurkitzen zirala, bonbaketan 15 gudari il jakezan. Arein gomutaz meza bat nai eben bagillaren 21-an.

Muiño gaintxoko kanposantuan, zugatz-ondo baten kerizpean, orduan ipiñitako plaka polit bat dago gaur be, jausitako arein oroia iraun-azten dauskuna. Bizkai guztitik, baiña Bilbotik batez be an batu gintzazanak ez giñan gitxi izan. Antxiña samarretik urtero egin oi dabena: Illobi aurrean «erresponso» bat abestu, ondoren mezea Jesuiten eleizan, eta euskaldunen artean oitura danez bazkari galanta batzokian. Ni ez nintzan bazkaritan geratu, egun orretan Zornotza-n, eta Larrea-n batez be, ospatzen zalako «Ibillaldi 87» eguna. Labur, gomutapen bikaiña eleizakoa naiz kanpokoa gudari erne leial arei guk eskiñitakoa.

29 GUDARIEN BIZI-MOLDEA

Guda-oiñean ez gengoan beti tiroka. Aldia, denporea —ingle-sen aoz— urre dala-ta, astiz aurkitzean, au da, etsaiari begira zain-tzarik egin bear etzanean, izketan, irakurtzen, izkirimiriak kon-tatzen, idazten edo garbiketan emoten genduan denpora. Onetaz iñoren esana be aintzagarri dogulako, ona egunokaz «Gudari» al-dizkarian Atzueta gudal-saillean ebillen «Olabeagatarra»-k idatzita irakurri dodan pusketa jakingarri au. «Geure edestirako» diño egi-leak, eun ta ogei egun guda oiñetan.

«Euzkadi —idazten dau— geure Aberrijak beti, antziñatik, ixan dauz arerio anker-ankerrak. One itatiko amorratuenak ixan dira guda ezeskari au sortu dabenak. Euzkadi il zorijan aurkitzen zala-ta guda irrintzija entzunik, euzko gaztedija Euzkadi'ko tontor gus-tijetara igon zan izkillubak eskubetan dabezala.

Guri be eldu yakun zorija. Aberrijaren bixitz ta eskubideak aldeztuteko gudari geyago biar zirala-ta Euzko Gudarostera etorri gintzazan Zueta Gudatsailla izenaz alkarturik. Aldi gitxi barruban gintzazan guda arazuetan, Gudan biarrezkuak diran gauzakaz be guztiz ederto ornidu gindubezan. Gerturik gengoan.

Nora eruango gaitubez? Marmar asko entzuten ziran gudal-etxian. Ixen asko eltzen yakuzan gure entzumenera: Markina, Le-keitio, Elgeta, Otxandiano... bardin yaku; edonora juateko ger-turik gagoz.

Azilla 18-garrena zan. Lekeitiko'guda onera bildaldu gindube-zan. Gabeko amaiketan, belbil andi ta zaratatsu batzubetan urten gintzazan lelengo aldiz guda oñera. Ez gengoan koldartuta, ado-retsua baño. Espan gustijetatik abesti aberkoyak urteten ziran; gu-dari arpegi gustijetan alaitasuna agertzen zan. An, guda onean, zer aurkituko dogu? Eztakigu. Ezkara ixan iñoz. Aberrija aldeztuten guazala jakitia naikua dogu.

Lekeitio, Anakabe, Itola, Asterrika: Ara emen lau illabete ibilli garan lekubak. Zelako gomutak dakaskuez ixen oneik geure go-gora! Zergaitik esan ez? Geure lelengo egunetako bildurra, be-runbil txistuba dala-ta, geure dunbots bota biarra; ardura aundia-

gaz parapetotik buruba apur bat atara ta dana ikusi naya; erreke₁a ta paxistakin itz egiteko gogua... Laster oitu gintzazan beste ora batera ibillirik.

Lau illabete ixan gara toki oneitan. Era gustijetako aldi ta uniak igazi doguz. Batzubetan artega ta larritsu berunbil ta sukargak dirala-ta. Bestetan artetsu, gentza aldijan. Eurija, aizia ta otza be jasan biarrian ixan gara sarritan guda oñean tinko gengoan artian. Eguraldi ona be egin dausku.

Gomutetan dozube, guda adizkidiak, ze atsegintsu ixaten ziran illunabar gustijak? Txabola barruan danok batuta, geure egunoroko agurtzan Zaindari onena dan Ama Neskutza'ri; euzkerazko irakaspena; gure jardunak, abesti aberkovak... illunabar gozuak.

Eun ta ogei egun igazi dira. Santxo Eiztegi, Sabin Atutxa eta Txori-Erri gudaltsaiñakin alkartu, ta Gudaloro bat egin dogu. MUNGIA Gudalorua.

Alai ta abestika juan gintzazan, ta alai ta abestika etorri gara. Danok? Ez tamalez. Mungia Gudalorua be ba dauz beren ziño-pak, Galindez Urrutia, Atxalandabaso eta Elorriaga'ren odolaz, Anakabe, Itola eta Asterrika'ko guda-oñak gorritu dira. Beste gustijok, zorionez, Aberri-egunan geure etxietan aurkitzen gara, atsedan aldian. Aberri eguna! Egun gomutagarri onetan Begoña'ko Amaren oñetan gagozela, opari ta agintza bat il diranen goguen aldez otoa; bestijok, «Jaungoikua ta Lege Zarra» elburuai eutsi».

Auxe genduan guda-zelaiian genbiltzen guztion b:otz-giro zintzo leiala.

30 KANTAUARI-N ODOLA

Zein Kaukaso aldetik, zein bereber kiskaldutik, Europa zear emen agertuak izan, zein Atlantida ondakiñak izan, edo-ta zuzen antzera Kromañon azitik bertan erneak izan, bizileku eder-ederra egokitu jakun euskaldunoi. Lurra zer janez, leen eta orain ez urria, eta itxasoa, gure Kantauri, aberats arraiñetan. Bien irrikaz dabilkigu etsaia.

Euskaldunak osteraren egunak ibilli biok zaintzen. Itxasaldean burrukatu zan eusko ontzidua miretsi ta goratua izan zan bere garaian; eta gaur be, zuzenbideari dagokionez, ba dira ortaz diarduen liburu egilleak,

Guk ez geunkan ez gerraren asikera ez gero garrantzi aundiko guda ontzirik, *destructor* b' izan ezik, *Jose Luis Diez*, bere buruzagia —etoia bai zan— emendik ara ixillean igeska ibiltzen jakuna, eta *Ciscar*, ondatzaillea; ontzi biok, egia esan, gudazale exkax eta bizimodu alai zaleak, eta gure ekinari erantzuteko ezer egin ez ebenak. Eusko Gobernuak bein eritxi batez erabagi eban ontzi biok ezusteko erasoz arrapatu ta mariñel jente zintzoz orniduteko. Olaxe egin zan 1937-ko maiatzaren 31-an Manuel Galdos eta Alejo Bilbao ontzi bi areitako buru jarririk.

Canarias, amar milla toneladako kruzero etsaia, barriz, gure itxas-barru zabalean ebillen jirabiraka, Ondarru-tik Asturias-erako itxas-bazter guztia zaintzen, inguruetako erriak, Bilbo batez be iskillu, janari, jantzi ta besterik sartu ez eiten. Gure ontzi txikiak aregaz neurtu bear ebezan euren indarrak. Lau ziran oneik: «Bizkaia», «Gipuzkoa», «Nabarra» ta «Donostia» eritxen bouak. «Nabarra»-k ainbat bider lagundu bear izan eutsen Baiona-tik Bilbo-ra jentez eta janariz etozanai; baiña 1937-ko martiaren 4-an, bere Benedikta ditxoak laga ta «Bizkaia», «Gipuzkoa» bakaillau ontziakin e_ta «Donostia» bouarekin alkartzeko deia artu eban.

Eta or laster estuasun larri-larrian, «Gipuzkoa» batez be. Zelatan jarritako «Canarias»-ek Bilbo ta Santander-era iskilluz ta munizifioz beterik etorren «Mar Cantabrico» estoniar bapor Yorkbrook atxillotu eban, eta «Gipuzkoa» igesi joiala, Alejo Bilbaok zuzendutako «Bizkaia» Yorkbrook-egana urreratu ta au Bermeo-ra ekarri eban, «Canarias» Gipuzkoa-ren atzetik ziztu ikaragarrian joian bitartean, Burruka latza beingoan. Galdos-ek uste eban, zearka jorik, elduko zala Punta Galea-ko babesera. Itxaski larria egonagaitik, «Canarias» kruzerruak, indarka, laster ixil-azo eban «Gipuzkoa»-k bere muturrean eroian kañoia. Bost gizon ziran burrukaldian, «Gipuzkoa» naizta sutan Abra-ra eldu zan azkenez, «Canarias» Yorkbrook-en billa arin joiala, Epaillaren 5-ta zan,


Lakiotik iges egindako pizti antzera joian «Canarias» bidean aldendu jakon Yorkbrook-en billa, baiña bidean aurkitu zitun «Galdames», «Navarra» ta «Donostia». Ilario Urriz Etxebarrieta-k, Galdames, 173 pertsona ta guda-tresna baliotsuz beterik joiana atzemon eban. Gero, «Donostia» etsai txepeltzat etsiz, «Nabarra»-gaz neurtu nai izan ebazan bere indarrak. «Nabarra»-ren kañoiak etziran eltzen etsaiaren alboraiño; onenak, barriz, ondo eltzen ziran, eta joko erreza izan zan beretzat etsaia menderatzea. Deintziria ara ta ona laguntza eske. Etzan eltzen laguntzarik. Itzul-inguruka; ariñeketan. Ondar bardiñakaz etzan jokatzen. Nare ta baketsu, barriz, itxasoa. Ordu beteko burrukaldi latza.

Atzenez bake-zapia jaso eben «Nabarra»k eta «Donostia»k. Aurretik, baiña, rnurziar komandante Moreno-k: «Ontzia urpera entregau baiño leen, eta azpiko balbulak zabaltzeko agindu eban. Itxastar adoretzu au ta lenengo ofiziala zan Sarasola lekeitiorra an ondatu ziran. Beste ogei gizonak «Canatias»-ek preso artu ta Donostiko Ondarreta-n egozan laster espetxeko. Eriotzara epaituak izan arren, Frankok, euren egintza txalogarriagaitik eriotz-zigorra deuseztu ta 1938-ko azaroan azke itxi obazan. 1979-ko epaillaren 5-an, jazokun arrigarri oneen gomutaz oroigarri bikain bat ipiñi zan Matxixako-n.


Eusko Itxas-ontzidiaren jokabide, kemen eta ausardia ez dogu izan iñoiz be bear aiñan goratua, ez lumaz ez miiñez. Lau bakaillu-ontzi ziran kañoi batzukaz, «Araba», «Bizkaia», «Gipuzkoa» ta «Nabarra»; 5 bou, «Donostia», «Gasteiz», «Iruña», «Iparreko Izarra» ta «Goizeko Izarra»; 24 dragamiña, 1-tik 24-rako zenbakiakaz, amar gizenez orniduta. Eta beste untzi laguntzaille batzuk.

«Jose Luis Diez» eta «Cizcar»-en jokabidea, ostera, iguingarri izan zanik ezin ziñaike ukatu. Lenengo Cabo Quilates-ko ilketan izan zan, ondoren beti arpegi illun agertzen zala; azkenez, 1937-ko bagillaren 14-15 ganan etolkeri asko jazo ziran, biak ba Santander aldera zuzendu bearrean, Frantzi-ra iges egin eben.

Bestelakoa dozu «Bizkaia» ta «Gipuzkoa»-ren jokabidea: abus-tuaren 5-an Santoña aldera jo ta ango uretan, «Gasteiz» eta «Iparreko Izarra»-gaz batera, ikurriña eratsirik, Euzkadi-ko guda-on' tzien buruzagien eskuetan jarri ziran, zintzo ta menpeko. Geroago,



Gudarien jaupariok
gaiñeko txamarrari josita
erabilten genduan ezaugarria.
1936-1937.



- | | | | | |
|------------------------|-----------------------|-------------------------|-------------------------|-----------------------|
| 1. Jose Sánchez | 15. Vicente Stlinz | 29. Mariano Ereño | 43. I. Arechabaleta | 57. F Sagarraga |
| 2. Antonio Partida | Emilio Pardo | 30. Bernabe Acha | 44. Eugenio Larrañaga | 58. J. Antonio Loinaz |
| 3. J. Jose Aguirre | 17. Claudio Monreat | 31. S. Villanueva | 45. Estanislao Agn.rrre | 59. Santiago Onaindia |
| 4. Gregorio Fernandez | 18. Germn Michelena | 32. F. Zorrozua | 46. Victoriano Larragan | 60. Damitin Celaya |
| 5. Luis Aguirre | 19. J. Pio Jthiregui | 33. Daniel Torrónategui | 47. S. Traspuesto | 61. Jose Domingo |
| 6. Vicente Batiz | 20. Santos Arana | 34. Ratael Urionagniena | 48. Manuel Ramos | 62. Fermin Goti |
| 7. Eugenio Legarra | 21. Carmelo Antorna's | 35. Ctindido Nogueras | 49. Ezequiel Guisasola | 63. Roman •Jeuregui |
| 8. Primitivo Urtaran | 22. Manuel Ortuzar | 36. Jose Sesma | 50. Nazario Sarasola | 64. Enrique Arriaga |
| 9. Victor Aldatua | 23. ùlstor Marañen | 37. F. Marcuerquiaga | 51. Juan Marquiegui | 65. Domingo Aguirre |
| 10. A. Dañoibeitia | 24. Manuel Llad6s | 38. Lino Aquesoto | 52. Luis Prieto | 66. Cavetano StInico |
| 11. Aquilino Ayerdi | 25. F. Barrenechea | 39. Gregorio Fernandez | 53. Manuel Rosal | 67. julio Ugarte |
| 12. J. Aldecoa-otalora | 26. Angel Aldatua | 40. Honorio Urp,oitia | 54. Angel Iturbe | 68. RamOn Ortuzar |
| 13. jose Lopez | 27. Angel SUnico | Saturnino Ganchegui | 55. Federico Orbea | 69. Justo Atucha |
| 14. Modesto Arana | 28. Julian Besteiro | 42. juan Zabaleta | 56. J. Dañoibeitia | |



Karmona (1940). 12 apaiz, espetxeko
larrin itxian. Ni lenengo, azpiko
leen-lerroan.



Bost karmeldar Karmona-ko
espetxean; goian, Lino Akes31o;
beian, Gotzon Iturbe, Santi Onaindia,
Bautista Legarra ta Sebastian Atutxa.



Aita Santi, beratz baketsuan irakurten



Zugatz, baserri ta eleizatxo



«Otxolua» Saria emon ondoko itzaldia,
Mundukfl-n.



Sariak emon ostean, izlari



Otxandio-ko Udal-aretoan, 1987.



Donostia-ko Urgull-mendiko jauretxean,
Felix Pankorbo ta Urzainki andereñoa
ezkondu ziranean.

abustuaren azkenetan Santander eta urrillean Gijon jausi ziranean, «Bizkaia» ta «Gipuzkoa» Frantzira joan ziran, «Gasteiz» eta «Iparreko Izarra» Santoña-n geratzen ziralarik. Aintza ta Aintza gure itxas-gizon bipillai!

3 1 ALDAKETA. POESI-LEIAKETA. «AMAIA»

«Saseta» eritxon metrail-saillak, Oviedo-n il zan Kandido-ren anaiak zuzenduta, gure ondoko Intxorta magalean jarraitu eban etsaiaren aurrez aurre. Gora aundikoa zan izan be mendi au Bizkaia zaintzeko. Orrez gain, aurrera jo naiez geunkan etsaia zirudienez, txakurraz kirikiñoa lez andik eta emendik zirikatuz. Gure nagusiak, beraz, Elgeta inguruak gogoi•ragotzeko asmoz: Intxorta bera, Ubera ta Basalgo bide, luban, gordeleku ta babeskiz obeto onniduteko lan neketsua ekarren.

Ango ta emengo gudari taldeak be tokiz aldatu egiten ebezan. Gu, goiz baten, eguna argitu orduko, Sagasta bazterrak itxi ta Zabaleta ta Partatxi-tik zear Elgeta-ko eleiz-ondora ekarri ginduezan eta and k Ubera-ra, Elgeta ta Bergara bitarteko baillarara, zeazkiro, Arantzeta auzunera. Emengo basetxeetan egokitu giñan. Goian geunkan Elgeta, beian Bergara; ezker, mendi-besango aldapatsua, Azkonabieta-n asi ta Basalgo-raiño luzatzen zana; eskumatik, Asensiño mendia, naikoa ur, etsaiak gorde-zuloetan gu noiz arrapatuko begi-erne geunkazana. Arriskuz betea egunez ibilli ezker, eta gabaz, nasai ikoti egien alderdi biotakoak. Ez egoan, ba, alkarri laztanka egoterik, au da, zuur jbilli bear zan narrua jagon na j bazan.

Esana dot, alan be, bildurrari muzin egin bear jakola, guda-zelaian bereziki. Guk beintzat ementxe gengozala ospatu gendun 1937-ko Aberri-Eguna, alai ta gaingirotan ospatu be. Arana-k gogoratu euskun, aspaldi aazturik geunkan egia, au esatean: «Euzkadi da euzkotarren Aberrija». Guk, batzuk sustraiak lez lurpe ta ixillean lan egiñik eta beste batzuk iskilluz geure mendiak zaindurik, Euzkadiren alde, geure Aberri jazartuaren alde lan dagigu. Guk, ementxe, Ubera-n ospatu gendun egun gogoangarria, guztiok

anai lez alkaturik, guztiok biotz bateratuz geure naigabe ta pozak, geure otz eta beroak, baita geure bizia be bene-benetan euzko Aberri maiteari opaetsiz.

Au ere aipagarri da. Gerra denporan egonik be, ez geunkazan aaztuta kultur gauzak. «Olerti Eguna», adibidez. Aitzol-ek gogotan erabillen VIII-garren Olerti-Eguna Bilbon Arana-Goiri'tar Sabin-en omenez ospatzea. Il eben tolosar jatorra, baiña aren asmoa *etzan* ilgo. Euzko Gudarosteak, Aitzol-en omenez ospatuko eban egun ori, 1937-ko maiatzaren 30-an. Iru sailleko lanak eta baldintzak aurreko urteetakoak izango ziran. Lan guztiak maiatzaren 15'rako epai-maikoen eskuetan egongo ziran. Nik Fika-n nengoala azur-aragitutako 13 estrofa ditun «Aberri eder» deritxona bialdu neban. Norbaitek, gero, esan eustan: «Gerran eta olerkiak egiten?».

Atzeko gudariak be, ots, Bjlbo-k baitik bat bear ebezan zazta-da batzuk adorea ta morala jaso ta bizkor-azo zedin. Ortarako erabagi onez Guridi-ren «Amaya» antzeztu zan Arriaga teatruan. Ederto! Askotan barriztu oi da edestia: oraingoan be bai. Teodosi ta Amaia-ren egunetan galzorian aurkitzen jakun Euzkadi. Orduan lez gaur be arrotza kementsu jagi da gaztedia aren bizia ito nairik dabillen ausartia zigortzeko. Orduan lez gaur be, beioaz etsaiak gure lurretik...

Elgeta zaintzen egoan Martiartu batailloko kapellau Aita Ramon Olasagarre karmeldarrak, dei egin eustan, ia lagunduko neutson «Amaya» ikusten. Eta an giñean biok beste askoren artean. Ekiñaldi ikusgarria Matilde Zabalbeaskoa-k (Amaia), Gabriel Olai-zola-k (Migel **Pepita Enbil (Amago** a), Pio Ulaiza-k (Teodosio Goñi), Asier (Andoni Kortaxarena-k) gazteak emon euskuena. Gau atako ixuri-aldi gozoa, udaz itxas-egalekoa lez etorkigun guztioi, baiña batez be guda-zelaian Aberria jagoten indarka genbjl-zanoi. Istoriak ba-ditu bere makur-une ta itzul-inguruak, eta erre-pika egin oi pitean pitean, gauza edo jazoera bardin samurra era-kutsiz bere larrosa biribilla. Drama liriku aundiaren garaian lez, gitxi gorabera, aurkitzen gure erria. Aintzatsu agiri zan gure kon-daira. Ta ordukoen kemenak adoretzen ginduzan gu. Arriaga-n ospaturiko gau-teatru gogoangarri aren ondoren, pozik biurtu giñan Elgeta-ra.

Urrengo gau illun baten gorago joateko agindua arturik, ara igon genduan. Mendi-bizkar gaintxo a be naikoa urre aurkitzen zanagaitik, etsaiagandik noski, nasai samar genbiltzan gu goitik beera ta beetik gora; antxe iraun genduan apirillaren 25-an andik bo, a ginduezan arte. Azkonabieta-n geunkazan guk kañoiak, Bergara-rantza lerkaiak bota ta bota; besterik, barriz, Intxorta-ra ta ona etozan alderriko bonbak, gaur mee samar eta biar amorru bizitan: alkarri ez eutsoen, itxura zanez, kalte aundirik egiten, ekin eta ekin egundo ixildu ez arren. Egazkiñak be —gureak ez, etsaienak baiño— sekulako zaparradak sort-azo eroiezan; bazkaloste baten baita iru gazte il eta amar bat zauritu be egin euskuezan.

Azkonabieta-tik Elgeta-raiñoeko lubanak eta inguruak «Martiatu»-k jagoten ebazalako, gu Basalگو-tik bizkarrerako tartea zaintzen genduan. Naiz-ta lo Basalgon egin, sail auxe zan neure ardurape neunkana. Muiño kaskar baten ostean gengozan Osintsu ta Bergara gaintxoan; etsaiari ez jakon errez gu ikustea. Asentsio mendirako bidea aurrezaurre geunkan, frankotarrak bertantxe egonik, Gure arteko bat edo beste, gau baltzari esker, igaro jakuzan arein artera. Iñoizkoren baten, jaiak zirala-ta, doai ta esku-erakutsiak alkarrekin trukatzera be eldu giñean. Truk-egite au toki askotan burutzen zana genduan: alkar ilten genbiltzen arren, anaiak ez ete giñan? Au adierazteko ta mendi-bazter areitan zabalteko, ba-genduan beste joko bitxi bat: ara ta ona ebiltzan barri-emoille edo enlazeak mintzogaillu ozen bat jarri eben muiño ertzeko areitz-tantai gaiñean, ausarditsu. Aurrez aurre egozan nartarrak batez be, mendi luzanga a zaintzen ebenak. Apal-ondoren arei itz-egiten geuntsen ozengailuz, orduantxe gure gudari saillera etorri zan Jose Luis irisarri'k erderaz eta nik euskeraz. Olantxe aste bete ta geiagoz. I xildu giñanean, zegaitik ez genduan jarraitzen itandu euskuen; atsegin jaken, antza, gure gau-txandako ekitaldia.

Alderdi ontan illabete edo zerbait geitxoago geroian, noizik-bein etsai egazkiñak ikertu arren, gozotasun argarrian. Legutiano, Elosu ta Otxandio aldetik, orraitino, gogor samar joten asia zan areioa; Otxandio ta Olaeta lautadea artu ta aurrerantz egin naita ebillan, egunerokoak iñoenez. Anboto aldetik, Saibigain, Urkiola, Aramaio, Udalaiz inguruak arein mende jausi zorian aurkitzen zirala. Intxorta kukutzak eta atze-aurreak gero ta latzago astintzen

ebezan; gau ta egun obusak eta egazkiñak, eriotza ekarrenak, sutan jarten ebezan bazterrak, eraso ta birrindu aspertu barik, dan-dana mazpildu ta erre nairik. Zantzuaren gaiztoa! Laster ziran gure gaiñ be. Gu ez gara, ziur, ort'k emendiko ta ez gaitu edozek bildurtzen, baiña oraingoan astiñaldi ederra gaiñ datorkigulakoan gagoz, nagusi ta mendeko danok egon be. Zaku barru asmetan, eta bernai eragin naita be, urrintxu. Orduan ez genduan aurreko gauetan lez adarra joteko gogorik.

32 ATZERA BEARRA

Gaitz sarri indartsuago danari agiñak erakutsi ta eutsi al izatea. Bizkai ta Bilbo zaintzeko giltzak ziran Elgeta ta inguruak. Zazpi ba, illabetez antxe egon zan etsaia, aurrera jo eziñik, geldi ta muker. Egalok egon be naiko babesturik egozan, eta ez jakon erreizango aurrera egitea. Baiña alboetatik jota gu itxituan artzen ba'ginduezan?

Paul Beldarrain Olalde, 1908'an Bilbon jaioa, gudari kementsua zan, eta gudarien zuzendari trebe. Elgeta'n ezagutu neban nik lenengoz. Gero, orduko gertaera, eraso-aldi ta zeaztasun guztiakaz, liburu bikain bat argitaratu eban, idazpuru onekin: «Los asaltos al monte Intxorta» (1936-1937), nik titulu onekin «Intxorta mendiko Burrukaldiak» ain zuzen, euskeratua. Liburu onen sarreran onan diño Beldarrain'ek: «Martiaru Batailloak, 1937'an, bere Taldeakaz Elgeta'tik Zabalamendi'ko zelaitxoraiño, Partaitxi bideari jarraiki, zabaldurik, bide onen makur-une edatua, Intxortalde osoaren giltz eta ate benetakoa zana, babestuten eban batez be. Oiñezko Euzko Gudarozteko beste izen ospetsu batzuk be esku artzen dabe igikizunean, jorralleko erasoaldietan zaintokia babesten lagundurik, Kirikiño, UHP, Dragoiak, Saseta, esaterako. Aiztu barik, jakiña, 1936'gneko Urrillean toki berbera oldarki aldeztu eben Arana-Goiri eta ia euren kasa ziarduen Konpañi ta taldeak.

«Beste errazoi bat da Intxorta'ko burrukaldiak Euzko Gudaroztearen aldezkoak izan zirala. Euzkadi'ko gudarozteko gudartalde ez-bardiñak ibilli ziran zaindoki menditsu artan, euren illak

eta zaurituak izanik, baiña babes-lerro arok ez eban atzerantz egin, eta 13-2.rtanbera itxi bear izan zan etsairen biribilkako igikuna ta joan-etorriagatik.

«Interesgarria da baita gudariak 36'gneko Urrilletik 37'gneko jorraillera egin a¹daketa ikustea. Gudari-taldea, bakarkoa, ezkutatuz doa, gudarozte barri bat ernerik. Baiña izkillu-tresnatan, etsaiak daukazanaren aldean, gitxiagotasun izugarria dago gurean, eta batez be agintariak eta lauki egokira eratuak palta jakuz.

«Bestaldez, 37'ng. jorraillego erasoaldiak guda-sorki barria erakusten dau Euzkadi'ko gudian ordurarte, funtsean beintzat, Europa'ko 1914-1918 bitarteko gerran erabilli ziran izkillu, bide ta igurdiziakin baliatu izan ziran. Baiña Intxorta'ko ekiñaldian argi ta garbi agertzen da liskarra asi zanean bertan erdi-ikusten zan eragille bat; elbide lez egazkiñak erabiltea, gure jazotakoan egazkin-aurkako eta eize-egazkin bako arerio baten aitzia erabilten diranak. Lerkai (bonba) erasoetan, sutunpa ta kañoi-tresnen lagungarri lez erabilten asi zan egurats-iskillua, eta eizekoetan su-iskillutzarren osagarri bezala. Orrez gaiñera, s̄kologizko eragille kezka-tua sartu zan».

Onez gaiñ guk au esan bear: Guda-zelai garantzitsua izan genduala Intxorta. 1936'ko urrillean, Bizkai aldeko egintza ontan, ementxe jarri ziran bekoz beko oiñezko giza-talde bi, bata, euzkotarra, ozt-oztan eratuta egoana, baiña moral aundiz ornidua; bestea, arerioa, askoz bulartsuago ta obeto eratu, ibillaldi luze garaipentsu baten ondoren, Intxorta-ra etorrena. Luzaro iraun eben aurrez-aurre, joaldi laburrak egiñez, baiña beti laku bardiñean.

Oraingoan, ostera, atzera eragin nai euskun, Bizkai osoaz jabezteko asmoz. Egazkiñak eta obusak lan iraunkor eta neketsua egin eben Basalگو, Ubera, Elgeta, Sagasta, Kanpantzar ta inguruak erre ta kiskaltzen Azkonabieta, Intxorta-gaiñak eta Elorrio iruntsiz aurrera jo gurata. Ementxe asmatu zituen lenengotan gai barriak ota saio barriak be, egazkin jardunean batez be, geroago Europa'ko gerratean eta erabilliak. Intxorta'k sabelean gordeta eukazan metrail-gizonak ezin atera izan ebezan egazkiñ eta obus-bonbaz.

Orduan mendi-egaletan gordetako frankotar banako aundi batk eta euzkotar gudarozte gizonoz eta izkulluz urriago zanak, ez

eukien lotsarik alkarregaz indarrak neurtzeko. Orrela egin eben lenengo burrukaldian, zazpi illabete zirala, baiña oraingoan garai-penaren itxaroak ez eutsen euzkotarrai orren gogor irripar egiten: etsaia maltzurki Udala'tik sartu ta Intxorta'ren atzekaldetik Eloorria'rantza joian. Egoera larria! UHP Kanpantzar aldera, Martiartu ta Saseta, Elgeta ta Intxortan eta Kirikiño Azkonabieta'tik Basalgo'raiño. Amunategi geunkan Eibar eta Soraluze gainean.

33 JORRAILLAREN 25

Goiz laiñotsu. Ni Basalgo-n lo egin ondoren, Azkonabieta azpiko lau-unerantz urten nintzan. Domekea zanez meza emon bear an inguruko gudari guztientzat. Amarrak etziran ondiñokarren. Etzan ezer ikusten, lee-laiño itsuak bait eukazan inguruak. Lanbro-tantaka pago-adar ostoz jantzi-barriak. Etzan zantzutxarrik, etzan ezer agiri, etzan ezer entzuten, dana zirudian baketan. Zelaira nintzaneko an egoan gudari moltzo bat eta onek lagundurik, alboko txaboletakoak urreratzen jatazan bitartean, altarea eratzen asi gintzazan. Ixillune izugarria!

Meza asterakoan, baiña, bat-batean ixil-miesa etenik, gaizkin, deabru ta mamu guztiak alkar artuta gure gain ba letozan, iskanbilla adierazo eziña! Tirotsa besterik etzan ezker-eskuma; aurretik, atzetik eta zearka tiroak eta dunbotsak... Etzan deus ikusten eta eskerrak bee-laiño zarratuari gorde genduzan geure buruak sasi, txapar eta piñu artetan. Ez ginduezan ikusi bear bada.

Luzaro gu gorderik. Ez, ez g'nduezan somatu. Saio antzera lez, itsumustuan ekin eutsoela emoten eban; urrean aurkitzen zirala edo, erakustearren nunbait. Gure kañoi lekutik eraso bizi laburra egin ostean, Eibar'erako bidea itxi ta ezkererantz artu eben itxura zanez. Elgeta inguruak gureak baiño interesgarriagoak jakezan. Laiñoa etzan urtu eguerdirarte. Gu bada-ezpadan ixillik. Martiartu zan Elgeta aldetik... Ez genkian angoen ezer. Ezkerreffk, an beean, Amunategi'koak. Laiñoa banatu ta gu baturik gengoza la jakin ebenean, eurak be alkartzen asi z'ran, artzaiñak txistu dagitsen ardi sakabanatuak legez.

Anboto ta Udala bitartez, Memaiο zear, bide lauα eukela ikusiz Elorrio artzeko, Intxorta ta Elgeta aldeak be zapaldu ta zigortzen asi ziran, aurreko ostiral eta zapatuz atan be. Igande goizean etzan girorik Elgeta'n. Bai lur eta bai airez ondo birrindua geratu zan, Kanpantzar'eralño luzatuz birrintze au. Lur-sail au jagoten ebenak, Malatesta ti konpai-lagunak, Kanpantzar, Sagasta ta Gaztelumendi tartean zaingoan aurkitzen ziran talde gorriak igesari emon eutsoen, Intxortak alderdi artatik zaindari bage itxiaz; Arrazola, Elorrio ta abar, adore gitxiko guda-gizonez egozan. Etsaiaren fusiπε geratuko ziran laster Durango ta Berriz erako bideak.

E_τa gu atzean gengoza, etsaiaren kako artean. Or geunkoza rñendiak, egia esan, erdi babestuak: Intxorta biak, Erdella, Galdaramiño... Aixola erreka-stoa. Eibar-erako bidea. Bide ondoan gurekan bateri bat, Elgeta'ko kanposantu ondotoxoa, «Irrintzi» taldearen mende ta tanke aurkako beste kañoi bi Uriburu base-rrian, Eguraldi txarra egiñik be egazkiñentzat, jorraillaren 20'an asi ta bost egunean beintzat, gu zapal-zapal egin naiaren garra erakutsi eben. Bitarteko etoza bonba egazkiñak Gatzaga, Oñati ta Bergara aldetik pare bat minututan tonelada batzuk lerkai aundi egotzi ondoren, bonba txikiagoak botaten ebezanr «Egazti pilloak zirudien —diño Beldarrain'ek— eta Intxorta-Txiki'ren ipar-aldeko burdin-sare esietan jausi ziran, amabost bat metroko zuloak euretan edegirik. Añabeitia laguntzaillea ta ni an artu ginduzan zaparrada onok, Elgeta'runtz jasten genbiltzala... Andik urten-ala gaiñean geunkan beste egazkin aldra bat. Partaitxi'rako bidea eten genduan, eta areik euren bonba kargea usten ziarduen bitartean, «zearka» lubanetara gintzazan. Urrutizkin-ariaκ zirpulduta geratu ziran».

Egun areitan egin ziranak benetako saio ta joteak ziran arren, etsai agintariaκ porrot biribillaren aurrean be ez eben amor emoten: Elgeta ta birak menderatu bear ziran. Zein agintariai eta zein gudari soillai biotza urratzen euskun oneκ: etsaia egazkiñez ondo orniduta egoala, gu ainbarik gengoza. Agirre'k askotan erakutsi eutson bere naiγabea Madrid-eko eta gero Valenzia'ko gobernuari bere eskariaκ onartzen ez ebazalako. Beste orrenbeste dirausku Beldarrain'ek: «Gure eize-egazkiñik, Elgeta'n ain zuzen, etzan agiri; gitxi bai geunkazan, eta Elgeta gain azartu balitza.z, beingoan izango ziran aurki eratxiaκ. Naikoa egien etsaiaκ Bilbo aldean, ber-

toko Lantegi ta portu gaiñez egiten zituan txangoai eragozpenak jarriaz. Bezperan ain zuzen be gure uribru gaiñetik egindako ibilaldi batean illa izan zan Euzkadi'ko egazkintzako «bata», Felip del Rio kapitaina: augaitik esan oi zan etsaiari eratxitako sei egazkiñen marka ondu eballa. Gizaseme erne au, Bizkaiko crasoaldian lenengoz agertzen ziran «Heinkel III» doixtar aire-tresna batzuen kontrako burruka aintzagarrian jausi zan. Iru aireko eiztari galdu genduzan, bat goian eta beste bi Sondika'n egazkin-zelaian irauliz, etsaiagandik igeska. Eiztari bat geratzen jakun bakar-bakarrik. Edo obeto, ezer barik gengozan, a be gizajoa Santander'era joan bai, jakun laguntza billa».

Aitaturiko talde gorriak euren zain-oiñak itxi ta Elorrio'ran-tza jo ebenean, etsaia beingo baten jabetu zan Gaztelu, Intxorta-Txiki ta inguruckaz. Ango za'ntzainleak, ba, Saseta, Martiartu ta besteak, euren tresna ariñak eta zaurituak arturik, kontuz eta bizkor, anka jokoa egin bear izan eben, ingurumari areik uts-uts itxirik. Etziran urrun batailloi batzuk, Zabala, Ibaizabal eta besteak, Erdella aldean, arein atzeraldia jagon egien. Atzetik su egioen Salvatore ermita ondotik beera jatziz etozanai, goian sortu ta Elgeta'z beera Ermu'raniza jasten dan Aitxolaerrekan saka egiñik, Burdieten eta ogetxoetan jatsi ebezan zaurituak, eta gaixo-kotxeetan, al bazan. Arratsalde latza, benetan! Etsaiaren egazkiñak, bitartean, gogor be gogor zaflatu ebezan bonbaz inguruko erriak, Eibar, Ermu, Mallabi, Zaldibar, Berriz...

34 GABAZ

Jazokunok gorputz biurtzen ziralarik, Kirikiño berari yagokon lekuan egoan zintzo, Basalgo'tik Azkonabieta'ra bitartean. Izan genduzan, jakiña, egazkiñak egindako era..o ta zaparradak. Gorritxo, gure komandantea, bizkor, geratu barik ebillen albiste billa, nun zer barri, ta zainpe onean gengoalakoan, urduri baiña ez kiki-kil, gu geure zain-lekuari etsatsita. Egazkiñak, Intxorta ta Elgeta lerkatuz, gureganaiño be ba-egiezan euren egazkadak, euki genduzan jausitako batzuk, zaurituak baiña. Bestalde adoretzu ta bipil gu nagusien esanera. Kinka larri aretan, gaiñera, ez gengozan bakarrik, an bait ebiltzan gu jagoteko Iba 'zabal taldea Galdaramiño ta Karabieta'n.

Azkenik, illunkera naiko nasaian, Eibar'erantz jatxi gintzazan bidez eta laster-zidorrez. Eibar, azpian, su-garretan. Nok sutua? Egazkiñak ala giza-eskuak? Arratsaldean luzaro egazkiñak ez eben atsedetik izan bonbak jaurti ta jaurti. Ildako pilloa, errenkadan, Alfa osteko gaixotetxe aurrean, «Pater noster» bat arein alde. Ez giñan gitxi be auzotegi ta errepede areitan arat-onat. Nora-ezean genbiltzan. «Ermu'rantz» iñoskuen, agindu zurrian, abots zoli-samarreko batek. Arantz jo genduan. Bidean ba-zan nasterik! Laubost agintarik, asarre biziz: «Urko'ra danok! ». Ermu igarota gero, goi geunkan Urko'rantz artzeko asmoz, aurrera ta aurrera giñoiazan, baiña gu eguneko jazoakaz naiko auldurik, eta... Ganora aundirik be ez, eta... Illunduz joian eta bidean zear tapa-tapa,

Trabakurakoari jarraitu geuntson. Gure ezkerretik, Erdella ta Areitio gainez tirotsak zirala guri begitandu. Ba ziran, etziran? Gabaz otsak garbiago. Gau itsua, baiña giro atsegiña. Berbaro lauz gu aurrera, batzuk, nekaturik, or-emen geratu ziran bide egalean, jesarrita. Trabaku'ko bide kurutzera eldukera, agur egin geuntson Urko'ri urriñetik. An batzuk Markiña-rantz artu genduan, beste batzuk Oiz azpitik zear Berriz'erantza. Or gu zati bitan. Gero, geure egoitza barrian, Algorta'ko Igeretxe'n, alkartuko giñan.

Eskumatik artu genduan aldrako nintzan ni. Troka goibel zear jaxirik, Iruzubieta'n gagoz. Abots batek emen be: «Goazen Gernika'ra! ». Ni, barriz, Markiña'ra lenengo; emen neukazan neure gurasoak eta iru gudari, adiskide mIñak, lagun arturik, etxekoai agur egiten joan nintzan. Erriko erlojuak amabiak kraskatzen, eta bertatik ni gurasoen pisuan ate-joka. Kezkaz egoan aitak edegi eustan atea. Ordu lauren bat emon neban gurasoakaz, iru urtetan —ama beintzat— ikusiko ez nebazanai agur luze samurra egiten. Leengo bidera b'urtuz eta Karmen'go eleiz aurretik igarotean, berez egaz egin eustan biotzak Karmen'go Amagana neuretzat eta etxekoentzat laguntasuna eskatuz. Momentu bigun, negar-berak!

Gazte ta erabagitsu, Erdotza'n gora. Illargia geunkan ezkerretik, urten-barri. Bolibar'en batu gintzazan aurrera egin ebenakaz; amerikar errepublika askoren askatzaille izan zan gizaseme kementsu aundiaren jatorrizko seaska lerdenean, gorputz-atal arminduai bear ebena emonaz, atsedeen-aldi ederra artu genduan: kerizak aillen ailla joten, baita guk gudariok be. Ez giñan gu bakarrik

an batu gñanak; an ziran Markiñaldetik etozanak be, Bertitu, Milloi, Plazakola, Amalloa, Ukarregi, Kalan-m ta Urko'raiñoko asko. Aurreko egunean sakabanatuak, ez ekian norantza jo.

Eta aurrera bideak artu-alan, geure tresna ta guzti. Gernikaldea zan gure jomuga. Alkarregaz giñoiazan umetatik ezagunak lez, txu-txu-mutxu etenbakoan; alkarregaz gudu-zelaian edo bidean zear eza-gutu ziranak, egiazko adizkide egiñak, zoritxarrak aise lotzen bait gaitu. Batzuk agin artean txistuka, beste batzuk errikantaren bat aopetik abeska; an ingurukoak pozik, etxeruntz joiazala-ta, beste oneik berba gozo, izkirimiri, gordinkeri ta abatrez ibilliaren nekea arindu ta alai-erazo nairik. Aldra bat baita —zergaitik ez?— «Agur Maria!» abeska. Gizakia nunnai ta noznai dozu goizale.

Ziarrotza parean, mozolo bat areitz zaar puntan ujujuka. Illazkia zurbil, gero ta meego, il-agin dirudiala; eguantza bear bada atzetik dau jarraika. Bidean barrena oker-une batzuk egiñaz, or Zenita auzune alaia, eskoitik. Laster da Munitibar. Zer ete? Motor otsa Oiz ostetik. Goiz dabiltz, etsaiak ba'dira, arrapariok! Illuna urra, zabal eguna. Egazkin batzuk burrun-burrun, naikoa beetik. Gerrikaitz eta Arbazegi bonbaz erreten diarduela emoten dau. Gu gainbera asi gareaneko, aldendu d'ra Oiz ertzetik. Saio bat izan ete dan gagoz; atzo Elgeta zuzitu ebenak gaur emen geure aurretik.

Arrunta ez dan zerbait jazo da gaur Munitibar'en: ainbat auto-bus bide egaletan, errian deslai, utsik, jenterik egiri ez dala. Bonbazulo ugari. Illak eta zaurituak jaso dabez. Plazan gagoz. Ez dakigu norantz artu. Gernika'ra ala Ganbe'ra? Ez d' rudi gure laguntzarik bear danik. Bada-ezpadan, andik alde egiteko dirauskue, lengo egazkiñak bear bada... Eta guk Gerrikaitz'eko eleiz-ondotik gore Ganbe ta Urretxua'rako bidea artzen. Goitxoan gagozala, or nun datorrigun taldeko kamioi bat, gure billa eretxian. Mordo bat a;da baten bertara igonik, gertu gagoz aurrera egiteko. Ni be, «euren apaiz» nazala-ta ez nabe an itxi nai izan. Eta Larra'rairio, neure txoko atsegiñeraiño ekarri nabe.

35 GERNIKA SUTU TA KISKALIA

Ostots aurretik laino zuri-baltzak agertzen. Munitibar'en egin eban bonbaketa zakar basatiak ekarriko eban ondoren biurria: Gernika arrete. Ori zuritzeko gero milla atxaki asmauko ebezan, naiz-eta leenen uri baten suntsitze saio bat, eta gero etsaiaren gaitz-ondo sapoaren triskantza doillorra besterik ez izan.

Jorraillaren 26'garrena zan, astelena. Konbentuan bazkaldu neban nik. Arratsaldean, bostak lez ziran; egazkinotsa Autzagane ostetik be, eta bonba otsak entzuten ziralako, Aita Lontzi, Boroa' ko seme karmeldarra, lagun arturik, Bizkargi'rantza urten genduan biok. Arburu saietsean geratu giñan begira, oso arriturik genkusan etorri eta joan ebiltzan egazkin biko iruko ta lauhoak. Ez jakin ze ordutik joan eta etorri ebiltzan egazkiñak, Mundaka ondoko Laida ondartzatik etorri ta bertatik itzuli, Gernika ta alboerriak iparretik ego aldera lerkai ta bonbaz josirik. Bonba nagusiz beteak ziran batzuk, eizakoak beste batzuk, bonba txikiak nainun botaten zituenak beste batzuk. Sumendi ikaragarria egiña genkusan Gernika, aurrez aurre. Egazkin arin batzuk Muxika, Oka, Axangiz, Mendata ta Gorozika inguruetaño eltzen ziran karga ilkorra erioelarik. Ikuspegi zurbil tristea!

Dakigunez, bonbaketa asi zan Dornier 17 motor biko baten igaroteaz; geltoki ondoan eta Mertzedeko komentu inguruan jausi ziran lenengo bonbak. Gero etorri ziran Saboiak 79 eta andik laster Heinkel III'ko bi. Azkenean agertu ziran Junker 52 eritxenak. Zergaitik onela? Auxe ei zan «Kondor Taldeak» erabilli oi eban jokabidea, nai zana seguruago lortu al izateko. Dornier eta Heinkel'ak azterketa egien, gauzea edo lurraldea zelan aurkitzen zan, eta ondoren etorren, saio ostean, sakon jotea, Junker 52'en lana, euron iru taldeakaz. Egazkin guztion artean 26'tik 30'ra tonelada bonba lez bota ebezan Gernikan. Asko ala gitxi? Garai artarako asko edo gitxi zeri esaten jakon

Iskanbil izugarria jagi zan urrengo egunean, 1937-gneko jorraillaren 27'an. Geroztik ikurrin burtua daukagu, Gernika; ikurriña erriaren irudia danez, alaxe Gernika be, erri zapaldu, austu ta naigabetuen irudi. 50 urte joanak dira arrezkero, baiña or dogu Gernika sinbolu ezaba-gaitza, kendu eziña. Sutzar orren

errua geuri, euskaldunoi bizkarreratu nai izan eben, guzur biribillak aizatuz, baiña egia bat izan eta emen be, naiz-ta maltzur jokatu, barru ta kanpo, egiak beti lez zuzenera jo eban, eta gaur mundu guztiak dautor noren aginduz, noren garrez eta noren eskuz Gernika kiskaldua izan zan.

Egotaldi luzea egin ondoren, Arburu'ko txapar artean, Gernika begi aurrean geunkala, etxerako bidean jarri gintzazan. Zabala ta Arazotza'n beera gentozala Gernika'ren zoritxarra genduan autugai. An, atzean lotu zana, ke baltzezko mantupe gaixoan; txinpartak leio ta gairiak, utsik kalo ta esp:Joiak, jentea illak eta zaurituak batzen. Joan ziran egazkin baltzak, baiña or geratzen zan Gernika austua. Zergaitik ori? Zer dala-ta gu zauritu, orren sakon, geure abertzaletasunean? Geure izate osoa trumil lagarik? Erruki zakiguz, Jaunai Malkoz busti jakozan rnatraillak nire lagunari. Eta ainba_t «Erruki, Jauna! » otsegin genduzan Gernika'ko illen alde,

Españarrak, alemanak naiz italiarrak aginduta egin, Kondor talde doixtarra izan zan Gernika ta inguruak birrindu ebazana. Errenderi_a Gernika bitarteko zubia apurtu nai zala, euren azkenengo gerra-tresnak noraiñoko indarrez orniduak ziran jakin nai ebela, gudariz gainzezka egoala... Errazoi bitxiak, besterik ez. Komunismuaren aurka jokatzen ei eben... Eta Euskalerrria zuzitu, Uri santua txeatu...

J. A. Agirre'k, lendakari zanak, onela idatzi eban gero: «Euzkotarron uri agurgarriaren erraustea egiña zan. Baiña Gernika'ko Zugatzak, askatasun ikurra dogun Aritzak, bere abar orritsuak garrez gorrizturiko ortzeruntz jasorik ebazala, osorik, ikerarik egiteka, tente irauan, askatasun alde Euzkotarrak eundakaz euren bizia opaldu bear izanarren, berak ikurtzen dauzan egiak ez dirala egundo aldatu ez igaro egingo, gizadiari iragarri nai izan bai leu tsen » .

Nik jorraillaren 26'an, Bizkargi ertzetik ikusi neban sekulako errete ta kiratsa paperean itsatsirik itxi naican, zentzun bako ondamentiaren irrintzia barne nebala, olerki au ondu neban:

Begi-aur zaitut, uri! , euskal eleiz zarra!
Kiskal zakustaz dana, gar, errauts egiña;
ilkor lerkaiz zaitue zanpatu zakarra;
gaiñ bota dautzue, nasai, errekiña.

Eziñaren garrasi, erlotz-negarra,
zabal dituk edatu, doixtar egazkiña.
Errugea dok zuzi —ire biotz txarra! —
Nork iri, ai! , opako parkamen ariña?

Amaitu eziñeko eztanda gaiztoa,
gordeleku billaka jenteen arrapala...
Ifernu bizia dot Gernika osoa.

Joanak, azkenik be, doixtar sai gaizkiñak.
Gaiñez gaiñ errikior da jasten itzala...
Lazkor dira bazterrak, su-mendi egiñak.

36 BIZKARGI, FIKA...

Izarrak ostendu, eguzkia ditziratuz. Gisa orretan gu be, baiña alderantziz, ots, atzekoz aurrera: orpoak zapalduz etorkiguzan etsaiak, egun bi etziran eta or Oizsortaldetik beera izterbegiak. Algorta'ko areatzako Igeretxe zan gure gudaltegi barria, Durango'koa galdu ondoren, Aurreko egunetako zigorralditik pitin bat arindu ta obetzen gengozala, or ostera be Ibarruri ta Gorozika'ra joan bearra. Bultzia artu ta an gintzazan laster baten, Urretxu'n eta Axuri'n lenengo ta Gorozika'n gero.

Emendik ebiltzan orduko, Paul Beldarrain buru zala, Martiartu, Malatesta, Simon Bolibar eta UHP'koak, Gorozika'tik Oka, Areatza ta Muxika zear. Bizkargi mendi-besangaren sortalde osoa zaintzen ebela. Gu, Gorritxu buruzagi genduala, Zugaztieta, Gorozika ta goialdeko Arburu mendiska tartean gengozan zabalduta. Bildurrak joak geunkazan bertoko baserritarak, guri arren bai arren babes eskatuz. Gorrien bildur ziran, oneik ba aske ta kulumíño gaizto agertzen bait jakezan. Ni ara eldu aurretxoan oratu ta

tiroz il eben bertako abadea, Klemente Itza jauna. Onek, jakiña, latz-ikara sartzan errian; gabaz etzan iñor ausartzen etxe batetik bestera joaten.

Frontoi ondoko baserria zan nire egonlekua, eta ezeren premiñarik ba egoan, ba ekien nun nengoan. Ez genduan zer-egin aundirik izan egun areitan, etsaia alderdi aretatik beiñik-bein, atsedentsu egoala zirudian. Illunabar baten, orraitño, bertako seme Pi Aba karmeldarrari Larrara lagundu bear izan neutson, ara joan nai gero andik Begoña'ra aldatzeko. Urten genduan biok, berak umetatik ekizan bideetatik zear, baserriz baserri ta trokaz troka, Zabala-Beeko San Bartolome'ra ta Larrara. Ba-zan txakur zaunkarik an eta or! Gu lako asko ebiltzan, itxura zanez, bildurrez, bazterretan igeska ta gordeka. Karmeldar au Peru'n urteak egindakoa zan, euskal idazle ona, an eta emen ainbat itzulpen eder egiña. Itzulpenok ez ebazan galdu nai eta gau atan be bera-gaz ekazan olezko kutxatxo baten ondo zainduta.

Gorozika ta Bizkargi saietsean iru bat aste erre ondoren, ra aldatu ginduezan; Mungi'tik Fika'ra, burdiñezko «Gerriko» sonatuaren bestekaldera. Ango eleiz ondoan egokitu nintzan ni, aurreko egunean lerkai-mota ugariz suntsitu zituezan lekuan; errausturik geunkan erria ta eleizea su-txinpartaka oraindiño, bertako agak kea erioelarik. Fruniz'erantza **bonbaz ildako bi** aurkitu genduzan, eta erriko kanposantuan lurra emon geuntsen. Baserritar bi ziran, euren solo guenean azken arnasa emon ebenak.

Emen gengoan aurrez-aurre etsaia, urrin-samar, eta atzetik, goi-samar, burdin sarez jositako gerrikoa. Naiko baketsu joiazan egunak, Eta nik, biotz eta adore, Lauaxeta'k beiñola, an Intxorta ondoko Gazte umendi'n esana, burruka zelaian be olerkariak lanari ekin bear eutsola, gogora ekarriz, poesigintzan, irakurri ta idatzi, emon oi neban eguna. Ementxe, ke ta txingar artean, arildu neban «Aberri eder» deritxona, gero «Euzkadi»-k argtialdu eustana. Bego emen aren zati bat, nire biotzaren orduko egoeraz jabetu zaitezcan.

Lurrak oinpean, itxas antzera,
aier-murrusa bizia;
sukalde gozo ta eleiz-zutoin,
oi! , dana bera jausia.

Odol orbana dozu soiñean,
begia lausoz laiñoa;
adur txar antzo gain dabilkizu,
garrasiz, bela gaiztoa.

Len eder ziñan, Aberri ona,
gaur obi illauna, triskantza;
len eguzkia, izpi-jaurtika,
gaur, barriz, illik gorputza.

Nun ete dozu lengo ederra?
Nok itzal begi-argia?
Zure baratzean ez da nabari
len lez usaintsu lilia.

Ez, arren, zizta odol-begikaz
lengo garitza sotilla:
oro galkuntza, oiñaz-adia,
dana dakuszu pirtxilla.

Aiots ituna dakar aizeak:
«Erruki —diño— erruki!»
Ta gora doa, kea bai litzan,
samin-otoitza gartsuki.

Odol-ixurki euzki-lurrean,
nai-non erein da zotiña;
ibaiak gorri, igar goenak,
eriok artu lur-gaiña.

Baiña ez auldu, euzkotar gogo,
odol lurrean jausia.
Oi! Zer izango? Zer deritxazu?
Azkatasunan azia.

Irakin dirakin ur-zela; gordiñean olatua lez, etsaia amorru zitatez eusko lurra zapaldu, txeatu ta birrindu gurarik ebilkigun bitartean, nik sentipen oneikaz igurtzia nekarren izate barruna. Zorritxarraren erpapean be ederto dator kemenaren atsaldia.

37 BALA-ZIZTU ARTEAN

Erramun Olasagarre karmeldarra, gorago esan dogunez, Martiartu'ko kapellau zan; biotz zabalekoa ta lagunak ikertuz poza ereiten ekiana. Garai atan ez gengoan alkarrekin, baiña sarri oi jatan barri-emoille nengoala nengoan lekuan. Goiz baten, ni astiz aurkitzen nintzala ikusiz, iragarri eustan: «Emen daukat kotxea, ba-dakik; lagundu nai daustak, ba, Larra'ra ostera bat egiten?» Nik beingoan: «Bai orixe!» Amen baten jarri giñan Zornotza'rako bidean. Maiatzaren amabosta zan.

Orduan Bilbo auzune Olabeaga'n jaioa zan karmeldar ibiltari ta irakasle errime au. Larrako karmeldar Ikastetxean irakasle izanik luzaro, adiskide ta lagun min pillea eukana. Ibiltea ona zala iñoan, baita bala artean be: gerraldian asko ikasi ei eban berak. Atsegin jakon kementsu izatea, ez gerrari lez bakarrik; nobere burua ezi, ilduratu ta neurrira ekarta zan aren^zat kementsu izatea; irakasle zan, baiña ez eban uste dana ekianik, gero ta geiago ikasi bear dogu; baita gudatean be, besteak ezagutu ta nobere nortasuna aberastuz. Bilbo jausi ondoren be, Enkartaldean ibilli giñan alkarregaz; baiña azkenez Balmatseda'n geratu zan a, bere anai-arreba ezkonduakaz. Gero, urte asko Ameriketean emon ostean, Begoñan il zan.

Larrabetzu'tik gentozala egazkiñak agertu jakuzan aurrez aurre. Ez euskuen jaramonik egin. Asmo onik alan be ez ekarrela begitandu jakun. Gu Erletxe ta Boroa zear eta areik Txinpasmendi ^{gaiñez} itzulinguru egiñik, Zornotza'raiño etorri jakuzan atzetik. Ez eben ezer okatzen, utsik ekarrezan antza euren txolak. Zornotaz'n, Aita Olasagarre plazako edo Kalbarioko karmeldar ikastetxera joan zan ango prailleak eta zaurituak ikustera. Ni, barriz, neure komentura. Ori'ko txoriak...

Utsik idoro neban komentua. Eriotza ta abar, ezbear aundiren batek jo ez egizan, arriskuari bizkar egiñik, Begoña'ko komentura aldatu ziran bertoko prailleak, gauzarik beiñenak be ara ta emengo baserri batzuetara eroanaz. Etzan emen agiri ez gudaririk, ez zaintzailerik. Eleizako atea itxita, sarrerako atea zabalik. Illobi zurbilla iduritu jatan komentua. Gora igon eta or emakume bat, mantak pillatzen. Ni ikusiz, euren tartekoren bat n̄ntzalakoan, diñost:

Emen nabil, onek urdok zeozer itxiko ete ebelakoan. Baiña, ez, ez do_t baliozko gauzarik aurkitzen, soldadu-manta oneik ezik.

—Nora joan jatzuz, ba, bertoko prailleak?

Ez dakit. Asturiastarra naz ni, ango gazteakaz emengo frentera etorria. Egun bi daroadaz emen, al dodana artu ta eroan. Ez dot berton iñor ikusten. Errian ditut lagunak, euren zeregiñetan.

An laga neban nik emakume zakarra, bere lanari lotua.

Goi ta bee ibilli nintzan ordu-laurden batean, baiña etzan iñor agiri. jeremias igarlearen «Desolatione desolata est» gogora jatan. Emen neukan ni ainbat urtez bizi nintzana ta gerora be urte luzeetan biziko nintzan komentua, baiña utsik, eta su biren erdian. Alan be, gudaldi guztian ez jakon ezer jazo, esatekorik beintzat; andik eta emendik bonba-zartakoren batzuk, besterik ez.

Oinkada batzuetara neukan baita, eleiz-aurretxoan, antxiñako Larrea-tarren jauregi arlanduzkoa, 1915'tik gure Ikastetxea, Euzko Indarrekoen kuartela. Or zirauan tinko, baiña laster nazionalak Autzagana'tik eta Epaltza'tik zear Ategorri'n agertu ziranean, berton eukezan muniziño ta Ierkai guztiak atera eziñik, su emonda erre egin zan jauregi apaiña. Gaur, etxe Leiñargi orrek aurrekaldean eukan eskudua, ez daukazu besterik. Au oso ederra zan, naizta antxiñakoa; jauregi orren jaubeak beretzat egiña da gaur ikusgarri dozun eta edesti-liburuetan «Pequeño Escorial de Vizcaya» deitzen jakon eleizea. Inguruan naikoa lur eukan jauregi orrek, ortu nasaia ta baratz ikusgarria mota askotako lore ta zugatzez ornidua. Ementxe emon nebazan nik lau urte ta erdi, eta, jakiña, maite neban biotzez bazter bikain au. Gero, batzuk eta besteak, Atila'ren errokoak noski, jauregia bota, zugatzak ebagi eta arriak eta zedro tantaiak saldu egin ebezan. Gaur, oroi lez, orduko leioak, burdiñezko esi ondo landuak, jauregi aurreko ikurdia ta olako zer batzuk daukaguz bakar-bakarrik. Gerreak bai makurrak ekarten!

Leku atsegingarri oni negar-bera agur egiñik, plazaruntz artu neban ortik eta andik tirotsak etozala. Giro zurbilla Zornotza'n. Ergoien, Etxano, San Martin eta Euba aldetik tirotsa etenbage. Ez dira geratzen egazkiñak, astun eta ariñak. Plazan etzan iñoren aztarrenik; kotxeren batzuk Durango'tik Bilbo'ranta.

Luze eritxita neukan laguna, Aita Erramun. Ikusi neban atzenez odolgaxotegiaren arduradun egoan Aita Erroman be, Ikastetx<.-ko nagusia gerotxoago nazionalak fusilatua: ez neban uste azkenez agurtuko nebanik, Ari ta oni bostekoa emonaz geure arazo-lekue-tara. Urduri geunkan txoferra, egazkiñak bait ebiltzan be-betik Zornotzalde guztian. Eta ain zuzen Boroa'n zear Erletxetan gain jarri jakun bat, geuk geroian bidean bertan, bere karga ilkorra guri egozteko asmoz, ziurren. Kotxea itxi ta bide bazterreko ildo zuloan luzatu gain: gure berna ondo-ondotik barreiatu zan arek jario euskun berun-zurrusta beroa. Guk bai bizkor gero!

38 PRAILLE ON BATEN ERIOTZA

Gizonak sarri kardulatz arantzaz josi artean bizi naiago dau zelai zabaleko azpedar urdintzan baiño. Gerreak berez dakartso miña, min luze neketsua, giza biotzari. Konta-ezin-ala dituzu tiroz ilte ta galtzeak. Ulert-gatxa sarri baiño sarriago gizonaren jarrera! Zergaitik eratxi, zergaitik gizonak gizona zuzitu? Arrokeriz, suntsi-griñaz?

Esan dogu gorago: ainbat apaiz, lekaide, gizaseme on fusilatu ebezan Gipuzkoa'n; mundu guztiak gaiztetsi ta madarikatu zituan eriotzak. Uste zan geiago etzala egingo, eta etzan egin, alkartu ta oi u egiteak indarra ba dau-ta. Alan be, asierako zoraldi, asarre bizi ta bardaska apur bat baretuz, zer errazoi lanera biurtzeko? Etziran oraindik exkastu salakuntzak, espetxeratzekak, istilluak, eriotz-zigorak... Gaiztoa dozu gizona, aberea, bfoztzik bagea. Gerrak ete erru guztia?

Lenago aitatu bezela, Aita Roman karmelsarra —Leon Urtiaga Elizburu munduan— izan zan apaiz eta lekaideetan frankotarrak azkenengo tiroz il ebena. Zaldibar'ko semea, an bait zan jai 1888'ko otsaillaren 20'an, Larrea'ko Ikastetxean urteetan zuzen-dari eta azkenez Zornotzakoan nagusi izana. Ikastetxe au gu-daldian, Euzko Gobernuaren eskabidez, gudari gaixo ta zau-rituentzat Ospital lez izan zan, Aita Roman eta Florentzio'ren zaindaripean. Larrako komentua, barriz, Gudarozte batzuk euki eben —Itxasalde, Transmisionak eta abar— prailleak be bertan gazteak ezik, bizi zirala. Emengo gazteak ta beeko Ikastetxeokak,

Gipuzkoa, Araba ta Naparroara joaterik ez eukienak, Etxano'n abadetxean eroien euren bizimodua.

Frankotarrak urreratu ziranean, baiña, batzuk ara ta beste batzuk ona sakabanatu ziran. Aita Roman bere lekuan geratu zan, egokion lez, bere prailletxea zaintzen. Maiatzaren 19'an Etxano' rantza joan zan bere lagunkideak ikusten. Baiña an eukazan zain Serafin Altuna, tolosarra, erreketen kapitaina, eta Jerardo Lastra, koronel ordezkoa. Ango meza ostean, oni itaun eta ari galde, Aita Roman nor zan jakin ebenean, Altuna kapitainak soldadu mordo bategaz artu ta Larrako ortu osteko orma ondora ekarriz, tiroz il eben antxe, Goizeko eguerdi aldea zan. Antxe bertan lurperatua izan zan andik egun bira, maiatzaren 21'an, Talde obexek, Aita Roman tirokatu ondoren, kamentuan aurkitzen ziran bost praille, Aita Jose Domingo, Rafael, Abelino, Bizente ta Eujenio, oratu ta Etxano'ra eroan ebezan. Leenengo biak batez be gorriak ikusi zitu-
tuen Durango'n, Gasteiz'en eta Iruña'n urteetan atxillo egonik.

Aurreko egunetan, irratiz eta prensaz, makiña bat guzur biribil zabaldu eben bazterretan. Eriotzarik egin ez ebenak eta armak itxi, ez ebela zigorrik izango, eta antzeko asmakeri ta atso-ipuiñak edatu ebezan ugari. Aita Roman'ek eta besteak garbi ikusten zitu-
tuen euren eskuak: etzan nabari areitan odol orbanik. Eta egozan lekuan ezeren bildur barik gelditu ziran, Baiña zigorra ta eriotza...

39 SOLLUBE

Etsaia Sollube'z jabetu gurarik ebillela-ta, Fika'tik Meñaka ta Meñaka Barrena'ra aldatu giaduezan. Orrilla gorantza joian. Zuga-
tzak orriz, mendiak berde. Mussolini'k b'aldutako italiarrak, afrika-
rrakaz naste, estu ekarren Bermeo. Azkenik, gora etozan Sollube'
run t, arrosko ta garaille. Gudariak bear ziran arein oldarrari ar-
pegi emon al izateko. An ziran orduko talde kementsu batzuk, baiña geiago bear ziran, eta gu eroan giaduezan ara. Nik, naiz-ta ostera sarriak egin mendi-gerrirantz, lenengo Meñakan eta gero Meñaka Barrena gaintxoan neukan etxola oizkoa.

Ara aldatuta laster, bigarren egunean, ildako bat ekarri eus-
ten erriko kanposantuan lurra emon gengion; iltegitra joatean,

bizi-bizi garrastu jatan barrua. Zergaitik? Sarrera ondoan bertan amabi mairu aurkitu nebazan, mendian edo bertan tiroz illak; erreskadan ipiñita egozan. Min emon eustan onek. Eta areik be Jainko-semeak zirala-ta, egi-egiaz otoiztu neban Jainkoa euren aldezko erruki eske.

Alkar jote gordiñak gertatu ziran Sollube'n, andik eta emendik, Mañu inguruan eta go:-kukutzein. Txapar itsu, jori ta sendoan, otatza azian etzan errez an zirkin egitea, etsaiak eta gu lurrari josiak bait gengoan. Orrelaxe egun batzuk. Azkenez, orraitño, Bakio, Jata eta inguruetatik eta Bizkargi maldatik beera ta aurrera etozalako, guk be atzera jo bear. Franko Metxika'ko ermita ondoan geunkan begira. Illuntze baten, beraz, etsaien egazkiñak lerkai, bonba ta granadaz bazterrak sutzen ebezala, burruka mendi gogaikarri a itxi ta lengo lekura, Fika'ra, itzuli bearrean aurkitu giñan.

Mungi, Gamitz eta emengo egoera etzan ezelan be ohea. Sa' rrakio ta izuikara bazterretan gau ta egun. Bagillaren bederatzia zan. Fika'n gu, bala ta kiratsa andik eta emendik. Infernua bera zirudian, egun osoan baiña illuntze amaieran batez be. Sua ezkereskuma, erioz gaiñezka; airekoak, etsaiarenak, ez eben atertzetik. Banaka batzuk bea itxi ta aurrez aurre geunkan «gerrikoaren» ondoratu giñan. Gauturik be, askoren intziriak —zaurituenak ziran-etozan bee-aldetik. Nik egin neban alegiña, baiña illunak eta ango mendi-une zakarrak ez izten geiago. Bizi-naia ta eriotza alkar-jote latzean. Gaur oindiño durunduz ditut Fika aldean geratu ziran gudari zaurituen aiene, inkesa ta negarrak. Lagundu nai ta eziñaren erpa artean. Kezkak, geiago lagundu ba geuntsen! Olako ez gitxi gudaldian...

Goian nengoan orain, gerrikoz barru aldetik. Ur ziran etsaiak, eta gau illuna gaiñ. Ango ta emengo gudari-taldeak naste. Emen-txe agurtu neban azkenengoz Aita Patxi pasiotarra be, kapellau ebillena. Antxe igaro genduan gabe, zerbait apaldu ta giñar artean lo egiñik. Jauparia ta bereak urrenge goizean matxiño-zaleen eskuetan jausi ziran, oratu ta Gernika'ra eroan ebezan danak. Guk, ostera, eguna urratzen asi zaneke, gaiñez-gaiñ Geldos alderdira jo gendualako, ordukoz beintzat, arein atzaparretatik, txoriak

lez, ospa egiteko zoria izan genduan.

40 ARTXANDA

Frankotarrak, ekiñaren ekiñez, lortuz joiazan euren xedea: Bilbo artu nai eben. Bizkargi euren a zan jadanik, baita Arratia ta Lemoatx be, ta Upo'tik aurrera egien Arrigorriaga ta Basauri atzean itxiaz. Gu Geldos'en gengoan, egazkiñak atsedeen bage zigorpean genkazela. Eguraldi ona lagun, nasai z'arduen oneik Lemonitz, Gorlitz, Gatika, Urdulitz, Laukiz, Plentzi, Barrika, Sopela, Unbe ta inguruak mailluskatu ta txeatzen. Etxe ta gordeleku, Artabakarra'tik Larrabetzu'raiño, sua ta kea zan dan-dana.

Bagillaren amairua. Andoni Deunaren jaia, nik sarri, guda aurretik eta gero, Urkiola'n ospatua. Guk geuk, bizi giñanok, Geldos'tik gabaz jatsi ta Derio gaur Seminario ta orduan eraiki-barri egoan kapar-estalpe zabalean emon genduan goiza. Etzan giro ona, egia esan, Txorierri ta Asua aldean. Arrisku bage ebiltzan egazkiñak bota ta bota: ainbat zauritu ta ildako ekarri eustezan, anguruetatik. Gu, barriz, aterpe bako gizagaxoak, gudariak, erri-tarrak eta ara-ona igeska ebiltzanak: ba-ziran an zornotzarrak be, illen artean diñot. Boroa'ko Miren Ormaetxe'k ba-daki.

Illunabarrean, aterpe ordurainozkoa itxirik, aurrera: guk bide egaletan «ez dira igaroko!» lagarik be, atzean etorkiguzan bai or-poak zapaltzen. Bidez eta mendiz Santo Domingo ta Artxanda'rantz, osteak zer lekarkigun jakiteka. Gau baltza zan txiñurri-gisa guk gora egiterakoan. Illun agertzen zan itxas-muga, miesa arrez jantzia zeru-sapaia. Atsedeen artzen itxura zanez etsaia; iru egunez leiatsu jarrai etorri jakuna, nekatua ete? Baiña ez, etsaiak ez eban urratsik nagitu naiko Bilbo'z jabetu arte. Naigabezko pentsamentuetan murgil, gu aurrera atsedeenik bage. «Artxanda'ra» ots egin euskuen nagusiak, Santo Domingo'ko bide-kurutzean, Bizkaiko uriburua gaiñean bertan. Ez dago au besteetan baizen argitsu. Gu aurrera, ibillia okertuz eskumara.

Milla oinkadara geunkan Artxanda: San Roke, Kasinoa, burdinbide zuta (funikularra), Deustu gaiña, Abril mendia, Enekuri... Emen neurtu naiko zituan etsaiak bere azken-indarrak Bilbo'n sartu baiño len, edo-ta geuk, geure aldetik, neurtu eragingo geuntsozan ortzak erakutsi zati ain baliotsuz jabetu orduko. Ez giñan gu ba-

karrik Artxanda'n Bilbo zaintzen genganak; ordurako emen ebiltzan beste lau-bost gudari talde bulartsu be. Arriskuan, auzo daukagun lagunak ederto gaitu adoretzen.

Sua erioen talde bi jarri ebezan San Roke'n; Dcustu gainean barraiatu ziran beste iru; gu erdian lez, Kasino parean, ipar-aldetik geunkazan beste biren aurrean; Santo Domingo'tik sortaldera zabal-azo ziran beste batzuk. Guk bide kurutze ontatik ur-samar jaso genduan geure gaxotegia, illak, zaurituak, gaxoak eta abar Begonia'ko eta Bilbo'ko eritegiataraz jasteko. Goiza zan. Zuri-gorritzen asia Kantauri egunsenti printzez. Bero etorriko zan eguzkia. Bizkargain etorkigun, boraz, jipoialdi izugarria.

Ezkerretik eskumara ur beian agertzen Galdakao, Etxebarri, Basauri, Pagasarri, Bilbo, Deustu, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Areatza ta gaineko erriak. Egundu danekoxe beetik dabilte egazka etsaiaren egazkiñak. Gurejak ez da agiri, ez daukaguta. Nai-orduz eta lekuz utsitu daroetz euren lerkai gantzak, ezereen beatzarri baten utsitu be. Emen ziran lurrekoak, urduri, kementsu, jan-gosez. Or Santo Domingo tontortxo egalean urrutizkin zaingoa: bagillaren 14'an, arratsaldez, Bilbo'ko Euzko Jaurlaritzatik arerioaren aztarrenen albistea eskatzen, eta erreketek erantzuten poz-etzitan eta garraxika.

Goiza urratuz batera, oso goritu zan zarata ta iskanbilla Sondika ta Erandio Goiko aldean. Guda-mutillak, tanke ta izkilluen otsa zan, Enekuri ta Santo Domingo'tik, Erroke Deunaren ermita ondotik, ziri makur-okerrak sartu nairik, gure gudariak egozan tokietatik bota al izateko. Burruka latz, gogor, tematia izan zanik ezin ukatu. Onan idazten dau andik ibilli jakun Steer ingles kazetariak: «Eguastenez, emengo inguru guztiak bonbaz zuzituak izan ziran, goizeko zortziretatik gabeko zortzirak arte. An izan ziran bazterrak ezerezen bonbaketarako aireko astunak be, irunaka taldetan eta eten barik ebiltzanak. BonbakeTa etzan «Burdinezko Gerriko»-an baizen gogor bizia. Nik uste dot 10.000 bonba lez bota ebezala bost burruka lerro areitan. Uria, barruz, saillean eta piri-para metraillaz josia izan zan; doixtarrak ziran egazkiñak, Heinkel III eta Junker 86. Euren gorputz luzangak erakutsiz kale nagusietan zear murrumurrumetraillatzen jardun eben egun osoan. Ziztuan iragoten ziran eize-egazkiñak euren tresna ilkorrak bekoen

aurka erabilliz eten barik. Gudari lerroak, alan be, ez egoan apurtzeko modurik. Euskaldunak, urrenez urrengo, ekiñaldi zakar bitan batez be aizatu ta atzera erain eutsen Artxanda'ko kasino ingurutik».

Ez guk ez areik ez gendun atzera egiten. Olantxe egun guztian. Kasino ta inguruak bi ta irutan itxi ta artuak izan ziran. Egazkiñak eta obusak sutan eukien Artxanda. Eundaka, alderdi bietatik, illak eta zaurituak. Burrukaldi gordin, eskerga ta asegaiz orren ostean, ezta arritzekoa, gizon eta muniziñoz urrituz giñoiazenok amore egin bear izatea. Enekuri aldekoak eta Deustu gain egozanak, barriz, gorri edo zuri, gutar batzuk moltzoan jausi arriskuan egozala ikusirik, igesari emon eutsoen lagun asko azkenetan itxirik. Laga genduan, ba, Artxanda, eziñaren eziñez andik al gendun moduan alde egiñaz. Oneik bidetik, areik aldatz-beera, illunak lagun-duta. Illak eta zaurituak be, asko, geugaz ekarririk... Nik Karnelo'ra jo neban.

41 BILBO JAGOTEN

Olakoctan gizona, sarri, adierazo ezin leiken xedez ta naikunez ixftnu oi jatzu. Eta lurpeko arnasa lez, tantaiari arnasa damotsona nunbait, noizik noizera agertzen dan bezela, giza barnean bardintsu, noiztik noizera agertu oi da, lendik ixil, gorderik egoan kemen bizia.

Barakaldo inguruetan ebillen Beldarrain bere gudari taldeakaz eta Artxanda galdurik eta Bilbo etsaiaren atzaparpean ikusirik, be-reakaz azken indarketa bortitz zoro batean, etsaiari arpegi egiñaz, Bilbo barriro eskuratu nai eban. Olan iragarri eutson Gudaltegiko nagusiai; ezetz erantzun eutsoen oneik, zorakeria zala, bizitzak alperrik galtzea.

Etsi-etsia, J. A. Agirre'gana zuzendu zan Beldarrain. Azaldu eutson buruan ekarren asmoa. Dudamudan jarri jakon Agirre, zer esan asmatu eziñik, Baiña ez, gain eukien etsaia ta ez eban nai odol geiago ixurtzerik. Nagusiak iñoena egiteko eskatu eutson, Buru-makur eta jausia aldendu zan Beldarrain. Alan eta guzti be,

Nerbion, Galindo ta inguruetako erriak, etxeak, gudariak eta jentek gizonki zaindu ebazan etsaiaren eskuetan edozelan jausi ez zeitezan.

Agirre'k, «Gernika'tik Nueva York'era Berlin'dik zear» liburuan, azken onetzaz au dakar: «Bilbo'k ez eukan iru eguneko bizia baiño. Franko'ren guda-gizonak artuak ebezan inguruan ditun gaiñak, eta euren metrail-tresnak okazten zituen balak Bⁱlbo'ko kaleetaraiño eltzen ziran, eta aldi berean italiar eta alemanen egazkin eiztariak lerkaiz asetzen eben goitik. Guk ez geunkan goi-egazkiñen kontrako kañoi bat be, geure buruak jagon gengizan; ez geunkan egazkiñik, munduko egunkariak *abertzale egazkein* xalokin deitu orreitakorik.

Bat-batera —darrai Agirre'k— zigor meak lakoxe txaplio-otsa atera eben iru berunpil neure langelara bertara sartu jakuzan. Artxanda'tik erauzika ziarduskuen, eta jakiña, gorengo gaiñak esaiarenak izan bear! Gu gengoan tokitik ki'ornctro labur Bilbo'ko uria erdibanatzen dauan ibai-ertzean agortu jakuzan italiar tankedunak. Eta negargarri au oraindiño naikoa izan ezpa-litzakigun, gure gudariak amaika illabeteko gudaketeak nekearen nekez ausita egozan...

Frankotarrak Artxanda'ko gaiña kendu euskuen egun-egunean, Artxanda'tik aurrez-aur dauan Pagasari mendia be eurekandu eben, geure uriburua ia alde guztietatik zearo ertsituten euskuela. Iges' leku bakartxu bat baiño ez geunkan: Ibai ertzean zear Santander'eruzko bidea. Bilbo'tik urten bear ebenak urten al izan egien, eta ateratzekoa atera al izan geinkean, etsaiari unetxu batzuk luzarago eusteko, oraindiño azken-indarka bat, arren, egin egiela, geure gudariak irratizkiñez eskatu bear neuskioela, zirausten ene burukideak. Baiña onenbesteko buru-ukaldirik zelan eskatu neioen nik? Ez geunkan urik ez argirik; ezetariko sugarririk bez, eta bizigarritan be esatekorik ez. Aurreko egunetan lotarakoan etxabetara joan oi giñan. Aurreko guda-lerroak etenda, guda-saillak banandu euskuezan ezkeroz, bereak ginduzan etsaiak.

Alan eta guzti be, urrutizkiñez itz-egin neban. Gudariak nirautsen, arren, legitu egiola Bilbo'ko kaleak agiri eben ikuskai negargarriari. Urian zear txaidetik txaide atzerrirantz jo'azanen lako

ikusbizun negargarririk! Benetan biotza austekoa zan izan be!
Geure mendi-mendiak ziran etzerrirantza iges joiazanak. Etxeko tresnaz, gexoz, urrez eta atso-agurez zamatuta, nora ez ekiela asi ziran baserritarren burdi-ardatzak erioien txirri-ots soinu negartia barru-barruragiño sartzen jakun. Aberriaren gogoia berbera igesi jaiola geritxagun! Euzkadi'ko basetxea joiian, geure abendaren oiñarria dogun basetxea; euzko lur gainean jarrita aspaldiko &al-dietan egon dan euzko basetxea!

Onetxoen alde, onetxan urteerea jabotearren, arorioari, arren, beste bein ekin egioela Euzko gudari saildoau eskatu neutsen. Auxe izan zan Bizkai'ko uriburuan egin neban azkenengo itzaldia. Egitekotan bestelakorik be ezin neikean egin.

Gau atan buru-ukaldi au egiteko autu genduzan iru guda-saildi euzkotarrak Artxanda'ko aldapan gora euren betiko ereserki auxe bulartsu abestuz igon ebenak:

*«Euzko gudariak gara
Euzkadi azkatzeko;
gertu daukagu odola
bere alde emoteko.*

*Irintzi bat entzun da
goiko tontorrian:
guazen gudari danok
ikurriñan atzian.*

Berton egoan ingelandar batek diño: «Gabeko estalki illuna ango ke, gar eta gudaketaren ixildubako dunbotsaren gain jasten asi zanean, Euzkadi'ko oiñezko gudaritzarik ederrena ziran iru guda-saildi izentau ebezan azkenengo indarkadea egiteko. Erkalmenaren alde ixuriko odola aintzaz dauan edestian KIRIKIÑO, ITXASALDE, ITXARKUNDIA ta GORDEXOLA iru euzko guda-taldien izenak beti izango dira gomutagarri! Lurrean ereiñotzik erne daiten artean, gizuren on oroipena goraltzeko burestun-be-arrik ezta izango. Gizurenok: Zutunik agur dagitzuet...! Eriotzeari bidera urtetera zoiazala jakitearren, edesti-aurretiko Keltarren leloen antzera, albokaz eta txistuz abestuteko abesti ospetsuak ez' panetan eroiezala, Artxanda'ko aldatzean gora igon eben. Gudariok aldapako illunean gora joiiazala, an beetik geroago ta meago gentuzan abots ozenak bein ixildu ziran».

Neure lagunakin izan neban batzarrean, Jaurleriok geure guda-rozte ta erriari lagunduteko, beti euren arrean egotea erabagi

genduan. Talde bitan banandu giñan, Batzuk Truzios'erantza abiau giñan Bilbo'tik ogetamarren bat kilometro barru datzan erritxu atatixek Bilbo'tik urtenai edo urtetekoai ondoen lagundu geinkioela-ta. Besteok orduantxe sortu zan Erri-Zaingo-Ordeko buru geratu ziran, Leizaola'tar Josu, Aznar'tar Jagoba ta Astigarrabia'tar Jon, iru altseñak. Euzko Gudarozteko gudalnagusi batekin azken-azkeneraño Bilbo'n bertan geratu ziranak. Azkenengoz agur-egin neutean, ez neban uste beste bein eurok ikusiko nebazanik. Onen iru altseñon (minstruon) izenak ez beikioz egundo euzkotarrari aztu, Bilbo'ko uriak bere azkenengo azkatasun aldian erakutsi eban gizabidetasun aberkoia euroi zor dautse-ta.

Bat-edo-batek esan Iegike: «Zergaitik, illuntzean, Artxanda barriro artu-bearra?». Itsumustuan jausi jakun etsaia gaiñera. Uritar asko egozan iges egin naita, gertatu barik; gudari taldeak or-emen, danak gaiñ etorkiguzanen eskuetan jausteko arriskuan. Azken eraso ontan kementsu burrukatu zan, fusilez, esku-bonbaz, ametrailorakaz, eta arerioari euste oni esker, Bilbo'tik alde egitea askoz obeto antolatua izan zan, abraren ezker aldeko gudari taldeak onez aterarik batez be.

Orrez gaiñera, Lendakariak agindua betez, Bilbo'n geratu ziran uria ta jentea zaintzen aitatu agintariak, ertzañiak eta gudarietatik ez gitxi. Guda aldian atxillo egondako bi milla bat espetxeratu frankotarren eskuetan itxi ebezan ezeren arrisku barik. Eta bagillaren 19'an Artxanda iparraldetik eta Pagasarri ta Arnotegi ego-aldetik, Franko'ren gerrariak garaille ta iskanbiltsu sartu ziran Bilbo'n.

Madrid'etik zarataka eskatu ta gorriak nai ebenez, gutarrak ez eben ondatu Bilbo ta inguruetan, zubi batzuk izan ezik. Barakaldo'ko Laba Nagusirik ez beste fabrikarik etzan suntsitu Leizaola ta Beldarrain jaunai esker. Emen munduak eredu bikaiña!

Negargarrizko momentuak eta orduak! Jakin bei munduak: gizabidearen izenez bai okerrak burutzen! Millaka euzkotar igeska, aberritik erbesterako bidean! Etsaiak —mairu, fatxista, italiar eta doixtar, euren egazkin eta izkilluz— gure gaiñ ekarren gizabide barria etzan iñolaz bo Kristok irakatsia; beste zerbait genduan. Artez iñoan frantses idazle Mauriac'ek: «Egunen baten igarriko dautsagu Abenderri txiki onek, geu gaizkatzearen, bere bu-

rua opaldu dauala, Kristoren antzera, lenengo gurutzaldu ta gero iraindu-iraindu egin dabe-ta». Agirre'k gogoratzen dausku.

Bilbo jagoten geratu ziranai lagutzen «Otxandiano» ta beste batailloi batzuk be parte artu eben.

42 NORA-EZEAN

Josu M. Leizaola, donostiar, politiku ta euskal idazle trebeak gerra asi baiño leen idazten eban Donostia'ko «Argia», «Yakin-tza»-n, *Euzkadi*, *Gudari* ta *Barazar* goitizenak erabilliz. Gero, Paris'en bizi zala, lendakari lez, konta ezin beste lan burutu zituan, euskal literaturari buruzkoak geienak. «Sendo» argitaletxeak iru tomo aundietan batu zituan onen idazlanak osorik 1981'an, «Al-derdi» ta «Euzko-Deva»-n emonak asko be asko.

Jaurlaritzan lenengotik izan zan Zuzentza ta Kultur sailleko ministroa. Eta Agirre'k birritan beintzat Valencia'ra bialdu eban Bilbo jausi aurretik, lenengotan 1937'ko otsaillaren 22'an eta bigarrenaz apirilaren 22'an, matxiño-zaleak Bizkaiaren aurkako eraso orokorra asi ebenean. Lenegoan diru-auzia zan bere egitekoa; bigarrenaz, osteraz, egazkiñak eta Llano de la Encomienda aldatzekoa. Ez eban lortu ez bata ez bestea. Prieto'k esan eutsonez, ez eukon egazkiñik, ez eizakorik eta ez besterik. Largo Caballero'k. barriz, Leizaolak uste dauanez, ziria sartu eutson, ez Asensio, ez Paza jeneralik ez eutsoen emon-eta. Gu, beraz, ganorazko egazkin barik geure gudaldi guztian.

Bilbo jausi-ur egoala Leizaola izan zan bitarteko agintari. Zelan jokatu ete eban? Danean ezta be, naiko leial jokatu eban. Steer kazetariak onela: «Leizaola jaunak, Zuzentzako ministro euzkotarrak, Bilbo uts-eraztea erabagi eban, eta itxi astiro ta *arauz* egin eban. Lenengo kartzelako atxillotu politiku guztiak atera ta Artxanda'rantz euren adiskideengana igorri zituan, zaintzailleak babesten ebezala. Ondoren uria triskantzetatik jagon eta onik ateraten alegindu zan. Bilbo uri oso prestua dozu, zuzena dalako euskaldunak maite zaintzen dabena. Lanerako eratsu ta garbia, ispillu da Espaiña'ko beste uricntzako, baita ezbear eta zoritxarretan be.

Leizaola'ren eritxiz onik atera bear zan berau; eta txarrik jazo ez zedin, aspertu barik lan egin euskun. Konturatu zan azpijokuz ondatu nai ebela askok, eta arrisku au itoteko Gudaltegi guztizkoaz jabetu zan eta eusko gudari zintzoak ipiñi zitun .uriko punturik garr..nrzitsuenetan, ezkertar gorriak orduko artuta eukezan lekuetan».

Larunba, goizean, eguna urretu zaneko, Iturribide'tik beera nentorren ni. Arriaga antzoki aurretik Gran Via'ra artu nebanean, ibai gaiñeko zubiak —Deustu'n eta abar— eztanda egiten asi ziran, zatitu ta burdin-aga eskergak uretara amiltzen. Iñor etzan agiri, leio ostetan ezik. Ni, deia neukanez, Carlton'en neure gauzakaz zorroto bat egiñaz, Ospital aurretik Olabeaga'ra, emen neukan ba zain Aita Ramon Olasagarre, Martiartu'ko jaupari. Argi genkusan emendik etsaiaren ibillia ibaiz andikaldetik; andik ziran, bai, erreketeta, italiar eta matxiño-zaleak, «Gordexola»-k Barakaldo zaintzen ebalarik.

Nik ez dakit judutarren urteera «Exitus» liburuan datorren antzekoa izango zan ala ez; nik dakidana da euskaldunak, Bilbo itxi ebenean, aurretik eta gero zelan joan jaken, zer jasan eta ikusi eben; erbesteratze triste ta neketsua asi ebela, itzez ezin adierazo lakoxea. Nik aurrera egiñaz, Zorrotza'tik laster Erretuerto'rako bidea artu neban, neure lagunakin; andik dabil Paul Beldarrain, an alkartzeko agindua guri emonik. Bidez bide jente mordo ikaragarriak, eguraldi onak lagunduta. Atzo lez etzan zeruan egazkiñik agriri, banakaren batzuk izan ezik. Enkartalderantz joian jentea; iges joiazan gudariak, zarrak, gazteak, burdiak, kotxeak...

Entzuiozu osterata, gai ontaz, Steer kazetariar «Danak daukie —diño— zelakoa dan egi-egiaz euskal erria eta bertoko gudarien kemena jakiteko eria. Eurakaz eta idi-buztarriakaz nastean doaz asturiar eta santandertar gudagizonak, ainbat gauza, josteko makiña, oilaskoak, jantziak eta olako ainbat eta ainbat gauza dingilizka daroazenak. Norbaitek ba-daroa, ingurukoen asarrez, kapela zabaluzea buruan. Unkigarria! Astiro doa gure baserritarra, nora doan ez dakiala, idi, bei, txal, ta burdi gaiñeko galtzuan lo dagozan umetxoakaz».

Eurokaz goaz gu be, Trapag,iran zear, Barakaldo, Sestao, Portu-
galete ta Sonturtzi aldet,k asko erasten jakuzala. Lo jentea baz-
terretan; Ortuella, Gallarta, Karrera... Muskiz, Pobeña, itxas-egaa
guretzat gomutaz zamatua. Sopuserta, Montellano, Sodupe, Zalla ta
Balmatseda'rako bideak doazanez beterik. Eta etsaien egazkiñak
guri jarraika, eten barik, gu bonbaz bildur-azo ta lertu naiean.
Gabaz suzko lerkaiak zabaltzen dabez bideak zear dabiltzenak
argitu ta obeto arrapatzeko. Txori arrapakiñak sabel-miñez.

Lau bat egun emon genduzan Somorrostro aldean, Zalla, Errera
ta Balmatseda'ra orduko (emen geratu jatan Aita Olasagerre, bere
sinedeakaz.

Nik geroago, egun eta ibilte triste areik gogora ekarriz, «Oiña-
zepean» deritxon olerkia, lau zatitan ogei estrofa daukazana, aril-
du neban. Onela diño lenengo sailleko irugarren aapaldiak:

«Eta... ba-goaz
erakaitz, illun altzotik,
sabel azpiko
erra gainditu eziñik,
oraindiño be
etsai dogula orpotik;
ba-goaz bidez,
nora ezean, tristerik».

Ez goaz baiña igeska, ez goaz pekatuz loiturik; kezkek ez daus-
ku jaten barrena. Samiñez, atsekabez, ostera, goaz bideak urratuz,
nora ezean; geurea izteak dakarskun naigabeak jota. Geure lurra
dogu oraindik zapaltzen, baiña geure-geuretik erauzi ta jaurtiak
gara. Begiak malkoz! Odoletan biotzak!

Zalla ta Balmatseda bitarteko Errera'n, Euzko Gobernuak lez,
guk be egotaldi laburra bota dogu. Bezi'n beste egun batzuk, sor-
baldaz Kolutza tontorra daukagula: geroago alkar jote gordiña ja-
zoko da emen, Kolutza'ko San Pedro baseliza inguruan diñot.
Etsaien egazkiñak ez euken atsedenic. Emen aske itxi genduan
atxillo genkarren beste pillo bat. Errera, Zalla, Bezi ta arun-
tzago Villaverde, Bizkai barruan dagoan eta erriz Santander er-
kikoa dan erritxoa be oso-osoan austu ta ezereztu eben egun

Egunerdi oste batean Traslabiña'tik ara trenez giñoiazala, mustur-aldi galanta izan genduan etxerantza bidean ebiltzen asturiar batzukaz. Aranguren aldetik etozan areik gu Traslabiña'n bultziratu giñanean; minduta etozan antza ta gu irribarretsu ikusiaz, uste eben euren lepotik barne egiten genduala. Etzan orrela, baiña ori begitanduten jaken. Eta gugaz sartu ziran eztabaidan bape errazoi bagarik; guk, ostera, parkatzen ez, koldar, lapur eta olako itz garratzak arei esanik. Gu Villaverde'ko geltokian jatsi giñan. Orduan barruko erreari ezin eutsita, zemaika asi jakuzan fusillakaz gu garbitu nairik. Gure anka jokua zugaztian beera!

43 IZUAREN ZIZTADAK

Gabaz edo-ta erbestez bide dagianak, enura ta duda barik, beti dakar barruan izuaren eztena. Asko naiz gitxi unero zerbait. Guk, txarrakaz naste egun atsegiñak be emon ginduzan arren, kezka kareatua izan genduan beti geure izatea, Santader'ko erri ta lurretan ibilli giñan artean. Egia esateko, etziran santu-santuak orduko santandertarrak; odol-zale gorriak eLa euzkotarron arerio zuriak, ilketarako beti prest.

Areik eta oneik, guda zala bitarteko, euskaldunon izen ona loitu, kazkartu, laidotu naiez ibilli zirala esan zeikean. Gogora Montzon Zuzentza arduraduna zala, Tolosa'n egiña; gogora mairu ta lagunak baserri, etxe ta tokietan burutu ebezan basakeriak; gogora gure baserritarrak, etxetik bota bearrez, zenbat negar, samin eta atsekabe ainbat lekutan; Ondarreta'ko txekakoak ez egozan geldí, ezta lo Elorrio'n, Abadiño'n, Zeanuri'n... Ez, etziran eredu, ez onaren ispillu, Bilbo'n eta beste toki askotan. Ona murgil bat okerkeri guztien erakusburu: Barazar etsaiak artukeran, Ipiñaburu'ra eldu ta bestekaldera joateko asmoz egozan; atxillotuak izan ziran batzuk, baiña eurona egin eben: gau bi geroago, Zeanurin ilda agertu ziran bost abertzale, bertako txauburua, alkatea eta lekaima bat eta abar. Abertzale talde bat bialdu bear izan zan ara gauzea itxuraz jarri al izateko.

Lur ez-ezagunez genbiltzan Enkartaaldeetan, alan be geurea zan eta tira. Nagusi ta gudari ezpaiz jorik gengozan, «Zer egingo?» itaunka. «Aurrera ala geldí?», «Zer jagoten gabiltz?» izan zan geu'

re oiwa. Guk alan be aurrera, nagusiak esan bezela; ba'genkian alkar ez genduala bertanb2ra itxiko. Itxaropenaren argipean bide gengian. Karrantza atzera itxiz Santander'ko lurtean oiñak ipiñi genduzanean, begi-erdia, destaiña ta salakuntzak etziran urri ibilli; «guretzat ez jakirik ez jantzirik, ez aterperik —iñoen— eta oneik gure artera?» Koba zuloetan, txaboletan, eskapetan lo egin bear izaten gendun.

Eta zetan ziran Ipar-aldeko agintari nagusi-nagusiak? Leen bai, Santander eta Asturias, ots, Oviedo, arriskuan somatzen ziralarik, gure daguntza bear izan eben —an il zitun Korta ta Saseta—, eta orain nun dogu ordaiña? Or Euzko-Gudaroztea, ia illa bian, bere kasa itxita, ur-gaiñ lagata arat-onat dabillen ontzia lez. Garagarrillaren lenengoetan, azkenik, agindu bat eldu jakun gudari talde bakotxari bere sail berezia izentaturik; guretzat Gibaxa, Marron, Guriezo... Iturriotz (Truzios) —emen dogu J. A. Agirre ta Euzko Jaurlaritza be—, Gordon eta Basinagre'n egotalditxo egiñaz, Karrantza'tik zear Gibaxa'ra goaz, arako bidea Molinar gaiñeko koba zuloetan lo dagigula.

Garagarrillaren 18'an, ots aundiko manifestaldi bat gudari-sailen artean Santander'en. Gureen artetik an agiri da Padura, trauskil, zatartsu jantzita. Gutarrak orren ondoren be ez dira ondo ikusiak, Bide ertzetan or-emen agertzen dira ilda euskaldunak eta gudariak, Oneik ezin ziran urian aske ibilli, gabaz batez be. Nik neuk abustubaren lenengoz egin neban ara ostera bat, bertan adiskide ta gudari, a erritar gaixoak ikusten egun bi emonez, baiña kontuz ibilteko esaten eusten beti, Euzko Jaurlaritzara joiazanak be nor ziran eta zetan joiazan iragarri bear izaten eben.

44 J. A. AGIRRE'REN AZKEN MEZUA

Azken unean Artxanda'n egon zan Aigrre, gure lendakaria, Bilbo ta inguruen azken errukarria ikusi-miñez. Berberak artu nai izan eban orren erantzukizuna. Frankotarrak Bilbo'ren jaube egikeran, antxe egon nai izan eban, bere erriarekin batera. Baiña opari onek ez ebala erriarena atzera botako-ta, ez eutsoen ori egiten Beraz, esan dogu: Bilbo laga ta bere jaurliariakaz Iturriotz'era jo

eban, Ementxe aurkitzen zala, euzko lurretik, zuzendu eutsen euzkotarra, azken mezua lez ezagutzen dogun itzaldia. Onela diño:

«Euzko gudataldeakaz batera Euzkadi'ko mugaraiño eldu naz. Eurokin iraun dot geure erriaren sua ta kemena miretsiaz, ez onen espiritua ez da iñoiz be azpiratua izango. Eta Euzkadi'tik urten baiño leen, munduaren aurrean salatzen dot, buru egiñik, bere ize-nean, euzkotarrakaz zelako arrapaketa egiten dan XX'garren mendean, geuri Aberria lapurtuaz, geurea dalako ta berau kentzeko espaiñar fazismuak guda-indar sariztuak erabiliz euren **doix**-tar eta gaiñerakoen tresna arrotzakaz. Bape lotsa bagarik aotan dakarre, gure etsaiak «konkista» eskubidea. Lurralde, beti-betiko eskubide ta erri-izateen kontra indarrez artua izango zan, dudarik bage: Euskal-erriaren arimea ez, ez da egundo be izango.

Euskaldunak gizonkiro jokatu dau beti; gure jokabidea ez da aldatu azken orduan be; Bilbo ta bertoko aberats-iturri ekarkorrak oso-osorik laga ditugu. Aske itxi doguz presoak, eta etsaiak ordez jazarpenak eta tiroz ilteak guretzat. Euzko Gudarozteari ezin leikio ezertariko lapurketarik egotzi, ez leporatu.

Euskal-errak lilluraz begiratzen dautso etorkizunari; beronen gogoa, espiritua geurea da. Berea da gure jokabidea Bidartuko dogu geure arbasoen lurra, barrero be bertan jarteko geure izkuntza ezetsia, lege irainduak, ostu daukuen askatasuna. Zer agindu eutsen iñoiz fazismuak Euzkadi'ri? Ezer bez, bere oiñak Bilbo'n ipiñiz, ba, indarrez kenazo dau ez irabazitako ber-jabetasuna bakarrik, baita Diru-Itunbena be, Monarkiak berak be lotsaz gorde ta begirunez zaindu eban istorian zearko askatasunen ondar-apur antxiñakoa. Munduaren aurrean salatzen dot azken lapurketa au he, zapalduta mutu jarririko erriaren sentipen sorgorra adierazoz.

Itxasoaz topo dagi igeska doan nire erriak, arrisku biren aurrora aurkitzen dala. Ez dot uste izan nai erri adiskideak edo arerioak ixillik egongo diranik. Ain astuna ete da erri batek bere askatasunaren alde jokatzea?

Auxe zaintzearren, Aberriaren duin izateagaitik, millaka ta millaka euskaldun gaur naigabe larrrian dagoz, eta ez-eukiz estu-estu. Ez do_t siñistu nai mundutik iges egin dauala sentikortasunak.

Bere lekuan jarraitzen dau Euzko Jaurlaritzak, Euzkadi'n aurkitzen dan edozein lekutan. Berau da euzkotarren legezko Gobernu, erraza baten naia beronek adierazten daualako; erraza au ez da izan azpiratua, zati baterako menderatua ta iraunak emona baiño. Eta gure aberkideen maite-suak lagunduko dautsoe garaipenezko egunera arte».

1937, Eta gaur, 50 urte geroago, Agirre'k egia iñoala esan bearko,

45 ILKETA IKARAGARRIA

Txori egazlariak gu, Karrantza, Lanestosa ta Ramales'ko giroa egun batzutan txastatu ondoren, Gibaxa'n geratu giñan Anson ibai zabal, arrain mota askotan aberatsa danaren alboan, bide kurutzean, Kolindres'era doanaren ertzean. Inguruan geunkazan beste gudari talde batzuk be. Aitz zorrotzak, solo ta landa berdeak, basetxe baketsuak... Itxsa-aldera begira Rasinez, Marron, Limpias, Andollu, Bien Aparezida ezker aldera, mendi magaltxoan eder.

Urrun-miñez eta poz aundi barik gengoza be, atsegin jakun inguru au ta bertan geroan bizitza, egun gitzikoa bazan be. Poza, baiña, laburra izaten. Arratsalde baten, laurak ozt-oztan zirala, naigabe izugarria; baltz-une, lenengo pitin-pitiña ta gero aundi samarraz oartu giñan, ortzipean itxasaldetik aurreratzen jakuna. Erroi tzarra zirudian. Urrago ta burrundara zoliago ekaren. Asmo ez onez etorkigun egazkiña zan. An-or zabal gengoza gudariok laster giñan etzanik lurrean. Ni neure adiskide bigaz, enlazeak biak eta Durangokoak, Arrieta eta Balendin Belaustegigoitia, lege-karrera laster amaitzeko egoana, erriko eleiz-osteko etxe baten atarian aurkitzen giñan autuan. Bide ondoko ibai ertzean asi ta bosteun metro zabal-luzez utsitu euskun bere gilbor ertozkorra. Gure gaiñ-gaiñetik igaro zan aren lorratz **Nire lagun biak** **IIIK** nik etxe barrurantz egitean, areik kanpoan lotu ziralako, biak bete-betean jo zituan metrail-berun-jarioak. Gaixoak! Adiskide miñak, an neukazan ilda!

Amabiraiño ziran illak. Danai emon neutsen pekatuen parka-mena ta Aita Santuaren onespina; batzuk pilpilka egozan oraindiño, lerkaiz barik aize bakantzez arnasa artu eziñik itoer egozalako. Etsai egazkiña, berea egin ondoren, etorri zan b detik itzuli

zan, gu agin-karraska itxirik. Barne-naigabez ta negar-zizpiru gotsez-zanpatu giñan guztiok. Geldi gengozanok olan zeaturik! Bakez dagoan aretxak ez ete diño ezer aizkora otsak erasten dauanean? Orixe gugaz jazoa. Alkarri laguntzen sa:atu giñan: zaurituak ospitalera ta illak illerrira. Errukizko ekintzari dagokionez etzan iñortxo be zurrun egon.

Errekaz beste aldean, Gibaxa'tik Karrantza'ra goazala, eskumatik, bide gaintxaon dago erriko kanposantoa. Illunkeran, zortzi. rak zirala, antxe lurra emon geunt:en amab:ai; lur santu aretan goitik beera erretan zabal-luzea egiñik, antxe ta lurrez estali genduzan gazte arein gorpuak. Ainbat «Gure Aita» esan geuntsozan Aita betikoari arein arimakaz errukitu zedin. Begoz ementxe Egun Aundirarte lagun maite arein azur-autsak. «Agur, zu, Balendin, neure aspaldiko meza-erasotzaille zintzo!» Ordutik, bere emaztegaiaren alde esaten nebazan mezak, nire adiskide berezi bion alde esaten asi nintzan,

46 GURIEZO ETA OTAÑES

Bildurra sartzen zati baten zoritxarra izan dogun lekuak. Errazoi origaitik edo, izan daitekena da, gu ibai-ertza itxi ta Guriezo aldera aldatuak izatea. Goiz batean, beraz, Gibaxa ta Rasines atzera laga ta Anpuero saiets, Edurretako Andra Mariaren ermita ondotik zear, Guriezo'ko aran naiko zabal jorira eldu giñean bidez bide, tapa-tapa; Pontarron eta Oriñon itxas-adarra berbertan geunkazala. Ia illabe bi egingo genduzan emen, bertotik zainduaz Otañes'ko meatz-tontorra. Loi-loi aurkitzen zan San Migel eleizea baiño goratxoago jarri genduan geure egoitza. Ni txalet zuri baetean ipiñi ninduen, Alfredo de la Garma, erdel idazlearen jauregitik ur-ur.

Aizta bi bizi ziran txalet onetan, guztiz txeratsu ta maiteko'rrak. Gorriak gorrikeri asko egiñak ebezan Santander, urian eta duaz Otañes'ko meatz-tontorra. Loi-loi aurkitzen zan San Migel eleizea ederra suntsitu, santuak, jantziak, jarlekuak eta abar suari emonaz. Iru auzo daukaz erriak, eta eurak bildurrez bizi ziran oso. Aiztai ez eutsen ezer egin baiña euron senideak igesari emon outsoen lenengo egunetan, eta ez ekien nundik ziran, Au-

zoko Garma zalakoari be ez eutsoen kalterik egin, zarra izanik, bere liburu artean bizi zalako. Ni, gudariak eta Bizkaitik ara joandakuok arras ondo artu ginduezan aizta biak, eta nik idazleaz be egotaldi ederrak egin oi nebazan literatura genduala biok autugai guragoen; azkenez, berak osoturiko liburu danak itxi eustazan.

Bere baketsu-baketsua zan aran au, arkaitz, mendiz, zugatzez, soloz, landaz eta baserriz inguratua ta Iturriotz, Aguera'tik Pontarron-era doan bideak zearkatua, naizta orduan artega bizi jentea, Bide onegaz gainera, beste bat, Santullan ondotik barna, Kastro'ra ezkerretik eta Otañes, gure frentera joiana geunkazan, toki menditsuak eta bedartza edertuz jantziak, nik eta nire lagunak maiz zearkatuak.

Amazortzirat e Bizkaia izandako lurraldea, euskal abizenek be tea; gaur be bizkaitarrak fabrika batzuk —Magefesa adibidez— eta txaletak ez gitxi bertan daukiez, leku ixil baketsua dalako. Aitatu dodan txaletean emoten neban nik egunero meza, astegunez barruan eta igandetean txalet aurre zabal-apaiñean; ementxe entzuten neutsezan autortu nai ebenai barne-kezka ta obenak; ementxe bateatzen nebazan (amabost bat bai beintzat, gerra asi ostean an etzan inor bateatu-ta); ementxe ezkondu be (Durango'ko bikote bat), ementxe jaiak ospatu: garagarrillarren 31'an, ondo be ondo ospatu genduan Iñaki Deunaren eguna, inguru a osorik gudariz, ara joandako euskaldun jentek eta bertako erritarrez beterik eurtitzen zala. Guda zalako, eta eriotzak, kikilduta egozanak, adore' tu ta bizi izaten asi zirala zirudian, Loiola'ko Iñaki Deunaren egunean egiñiko jai, meza, jaunartze, ereserki ta kantua zirala-ta.

Gutziz ariña jakun guri ango gudari bizitzea. Niri askotan itandu dauste, bai komentuan eta bai irrati naiz telebistarako barriketak eratzeko zeaztasun eske etorri jatazanean, ia inor il neban, ia pistolarik edo erabilten neban. Ez, nik, jakiñez beintzat, ez neban inor ezta pistolarik erabilli be, azken illabeterararte. Bilbo'tik urenda ara ta ona ibilli giñanean, ez dakit orain, nun, pistolak emon euskuezan bada-ezpadan. Nik ez neban sekula ikasi aldean neroiana erabilten; Guriezo'n gengoza, iru adiskide erre-kondo batera joan gintzazan eurak erauzten jakin gurata. Irurrotatik batek be ez genduan ikasi. Niri apunterakoan zeruraino joan ja an balea, Eta kitu, aldean bai, baiña zelan erabilli jakin barik.

Kastro'tik ur-samar, Otañes'ko miña zuloak ziran guk zaindu bear genduzanak. Ez genduan izan esateko burrukarik, eta nik irakurteko ba-neban astirik. Bertan egoan Irusta'tar Eustaki ta biok, gerra asi aurretxoan argitaratutako Aita Pi karmeldarraren «Kistorren Antz-bidea» irakurten genduan. A jango'ko-zale zan eta ni lekaide, ezta beraz arritzekoa, guda-oiñean be olako garrak eraginda aurkitzea. Kempis irakurri ta irakurria goznartutea beti jaku interesgarri. Ni emen eta Guriezo'n bizi nintzan, b'etan bai geunkazan egoitzak eta guda txabolak; esan dot, ez nebala zeregin aundirik euki: autortu ta mezea esatea bakarrik. Ba-ziran bertan beste kapellau batzuk be. Guriezo'n lau gudari taldetik bat osatu geuskuen-eta. An giñan Loiola, Sukarrieta, Abellaaneda ta gu, Karrantza mendietatik Gordon'etik zear, Otañes ta Kastro aldeak jagoten, Beraz, Mioño, Kastro, Islares, Zerdigo, Oriñon eta inguruetan ibillaldi batzuk artazitzeke erreztasuna be ez jakun palta.

Oroimena pizkat maluskatuz Guriezo'n gertaturiko zerbait geiago edes-eta geinke. Olako egotaldietan, jakiña, ba-dira zer batzuk beste batzuk baiño ariñago, ura iturriko giltz eragiñetik lez, borborka urten naiez datorkiguzanak. Guriezo'n bizi zan orduan, beste askoren artean, Zornotza'ko sendi bat, Axur'a abizenekoa, Epaltza azpiko trokako baserrikoa; ama zarra alaba bigaz eta Poitoa'ko neska urtetsu bat. Ama-alabok euken beste sendiko bat, ezkondua, Santandor urian bizi zana, eta bein andik dei bat eldu jakun bera ta bereak ikustera ostera bat egin gengiala esanez. Ni be eroan ninduen. Aizta biak eta nik oiñez egin genduan Pontarron, Liendo, Laredo, Kolindres'etik, Treto-raiñokoa, emen tren arturik. Eta or, emen Bizkaia'ko burrukaldietan banaketan baiño ikusi ez nebazan eize-egazkiñak, an ugari ez baiña, naikoa agiri ziran. Errazoiz iñoan Agirre'k Valencia'ko Gobernuak Asturias eta Santander'ako ba oukazala egazkiñak, ez ostera Bizkaiko zerua zaintzeko.

Santander'en zain geunkazan Axuria sendikoak. Egazkin-zelai ur-samarean bizi ziran oneik, eta an inguruan bazan zaratarik eta joan-etorririk. Biaramonean uria iksukatu nairik, kale, portu, ibiltoki ta abar, Sardinero'raiño arakatu genduan. Euzko-Jaurlaritzakoak egozan Cabo Verde'n biran be ibill giñan; an ziran Agirre ta gaiñontzekoak; an aurkitzen zan Bizkai-Banketxean txanpon batzuk aldatu, bazterrik bazter barriro beste ibillaldi bat, eta baz-

kaltzera. Bazkal-denporan agiraka egin euskuen etxeoak nundik nora ibilli gintzazan esan geuntsenean: arriskutsua ei ango kale ta bazterretan zear agirian ibiltea, euskaldun asko illik agertzen zira-lata.

Bildurrak jota itxi ginduezan: ikustaldia beingoan amaiturik, beraz lenengo bultzia artu genduan Treto-rako. Etzan arimarik ikusten bide, kale ta espaloiran. Trenean, barriz, ba ebillen jentea, guda-mutillak geienik. Zuur izatea beti be egoki da-ta, ixil-samar gentozan bidean. Treto'tik Guriezo'ra bardintsu leen arunzkoan barre-zantzo ederrak egin genduzanok, onunzkoak bildurrak ka-teatzen zitun gure eztarriak. Guk ara-ona genbiltzalarik ez geun-tson oni kasu aundirik egiten, baiña santandendarrak barrabaskeri asko ta itzalak eginda ego *zan*, gerrea asi zanean batez be: ainbat eta ainbat esan gengike onetaz. Zerbait daki oni buruz Beran-go ta Anero tarteko mendi-arrobi «jesus del Monte» deritxonak.

Iñor mintzeko asmo barik argi ta garbi otsegin dagikegu gure auzoko santandertarrak etzirala edeitsuak izan gudariakaz era emendik arantza joan bear izan eben euskaldunakaz. Bizkaitarrok, alan be, ez genduzan txarto artu: gerra asikeran berton aurkitzen ziran lekaideak eta udako Ikasketxe nagusi «Menendez y Pelavo» deritxonean, orduan Santander'en egon eta gero Bizkaia'ra etorri ziranak, ez eben zoztorrik izan; Eginogotzaiña bera ona etorri zan; Euzko Gobernuak ainbat guda-tresna, muniziko ta bes-telako bialdu ebazan Santander eta Asturias aldera, berton bear ziranetik ez gitxi be. Santander probintziara eldu ziranean gure gudariak, eurok izan ziran El Dueso espetxeko ateak an atxillo egozan millaka eskumatarrai zabaldu ta askatasuna emon eutse-nak. Egintza on orri zor jakona eskertzekoa izanda be, gomuta-menez argal garealako edo, izan daitekena dogu.

Nik neuk, au danarien geienen abotsa, ezin nei esan gaizki era-billi ninduenik. Egon nintzan lekuetan, Aguera, Gibaxa, Guriezo, Otañes... ondo ikusia izan nintzan. Geroztik be bost urtetan Hoz erritxoko Rigada karmelder komentuan bizi izanik, ainbat erritan izlari ibillia, Kristoren fedea otsegiten eta danetan txeratsu ar-tua izan nintzan.

47 LAREDO

Dagonillaren 24 zan. Guriezo'n, guro egonlekuko mendiska gainean italiarrak agertu jakuzan, usteke ta otoz-otoan. Aurreko egunean be onuntz etozan Kastro ta inguruetan kokaturik egozan gudari taldeak, itxas-egalez eta lur-barrutik. Illuntzerako gudariz egin jakun Guriezo. Eta agindu au bertatik; «Anpuero aldora danok». Eta gabak bere illun-miesa gain edegi euskunekoxe, bidean giñan gu. Igon ta igon lenengo Edurretako Amaren mendirantz .1; goi onetan, bide egaleko landetxe baten ondoko lauan apaldu ondoren, beerantza ixurkiari jarraituz illargi zurbillaren arpipe tris-tean. Nik ba-nenkian arren, gudariak ez ekien zer zan jazotekoa. Kargudunok erbestera joango giñan, ori zan itundua, eta gudariak emen itxiko ebezan euren armak, italiarren pentzura ouren buruak emonaz.

Kargudun eta gudari soil, ordubete oiñez, danok alkarregaz gosaldu ta bazkaldu gendun Anpuero ta Linpias'en. Guk Laredo'ra joan bearra geunkan arratsalderako. Zelan baiña geure aspaldiko lagunakandik banandu? Etzan auzi erreza. Gudarien belarrietara eltzen ba'zan erbestera giñoiaizala ta eurak emen geratu, lako istilluak ez sortuko? Zuurtasuna bear olakoetan. Ni bazkal ostean Linpias'ko eleiz aurrean nenbillen ango eliz-arri sendoai ta zugatz lodiai begira. Eta ona, ni oartu barik, aurrean kotxe bat. Eliza deuna be... ipiñi zelan! Amen esan orduko Laredo'n aurkitzen giñan an genbiltzan lau kapellauok.

Beste irurak zerbait artzera La Parra'ra zuzendu z ran bitartean, nik ondartzara artu neban, Euzkadi B. B. rekoak euken txaletera. Aste bi aurretik an agurtu nebazanai, Ziaurritz, Artetxe, Montzon, Aldasoro, Nardiz, Axuriagerra ta abarri eskua emotera. Urduri egozan, ez bait ekien gauzearen azkena. Karlos Solano, nire lekeitiar adiskide ona, kalean aurkitu neban. Auxe zan garai aretan erakunde abertzale orretako buru, 1936'an autatua. Gero Frantzi-ra aldatua Jatsu'n il zan 1949'an.

Aurretik egindako egiunea edo itzartnena legeztu bear zan. Lau t'erdiak erriko orduarian. Gu Udaletxerantz, eta italiarrak an agiri ziran goiko bide egaleko tontortxutik begira. Udaletxera giñanerako, an ziran motorista bi: antxe ta orduantxe, an nintzan ni

be, ondo-ondoan, itunbenaren izenpetzean, edo-ta obeto, aurretik Getxo'n eta Pontarron'en eukitako artu-emonen sendatzea. Amar minutuko zeremoni. Ordukoz gudariak bertan geratuko ziran. Gu Santoña'ra...

Gaberako geienak Laredo'n geratu ziran. Buruak emen irauten eben arren oindiño, gu zortzi kilornetro oiñez egiñik, Santoña'ratu giñan bape nekatu barik. Or agiri ziran uretan, nasatik ur-samar, «Bobie» ta «Seven Seas Spray» ingeles itxasontziak gu erbestera eroateko gertu; asko ziran ordurako ontziratu ziranak, naiz-ta ge' ro andik urten-bearra izan. Kaian gengoan zain arako deia noiz entzungo. Etzan deirik izan, eta portuan bertan gaba igaro bear izan genduan; ango giroa etzan txarra kanpo aldetik beintzat, barrutik ostera bakotzak erakusten bere kezka ta urduritasuna; bardin aurkitzen giñan guztiaok, alkarri galdezka ta begi-bitarte illun. Gure uste onak azkenez porrot eginda, tximistak jotako zugatz lerdena iduri. Egun bi ta gau bi portuan ara ta ona.

Nun ziran bitartean gure agintariak, Laredo'n geratu jakuzanak? Beteko ete eben italiarrak gugaz egiñiko ituna? Gizonak badaiki olako estualdietan itza jaten. Ba-daki baita ziria sartzen be. orren kezka geunkan bai, nagusi ta menpeko, zedenak zura lez geure izate azpia karraskaka. Laredo'n geratu ziran gure nagusirik beiñenak guztion zoria alik eta ondoen atondu naiez. Egia da, arrasti atan Laredo'n egiña etzan izan besterik eurreko egun baten italiarren eta euzkotarren artean Biarritz'en, jon Axuriagera'k eta jose Maria Lasarte'k euskaldunen izenean eta Caveletti markesak eta Manzini jeneralak italiarren izenean siñatu ebena barrizatzea Izango ete bakotxa emoniko berbearen eusle?

Or untzia! Eta ez errazoi barik! Gizona berez bai dozu —Dabid erregeak argi diño salmuetan— guzurti ta maltzur!

48 AGIRRE TA JAURKIDE BATZUK ATZERRIRA

Iñok ez eban nai Agirre lendakaria izterbegien atzamar artean jausi eitenik, Maiteegi eban euskaldun erriak, eta orduko bere lankideak. Eusko abertzaleak batez be makiña bat alegin erre zituen, berak nai ezta be, Laredo'tik Santoña'ra ta andik Frantzira

joan zedin bultz-eragiñik. Agirre'k ez eban opa ez lurrez ez itxasoa Santander eta bereak itxiaz alde egiterik. Etsaia joranez ebillen lurralde arekin jabetu naiaz; azken egun areik Agirre'k berak edesten daukuz iñok baiño obeto.

«Dagonillaren 23'garrena zan —idazten dau—. Cabo Mayor' etik ur datzan egurats-etxe baten nengoan. Gudariengandik urrin, neure zaindarienak baiño beste jagolerik ez nebala, burutik bien goan joango ez jatazan egunak igaroten. Italiarrak eta Franko-ren guda-gizonak gero ta urrago etozala jakiñik, azpiko arerioak asi ziran uri barruan euren ezkutuetatik urtenda, matxin-nasteari eragiten. Itzarrik emon genduan neugaz geratutako ministrak eta nik. Beste jaurlarikideak orduko, neure aginduz, Frantzia'ra joanak nebazan, erbesteratu jakuzan 150 milla euzkotarrek bear eben laguntza eratuten ekin egioen».

Urrengo egunean, eguna argitu zanez, Gamir Ullibarri jaun, lenengo Euzko Gudaroztearen buru ta gero Iparreledeko guda-dozte buru zana, joan jakon itxaspeko (Sumarino) bat eukala ortuan eta ia ontzi artantxe joan nai ete eban Asturias'era esaten. Ezetz erantzun eutson. Illuntzean Euzkadi Buru-Batzarreko nagusiak esana egiñez, bere *Negus* orduantxea jatsi barria zanean sartu zan erbestera joateko.

Agirre'k an geratzen ziran eusko alderdi buruai :

—Eta zuek zer egiteko ustez?

Areik erantzun:

—Lendakaria onez atera ezkerro, dala guretzat dan lako zoria.

Agirre'k idazten dau azkenez: «Neugaz etozan Torre ta Montzon jaurkideak be, goitiko bonbaketa izugarria zala eldu giñan egazkin-laura, baiña babespeko aterpe baten orde, egazkiña galdu geinkela-ta, guztiok eskuz saka egin geuntson *Negus* zarrari. Onek abiada baten jaso ginduzan goietara, ta itxasorantza artu genduan. Santander'ko kaira sartzeko gertauten ebillen *Canarias* gudontzi bizkorraren aurretik igaro giñan. Andik ordu betera Miaritz'en giñan. Eta odoletan busti-bustitako baionetaz edestigiñan ziarduan

nausikeriari menegin nai ezta, berez erbesterau zan Erriaren zati bategaz antxe batu giñan bigarrenez».

Askatasunaren illunaldia gizadiari iragartera joiazan.

49 ESPETXERATUAK

Ulert-eziña egitan, gure samiña etsaien mende geure buruak ikustean. Kinka latza zan. Alik eta zuur ondoen jokatu nai izan eben agintariak; eukiko ebezan euren utsak eta okerrak, edestiak epaituko ditunak. Baiña zuur eta senezkoak izan ziran emon zituenu urrats guztiak; etziran lo egon arduradunak, Jon Axuriagera ta Luki Artetxe batez be, menpean eukezan etsai nagusiakaz etenbako alkar izketa ta goraberak eukiaz, ez gero Santona'n eta Laredo'n, baita Getxo'n eta Gasteiz'en be. Etziran eriotz bildur, Aberri alde jokatzerakoan.

Bestalde, agintariak eurak ez ekien zelan eurrera egin. Ituna azpi-marratua egoan, baiña ez Euzko Jaurlaritzak, euzko Alderdi jeltzaleak baiño. Eta ona emen legea ta eskubidea bi dantzari, espaiñarrena ta naziño artekoa. Zeiñekin jokatu? Gu ez giñan gerran sartu, sar-azo ta eraso egin ginduezan; gure aurka ebiltzan espaiñarrak, italiarrak eta alemanak. Leizaola'k, zuzentza jaurleriak iñoanez, guk naziño arteko legea ta eskubidez geunkazan zer-ikusiak eta ar-emonak. Eta olan egin zan, italiarrakaz aspalditik ar-emonen asi ta eurokaz ituna egiñik.

Zeintzuk ziran itun onek eukazan baldintzak? Zer iñoan, naizta aurretik Biarritz'en, Getxon eta Laredo'n sendotua izan. «Santoña'ko Ituna» deitzen jakon onek? Ona alderdi biak bete bearko obezan baldintzak.

Euzko Gudarozteak:

- 1.—Izkilluak italiarren esku mende itxi.
- 2.—Euzko ikurrinpean ez egozan lurraldean nasterik sortzea galazo.
- 3.—Laredo'n ota Santoña'n preso eukezan Franko'ren aldekoak aske itxi.

Italiarrak:

- I.—Euzko gudarien bizia jagon.
- 2.—Santandor aldetik ebiltzan ouzkotarra atzera etxoratzeko bide zabala itxi.
- 3.—Itun onek babesturiko euzkotarrak ez eben Franko-ren alde gudaldienik izango.
- 4.—Euzko Jaurlearitzari atxikitako erritarrak ez eben ondoren txarrik izango.

Italiarrak eurak, dagonillaren 25'an, Laredo'n sartuta gero, bertako plazan baldintzok irakurri ta kale-ertzetan esegi ebezan, italiar ikurrin bat zain ipiñirik.

Bete ziran ala ez baldintzok? Gure aldetik, oso-osorik. Armak e, a beste guda tramankuluak an geratu ziran italiarren esku. Gulgaitik zalapartarik jagi Santander'rik giñan bitartean eta El Dueso espetxean egozan giltzapetuaak, gorriak baiturik aspaldi egozanak nunbait, Padura euzko gudaroztekoak ezeren kalto barik andik atera ta euren esku itxiak izan ziran.

Eta italiarrak, euren aldetik, zelan jokatu ete eben? Maltzurrak izan zirala idatzi zanarren, ba leiteke azetz izatea. On Alberto Onaindia markifiar gizasemo argiak, auzi orretan sakon-sakon sarturik ibili zanak, zentzunez diñosku ez-tz. Duee'gaz eta Batiakano'gaz ar-emon estutan jardun ondoron diño au, ota beraz siñisgarri dogu bere autorra. Euzko Gudarozteaz gizonki agertu ziran nun-nai ta noiznai, Bermeo'tik Larodo'raiño; goi-goi jarten eusten niri Luki Artetxe'k eta Jon Axuriagerra'k arein gizalege ta duintasuna. Santiña'ko kaian gengoz-noi eurak esan euskuen leku seguruago bat aurkitzoko eta guk orduan utsik egoan Due-so'rako bidea artu genduan; an iru egunez, adeitsu agertu jakuzan eta Frantzi'rako igarobideak artez jarten lagundu, gu geure barruko ar eta zimikoz josiak aza¹ ez poza erakutsi genduan bitartean. Erreketa ta fazistak izan ziran² ero, iru egun itxaropentsu egin ondoren, ango atoak giltz-serrapoz, kris-kras, itxi euskuozanak. Orren protesta ogin eben italiarrak. Egiak berea sarri luzarora baiño ez dau agertu oi, zer asko, neke ta izerdi asko botaz baiño agortzen ez diranak oguzkitara bage geratzen diralarik.

Giltzaporrak ondo itxirik gengoan ezkerero zer jazoko ete jakun? Zer ekarriko geroak? Gu ara orduko gauza bitxiak gertatu ziran espetxe sonatu aretan. Gerra asi zanetik zuri-pilloak eukezan *gorriak* itxituan, eskumatarrak zirala-ta; gero, Laredo'ko ituna osotu aurretxoan, euzko abertzale alderdiko gudari taldo batok, nagusiak aginduta, orantzun bearko eban batzorde bat osatuz, Ales Artaza ta Gabirel Arana'k, biak komandanteak, Santoria'z jabetu ziran; egazkiñak gaiñ bailtzan turutak jo ta iñor konturatu barik Dueso'ko atea edegi ebezan, an preso egozan Franko-zaleak aske itxiaz. Padura izan zan egintza au burutu ebana.

Eta orain geu aurkitzen giñan an morroillope. Noiz arte? Agiriak antolatu arte, bear bada. Gure nagusiak, an gertatu giñonak ondo dakigu, eurenak eta bost erre zituen geure aldetik dagokiguzan baldintzak bete ta bete-azoteko. Etzan auzi erreza, baiña ezin daikegu uka zerbait egin zala. Etzan «erreza» diñot, eta olaxe dozu: gudate luze gogorra izan zan etsaiarentzat Ipar-aldeko au, eta orain ez ginduezan, ez, samur artuko, eskuetan euken txoriari ez eutsen iges egiten lagako.

Emen geunkazan guk geure nagusiak, eta onek poza ta itxaropena emoskuzan; Gudarostekoak eta Alderdikoak itzal aundiko ziran guretzat. Emen genduan Euzkadi Buru Batzarra, auzi onon erantzunkizuna bere gaiñ artu ebana. Ipar-aldeko enparau gudaroztearen nagusi-nagusiak iges egin eben edo-ta Asturias aldera aldatu; etziran beñik-bein iñun agiri. Euzko Jaurlaritzakoak, bearturik, erbestera joanak ziran. Emen jarraitzen eben, baiña. Euzko Gudaroztearen buru ta ingurukoak.

Tximistak egiñean esanda be, bego emen gure erakunde goragari onen, Euzkadi Buru Batzarraren oroipen ezitia, onek eta Emakume Abertzale Batzak zintzo ta kementsu jokatu bait eben geraldi guztian, beti gudarien ondoan arnasa emoka egonez. Eta nik emen, besteai ezertxo be kendu bage, aztuta daukagun abertzale jator bat aitatu nai dautzuet, Luki Artetxe. Onek Bilbo'n zalarik, bada'ezpadan, Laredo'ra etorri eta ementxe idoro eban ondartza zabalaren azkenerantza txalet bat, beretzat eta ara joiazanentzat. Ez eukan eukera aundirik, eta «Villa Misherv» izenez ezagutzen eben guztiak. Errioxar batek utsean eta ondo-naiez itxitako etxe au izango zan bagillaren 30'tik italiarrak Laredo'ra sartu

arteno, erakunde aintzatsu onen egoitza arrunta. Ementxe esan jakon J, A. Agirre'ri, naizta onek naiez, arren eta arren joan zedilla erbestera.

Espetxe nasai zabala dogu El Dueso, itxas-ertzean eta tnendibarenean, Euzkotarrok emen bizi bearko luzaro be luzaro. Lenengotan beintzat ez gara gitxi, sei bat milla. Gudari soillak eta nagusiak. Emen daukagu Azkue, Euzko Gudaroztearen buru; emen Jon Axuriagerra, Bizkai Buru Batzarreko buru, guda amaikerarako makiña bat joan-etorri egiña: emen Luki Artetxe, abertzale zintzo ta langille nekatu eziña; ementxe Joseba Rezola, Unzeta, Zabala ta Markegi, azken biok ero beste amairurekin il ebezanak. Konta ezin-ala, ziuurrik asko.

An ebiltzan lanean gogotsu gu erbestera bialdu nairik. An egozan Santoña ta Laredo tarteko ur-gaiñean aitatu doguzan ingles ontziak; emen ikusten zan «No intervenciOn» eritxon batzarreko legezko ikerlea, ontzi bi orreitako kapitanakaz Costa e Silva jaina gure igaro-paperak artez ete egozan ikustatzen. Baiña geiegi luzatzen zan gauzea, eta Franco'ren agindua eldu zaneokoxe, Dueso'ko atek ertsi egozan, Gugaz etziran gudari talde mordoak Laredo'n eta Kastro'n baitegi-zelaietan egozan.

50 GURE GIZONAK

Ots-otsean asi zan gorroto zitalaren egingoa, zigor-makilla. On-do loturik gengozan, ez egoan iges egiterik. Eta geure jaioterfa jagon beste pekaturik ez geunkanok, gu gaizkille izugarri lez epaitzeari emon eutsen, aspald tik ekarren 13,renu-bitsari ezin eutsiz.

Euzko Jaurlaritzakoai ez gudatean ez gero Euzko Alderdi Jeltzaleak erxtaturik joan ziran erbestera, Orrei ezertxo be kendu barik, Euzko Gudarozteak eta espetxean egon giñanak gizon sen aundiko, arduratsu ta jatorrak euki genduzala esanaz, ez diñogu guzurrik ez geiegikeririk. Egiazko galzorian eta etsaiz ingureturik aurkitu arren, benetako lela ta maraztasuna erakutsi ebon beti. Askoren artean aipamen aparta merezi dauana Jon Axuriagerra dozu.

Ogeta-amairu urteko, bera zan garai atan Bizkai Buru Batzarreko lendakari, industri injinerua. Aurrenik ez eban artu nai kargu ori, baiña bere burua ain egoki zuritu ebalako, batzarreko batek zutundurik ozenki esan eban: «Axuriagerra jaunak bere jarrrera ain kementsu aldeztu al izan dauan ezkeru, kemen bardiñez aldeztuko ditu aberriaren eskubideak be». Kargua arturik, alegiñak alegin erre zituan egokiona alik zintzuen beteteko.

Azken orduetan italiarren mende gengozala, eta lenengo-lenengo-tik, bera izan zan geien arduratu zana «Santoña'ko Ituna» detzen jakoneko gorabera itxi aurretik be, azken-onean, gau-erdian gogor jokatu bear izan eban italiar agintariakaz, eta menderatu ta gero, Ituneko baldintzak sendotu ta bete-azotera beartu ebazan. Baldintzak gorago esanak dira, Axuriagerra'k eta italiar Manzini koronelak, obeto Roatta jeneralak izenpetuak.

Euzkotarron ondezkarriak, au da, Axuriagerra'k, bete zituan aitzen emon dogunez bere baldintzak: Santoña ta Laredo presondegietako baituak aske itxi ziran; izkilluak, astun eta arin, emon jakezan eta geuk, geure lur-zatia etzanean, iñoiz be esateko istillurik ez jenduan sortu. Italiarrak, ostera, ez ebezan eurenak zearo bete, Franco'k ez ba eutsen itxi, esan dogunez.

Otxandioar azkar kementsu onek ainbat joan-etorri egin zituan Bilbo, Gasteiz eta beste toki batzuetara. Eta azkenez, euzko gudariak espaiñar guda-oiñetara bialtzen asi ziranean batez be, maltzurkeri au ezin jasanik, gose-greba asi eban amairaiño jarraitzeko asmotan. Espaiñarrai alan be kezka gitxi orrek emoten, eta orduan, Axuriagerra'k lez, bertan geugaz azkeneraiño geratu ziran Euzkadi Buru batzarrekoak batzarrean alkartu ta paper bat arkatzez idatzita jan-uko egiñari emon eutsoen. Paperak au iñoan: «Dueso'n alkaturik, gaur iraillaren bederatzian, Artzeluz, Markiegi, Alberdi, Unzeta, Artetxe ta Solaun'ek Axuriagerra'ri adieraztea erabagiten dabe, une onetatik itxi bear dauala, guztiontzat kaltegarriago izan daiteken istillu aundiago bat gaiñ etorri ez dakigun, bere jarrrerari amaia emon eta jaten asi bearra daukala». Jaten asi zan, men egiñik.

Nagusi buruak, ots, Azkue, Markiegi, Zabala ta besteak jausi ziranean be, urrillaren 15'eko goizaldean, Axuriagerra'k idatzi eutsen italiar indarren buru zan Manzini'ri gutun luzea, itunaren

baldintzak ausi egin ebazala esanaz. «Zeuk esanda —iñotsan-geuk gurarik sartu gintzazan El Dueso'n, gaurko italiarren jokabi-dea ona ta leiala izango zalakoan; gaur berton izan dira amalau gutar fusilatuak, gizaseme on, jator eta artezak, iraultza onetan euren aberriaren askatasuna besterik gogotan erabili ez ebenak, zein burrukan zein bakean giza-legea ta zintzotasuna baiño erakusten alegindu etziranak. Gaur oneik izan diran lez biar beste batzuk izango dira, ni euren artean ziur asko. Jainkoak apaituko gaitu batzuk eta besteok. Ez dakit jazoten dan guztia zeuk naita jazoten danik, baiña ain errudun da itza emon eta beteten ez dauana al izan eta beteten ez dauana. Gure opari onek ekar beiz frutu ugari, eta jainkoak emon beio Euzkadi'ri opa dauan askatasuna. Dueso, 1937-10-15. Axuriagorra'tar Yon».

Idazki au egun aretan bertan mandatari baten eskuz Donosti'ko italiar Covalti jaunaren eskuetara eldu zan; eta onek, Burgos'ko Gudaltegi Orokorrera joanik ango nagusien eskuetan itxi eban ilketa geiago egin ez egien. Eta, egi-egiaz, santandertar batzuk ota tiroz itxas-egaleko kanposantuz kanpo il ebezan arren gure gudarrietatik ez eben iñor ilteko ziranak, Bilbo'ra Larrinaga espetxera eroan eroiezan. Otxandioarra lonengo epai-egunetik egon zan eriotz-zigorrez zamatua.

51 BAITEGIKO BIZI-MOLDEA

Santoña'tik kilometro erdira lez dago Dueso, itxas-egalean, mendiari dautsola, leku apaiña, Erritik Berria'ra doan eskumaldean, milla metrotik gora orma naiko goituaz inguratua; erdian kokatua dago espetxea bera, aundi ta eskerga, inguruan gaiñekaldetik lantoki ta bizileku batzuk ditularik, Itxasoak ipar-aldetik ots dagi burrunbatsu, Kantauri neguz zalapartari bai dozu; baitegiko geletatik ederto entzuten dira aren orroak; ementxe itxaso iskanbiltsu ta baitegiko orma tartean, kanpokaldetik, daukazu iltegi txiki bat, eta ementxe ormaz bestekaldetik jausten ziran tiroz ildakoak, barruan lurra emonik gero.

Baitegi au doi-doi egiña zan gu sartu giñanean. Ementxe bizi izan zan Sanjurjo jenerala, 1932'ko abuztuan Errepublikaren aurka jagi zana; urte bi egon zan berton. Eraiki eder zabala, asko

artzeko gai zana: gu 6.000'tik gora giñan. Kanpoko ate nagusitik barruko ate nagusira elduz gero, ezker-eskuma barru nasaia daukazu begien aurrean, larrain zabala ta gaixotegia bertan. Lau pixa daukaz baranda luzeakaz, *eta* gelak ugari lau solairu edo oiñetan. Danak dira bardiñak, lau metro luze ta bi zabal, leio txikia goi samar. Besteak oge-somier bat be euki izan daben arren, guk ez daukagu ezer, baten lekuan zazpi-zortzi gagoz-eia. Lo egiteko azpi zementozkoa. Garbia? Mau! Nik ba-nekian lendik be zorriak zer ziran, baiña ez marmut antzera zorri adardunik; gu baiño leen an egon ziranak itxi euskuezan manta ta gaiñerakoak erre egin bear izan genduzan eta lurrean lo egin. Egunero alan be egin bear izan genduan zorriketa,

Zelako bizitza egiten? Ez nasaia gero! Jagi 7'etan. Au edo bestea zigortuta ez ba'gagoz, sarri oi zanez, eta orduan estu ariña izaten zan gure garbiketa; olakorik ez bazan, ikuz-lekura joan e, a ango iturrietan garbitu ta apaindu, Gosaria S'etan. Niri Zubigarai etxeak, Klaudio Onaindia'ren bitartez, txokolatea bialtzen eustan naikoa ugari. 1 l'terdietan janaria, ia beti otza, kontserba latako aragia; iñoiz titoak, tilistak eta noizik bein garbantzoak arako aragi zati batzukaz. Ordu 2 t'erdietan atea edegi oi euskuen ordu erdi bateko ibiltaldia egiteko espetxe barruko larraiñean, eta ondoren geure geletara ostera be. Aparia geienez, antoxin beste tilista (lenteja) dogu. Egun guztirako ogi-zapar bat. Biaramonean beste ainbeste. Eta urdailla utsik erabilli ezker, ez daukazu utsitent ibilli bearrik. Ni egon nintzan, beste asko lez, amabi egunez belena joan barik.

Italiarrak alde egin eta fazistak angoz arduratzean, lenengo guztioi egin euskuen araketa itzala izan zan; sarrerako ate ondoan zabal-azo izara luze-aundiak eta, gu geletatik aterata, aldean geunkazan zer guztiak antxe itsi gengizala egindu euskuen. Lau zain-tzaille egozan begi zorrotz. An doaz egazka domiñak, orduariak, erestunak, aiztoak, artaziak, txirrindolak, tunbasak, ezkontz-eres-tunak, diruak, su-piztekoak, idazkortzak, arkatzak, jantziak, alda-garriak, oiñetakoak... zer ez gero? Nik ez neukan gauza berezi-berezirik; jagole batek arakatu nindun polito, aldean nerabillen errosarioari ez eutsan jaramon aundirik egin. Liburu bi neukazan, bata Sabino Arana'ren «De su alma y de su pluma» zan eta bestea

«Kristo'ren Antz-bidea», gerra asi aurretixoan Zornotza'n argitaratua, Aita Pi karmeldarrarena.

—Eta oneik?— itandu eustan,

—Otoitz-liburuak —nik erantzun.

Ez etzan besterik esan. Baita aldean neroian meza barri egunean —1934'7-9'an— gurasoak Markiñan emon eustien erlojua be, baiña erakatzea asi orduko zapata barruan, orpo azpian gorde neban eta etsaien atzamarrak etziran araiño eldu.

Iru-lau manta ta izara aundi bete zituen gure bitxiakaz. A gutia guk ostutakoa ei zan. Ori esan euskuen beintzat; baiña etzan egia, guk ez bai genduan ezer lapurtu.

Astia emon, zer egiten ete genduan g'Tetan? Miiñari ekin, etzun eta egon, girorik ez ba zan be. Erretzailleak erre ta erre, naiz-ta txarto ibilli tabakoz. Kristok agindua berez, alkar maitasun ikaragarria zan errege kartzelan eta eukanak eukana, tabako, janari, jantzi, liburu ta abar, danen artean banandu oi zan.

Goiz eta illuntze, egunero joaten giñan ikurriña, obeto esanik, banderea, «Cara al sol» abestuz, agurtzera. Ez gero adozelan, gartsu ta gogotik baiño. «Gora» areikaz naste, etzan an birao ta ainen gitxi botaten! Illuntze baten Losada abizeneko, Trintxerpe'n bizi izandako gaillegu anarkista batek, amorruaren amorruez ilnaita, «Gora»-k esaten asi aurretik, oinkada bi aurrera emonaz, onan deadar egin eban: «Viva la Reptiblica! Viva la Libertad!» Ango zalaparta ta iskanilla! Berealaxe tiroz il-azo eben gaixoa.

Lenengotan ez euskuen eleiz-gizonoi meza emoten izten, gero bai. Altara ta jantzirik ez geunkalako ta denporea be neurtuta, egunean batek esaten gendun, «Rastrillo» geritxan lekuan. Danontzako meza kartzela erdiko larraiñean esan oi eban Anselmo bertako kapellau jaunak, Noizik bein meza ospetsuak, jaun ar tze ugariakaz egiten genduzan. Etziran gaiztoak an egozanak, ideia ta eritxi askotakoak izanda be. Komunistak-eta guttiz bigunak ziran. Asko etozan autortzera, ez gero guk bearturik: arriskuak biotza amul-bera biurtzen...

Orrezaz gaiñera, gela-gitxi geratzen ziran egunean eguneango errosarioa esan barik. Gu kapellauok pozik gengoan guzti onein artean on aundia agiten genduala, uste izanik. Ainbat presok euren arima kezkatuen lakatza edegi ta zain lez, pekatari naiz zintzo, argi-argi erakutsi oi euskuen. Eta zuk, irakurle, ez ukatu irazean eta funtsik bagako, au beti da-ta egi-egiaz aintzagarri.

Gorantza joian iraila. Otz itxas-egalean. Gu estalgi barik. Gelak, bakotxean naiko giñalako, beroz polito, baiña kanpoan... Gela barruak goi-samar eukezan leiatilletatik laiño ariñak genkusan, zigortuta gengoanean; otz, beraz. Aizea be ozkirri ezker aldetik, udazkena ta negua genduzan giñan.

Baiña zantzu orren jakin-miñez ez luzatu larregi zeure samea leiorantza. Kontuz! Kontuz, gero! Kanpoko zaintzalleak lengoan buruan jo eban bat, eta tiroz jo be, geiegi goratu zalako. Zuur jagonda gagoz eta ez ibilli txantxetan. Otzaren biurria gorabera, Mikel Deunaren egunean, euskaldunon zaindari dala-ta, jai aundi bat meza ta guzti ospatzeko asmotan giñan, baiña ez euskuen itxi.

52 EPAIKETAK

Frankotarrak, gutaz jabetu ziranez, kontuak eskatzen asi jakuzan. Arin garbitu gura ebezan gauzak. Iru-lau epai-mai ipiñi, bakotxa ondo zainduta, azter lanari egin eutsoen aspertu barik; laburra zan bakotxaren azterketa, lau edo bost itaun aurretik zeatz erabagiak, eta kito. Zertzuk ziran oneik? Nungoa zan, politikaz zein alderdikoa, nungo burruka zelaitan ibilli zan, ze maillakoa izan zan...

Eta epai-zigorra? Eriotza geienai. Alan be, pozik etozan ia danak, epaiketa au olgeta zerbait zalakoan, guztiak barreka artzen ebena. «Eta zuri zer?» itandurik, geienak onela: «Eriotza». Barre-zantzo zildaia emonez. Eundaka olantxe. Illabetetako jarduna.

Gu gudarien apaizok orabat, ez ginduezan bazter itxi. Guztiz 120 bat giñean eta kontu-artzaille bi eukezan guretzat: bata, Junco, burgalesa, eta bestea Manuel Cardenal bilbotarra, nigaz bei-

ñola ikasle izana, 1922'tik aurrera iru bat urtean Larrea'ko ikaste-
txean; niri ez eustan arpegirik erakutsi, lotseak gauza asko estal-
tzen ditu-ta.

Junco'k asiera-asieratik estu artu ninduan ni, iru galdera oneik
egiñik: «Zein daukazu zuk zeure aberritzat, Euzkadi ala Espai-
ña?»; bigarrena, «Frentean ez zenduan erarik euki gure aldera
igaroteko?», eta irugarren, «Zuk *Karmed go Argia* aldizkarian
idazten zenduan». Lenengoari itaun maltzurre zala erantzun neu-
tson; bigarrenari, baietz sarri aurkitu nintzala egoki euren aldera
joateko, baiña ni gudarien arima-zain jarri ninduela; eta irugarren,
nik baietz ikasle nintzala idazten nebala aldizkariaren zuzendaria
lan-eske etorkidalako. Zigorra. 30 urteko espetxea.

Argi ikusi eben, itxura zanez, ez giñala eurak uste eben baizen
pekatari, eta 120'tik amabi bakarrik zigortu ginduezan, espethez
beintzat. Gaiñerakoak aske geratu zirala be gu baiña txartoago
Ili ziran euretatik asko, langilletaldeakaz naste gorriak ikusi ebe-
zan andik eta ortik egunak eta urteak erreaz.

Epaiketa orokorra andik egun batzuetara ospatu eben guztiok
areto zabal baten alkaturik gengozala. Fiskalak, juezak eta alde-
koak, alkarren leian, sekulakoak esan eta aldarrikatu euskuezan:
deabruaren arikoak giñala, Euskalerrria geuk ondatu gendula, guda-
riak be geuk gaiztotu, Espaiñaren eta munduaren aurrean ikasbide
barrabana emonik. Eriotza merezi genduala, baiña Franco'ren erru-
ki ta ontasunari eskerrak, bizirik itxiko ginduezala, jaurkitako
makurraren ordaiña, alan be, artu bearko gendula. Niri, esan dot,
30 urteko espetxea leporatu eusten; beste batzuei be 20,12 ta
olakoak, guda-gizonak eta gazteak Espaiña'ren aurka sustatu gen-
dulako,

Espethez zigortu bakoak ondoren urten eben, ez gero euren
etxeetara edo lantegietara zuzentzeko, Miranda, San Pedro de Car-
deña ta antzeko tokietan batuta guda-oiñetan langille berezi lez
ziarduenakaz alkartzeko Gu barriz Dueso'n berton, sarre-
ratik eskumatara, irugarren pisuko ertz batean egokitu ginduezan,
danok irunako geletan, jarraian. Juan Jose Agirre, kapellautzan
gure buru izan zana, eta Eujenio Larrañaga, biok Elorrio'koak izan

nituan nik lagun irunako gela estuan. Ementxe igaro genduzan, beraz, irurok bost illabete alkarrekin.

Iru bat illabeteko epea bear izan eben euskaldunok epaitzen, eta gero kantaunitarren txanda. Iraillaren 9'an larunbatez, epaitu eben Kirikiño'ko komandantea, Errekalde jauna, beste batzuekaz, 20 urteko zigorra; urrengo astelean, Jon Beistegi, Amaiur gudariztearen buru gudaldian eta gero Bilbo'n «Agur» asterokoaren zuzendari. Biok merezi dabe aipu au, alkarrekin luzaro ar-emonean egonak garealako.

Gogotan daukaguz gaur be gure epailarien zeremoni nasai-benak. Apain, itxas kolorezko jantziz, bizardunak geienak. Eskua sarri okotzean, igurtzika, Militar jantzitako bi ezker-edkuma. Fiskala, jakiña, ezkerretik, eta aldezlea bestetik. Barritsu be barritsu, ia izarditan, ordu luzez, Itzalak diñoiez, eta danok ixillik. Epaia ondoren,

53 14 TIROZ IL DABEZ

Urillaren amalaua. Eguena. Biar Santa Tesera. Zer jazoko ete? Badabil zurrumurrurik, eta intxaur-otsa danean... Dana dala, illuntzean eta gauerdian ostean eldu da zerbait espetxeratuen belarrieta-ra. Oi ez lako zantzu gaiztoa! Usmo erneak zer-edo-zer igarten. Eta goizean jagoleak arpegi illun. Zer da jazoten dana? Amalau baitu fusilatu dabez! Nortzuk gero? Sei abertzale bai, ondo aukeratuak: Azkue, Markiegi, Ibarbia, Otamendi, Markaida ta Zabalak. Onela: Euzko Alderdi Jeltzaleko bi, Euzko Gudarozteko bi, Euzko Langilleen Alkarteko bi, Alderdi Sozialistako bi, Erkal Alderdiko bi, Komunista Alderdiko bi, C.N.T. Alderdiko bi. Aukera ederra nunbait! Sekulako porroka guretzat!

Gizon jatorrak jausi ziran. Begira: Azkue'k eratu eban Bizkaia'n eta munduan aintzaz eta ospez bete eban Euzko Gudaroztea, baita adierazo be «ederra» zala Aberri alde bizia emotea. Markiegi, Deba'ko alkate ta Gipuzko Buru Batzarreko; Zabalak, nire ediskide miñak, gabaz ordu batzuk kapillan emon ebazan, autortu, Jau-na artu ta meza entzunaz: gu meza esaten ara joan gintzazanean, bero-bero aurkitu genduan otoiztegi a, eta an egon ziranen omenez

esan genduan egun aretako mezea. Txapel bat egoan jarleku gainean eta nik, ziñopa gomutaki lez, neuretzat artu neban; gero jakin nebanez, Zabala'rena izan zan.

Ramon Azkue, ezkongai ta bilbotarra, 38 urtekoa. Izakera on, gozo ta sustsukoa. Azkue'k eta Markiegi'k azken orduan zazpi-zor'tzi kar'ta egin ebezan ama, emazte, arreba ta abertzaleai. Euzko Alderdikoai Azkue'k onela: «Azkenaren zain gagoz zindo ta sendo. Iru ordu palta jakuz. Agur egiozue geure partez lagun eta adiskide guztiai, neure loba Juan Mari Yandiola, Fede eta Zabala'tar Jesus'i. Besarkada bero estu bat. J. E. L. an betikotasunean alkar ikusi arte. Azkue». Eta bere arreba Tere'ri: «Trankil noa eriotzara, baita pozik be, gaur fusilatuak izango garean 14'ok bardin guz'tiok autortu gara Jaunartzeko gertaurok».

Markiegi'k be, lau-bost karta idatzi zituan, Maritxu bere emazteari, Itziartxo, Lore, Nekane bere alabatxoai, bere erritar eta euzko jeltzaleai; eta orreitan laga euskun josorik bere arima xaloa. Bere lagunai onan: «Sei ezkertarrekin nago 50'garren gelan. Neure azken errosarioa eurekin erreztatu nai izan det, baiña itxuraz ez zait errez izango. Federa ekarri nai nituke auek; nik esan diet (eta ikusten dute) une auetan Fedeak ematen duen indar izugarria. Errosarioa eskuan, bakarrik esan det. Uste det bigunduko dirala. Alan nai beza Jainkoak. Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jainkoarentzat, auxe da gure goiburua. Nik merezi ezta ere, Jainkoak eriotz eder bat ematen dit. Au zoriona! Eriotzarekin aurrez-aurre nago, Aberriarentzat joria izango dan eriotzaren aurrez-aurre. Azkenari itxaroten nago gurari biziz, Zuoi ere txanda iritxi ezkeroz, etzaitetze kikildu. Naiko kemen eman oi du Jainkoak. Gora Euzkadi azkatuta, Jainkoagan bakarrik lotuta. Ploren Markiegi». Due-so, 37-10-15.

Eta beronek bere emazteari: «Maritxu maite, ordu gutxi barru zerura noa, eta Janikoak bere besoetan artuko naunaren uste osooaz jua ere; au nik zu iñoiz baiño maiteago zaitudan une onetan e'ta zurekin eta txikiekin bizi izateko gogorik aundiena dudanean. Jainkoak ba-daki zer egiten duan; egin dezagun Aren naia». E'ta iru alabatxoai: «Aur Josu'ren ondora noa, ez nik zuek maite ez zaituztedalako, Berak nai duelako baizik Berarekin bizi izatera

joan nadin. Maite-maite egizue Josu. Ez naigabetu amatxo, lagun egiozue beti eta poztu egizue triste ikusten dozuenean. Ene txiki-txuak, ar itzazue hiotz-biotzez nere musurik maitekorrenak. Zertutik oso maite izango zaitue zuen aitatzok».

Orrelaxe ziran gure euzko gudariak, gure alkateak, gure nagusiak.

54 ONDO ZAINDUTA GENGOZAN

Dueso'k bai orna sendoak! Eta itxasoa, bidea, erria ta mendia lau alderdietatik. Ez, ez dago iges egiterik. Gaur, egia es2n, malmutzago dira espetxeratuak eta baleiteke, baiña ordukoak arras mantsoak giñan, ez-jakiñagoak, iges eg:ten amesetan ezik ez genkianak. Zanak sarri otzikaraz astindu arren, antxe jarraitu bear gau ta egun, pozik ez bazan naigabez. Oi, espetxeko bizia bai ituna, negargarria!

Atari ondoan katez loturiko txakurra lez, gu be loturik. Moztu amesen kimuak, ementxe bizi bear dozu zigorra ordaindu arte. Nik 30 urte neukazan ordaintzeko. Fiskalak auxe eskatu eustan eta epailleak ez eustan jatxi urte erdirik be. Beraz... Emen nitun aldi baterako aberkide, apaiz-lagun, txiro, aberats, toki ta mailla guztietakoak. Gazte nintzan, baiña nigaz egozanak be. Modakoa dozu beti be gaitzespena, kontrakoa, gauza bat egoki ez jakunean, ezer eundirik ez bada be, geure atsekabea erakustea. Zer dozu gerra bera? Erakutsi, barne-miñaran erdikide bedi gure adiskidea be; ori etxean egiten, kalean, komentuan, orobat espetxean.

Nagusiak maxiatzea oitura zarra danik ez daustazu ukatuko. Guk be ez geunkan geldi mingaiña. Dueso'n ba-zan jagole bat, Galeno eritxona, pizti tzar bat, okerra bene-benetan. Onek zabaltzen euskuzan atepak, jan ostean platerak garbitu gengizan eta abar. Urri-llaren 27'an orretan genbiltzala geletatik kanpo, zarata ikaragarria. Zer zan? Danok barandara. An bean, sarrerako ate aurrean, gizon bat lurrean! Gu guztiok kezka joak. Galeno atepak itxi ta edegi; beak daukan gaillegua il bear dau ostikoka, Franko'ren itxas-ontzitik iges eginda emen aurkitzen dan gaztea. Goitik begira iskan-billa! Galdenok ara ta ona tiroka kea ateraten!

Protesta onek izango ditu ondorenak. Or! Beste egunetan lez, gaur ez dabe argirik itzali. Zer da jazoten? jagole bi ta lau gris-dun, izen-zerrenda eskuan, gelarik gela dabiltz. Goizaldeko ordu batetan deika ta ilgai billa oindiño. Bildurraren dantza nasia. Ateak eta ateak 28'an, eguenez, diño nire egutegiak, seirak inguruan ti-rotsak datoz ondartzatik. Ez dakigu zeintzuk eta zenbat izan leite-kezan jausiak, ez bait dakigu ezer atzo arratsaldez gero. Amarran edegiten dauskuez ateak, garbitu gaitez. Bizkor ibiltan gure artean olako albistak, tximista baizen bizkor, eta jakin dogunez 42 izan dira fusilatua, Santander probintzikoak ia danak Errukarriak! Euzkotar bat euron artean, Gasteizkoa, Espada egazkinlari izana. Zotz egiñez il ditue itxura danez.

Orrela da, nor jausiko izan da iltea; ez dira ibilli olgetan. An-goak eta emengoak, kras-kras jo gelako atea atera dabez; baitegi guztitik, naiz errudunak, naiz errurik bakoak; ezer itxaroten ez ebenak, artu ta ordartzara. Ba-dira beste batzuk agertzen ez diranak. Etorriko jaku, nik uste, jipoa berotzea. Zer gero? janaria urritu, egurats-ibiltea labur-azo, kezkaraztea luzatu aurki. Are geiago fusilatzen dabez. Erretzailleak barau, zigarrorik bage. Ez platerik, ez txaramelik. Mezarik bere ez.

Kartzelarik geienetan jagole onak euki genduzan, Dueso'n banakaren bat izan ezik. Bestera esatea, zuzenaren aurkakoa litzateke. Nanklares'en, Duefias'en eta Karmona'n adeitsu artu genduan alkar, eurak gu eta guk eurak; euren zeregiña ondo burutu eben. Baita lau espetxe oneitako zuzendariak be, giza-lege arauz jokatu eben gugaz. Karmona'koa, guri argazkiak-eta ateraten itxi euskulako, kargutik baztertua izan zan. Espetxeratuok antolatu genduzan idazkaritza ta olako paper-lanik asko. Federiko Orbea'k ainbat lan osotu eban arazo orretan.

55 GAIXOTEGIAN

Dueso'n bai tu geratu-ala idatzi neutson aitari Markiña'ra, nun aurkitzen nintzan adierazoaz. Bigarren illerako ona etorri jatan ikusten. Gero illabitik ilabira etorri oi zan. Ez diñot au aita gorazearren: egiazko aita zan, ni biotz biotzez maite ninduana, orre-

laxe agertu bait zan aldioro. Pozarren aurkitzen zan ni praille nintzalako; politika arloan, bera monarki-zale zalarik be, ondo eritxon, eta txalotzen, ni gudarien kapellau izatea.

Bein min eban biotzean, min garratza, eta etzan azartuten garraztasun saminkor orren albistea niri ekarten eta beste bat bialdu eustan Markiñatik izpar unkiyarri orren mezulari. Balendin nire anairik gazteena, nik kutun nebana, Asturias aldean jausi zan. Gaztetxo zan eta nik andik alde egitean, etxean gelditu zan gurasoen ondoan; gero alan be burruka zelaira dei *egin* eutsoen, eta an jausi zan gizajoa. Lemoarx'en zauritu eben aurrenik, laster osatu zala. Zek edo-ta nok eroan eban gero oriotz Jubanera? Markiñan eortzi eben aren gorpua. Ezkutuz betea bai dozu gizona! Anai bi neukazan, Bizente ta Balendin, biak il jatazan ezbearrez eta gazterik.

Atsekabezko miñak eraginda bear bada, andik laster caixotu nintzan; ez nengoan ondo, ezin neban arnasarik artu ta kiñaskada sarria bizkar aldera. Zek ekarri ete eustan berau? Aro gordiña zan, negu-biotz. Zementu giñean lo ta egotaldi luzean egoera baten, ez dituzu gaixo-sortzaille makalak. Luzaro iraun neban ezer adierazo barik, baiña gaitza gero ta txarr gora joiala ikusiz, eritgira aldatu ta osagilleak an azertu ninduan, andarraietako miña niretzat be. Iru medikuk arakatu ninduen urrengo goizean. Andik laster orratz luze lodi bategaz etorri jatazan; ez nintzan ikaratu tresna bitxi a ikusiaz. Birritan ziztatu ta barruko zorna atera eusten orratz zurgatzaillea saiets artetik sartuta. Arrezkero, Jaunak osasun ederra emon daust-eta, ez dot olako tresnarik ez bestelakorik boar izan.

Tagole bikaiñak neukazan eritegian, Mbo'ko osagillerik one-nak nunbait. Eurotatik pilloa. Oneik be, aberri-maitale izanik, beronen alde jokatzearren giltzapetuak genduzan, eta ez jakuzan txarto etorri ainbat gaixori: eskerrak euroi *ez* giñan asko. **M**ota askotako gaixoz beterik aurkitzen zan eritegia; au ez da arritze-koa, luzaroen luzaro ez etxe, ez oge, edozein eratan jan, lo ta etzan zail gaixoaren kaparra leporatzea. Ni ondo nengoan emen, gela soillean baiño obeto, jaten obeto emoten eusten, ar-

duraz zaintzen ninduen; berez, erretxiña, gorputz gili ta urtukoa izan urtukoa izan bear —anitz diranez— arrenkura ta zinkuriñez ibilteko.

Gaixorik nengolarik ez neutson iñori iragarri, ez etxeakoai, ez nagusiai, ez adiskideai. Zer egingo eusten? Nik bai, ostera, areik atsekabetan ipiñi. Egitan, aurrerago be, Dueso'tik beintzat, ondo loturik bai gengoan, nik ez neban karta asko idatzi. Onakoren ba_t bakarrik: Larrea'ko nagusiari, bertakoa nintzala-ta, arek eta onek emonda neukazan meza batzuk, nik eziñak, an neure asmoz esateko eskatuaz.

Aita Eladio, Zornotzaldeko semea ta Txile'n urte asko mixiolari egindakoa neban orduan Larrako nagusi. Illabeteak igaro ondoren nik ba neban kezkarik Zornotzak eta Larreak berari-berariz azken orduan izandako goraberak jakin naita. Egun baten tiro artean ara egin genduan ostera arriskutsuaren ostean jazo zanaren barririk ez jatan eldu oraindik.

Amar bat egun barru artu neban erantzuna, ots, 1937'ko azilaren 19'an. Karta oso baikorra. Bakezko ta maitasunezko Kristoren erreiñua ekarten eustan gogora, berak egunero guztiontzat eskatzen eutsone, baita niretzat be. Esango eustazan mezak, nik agindutakoak. Eta gertu egoan niri premiña guztietan laguntza emoteko.

Aita Probintzialari be idatzi neutson Gasteiz'era eta berak Santander'tik:

«JHS. P. Ch. II Año triunfal. Santander, 9-XII-37. Mi estimado y apreciable en Cristo: Ya es hora de que llegara a tener alguna noticia de aquel P. Santiago, a quien yo creia tan formal y sericito y ahora nos ha salido, segun dicen, un poco de cuidado. Lo del *hijo pródigo* no esta mal traído; pues, mejor hubiera sido que hubiese imitado al buen hijo, quedkidose en casa y no metiendose en aventuras. Asi le ha lucido; y nos encontramos ahora con las manos atadas, para echarle mi salvavidas. Es una pena que se

haya producido esa... desorientaciOn tan fatal para la vida religiosa y que tanto daño ha causado al prestigio de nuestro santo No hay mas que un camino: penitencia, oraciOn y reparaciOn, si se quiere conseguir el pe -dOn. Le bendice y abraza, su afmo. en Jesus. P. Sergio».

56 ALDAKETA

1937'ko dagonillaren 28'an sartu nintzan ni, besteakaz batera, El Dueso deritxon presontegian, eta urrengo urtean, 1938'ko epailaren 29'an, urten genduan andik, Nanklares'era joateko, an zigorra kitututen gengoan amabi apaiz eta prailleok, prailleetatik neu nintzan bakarrik, besteak, an epaituak, aske geratu ziran auzia ospatzerakoan.

Santofia'ko espetxean, beraz, zazpi illabete bota nituan. Eta bego ementxe, aurrera jo orduko, erantzuna, sarri gaiñerutzen dausten galdera: «Zelan urtu zenduzan illabete luze areik?». Eta ona nik beti: «Lekaideok egiñik gagoz bakartadean bizi izatera, eta niri ez jatazan ain aldatz-gora egin egun areik. Askatasuna beti eder: kaiola barruan daukazun txoriak nai dau zer-edo-zer, beti saltoka. Baiña gizasemeok, naiz askerik naiz kate artean, denporea zelan igazi jakin bear».

Orduak zelan emon, or untzea espetxeratu batentzat. Jakituri biribilla, ziurrik asko. Nik eta nigaz egozan biak —J. J. Agirre ta E. Larrañaga— ba-genkian astiari guna ateraten. Irakurri ta ikasi izan zan iruron asti-emotea. Eta otoitzak egin, onek bada benetan poztu ta alaierazten dausku biotza ta izate barrua. Frantsesa ikasten gendun. Nik inoizka olerki batzuk biribildu, itzulpenak egin... Irakur-liburuak Zabala fusilatu ebenak izten eustazan, klasiakuak ziran, *Bera-Hur*, *Los Ultimos dias de Pompeya*, eta abar, eta abar. Geroago euskeraz jarri nebazan Silvio Pellico'ren *Miss Prisiones*, Gulliver'en *Joan-etorriak*...

Amabi kapillauok, orrez gairi, pozik gengoan Dueso'n. «Pozik» esan ete daustazu? Bai, «pozik». Urte pilloa geunkan zigorraren zartape egoteko. Gela baten alkarregaz bizi gareanok, nik 30 urte,

Eujenio Larrafiaga'k be 30 ta Agirre'k 20ra. Ora eroapenari ta aurrera. Ez estoiku antzera, baiña bai kristauki.

Ba-genduan beste errazoi bat oindiño alai egoteko: gizona ogiz, kantuz, askatasunez bakarrik ez da bizi, ba-cPtu beste tasun batzuk be bizia ecler, on, alai biurtzen dabenak.

Munduaren obekuntzari ekin bear dautso gizonak. Zelan, baiña? Urkolagunari kultura eskiñiz, berak euki leikezan samintasunak urratzeko bear dauan apurra emonaz..., modu askotan izan geinkeoz urkoari mesedegarri, Esan dodanez, millaka giñan Dueso'n baiturik, pentsakera, eritxi ta izakera guztietakoak, ain zuzen. Eurotatik asko guda zelaietan alkarregaz ibilliak, arriskuan alkarrekin egonak: gure ondoan, ba, pozik eta segurantzta osoaz aurkitzen ziran. Ez eben nai guk andik alde egiterik.- Ez ete jakun au poz-iturri?

Eleiz-jairen bat zala-ta, edo geuk asmaturiko zerbait, meza nagusi eder ospe aundikoak, erdiragarriak eratzen genduzan pitean pitean. Zelako jaiera! Azalekoa bakarrik ete? Ez uste. Nai ebenak bakarrik esku artu oi eben olakoetan: autortu, mezatan kantu ta otoitz, parte arturik, Jaunaren Gorputz sag iratuaz arimak indar barritu, Autortzak geienez aurreko arratsaldean egiten ziran, jolasaldian, patioan ara ta ona ibilliz. Guk geure jaupari ezaugarria genbillen aldean, eta ba-ekien nortzuk gintzazan.

Baiña andik, Dueso'tik, alde egiteko ordua etorri jakun guri. Araba'ko Nanklares'era jo bear genduan, an beste eleiz-gizon aldra bategaz alkartzeko, Beraz, banaketa! Ez guztion gogokoa! Meza eder bat ospatuz alkarri agur egin gura geuntson, baiña ez euskuen itxi. Epaillaren 29 zan Nanklares'erako bidea artu bear genduneko. Ixillean baiño ezpazan be, kutunenai agur gozoa egiñaz, goizeko zortziretan tarranta aundi baten amabiok, txapal-okker bik zainduta, urten gintzazan Santoña'tik Tret'o'rantzta, emen arturik Bilbo'rako bultzia. Montehano'ra orduko, arpegiak atzera biurtuaz, zapi zuriz agur samurra bialdi geuntzen Dueso'n atxillo geratu ziranai.

Eziketa onekoak ziran guri biderako emon euskuezan jagole biak. Ibilliz danetik aurkitzm. Dueso'n ba-genduan beti urde-arpegiz begiratzen euskuna, baita beste bat Servetinal de'tzen geun-

tsona be, zigor-dantzan trebe zana. Baiña oneik **irribarretsu**, adei aundiko ta gizalegea zer dan ekienak ziran. Eziketa onak berez ipiñi oi ditu tasunak ekiñean.

Amabiak jota Bilbo'ratu giñanean. San Tuan eleizearen osteko «La Bombilla» jatetxera eroan ginduezan bazkaltzeko. «Lauretan etorriko para —esan euskuon jagoleak—; zuek bazkaldu ta gero egin nai dozuena», Eta joan.ziran. Gu barriz, iges egiteko asmo barik, bazkaria luzatu ta inguruan ibilli giñan, batzuk bisitak egiten be joan ziranarren. Lauretan gertu gengoza baituok eta txapel-okor biak. Gasteiz'era autobusean eta emendik Nanklares'era. Arbola ta txaparrak, saratsak batez be, lora-muskil eta aldas-kaz dotoretzen, zelaiak zuri-gorritz bitxiturik. Gu zer etorriko zain.

57 NANKLARES'EN

Urrengo egunean konturatu giñan nun gengoza: Kristau Ira-kintzarako Anaien komentuan, aspaldiko baiñu-etxe ondoan. Toki atsegiña. Etxe orren alderdi baten gengoza gu; ni, gaixorik etorri nintzalako, gela aundi argitsuan ipiñi ninduen. Geure lurrean aurkitzen ez genkian noiz arte, baiña leku erosoan. Andik egun batzuetara, jorraillaren 12'an goizeko amaiketean, 16 geiago etorri jakuzan Begoña'ko Karmelo'tik. Izen-abizenak artu eutsezan zuzendariak oarkizun batzuk eta bazkari-izkia egitera guztiok.

Urrengo egunean beste zazpi eldu jakulan Karmelo'tik. Lauzi-rika gotzaiña be emen agertu zan, agur egin eta laster astiroago alkar ikusiko genduala esanaz, joan zan; baiña ez jakun ain sarri emen agertu. Eguen Santu zanez, prailleen kapillan egin genduzan otoi-tzak. Pazko egunez, Gotzaiñaren lekuan, beronen kapelluak emon euskuzan zorionak. Anaiak, Zuzendaria ta gaiñerakoak bertan zirala komentuko larrainean euki genduan Pazko mezea, dannon artean abestua.

Angoa itxura zanez geuk uste baiño geiago luzatuko zala-ta, geure bizimodua eratzen asi ganan: noiz jagi £,oizero, meza, gosari, lan, bazkari, otoi-tz, errosario, letani, Salbe,,. Kontuz kartakaz, idatzi ta artu sendikoakaz bakar-bakarrik. 28'an San Pruden-

zio, Araba'ko zaindaria, ez euskuen mezarik emoten itxi. Amaiket-
tan, bai, antxiñako baiñu-etxe ta inguruak ikusi genduzan: dana
bertanbera itxita, tamalez.

Maia tz asiera. Aldatu egin dabez apurtxo bat egun bitarteko
zeregiñak, goizeko amaikak inguruan Jaunari ikusketa kapillan,
letaniak eta azterketa, ibillaldia, bazkaldu, ta biagoa. Arrastiz,
seiretan errosarioa, irakurtaldia gogarte antzera, jolasaldia zortzi-
rak arte, eta bederatzietan aparia; azkenean, gogarte-puntuak eta
amarretan lotarako ordua.

Maiatzak 6. Gotzaiña jatorku. Ogei bat minutuan berbaz dau-
kagu; iragarrita geunkanez, ezingo doguz asi Gogo Jardunak: ar
daigun Jainkoagandik datorkigun dana gogo zintzoz, Kristogaz bizi
gaitez an eta dana izango jaku onerako. Bakar-egunak alan be izan-
go doguz eta lau itzalditxo eurotan, goizean bi eta arratsaldean
beste bi. Beste ezertan nastau ez gaitez an edo, ez daukue ezelan-
go zoztorrik ipiñi gura.

Maiatzak 26, Kristoren Igokundea, Meza nagusia Perossi'rena
abesturik, Anai nagusiak bazkaritan Errioxa'ko ardao gorri-bizia
dakarsku, eta guk eskerrak emon naiez, ainbat kantu eder eskin-
tzen dauksaguz. Odei trumoitsuak, baiña, ortzian zear, bagillaren
4'an Zuzendari jaunak goitik eldu jakon gutun bat irakurten dau-
ku, Berton diñotsa, lenen, gure guztiak ondo arakatu egizala, eta
bigarren, guk artzen genduzan kartak len baiño be obeto begiratu:
erria ez dago lo ta Gasteiz'en zabaldu dabe guk iges egon dogula
espetxetik.

Bagillaren 16. Meza nagusia tu arkupetik zear prozesiñoa, Kor-
puzti da-ta. Gotzaiña jatorku arratsaldean, ta berbaldi luzea dagigu
beragaz, diruz zelan genbiltzan eta abar aitzen emonik. 24'an
Jesus'en Biotzaren jaia, loraz eta uztaiez jantzi dira bazterrak; ba-
ratzean barrena ibildeuna, lekuan lekuan ipiñitako altaretan gel-
diunea egiñez. Pozaren ostean, naigabea agertzen; ona, garillaren
1 an gizon bat etorri jakun guk gerabiltzan plater eta mai-tresnak
Gasteiz'ko Udaletxeakoak zirala eta jabeari eroan bear jakozala esa-
naz. Guk barriak erosi genduzan, eta kitu. 7'an, Aita Sebastian
eta Bautista karmeldarrak datoz Karmelo'tik. Antza danez otoi-tz-

zaleegi agertzen gara ta Zuzendari jaunak galazo egin dausku otoiz-
tegira joaten. Aurrerantzean, goizetan bakarrik eta ordu jakiniñetan
joango gara.

58 DUESIAS'EN

Urriaren l'an aberri-eguna, baiña espaiñarrena. Errosar:oa, Jauna agirian dogula. On Anjel apaizak, zigortuta gugaz dagoanak, biar beteten ditu 77 urte; berak abesten dau meza nagusia. Zuzandari barria etorri jaku Tan; aurrekoari, Manuel jaunari, Zor-notza'ko emakumezkoen espetxean be zuzendari izanari, agur esaten dautsagu.

Laster Dueñas'ko Venta de Baños'era aldatuko ete gaituan zurrumurrua dabil. 15'an Santa Teresa egunez Zuzendariak iragarten dausku 17'an Dueñas'era aldatuak izango gareala ta biar eguerdirako gerturik eukiteko geure gauzak; eta egun orretan, goizeko amaiketan urten genduan autobus baten, bostetako geure egoitza barrira eldurik. Baitegi au egape nasai bat dozu, ango trapatar lekaideak euren solo-tramankuluak eukiteko daukiena. Antxe egokitu genduzan geure eukiak.

Eta mandio antza eban estalpe ari begira, esan genduan: «Or gure bizileku barria! ». Ogeian trapatar monastegiko abata etorri jakun eta gugaz berbaldi laburra egin ondoren joan zan, baiña bertatik morroi batzuk bialdu euskuzan tokia garbitu ta txukundu egiskuen. Mandio baten, baiña, zer egin? Ez dagon lekutik nekez ezer ateraterik, Ogetabian Palenzia'ko gotzain Manuel Gonzalez eldu jakun; ordu bete inguru emon genduan beragaz, On Juan 1zurategi'ren adiskidea bait zan Elorriotik. Berak eskaturik abesti mordoan abestu geuntson. Guri ta gure etxeetan miñez egozanai onespina emonaz, joan zan.

Azaroaren bata. Meza nagusia. Arratsaldean, zazpiretan, zuur guztiok Palenzia'ko Poliozi-burua jatorkula-ta. Oso alai ta txeratu au, maitez ikusten ginduzan, Euskalerrria betidanik miresten ebalako; alik eta ondoen artuko ginduezan gu be. Guk gabaz umore ona ta bertsoak. Urrengo egunean agiraketa latza zuzendariak, zenbaketarako lerrotu ez giñalako. Erea ta ordenea batez be. Trapan dago Valladolid'eko gongotzaiña. Abatak armonium bat dakarsku.

Gure egonlekua barriztu ta apaintzen diardue, gu obeto aurkitu gendizan, bat bear bada. ZuzendarIa be aldatu dauskue Nikolas jaunaren ordez Manuel Lozano jarririk. 21'an, lauretan, Palenzia'ko gotzaiña jatorku, On Manuel Gonzalez, Tuan Izurategi ikustera batez be, arañegun idatzi bai eutson gaixorik aurkitzen zala esanez; eta au txarrera baloian, Palenzia'ko ospitalera eroan egiela agindua emon eban. Giro benetan otza. Ogetaseian Trapa'ra dator gotzaiña, Juan Izurategi zelan egoan jakiten bere txoperra bialduz.

Ostera be, ogetazortzian, gotzaiña dator, eta On Tuan'egaz egonklakoan, leen esan euskunik ez dagoala diñosku; ez da ba asko borondate ona. Gastezi'ko gotzaiñak ara eroango dau bere kontura. Ogetabederatzian Eleizakoak artzen ditu gaixoak, Azken Igurtzia ta Aita Santuaren Onespena; **emon dau gau osoa**. Ogetamar Ander Deunaren eguna. Goizeko bederatzi t'erdietan, espetxeko guztiok an giñela, il-orduko Induljentzi osoa ezarri geuntson, begira egiñik ondoren biñan-biñan, ordu-erdiz ordu-erdi aldatuz. Amaika t'erdietan gaixoak berak eskatuta, azken otoitzak egin geuntsozan. Irurak jota anbulantzi bat eldu zan Gasteiz'tik gaixoa ara eroateko aginduaz. Illa zan orduko.

Eriotzearen barri izanaz batera etorri zan abata, illaren alde otoitz batzuk egitera. Biaramonean illetak, gregoriar kantuz, eta Perossi'ren «Libera me» Iau abotsetara. Ango iltegi txikian lur emon geuntsan aren gorpuari, eta geroago, 39-IV-28'an, illartz txairo bat ipiñi zan zementozko zutoin apal baten gaiñean. 75 urte eukazan Izurategi jaunak il zanean. 1973'ko X-1'an Elorriora aldatu zituen On Juanen gorpuzkiñak.

Albiste ona: baimena espetxetik kanpo be ibilli geintekezan. Eta 6'an asi giñan prailleen mastietan zear Pisuerga ibai ertzerañiño joaten; mastoiak igar samar geunkezan, baiña ibaia urtsu, egalak bedar guriz, urretxindorrak kantari, eta gu bertan biriki-auspoak aize ozkirriz asetzen. Irunan-irunan urteten giñan, jagoleak atzetik genduzalarik. Orrelaxe egin oi genduan Karmona'rako urten arte,

Onako egun baten, Trapa'ko eleizea ta abar ikusten ibilli giñan. Eta argi samar egoanez zerbait bigunduz joian gauzea. Abenduaren 11'an, Gasteiz'ko ta Palenzia'ko gotzaiñak, Espetxetako zuzendaria, Abata ta gure zuzendaria etorri jakuzan, gu andik ateratzeko

alegiñak egingo ebezala esanik. Orretan diardue egi-egiaz, baiña Franko'k esku gogorrez eusten eutsen mutur-ugelai. Gabon-jaiak. 24'an neuk abestu neban *Kala,ida*. Urte Barriz Aita trapatar batek esaten dauku zortziretan mezea ta Ebanjelio ostean telegrama bat irakurten: 539 eriotzari apaitutekori zigor ori aldatzen dautse. 10,30'an, Trapensen eleizara goaz, eta meza nagusi orretan Aita Jose Domingo-ren «Missa Pastoralis» abesten dogu.

onen zortzian he meza nagusia gure abesbatzak abestuta, Aita Kalos, gure ongille aundi, Abadirio'ko semearen omenez. 18'an, Gasteiz'era doazan Lasaga ta Villarreal gure jagole zintzoai agur egitea. Guda arloan, Bartzelona jausi ei da; komentuan banderak goratzen. jagole barria etorri jaku, Merino Quiroga.

Otsaillak 11, Pio XI il da. Geure atsekabea erakutsiz, Aita Santuaren mezulariari telegrama bat bialtzen dautsagu Donosti'ra. Epaillak 3, Pacelli kardenala, Aita Santu; guk zorionak opa izanik ur ru t-idazkia bialtzen dogu. Eta jainkoari eskerrak emoteko, 6'an, meza nagusia gure abesbatzuk abestuta. 10'an Manuel Gonzalez jatorku. Zarren arduraz dago batez be, baiña besteentzat be lan egiñez zigorra apurka apurka ordaintzeko legea indar-azo bear dala, argi ta garbi diñosku. Epaillaren 17'an, J. M. Korta, gudarien kapelauen lenengo Buruzagi izan zanaren urte-urrena zala-ta, meza abestua. Otz aundia, ta inguruak edurrez zuri-zuri. jausi da Madrid.

Apirillak 1. Gerrarenak egin dau. Iru urteko alkar-jote odoltsua amaitu da, zorionez. Or erdizka beintzat onezkeak eginda. Palenzia'ko gotzaiñak iragarten daukunez, gure auzia be laster erabagiko da. Aste Santu egunetan gagoz eta gakiozan otoiari.

Berbizkunde eguna. Guretzat Aberri Eguna, aundikiro ospatze-koa. Meza abestua. Arratsaldean, bostetan, Manuel gotzain jauna, bere idazkariagaz, Probintziko jauralaria ta beste batzuk jatorkuz. Gure gauzak ondo doazala esan euskuen; 70'tik gorakoen izen-abizenak eskatu ebezan eta guztioi bakotxak eukan zigorraren kopurua. Aste Santuko kantuz ase-bete ederra emon geuntsen. Gobernadoreak, batez be, Palenzia-ko katedralera eroango ginduzan, an abestu gengian; jantok'an ez geunkan gurutzerik eta berak bialduko euskun bat, ez jakun gaiñera jatekorik faltatuko.

II orren 27'an jarri zan, Izurrategi'ren illobian, zementozko gurutze bat, 155 zentimetrozkoa ta 500 kilokoa.

29'ko bakar-egunean Aita Garrido etorri zan itzaldia egiten, eta onek adierazo euskun atzenean, Gotzaiñaren aldetik, lortu dala gure abesbatza katedralera joateko baimena.

59 IDAZKI BAT

Maiatza. Illaren lauan eresbatza (ta ni bertan) Palenzia'ra joan zan abestuten, iru egunez joan be. Lenengo egunean, ibildeuna Asilo'tik Katedralera Jesus'en Biotzaren irudiaz. Gu koruan kantari. Aita Sarabia izlari iru egunetan. Arunzkoan eta onunzkoan bilbotar askogaz topo egin genduan, gudariakaz ez gitxitan. Gotzaiña Erroma'ra andik deituta. Amabian Fruniz'ko seme Gregorio Onaindia Anaia datorkit ikustera, Nanklares'en aurkitzen zana, Lamenetarren alkartekoa berau. Garaitz-egunak ziran eta txaplivak eta kanpai-otsak sarri, zein egunez eta zein gaeuz.

Maiatzaren 26'an, guri erretirua emotera etorren Aia josulagunaz idazki bat bialdu euskun Palenzia'ko gotzaiñak. Guk izenpeturik Franko'ri bialduko jakon karte ta zan. Onela iñoan:

«Jaun guren: Dueñas'ko Ixidor Deunaren espetxean dagozan eta au izenpetzen daben eleiz-gizonok, Zuri, Jaun aundi orri, begirune aundiz adierazten dautzue: Munduari ta munduko goraberai agur egiñaz, eta euren barru-bizitzari, meza, otoitz, emengo espetxe legeak zeatz beteaz gaiñ, Jainkoaren eta Eleizearen zerbitzurako eskintzen dabez euren gogoak, onek indartu ta adoreturik, izen-abizen bage, arimai ta Espaiña'ri egindako gatxa onela kitutuz, Kristoren erreñuaz zer-ikusirik ez daukenak nunbait, gaur egun pozzarri ontan Zuri, Buruzagi guren orri, parkamen oso-osea eskatzen dautzugu: indartsu lez errukitsu be ba-zara-ta, eleizgizon gaixo dagozanak eta zarrak doazala euren etxeetara, eta besteok lanaren bitartez kitutu daiguzala geure zigor-oiñazeak, geure lurretik urrin, Andaluzia'n esate baterako, eleiz-gizon gitxi dauken lekuan lan egiñik.

«Apaiz-itzez agindua beteko dogula esanez, au da, parkamena betea izango dala, eta alegiñak alegin burutuz Espaiña bat, aundi aske ta katolikotik eleis-gizo en itxura iguingarria kentzeko. Jesus'en Biotzak eta Pilareko Andra Maariak ordain beioe zure aunditasunari Espaiña'gaitik eta gu, apaiz errukarri oneikatik egingo dozun».

Irakurri gendun idazkia, ta egia autortzeko, ez jakun atsegiña izan, Franko'ren esku latza agiri zan, gure gaiñ aurkitzen ziran eleiz-agintarien nai ta almenak ondo loturik. Gu, barriz ez gengoan emon jakuna izenpetzeko giroan, eta urrengo bakar-egunean minutea ekarri euskun Aita Josulagun berberagaz erantzun au bialdu geuntson Gotzaiñari:

«Jaun gurgarria: Guri itzaldia egiten etorri zan Aita Jesuita berberarekin bialtzen dautzugu erantzuna, egiazki eskerrak emonez atxillo dagozan eleiz-gizon oneikkaitik egin daroazuna gaitik.

«Zuk bidalitako idazkiaren mamiña ondo aztertu ta zeure ontasun aundian uste oso-osea izanik, zure idazkiari oarkizun txiki batzuk egiten ausartu gara. Oar oneik onartu eziñak ba'deritxazuz, bizi-bizi eskatzen dautzugu, Jaun on orri, Gasteiz'ko Gotzain jaunari adierazo dagiozula, arren, beragaz egotea ni gendukela, alik eta ariñen ain zuzen be. Eskatzen dautzuguna lortuko dogulakoan, mun egiten dautsogu zure artzain-ereztunari. Jainkoak gorde zeazila urte askotan zeure Goterkiaren onerako. Dueñas'ko Ixidor Deuna. 1938-V-25».

Isasti luze bat egin jakon Gasteiz'ko Gotzaiñari, auzi orretan geure eritzia zeatz-meatz adierazrik, batzuk eta besteok zer gura genduan garbi azalduz, maiatzaren 27'an, guztiok izenpetuta. Begillaren 5'an, gureari erantzunaz, Palenzia ta Gasteiz'ko gotzaiñen erantzuna artu genduan, bederatzi lege edo erreguz ornidua. Kendu ziran itz batzuk gure eritxiz ondo ez egozanak, eta abar; au da, gu geurean gengoan eta eurak be tinko eurengean, luzaroan olan, e,ta azkenez, mukerrak giñalakotan, andik atera ta Karmona' ra eroan ginduezan.

Antxe bertan, egun areitan, guri erantsita geratu zan politiku ospe aundiko bat, Julian Besteiro, sozialisten burua, apirillaren le-

nengoan Madrid Franko'ren eskuetan ezarri ebana. Epaiturik egoan, sei urte ta egun bateko zigorra bizkar-gaiñ ebala geugaz bizi izan zan Karmona'n azken-arnasa emon arte. Gizaseme on zintzoa. Arantzaz ba, ekarren biotz-muiñean —esaten euskun—: ez ekian zer-gaitik ekarri eben gure artera, edo Jesuitak **izterbegi** jakozalako, edo ondo gura eutson bat-edo-batek. Kalte arteko armona, Oe-kutxa batean lo egiten eban Dueñas'en, geure antzera; eta Karmona'n, guk olako etzalekua jarri nai izan geuntson arren, berak ez eban bereizkuntzarik nai izan: guk lez, antxiña bateko karmeldar lekaideen upeltegi illunean loegiñik.

60 ETXEZ ALDATZEA

Gizartean bizkor erne oi da fede gaiztoa, soloko bedar txarra iduri, Nobera konturatu barik, ez gitxitan. Guk be, itxura zanez, olako lurrun gaiztoa jagiazo genduan ingurumari goikoen naia bete ez gendualako batez be. Egoitza ain ona ez ba'genduan, baiña leku arek ba'ebazan alderdi atsegiñak eta ez gengoan etsi negarrari emonik.

Bazkal-oste batean, alan eta guzti be, gertetako agindu euskuen; zazpiretan trena artu bear genduan Karmona'ra joateko. Eta beingo-beingoan, ez astia alperrik galdu, antolatu bakotxak berea: aldeko erropa, oeko jantzi, liburu ta beste zerak; aldean eta esku artean eroan leikezanak, ain zuzen, bestiak emen itxi; trenean bialduko dauskuez. Eta or goaz guztiok Venta de Bar'ios'ko bultzi-geltokira, emen luzaro be luzaro egonik itxaroten (i. mutil, gaur «esperoan» esaten dok).

Zalantzazko itxaroz eta alkar arteko autu amaitu bakoan, agur egin dautsagu Dueñas eta inguruai, agur trapatar maasti ta Pisuer-ga'ri, agur bertako gau-kantari urretxindorrai (Euzkadi'n ez daukagu urrentxindorrik, noizean bein bidea erratuz ona datozenen batzuk izan ezik); agur antxiñako komentu otoizlariari, agur gure mandioari, ta agur batez be Juan Izarrategi jaunari, geure espetxelagan zanari: agur Egun aundirarte, ez zaitugu aztuko!

Or trena. Astiro dabil, gibel-erraietatik ondo ez lez. Igon gara guztiok bere sabel ez ain itsusira, eta egoki bakotxa

bere gau-etzakuntzan. Itz-jario ta murmur-ots eten bagea. Apari lez zerbait artu dogu, eta ondoren bultziaren traka-traka ta eragiñak lo-erazten bait dauku, erdiak beintzat loaren mende. Or Valladolid... Etxaite luzea. Barriro be aurrera, itxartu diranen berba^o ozo ta barregarriz leunduta. Tordesillas, Medina, Eskorial, Madrid... Goizeko zortzirak.

Luzaroko «esperoa» emen. Ez dakie gugaz zer egin. Arrasti erdirarte ez daukagu trenik Andaluzi alderako. Bitartean gu seguru euki ta zerbait bazkaltzeko Karabantxel'era eroan nai gaitue, baiña *andik* konta-ezin-ala eragozpen ipiñi dautsiez gure eroztailleai. Zer egin? Ipar-geldokian gagoz pazientzi aundiz. Trenean kantari etorri ba'gara be, emen ez dauskue kantatzen izten ez euskeraz ez erderaz. Ba-doaz orduak; amabietan, bakotxak an-ortik lorturik zerbait artu dau, bazkal-izkia egiñik.

Andik laster autokar bi ekarri dabez gu Atotxa'ko tren-geltokira eroan gengiezan. Oneik ez daukie goi estalkitik. Igon gara gaiñera, guztiok —gaiztoak ez ba'gara! — sotanaz ta abituz jantziak, Besteiro erdian dogularik. Erritarrak arin ezagutu dabe ta txaloka asi jakoz, orrelaxe bide-arlo guztian, ia ogei minutuan. Or Atotxa, egoaldeko geltokia. Ementxe erreko doguz lau bat ordu, zutik edo bazterretan jarrita.

Or naizbat gu Kordoba'ra eroango gaitun trena. Egingo dogun bidea: Aranjuez, Alkazar, Ciudad Real, Kordoba; emen egotaldi polita egin ondoren, beste tren txiki bat artu ta orduetan, gora ta beera, basamortuetan lez ibiliz eldu giñean Sevilla baiño leen 40 ba^t kilometrorra aurkitzen dan Karmona'ra. Ederto be ederto nekaturik gentozan, zaarrak batez be ta euron artean Besteiro. Baiña umoretsu

61 KARMONA'N

Karmona, aspaldiko erri txikia, gaintxo baten etzana; mastiz eta olibo saillez aberats. Ba-daukaz konbentuak be, lengoak eta oraingoak. Guk urte bete ta geiago egingo doguna, antxiñako karmeldarrena da, gaur probintziko espetxe biurtua, naiko aundia,

baiña beronen zatitxo bat da baitegi, errikoentzat eta an inguru-koentzat batez be. Guk lo ta bizi izateko, antxiñako lekaideen upeltegia izango dogu, illuna benetan, ez bait dauka leiorik, burdin-sarez itxitako estu bat izan ezik; esan dot, guk ementxe lo egingo dogu ta, iñoiz euririk bada, bertan astia erre, ikasi ta autu luzeak erabili. Goian daukaguz Zuzendariaren lan-gela ta otoitzte'gia. Larriña (patio) daukagu gero, eta emendik gora igoteko lau ba_t mailla dagoz, atrizkoak, beera jasteko be bardin, burdiñezko ate bat edegi ta beera, ate au gabaz itxita egoten da, gu ziega illunetan lo naiz ikasten gagozan bitartean; lurpeko «loleku» esaten geuntsan oni, larriña baiño metro ta erdi beerago aurkitzen zalako.

Ona elduaz bat, ementxe saiatu giñan geure gauzak atondu-ten. Zer aundirik ez gendun ekarri, eta Dueñas'en itxi ginduzan ez genkian noiz etorriko jakuzan (andik illabetera eldu jakuzan). Beraz, leotz onetan eratu eban bakotxak bere abi-zuloa. Koba-zulo bezela zan, eta zer egingo? Adiñekoai eta Besteiro'ri leku obetxoagoak eskiñi ta jarri nai izan geuntsezan, baiña ez daukanak ezin emon. Katre bat ipiñi geuntson Besteiro jaunari, berak alan 132 ez eban nai izan; geure zoriaz bat etorren bera bere, eta geuk legez arri gaiñean eukan bere etzauntza estua. Gau luzeetan be ementxe geunkazan alkar-izketa gozo, ikasketak, otoitzak, pozak eta naigabeak. Ez egoan iñora urteterik, giltzapean gengozan-eta.

Irurogei ta bederatzi gara 1939'ko zemendiaren 5'an, an bertan atera gendun argazkian agertzen gareanok; eurotatik 51 beintzat eleiz-gizonak. Goizean, otoizlari gisan, txandaka emon oi genduan mezea goiko kapillan, eta arratsaldean, seirak inguruan bardin antxe alkartzen giñan guztiok, Errosarioa esan, abestu, irakurtaldi gozatsu bat eta, Jauna agirian gendula eleiz-ospakizun eder bat kantuz gozatua. Besteiro be arratsaldero igon oi zan oto:z-tegira, gure kantuak entzutearren batez be.

Espetxe aretan oitura zanez, bakotxa atonduten zan jatekoaz. Eskulabetxoak (hornillo) egozan; taldeka batu gintzazan, bost edo amarnaka, eta labetxo baten edo bitan larriñean geunkan toldope baten naiz larrin erdian, geu konpontzen giñan naikoa egoki. Sukaldari bikaiñak genduzan. Guk karmeldarrok (bederatzi karmeldar eta pasiotar batek), talde bat osotzen genduan: Aita Errapel Urionak egiten euskun zukaldari, eta lodiegi egiteko beste ez, baiña jataldi dexente samarrak askotan euki oi genduzan.

Argiz, aizez eta eguzkiz asetzen giñan larriña, luzez 25 bat metrokoa zan, estuz amar bat metrokoa ta gorantz ogei bat metrokoa. Ondarrean, ikusketak eukiteko iru bat metro luze zan burdin-sarezko leloa. Emendixek ekarten euskuezan jateko bear genduzan gauzak: ortuari, fruta, ogi, arrain, okela ta abar; okela kontuan, erbikia ta basakatua ziran geienik; gu dirudunak giñalako ospea laster zabaldu zanez, asko etozan euren gauzak eskintzen. Bisitak be ementxe artzen genduzan, Sevilla'ko Segura kardenalarenalc izan ezik.

Ona bialdu ginduezan Segura kardenalak estu artuak izango giñalakoan, baiña bestera izan zan: Karmona'ra eldu giñanetik ale-giñ osoa egin eban guri laguntzeko, erropaz, janariz eta diruz. Amar bat karta daukadaz gaur esku artean, arek guri idatzitakoak. Eta zuk be jakin daizun ze^lako jokabidea erabili eban gugaz, emen damotzut 1940'ko urtarillaren 8'an Sevilla'tik idatzia. Dagoen lez doa, erderaz:

«Sr. Don Santos Arana. Carmona, Muy estimado en el Señor: Tengo sin contestar dos cartas tuyas, 22 de diciembre ultimo y del actual. ;Quiera el Señor conceder a V. y a sus compañeros tantas gracias como para Vds. he pedido en estos días, como agui-naldo especial que es el que mas nos interesa en este Santo tiempo de Navidad!

Le suplico transmita mi gratitud por sus recuerdos y oraciones a esos compañeros y les Biga que encomienden al Señor en el Santo sacrificio de la Misa los asuntos suyos que sigo gestionando no obstante las dificultades no pequeñas que me presentan.

Con relación a la ropa dejo en plena libertad a los comisionados que VV, tienen nombrados a este fin la adjudicaciOn de las 8 6 9 sotanas que me han dicho podrn hacerse con la tela enviada. Iom esta determinaci-n al ver la forma lamentable en que algunos se presentaron vestidos, lo imico que lamento es no disponer de mas medios para que se les pudiese hacer ropa a todos. Si el Señor me facilita medios los tendrC a Vdes. presentes. Manden recoger en Nuestra Secretaria de Cmara 500 pesetas para las prendas interiores de que me hablan. He dado todos los Breviarios que tenia y me he quedado tan solo con el de uso. De todos modos procurare que se adquieran unos para remitirlos, segim me pide.

Le acompaño la carta que recibí del Sr. Director General de Prisiones, en que ratifica la autorización que concedió en telegrama sobre el uso de la Capilla lo mismo que el Sr. Ministro. Respecto al Reservado de Santísimo Sacramento para que el asunto se haga en forma mandeme en nombre de todos una instante suplicando licencia para tener Reservado en la Capilla. Sabe se necesita: un pequeño expediente con el fin de apoyar la concesión. Ya cuidare se tramite con rapidez.

La parte mas importante de su carta es la que se refiere al gran medio de santificación de los Retiros mensuales y de los Ejercicios Espirituales. Respecto de estos le comunico que con mucho gusto ire a órselos cuando disponga de una semana un poco libre y que pueda dedicksele. El Retiro mensual no es facil pueda dkselo, cuidare de que un Padre Redentorista de reconocida competencia vaya a darlo, y a este fin escribo hoy mismo al P. Superior de la Residencia de Carmona, roÓndole que les facilite un Padre que desde este mes de enero empiece el Retiro espiritual.

Con sentimientos de estima y afecto es suyo affmo. Prelado que a todos bendice. Cardenal Segura».

62 BIOTZ ON BAT

Ez da eguneroko janaria biotz on bategaz topo egitea, zoritxararak zigorpe garabiltzanean atan be: berez-berez alde egin oi dogu olangoaren ondotik. Alderantziz Sevilla'ko kardenala, Kristoren maitaunez gaiñezka bai eukan biotza. Karmona'n gengoanetik erakutsi euskun guganako bere ondo naia. 1939'ko irailaren 25'an, idazten euskun: «... en vista de que no recibo contestación del Presidente de la Junta de Redención de Penas y queriendo activar cuanto me sea posible asunto que tanto me interesa, no bien termine de Ejercicios Espirituales al Clero que estoy dando... me trasladare a Madrid personalmente dentro de la primera quincena de Octubre, D. M., para obtener la solución que Vds. conocen y que no dudo que me ha de ser concedida».

Ondoren bear dogun guztia eskatzeko diñosku, liburuak, jantzi eta abar. Otoitz egiteko tokiari buruz, meza esateko ta arratsaldeko eleikizunetarako, beste mesede bat egin euskun euskaldun jauparioi; erdi-agiriko otoiztegiak eregiteko bear diran baldintzak, Erroma'ko Eleizearen Araudiak 1192gn. arauan eskatzen dabena betetik, geure etxe onetan eta geu gagozan bitartean, Gure Jauna eukiteko baimena emon euskun. Guk bertotik betiko naiz zati beterako urtetea, guk berari iragarri bearko dautsagu garaiz. Baimen au, beraz, geuretzako zan bakar-bakarrik. 1940'ko urtarrillaren 23'an emon euskun baimena. Ortaz, esana dot, bertan ospatzen gendun goizeko mezea, eta arratsaldean geure otoitz-aldia.

Sarri lez ziran guri egindako bisitak. Eta aita on batek lez beti ekarten euskun zerbait, gu pozik eukiteko benetako alegiñak

Ia urte osoa igaro gendun bertan, eta urtetea zoritu jakunean, berak ainbat gutar artu ebazan bere eleiz-barrut an arimazaintzari ekiñik lan egien. Ba-dira ogetaz ueteak an igaroak.

Egunak zertan urtzen ete genduzan? Noiza urre dala siñisten dauanarentzat, au da, lan-griñaz bizi danarentzat, espetxea ez da leku txarra ortarako. Astia dau, ordu mordoia sarri, irakurteko, ikasteko, idazteko, zernaitarako. Guk, talde batek beintzat, izkuntzak ikastera jo genduan, frantses, ingles, aleman... Frantseserako, Estanis Agire, pasiotarra genduan maisu, Italia'n eta Frantzia'ra egona, gero kartzelatik urten ondoren, Mellid'en oraindik gazte il jakuna; ingles ikasteko nik, Dueso'n, bilbotar itxas-gizon bat euki neban, eta aleman moltsoan ikasi gendun Besteiro'ren laguntasunaz. Oneik irakurri egiten eben, areik egurastu alkarizketa bero-beroan, eta iñor be ez egoan buruz bera ta txintxili-mur, gogoeta illunez.

Nik orrez gaiñera euskal lan naikoa burutu neban; gero esango dodanez, italiar Silbi Pelliko'ren «Ene Espetxeak», Gulliver'en «Osterak», Euskal Gramatika bat (bizkaieraz ta gipuzkeraz), olerkiak eta neure «Egunkaria» idatzirik. Nik eskuz idatzi-ala, Zuzendariaren idazkari lez goian lan egiten eban Federiko Orbea Bergaretxe'k, oraintsu Begoñan illak idaz-makiñaz garbi idazten eus-tazan. Apaiz ona ta langille au, edozeiñi mesede egiteko beti gertu geunkana.

On-gizatiarra zan gure Zaindaria, Anjel Suniko Pujol, beronek begiruna eztia euskun eta guk berari, egundo ez genduan izan ez asarrerik ez agiraka egin bearrik. Orobat gure jagoleak. Bein argazki bat, danona nunbait, gura genduala-ta, baimena eskatu geuntson argazkari trebe bat ekarri ta guzti-guztiona aterateko. Orrelaxe egin zan, Besteiro bera, jagole, eleiz gizon ta laikoak agertzen gara, 1939'ko azaroaren 5'an ateratako argazkian; 69 gara guztira argazki orretan gagozanak.

Beingo baten zabaldu zan munduan zear argazki onen ospea. Egun areitan Kadiz'tik zear Ameriketara zuzentzen zan italiar «Rex» itxas-ontzian joian Gerenabarrena karmeldarrak beragaz. eroiala idatzi eustan, Agintariak, baiña, ez eben ondo artu, ta Zuzendaria kendu ta gu zigortu egin ginduezan. Argazki eder a, izan be, lotsagarria zan Espaiña'ko gobernu katolikuarentzat. Aurre-rantzean, karta ta idazki, zeazkiro zaindu ginduezan olangorik gerta ez zedin.

Geienok alkar ondo artzen genduan arren, ekaitz-aldian jazo oi diran antzeko txinparta batzuk izan ziran; lotuta dagoanari askatasun ezak ler eragiten. Manuel Llados apaiza, «Cabo Quilates»-en egoala gorriekin zer-edo-zer euki ebala-ta, eriotzara apaitua izan zan 1937'ko garillaren 16'an; burrukalaria zan, zital egoskorra, ari ta oni eskutitz idazten ekiona. Guk ez geuntson kasu aundirik egi-ten, berak burrukea nai eban arren. Eta zer? Gizartean, eta ko-mentuetan be, sarri jazoten dana, makalenari oratu.

Zigor ori bizkar gaiñetik ezin botarik, Karmelo, Nanklares, Dueñas'en eta emen ezin jasana dogu; batzutan Zuzendariagaz sartzen da, beste batzuetan jagole ta eginpideren bat daukanakaz; gotzaiñaren ordezkariari idazten dautso, Antonio Maria Ormazabal'i, Dueñas'n Manuel Gonzalez gotzaiñari, dokumentu luze bat bere alde egiteko eskatuz; Karmona'tik Jose Maria Oriol eta Esteban Bilbao'ri idazten dautse, bere onerako zeozer egin dagien. Biak erantzuten dautsoe. Baiña zaratatsu lan egin arren, ez da ezer lortzen askotan. Llados zan beiñik-bein 1943'ko zezeillean Karmona'ko espetxean aurkitzen zan apaizetatik bakarra; gero Alfarora ta Daroka (Zaragoza)'ra 1944'ko garillean lortu eban askatasuna, eta andik illabetera il zan.

63 BIOTZ!

Olango arantza batzuk gorabera, gu ez gengoan biotz-garrazturik. Gerra bitartean eta gero, luzaro, naiz-ta txilka Bilbako emakume abertzaleak laguntzen ginduezan diruz, jantziz eta jatekoz; eurai eskerrak batez be, ez jakun ezer palta, ezta meza-dirurik be. Iñor gaixorik edo naigabez ba'egoan, olakoa adoretu ta poztuten alegintzen giñan; adiñekoak alaitzen ez giñan aspertzen. Besteiro jaunarekin ardura berezia geunkan, eta berak geugaz: aleman ikasten genbiltzanok, itz bat, esaera bat zala'ta dudaz gengozanean, beragana jo oi genduan eta arek oso txeratsu artzen ginduzan beti, berak gaztetan ikasita ekian doitzera guk be artu gengian. Pozik aurkitzen zan gure artean; noizik bein emaztea etorten jakon berba egitera, ta orduan alaitasun irribarretsua agertu oi euskun. Asko irakurten eban baita santu bizitzak be, Santa Tere-sita, Huby'ren Erlejiño Kondaira, Kempis, Biblia... Biblia'z sarri adierazo eustan: beretza, auxe zala, munduko literatura guzti'ko libururik obeena: or datozan gai sakonez asetzen eban berak gogoa.

Urrintxu gengozalako edo, Segura kardenala ta olakoren batzuk kendu ezkerok, ez gendun bisita askorik euki. Euskal erritik bat-edo-bat iñoizkoren baten: bide okerrik asko aurkitzen ziran gunganaiño eltzeko; andik naiz emendik aurkako bideak. Berebil berezian, tira! Trenez asita laster galtzen zara bidexketan! Ori ta guzti be, batzuk, Aita Martin Uriarte, karmeldarra, adibidez, etorri jakuzan.

Kartakaz orain etziran ain zorrotzak. Idatzi ta artu, oi danez, egiten genduzan. Bein -ni.Dueso'n.nengoala zan au— niri idatzi eustan gazte bat txarto erabilli eben. Bilbo jausi ta lau bat illabetera arro ei ebiltzan batzuk kale ta espaloitan zear. Eta gazteak niri: «Ez ikaratu, pelotea oindiño tellatuan dago! ». Idazlea artu ta giltzapean sartu-azo eben; zortzi bat illean, teillaturik ikusi bage, egon zan zgortua. Gu be azkeneraiño egon gintzazan guraso ta anai-arrebai bakarrik idazten. Zor: txarra gaiñ dogunean, baiña, zentzunak zorrotzu egiten, eta ainbat guraso ta anai-arreba metatzen!

Erdi gAu illun bizi gintzazan; ez genkian zugatzak, maastiak, noiz ernemintzen ziran, ez noiz oritzen; lau orma artean ez geunkan artu-emonik izadiatz. Eta, gero ikusi nebanez, ondo berde, ugari ta aberatsa da Karmona... Gau illunean garbitu ta girotzen ei dira arimak Jainkoaren baitan murgiltzeko. Orren premiñaz gengoan gu? Ni bai beiñik-bein! Gudan ibilliz egindako pekatuak damutu ta orbandu neban karmeldar jantzia gardenduta ete neukan onezkero? Miesan ondo barrendurik dagozan loiak eta orbanak ez dira errez kentzen.

Dana dala beste egoera baterako gai ba'gintzaz lez, gengoan lekutik atera ta beste lurralde batzuetan jarriko ginduezan langille. Zurru-murru ori zabaldu zan bazterretan. Gure poza! Maiatzaren azkenerantza Kardenalak idazten euskun laster etorrela eguna, pazientzi pizkat geiago ta dana egiña egoala; «etorriko da eguna ta orduan ikusiko zelan ez dauan zirkiñik egiten zugatzaren orriak Jainkoaren aparteko erabagi barik eta zelan Arek gaitz aundietatik ateraten dauzanon diadarrak».

1940'garrenean asi ziran lanean espetxetan egozarenen epai-zigorrrak ikusi, aztertu ta ebatzi barria emon naiez. 1940'ko otsaillaren 27'an gure Zuzendari jaunak agindu au artu eban Espetxeetako Zuzendari Nagusiak bialduta: «Ez egizu eleiz-gizonik aske ipiñi daukezan epai-zigorrrak ber-ikusi bear dirala-ta, aurrez au izenpetzen dautzun Zuzendari Nagusia telefonoz zeuk jakitun ipiñi bage». Eta 1940'ko garillaren 17'an Madrid'etik idazten eutson Karmona'ko espetxean aurkitzen zan Juan Jose Agirre Lazkano bere mende i₁xi egiala, atxilotu au Teruel'era aldatzea erabagi ebala-ta.

64 ASKATASUN EGUZKIA

Amaika illabete erre genduzan Karmona'n, 1939'ko abuztuaren azkenetik 1940'ko garillaren erdirarte legez. Zelan erre ete? Nik neuk, egia esan, ez txarto be. Izakeratik izakerara alde aundia da' goana, ba-dakizu. Batzuk berez dozuz negarrari emonak, ta dans eristen jake txarto. Karmona'n gengoanok naiko etsi onekoak giñan, arrigarri ez dan arren adiñekoen kezkek euren atxaki ta oi-

ñazeak jasateko. Nik izkuntzak ikasten emon nebazan ordurik geienak, eta olango ardura bat daukagunean konturatu barik txirrist dagiskue egunak.

Gu katigu geunkezan kateak ausi guraz lan egin ebenai —etzeran asko izan— eskerrak emon gengiezala eskatzen egiazko giza legeak, eta orrelaxe bete genduan eziketa onaren eskabide au; bakarrik e_ta taldeka olan egin gendun guztiok. Karmona'ko egoitxa itxi orduko ta itxi ondoren, urrillaren azkenerantza, pasuko txori aldra iduri, orain lau ta gero bost, itxiaz giñoiazan geure abi barregarria.

Zuzenbako ta biurria izan zan, itxura danez, niri ta besteai be bardin, an leporatutako 30, 20 ta 12 urteko epai-zigorak oso-osoon gitxitu bai euskuezan. Niri —esana dot— eskatu ta emon eusten ix_te betiereko 30 urte, eta gero barrero epaia ikustean, urte 2'ra jatxi ta 6 emon. Au 1940'ko bagillaren 16'an, eta aske laga ninduen 1940'ko garillaren 29'an, Santander'eko Hoz de Anero'ra bialdurik.

Aita Errapel Urionaguena ta biok urten genduan Iñaki Deunaren egunean, amaikak eta erdiak inguruan. Karmona uria ikusi ta karmeldar oiñetakodunen komentuan bazkaldu gendun. Guztiz ondo artuak izan giñan; lekaideoi ta Karmona osoari agur beroa egiñaz, Sevilla'rako autobusa artu genduan. Ikuspegi atsegiñak ezker-eskuma. Solo ta landak berde; maastiak mordaz gaiñezka, olibo-saillak bardin. Urte oparoa zala, iñoen. Atxurlari batzuk agiri solo-barrenetan, baiña geiago mandoakaz dabiltzanak. Ordu bete t'erdi, ta Sevilla'n gagoz.

Sierpes kalean gabiltz, karmeldar lekaideak ementxe inguruan bai daukie euren komentua. Gabiltzala, or izparringi, eguneroko ta aldizkariak saltzen dabezan maitxo bat, eguzkiagaitik gaiñez estalki dotoreaz apainduta. Ara urreratu naz, eta or doitxar egun' kari bat be, *Die Zeitung*; atsegin jat bidean irakurteko eta zen' baiterañño ulertzen dodan jakiteko. Aita Errapel, ni baiño zurrago da-ta, ezer erosi barik bidean diru-faltan ibilli ez gengizan. Bertan itandu gendun karmeldarren komentuz. «Ortxe alboan daukazue», erantzun euskuen.

¶ Eta an gengozan beingoan ate-joka. Ordena bardiñekoak giñalako iru urte kartzelan egiñak eta Kardenal Segura'ren adiskideak giñala jakin ebenean, arrera bikaiña egin euskun: bertan emongo gaua be. Aurretik, Aita batek lagunduta, kaleratu ta ainbat edergaillu ikusi ta rnrresi genduxan, denda igusi pilloa, Guadalkibir ebaia Urrezko Torrea, parkeak, salerosketa etxeak, katedrala... Au G:ralda ta guzti, oso ederra zala-ta, biaramonerako itxi ta komentura biurtu giñan. Nik oindiño be liburu batzuk erosi nitun. Komentuan aparia, eta apaldu bitartean, galderaz josi ginduezan; euska! erriko gauzak, espetxeakoak, Segura'ren laguntza, dana jakin nai eben. Gu be ez gintzazan ixiltzen.

Urrengo egunean, biok bakarrik, amarrak lauren gitxiago zan kaleratu ta antxiñako «Hispalis» zearkarzen asi giñanean. Aparitan esan euskuenez, gauza zoragarri bi geunkazan ikusi bear genduzanak: Katedrala ta Maria Luisa Parkea. Asmo orrek zirikatuta gengozan kalean. Lenengo Giralda'ra igon genduan, zenbat mailla edo dagozan zenbatzen; erdirantza, orrez nekatu ta leioetatik begira geratzen, uri zabalaren ederraz sorginduta, ibilliz goian giñan arnas-estukar Ba-dira gauza zoragarriak munduan, bat auxe, Gi alda kuktuz au ta azpiko ikuspegi zabal, luze, ñabarra. Biriak aize bigurez eta begiak, goi ta bee, eguzki-diztiraz ondo aserik, berunzkoa artu genduan.

Katedraleko edertasunakaz jabetu geintezkan gidari bat alogeran artu ta berak erakutsi euskuzan ango ikusgarririk geienak; altara nagusi ta inguruak, kapilla bereziak. Valdes Leal'en pinturak,. San Leandro'ren bizi-margoak Matias Arteaga'k egiñak, Kapitulu aretoa ta Errege-Kapillea Martin Gainza'k burutuak: gidarriak tokiok azaltzean, barruak guri jalkitzen: «Gutarrak ziran oneik! ». Barru ta kanpo eder-gailluz betⁱ-beterik daukazu eleiza nagusi au. Almohadiek 1172'an Sevilla'ko mezkita nagusia jasoten, gaur gotik-egikerako katedral aundia dagoan lekuan. Musulmanen eleiz-torrea alboko Giralda izan zan, 1184'an ereg:takoa.

Ondoren, ortxe berton artu genduan zalpurdi bat Sevilla'n oitura danez, burdi ta zakⁱ dotore jantzirik, emengo lekurik ikusgarri ta begitangoenak bare nekatu bage arrotzai erakusteko erabilten dabezanetariko bat, Eta or goiaz gu biok, arrosko, Guadalkibir'ez beste aldera, zurnardi edo parkc ikaragarri batera.

Amabi bako zugaztietan zear erabilli ginduzan, Sevilla'ko edertasun eta edergailluen edestia garautzen euskalarik. Ainbat iturri, ez-kutu ta monumentu: emen Becquer eta Herrera'na, or Lope de Rueda ta Murillo'rena, aruntzago Velazquez eta bestearena, danok Sevilla'n jaiok dira-ta, Ordu bete t'erdi egin genduzan ibilli ta ibilli. Gure zaldizaiña etzan ixiltzen. Eguzkia gozo ta dizditsu.

65 ETXERANTZA

Bazkaldutakoan, praille biotz-zabal arei eskerrak eta eskua emonik, trenerako kalean jarri Avila'n zan urrengo gure egotaldia, Kordoba, Madrid, Avila. Taka-taka, laster aurkitu giñan geltokian; ordu-erdi *batean* an itxaron bear, baiña pozarren gorantza giñoiazalako. Or Kordoba'rako bultzia: barruan sartu, geu ta geure gauzak egokitu ta beingoan katigatu giñan geure autuan goiz aretan ikusian ain zuzen. Euskaldun asko, ta bertako gure ongilleak *gogoan* irauliz, zenbai kezka sortu jakuzan izate barruan. Ain ongille aundia izanik, zergaitik ez geuntson ikustaldi pitin bat egin Kardenal Segura'ri? Poztuko zan, jakiña.

Bertatik Karmona'n geratu jakuzanak ebilkiguzan burrun-burrun biran, Geienok urtenez, baiña or jarraituko eben beste batzuk: sei urtean jarri eben ipai zigorren denduna. Eta sei urte ta egun bat eukenak? Oneintzat ez egoan oraindik giltzapea izteko baimenik. Ez genkian noiz etorriko jakenik. Eta an geratzen ziran olango batzuk. Euron artean julian Besteiro, Santos Arana... Bes: teiro, batez be, urtetsua ta Kortietako Buruzagi izana, Madrid nazionalen eskuetan laga ebana, gugaz ia urte betean ain ona, zintzoa ta laguntzaille izana. Ezbearrean korapillotzen diran estuntzak ez jakuz errez eteten.

Kordoba'n egotalditxo, guk opa baiña luzeagoa. Ez dakigu zergaitik. Eta aurrera; olibo saillak eta ma astiak alboetan, gaba ta ez doguz ondo ikuskatzen bazterrak. Aranjuez'era giñaneko asi zan argitzen. Gero, Madrid... Emen egotaldi aundia, jentea jatxi ta igon, itzaro, oiui ta deadar. Nik gosalduz gero, bultzian nekarren poesi-irakurtaldia amaitzen dot, asia azkendu naiez. Nire la-

gunak izparringi bat erosi daust, ia iru urtean egin ez doguna eginik. Ainbat izpar dakaz. Letra aundiai begikuste bat, gero irakurriko dogu gainherakoa.

Begira El Escorial, toki apain kondairaz betea. Aurrera! Eskoi Guadarrama ta ezker Gredos mendi-katea, naiz-ta urrin samar. Eta amabiak orduko, Aliva'n gagoz. Urruti ez dagoan arren, komentura bazkal-ordurako sasoiz eltzeagaitik, taxis bat artu dogu, ta emen batean gara lekaideen artean. Une aretan joiazan bazkaltzera. Jan bitartean zanpatu ginduezan itaunka, guk ari ta oni albat zintzoen jardetsirik: olangoetan gaitz izan oi da danai zeatz' meatz erantzutea, datorrenari datorren moduan eta kito baiño. Gero baratzean, egurats-tokian, beste ainbeste. Iabur: ondo baiño obeto artuak izan giñan: solo igartu samarrak udako euria iduri.

Uria arakatu gendun arratsaldean, praille alai jakitun batek lagun eginda. Arresiak eta katedrala lenengo ta ainbat eleiza eder gero, ikusi genduzan. Azkenez, Santa Teresa'ren gomutaz jasotako «Lau Abeak», Enkarnaziño deritxon moja-komentua eta bestekaldean Santa Teresa'k berak eregi eban lekaime ortozen eleizea ta komentua. Apaiteko itzuli giñan, edergaillu ta ederrez ase-ase. Mintzoaldia prailleakaz, lo, urrengo gozean jagi, meza esan, gosalduta trenera.

Medina, Valladolid, Dueñas, Venta de Baños, Trapa (gu egon gintzazan tokia). Geldiune luzea emen; ordua etzan arren, jentea (trenekoa) jatan asi zan; gogaiturik gagozanean, ariñago etorten ete jangalea? Beiñolako urretxindorrek kantari ziarduen oindiño Pisuerga'ko zuzun eta eltxun orritsuetan. Emen Galizia aldeko jentea sartu jakun trenean, eta len lau gentozan ziskuan beste bost erantsi jakuzan. Lenagotik be moltsoan bizi izaten oituontzat etzan ikusteko, ez arrigarri.

Eun eta berrogetamar bat kilometrora, Burgos, Franco iru urtez jaun eta jabe izan zaneko uria; geroago Brivieska ta Pankorbo (aitz-azpitik doa tren), laster Miranda ta Euskalerria. Emen be txoriak eben kantatzen, solo ta landak alai egozan, eguzkiak gozoago jotzen, mendiak zugatzez eder, ibaiak dizdizka. Izarra'ra eldueran, aurean zabal-azo jakun Bizkai-ikuspegi lilluragarria be-

gien aurrean genduala, naiz-ta ondoan geunkan barne-ixil, ijui luze bizi batez urten euskun biotz biotz barrutik.

Illuntzerako Bilbo'n aurkitzen giñan, geure errian, aske ta osasuntsu. Geure ezagunak agurtu ta geure kaleak eta etxeak onetsiz, Begoña'ko karmeldar komentura jo genduan gaberako. Eta biaramonean, Hoz de Anero (Santander)'ra.

66 ADISKIDETASUNA

Pozaldiak baiño zoritxarrak geiago alkartzen ditu biotzak; eztegu batek baiño maizago eriotzak. Guk zenbat zio (motibu) euki genduzan kuartelean, guda-zelaian, espetxean, alkar ezagutu ta maite izateko. Espetxean batez be guztiok aurkitzen giñan zoritxar bardiñaren mainllupean. Batzuk alegiñak alegiñ urkuldu ebezan maillope aretatik iges egiteko, baiña ez eban iñork lortu azkenera arte Dueñas eta Karmona'n egon gintzanetatik, bestek baiño lenago aske izaterik. Geuk nai be ez gendun, gaiñera, danok zorion edo zoritxar bat barean.

Baldintzazko askatasunez geienok Karmona laga arren, eta Sevilla'ko Gotzain Segura'k ara ta ona eleiz-lanera bialduak izan, batzuk an jarraitzen eben oraindik; uste onez beterik, baiña giltzapean. Eta zoritxarpean dagoanari lagundu egin bear jakolako, kartaz poztu nai izaten ziran olakoak. Ale bat legez izan dedin, esku artean daukat gaur be, oraindik an aurkitzen zan Modesto Arana'ri nik idatzi ta arek, 40-9-3'an, niri egindako tarjetea. Onela diño:

«Querido Santi: No tengo tiempo más que para decirte que recibí tu carta, como también la que me escribisteis desde Madrid. En breve te escribiré ampliamente. Marquiegui está destinado para Badajoz, pero aun no han aprobado su condicional. Iturbe te contara el vuelo de Larragan, MarariOn v Zabaleta. Yo espero que uno de estos días podre solicitar la condicional, Sabemos todas vuestras andanzas. Fede anda por Bilbao y esta molesto porque no conteste a su carta de Madrid. Los de COrdoba se han colocado ya. Pero de todo te hablare ampliamente en prOxima. Saluda a todos esos mis buenos amigos. Modesto».

Ez genduan galdu ez, adur txar aldian alkarrekin egindako maitepil samur ezta. Eta lenengotan, sarri alkartzeko, bata besteagandik urrin aurkitzen giñala be, geroago udaldiko oporretan bereziki, asmatu oi genduan alkartzeko atxaki ta eretia. Emen Larrean, esate baterako, sarri xamar alkartu giñan, eta Eibar'en, 1964'ko . urtarrillaren 16'an, karmeldarron parrokian; bermeotar Anasagasti gotzaiña, gugaz atxillo El Dueso'n 'egona, Bolivia'tik etorri jakula-ta. Antzera, beste toki ta egun askotan. Ez, zoritxarrean loturiko estuntzak ez doguz ausi bear, al dalarik. Izlariak onen;

«Arriai eragiten dautsenak,
min artuko dau;
egurra ebagiten dauana,
egurraz zaurituko da».

IRUGFIRREN ZFITIF1

I DAZLIE

«Izkuntzart lagunduteko bide guztiak dira onak. Euskera ondo ez dakigunok aal dogun eran idazten dogu. Baiña beti, Aberriaren izkuntza dalako ta maite dogulako geure erriaren ezaupide ederra».

Lauaxeta

1. ASI-KIMUAK

So dagiodan noznai interesgarri dogun gomuta ganbarari. Eta gorulariak matazatik *lez* atera daidazan makiña bat aril zaar bizi, gozotasunez bete. Jaiotetxea laga ta inõrenera joatea, sarri konturatu barik eginda be, beti izan oi da aundi, arrigarri, bakan.

Ni Larrea'ra nintzanean, —1921-XII-4'an— eta Larreatar jau-regiko karmeldar ikastetxean, Gabon ostetxoan, lendabiziko urte erdia ta gero iraillean bigarren maillako ikasketak asi nebazanean, bertako irakasleak, karmeldar ordenakoak, euskal arloan, egoan girorako etziran txarrak be. Sarbarri n'ntzala, edo giñeala, gerturtea bait zan, ez genduan era aundirik izan euskal arlorako eguen eta igandetatik kanpo. Beste zer batzuk ikasi bear ziran.

Gaur lez orduan be oitura zanez, irailaren leen-egunetan emon ^geuntsan asierea bigarren maillako urteari. Eta egia autortzeko, orduan itzartu jatan niri gurasoak ezarrita edo, neuregan nenkarrren euskal zaletasuna. Mutikoak giñan gu oro begi, oro belarri. Garrantzi aundikoa bai dala maisua gaztetxoan aurrean! Maisuak zer egin, zer esan, atara jo oi dau ikasleak, urak beerantz dagian lez, edo gaztearen arima beintzat aren izatean josia geratzen da.

Gure irakasle geienak etziran euskaldun, ni ara eltzean beñik-bein. Alaz eta guztiz be, an egoanak ziran Aita Martin, Bertoldo, Urbano Manzisidor, Pedro Zelestino ta abar, euskaltzale zintzoak beti. Orain be Aita Roman, zuzendaria, Aita Ermenegildo... euskaldunak ziran. Domeka ta eguenetan euskal zeregiña genduan gailen; Kristau ikasbidea buruz artzea zan bein-beiñeko. Orduantxe

azaldua zan Kristau Ikasbide ori, J. B. Eguzkitza'k bizkaieraz eta M. Lekuona'k gipuzkeraz ipiñitakoa, euskera eder gozoan, Buruz ikasten gendun, eta Ikasbide auxe izan zan guretzat oiñarri trinko, gero euskera eder-ederrean itzegin eta idatzi al izateko: mentu on indartsuak beti dirau dirdaitsu. Guk orduko karmeldar ikasleok maisu arei zor dautsegu asiera bikain onen adorea, merezi lain egundo be eskertuko ez doguna.

Giro arek, garda arek idaz-zaletu nindun Egun orreitan goi-jakitez jantzi ezeze, burutu oi genduzan beste euskal lan batzuk be, au da, erderazko ipuintxoak edo geuk asmautakoak osotu; amar-amabost batekoak ziran oneik. Aita Ermenegildo Manzidor lemoarrak lenengotan —gero Peru'ra joan jakun— orrez gain, euskal aditza azalduten euskun, Begoña'ko ikasleen artean —«Gautxori»-zaleak noski— eraturako lantxoetatik artuta; beste au be esku artean genduan: «Euzkel Iztija» (Gramkica de la lengua vasca), Ollendorf'en ikasbidez, bizkaieraz, 1919'an argitara emona.

Geroago, 1922-23'gn. ikas-urterako Aita Plazido, Dima'ko semea, eta A. Anjelo, Jose Jauregi Uribarren, aramaiotarra, egiazko euskalduna, gure irakasle zala ta gero Portugale'n eta Ameriketan karmeldar komentuetan nagusi lez ia beti, ainbat urte igaro arren, aspertu barik euskal barrutian jardun ebana. Idazle maillan nik asko zor dausat Aita eragille oni. Bakotxak dau bere doea, Paul apostolua testigu, eta karmeldar zintzo au eragille zan iñor izatekotan; gazteak batez be euskal arloan lanean jarteko ez eban ardura gitxi erabilli. Onek egin eban urteetan, Aita Ermenegildo, Urbano ta besteak aurretik egin euskuena.

Onek ipiñi nindun ni idazten. Donostia'ko «Euskal-Esnalea»-k urtero lez eratzen ebazan sariketa batzuk. 1927'ko garagarrilla zenbakian an dator nire lan bat be, euskal idazleak egin oi dabezan uts-okerrai buruzkoa. «Euskal idazleen uts eta okerrak —diño eritxi emoilleak— lan egokia; berton uts garaienak begi onez azaltzen; euskal joskeran josten ona dala garbi ikusten. Ez gaude, ordea, bere iritzi guztietan erekiak eta uts batzuek ikusten ditugu. Saria: 50 peseta. Egillea: Santiago Onaindia (Amorebieta). Urrengo urtean dator beste bat, 282'garren zenbakian. Urte orretan dator L. Akesolo'k idatzitako «Euskeraren edertasunak» lana be, dagonilla, 141 orr.

Zcingeiagoka orretan eskuratutako sariagaitik, egun osoko ibilaldi gogoangarria egin genduan, Aita Gotzon'ek lagunduta, Akesolo'k eta nik: goizean goiztik Legutiano'ra kotxez eta andik oiñez Aramajo'ra; onen jaiotetxean bazkaldu, Santa Ageda'ko gaixo-etxe-koak ikusi ta bultziz Larrara. Onek, ez ukatu, adorez jantzi oi barrua euskal-lan asibarrian. Arrisku aundian gengoan, erdera zalezeko arriskuan: Gure garaiko asko erdel-zaletu ziranez, gu, irakasle euskaltzaleai eskor, euskal idazle biurtu giñan.

Egazkada txikiak ziran oindiño gureak, baiNa egazkadak. Bigarren maillako laugarren ikas-urtoaren erdirantza giñoiazala, Aita Gotzon azkoitiarra, orduantxe bere eleiz-karrera bukatu ta epaillaren 20'an mezakotua, maisu lez etorri jakun; euskaltzale ona. Nik ba-dot oni be zerbait eskertu bearra. Nik orduko, Aita Plazido dimostarrak bultzatuta, erdel olerki naikoa irakurri ta euskerazko batzuk neurez atera ta atonduaak nitun. Baiña Aita azkoitiar au geuganatu zanean, beronek eraginda bear bada, euskerazkoetara jo neban, eta beronek txukundu zituan nire euskal olerki lenen-lenen-goak, Gogoan dot eta ez jat aztuko, zortziko txiki bat zan, bederatzi aapaldikoa nik lenengoz ikusi egian eroan neutsona. Eretxi eneko agertu jatan, eta arnas-emoille, barne-zauskada ederra emon eustana. Aita onek eta Jauregi'k jarri minduen ni euskal olerki-gintzan. Era giza-biotza, gaizto-pipiak jo bage dagoanean, eskerona dariola daukazu. Nik bertso-lanean ari nazanean sarri dakart oroimenora Aita jakintsu bi onein erakutsia.

2. AZTETXEAN

Aurrerago esana ez daukat barriro zetan errepikaturik. Gaur ez baiña orduan, eta gero, luzaro, Larrea, ikastetxe ondoko ko-
nrentua izan zan karmeldar gazteen aztetxea. Ementxe egin oi genduan geure proba-urtea, eta ondoren profesia, Karmengo Amaren oiñetan. Orain, orraitio. Kalaborra'aldatuta daukagu euskaldun karmeldarren aztetxea, nobiziadua. Urteen gurpil-ibiltez toki barriak eskatzen dabez, erakunde bakotxaren antolaketa egoki zurrez.

Eta euskal lanerako gogorik, astirik, zoztorrik? Baita! Ortarako sua dauanak ba-dau gogoa, izango dau astia ta gaindituko ditu eragozpenak. Barnean sua da bearrezko. Larrea'ko santutegiak ez dau erderarik erabili, gertaera berezi-berezietan eta euskera erdizka baiño ez dakianakaz izan ezik; emengo itzaldi, eleizkizun eta gaiñerakoak, geien-gaienak beintzat, euskeraz ospatu izan dira. Punterengo izlariak, erriz-erri ebiltzanak geunkazan bertan: A. Martin Uriarte, Florentzi, Lontzi, Juan Antonino, Jerman... Giro onek, jakiña danez, gogoa berotzen; niretzako beñik-bein ikasbide eder eta eredu bikain ziranik ezin ukatu.

Aita Doroteo, Apozaga'ko semea, euskeraz ta erderaz asko idatzia, genduan guk nagusi. Gazteon maisu, barriz, Errexilgo seme Aita Atanasio Aginagalde, Uzkudun ikubilkalariaren senitarteko. Biok euskaltzale. Ez dot uste txarto dagoanik, barriro esanda be, nire gazte-bizitzan oztopo billa dabiltzanai nik erantzundakoa: «Nik ez nebala egundo izan iñorengandiko arazorik». Nigaz gizonki jokatu eben beti nagusiak.

Ni noznai izan naiatzu urduri euskal gauzetan. Ikasle nintzala ingerarik gabe eskatu oi nebazan liburuak. Euskal liburu mordoa eukan nire aitak, eta oni eskatzen neutsazan lenengo eta gero Lekeitio'ko neure osaba Santi Mendiguren'i, neure aitabitxi arotzari, eta gaur be onek bialdutako idaztiak pozik eta arreta aindiz zaintzen dodaz, Azkue jaunaren «Bein da betiko», «Txirristadak», Etxeita'ren «Josetxu» ta abar.

Zabal-zabal autortu bear dot: ume-umetatik gurasoak eta inguruak berez ezarria dot euskerari dautsodan griña setatia. Eta ikasle gaztettxo nintzala euskal gai garrantzizkoai ekiteko gauza ez nintzalarik be, aztetxe ontan, gero ta ikasiago egiñik, adimena gero ta ditzitsuagotuz joiala konturatuz... zer-edo-zer neurez egiteko gogoa biztu jatan. Geure ordenako santuan liburuak batez be gogotsu irakurten nebazan, Santa Teresa, Juan Gurutzekoa, Santa Teresatxo. Onein liburuak zergaitik ez daukaguz euskeraz?, itanduten neutsan neure buruari.

Atsegin jatan Teresatxo deunaren «Gogo baten kondaira», ari-ma samur, ezti baten bizitzea, Teresak berak samur eta olerkitsu idatzia. Birritan irakurria esan neban neure kolkorako: «Euskeraz

ipiñi bear dot auxe, mesedegarri izango bai jake euskaldunai»r Orduan egon be modan egoan Teresatxo deuna. Eta asi nintzan lanean. Goiz baten, amaikak inguruan, orretan niñarduala, Aita Atanasio gelaratu jatan. Belauniko atzemon nindin oe ertzean, alako kondaira edegirik eta ingurrazti baten idazten. Urreraturuz, zutuntzeko agindu nindun. Zabalik neukan liburua artu ta ia a euskeraz jarten ari nintzan, galde egin eustan. Nik baietz. Ak gero, ingurraztian begiak adi, poz aundiz ikusi eban nire euskerazko lana. Itz adiezgarriz jarraitu ta azkeneraiño ortxe ekiteko, esan eustan. Onek bai gazteari arnasa beroa ezar-azten!

Niri beiñik-bein Aita Atanasio'ren itzak nainoz ta non-nai izan jataz eder baizen bizkorgarri, legorte gogorrean intz-mosua lez edo. Sasoi orretan, eta aztetxean, doi-doi daki gazteak ezer legeak, otoi-tza, lekaide-bizitza ta antzekoetatik kanpo; ez daki beste zeri oratu, Barru daroan beste leia bati erantzunik, ixil-mixilka, okeregille lez dabillega uste dauan gazte asi-barriarentzat aztetxeko nagusiak dagian lana, ixillekoa ain zuzen, onartu ta bizkarrean damotsan zaplada gozo bigunak bizi osorako arnasa ta poza ezarri oi dautsoz; ni Jango idazle asibarri guperari atan be. Goiz artako Aita Atanasio'ren ikusketa aztu eziña izan jat beti.

3. MARKINA'N

Garagarrilla zan, 1927; niretako gomuta gozoz aberats dan larrea itxirik, Markiña'ra aldatu giñan, an beste urte betean karmeldar bizitzaz obeto jabetu ta leen-ikasiak batez be sakonago aztertu al izateko. Orrez gairi, Asketika, Mistika, goi-maitematikak eta izkuntzak ez genduzan albora laga; euskal elertia, klasikuak bereziki Mogeldarrak, Añibarro, Prai Bartolo, Sabino Arana, Azkue, Kirikiño, Manterola, Ibargutxi... «Jaungoiko-Zale», «Argia», «Euskal-Esnalea»-ta irakurten genduzan.

Batzuk diño —ariñegi nik uste— Markiñan ez gendula euskal girorik izan. Bestera diñolkek nik: giro bikaiña izan gendula. Mordoa giñan, eta an gintzazanetik gaur be euskal idazle oparo ta joriak daukaguz, danok izan genduan aukara bardiña. Batzuk bai ta beste batzuk ez, zergaitik ori? Giroak uts-egin? Bazan an girorik. Danoi erakusten jakun bardin. Zer dala-ta nik xurgatu irakatsi a,

eta zuk ez? Nik diñot: sargora danean norberak aukeratu bear dau giroa, itzala, eta ez inolaz girorik ez dala esanaz lepoa jaso. Au idazten dot sarri bape susterrik ezta, miña erabilli oi dalako.

Nik, eta euskal suak ixilotutako ikaskideak, aukera ezin obea izan genduan euskereari txera berezia erakusteko. Aita Urbano Manzisidor izan zan gure irakaslea, euskal aditzaren ezkutu, kiki-mako ta joskera duin jatorraren gozotasuna buru-biotzetan murgilazten alegiñak erre ebazana. Bego emen adierazoa ari zor dautso-gun eske-on bizia.

Elburu ori jaristeko ba-ekian arek idaztea zala bide aparteko bat Idatzi eragiten euskun guri Aita Urbano lemoarrak; baita orrez gaiñ, guk oraindiño zakar samar arildu-lanak berak galbae txukunean eralgi, bear zana obetu ta dotoretu be. Eta gu bai pozik, apain-apain troxatua ikusiz gure umetxoa, edozein lekutan agertzeko gai zana. Or orduko gure lanak jenteak irakurrita; onek barriz poztasun esan-eziña emoten! Markiñako ikasle gazteak, Donostia'ko «Euskal-Esnalea» aldizkarirak urtero-urtero eratzen ebazan sariketa guzietara ainbat lan jakingarri bialtzen zituen.

Berak, Aita Urbano'k, adierazo oi euskun lanak nun argitaratu: Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale», Donostia'ko «Argia» ta «Euskal-Esnalea»-n. Aldizkari oneitan etozan lanak, olerkiak naiz itz-lauzkoak, irakurten euskuzan. Eta sariketetara aurkeztuko arnasa emon. Guk orixe atsegin! Leendik be, esana dot, sari batzuk jaso nintzan, eta onek, janari onak lez, sari-gurea ekarten.

«Euskal-Esnalea»-k, 1928'ko epaillaren 18'an, idazti sariketa bat iragarten. Zazpi gai. Irugarrenak onela: «Gure nekazariak beren eguneroko eginkizun eta bizikeran erabiltzen dituzten tresna ta gañerako gauzen izenak. Tresna ta gauza bakoitza zertarako dan esan bear ko da». *Sariak*: lendabizikoa, 100 peseta; bigarrena, 50. Gai onetan 7 lan eldu ziran: Urkia'tar Pernando (Oñati), eta Arisitizabal'dar Luziano'k (Oiartzun), lenengo sariak. Niri irugarrena, «Baserriko tresnak», Bizkaiko euskeraz poliki egiña». Saria 25 peseta. Egillea: Fr. Santiago de la AnunciaciOn (Markina). 1930'ko urtean dator 197 orr. Urrengo urtean be, 1931-Epailla, 322'gn. zenbakian barriro argitaratu eben, 53'gn. orrialdean asita.

Urte artako uztailean il zan Gregorio Muxika (Aztertzailel ta aren eriotzaz itzali jakun «Euskal-Esnalear», jarra'an etorri zan «Yakintza», Aitzol'ek sortua.

4. FILOSOFI - IKASLE

Markiñatik Gasteiz'a aldatuz, arabar uriburuko karmeldar ikastetxean, eleiz-gizon izateko Eleiz-araudiak eskatzen ebanez Teologi aurretik ikasi ta burutu bear ziran jakintza iru urteak —1929-30-31 ikas-urteak— antxe osotu nitun. Ikasle pilloa giñan orduan karmeldar komentuan, berrogeitik gora, iru urteko ikasleon artean.

Aratu ta laster, zeremoni aundiaz ikas-urtea edegi ondoren, jakintzari ekin geuntson gogo-bero. Oian barri baten sartu gintzazan, iru urteko ikaste arloan. Gazteak gu, eta kulturatzeko gar bizitan, Irakasleetatik euskaldunak ziran, ia danak: Txaraka markiñarra, Anbortsi Abasolo zornotzarra (gero India'n, Vijayapuram'go gotzain izan zana) ta besteak, Ez genduan oneikandik egundo be eragozpenik izan euskerazko jardunaldietan.

Ospe aundiko zan orduan Andres Espinosa Etxebarria, zornotzarra, mendizale lez, munduko ainbat mendi-gaillur gaintitu zituana. Tolosa'ko «Pyrinaica» aldizkarian emoten zitun bere egintza arrigarriak. Oraintsu ildakoa dan gizseme trebe onek anai bat eukan emen, karmeldarra, ni baiño urte bete aurrerago, Filosofia ikasten ziarduana; onek zirikatuta, beronek be bere laritxoak ara bialtzen ebazala-ta, ara bialdu neban olerki bat, neure leenengoa argitaratuetatik beintzat, «Mendiruntz» deritxona; aitaturiko aldizkarian 1929'an dator, 15'garren zenbakian. Bost aapaldi daukaz, 5/5/5 - 5/3. (Ikus «Gaiznabar», olerki-bilduma, 1929-1950, Bilbo, 1971, 14 orr.),

Orduan oitura zanez, barruko albistari txiki bat geunkan ikasleok «Renacer izeneko. Or be idatzi neban zerbait euskeraz; Balmes'en «Filosofia Fundamental» —Oñarrizko jakintza—, zatika emonik, jose Zinkinegi errexildarrak «Irizpidea» —El Cri-

terio— gure izkuntzara biurtu ebalako edo. Gure egaz-egin naiak! Gorbei puntara eldu gura deuanak, izan be, arnas aundiko agertu bear dau Zeanuri'ko plazan.

1930'an itzulpen konkurtsoa Donostia'ko «Euskal-Esnalea»-k. Cervantes'en «Novelas Ejemplares» ziran euskeratu bear ziranak, bakotxak aukeratuko eban zein itzuli, asko bait dira olako irakurgaiak. Lau izan gintzazan lan orretan asi giñanak: Aita Anbortsi, Jerardo Gerenabarrena, Lino Akesolo eta ni. Azkenengo biok saria jaso genduan, Akesolo'k «Agure kezkatigaz» eta nik «Neskatz ijitoagaz», biok sari bardiña, 100 pezeta. Sari alai benetan. Anbortsi'k be gai bitan jaso eban saria; lenengo gaia «Jaotzez itxu ta gor diranak, beren, lotaldietan, zer amets egiten ote dituzte?». Saria 75 pezeta. Bigarrena Cervantes'en «Leyarrezkan Irakaslaría», Saria: 200 pezeta.

Sari orreir iribarrez bizita be, konturatzen nintzan ni garai a etzala egokiena euskal lanetarako. Jausia zan, egia, Primo de Rivera diktadura zital ondoren; dardar egian Madrid'eko gobernuak, erregea kezkaz, auteskundeak alako baten eta or anka-gora aspaldiko monarkía, erkala garaiturik. Iges doa Alfonso XIII, Italirantz. Gorriak nagusi, amorru bizitan. Bada su ta eriotzarik! Euskaldunok nasaia atartuko ete? Bai zera! Guretzat, zuri naiz gorri, izterbegi amorekaitz. Urteak joan eta etorri, alan be, lortu zan zerbait egitea, euskal barrutian diñot. Azaltzen asi ziren, bai, euskerazko liburuak eta aldizkariak. Ordukoak doguz «Euzkerea» (1929), «Karmengo Argia» (1931), «Ekin» (1932), «Yakintza» (1933), «Antzerti» (1932).

Andik sei urtera gerra sortu zanean lez, aurretik be, Errepublikan etortian ondo eratsia geratu zan gure euskal zaletasuna, oro-ar. Asmatu eziñeko bildurrak banatu ginduzan alkarregandik, batzuk Ameriketara ta beste batzuk India'ra, geure irakasle ta guzti. Nire ikaslagunak, nire urtekoak eta nik, ez genduan izan iñora joan bearrik, Euskalerritik kanora beintzat: ni ta nire ikas-kidean Begoña'ra joan gintzazan, 1932'ko dagonillean, Teologia ikasten.

5. BEGONA'N, IKASLE TA IDAZLE

Begoña etzan orduan gaur dana: komentu aundia, eleiza ederra, ortu zabala. Ikasteko ta bizi izateko leku berezi-berezia. Lau urte botako genduzan emen. Teologia ikasi bear zan bertan, Dogmatika ta Morala, beste gai askoren artean. Ez genduan iñoiz kezkarik izan irakasleengandik; ez euskera saillean, ez beste ezertan; kaleko aizeak joten eban geienik komentu barruan be. Idazle giñan ainbat aldizkaritan, Zornotza'ko «Ekin»-en, Bilbo'ko «Euzdaki» ta «Euzkerea»-n, Donostia'ko «Argia» ta «Yakintza»-n. Orollope doan urak, ixil naiz marmar, joate ixil ori nabari-azten, goiz edo berandu. Barne dirakin sua azalez igartzen.

Guk ikasi bitartean idazteari emon geuntsan. 1931'go urtarri-laren lenengo egunetan asi zan kaleratzen «Karmengo Argia», zuzendari ta idazle mordotxoaz, Aita Doroteo, Martin, Lontzi (Ormalda), Anbortsi, Goiria, Bernardo ta besteak. Laster or Erroma'ko laguntzailleak, «Legoaldi», Aita Ipolito Larrakoetxea, an irakasle egoana ta «Arratzu», Juan Magunagoikoetxea an ikasle zana; «Emaldiko», gero «Mugarra» poema biribildu ebana, G. Aramaio (Gabriel Jauregi), Aita Eustasi, bilbotarra; Pi Aba ta Balendin Abasolo eta Teresio Elorrieta, Peru'n bizi ziranak; Aita Gotzon Jauregi, Portugal'dik...

1931'ko azillaren II'garren zenbakian asi nintzan *ni* «Karmengo Argia»-n idazten. Olerkitxo bat izan zan nire lenengo lana, al-dizkariaren 333'gn. orrialdean datorrena, «Terese Deunari» deritxo, lau estrofa daukazana. Olerkariak bene-benetan bere barrua bear dau adierazo bere sorpenetan. Nire onek, egia esateko, len-dabiziko giza-kimu guztiak lez, ez dau arnas aundirik, ez gatzik, baiña orduko giroa oretua da. Errepublikaz gaiztakeri ugari jauki zituen gorriak, baita karmeldar komentuetako lekaide-lekaimeen artean be. Jazokun oneik eragiña dozu poema txiki au. Ez neban sartu neure «Goiznabar» liburuan, beraz begoz ementxe asierako poesi pilpilla lez lenengo aapaldi biak.

«Erri askotan Maitearentzat
etxe apaiñak eragitea
zuzetzat bai pozgarria!
Gaur arerio arnorratualc
crruki barik egin dabena
benetan negargarria...

Some'alaban usotegiak
or-emen asko erre dituc.
Erre begiak, malkoak!
Usotegitik usoak uxa...!
Or dabiz, Ama, nora jo gabe,
abi barik gizajoak.r».

Zenbaki orretan eta urrengoetan prosaz be asi nintzan idazten, Teresatxo Deunaren bizitz-kondairari jarra. tuz batez be. Eta gisa orretan, atertu barik, 1936'an, anai arteko guda dala-ta, aldizkaria itzali zan arteño.

Basarteko oroldi azpiz dabillen ur-korronta laster somatzen da; era berean gizakumeak barruan daroana be, ez da nobere kautan ixil eukiten, uste ez danean azaltzen ditu bero sorbo ta bizi-naiak.

Beste ainbeste jazo oi jatan niri gaztetxotik barru neroiana ta urteetan ikasia zerbait barraiatu gura. Senar-emazteak egiazko atsegiña artzen dabe mai-biran seme-alabak, euren kimu barriak ikuskatzean; bardin idazleak bere adimen-frutuak irarrita begizatzean, Onek gaztetan iñoizkorik geien adierazo ezindako atsegiña ekarten dautso idazleari.

Karmeldar idazleak ziran gure aldizkaria laguntzen eben geienak. Zuzendari ta laguntzaille, eredugarri guretzat. Eta gure lan-txoak arein zentzun aundikoen artean ez euken itxura txarra. Beraz, Larrara joiazan gure lanak.

6. «KARMENGO ARGIA»-N IDAZLE

Lumeari eragiñez irulau urteren buruko kopuru ederra osatzen. Leengo goiz baten, «Karmengo Argia» eskuratu ta arakatzerakoan, naiko arritua gelditu nintzan Begoñan ikasle nintzala nik an idatzitakoa ikustean. Ez neban uste, arian cz-arian ainbeste idatzi nebanik. Eta gaztetako izerdiak edonori eder jakuzan ezkerro, bego emen nik orduan idatzi-lanen zerrenda zeatza, urtez urte.

1931

Azilla. 1) «Terese Deunari» (olerkia), 333 orr.; 2) «Teresatxo deuna», 333 orr. *Lotazilla.* 1) «Sortzez Garbia» (olerkia), 363 orr.; 2) «Teresatxo deuna», 370 orr.

1932

Urtarrilla. «Teresatxo deuna», 16 orr. «Teresatxo deuna», 92 orr. *Jorrailla.* «Ama neketsua» (olerkia) 101 orr. *Bagilla.* «Teresatxo deuna», 164 orr. *Dagonilla,* «Teresatxo deuna», 230 orr. *Irailla,* «Teresatxo deuna», 261 orr. *Azilla.* «Teresatxo deuna», 333 orr,

1933

Urtarrilla. «Teresatxo deuna», 20 orr. *Otsailla.* «Gurutzeko jon deunaren esakun mamintsuak», 37 ta 68 orrialdeetan. *Epailla.* 1) «Teresatxo deuna», 75 orr. *Jorrailla.* «Gurutzeko jon», 161 orr.; 2) «Arrena» (olerkia), 162 orr.; 3) «Jon Anai karmeldar agurgarria», 188 orr. *Orrilla.* 1) «Orril» (olerkia), 144 orr.; 2) «Gurutzeko Jon deunaren esakun mamintsuak», 143 orr. *Bagilla.* 1) «Bigarren eun-urtebete goragarria», 166 orr.; 2) Maitasun ayotsak¹» (olerkia), 169 orr.; 3) «Jon Ansi karmeldar agurgarraia», 175 orr.; 4) Gurutzeko Jon», 179 orr. *Garilla.* 1) «Gurutzeko Jon deunaren esakun mamintsuak», 209 orr.; 2) «Teresatxo deuna», 210 orr.; 3) «Jaungoikoaren zigorrak», 217 orr. *Dagonilla,* «Jon Anai karmeldar agurgarria», 248 orr. *Irailla.* «Usoa egazka» (olerkia), 276 orr. *Orrilla.* 1) «Geziz zauritua», 294 orr.; 2) «Teresatxo deuna», 298 orr.; 3) «Gurutzeko Jon», 312 orr. *Azilla.* 1) «Gurutzeko jon deunaren esakun mamintsuak», 329 orr.; 2) «Donokuntza-bidea», 345 orr, *Lotazilla.* 1) «Arnaren lelo» (olerkia), 360 orr.; 2) «Donekuntza-bidea», 370 orr.

1934

Urtarrilla. 1) «Donekuntza-bidea», 12 orr.; 2) «Teresatxo deuna», 24 orr. *Otsailla.* 1) «Lourdes'ko Artzaintxoa aldaretan», 57 orr.; 2) «Donekuntza-bidea», 59 orr. *Epailla.* 1) «Lourdes'ko Artzaintxoa aldaretan», 76 orr.; 2) «Abean» (olerkia), 81 orr. *Jorrailla.* 1) «Umeak», 102 orr.; 2) «Donekuntza-bidea», 118 orr. *Orrilla.* 1) «Teresako deuna», 138 orr.; 2) «Donekuntza-bidea», 148 orr. *Bagilla.* 1) «Donekuntza-bidea», 169 orr.; 2) «Umeak», 231 orr. *Dagontila,* «Jon Anaia ta Josu Aurra», 238 orr. *Irailla.* 1) «Teresatxo deun», 262 orr.; 2) «Egazkadak» (olerkia), 270 orr. *Urrilla,* 1) «Otoia» (olerkia), 294 orr.; 2) «Teresatxo deuna», 297

orr. *Azilla*. «Umeak», 311 orr. *Lotazilla*. 1) «II intzan» (olerkia), 329 orr.; 2) «Zorionak», 336 orr.; 3) «Donekuntza-bidea», 348 orr.

1935

Urtarrilla. 1) «Zorionak», 10 orr.; «Begi-urdin» (olerkia). 18 orr.; 2) «Donekuntza-bidea», 31 orr. *Epailla*. 1) «Zorionak», 46 orr.; 2) «Teresatxo deuna», 52 orr. *Orrilla*. «Teresatxo deuna», 100 orr. *Bagilla*, «Bizitzarako ogia», 113 orr. *Garilla*, «Zorionak», 142 orr. *Dagonzilla*, 1) «Zorionak», 182 orr.; 2) «Ezti utsa» (olerkia), 187 orr. *Irailla*. «Donekuntza-bidea», 213 orr. *Urrilla*. «Teresatxo deuna», 250 orr. *Azilla*. 1) «Lo, Josu» (olerkia), 268 orr.; 2) «Zorionak», 275 orr. *Lotazilla*. 1) «Lorarik zuriena» (olerkia), 301 orr.; 2) «Donekuntza-bidea», 302 orr.; 3) «Mingaiña dala-ta», 310 orr.

1936

Urtarrilla. «Zorionak», 18 orr. *Otsailla*. 1) «Donekuntza-bidea», 42 orr.; 2) «Maitasun jopu» (olerkia), 44 orr.; 3) «Burutasunak», 50 orr.; 4) «Eriotzorri» (olerkia), 61 orr. *Epailla*. 1) «Lilia» (olerkia), 78 orr.; 2) «Teresatxo deuna», 79 orr.; 3) «Azken-aparia», 107 orr.; 4) «Ama neketsua», 114 orr.; 5) «Siti» (olerkia), 128 orr. *Orrilla*. 1) «Oroldi-larrosea», 148 orr.; 2) «Saratsa ta Nekosta» (olerkia), 150 orr. *Bagilla*. «Ukubillak gora», 177 orr. *Garilla*. 1) «Eli deuna ta Odeitxo», 201 orr.; 2) «Karmelgo Amari», 214 orr.; 3) «Ene biotz negarrak», 223 orr. *Dagonilla*. «Oiu-miña» (olerkia), 252 orr.

7. EUSKAL GIROA NAUSITZEN

Oiz gaillurrera oiñez joan nai dauanak, leenengotan ustekabez legez emon daroaz bere oinkadak, gero zolitu egiten dira bernak eta azkenik goi goian aurkitzen zara. Olako zerbaít gertatu jatan niri be idazten asi nintzanean, «Karmengo Argia»-n baitik-bat: asi nintzan, ikasurteak eskatu gaiakaz jabetu bitartean, aldizkari ortara lanak bialtzen eta azkenerako ikus zelako idatzi mordoa. Idazlea bera be arritzeraiñokoa, egia zan.

Berez ez dator giroa, erri-maillan alan be; geuk sortu ta aurre-
ra eroan bear doguna da. Sarri entzuten da: ez dogu gidaririk.
Bazterrak pizkat girotu ezkeru, baiña, gaur ezpada biar, sortzen
dira, agertzen jakuz zuzendari-arnasaz orniduak. Ortarako gai dana
sustatu ta laguntza emonaz, laster agertu oi da bear litzateken zu-
zendaria. Or Euskaltzaleak alkarte, Lizardi, Aitzol eta beste giza-
seme zintzo batzuk sortu ta aurrera eroana, ta 1936'ko gudak
moztu ta suntsitua.

Bertsolari, teatru ta aurtxoan egunak saiets itxirik be, or dau-
kaguz Euskaltzaleak irasi, piztu ta aurrera ateratako «Olerki-Egu-
nak»; or daukagu «Yakintza», Aitzol'ek zuzendutakoa. Errepubli-
ka etorri ta jarri zanean, ba genduan aldizkaririk, baiña poesi-
auzian, mailla *nagusian* beintzat, «Euzko-Olerkiak» eta «Yakintza»
nabarneotzen ziran geienbat. Donostia'ko «Argia»-k, Iruña'ko «Ze-
ruko Argia»-k, Bilboko'ko «Jesus'en Biotzaren Deya»-k eta Zor-
notzako «Jaungoiko-Zale»-k eta «Karmengo Argia»-k euren olerki-
sailla eukien, baiña aitaturiko biak ziran nagusi.

Gerra aurreko urteetan, «Eusketzaleak» alkarteak antolatuta,
zazpi Olerkil-egun ospatu ziran naiko gogoangarriak. 1930'an,
Errenderi'n, Lauaxeta'ren «Maitale kutuna» sariztaturik. 1931'an,
Tolosan, Lizardi'ren «Urte-giroak ene begian», sariztaturik; 1933'
an, Urretxua'n, Etxeberría'tar Pantzeska'ren «Bost Lore» sariturik;
1934'an, Zarautzen, J. Zaitegi'ren «Tori nire edontzia» sariturik;
1935'an, Bedoña'n, L. Jauregi'ren «Maite Opari» saritua; 1936'an,
Lekeitio, J. Otamendi'k zidarrezko aritz-abarra jaso eban bere
«Giza-adiñak» poesiarekin.

Lekeitio'ko eguna, ederra benetan eguzkiz ta jentaz, 1936'gko
garagarrillaren 28'an ospatu zan, Azkue'tar aita-semeen omenez.
An nintzan ni be, eta an ziran orduko olerkari ta euskal idazle
urtenenak. Meza nagusi ostean, Udaletzeko aretoan egin zan sa-
riak banatzea, ta ondoren bazkaria. Ni gaztetxo oraindik, 27 ur-
teko. Nire inguruan bazkaldu ebenak —Orixe, Olabide, Aita J.
D. Ugartetxea, Klaudio Onaindia jauna ta besteak— euskal li-
teratura ta mistika, ez eben beste autugairik astindu iru bat or-
duan. Ni pozarren etxeratu nintzan, ez Azkue'tarrak, Aitzol, Al-
berto Onaindia ta bertako gizon jatorrak soilki, baita konta-ezin
beste euskaltzale zintzo ta euskal idazle sonatu ezagutu ta bos-

tekoa emon al izateko ereti egoki ta atsegingarria eskura etorri jatalaki. BIzitzan ba ditugu egun batzuk aztu eziñak. Auxe bat niretako.

Oleri-Egunak ospatzen ziran errietakoak, zaar eta gazte, ederto be ederto erantzun oi eben; eratzailleak, beraz, igeri egien. Eta orrez azkenengoak izan ezik, beste sei poesibatzaledira bialdutako eclerrenakin biribildutako «Eusko-Olerkaik»

panpoxa argitaratu oi zan urtero, oraintsu barrero argitaratu diranak. Aitzol'ek egiten eban lan ori. Ale bakotxari itzaurre joria ezarten eutson. Lenengo alearen itzaurrean (1930) arek onela: «Oraingoan, euskaldunak gure izkera apaindu eta aberastu bearroan gera. Eusko-elertia oparatsuenetakoa ez bada ere, ez da askok uste lezateken bezin argal eta makala. Euskaltzaleak alaz guztiz, gure elertiarri mendu gazteak txertatuaz sendotu nai luteke» (1930,4 orr.).

Urtero eratzten zan oler_ti gudura bialdutakoenetatik autatukoekin osatzen zan bilduma bakotxa. Neuri be dagokidana dan ezkerro, bego emen zeintzuk olerkarik esku artzen eben jakiteko adiona. *Lenengo* alean oneik datoz: Lauaxeta, Orixe, Lizardi, Tapiia-Perurena. Imanol Enbeita, F. Loidi, Jakakortajerena. A. Zugasti, A. Arozena, Jautarkol, A. M. Labaven. *Bigarrenean*, Lizardi, jakakortajerena, J. Zubimendi. Manuel Lekuona. Tapiia-Perurena. E. /vLuxika, lautarkol. Loramendi, Tomas Agirre (Barren' soro), E. Arrese. *irugarrenean*, Loramondi, Jakakortajarona. Jautarkol, E. Erkiaga. F. Loidi. X. Lazkoz, Tapiia-Perurena. *Languarrenean* Etxeberria'tar Pantzeska. Orixe, Gotzon Arin. Gaztelu, J. Onaindia, E. Erkiaga. «Onintza», **Urkidi**, **B. Ametzaga**. M. M. Arrizubieta, Jautarkol. Eta orrelaxe beti. Aitzol'en itzaurre jakintzuz jantzita.

Gregorio Muxika ta Xabier Lizardi il ziranean. Aitzol geratu zan gu guztion bultzatzaile legez, Beronek eroan euskun beintza_t «Euskaltzaleak» alkarteak bere pentzutan eukazan lan-arloak. oleri, bertsolari, aur-jolaseta antzerki-egunsak. Orrezaz gainera «Yakintza» (1933) sortu eban. eusko-jakintza aldeko bi-illerbkoa. Eukazan sail «**Elerti**», «**Antzerti**». «**Irazkintza**», «**Edesti**», «**Legegintza**». «**Abendelisti**», «**Gizartiziti**», «**Er-**

ti» ta «Ereserti». Muxika itzali zanean. «Euskalerrriaren Alde» eta «Euskal-Esnalea»-k itxi eben utsunea beteten etorkigun «Yakintza».

«Elerti» saillean ainbat olerki sartzen zituan Aitzol'ek. Emen azalduak dira gero «Eusko-Olerkiak» liburuan etozanak be. Garai atako poeten lana jakingarria da-ta, beioaz emen orduko olerkari urtenenen izenak: Tapia-Perurena, Lizardi, Jautarkol, Eme-teri Arrese, Felix Markiegi, Loramendi, Ramon Intzagarai, Iraizoz, Eusebio Erkiaga, Gaztelu, F. Loidi, J. Onaindia, Estepan Urkiaga, Jokin Zaitegi. Ementxe datoz T, Agirre, Orixe, G. Manterola, Jose Ariztimuño, Artetxe ta beste batzuk poesiari buruz egindako idazlan bikaiñak. Ementxe datoz baita R. Tagore'ren «Amal» Sabiaga'k (Aita Bonifazio Ataun'ek) euskeratua eta Schiller'en «Wilhelm Tell» Goenaga'k euskerara itzulia.

Nik be bialdu nituan neure are-pikortxoak «Yakintza»-ra, eta bertan agertzen jatzuz nire sei olerki; 1934'ko agorril-urrillean, «Ontziska ta Ekaitza» (335 orr.). «Saratsa ta Itxaropena» (408 orr.); 1936'ko ilbeltz-otsailla, «Gaztaro» (20 orr.); epail-jorrai-lla, «Larrosa-lego», (99 orr.); agorril-otsailla, «Barruko guda», (34 orr.); [936'ko epail-jorai-lla, «Zoratua», (9 orr.).

Aitzol zanaren belaualdia zan, kementsu ta arnasa aundikoa. Lizardi genduan eredu olerkariok, izar dizditsu antzo; Aitzol, ostera, bultzatzaile azkar. Amaika eskutitz bizi artuak gara agandik orduko koplariok. Nik txortatxoa neukan ondo gordeta, pitxi eder lez, baiña gudaldian biotzez maite nituan beste liburu, gutun eta olako zer asko bezela galdu jatazan betiko, suak irun-tsiak bear bada.

Naiz eta saririk jaso ez (ez bait da danentzako egoten), geure ustez olerkari gintzazan geienok bialdu oi genduzan geure sor-penak olerki batzaldietara. Nik be irutara beintzat bialdu nitun neureak. Orain ez dakit zeintzuk. Bat, 1933'an, Iparragirre'ren omenez Urretxu'n egindako jaira bialdua, «Bere ereskin-ekaiak» deritxona, 28 estrofakoa. Iparragirre'k bere txango ta ibilliak abesten ditu.

8. EKAITZ IZUGARRIA

Edu orretan bizkor-azorik genbiltzan gu, su ta ke, bestea euren auzietan lez, geure-geurea zan euskal arloan, obeto, olerbaratzean, Alkarren leian ibilli be, nor geiagoka lez; ba-geunkan nun argitara emon geure asmakizunak; baita ba-geunkan zer irakurri be euskal literaturan, poesiari loturik, kanporantza larregi makurtu bage: Arrese'tar Emeteri'ren «Txindor» (Donosti, 1928), Jautarkol'en «Biozkadak» (Iruña, 1929), Gabirel Manterola-ren «Goi-izpiak» (Zornotza, 1921), Satarka'ren «Txinpartak» (Donosti, 1922), Lauaxeta'ren «Bide Barriak» (Bilbo, 1931) eta «Arrats-beran» (Bilbo, 1933), P. Lafitte'ren «Ithurralderean Kantuak» (Baiona, 1932), Lizardi'ren «Biotz-begietan» (Bilbo, 1932), Orixe'ren «Barne-muinetan» (Zarautz, 1934), Sabin Muniategi'ren «Goiz-aize» (Bilbo, 1936) eta bestea, garai aretako aldizkariak olerki txukunak sarri ekazenak elbora itxirik be.

Baiña brastakoan gaiñeratu jakun ekatxik izugarriena, dana ondatu euskuna. Gure izkuntzari begira, odei balzak justuri ta trumoi bertatik eratxita laga oi dauan baserriko solo-sail ederraren antzera, xeatu ta lurra jorik gelditu zan euskal literatura ta olerkigintza batez be, urteetarako lauskitua gelditu be, amar bat urtetan ez bait eban bururik jaso al izango. Mugaz emendiko euskal arazoa, kulturari buruzkoa ain zuzen, mutu geratu zan. Gerra bitartean, 1937'an be, zerbait egingo zan Bizkai'an, bagillaren erdirantza noski, «Euzkadi» egunerakoa bere euskal atalarekin eta «Eguna» euskeraz osorik idatzitako egunerokoa, lerden bait etozan oraindiñokarren. Baiña oneik be, ixil-erazoak eta sakabatuak izan ziran osotoro. «Euzkadi»-k oindiño be orrela dirau, eta «Eguna»-k 1986'ko, urriak 5, igandez, 140'garren zenbakiaz asi eban bere II garaia.

Orduko euskal idazleetatik batzuk —Aitzol, Lauaxeta, Zelestin Onaindia ta Felix Markiegi beintzat— fusilatua izan ziran, eta beste batzuk munduan zear barriatuak. Zezen errime mailluz joaren antzera, dardar-azo ta porrot egiña dogu euskal literatura, ego aldekoa beinik-bein. Ez da ezer idazten, ez libururik argitara emoten, kalean ezin daiteke euskeraz mintzatu, auzo-ikastolak ixildu dira, eleizetan be euskera urri. Euskerarentzat igarrak benetan gerra osteko leen urteak.

9. GILTZAPEAN BE EUSKALTZALE

Barnean sua danean, gaitz orren eragiña irotea. Ni neu euskaltzale agertu izan naz nainoz ta nainun. Guda lerrotik, noiztik noizera, bialtzen nitun euskerazko lanak «Euzkadi» eta «Eguna»-etako orrietara. Gaur ez ditut esku artean. Espetxean, izkuntzak ikasiz gaiñera, ainbat euskal lani ekin neutson.

Santoña'ko El Dueso'n zail zan lan egitea. Batentzako ziran geletan, sei ta zazpi gengoan lenengoz, eta gero emon-zigorra bete-garaian, esan dodanez, iru gintzazan —Eujeni Larrañaga, Juan Jose Agirre ta ni— batentzako zan gelan. Eta etzan errez mintzatu, irakurri, otoitz-egin, zerbait ikasi ta alkar poztuz gaiñera, ezer egitea. Nai dauanak, alaz be, zer-edo-zer burutzen. Samiñaldi aretan be nik olerki kaxkar batzuk ondo nebazan. Baita esku artu be an atarako «Pakean geundenok» eta «Goruntz biotzak» deritxen apaiz-ereserki bitan.

Itxas-ertzetik arabar lautadako aizetara, Zadorra saiets, arri ta ondoskopoz ugari dan Nanklares'era. Arnasa artzeko eremu obea, ainbesteko kate ta orma lodi barik. Erdi-gaixorik etorri nazan ezkerok, gela eder batean jarri gaitue Aita Errapel karmeldarra ta ni. Guda aurretik eta gudaldian, a nagusi ta ni menpeko giñan Larrea'n, ezagunak keraz: ederto aituten gara. Badot mai zabal bat be lanerako. Eta ementxe emon neutsan nik asiera lan eder onurakor bati: andik urteetara argitaratu ba zan be (1963), orduantxe asi nintzan latiñezko misala —«Eguneroko Meza»--euskeraz ipinten, gero apurka apurka osotu nebana. Itzulpen leiaz bederen auxe izan zan lenengoa. Orixe'rena 1949'an argitaratu zan.

Palentzi probintiko Dueñas'en, Trapatar lekaideen komentu osteko mandioan ez geunkan ezertarako be aukerarik; ez geunkan mairik, ez jarlekurik. Aldia emonez itz egin, irakurri, ibilli... bai, Pisuerga ertzera. Eta esan dot: naiak edozein leku eder lanerako: antxe Pisuerga egalean, buru-muiña sotil ta biotza dardarti oretu neban «Ur! Ur! » deritxon amalau estrofako olerki negartia.

Beste atxilotuak uretan, ortozik, txipli-txapla dabiltzan bitar-tean, olerkaria garbi-unean bakarrik dago pentsakor, biotz-dardai. Zokoz zoko dabil ura intziri gozoan. Mosu dagitse lorai, ipuin kontari. Txoriak alai egazka, goian eguzkia dirdaitsu, altzak eta zumarrak alkar-gurka. Zerbait adierazo nai olerkariak. Arkatza dauko atzamar artean, eta paper zuria; idazten asi da.

Ur! ur! zokoz zoko arin oan ur!
Zer dala-ta dagik orren mee surmur?
Arri ta zur naukak ertz muskerrean,
ire ai jasoten aize urdiñean.

Ibillian gartsu lorai laztanka
ipuiñez diarduk ixil-mixilka?
Ala, ari gaiztozko, mormox-uts abil,
uberkak esitzen aulako zurbil?

Aspaldi danik zori bardiñak
ez ete alatzen gure barrenak?
Erreka yaroat muiñean oska,
iñoiz ixil bako naigabe-erreka.

Preso dago olerkaria, gizarte aize atsitzuz urrun, iguin jako gizona, guzurti ta zapaltzaille dana, bake-miñetan urari dagokio, ixilkide barrua erakutsiz. Onela darrai:

Ta iri yiñoat gaur erosta miña,
azalera barik jagon eziña:
i beintzat erruki, urtxo gardena,
neugaz bait darabilt miñik latzena.

Urruti-min da olerkaria. Bere aberritik jaurtia, erbestera, askatasun bage. Igar soiña, arima larri! Noizarte negar-bidez? Izadia eder dau inguruan, baiña iguin dau gizona, amarruz betea. Onan amaitzen dau erosta:

I, barriz, maitea ut, leian urdiña,
ik bai daikek goza ene samiña.
Baiña, arren, ez egik ots ain itunki,
muiña jat lertzen ori entzuki!

Nik orrez gain euskerari ez neutson amore egiten. Ementxe osotu neban aspalditik esku artean nenkarren euskal gramatika, bertako Zuzendariaz batera idazkaritzan lan egian Federiko Orbea'k idaz-makiñaz garbi jarri eustana; ementxe itzuli Silbi Pelliko italiarraren «Ene Espetxeak» liburutik zati aundi bat, ementxe baita, inglesa ikasi-ala, Jonatham Switf'en irri-nobela «Gulliver'en Osterak» deritxon liburua erdi-biurtu neban. Ementxe idatzi neban, egunez egun, neure sentipen eta jazokunen kondaira. Mamindu nebazan koplak batzuk, urrun neukan neure erriaz eta erritarrakaz gogoraturik egindako au, adibidez:

«Ego-aizetxo nekatu-ezin,
nora oa onen arin?
loratzen ijuti,
aur bildur antzeko,
arnas ugari, egal zurizko,
zok arabil ain arinto?»

Ez yak atsegin, noski egoa
eta ipar-aldera oa?
—Bai, olerkaria;
be-alde atsia
betikoz itxia,
ara naioak, biotza pozik,
zabala ukaldiz etenik.

Orrela ba'dok, aizetxo maite,
biotz-agur esku bete
eroan egik ara,
ene Erri maitera.
An yaukazak eneak,
urrin-oiñazez aurki josiak:
danai nire gorantziak».

An eta emen negar-jario biotzak; an eta emen espetxean euskoak; an^goak eta emengoak alkar poz-eztiz gozatu nairik: niri bialdutako lau letragaitik katigu-aldia eukan Axuria'tar Jonek Bilbo urian.

10. LAKIOTIK IGESI

Naigabe-aldiak on egin oi dau. Guda-oiñean gu aurrenik gudarrien apaiz eta ondoren urteetan giltzez itxiak, Jainkoarekin beti zintzo, urkoagaz beti ongille, ez genduan iñoiz etsipenik izan ez fedean eta ez artutako bizi-bidean. Gutariko batek be ez eban gero ur otzetik epelera zapartik egin. Leen baiño be sendo ta go-

gotsuago genbiltzala esatea ez eizu uste izan ez-esatekoa danik. Zaar naiz gazte azkeneraiño jokatu gendun zintzotasun betean,

Ez gendun onetan izan alkar berotu bearrik: bakotxak sendo iraun eban beiñola artutako bidean; ez, ez eban iñok begiak atzera bota, esku artean eroian are-kirtenari leial eutsi baiño. Lor bardinpean genbiltzazan guztiok, eta orain, bizkar-gaiñ genkarren sorta itxi, Karmona'ri agur betea egin eta bakotxak erdizkako askatasun bidea, norantz ez genkiala, artuko genduan unean, ez uste biotz-samintasun bakoa zanik.

Urte pilloa alkarrekin, miñetan, egitean, ez ukatu, maitasun Inkiak estutu egin oi dira eta oneik austeak naigabez, biotz-miñez jarten ginduzan. Samintasun onen gidari garratza be irunsi ta aurrera joko genduan.

Bai samurra gure azken agurra, azken besarkada! Arte ederra guregan: kanpora joiazanak biotz alai, geratzen ziranak laster etorkoen askatasunaren zain eta oraindik an jarraitu bear ebenen itxaropen luzea., Askatasun eguna bai dizditsu!

Gure poza etzan oindiño betea, Gure pena-zigorrak aztertu ta jatsiak izan ziran; julian Besteiro ta beste batzuenak ez ebezan aztertu, eta an geratzen ziran itxaropen larregi barik. Besteiro antxe il zan.

Pozaren artean arantzaren bat beti nabarmentzen.

Guk «Eremu» diñotsagun komentu berezietatik bat dozu Rigada auzuneko au. Itxasotik bost bat kilometrora, Santander aurrez-aurre daukala. Toki atsegiña atsegiñik bada. Eguzkira begira, muiño zabal baten altzoan, baserriz ta landaz mendixkaz ta zugatzez ondo betea. Ba neban nik nun gogozko lanari ekin. Inguruetan^siro aundirik, ez bazan be, naiko idatzi neban itz lauz ta poesiz:

orduantxe biribilduak dira nire «Goiznabar» olerki idaztiaz. Osoan 97 orrialdetik 115'ra bitartekoak, ots, «Ene ereskiña», «On damena», «Ur-egalean», «Baserrian jausia», «Euria ta uria», «Odol mendi», «Basoan illa», «Lurra emotea», «Ez itxartu! », «Gauoivak», «Eortzi gabea», «Iri nago», «Ekaitz artean ez!», «Oñañapean», ta «Zuri dagitzut oi», Kanpai-otsa».

«Eremu» komentu onetako bizimodua, beste karmeldar etxetan baiño penitentzi geiagokoa da. Garberdian jagi bear da maitinak errezzatu edo abesteko, eta onek orduari berezi bereziari jarraitu bearra dakar ondoren. Noberak opa dituan lanak burutzeko ez da geratzen nai beste asti. Nik emen be, gorputzak eta arimeak eska neukazan atsedeen'aldia emenez gaiñera, izan nebazan euskerazko lanak aurrera erodateko bitarteak. Ez egoan nun argitaraturik, baiña izerdiaren frutuak or geratzen ziran zori obe baterako. Erderaz be orri-moltzo beteak idatzi nitun Rigada'ko barru-bizi tzeari buruz,

11. ETXEZ ALDATUA

Hoz de Anero'n urte bete ta erdi bat bizi ondoren, eta ez atsekabetan, Aita nagusiak Gasteiz'erako agiria emon eustan. Atsegingarri jatan abi ederrari agur egiñik, beraz, neure txangorako orregosiak biribildu ta arako bidean jarri nintzan. Bein baiño sarrigo itandu dauste onakoetan: «Giltzape egon ondoren, zelan artzen ete zinduezan komentuetako prailleak?» Nire erantzuna, barriz, beti bat-bera: «Ondo!» Ez gero ondo bakarrik: andik urte bira ospatu zan nagusi batzarrean, nagusi aukeratu ebezan espetxean egondako batzuk. Au etzan apaizakin gertatu.

Gasteiz'en erreztasun geiago noban neure zaletasunai atek edegiteko. Au zan nire zeregiña: eleizan autortu (jentetza aundia zan garai atan gure eleizan aurtortzen zana), erriz-erri Kristoren berbea otsegin, etxean liturgi ta moral gaiak gertatu ta azaldu ta Garibai ikastetxean ango ikasle gazteai musikea ta abestiak erakutsi. Baiña nire zerbitzuak emen baiño Logroñon premiña geiago eukeela-ta, ara bialdu nindun Aita nagusiak, eta joan nintzan 1942'an, lotazillaren 8'an, Labraza'n Sortzez Garbiaren itzaldia ta autortzak ornidu ondoren,

Alkar-izketa egikeran au be galdetu dauste ez gitxitan. «Zelan sentitzen ziñan Errioxa aldean, etxean ala atzerrian lez? Au' tor dagidan egia: berezko danez, lenengotan gogor egin jatan Gasteiz iztea, atzerrira niñoialakoan. Baiña gero ez, sei urte egin nebazan bertan, Logroño'ko uri ez kaxkarrean, eta pozik bizi izan nintzan. Barria zan gure komentua, uriaren erdi-erdian eta lanik etzan falta, autortegian batez be.

Euskal lanerako, sei urte areitan ain zuzen, ez neban ez asitirik ez gogo aundirik izan. Gazte ta zarren artean, ainbat tokitara eldu bear... Euskal arazotik kanpo bizi nintzan, gura ezta be. Antxiña baten euskal lurra izandako inguru areitan ez nintzan txarto ikusia izan. Txeratsu artua baiño. Sarri joan oi nintzan bertatik euskerazko itzaldiak egitera, Bizkaira ta Lizarra aldera; ango Etxaberri'n egin nituan iñoiz euskerazko berbaldiak.

Ba neukazan an euskaltzaleak be; apaiz-ikastetxean bat, oso maitekorra, Biaroko olerkaria, Bargota'ko seme Zerio'tar Paustin, garai atan Seminarioan erakusle ziarduana. Adiskide miñak gintzazan, ni euskalduna nintzala jakin ebanetik; sarri eroan nindun bere errira garizumaz eta ango jaietan predikari. Euskal liburu asko eukazan eta gogoko jakon orrei buruz nigaz itz-egitea. Olerkari gozoa zan eta geroago eder jatan aren irudikizunak «Oleriti»-n ateratzea. Ezagunak nitun beste euskaldun batzuk be, baiña auxe niretzat aipagarriena, Ebro bazter aretan.

Gogora daidan au be, idazteari dagokiona da-ta. Leza ta Peñazerroa tartean, Toloño mendi-katearen asieran, bada San Leon esaten dautsoen arkaitz-mukur bat; au baiño beeratxoago, ego aldetik, txalet bat eukan Lekeitio'ko Jose Maria Adan de Yartzaren alargunak. Bein Ebro ondoko bere jauregian bizi zala, bere lobearen seme gazteak antxe mendi-maldan etxetxo bat jasoteko eskatu eutsolako, mutikoaren eskaria bete bearrekoa zala iruditurik, txalet polit bat eregi eban andik joian bide azpian. Jentetza itzala batzen zan bertan, sendikoak jakiña. Eta urte bitan, Gasteiztik lenen eta Logroñotik gero, ni eroan nindun mezea emon eta arima gauzetan lagungarri, an egozan bitarterako, 1942 ta 1943 udazkenetan. Ioki eder-ederra benetan! Donostian agertzen dan «La Obra Maxima»-n datoz nik andik bialdutako lan batzuk,

Logroñon itzez eta lumaz egin nebanetik lan geiena erderaz izan zan. Orduko oitura zanez, ango Parroki artean «Eleiz-Orrri» bat ateraten zan, eta neure pentzura *egoan* Karmengo Parrokiko orria idatzi ta aurrera eroatea; *gure* komentu ondoan eukan idazmakiña dendatxo bat Juli Parkorbo'k, gero karmeldar moja izan zanak, eta nik itxitako liburu batzuk irakurri ta ikusiz, bein esan eustan, Aita Juan Bizente ta bertan «La Obra Maxima» (1918) sortu ebanak ainbat idazlan bikain eukazala «El Monte Carmelo» aldizkarian emonak, eta berak egingo leukela bilduma jakingarri bat areik guztiakaz. Atsegin jatan aren asmoa eta baietz erantzun neutsan. Irureun bat folioko lana egin eustan. Nik liburu balio-tsu bat osotu nairik, itzaurre luze samarraz aberastu neban irar-kolara bialtzeko asmoz. Baimena bear zan orretarako; Aita nagu-siaren eskuetan jarri neban, eta onek eritxi-emoillearen mende. Iru illabete ondoren, ezetza etorri jatan.

Donosti'tik alan be eske neukazan, Aita Bernardino'k batez be, berriztar mixiolari ospetsuaren zerbait bear zala iñostan jardun eta jardun. Eta niretzat beti be eskaria agindu zorrotz dalata, liburuxka txikiago bat antolatzeko asmoz, lanean asi nintzan. Orren frutua dozu «Sed de almas», Aita Juan Bixente'ren idatzie-tatik ateratako pentsamentu bilduma, Donostia'n, Escelicer'en irarkolan, 1950'an egindako argitalpena. 100 orrialde ditu.

Aita Doroteo karmeldarra, langillea zan oso, 1946'an, Eibar'en aurkitzen zala, «El Mensajero del Escapulario del Carmen» erri aldizkaria sortu eban, erderaz bakarrik lenengo ta gero euskeraz ta erderaz. Niri laguntza eskatu eustan. Eta an datoz nire idazlanak, 26'garren zenbakitik aurrera, *Fr. Simon Stock* izen-ordez erderazkoak, eta neurez euskerazkoak. «Filosofia del Escapulario» zan nire lanen titulo orokorra.

12. EREMURA BARRIRO

Noizka gogoko aldaketak. Ni neu ia beti komentu baten bizi izan nazanagaitik. 1948'ko apirillaren 17'an Gasteiz'en ospatu zan karmeldar probintziko batzar nagusiak Hoz de Anero'ko, au da, Eremuko nagusi izentatu ninduen. Eta urte ortako maiatzetik

ona ni Rigada'n iru urtetan. Leen be, dakizuenez, egona naz barkategi ikusgarri onetan. Bizimodu latza, baiña atsegiña.

Zortzi-amar bakarti giñan arima bizitzan osorik murgilduak. Bazter ixilla oz da txarra bakotxak bere kautan daroan ereduari egin-bidea edegi al izateko; barru daroagun Jainkoareko ar-emon etenbageak. ezek baiño egokitasun ohea damosku ortarako. Onurakor da, izan, ar-emon laztantsu ori; gizonak bear dau noiztik-noizera barne bizitzari oragitea, bako ta zorionean jokatzeko bearezko dau-ta. Logroño'ko gizarte ta parroki-okinotik ara alde aundia benotan, arimarako alan be guztiz egokia.

Eta barne-bizitzak dakar idaz-gosea: ixil-tokian batua enparauai be emon eta iragarri gurea. Gizarteak ba ditu bere gozotasun beroziak; geiago baiña bakartadoak, Munduko gizasemo aundiak toki bakarra maito, idazloak, olerkariak, santuak. Ederto

Santa Teresak: «Arimeak oz dau egorik boar Jainkoa aurkitzeko, bakartadean jarri ta bere barruan daukan arrotz onagaz, apal eta ustetsu Ari bogira egon baiño; Ari itz-egin, Ari eskatu, bokar daukazan naigabe ta lorrak Ari adierazo...» (Onbidea, 28, 2).

Otoitza ta lana eremutarren egitekoa. Ortarako ezean, astiarte gitxi. Nagusiak ba ditu beste koska batzuk bo bakartadoan. Esan oi da, ta nik egitzat daukat, eremuan txerrenak geiago ta indartsuago zirikatzen dauala. So Kristo bera! Eta frailleak buru danagana jo oi dabe olako estu ta larri-aldietan. Eta ez dautzue izten zeure gogoko lanik astitsu egiten. Niretzat, nagusi izan nazanetan, auxe izan da neko-lorrik biziena: txepelkeri askok lanerako daukazun aukera bikaiña ostu ta alperrik galdu eragiten dautzue.

Au ta guzti nik neurera joten. Iru urte areitan, apurka apurka, bertako edestia burutu neban, bertako araudi apartekoa latinetik erderatu, leendik esku artean nenkarren «Eguneroko Mezea» itzultzea bultzatu... Eremuan ez da itzik egiten, jai aundietan ora amabostetik bein izan ezik; amabosteango mintzatze orren aurretik, ostera, aurretik gaia berezita, ordu beteko alkar izketa euki oi da. Guk eguraldi ona zanean, landan, ango basarte atsegi garri baten egiten genduan alkar izketa guri ta samur ori. Urte bian ia Gurutzeko Juan deunaren «Ckítico Espiritual» izan zan gaitzat aukeratu genduna. Interesgarriak ziran gure barriketak.

Orduantxe egin nebazan nik karmeldar Ordena barriztatzaille oni buruzko lan batzuk; orrein artean bat «Cantico» au euskeraz jarten. Gaztelu'k aterako «Musika Ixilla» (1963) liburuan dator, «Barne Kanta» izenez, 203 orrialdean. Baita aurrerago, 145'gn. orrialdean, «Gurutzeko joan Deuna bere idatzietan» lan luzea be. An idatzi nebana diñot nik orain be: «Joan Gurutzekoa, eredu jator dogu barne-bizitzarako, txit garrantzitsu nai andik nai emendik, edozein ertzez begiratuta».

Poesi-leiaketara aurkeztu oi nintzan. Biztuaz joian oster a bc euskaltzaletasun.i. ain lur-jorik ikusten zan euskal izkuntzaz errukiturik. 1950'rantz Donostia'ko «EducaciOn v Descanso»-k olerki-sariketa antolatu eban, eta olerki sarituak izan ziran: Salbatore Mitxelena'ren «Nere Izarrari», Juan Mari Lekuona'ren «Izaki Abestia» ta nik Rigada'tik bialdutako «Nere Zoriala». Garai atan erderaz eta euskeraz etorren «Egan»-ek bere 4'garren zenbakian argitaratu zituan, esanez: «Ona emen iru olerki, «EducaciCin p Descanso» deritzan batzordeak bere aizkenengo konkurtsoan sarituak dira. Benetan olerki bikañak».

Lengoari jarraiki, Aita Doroteo'ri bailtzen neutsazan, aldi an batez, euskerazko ta erderazko lanak bere «Mensaiero»-rako. Hoz'ko eremu ixil aretan ba ez nintzan egon ederra xurgatu barik. Ori be bai egin neban, baiña saiets itxi barik, orrez gaiñerako beste xede batzuk.

Ainbeste lan dituzu Donostia'ko «La Obra Wxin-ia»-n, nik toki eder aren istoria dala-ta bialduak.

13. EZIN ETSIZ

Ez da eroan-errez izaten zapalketak berekin dakarren ondorena. Badau eroapenik euskaldunak, baina bere gauzarik ederrenak ondatzen ikusteak naigabe ikaragarria emoten eutsan. Eta etxeakoak, zigorpe itogarrian ixillik egon bear ba-eben be, atzerrietara aizatuak izan ziran jatorrak euskal lanari ekin eutsoen al girioan. Laster sortu ebezan, or-emen, aldizkariak: Paris'en «Euzko-Deya» ta «Anayak»; Angelet'en «Eusko-Enda», Mexi-

ko'n «Euzko-Deya», Txile'n «Matasuna» ta «Gaztediaron Bole-
tina», Karakas'en «Aintzina», «Alkartu» ta «Euzkadi», Doniba-
ne-Lohitzet.m'en «Gernika», ta gaiñerakoak.

Sagu bildurti lez, or datoz liburu batzuk be. T. Etxepare'ren
«Buruchkak», P. Lafitto'ren «Kantuz» eta «Eskualdunak»-en or-
dez atera eban «Herria», gaur be bizi-b'zi dabillena; «Oxobi'k
«Haur elhe haurrentzat», Iratzeder'ek bere «jakes» poema; Az-
kue'k «Euskalerriaren Yakintza» lau aletan, gerra ondoko amarkun
barruan.

Urrengo bost urteetako zitun be ez da arbuigarria. 1946-
1951 bitartekoa batoz be. Ikusi Irazusta'ren «joañixio» (1946),
Elizanburu'ren «Piarrez Adema», barrero argitaratua; «Le poe-
te Pierre Topet dit Etchahun», Monzon'en «Urrundik» (1946)
eta «Gudarien Egiñak» (1947), J. Zaitegi'ren Antzerkiak, lau
ale (1946) ta «Goldaketan», Baltzola'ren «Argi Donea», barrero
argitara emona; Lontzi Abaren «Ipuintxoak» (1947), eta besteak.

Urte orretan bertan emoten ditu Aita Manzisidor jesuitak be-
re «Santuen Bizitzak» eta «Otoitz-bidea» (1948); G. Lertxundi'k
«Kantikak», eta Ibarret'ek bere «Koplak» Baiona'an; J. Eizagi-
rre'k «Ekaitzpean» (1948); P. Lafitte'k aintzin-solasturiko «Kan-
tikak», 629 orrialdekoa; Orixe'k «Urte guziko Meza-bezperak».
(Tours, 1949); J. A. Irazusta'k «Bizia garratza...» S. Mitxele-
na'k «Arantzazu euskal poema» (1948) ta «Ama-semeak Aran-
tazuko kondairan» (1948); J. Etxaide': «Alos-torrea» (1950);
Leon Leon apaizak «Jesu-Kristo Gure Jaunaren Ebanjelio Sain-
dia» (Ustaritz, 1947), A. Riezu'k «Flor de Canciones Populares
Vascas» (Buenos Aires, 1948); Aita Pasiotarren «Gurutzearen
Ofietan» (Bilbao); J. Zaitegi'ren «Euzko-Gogo» (Guatemala,
1949); Aita Karmeldarren «Karmen'go Amaren Egutegia» (Bil-
bao, 1951); J. M. Leizaola'k «Estudios sobre la Poesia vasca»
(Buenos Aires, 1951), sei ale, aldiz-urren antolatua.

Ez, euskeraganako kezka eta ardurak jota, ezin zan euskal-
duna ixillik egon; zigorra lepo-gaiñ izanik be, ezin bere izkun-
tzari iñundik iñora itzaltzen itxi. Ezin etsi ari ekin bagarik. Ez-
kutuka, beraz, edo-ta agirian, eusko-m'ntzaira lanean murgilduta
dakusgu euskaldun seme andana jatorra: euskal lanak osotu, eus-

kal liburuak biribildu ta argitara emon. Olerkariak, euren alde-tik, ez dagoz lo, «Euzko-Gogoa»-n eta «Karmen'go Amaren Egu'tegia»-n poesi mordoskak datorkiguz.

Euskera aldeko lan b kaiña dagie aldizkariak, Arnerika'n as-zan J. Zaitegi aberri izkuntzari buruzko lanean. «Euzko-Gogoa» sortu ta aurrera eroanik, Guatemala'n jαιο ta Miarritz-tik be ain' bat ale eder bialduko aldizkingi jakintsua. Orduko idazlerik one-nak, Orixe, Andirna, S. Mitxelena, Mirande, Ibalan, Aurraitz, Onaindia, Etxaniz, Leizaola, Iratzeder, Oiartzabal, L. Mendizabal, Pellen, Kruwig, Ibar, Kerexeta ta abar bere lankide egiñak.

Taldekoen lanak frutuak ekarten. 1945'ko apirillaren 26'an euskaldun jakintsu talde bat —I. Fagoaga, J. Thalamas Labandi-bar eta abar— alkartu ziran Donibane-Lohitzun'en eta billera or-tatik erne jakun bederatzu urtetan —1945-1953— lan ederra ma-mindu eban «Gernika» aldizkaria. Lenengo urteetan Donibane'n agertu zan, eta gero, 16'garren zenbakia, 1951'garren urtean Bue-nos Aires'tik etorren. Elebitsua, idazle on asko, erderaz ta eus-traz, bereganatu zituna.

«Egan» aldizkaria Donosti'n BAP'en kimu lez sortua, 1949'an. A. Arrua, A. Irigarai ta L. Mitxelena izan ziran lenengo zuzenda-riak, irurak batera. Erderaz ta euskeraz lenengotan, gero euskera utsean. Urtean sei ale mardul. Naiz-ta arnas-estuka iñoiz ibilli, gaur be mardul datorkiguna dozu. Idazle asko ta onak ditu asiera-asieratik.

Lan aundia burutu dau «Egan»-ek euskal soloan, ipuin, alegi, poema, irakurgai bipil, izkirimiri ta milla gai interesgarri tarteko.

14. ATXURRAZ LANARI

Euskalerriko abade ta prailleak kokatua dabe euren lan-sailla. Geienik beintzat euskeraz ari diran jente artekoa da euren fede-ta arima arazoa, Euskaldun erriari ba euskeraz erakutsi bear. Nor-bere izkuntza oso barru daroagu, amaren ugatza lez artuta; arrotz-izkeraz emondako janariak, sustraira jo ezkeru, kalte egingo. Ezin

bestean edo, beraz, iñoren izkuntzan. Guk, ez izan zalantzarik, euskeraz eskolatu bear dogu Euskalerrria, aizea astintzen jardun nai ezik.

Karmelsarrok ba'genkian au, eta Euskalerrrikuok, gerra aurretik be, ingurua r;izkar girotu zanean, goure aldizkaria kaleratu gendun: «Karmengo Argia», erriak maitekor eskuratu ta leiaz irakurri oi ebana. Txibitotsa zabaltzean, baiña, ixil-zokora jo bear, euskal adizkari enparauak lez. Bost urte ta erditan lanean ekin ondoren, 1931'ko urtarrillaren lenengotik 1936'ko dagonillaren azkenerarte lan egnida nunbait. II onetan ixildu zan inguruko mendi ta troketan kainoen eta suizkilluen otsa eten barik entzuten zala, 68 zenbaki argitara emonda gero.

Eta gerra ostean, zer? Euzkadi ta euskera maite ditunak ezingo dau, naiz-ta ekaitz gordiña gaiñ jausi, luzaroan ixillik iraun. Astindu egiten da gaiñean dan zartailluak jasotako zaldar-aunditua, ra aurrera! , lanera barriro be! Koldarra egi-egiaz au egiteko gauza ez dana. Niri iru pekatu bizkarreratu eustiezan Dueso'ko epaian. a) Zein zan neure aberria; b) Zergaitik ez nintzan espaiñar taldera joan, eta z) «Karmengo Argia»-n idazten nebala. Oker itzala, beraz, gure aldizkarian euskal lanak agertzea. Geroztik be, urteetan, txarto ikusia izan zan «Karmel».

Gaiñerakoen niri, Karmen'go Amak bere KUTUNA Simon Stock deunari emon eutsonetik zazpireungarren urtea beteten zala-ta, jazokun aintzagarri ori bear lez ospatzeko, zerbait egin gurarik, «Karmen'go Amaren Egutegia» argitaratzea buruak emon eustan, eta 1950'gneko azkenerantza gertakuntzak egiten asi nintzan. Urrengo urtean (1951) atera zan 132 orrialdeko liburuxka mardula. Irakurleari zuzenduz eta Karmen'go Ama goratuz, idatzi neban: «Ama samur au, izan be, eguzkiak aizea bai-zen bearrezko dozu bizitz-bidean. Arerio zakarra] ziri eraginda bizi zara. Baiña ama lagun izan ezkeru, zeren bildur? Berak berotu oi dautzu biotza, eguzkiak lora-barrena baiño askoz biguna'go. Bera da zutzat guztia: maitasun kabi, poztasun-iturri, samin-eztigarri».

Prosaz ta bertsoz, musikaz ta abarrez aberats, gertatu ta argitara emon neban. Asteko bertone dator, euskeraz dana, Si-

mon Stok deunak karmeldar guztiai egindako eskutitza, Cambridge'n, 1251'ko ganllaren 16,an egiña; bertan dator XII Pio Aita Santuaren idazkia, Karmen'go ,Eskapularioaren VII, garren eunurte burua dala-ta; bertan 1951'garren urteko eleiz-gauzarik gogora bearrenak, jai aldakorrak, parkapenak (edo-zeñek, kutuna daroenak, bazkideak, irugarren maillakoak irabazi leikezanak) eta Karmen'gw Jubileua. Eta gero illez ille, egunak eta asteak santutegi osoaz. Eta ille baktotxean ainbat ipuin, irakurgai, baserri-gaiak, egi biribillak, eta abar. Musika saillean Azkue, Aita Donosti, E. Torres, G. Arabaolaza, Luis Aranburu, Aita Jose Domingo Ugartetxea agertzen dira leenengo zenbakian. Irudi asko ta ederrez jori.

Orrelaxe sei urtez zintzo-zintzo, neuk lenengo urtean, Txanton Goiria'k bigarreanean, eta gero Aita Libino Dañobeitia'k (Amezti'k) zuzenduta. Aita Libino'k 1957'an bi-illerokoa egin eban, eta urte ortatik aurrera, A. Libino Erroma'ra deitua izan zalako, neuk zuzendu neban. «Gure Egutogi eder **iñoan** A. Libino" k— urterik urte, obeto doiala esan bear. Augaitik, pozarron, oindiño indar geiago emon naiez aurkitzen gara. Or, ba, datorren urtetik, au da, 1957'tik aurrera, urtean bein barik, urtean lau (sei izan ziran) bider argitaratuko dogu; zenbaki baktotzak -16 orrialde eukiko ditu».

Orrola egin genduan bost-sei urtetan,

15. LARREA'N LANARI LOTUA

Gure legeak iru urtetik iru urtwra eskatzen dabe nagusi-aldatzea. Nik be bete nituan Rigada'n neure iru urteak eta aldaketa etorkidan Ain maite izan neban eremuko bizirnodeari agur esan bear, baita leku zoragarri ari eta an inguruko jenteari be: igarri ta burutan artu barik, lokarriz bait gaitu estutzen, eta os-rerarako norbere jantzi, liburu ta olakoz lotura ta pardelen bat egiterakoan, errez jarri oi jakuz biotza dardaraz eta begiak mal-ko-jario.

1951'ko apirilaren 14'an Begoña'n ospatu zan karmeldar Bartzar nagusian Larrea'ko komentuko buru aukeratu ninduen. Eta

ona ni oster a be, 1-4 urte erbestetar lez eginda, neure leengo txoko ta abi maitagarrian. Emen gazte ta urtetsu, eremuan baiño menpeko geiago ditut, une batzuetan 62'raiño eldurik; emen, beraz, nire iru urteko eginkizuna, 1951'ko maiatzaren batetik 195-(ko apirillaren azkeneraiño)koa.

Komentu ontan bada lanik gogo a dauanarentzat. Beti ibilli naz ni dagokidazan eginberrak tajuz ta zuzenean bete eziñik. Komentuan ainbat lekaidek lana dakar; errietan, orduan alan be, apaizak eta eleiztarrak laguntza eskatzen.

Idazteko, ba, egoki-une murriz. Arrese-Beitia'k burdin-ots artean ainbat kopl a bikain idatzi euskuzan. Zergaitik ez nik be komentuko lan artean euskal zerik ez burutu? Ondorioz, 1952'an, «Karmengo Amaren Egutegia» gertatzen ebillen Aita Goiria'ri ipuin eta izkirimiri pilloa, barriak eta leendik kartzelan osotuta neukazanak eskuratu neutsozan. Ona batzuk; «Ule leitu a», eta «Lengo ezkontzak», sarreran, *Urtarrillean*: «Asetu eziña», «Euri! Ipar! Edur!» (olerkia), *Otsaillean*: «Senar-ernazteak auzitegian», «Osasuna izateko». *Jorrailla*: «Ikasle azkarra», «Sapaburuak», *Orrilla*: «Igal i osasunkorrak», «Zurtasun-agaka», «Bizitzako goiza» (olerkia), «Jaungoikoaren arrabita», *Bagilla*: «Pospoliña ta olo-buru a», «Peru mozko» . *Garilla*: «Diru-zalea», «Bide-laguna». *Irailla*: «Pilsuski ta Sinisbakoa», «Ikasi ta ez aitzu», «Gizonaren askatasuna», «Perra galdua», «Ene etxea» (olerkia). Azdia: «Areitza». *Lotazilla*: «Argi-ontzi biak», «Otso urdiña».

1953'an Aita Libino'ri bialdu ta Egutegian emonak: «Arratseskaria» (olerkia), «Bizkor eta Erbia», «Edesti xamurra» (olerkia), «Zoriona», «Adiskide txikiak», «Txantxangorria». 1954: «Eba eta Maria» (52 orr.), 1955: «Lartxo» (30), «Biderik laburrena» (45), «Esku zabal a» (46), «Maite sugar bizia» (52), «Gure bost zentzunak» (55), «Lotsia» (56), «Zu bakarrik maite», olerkia (105), «Zazpi lotiak» (109), 1956'an: «Eguna ba-bator», (37), «Eskuak uts», olerkia (47), «Andra Maria» (161).

Urte onietan, au da, 1952'an jazokun gogoangarri bat gertatu zan niratztat: Barzelona'ko Eukaristi-Batzar orokorra. Aita Amalio (Julian Etxebarria Barrena) Arlegi'ko semea zan orduan Probintziko nagusi burua, eta komentuetako nagusi guztioi emon

euskun baimena Batzar aretan esku artzeko. Orrelaxe egin nik Zornotza'ko andra-gizon taldetxo bategaz ara joanik. Zoragarri izan zan arako Batzarra. Ango eleizkizunetan arturiko biozkada ta zirrara gozoz nik idatzi neban zerbait.

«Karmen'go Amaren Egutegia»-n, adibidez: «Aldarako *Jesus'ek* mundu guztia estaldu bearra dago» iñoan emakume gazte batek, Emilia Tamicier dogu neska au, Prantzia'ko uri Tours'en 1834'an jaioa ta 11910'an il zana. Aldarako Jesus'enganako maitasuna sutu ta gartuteko Eukaristi batzar orokorrak eratuta ospatutea bidezko ta bear-bearrezkoa zala **Eta Jaungoikoaren** egite arrigarriak, bein eta sarritan oi dan lez, gauz-ebakaz asi ta gero aundikiro ta ospetsu agertu izan dira. Emakume au lagun lez artu eban Jaungoikoak bere Eleizeari Eukaristi Batzar Orokorrek eratu ta ospatuteko.

1952'an Barzelona'n ospatu zana 55 izan dira guztiz Batzar oncik. Lenengoa Lille'n 1881'an Tamicier ber-bera bizi zala. Prantzia'n 11 ospatu dira; 5 Belgika'n; España'n 2; enpauak Europa'ko beste urtetan, baita Ameriketa, Asia, Aprika ta Ozeania'n bo.

Barzelonakoa izan dogu aundikiroen ospatu dana. «Eukaristia ta Bakea» izan dira izlarien azalgai, errezuen eskabidea ta Aita Santuaren gurarri bizia. Orrillaren 27'an asi ta bagillaren l'an amaitu zan. Jaunartzeak ugari izan ziran, umetxoenak eta langilleenak batez be. Orrillaren 31'an 820 mezadun barri egin ebezan 21 obispok Montjuit landan. Laterri guztietatik jentetza aundia eldu zan, geienak bertakoak zirala; 11 kardenak, eta 235 obispo ta artzobispo arteko».

Pozez gaiñezka etxeratu giñan Eukaristi Batzarra amaituz be, katalanen uri eder a ta inguruetako edertasunak astiro ikuskatu ondoren.

16. OLERKI-BILLAKETA

Nundik nora zan jakin ez arren, gatzetxotik nekarren nik poesin mutiko nintzala Lekeitio'n bertsolariari entzunagaitik, ez

ete? Leitekena da. Zek gertazen ete lurra zuza guriak sor daitez-
zan? Giza-biotza be, era berean, ezkutu aundiz betea. Eder jaku,
bestalde, sortzetik barne daroaguzan nai, kezka ta griñai —zin-
tzoak izan oi dira maiz— beroaren beroa erakutsi ta eskintzen.

Dana dalarik ni ikasle nintzala be, poesi-garrak joa nenbillen.
Larra'ko laugarren ikasurtean zala iruditzen jat, arratsalde baten
klase aurretik, ni geure liburutegi txikian Gabriel v Galan'en
olerki ots-aundiko bat aldarrikatzen nenbillela, an ondotik igaro
zan Aita Plazido (Zabala Uriarte) Dima'ko seme gure irakasleak
esan eustan: «Bada or koplari-zura». Beste bein be, orobat. Bai-
ña au eratsiz: «Oba euskeraz! » Bertatik neban erabagi: «Eus-
kaldunak euskeraz! »

Ostera be Larra'n aurkitzean, aizearen ziztu gozo lez soma-
tzen neban neuragan olerki-miña, euskal olerkiaren zaletasun
barnekoia. Eta asti-uncetan zerbait egitera joteko asmoak goritu
nindun, poesi bilduma zabal bat osotzen asirik. Aurrenik emen
neukazanak pillotu ta idatzi nebazan, eta egunetik egunera ume-
txoak jostaillu ta bitxiakaz sentidu daroan poza ta lillura oartzu
niñoian.

Gero, oni ta ari itandu ta onen eta aren onua artuz, Donos-
tia'ra jo neban, Aldundiko artxibora. Emen Fausto Arozena'k
lenengo ta jose Artetxe'k gero, besoak zabal-zabal artu ninduen,
nik nerabillen elburu txalogarria onartuz. Emen, egun mordoan,
ainbat liburu ta aldizkari arakatu nitun, «Euskal-Erria» batez be:
arrobi bikain jatan au neukan asmoari betetasuna emon nengion.
Liburu ta olerkien zerrenda luzea orduan egiñaz, andik illabe-
tera Agedita Ormaetxea bialdu neban zerrenda orretan etozan
poesiak kopiatzera. Bego emen neskatilla onen gomuta eztia, zo-
rra ordaindu bearra da-ta. Durango'ko alaba berau, gaur be emen-
txe bizi dena. 1942'an, ni Gasteiz'en nengoala, ama odol-jarioz
eukolako, autorle euskaldun baten billa jo eban komentura; or-
dutik gure ezaupidea.

Beste bein, Iruña'rako kotxea arturik ara joan-etorria egin ne-
ban. Principe de Viana-n eta Nafarroa'ko Aldundian egon nin-
tzan; azkenengo erakunde onetan erreztasun osoa eskini eustien
ango liburutegian nik nai neban «Revista Euskara» eroso-eroso

aztertu nengian. Zenbat-nai poesi-lan aurkitu nebazan bertone, Otxandio'ko seme arotz koplariarenak ez gitxi. Goiz eta arratsalde paper pilloa bete neban eskuzko kopiaz. Eta billatzeak dakarren poza txastatuz, Larra'rantza barrero. Nire ikuspegi ta ozer-tza gero ta biribillago egiñaz neukan.

Bilbo'ra joan-etorria, Aldundira ta El Sitio'ra, eta Begoña'ra, gure liburutegira; eta Arantzazu'ra, Markiña'ra gure komentura ta Munibe'ra. Zarautz'era frantsizkotar idaztitegi zarrera, eta Angeru Irigarai'rena aztertzen. Gazteiz'ko Seminariokoa be arakatu neban. Batu ta idatzi nire olerki pilloa meta ikusgarria egiñik joian.

Mugaz andik be olerkari bikaiñik izan zan; areik ikusi bear nebazan. Zornotza'tik Donosti'ra trenez; emenlik Baiona'ra autobusez eta Uztaritze'ra bultziz. Txeratsu ta maitekor artu nindun P. Lafitte'k, eta bertone geratu nintzan lau egunez. Amaika bertone mordo eder ekarri eustan, nik aukeratu nengizan. Berak, egia esateko, asko be asko legundu eustan orretan. «Au ona duzu», «beste au obea» esaten eustan, eukera egin ondoren. Ez da geiegikeria, mugaz andiko bertsolari, poeta, idazle ta gaiñerakoen koplak, geiengeienak, gizaseme on eta jakintsuak egindako aukera pillokoak dira.

Ogetik jagi, meza emon eta goxaldu ondoren, bere klasea egiñik, an neukan prest niri laguntzeko. Billaketa tartean amaika izkirimiri, jazokun eder, gerra aurreko ta gerra ondoko, erabilli genduan: guztiz umore onekoa zan Lafitte jauna. Emendik ara, gerra ostean, joan ziran guztien bizitz-zeatasunak bururen buru ekizan eta atsegin jakon eurak gogoratuz barre pizkat egitea. Orixe, Aitzol, Montzon, Manu Sota egunero astintzen genduzan.

Arratsalde baten Jatsu'n bizi zan Otxandiano jauna, emaztea Zornotzarra eukana, etorri jatan ikusten; Baiona'ra eroan nindun leenengo uria ta bere lantegia (agin-ataratzaillea bera) erakustera eta andk Beloke'ra, Iratzeder'ekin alkar izketa egin nai nebala-ta. Muinoñ gaiñ atsegiña Beloke. Or gu aurrezurre, Iratzeder, Otxandiano ta ni. Ordu ta erdi lez autu samurrean jardun arren, ez genduan aitatu olerki-gairik: Santa Teresa ta Juan Gurutzekoa ez gendun beste ezertaz itzik egin. Illundu orduko, Hazparne'n

zear, Ustaritz'en gengan, nik barrua biotz zauskada ta zarrazta biziz ondo zamatua nenkarrela.

An inguruan, ni ixil samal ibilli nintzala be, zer-edo-zeren zurrumurrua erein zan, eta urrengo arratsalde bisita atsegiña izan neban: Telefono Montzon eta Manu Sota etorri jatazan ikusten. Atertu eziñik ainbat itaun garrantzitsu egin eustezan itz-aspertu bete-bete. Etixerunzkoan euren liburutegiak ikusi barik ez joan nendilla esanik alde egin eben. Ni gaberako, ango lana amaitutzat emonaz, Lafitte'jaunari agur gozoa esanik, Baiona'ko karmeldar mojetara baztertu nintzan, neure olerki-zakutoa besape nebararik.

Gero, etxera bidean, Manu Sotal: egin eustan eskabidea be-
ez, Miarritz'eko PLford-echeperdean aren liburutegi ondo or-
nidua arakutzen. Bazkal-ostean autobusez Donibane-Lohitzune'ra
Moutzon'ena arakutzen; ez neban etxean aurkitu. Urrango auto-
busa artu ta beingoan Donosti'ra, ta emendik Larra'ra. Frutu uga-
rikoa izan zan lau eguneko nire osterea. Ustaritze'n batu nebana-
gaz naiko aberats gelditzen zan nire bilduma. Olantxe, ustebagarik,
or osoturik poesi liburu bikaiña.

Olerkiak batzen ez eustan, egia esateko, iñok lagundu. Kopia-
ateratzen bai. Orduan lan barik egoan aituriko Agecia'k, gaur
ezkonduta bere senarragaz eta lau seme-alabagaz b'izi danak,
lan baliotsua egin eustan, Donostia'ko artxibuan batez be: Lasa
ostatuan jan eta lo, iru eguneko zerbitzua izan eban Diputaziñoko
artxibu-aretoan nik an aukeraturiko olerkiak idazten, Aingeri Iri-
garai be ez eban laguntzaille exkasa izan,

Komentu ontan neugaz bizi zan Aita Lon Arteaga be aitatu
geinke, kopiatzean gaberdi-truk lan dezentea burutu ebalako. Or
esan zanez, oraitiño, olerki billaketan ez eustan eskurik emon.
Neurea izan zan oso-osorik.

Poesi-kopuru bikain-bikaiña ta neure aitak itxitako diru (82.000
pezeta kosta jatan argitalpena) pizkat esku artean, geiago barik
liburua irarkolara eroatea otu jatan. Eta 1954'ko maiatzaren 8'an
karmeldar Batzar Nagusia Begoñan ospatzen zan egunetan, nik
neure liburu mardularen irar-utsak arteztuten asti-uneak erre ne-
roiazan, gero Eibar'en jarraituz, Batzar orrek ango nagusi buru-
orcieko izendatu bait nindun,

17. KOMENTU APAINKETAZ GAIÑERA

Aita Rafael, Markina'ko semo ta egiteko gauzetan oso zuurra zanak, berari laguntzeko ta bere ordezkotzat eroan nindun Eibar'ora. Komentu barria azur-uts zan **eta artaz arduratu** nendilla gogo eban. Eta ikusi ni olerki artean buru-belarri sartua, komentu barri batek, jaso ta apaintzerakoan, eskatzen ditun arazo ta buruko-min nai gabetsuetan lanpetua.

Aurrera atera bear zan liburua, eta irar-utsak aztertuton jarraitu neban; lan biak ziran niretzat gora aundikoak, amaitzeko leporatu eusten iraike aundiaren —lekaidetxe, eleiza, gela, jantoki, idaztitegi, dotriña areto, iztoki ta abar— ardura nekeza, iru urtetan eroan bear izan nebana, eta aspaldiitik gogotan eta esku artean nekarren «Milla Euskal Olerki Eder» liburuaren argitalpena.

Komentu ta eleiza barriak ba-joiazan aurrera. Liburua be mardulduz. Irarkolako utsak zuzendukeran beste zor bat, beste osoketa bati oratu bear izan noutson. Ots: poesiak batzean, olerkarien bizi-zeartasunak be artzen nebazan, baiña azkenerako itxita neukan, bakotxari berari egokiona jartea. Baiña au be, naiz-ta oz izerdi bage, osotu neban. Eta J. Zaitegi'k, Guatemala'tik, benebenetan txalotu eustan zeartasun-lan au, euskal literaturarako guztiz intoresantea zala-ta. Or dozuz, irakurle, ouskal idazle askoren lenen-lciiengo bizitz-gorabera ta zeartasunak.

Azken batean udagoiena baiño leen, Zarautz'tik dei urrutizkiñez: «Amaitu degu liburua». Nire poza! Baiña bertatik Itxaropena'k: «Kontuz, Aita Onaindia! polizia ibilli da galdezka; guro liburuaz galdezka, bai!». Eta nik, gain etorren euri-erasoz oarturik, buru-muiñean zer asko irauliz, urrongo egunean Patxi Untzurrunzaga'ri: «Egin, mesedez, onela liburuaren banaketa: batzuk Bilbo-ra, beste batzuk Donosti'ra, ona ta Markiña'ra besteak». Patxi'k, guztiz esaneko, orrela egin eban, eta bizkor egin be. Izterbegiak, beraz, etziran errez egingo liburuen jabe. Erdiak ale batean eta besteak bitan atera nitun; erdiak azal gogor dotorez eta beste erdiak dotore baiña azal zingillaz. Olan itzartuak gengoan irar-etxea ta ni.

Mairuak mugaz muga dabiltzanean zuur jokatu bearra dago-ta, nik neukazan emen banaka batzuk, eun bat, baiña beste guztiak,

bada-ezpadan be, bat-batera zabalduak izan ziran kutxa aundietan. Laster asi zan polizikoen lana, lenengo Zrautz'en eta gero emen. Eguerdi aurretxoan etorri jatazan polizi bi txispa ta guzti, liburu billa; neukazan olerki liburuak kuartelera eroateko agindua ekarren. Emen neukan nik pillo bat, ale bikoak geienak, lurrean zabal. Bazkaltzeko ordua gendula-ta, ezingo neutsen nik lagundu, arratsaldean lauretan etorri zeitezela eta bertatik atonduko neutsezala nai ebezan liburuak. Toan ziran, eta lauretan emen neukazan ostera be, Neuk pillotu nebazanetik larogetabost eroan eustiezan. Pozik joan ziran egindako uzta bikaiña zala-ta. Eurotatik, alan be, ogeitasei bat berriro eskuratu nebazan. Zelan? Polizikoen etxe-bazterrak garbitzen zituan emakumea nire ezaguna zan, eta onek goiz batean: «Zure liburuak an dagoz». Eta egunero bi bat ekarri oi eustazan bere ixil-zakutoan.

Andik illabetera edo, Donosti'tik deia. «InformaciOn v Turismo»-ko ordezkaria zan, Ugalde jauna. Adeitsu artu ninduan eta neuk bera, ainbat guzur alkarri sakaturik. «Etzaitut deitu liburua atera dezulako, baimen gabe salgei jarri duzulako baizik». Egia ote? «Zenbat ale atera dituzu?». Nik erantzun: «Berreun, euskal liburua oso gutxi saltzen baita». Egia ete? «Eta nun dituzu berreun oiek.». Nik ari: «Salgei ipini nitun liburutegietan». Ak niri: «Nun, mesedez». Nik ordezkariari: «Esango dizut, banaka batzuk Bizkaiko liburu-dendetan, beste batzuk Gipuzkoetakoetan». Ak azkenez: «Bilduko zenituzte, mesedez?». Nik seriotasun gurenez: «Bai, jauna, eskuratuko ditub», Eskuak estutuz bukatu gendun alkar-izketa. Ak ba-ekian ni guzurretan nenbillela, eta nik be bai a guzur-ontzi zana. Or amaitu zan liburuaren auzia.

Nire liburua, barru ta kanpo, baliotsua zan itxura zanez. Niri geroztik kasurik egin ez eusten arren, Espaiña'ko gobernuak berak, ederra zalako jakiña, munduko liburu erakusketa berezietara bialdu eban nire au be, Tokio'ra, Londres'cra eta gaiñerakoetara. Ni auzitan sartu nairik ibilli ziranak, ba, mesede baiño ez eusten egin. Zintzoari Jainkoak eskua luzatzen,

18. «MILLA EUSKAL OLERKI EDER»

Olerki bilduma onen zabalkunde esatekirik etzan egin: ez bait zan errazoizko apakiñez beteriko oxiañari eragite. Baiña liburu oso

bikaiña. Aldiz-urren aukeratuta datoz olerkariak. Mamiña iru sailletan damo liburuak.

Lenengo, erri olerkiak: 1) Gerta olerki zarrak; 2) Maite-leloak; 3) Irri ta negar; Ardo kantak; 5) jainkotiak; 6) Pastoralak.

Bigarren saillak: Lau gizaldi, 1) XVI: Beñat Etxepare...; 2) XVII: Etxeborri, Oihenart, Gazteluzar...; 3) XVII: Larregi, Meagher, Basterretxea...; 4) XIX: Mogel, Azkue, Arrese-Beitia, Iturriaga, Bilintx, Iparragirre, Otaegi, Otaño, Etxahun, Hiribarren, Otxalde, Dibarrart, Elizanburu, Zaldubi...

Irugarren saillak: Gure mendea: 1900-1954. *Bizkaitarrak:* Arana-Goiri, Etxeita, Maruri, Manterola, Urkiaga, Onaindia, Erkiaga, Lontzi Aba, Muniategi, Enbeita anaiak, Aurratiz... *Gipuzkoarrak:* E. Arrese, Sagartzazu, «Zubigar», Lekuona, «Lizardi», «Orixe», jauregi, «Loramenli», Zaitegi, Tapia-Perurena, Gaztelu, .Etxaniz, Mitxelena... *Bidaso'z andikoak:* Barbier, Oxobi, Erramuzpe, Etxamendi, Lafitte-Iturralde, Iratzeder, Salaberri, Mirande... Geigarri lez, *Bertsolariak:* Enbeitarrak, Uriarte, Xenpelar, Txirrita, Pello Mari, Zapirain Udarregi, Pello Errota, «Basarri», Etxahun, Bordel, Ligeix, Mattin, Larralde... 1.200 orrialdeko liburu astuna.

Eibar'ko seme argi trebe Paulino Larrañaga, alias «Ixinpar», «a»-k marrazki dotorez apaindu eustan azala: bertsolari bat mokor gain jarrita, eskuan makilla ta buruan txapela, eusko baserria daukola begi aurrean. Goian abar ezea ta gainetik liburuaren izena urrezko letraz jantzita. Apain be apain.

Ondo datorke emen nik olerki-bildumari jarri neutson eskeintza be: 1) Eusko gogoa, gizaldiak zear zaindu ta erri-olerki bikaiñez apaindu duten kobla-zale ta bertsolari izil guztiei; 2) Euskal bizitza gizonkiro abestu duzuten olorkari jantzi; 3) Lurpuska zoragarri onetan bizi zeraten euskaldunoi; baita, osto igarra ekaitz-egoz bezela, atzerri zear sakabanatuta zabilzaten maiteoi ere; An nai emen, odol-indar bardiñak bilduta, eusko gogoa betikoz il ez dedin, lan dagizutenoi, biotz-ikara samurrez.

Liburua kalera orduko, Guatemalaⁱn aurkitzen zan Orixe'ri bialdu neutson bildumaren aurkibide oso-osoa, itzaurre lez zerbait esateko eskatuaz. Luzetxio danarren, bego emen bialdu eustana ta liburuaren atarian datorrena.

«Aita Onaindia'k —diño— itz bi eskatu deustaz bere liburu «Milla Euskal Olerki» onen sarrerako. Milla euskal olerki? Ba ete da ainbesterik? Eta zelakoak ete dira? Nik uste baiño geiago ta obeak dira bilduma ontakoak. Liburu bera ez dot ikusi, baiña bai aurkibidea, eta ortatik emon negike nire eritxia.

«Aurretik esan, olango liburu bat bear-bearreko dogu, geurok zerbait ikasi dagigun, eta batez be, gure gaztediak.

«Ez neuke esango gure Bilbilitarragaz *sont mala, bai cent boza* eta *optima; mediocria* bere bai, baiña euren toki ba-dabe liburuan oneik be. Erdi-merdiko gure oneik baiño kaxkarragorik agiri da beste errietako lorategi edo anthologietan. Orreik be, euren mendeko barri emoten deuskue, ta ondo begira ezketiño, ba-dabe alderdiren bat polita. Gure olerkari gazteak ba-dabe nun ikasi. Kanta zarretan ba-dira bikaiñak eta tankera banakoak. Lau gizaldietako olerkiak aldizurrenka, eta guenz, gure mendea.

«Eritxiketan asi barik, itz bi esan bear dodaz, eta onetxek dira: egia, zentzuna. Olerkariak askotan burua larregi zorrozten dabe iñok esan ez dauana esateko. Ortatik datoz milla xorrozkeri edo xoxokeri, eta ez diranean, geldi Iotzen gara balio daben bururakizunak ete diran, ala buru-zorrozkeriak. Gure mendeko olerkarietan agiri dira, gitxi edo asko, atzerrira begira, erdera edo moda txar or-ren mendeko. Alan eta guzti be, ez gure inguruko erdal errietan beste.

«Beste arrixkua, biotzari yagokonez, guzur adia edo guzur-asperena, erderaz esan *el suspiro de falsete*. Ontatik ugari da gure inguruko erderetan, Buruaren egia edo egi-antza bear dogu lelen-go, ta urrena, biotzaren egia. Zulo bi orreitan jausi ez gadizan, gure bertsolariak ditugu eredu: Xenpelar, Otaño, Otxalde, Ibarrrarte... Gure egunotan saria lortu dauan Aita Mitxelena'k ortara joten dau, ta pozgarri yata.

«Beste doia zentzuna da. Elizako guraso batek *poietes* deritxo jaungoikoari, eta Dabid'ek dioskunez, *opera manuum eius veritas et inicitium*. Jaunak egiñik *poiesi* orreik egia ta zentzuna dira. Au da modarik ederrena, ta gure bertsolarien betiko moda. Bide barririk ez da, baizik bere bide berean dabillanak ba-dau-ala bere ibil tankera. Bidea bide bakotxa beti bera da.

«Itz bi baiño geiago dira, irakurle, eta parkatu».

19. ERITXIKETAN

a) Goralpenak

Gizartean danetik gara. Ba-ditugu goralpen-zale biziak; nik ezagutzen dodaz olakoak, eta eurak apaltasuna maite dabela diñoen arren, kedar-lurrun pizkat bota ezketiño, pozaren pozez arpegia be gorritu egiten jakenak. Beste batzuk apalago agertu oi dira, edo izatez olan diralako, edo-ta ekiñaren ekiñez birtute ori lortzera eldu diralako. Esanak esan, gizonari naiz emakumeari berez goralpena eder jako, lan eskerga bat burutu danean batez be.

Onan idatzi neban nik 1981'an, anai-arteke guda osteko liburu ta aldizkari batzuk gogoratuaz: «1954'an datorkigu euskal poesia-ri bultzadarik ikaragarriena emango zion olerki bilduma. Argia ezta lakaripean jarteko, ingurukoai argi egin dezan baizik. Nik ere ez tut nere lana zertan ezkutatu. «Egi utsa da Jainkoa —dio Santa Teresa'k—, eta apaltasuna egitan ibiltea», egiz jokatzea, beraz, ezta artobera usaia edaztea, gauza bakoitzari berea ematea baizik. «Milla Euskal-Olerki eder» nere semea da, ta guztiz kutuna izan ere. Izan nuen nekerik 1.200 orrialdeko bilduma ori osatzean. Aspaldi batetik asi ta egun aietaraiñoeko poeten lanak sailkatu nitun bertan. Bost bat urte dira osatu nuen beste bilduma bat arrezkeroko olerkari ta poeten lanekin, ots, 1954'tik 1977'ra agertu diran bertso-lanik onenakin biribildua. Argitara gabe datza oraindik». (*Olerti* 1981-1, 7 orr.).

Bero-bero artu eben bilduma au Euskalerrri osoan. Goralpenez gaiñezkako lanak idatzi ebezan Orixe'k, A. M. Labaien'ek, Joakin Zaitegi'k, P. Lafitte'k... «Egan»-en, «Euzko-Gogo»-n, «Gure Herria»-n eta abar. Orixe'k ikusiaz bat idatzi eustan, Azkue'ren

Iztegiarekin eta Kantutegiarekin bardindurik. Ordurarte etzan ola-ko antologiarik euskal literaturan; itz-lauzko ra poesiari buruzko ru idaztino ezagutzen ziran aurretik erderaz J. M. Le.zaola'ren «Literatura Vasca» (Barzelona, 1923), Espasa'n 1447 orrialdean datorrena; Orixere'n, «Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra» (Euskal-Esnalea, Donostia, 1927) ta P. Lafitte'ren «Euskal-dunen Loretegia» (Baiona, 1931).

B. Estornese Lasa, 1936'tik 1960'ra bitartean egiñiko euskal literaturako antolojiak aitatzean, onela ari da: «Una de las lagunas de la literatura euskerica era la carencia de una antologia en la que reunieran textos escogidos de todas las epocas. Nuestros libros antiguos eran raros y solamente estaban al alcance de bibliófilos especializados como Julio de Urquijo, Lacombe, Vinson, etc. En esta situaciOn y no habiendo sido posible la ecliciOn de textos antiguos, el P. Santiago de Onaindia. llev6 a cabo la vieja aspiraciOn. Asi naci6 «Milla Euskal-Olerki Eder» (1954) publicada en Larrea-Amorebieta (Vizcaya)».

Ibalan, ots. A. M. Labaien'ek onela: «L. buru eder ortan orain-dañoko euskal Oleriti osoa dugula esan diteke: antziñako guda-kanta zaarretatik asi ta egundañoko gazte berri-zaleen itz-neurtu «zazpiki» etaraiño. Bidez'bide erritar bertso, maite lelo, irri-kopla, jainkotiar kantika ta gure liriko ikasien olerki garaienak agertzen dizkigularik... Artobero usairik gabe esan dezakegu: Euskal-Oler-tia ugari ta goitar dala ta beste edozein erritakoa bezin eder ta bikaiña, bakoitzaren neurriaren arabera... Ezin ukatu nekearen beldurrik gabe ardura eta gartsu lan izugarri bat burutu duna... Liburu bikain onek euskaldun sendi ta etxe guzietan bear luke toki berezi bat. Gure jatorriko altxor eta gordailurik miñena bait dugu. Begien aurrean eta arabat biotz-barnean beti bear genukena gure asaben arma-arri ta larrutxizko agiriak baiño areago» (*Egan*, 1954, 43 orr.).

Andiena Ibiñagabeitia elantxobetar euskal ilazle argi-joriak be onela: «Gure izkerak ere, askotxok uste izan ez arren, badu bere olerti-arrobia. Arrobi oparo ta sakon oran jabe egin nai lukenak ar beza A. Onaindia'ren liburua esku artean. Antxen aurkituko dtu mota guzietako olerkiak, bertsuak, poemak, izkera arroaren aitzinean bat ere lotsa g.the aurkeztu dikezken pesi zoragarriak.

Aspalditik zebiltzan bizpairu euskaltzale eun olerki onenak bildu bear zitutela-ta. Ordago ederra jo die Onaindia'k euntxo biltzeko ere gai izan ez diran oriei».

Luis Mitxelena, ez luzekoi goralpenez eta bai zorrotz eritxiz, onela dogu olerki-bilduma oni buruz: «El P. Onaindia ha prestado un meritisimo servicio al conocimiento de la poesia vasca con la publicaciOn de esta antologia, extensa y completa, La necesidad que hace tiempo sentiamos ha quedado satisfecha y casi solo con las producciones poeticas posteriores a su publicaciOn podr ser aumentada esta colecciOn... Las versiones que se publican parecen en general fieles a las originales y al traslado a un sistema unificado de ortografia esta hecha con cuidado y discrecciOn».

Aritik pitin bat aldenduta be, egoki dala iduritzen jat au adieraztea: Mitxelena'k emen diñoanari buruz, ots, ortografiari dagokionez, izan nituan neure goraberak. Olerki asko ziran, arek onela ta besteak arela idatziak, emen bide zeatz bat artzea ez jakon iñori be arrigarri egiten, eta nik zalantza bage Aitzol'ek «Yakin-tza»-n erabillia artu neban neure libururako. Maiz esan eustan A. Irigarai'k I ʒ ʀ kakoturik neukazan tomu aundi bitan «Milla Euskal-Olerki Eder» osotuko ebezan bertso-lan guztiak, eta ez nintzan kopi barri bat ateraten asiko. Nire aolku-emoille jakintsua konturatu zan ontaz, eta geroztik ez eustan iñoiz olakorik aitatu. Oso jatan atsegin irar-tipua, guda-aurretik Zornotza'ko «Jaunkoi-ko-Zale»-k bere liburuetan erabillitakoa: txikia, baiña guztiz *argia*, begietatik sartzen dana. I txaropena'k ez eukan onako tiporik eta Italia'tik ekarri bear izan zituen, nire naia asetzearren.

P. Lafitte'k «Gure Herria»-n liburuaren zer-nolak adierazo ondoren, onan amaitzen dau bere jarduna: «Gorespenik bizienak zor zaizkio eskuararen eta Eskual-herriaren izenean. Bada bilduma hortan zer irakur eta zertan gogo-bihotzak pulunpa arbasoen jeinuaz orholtuz... Aita Onaindia'ren lan ederrak erakustera emaiten dauku beraz euskal olerkiaren ezagutzeko liburu baliosa eta haren sailari jarraikitzeke parada ona» (1955, 148-51 orr.).

b) Akatsak

Naitaez izan bear akatsak kaizu orretako liburuak. Antologi ain aundiak eta aurretiko ain lan exkasez egiñak bear-bearrez

eukiko ditu boreak eta bost. L. Mitxelena'k, P. Lafitte'k eta besteak, alan be, ez dautsoez askorik idoro; bizpairu geienik be. Ona: 1) Zergaitik sartu nebazan arabar eta napartar olerkariak, zisku bat berean; 2) textu batzuk aldatu egin nitula, eta 3) olerkari batzuk, zergaitik biurtu nitun eleiz-gizon. Iru akatsok L. Mitxelena'k aitatu euskuzan BAP'en osatu eban aurkezpenean. Eta ondoren, beste guztiak be —ezer aztertu bage, jakiña— bardin esan dabe, itza ta pitza erauziz.

Lenengoari erantzunoz, au diñot: 11I'garren saillean onan ogin nebala zatiketa: Bizkaitarrak, Gipuzkoarrak *eta* Bidaso'z andi-koak. Garai ortako arabarrak, ba, iru besterik etziran: J. B. Gamiz, Latierro ta Aizkiberdar Bingen, au jaiotzez Legutiano'koa izanda be, ia bizitza guztian Bilbo'n bizi izana. Naparrak, barriz, Aita Bera, Iraizoz, A. Zaraia, Lazkoz'tar Xabier, Jose Agerre eta Tapiaperurena, besterik ez. Ez dot uste errazoi berezirik egoanik sail aparta eurentzat ipinteko, eta bai sailak geiegi ez bikoizteko.

Bigarrenari erantzunez, au diñot: Ez dala errez textu zaarretan zein dan zaarrena jakitea. Egin neban alegiñik orretan. Aurretiko bildumatzaile txikietan be bakotzak egin oi zituan, itxura danez, bere aldakuntzak, eta lendabiziko textua zein zan idoro eziñik aurkitu nintzan bein baiño geiagotan. Ogeta-amairu urte joan dira nik «Milla Euskal-Olerki Eder» atera nebanetik; ikerketa galantak egiñak doguz gerora, eta alan be ba ete dakigu kanta zaarretatik zein dan jator-jatorrena? Au da, orijinal-orijinala? Dana dala, L. Mitxelena'k olako erbiko edo uts-egite bat aurkitu zidan, ots, *itunik* jarri nebala *tristerik'en* orde, «Txoriñoak kaiolan» deritxon maitekanta jakiñean. Zuberokoa iatorriz, dozu kaanta au, naiz ta arrotz kutsua izan. Sallaberry'k onela dakar bere «Chants Populaires du Pays Basque»-n:

«Xoriñuak kaiolan
tristerik du khantatzen...»

Pascal Lamazou jaunak batu ta bere «Chants Pvreneens» liburuan argitaratua izan zala diñosku, itzok gaiñeratuz: «mais on a eu le tort, d'apres moi, de le modifier en y ajoutant deux mesures, qui n'nont jamais existe dans le chant primitif»,

Bilbo'ko «Euzkel-Abestijak», barriz, III ingurraztijan, onela:

«Txoritxubak kavolan
itunik dau ebesten...»

Aldakuntzak pitean pitean. «Itunik» itz au nik ez neban trukatatu: egia diñot. Nundik artu ete? Dana dala pozik nago Mitxelena'ren begi zorrotzak besterik jarrugi ez ebalako. Zorrotzegi izatea, gaiñera, ez da egoki, lau zango dituenari be bost aurkitzea jazo daiteke-ta.

Iruugarrenari buruz, au diñot: Orduan oraindik ez egoala gerora jalgi jakun eleiz-gizonen aurkako griña zantarrrik. Eta nik eleizgizon ziranai «apaiz» edo-ta «lekaide» goi-izena jarri neutsen; eta euskal literaturan ordurarteko idazlerik geienak apaizak eta fraileak izan ziralako edo, onek sumindu ebazan banaka batzuk, L. Mitxelena batez be, berak iñoiz autortu ebanez. Eta au eroan eziñik nunbait, bere «Historia de la Literatura Vasca»-n (Madrid, 1960) auxe diño soil-soilki nire liburuatzaz: «Esta abundancia —apaiz literaturarena noski— resulta aun mayor en la antología del padre Onaindia, que ha dado el título de «padres» a algunos autores que a lo sumo, no pasaron de ser padres de famffia». Eta au letra txikizko nota batean, liburu guztian ez bait eban ezertxo be aitatu nire «Milla Euskal-Olerki Eder» idazti mardulaz.

jokabide ta salakuntza merke au garbitu nairik, au irakurri besterik ez, Lino Akesolo ta biok jarri gintzazan «sendi-aita» orreik zeintzuk eta zenbat ziran jakiteko liburua, olerki-liburua arakutzen. Xixta maltzuraren irain-mirria laster loratu zan ezpan ertzean. Bizkaitar eta gipuzkoarren artean bat agertzen da, jose Elizondo Lopez, tolosarra, eleiz-gizon eztana, gero «Euskal Literatura»-n (III, 241 orr.), orraztu ta apaiz-kirats ori erauzi neutsona. Mugaz andikaldekoen artean Elizalde-Txiki euskal idazlea ez ei zan apez izan. Onen duda sortu jakun Ustaritz'en, P. Lafitte'k berak be ez ekian ziur apez ala laiko zanik.

Lotsortxu gara euskaldunok, euskal idazleok atan be, eta joera bizia daukagu ezizenak erabiltera. Eta gero, ainbat ezizen eta ainbat urteren ondoren, ezta erreza nor dan apaiza ta nor ez dan ja-

kitea. Lotsaren itzala uxatu ta bakotxak bere izen-abizenez azpi-marratu bear leukez idazlanak.

Utsok gorabera olerti-txorta onek bere edertasun betean jarraitzen dau; orren erakusburu bikain legez, orra J. M. Retana'k, 1976'gn, tomu aundi dotore-dotore bitan osotu eban ekoizpena. Ezin iñok ukatu ezaugarri ona danik. Gaiñera: gari ona kaian saltzen.

20. F. ARRESE TA BEIT/A'REN «OLERKIAK»

1956'an, dakizunez, ni Eibar'en nengoan, 47 urtedun. Osasuntsu ta lanerako gertu. Euskal lanerako baitik bat. Jarri eusteazan zoztor eta eragozpenak gorabera, geureari ozin muzin. Eta gaiñ nekarren arazoak izten eustazan asti-uncetan, barruan bolbolka somatzen nebazan xede ta apetai asazkaldia emon gurarik, «Len eta Orain» titulupean liburu sail bat argitaratu nai neban, orduan Espaiña'n «Colección Austral»-ek eta geroago gure artean «Auspoa Liburutegia»-k egin dauan lez edo.

Bidean izan nitun tr;kimaillu ta azpikeriakaitik aurrera eroan ezpa-neban be, interesgarria zan, nik uste, neukan asmoa ta bego emen gurari aren istori pizkat. Len-liburua. Arrese-Beitia'rena, asterakoan au dator bigarren azal barruan. «Gaur asten dan sorta onek —idazten neban—, ba-dau bere jomuga ta xede Zabal dabilz orain elertietan edu ontako bilduma edo sortak, edozein gairi ikutua. Ta guk be, euskaldunok, orrelako zerbait agitea ez ete dogu egoki ta bidezko? Oiñarri ontan tinkaturik, sorta au sortu ez-eze, aurrera eroan, sendotu ta geituteko be kemena ta biotz-adorea Goikoak egin beiskuz. Orrela eskatu dautsagu beintzat len-lan oneri ekitean.

«Len eta Orain» sorta au, izenak berak diñoskunez, lengo ta oraingo euskal idazleen lanak argitara emoteko sortua dogu. Ona bere zeregin beraizkoa: urtean orreitako iru edo lau liburu argitaratu. Emen agertuko dira: 1) *Zarretatik*: Añibarro, Prai Bartolome, I. B. Agirre, Kardaberatz, Mendiburu, Astarloa, Mogeldarrak, Iztueta, Lardizabal, Lizarraga, Etxeberri, Uriarte, Zabala, Etxe-

pare, Oihenart eta abar. 2) *Oraingoetatik*: Azkue, Eguzkitza, Etxegarai, Otaegi, Artolatarrak, Urruzuno, Enbeita, Orixe, Lizardi, Satarka, Jauregi ta besteak.

Zabala zan beraz nire asmoa, eta liburuak naiko mardulak. Iru sail izango zitun: orrialdez eta kolorez bereiztuak.

Gobernuak, baiña, ez eustan iñoiz baimenik emoten, ez liburuak argitaratzeko eta ez salgei jarteko. Orduan itzal-billa Euskaltzaindia'ra jo neban, onen ardurapean errezago —zelan ez?— neure egitekoa joango zelakoan. Alfonso Irigoien jaunak laguntza eskiñi eustan eta gogotsu eskiñi be. Olan kaleratu zan Arrese-Beitia'ren «Olerkiak» 688 orrialdeko idaztia. Bilbo, 1956, Graficas Bilbao etxean.

Eritxi emoille lez liburu onetaz bikain idatzi eban L. Mitxelena'k «Egan»-en. Merezi dau-ta, beioz emen eritxi orrren zatirik beiñenak. «Esku-erakutsi ederra —diño— eskeñi digute oraingoan Bilbao'tik, Eta ustekabekoa izan ere, gutxi uste genuen geienok Gipuzkoa'ko bazter onetan orrelako liburu trinko ta mardulik agertuko zitzaigunik. Arrese ta Beitia'ren olerkiak oso-osorik datoz, dirudienez. Dirudienez diot, ez bait nago gai orretan oso trebe. Nolanai'ere, eztut uste Arrese'k zein ere olerkari ugaria zen, bertso-sail miragarri ori baiño geiago egin zerakeanik.

Leen ere, egillea il ondoren, eman zituzten argitara Arrese'ren olerki batzu: Arrese eta Beitia'tar *Olerkiak, Uzkurtz-gayak*, Zornotza'n, jaungoiko-Zale'ren irarkolan, 1933, Ibagutxi'ren itzaurrearekin. Baiña asiera orrek, dakigunez, etzuen izan ondorenik, Orain berriz osorik datoz, bederatzi sailletan berezirik. Esan dezagun leen-bait-leen Aita Onaindia'ren itzaurrea dutela, itzaurrea luzea da eta argitasun ugariz ornitua, baiña itzaurreaz gaiñera ez ote du izan emen beste egitekorik? Karmelitarra ez-ezik, beneditanoa izatea merezi luke langille azkar eta purrukatu onek. Obeto esan, aurki izango dute gurean karmelitarrak beneditanuak mundu zabalean irabazi duten bezain izen andia.

Ezaguna da gure artean Arrese ta Beitia, eta entu aurkezpen bearrik: zenbait bertso beintzat, gutxi bederen, buruz dakizkigu geienak. Biotz sutsu aren garra ezta oraindak illaundu: bizi-bizirik

daude txingarrak orrialde otz auetan. Gaur, urteen joanak oztu gaituelako edo, ezin genitzake Arrese'ren olerkiak ikus orduko euskaltzaleen eta batez ere Campjon'en begiz. Ezta Arrese munduarakatsi nai zioten poesi-mirari errigarritz. Biotz-ondoa badu, izkuntza aberatsa ere bai; egiazko lirikoa osatzen duen zera, ordea, euskeraz geroztik agertu den zer berezi ori, falta zaio. Egia esan, poesirako baiño retorikarako ixuri geiago zuen...

Esandakoak eztu beeratzen ez gutxiesten. Retorika jatorra du goitarra, biotz bera batek indartua. Eta euskera eder, sendo eta ugarian mintzatzen da beti. Izkuntzaren aldet'k badugu, beraz, zer ikasi Arrese'gan, eta beste batetik ere bai, euskaltzale gartsu batek ikusiak eta adieraziak. Gizonki jokatu dute argitalariek. Izan ere, ezin zitzaiokean eskeiñi Bizkaiak bere seme argiari olerki-bilduma au baiño esker onaren ageri **Onela Arrese. ta Bei**, ia izon utsa ezta izango gaurko euskaldunentzat, m'ntzo bizia baizik.

Liburu au ain lodia (ia 700 orrialdekoa) eta azal eta barren ain ederra izanik, eztator bakarrik. Zerbait agintzen digu gainera: «Len eta orain» deritzan sortako leenbiziko alea omen da. Sorta ortan agertuko dira euskal-liburuak, urtean iru edo lau, bai zaarrak eta bai berriak. Biziro poztu gaitu ori jakiteak, bai baitakigu gainera, Aita Onaindia tartean dabillelarik, eztirela asmo oriek utsetan geldituko. Gure bearrean dira, ordea, orretarako, arpededunen bearrean, eta ezin genezaieke uka gure laguntza. Ea urtetik urtera, ia siñesteko ezten moduan, ugaritzen ari diren euskal-liburuak sail berri onen bitartez geituak ikusten ditugu» (*Egon*, 1957, 117 orr.).

Nik asi neban sail au, eta baimenik lortzen ez nebalako, Euskaltzaindiaren eskuetan itxi nebana, porrot eginda gelditu zan, gure arteko beka'tz-griña zantarragaitik, nik uste. Beste liburu bi —Lardizabal'on «Kondaira» ta Txillardegiren «Leturia»— argitaratu ziran, eta kito. Or nik amestutako liburu-sorta, utsaren urrengo!

Arrese-Beitia'ri zoriak irri gozo egin dautso ta ez dautso egin. Sarri ikusi dabe aren olerkiak argia, baita ikusi bage gelditu be. Eta 1985'an, adibidez, irri ziztriña izan eban. Euskal Elkartek, edozein izkuntzatan eder dala idurituri idazle zaarren, klasikoen bildumak argitaratzea, amabi-amabost euskal idazleren liburuak

emotea erabagi eban. Zazpi liburuxka polit argitaratu ebezan. Euron artean Arrese-Beitia'ren «Ama Euskeriaren liburu kantaria» (Bilbo, 1900) deritxonetik onenak aukeratu nengizala, agindu eus-tien. Iru-lau osterata egin genduzan Donosti'ra, zelan, noizko ta abar jakin nairik. Osotu neban nik neure lana, baiña luzeegia zalako edo, etzan onartua izan. Eta Arrese, oindiño beintzat, ezta sail orretan agertzen, Nik, oker-samarra izanik, izterbegien azpi-lana ikusi neban or.

21. GOIZALE. KEMPIS

Karmeldar idaztiak. Gasteiz, 1956 «Record» irarkolan. 544 orrialde. Aita Pi Etxebarria, euskal idazle errime-errimearen itzulpena, irugarrenez argitara emonda. Nik ikutu batzuk egin neutsozan, baiña esatekorik ez. Eta ezta Kempis bakarrik, bertan sartu bait dodaz «Goi-Zale» onetan I. Otoitzak. II. Kristo'ren Antz-bidea eta III, Eraspenak.

Nik Eibar'en nengoala argitaratzean, 1956-1-6'an, jarri neutson atarikoan onela: «Aita Pi karmeldarra, Gorozika'ko semea, Bizkar-gi azpian jaio zan 1899'garren urtean. Ta amaika urte dira Peru'ko Lima'n il zala 46 urteko.

Ez eban inñundik be bere amaren magalean ikasitako izkuntza joria itxi; nai-ta Amerika zear, beti arima billa, luzaro bizi be-ti eban asti pizkat euskeraz idazti ederrak eratzeko. Asko idatzi ebana dogu «Karnengo Argia»-n batez be, eta Aita Granada'ren liburu sakonak ia euskerara biurtu ebazan, baita Sales'tar Prantzisko deunarenak be. Argitaratu barik oindiño.

Baiña bere lanik bikaiñena, nire eritxiz, gaur esku artean jar-tea dautzugun Kempis agurgarriaren «Kristo'ren Antz-bidea». Goxo ta arduraz egiña, *urte* mordiaska dala, 1926'garrenean, Zornotza'n, «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan: bigarrenez be, antxe bertan 1936'garrenean, eta orain ogei urte geroago.

Eta M. Lekuona'k onela: «Kristo'ren Antz-bidea ardatz dualarik, Eliz-liburutik ederrenetako degu, oraingo ontan A. Onaindia'k argitara digun auxe. Lenengo zatian egunoroko otoitzaz ga-

riera, Aitortzeko ta Meza Santukoak. Erdian «Kristo'ren Antz-bidea». Eta azken-aldean zenbait jaiera, Gurutz-bide, Agurtza, Jesus'en Biotzarena, Karmel, S. Jose, Ondo iltzeko etab. etab. 544 orrialde guzitara, paper me-meian. Boltxiku-libururik politena. Orixe da azaletik begiratuta gure A. Langille-langilleak gaur eman diguna.

Barrutik begiratu eta Kristo'ren Antz-bideari gagozkiola, orain urte batzuek A. Pi karmeldarrak egindakoa da. Bizkaieraz. Lan trinkoa. Kempis'en idazkerari egokitxo dagokion bezelakoa. (*Egan*, 1967, 365 orr.).

Bost milla ale atera nebazan. Eta laster saldu ziran. Nik urtero eroaten neban pilloa errietara, gogo-jardunak emoten nintzanean. Merke saldu oi neban, 50 pezetan, eta barruan zer eka-rreren —gaixoi ondo ilten laguntzekoa batez be azaldu ezketiño, eleizki zanera etozanetatik etzan iñortxo be ainbarik etxerutzen. Zozketak, errifak be ez ditut gitxitan antolatu liburu onurakor orren zabalkunderako.

22. BERTSO BERRI TA KANTA ZAR. XABIERTXO

1957'an, dagonillez, Elgoibar'en Karakate azpiko San Lorenzo baillaran nengoen ni itzaldi batzuk egiten. Eta Eibartik abots atsegin batek urrutizkiñez: «Zorionak, Aita Santi!» —«Zer dalata?»— nik erantzun bestekaldetik. «Berri on bat zuretzat: Larrea'ko nagusi egin zaitue». «Eskerrik asko!».

Orrelaxe zan, izan be, Abuuztuaren 7'an asita Begoñan ospatu zan karmeldar Batzarrak Larrea'rako aukeratu nindun barriro be. Ni pozik aurkitzen nintzan Eibar'en: alaia ta maitekorra zan orduan Urko aspiko jente langillea. Berton erre nebazan iru urteetan naiko ar-emon izan neban eibartarrakaz eta zer guztietan beti agertu jatazan txeratsu ta biotz-aundiko. Sozialistak direla? Baiña onak, nik esango. Sarri joan oi nintzan inguruetako baselizetara —Salbador, Santiago, Arrate, San Pedro— eta meza ostean atsegin jaken ni zirikatzea, erlejiño gaietaz; barne eukezan zalantzak uxatu nai ebezan: iñoiz be etziran agertzen muker. setati euren eritxietan.

Alan be Eibar'i ta Eibar'ko lagunai agur egin bearra. Tokiz aldatzeak ba ditu bere alderdi onak eta txarrak, giza-biotza tokiari ta pertsonai itsatsirik gelditzen bai da errezerrez. Nik, gafiñera, ba nebazan errazoi bitxi bi Eibar maite izateko: lenen, izeko bat neukan Maria Angela kalean tabernarekin, Aginagarekin ezkontuta, Markiña-Meabe'ko alaba, neure aitaren arreba, eta bigarren, neure aitak bein, zortzi bat urteko nintzala, Eibar'era eroan nindun trenan ikustera. Zer txikiak, baiña ume-takoak...

Agindua, baiña agindua zan, eta Larrea'ra. Emen be lanari atxikia, alperkeria baita oitura gaiztoen ama: eta nik ez dot egundo be atz-motz edo anka urri agertzeko gogorik, nagikeri lausengutik iges egiñaz.

Beraz, 1957'ko dagonilletik emen naukazu Zornotza'ko muiño zoragarri onetan, Karmengo Amaren Santutegi santutuan. Gaur nagusi biar menpeko, emen daroadaz, leen eta orain, neure berrogetaz urteak. Ementxe egin ditut neure mirariak eta pekatuak; batzuk eta besteak neure gurariz eta pozik jaukiak,

Nagusitzak bere-bere dituan arazoak albora itxi barik, laster murgildu nintzan euskerazko lanetan. 1957'gna. zan. «Karmen'go Amaren Egutegia» 6 urtez zuzendu ta «Karmel» bi-illeroko biur-tu ebana, Aita Dañobeitia, Erroma'ra deitua izan zan. Neu, beraz, geratu nintzan aldizkariaren zuzendari. Ez jatan auzi samu-ira; aurretik kartzelan egona nintzalako, izterbegiak errez sortzen jatazan. Guzurra ta abarra etzan ixiltzen giltzape egon gintzaza-non kontrako zarraparrea.

Etsaiak ondo zaintzen ginduezan. Begoña'ra sarri igon oi eben Bilbo'ko polizi ta polizi-arteak, ango praille ikasleai, eurak konturatu barik geienetan geure arteko gauza ezkutak be atera-azoz; gero jakin nebenez, «Karmel»-i ta «Milla Euskal Olerki Eder»-i buruz ainbat guzur susterrik bako. Guda-aurreko «Karmengo Argia» ondo ikusia ezpazan, origaitik niri Dueso'n epai-kariak itaun aldizkari orretan idazten nebala, oraingo «Karmel» etzan obeto artua. Eta urte oneitan Deba'n naiz Zarautz'en goraberen bat jazoten zanean, etzan faltako «Karmel»-eri buruzko galdera. Militarren eritxiz «separatistak» ziran aldizkariok.

Ni Larrea'ra orduko ustetsu ta baikor ebillen Aita Libino, Garai'ko semea. Onela idazten eban: «Gure Egutegi eder au, urterik urte, obeto doiala esan bear. Augaitik pozarren, oidiño indar geiago emon naiez aurkitzen gara. Or, ba, datorren urtetik, au da, 1957'tik aurrera, urtean bein barik, urtean lau bider argitaratuko dogu», Baiña Erroma'n leporatu eutsoen zeregiña ta ara aldatu bear. Eta izango neban buruko-miñik, eta etziran —esan eustienez— Madrid'ekoak bakarrik nire atzetik zigor billa, akats billa ebiltzenak, baita etxeakoak be, egia autortzeko. Ez, «Karmel» etzan ondo ikusia, euskera utsean egiten eban Janagaitik batez be.

Laiño baltz artean dizdiz egin nairik egoan eguzkia biribillago azertuz zirudian; au da, euskal jentea, gazteak alan be, euskal zaletuz joiazan. Asko etorkidazan bertso-billa, adibidez, maistrak, andereñoak, eskola neska-mutikoak. Zerbait nai eben nigandik. Ezer barik itxiko nebazan? Aurrenik, neure olerki bilduma lodia edo-ta andik eta emendik arturiko poesi aldatuakaz pozik bialdu oi nituan.

Baiña gero, buruak emon eustanera jorik, liburu txiki bi (I ta II) atera nitun, «Bertso berri ta Kanta zar», KARMEL aldizkariaren ardurapean, Bilbo, 1960, Bilbao jaunaren irarkolan. 64 orrialde eukazan bakotxak,

Poesi oneik eukazan lenengoak: «Txeru» (erri-kanta), «Nere amak ba'leki» (Iparragirre-rena), «Xo! Xo! » (erri-kanta), «jurementua» (Bilintx'ena), «Lapur famatua» (bertso berriak), «Eziñaren negarra» (Urre'rena), «Aiton baten esanak» (Basarri'rena), «Sorgin-dantza» (E. Arrese'rena), «Aberatsak eta pobriak» (bertso berriak), «Edariaren indarrak» (R. Artola'rena), «juantxubota» (F. Arrese-Beitia'rena), «Aita San Migel» (erri-kanta), «Alzola» (erri-kanta), «Edurra tellatuan» (erri-kanta), «Ez dozu maitte» (Satarka'rena), «Gernika'ko Arbola» (Iparragirre'rena), «Gure euskera» (j. K. Zapiain'ena), «Ama Euskeriari azkan-agurrrak» (F. Arrese-Beitia'rena), «Euskaldun baten kantua» (J. K. Gerra'rena), «Aiton gizagaixoa» (P. M. Otaño'rena), «Betiko agur» (erri-kanta), «Mendian eder» (erri-kanta), «Gauza mingarria» (Pello Zabaleta'rena), «Goizean goiz» (erri-kanta), «Begi ederrak» (erri-kanta), «Egia ete?» (Artadi'rena), «Amalau koska-

billo» (erri-kanta), «Santa Ageda abestiak» (Atnilaitz'ena), «Xaguxarra» (Udalaipe'na), «Mendi-gaña» (Lizardi'rena), «Aradera» (Otarri'rena), «Agur, jaunak» (erri-kanta), «Euskera gordetzeko arrazoi ta bideak» (Berridi'rena), «Atso gezurtu bati» (Txirrita'rena), «Maats-orpoa» (erri-kanta), «Zorionketaria» (P. Ithurralde'rena), «Arranbillote» (erri-kanta), «Bautista Basterretxe» (erri-kanta), «Amodio-miña» (erri-kanta), «Amodioaren pena» (erri-kanta), «Orra or goiko» (erri-kanta), «Xori kantzale eijerra» (erri-kanta), «Eguna zala» (erri-kanta), «Iru damatxo» (erri-kanta), «Oraingo nekatxai» (Abarrategi'rena), «Dantza berriak» (P. M. Urruzuno'rena), «Aa, ai, ai!» (erri-kanta) eta «Aita-semeak» (Otaño'rena), 48 guztira.

Bigarrenak, osterak, oneik: «Lora polito», «Uso zuria», «Gabor gabeak», «Goiko mendian», «Illunabarra», «Txalopin txalo», «Kukuak», «Aitak eman daut dotea», «Atzo goizean», «Itxasoan urak andi», «Atxia motxia», «Boga, bogal!», «Txakur gorri txiki bat», «Ondarribia», «Txoriñuak kaiolan», «Aurra lo dago» (Igotz), «Aurra lo», «Basatxoritxu», «Ardo gorri naparra», «Arbola bat (Arrese-Beitia), «Gure Arbola gazteari» (Arrese-Beitia), «Ume eder bat» (Iparragirre), «Nere andrea» (Iparragirre), «Limosnatxo bat» (P. M. Otaño), «Ikusten duzu goizean» (Elizanburu), «Urrundik ikusten du» (Elizanburu), «Mutil zarren bizitza» (Xenpelar), «Moskorkeria» (Basarri) «E.,ipro'ra», «Erregeak», «Biotz-lilia» (Artadi), «Amari agur» (Dundunzar), «Aize-errot» (Dirauket), «Probreak podre» (Aita Fidel), «Txakur zintzoa» (Aita Fidel), «Kalamua» (Egieder), «Gorbeia'ko Gurutzea» (Arrugain), «Mirua ta amilotxa», «Txarrizaiña» (Arrugain), «Gipuzkoalco lur tnaite» (Arrugain), «Mait» (Arrugain), «Eretxti bi» (Enbeita'tar Kepa), «Txomin eta /\.latxalen» (Enbeita'tar Kepa), «Boi zarren bertsuak» (Enbeita'tar Kepa), «Bertsolaria» (Enbeita'tar Balendin), «Mutil zar bati» (Enbeita'tar Balendin), «Ariatza'ko Garriko» (Enbeita'tar Balendin), «Gizontasuna zer dan» (Deunoro), «Neskatiilla polita» (Deunoro), «Bizkargi» (Deunoro), Euskaldun bat Ameriketari» (Iturri), «Gernika» (Aldana), «Nere "pasadixu" bat» (Aldana), «Erregeak» (Ireneo), «Usparitxa'ko auzunia» (Ireneo), «Gogaiztoa» (Lopategi), «Maitemindua» (Lopategi), «Zabal-alde» (Enbeita'tar Jontxu), eta «Ariatza'ko kazeruak» (Enbeita'tar Jontxu). 60 guztira.

Orrezaz gainera, 1960'garren urtean argitaratu neban «Karmel» aldizkariaren ardurapean, Aita Emil'ano karmeldarrak eskatuta, berak idatzi eban «Arrate'ko Ama Sortzez Garbiaren Kondaira ta Bederatzirrun laburra» be, 20 orrialde. Bilbo, Bilbao jaunaren irarkolan.

Aurreko urtean (1959) baita «Karmel»-ek argitaratu eban aldizkarian zatika ta gero separata lez, Lopez-Mendizabapdar Ixaka'ren «Xabierto» umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia, Donostia'n «Euskalerrriaren Alde»'k 1923'an urtean saritua. Laugarren argitalpena, «Karmel» aldizkariaren ardurapean egiña. Irudi ta marrazki dotorez jantzita. 140 orrialde. Bizkaieraz dago, neuk biurtuta. Boste urteetako ediziñoak lez au be laster agortu zan.

23. «OLERT I»

Asko ezta be, naikoa idatzi eben Lizardi'k eta Airzol'ek euskal olerkiaz. Arein ustez poesia zan Euskalerrriaren giltza, onek barruan eukazan altxorrek aizara, onela bananduta: 61 idazlan Bilbo'ko «Euzkadi»-n 1927'ko urrillaren 9'tik 1933'ko urtarrillaren 28'ra; 25 Donostia'ko «Argia»-n; 12 «El Dia»-n, 2 «Eusko-Ikaskuntzaren Deya»-n, 1 «Euzkerea»-n, 1 «RIEV»-en, 1 «Aberri Eguna aldizkarian» eta 1 «Yakintza»-n. Oraintsu Lurdes Otaegi'k argitaratu dauan (Zarautz, 1987) liburu «Xabier Lizardi. Kazetari-lanak» deritxanean daukazuz artikuluko guztiok.

Gu ikasle giñala, Gasteiz'en eta Begoñan batez be, Lizardi genduan eredu goena poesi-zelaian baitik bat. Zeozegaitik esan eban ak: «Olerkari bagerik, ezta ezagun izan, erri-pizkunderik, ezta erri-elerti-betetasunik. Aberri aldeko gogo-gudari-sailletan olerkaria beti da leen-oiñean. Ta beroni zor z3izka, gizaka lurkoién irriek gora-beera, gudate oietatik gurenda ozenenak. Batez ere, eleen apaintze ta gaizkakundeari buruz, olerkariari ez bezakio inork ken oro'aal bezelako bat.

«Ezagun (diran, ala izan diran) elerti aipatu askoek bitxirik Birgili, Dante, Camo&is, e. a. Ele-berbiskundeei buruz, berriz oberenentxakotzat olerkari gorenen bat darakuste: Dabid, Homer,

Mistral'ek ongi (ta gaurki) darakus gizon ale baten esku naroak zer dezaken, asabaen mintzoa eriotzarengandik begiratzeko».

Au gogotan sarri ausnarka, ari ta oni onua eskatuz, orduko ouskal aldizkarietan poesiari eskintzen jakon toki estuaz naigabeturik, olerki aldizkari bati sorrera emotea erabagi neban. **A.** Mogel'ek diñoanez, «geure amaren sabeletik dakargun berbetan» ain zuzen, «OLERTI» diñotsat, oler-muiñez osotua dalako; biotz- alai damotsat sortzea, ez iñolaz be illun. Beuko emen irakurleak aurkez jardunean idatzi nebanetik zerbait.

«Etzara arrituko, euskaldun maite —niñoan—, aldizkari bari au esku artean eukiaz. Ez, nunbait. Bear-izan utsak eragiña dala deritxat, niri beintzat, Zuri ez ete? Euskal ardurak kezkatzen ba'zaitu, bai. Gure euskera *zernaitarako*, Lizardi zanak iñoanez, gaitu bearrean gagoz. Eta orretan diardugunok askotxa gara, baiña ez bear aiña, tamalez, Noz itxartuko ete guztiok eta, danon indarrak moltzotuz, kemenaren kemenez lanari lotu? Beste milla garazetan orrela dagigu. Eta aurretikoak itxitako doai eder au zaindu ta jagoten, ez ete gara saiatuko? Lurzati aundiak galduta, noiz ilgo daukogu gure izkuntza.

Ni neu antxiñatik nabilkizue lagundu, babestu ta gaizkatu nairik. Bebiltz besteak euren asmo eta bideetatik: maite batek garabiltz guztiak. Nik ertiari ekingo. Antxiña baten Dante'k Italia'n, geroago Puchkin'ek Errusia'n eta Mistral'ek Probentza'n, eta oraintsuago Rubi6 y Ors'ek Kataluñan, orrela egin eben, elertia jasoaz erri-izkuntza be marduldu ta beraganako griña gorria biotz-barnetan sortu ta iraun-azo...

Aspaldi barruan darabildan nai bizia maminduz, OLERTI argitara emongo dogu. Euskal saillean berein tankerako aldizkariak doguz: «Euskera», «Egan», «Euzko-Gogo», «Zeruko Argia», «Karmel», «Herria», «Gazte», «Othoizlari», «Aranzazu», «Alderdi», «Gure Herria», «Goiz-Argi», eta abar. Guzti oneik, baktotxa bere mailla ta neurrian, ederto bete daroe euren egikizuna. Bioaz aurrera, gero ta giartsuega, gure izkuntzaren onerako. Baiña ba-da ustez, utsune bat oraindik ornidu bage: gure ele eder saillarena. Euskal idazle ta olerkaririk asko dazauguz euren gogeta ameskoi ta irudikizun txangeliñak nun argitarazi ez daukie-

la edo argitaratzekotan, txanda luze gogorra zaindu bear dabenak. Ots, gure olerkariak eta bertsolariak ez daukie nun asazkату, nai bastean, euren biotz-barrena. Eragozpen edo zoztor au adierazoz idatzi daustienak askotxo dira.

Zauriari osakaia ezartzen dautsogu. Gure gaixo orri be —euskereari—, osotzekoa bada beñik-bein, egoki litzakigu osaki aukerako bat ezartzea. Orrela egin naiean, eta adiskide askoren ere' txi ta iskia beterik, ona emen nire aldizkaria, euskal olerkari, bertsolari ta eder-zale guztien aburu, uste gogai sakon, inidi eder ta biotz zauskada jori, naro ta gozoz aseá.

Gaia? Olerti utsa, naiz neurtua naiz itz lauz. Ona batean: 1) *Olerkiak*, bai jatorrak, bai alboko izkuntzetatik biurtuak; 2) *Itzulpenak*, itz lauz, poema, balada, epopei ta abar; 3) *Azterketa* ta *Kritikak*, gure olerkari nai bertsolarien bizitz-xeetasunak, eta baita euron asmo ta olerkeren azterketa zorrotza.

Olerti utsezko aldizkariak izan dira beste izkuntzetan be, bai Europa'n eta bai gainerrako enderrietan. Beraz, ez da zugatz bakarra. Orreik eredu, gabiltzan gu be gaiez gainetiko bidez, olerkibidez.

Onekin, baiña, ez neuskioe ezetan be kalterik egin nai enparau euskal aldizkarierir Ez orixe! Ez naz sekula be etxe-kalte, etxeusle baiño; edo beintzat ori gura. Guztiontzat onuragarri izango da, urrean, olerti-zaletasuna zabaltzea, Eta guztiok izango dogu non idatzi. Geroa lekuko».

Iru-illabeteroko aldizkaria zan OLERTI. Ziur nekian baime-nak ez eustala gobernuak emongo eta «Suplemento poetico de KARMEL» jarri neutson kaparra sartu gurarik. Olan bizi izan zan amar bat urtean. Ni nintzan zuzendari, baiña adiskide onmiña neban Xabier Peña Albisu tolosarrak laguntzen nindun ar-pidedunai banandu ta urte-sariaren ordaiña jasoten. 1959'ko ur-tarrillean asi zan kaleratzen. Urtean lau zenbaki, guztiz 256 orrialde egiñaz.

Ez eben euskal idazleak bekoki zimurka artu seme barri au, olerkariak batez be, pozkarioz baiño; poz ori adierazoz idatzi

eustan askok eta askok, idazlanen laguntza eskiñirik. Geroz geiago euskal literaturen kondaira jorratu debanak be erabat txalotu izan dabe aldizkari olerkitsua.

Auñamendi'k, adibidez, bere IIT'garren tomuan, onela diño: «Cual fue la novedad en 1959? Indudablemente, la fundación de «Olerti», una especie de revista donde comienzan a publicar su producción los poetas de todo el país vasco. Su fundador, el veterano escritor carmelita de preguerra, P. Santiago Onaindia. En sus primeros números figuran como fuente de arranque aquellas firmas que vienen de atrás, de la hornada del fundador, bajo seudónimo unas veces, directamente firmadas otras. Pero la aportación de nuevos autores es muy importante, ya que contribuyen desde el primer momento Aresti, Laspiur, San Martín (37 años), Luis Mujica (20 años), «Ayalde», etc. Se ve con agrado, la de traducciones poéticas de Gabriela Mistral, R. Tagore, Shelley, F. García Lorca y otros de relieve internacional. Es la primera promoción importante desde Vizcaya» (*Literatura*, III, 51 orr.).

Eta geroago, gaiteratzeko dau: «Una revista de literatura euskerica que iba a dar cohesión y acogida a todo el movimiento poético del país sin descontar la prosa» (*Ibidem*, 63 orr.).

Esan dogu, amar urtetan (1959-1969) bizi izan zan «Olerti» bere lenengo aroan, gero gerokoak. Ez eban bizi urria eroan bostsei adarretatik ikusi daikegunez. Epe barru orretan, sei-zazpi aldiz etorri jatazan polizikoak, salatzaileak igorrita, nik uste; urte batzuetan Madrid'era joaten ziran irar-lanak ango (edo Gipuzkoako) artezleak begi-zorrotz ikus egiezan: iragarri eustenez, izen goitiz «Asteasu'ko Beltza» deitzen jakona, izaten ei zan zeregin orren arduradun. Lan rnakurren bat topatzen ba eben, ez egoan argitarara tzerik.

Guzurra ta abarra naiko buruko-min izaten Bilbo'tik etorkidazan poliziak zuritu ta egia burutara emoten. Gobernuaren esanera bizi zirala eurak esan oi eustien geienetan, eta nik euskera gaizkatu bear nebala; inoizka neuk otopoan egindako itzulpenak naiko izaten eben. Zerbait bear bialdu ebezanai erakusteko. Olantxe amar urtean.

Azkenez, baiña, 1969'an «Gaztañadi» atera nebanean, agiri latza eldu jatan Madrid'etik: geiago ez aterateko agindua. «OLERT1» etzan, ba, auleriz edo porrot-egitez ixildu, ixil-erazo ebelako baiño.

Gerra aurretiko olerkari askok, esan danez, bertan idatzi eben, eta —zergaitik autortu ez?— gazte andana bikaiña bertan lanak agertuz egin jakuzan olerkari be. Batzuk baiño ez aitatzeko, leen-urteko aurkibidean daukaguz onein izenak: E. Erkiaga, Yon Ar-teaga, Laspiur, Aurre-Apr aiz, J. M. Muxika, A. Zugasti, G. Man-terola, Juan San Martin, Iratzeder, Bordari, Otarri, Peli Markie-gi, Jose Agerre, Ayalde, Ondarzubi, Dirauket, E. Igartza, Egie-der, Abeletxe, J. Baztarrika, B. Enbeita, M. Lekuona, ta abar; ondoren ditugu B. Gandiaga, J. Azurmendi, S. Muniategi, **M.** Lekuona, Gaztelu, Erdoizanzi-Etxart, Orixe, jautarkol, Antonio Bilbao, Paulo Iztueta, Loidi'tar Paben, eta abar eta abar.

Ona izaten da, egintza barri baten asikeran, nok arnasa emona eukitea. Bai euskal idazleai banaka bialdu neutsen gutuna artu ondoren, eta bai OLERTI bera irakurritakoan, ainbat goralpen ta lan-agintzari artu nitun euskalerrri osotik. OLERTI-n lenengo zenbakian datozanak diranarren, beioaz emen euretatik batzuk.

Donostia'tik *Egafia'tar Gotzon'ek*: «Zurea garaiz jaso nizun. Bejondeizula! Pozik irakurri nuen, eta pozik irakurri zuten nere lagunak ere. Inork elesari eta itz goralgarririk merezi ba'du, zuk merezi dezu, bai noski!».

Añorga'tik *Lekuona'tar Juan Marik*: «Egi-egiaz esaten dizut ordu onean datorrela zure OLERTI. D'ozun utsunea neronek ere nabaritutakoa da, askotan egon bai naiz nere lantxoak nun ar-gitaratu!».

Billaro'tik *Muxika'tar Luis Marik*: «Euskalerrrian, nere ustez, olerkaritasuna ta bertsolaritasuna euskeraren eusgarri jatorrak dira. Ta gainera, au oso bide egokia da gure euskera oni barneko apain-tasunak ager-arazteko, bera lantzeko ta egunen batean ere litera-tur-izkuntzen maillara iristeko».

Zeanuritik *Manterola'tar Gabirel'ek*: «Ondo deritxot OLER-TI orri, makulluekaz dabillen gure euskera gaxoari laguntzeko egiten dan guztia naiko ez da izango-ta».

Zarautz'tik *Jautarkol'ek*: (Gaixorik ebillen orduan, baiña euskal lanari ekiteko gertu). «Izan liteke —iñostan— noizpait olerkitxoaren bat edo beste zuri bidaltzea».

Bilbo'tik *G. Aresti'ke*: «Ondo ikusten dot berorren asmoa eta ene laguntasunik aundiena eta iraunkorrena eskinduten deusat, amai on eta zoriontsu batera eroateko. Nire lanak, nire poesirik sentiduenak, eta baita euskal eta estranjeriko poesiaren ganeko irizpideak, kritikak eta estudioak bialduko deusudaz».

Donosti'tik *Antonio Valverde'.*: «OLERTI... Bejondeizul Ortan txoko bat eskeiñi didazu. Milla esker. Ni enaiz olerkari, baiñan pozik lantxo bat edo beste bialiko dizut noizpenka».

Ondarroa'tik *A. Zubikarai'k*: «Eztakit nire lan onek olerkirik ba ete daben. Dueñas'ko kanpai jotzailleak, bere zeregiñean, olerki samurra darabillena bai. Bera kanpai joten ikusieran, barrutik urten jataz itz neurtuak».

Bilbo'tik *Erkiaga'lar Eusebi'ke*: «Tentsiño makalez dut odola, eta ia orain jasoten dudan. Udaberri ontan, tamalaren aundiz, ez dut bertuketan jardun. Itxaropenik, ostera, ez dagigun galdu. Zure asmo ederrari, txaloak txalo».

Iruñatik *Jose Agerre'ke*: «Olertia dela bide, gozogarrak topatzen dira bizitzan. Euskerari buruz ere ez da etsi behar».

Ondarribi'tik *Bordari'ke*: «Berandu bedere, emen natorkizu, zuri arnas eman naien. Ni olerkari ustela nazu, ta ezin gauza aundirik igorri; ez dakiana askotan ausarta izan oi da; ni bat... izena izana baiño aundiagoa detana naiz. Zuk ongi dakizu. Onekin batera olerkitxo bat igortzen dizut; ondo ba'derizkiozu, argitaratu; txarra bada... *Oleriti! Oleriti! Oleriti!* Olerkariok ere zerbait ba-gerala agertuko dezun aldizkingia, ar zazu nere onez-ettorria. Milla esker nik ere zuri».

Eta jakin dagizun, irakurle, zelan jokatu eban OLERTI'k bere xedea, leen-leendik artu eban asmoa aurrea eroaten, emen dozu bigarren urteko (1960) lau zenbakien aurkibidea.

1) Urtarrilla-Epailla

Idaz-tankera; Gora euskera! (Tauer'tar Norberta); Maitasun baten atsekabea (Otsalar); Kolkotik (Otsalar); Sortaldeko izarra (Igotz); Txantxagorria negu atarian (Ig3rtza'tar Eusebi); Lagun zuria (Aita Fidel); IrnanoPen eriotzean (Illintxolazabal); Abadea (Egieder); Elaiak (Deunoro); Oldozpenak (T. I. Lete); Inpernua (.fautarkol); Aita Roman Beratarra il zaigu (F. Artola); Erti-kundea (Gurbindo); Miren Lurde'koari (Bera'tar Erroman M. Aita); Agur, Ixiar (Irigoien'dar Roman); Egunero (Sitz-Zulueta); Zure amorio (Muxika'tar Luis Mari); Oteiza'tar jorge'ri (J. Aldabe); Untza (Berakoetxea'tar Kepa); Nor ote? Olagoiti, K. 0.); Txorien eriotza (Coppee-Dirauket); Aur (Huidobro-Ayalde); Itxaso itxaso (Huidobro-Ayalde); Errota (Huidobro-Ayalde); Horati'ren Odak euskeraz (A. Onaindia); Bertsolarien-zurtasuna (Zeleta); Gautxoria (Aldori); Kukua eta Txepetxaren autua (B. Enbeita); Areatza'ko kanpaia (J. Lopategi); Arrantzalia (Enbeita'tar Jon-txu); Eztagonaren ereilea (Meabe-Otsalar); Loraen ikastola (R. Tagore); Morroitzaren atsegiña (G. Mistral); Enearena (Bergili-Otarri); iritziak.

2) Jorrailla-Bagilla

Eresgille itsua ta olerkari argia (Gaztelu); Euskalerrriaren ome-nez (Tauer'tar Norberta); Samurra (Aurraitz); Amen Amaren (Iratzeder); Euskera (Anjel Mari); Zurea naiz (jautarkol); Anima salbatu (Jautarkol); Itzuliko nauk (Otsalar); Zaurituaren nigarra (Errandonea); Imanoltxo (Larreategi'tar Luken); Kanta Berriak (Etxaniz'tar Nemese); Illunbe ta argi (Zerio'tar Paustin); Sollube (Egieder); Kaian (Egieder); Jauna, zu nire billa (Garitaonandia'tar Gotzon); Berbia (T. Etxebarria); Gogo-txori txikia (Bordari); Nora zoaz? (Eizari); Oi gau on! (Igartz'a'tar Eusebi); Oroiz (Deunoro); Amaren itz goxoak (Andoneghar Z.); Bizitzaren luzapena (Abeletxe); Ez zar (Okil); jun da urtia (J. Aldabe); Bitsa, ezer ez (Arrugain); Juan Maritxo'n lanak (Irigoien'dar Roman); Negu biotzean (I. Olabeaga); Kulunka (G. Mistral); Okerkeria (Rilke-Otsalar); Emaitza (A. Nervo-Dirauket); Horati'ren Odak (A. Onaindia); Bertsolariaren nortasuna (Zeleta); Nere zort-etxeari (Aita Fidel); Maitasunaren azkena (Enbeita'tar B.); Gizonaren

fedea (Aldana); Txiroa (Lopategi); Bermeo (jontxu Enbeita); Zakkurraren Otoitza (Otsalar); Agate deunaren abeslariak (Egieder); Oldozketean (A. Nervo-Otarri); Enearena (Bergili-Otarri).

3) Garagarrilla-Irailla

Erti barria; Zeruko bizizaz (Fray Luis de Leon-Gaztelu); Bildots zuritxo (G. Mistral); Eguzkia ba-dator (Errandonea); Zure begira (Dirauket); Gaurtik bestea (Jautarkol); Negarrez (Jautarkol); Kezkati nauk, kezkati! (Otsalar); Edur maindire (I,arreategi'tar Luken); Agur, Illargi (E. Igartza); Egin gogor (E. Iartzta); Ilkari sutsu bat (Tauer'tar Norberta); Ama, zer daukazu? (Egieder); Goiza (Igotz); Kanta berriak (Etxaniz'tar Nemesi); Goiznabarrena (Muxika'tar Luis Mari); 1956'garrenko Otsaillaren 3'an (T. Etxebarria); Aurtxoaren irri zuria (Irigoien'dar Roman); 200 puntu (G. Aresti); Ez sar (Okil); Gure olerkariak (Arrugain); Ama ituna (G, Mistral); Eraman gaitzazu zuregana (J. Aldabe); Artsaldea (G. Lorca-Otsalar); Atlantida ames (Verdaguer-Otsalar); Gurutz-bidea (L. B.); Arrain-saltzaillearena (L. B.); Horrati'ren Odak (A. Onaindia); Bertsolariaren nortasuna (Zeleta); Lurrean dagoen errotarriari (D. Ridruejo-Otsalar); Berdizkunde goizen (Abeletxe); Gizontxoia (R. Tagore-Igotz); Euskal bertsolarien jatoritasuna (San Martin'dar Jon); Mingots maitea (Dounoro); Izparrak (Bitaño).

4) Urrilla-Lotazilla

Literatura bidean (Muxika'tar L, Mari); Ezin dut siñistu (Sartarka); Loaz, otoi (Bordari); Itza Pinkoa baita (Borderi); Itxarokizuna (Aurraitz); Nere anayari idazkia (Xalokin, K. O.); Udako illuntza (Xalokin, O. K.); Aldapa-gora illuna (Oxiñondoko txoria); Pedro'ri begira zion (Jautarkol); Eriotza (Jautarkol); Unamuno'ri (Otsalar); Negua (Albitz); Bidasoa aruntz (Larreategi'tar Luken); Betiko eskeintza (Muxika'tar L. Mari); Spatium curvum (T. Etxebarria); Bertsolaria ta euskera (Deunoro); Urrezko loa (Egieder); Usoa (Egieder); Alde-aldera (Okil); Tresna margozlari (Illintxolozabal); Amaren biotza (Irigoien'dar Roman); Lur-sagarra (Uribe'tar Kuiril); Begoña'ko Amari agurra (Dundunzar); Eulia ta

sagua (Arruga'n); Oroisarrea (Gurbindo); Udaberria da (Pasternark Otsalar); Epaila (Karel Toman-Ootsalar); Ezkutua (A. Neruo-Dirauket); Lurra billosik (A. Machado-Dirauket); Itxastarra (M. Gosta i Llobera-Diraket); Barneko gau illuna (Gurutzeko jon deuna-Gaztelu); Eskuak (Aleixandre-Borda-Gaztelu); Gaua (Aleixandre-Borda-Gaztelu); XII'garren gizald,ko arlote baten konfesiñoa (Otto von Fleisingen-T. Etxebarria); Amabiak (**R.** Tagorelgotz); Epaillea (**R.** Tagore-Kurtzulu); Horati'ren Odak (A. Onaindia); Bertsolasiaren nortasuna (Zeleta); Txepetxa (B. Enbeita); Lekanla (Igotz); Enearena (Bergili-Otarri); Izparrak (Bitaño).

Bear bada zuk diñozu: «Zetako aipamen luze au?». Eta nik zuri, zuk dozun beste errazoiz: «Emendik atera zeinkelako, obetuz-obetuz joan zan gure literaturaren giroa lez orduko arnasa ta lanari ekin naia be. Aldi bakotxak dau bere gora-nai berezi-berezia. Eta au zeatz jakitea sekulako izan oi da literaturaren kondairako.

24. NIK «OLERTI»-N (1959-1969) IDATZITAKOA

Oiz, Bizkai erdiruntz daukagun mendi txairoa da; bertara egoteko, Garai, Trabakua, Ganbe ta Muniketa'tik dagoz bideak, gailurreratzeko naiko egoki ta errezak. Ikuspegi eder-galantak bai an goitik: Bizkai osoa, mondi ta sakon, daukazu begien mende. Zoaz, eta ikus!

Olantxe gerta oi jaku idazti ta artikulua kaz be, ekiñaren ekiñez urte batzuren buruan uste dagikezun baiño lan geiagogaz aurkitzen zara. «Baiña oneik nundik?» diñoatsazu zeure buruari; alan be, or dagoz bizi-bizirik eta buztan-dardar. Zeure sorpenak dozuz. Beraz, amar urteko nire pusketak be iñoizkoren baten norbaitek —*ut non pereant*— batu ta argitara emon gura ba'ditu be, bego emen urtez urte, nire ekarria, ez ustezko arima-zirrindak, idezleari dagokiozanak.

1959

1) Auskez jarduna; Txapelgorriko (G. Mistral-Otarri); Auenaa (Shelley-Otarri); Iretargia (Shelley-Otarri); Horati'ren Odak (VI,

VII); Edertia; Maitagarien lurraldea (R. Tagore-Otarri); Erkatuaren aberria (R. Tagore-Otarri); Ertia (G. Mistral-Otarri); Enearena; Iritziak.

2) Ederra; Damua; Getsemani'ko Baratza (Pasternak-Otarri); Gaztaro (M. Machado-Otarri); Onezkoak egin (Walt Whitman-Otarri); Horati'ren Odak (VIII, IX, X, XI); Sarri entzun; Euri-eguna (R. Tagore-Otarri); Ingizko Ontziak (R. Tagore-Otarri); Arrantzalea (R. Tagore-Otarri); Beste ertza (R. Tagore-Otarri); Enearena (Bergili-Otarri).

3) Ertilariaren gaitasunak; Esaidak, arren...; Gauari (J. M. Blanco White-Otarri); Ezki illa (G. Lorca-Otarri); Soloa (G. Lorca-Otarri); Horati'ren Odak (XII, XIII, XIV); Amaen poemak (G. Mistral-Otarri); Enearena (Bergili-Otarri); Omenaldiak.

4) Eder-eredua; Dante zoriondun (G. Papini-Otarri); Ura borbor, Zer dagik? Oraindik ez, Umeen kanta, Itxarrik (A. Machado-Otarri); Gaba, Ni ez nago bakarrik (G. Mistral-Otarri); Amalaukoak (II, XVII, XVIII, XXIII, XXV, XXVII) (W. Shakespeare-Otarri); Horati'ren Odak (XV, XVI, XVII); Olerki-liburu barria.

1960

1) Idaz-tankera; Sortaldoko Izarra; Horati'ren Odak (XVIII, XIX, XX, XXI); Loraen ikastola (R. Tagore-Otarri); Morroitzaren atsegiña (G. Mistral-Otarri); Enearena (Bergili-Otarri); Iritziak.

2) Kulunka (G. Mistral-Otarri); Horati'ren Odak (XXII, XXIII, XXIV, XXV, XXVI); Oldozketan (A. Nervo-Otarri); Enearena (Bergili-Otarri).

3) Erti barria; Bildots zuritxo (G. Mistral-Otarri); Goiza; Ama ituna (G. Mistral-Otarri); Horati'ren Odak (XXVII, XXVIII); Gizontxoia (R. Tagore-Otarri); Izparrak.

4) Amabiak (R. Tagore-Otarri); Horati'ren Odak (XXIX); Lekanda'ri; Enearena (Bergili-Otarri),

1961

I) Olertia goretsi; Lugiña ta kurloia; Guraria (G. Lorca-Otarri); Horati'ren Odak (XXX, XXXI, XXXII, XXXIII); Enearena (Bergili-Otarri); OLERTI'ren olerki-sariketa; Olerti-Egunak asten dira.

2) Euskal poesi neurkera; Aldia; Lugiña ta semeak; Horati'ren Odak (XXXIV, XXXV); Oldozketan (A. Nervo-Otarri).

3) Euskal poesi-neurkera; Horati'ren Odak (XXXVI, XXXVII, XXXVIII); Oillarra ta azeria; Pikondoa (R. Tagore-Otarri); Onespen (R. Tagore-Otarri); Enearena (Bergili-Otarri); «Loramend» zanaren omenez.

4) Lenengo jazmifiaz (R. Tagore-Otarri); Joan yaku (Orixe); Horati'ren Odak. Bigarren saila (I); Olerkaria (Rilke-Otarri); Saint-Jorn Perse, Nobel saria; Goralpenak (Perse-Otarri); «Orixe» il yaku,

1962

I-II) Astoa ta zinburruna; Horati'ren Odak (II, III, IV, V); Enearena (Bergili-Otarri); Juan Etxemendi, «Bordel».

III-IV) Belatxinga ta pitxerra; Azeria ta maats mordoia; Saia ta eperra; Aizea, ura ta lotsea; Erlea ta erlabioa; Horati'ren Odak (VI, VII, VIII, IX, X, XI); Enearena (Bergili-Otarri); Jose Agerre olerkaria il yaku.

1963

I-II) Barne-intziri; Aita alarguna; Aurra lotan; Txidarra (Tennvzon-Otarri); Uzta (R. Tagore-Otarri); Horati'ren Odak (XII, XIII, XIV, XV, XVI); Enearena (Bergili-Otarri); Dante'ren gaurkotasuna; «Olerti»-ren urteroko sariketa.

III-IV) Ipurtargia ta zapua; Zain (Gerargo Diego-Otarri); Horati'ren Odak (XVII, XVIII, XIX, XX); Uzta (R. Tagore-Otarri); «Oerti»-ren urteroko sariketa.

1964

I-II) Horati'ren Odak (III'garren I); «Bide giroak»; «Olerti» sariketa.

III-IV) Iru olerkari: Txom. Agirre kue ta Unamuno; Horati'ren Odak (II, III); Eremuan (amuno-Otarri); Igaro zirean (Unamuno-Otarri); Logos (Unamuno-Otarri); XIII'garren Rima (Becquer-Otarri); Olerti Eguna.

1965

I-II) Apar zuritan; Aldia (Juana Ibarbourou-Otarri); Bidea (J. Ibarbourou-Otarri); Jareipena (j. Ibarbourou-Otarri); Itxasontzia (J. Ibarbourou-Otarri); Eriotza (J. Ibarbourou-Otarri); Galdua (J. Ibarbourou-Otarri); Horati'ren Odak (IV, V); Olerti-sariketa.

III-IV) Irel-suzko (J. Ibarbourou-Otarri); «Urdin era Burni»; Olerti Eguna.

1966

I-II) Zigoña ta azeria; Iru olerkari il vakuz (Lazkoz, Maruri ta Arrutza); «Olerti»-ren olerki-sariketa.

III-IV) Zaharrak; Horati'ren Odak (VI, VII); Esopo'ren Ipuinäk; Olerti Eguna.

1967

I-II) Illuna ei da olerkia; Gau- jolasa; Eztegu ospatua (Evtuchenco-Otarri); Esopo'aren Ipuinäk; Iritziak; Horati'ren Odak (VIII, IX, X); Olerkia zer ete da?

III-IV) Amets mamitua; Maite-eresi betikorra (Julio Florez-Otarri); Doniane-zurak (J. A. Silva-Otarri); Bide-laguna (Evtuchenco-Otarri); Esopo-ren Ipuinäk; Txango bat, sari billa; Gaurko euskal Olertia; 1967'gneko «Olerti Eguna».

1968

I-II) Guztiok ote olerkari?; Olerkera (Bizente Huidobro-Otarri); Illak (J. A. Silva-Otarri); Gizon bat il dabe (Evtuchenco-

Otarri); Jazoten yatana (Evtuchendo-Otarri); Gure belaunaldiko onenai (Evtuchenco-Otarri); Damua (Evtuchenco-Otarri); Mao Tse-tung'en lau olerki; Bolibar (M. A. Asturias-Otarri); Artatxoriari (M. A. Asturias-Otarri); Neure izeneko Goi-aingeruari Otoi-tza (M. A. Asturias-Otarri); Esopo-ren Ipuñak; Ertia (Ruben Dario-Otarri); Horati'ren Odak (XI, XII, XIII, XIV, XV); III'garren «Agirre Saria»; Lore-Jokuak Larrea'n; Goian begoz.

III-IV) Euskera idatziaren batasuna; Zortzi poema (G. Pascolo-Otarri); Sei poema (J. A. Goitisoló-Otarri); Esopo'ren Ipuñak; Horati'ren Odak (XVI, XVII, XVIII, XIX, XX); Lore-Jokcak eta Olerti Eguna Larrea'n; Liburu barriak.

1969

I-II) Olerkaria eta olerkia; Horati'ren Odak (XXI, XXII, XXIII, XXIV, XXV); G. Leoperdi'ren sei olerki; Salvador Espriu'ren 16 olerki, katalan eta euskeraz); Esopo'ren Ipuñak; Eze-tza; Liburu barriak; 1969'ko Olerti Eguna, eta sariketa.

III-IV) Lautaro'ren aziera (Pablo Neruda-Otarri); Esopo'ren Ipuñak; Horati'ren Odak (XXVI, XXVII, XXVIII, XXIX, XXX).

Poeta ta osterantzekoen laguntzaz ur-aundiz joian arraunka «Olerti». Baiña gizontxoaren erre-miñak mugarik ez izan. Eta, esan dot, ixiltzeko agindu zorrotza eldu jatan Madrid'etik. Zer egingo? Franko'ren garai aretan txispa-ziztuaren bildurrez, of 11111-
tuturik beste amar urtetan.

Tamalgarría egiaz aldizkari eder au, amilbeera txikotez loturik legez, mutu eukitzea. Sarri emon nituan ostera be biztu-azteko urratsak, baiña itz labanak besterik ez neban jaretxi.

25. OLERKI-SARIKETAK LARREA'N

Iratzargarri doguz geienbat sariketak; ez, ostera, au gero esango dodana gaitik. Bear-bearrezko da akulua zerbait egiteko, gure izatea berez nagikerira doa-ta. Zartzaroan ez arren, gaztetan bide onena idaz-gogoia sortu ta piz-azteko. Ondo dakigu au idaz-leok. Eta zer esan neikezue olerki-lanerako?

Dana dalarik, ezin ohea da bertso-gupera sor-azteko leiaketen ziria; berez olerkari edo bertsolari ez dana, aldian bein, errena dantzan lez, itzak paretu ta eurai neurriak artzen asi oi da. Ori-
xegaitik, OLERTI sortu ta laster asi nintzan ni, emen Larrea'n, olerki-sariketak be antolatzen. Lurra samur aurkitu neban, eta bear erreza: neure asmoa iragarri orduko ainbat langille agertu jatazan. Nik bein idatzi neban: «Gizonen gogo-biotzak antzez lantzea ez da lanbide bada-ezpadakoa, bearrezko ta txalogarri baizik», Baita beste au be: «Gizonari berez dagokio eder-irritsa. Origaitik esan oi dogu: urlia edo sandia ederrak darabil, aize-bolada zakar baten eskuetan ba'lebil. Eta, ain zuzen be, egi ta eder biran gabiltz erdi-zoratuak, tximirrika autsariña argi-taket inguruan lez».

Egoki ta eder, ba, olerkiari su emotea sariketa bidez, onek bai ditu garretan jarten olerkariak. Guraria bazan be, olako jaietarako bai mena eskatu ta lortzea errez etzalako edo, mugaz emendik etzan gar aundirik ikusten; andik bai, ostera, Eskualzaleen Biltzarrak, esa_{te} baterako, 1960'an poesi-gudu edo zeingeiagoka bat eratu eban, kantu-saillez eta poema-saillez ornidua: ainbatek esku artu eben sail bietan.

Guk bere, alkarren leian ibiltearren, jakiña, urte orretako udazkenean, ostoak oritzen diran garaia bikaiñena bait da poesi-saioe-
tarako, aurretik iragarrita geunkan poesi-sariketa ospatu gendun.

Lau sail ziran sariketa onetan: I. *Lirika saila; 11. Poema bat; III. Amar alegiko sorta*, eta V. *Bertsolariak*. Orrelaxe jarraitzen dau gaur 28'garren urtean be. Saria beti bardintsu: 1.000, 500 eta 250 laurlekozkoa; nozik bein alan be esku-zabal agertu izan dira A. M. Labaien, Tolosarra, ta Bizkaiko Aldundua.

1960'an ospatu zan sariketan Orixe'k jaso eban leen-saria, bigarrena Eusebio Igartza'k eta irugarrena Igeldo'ko txaunburu Loidi'tar Paben'ek. Sariak banandu aurretik meza nagusia, Aita Onaindia'k esan eta itzaldiz jantzia, Zornotza'ko abesbatzak edertua ta Larrea'ko karmeldar eleizea ondo ornidua.

Sariak banatzean, bakotxak irakurri bear eban bere lan saritua. Orixe'k, Igartza'k, Loidi'k eta abar. Orixe'k, orrez gaiñ, itzaldi mamintua bota euskun bizkaitar idazloak gai artuz, Bazkal ostein,

lau ta erdietan, Bordari'k «Aita Bera» zanaz, Erkiaga'k «Eusebio M. Azkue-z» era Gaztelu'k bere euskal neurkera barriz itzaldiak. Baiña omenaldi ta itzaldiak urrengo saillean emongo doguz.

Bigarren Olerri Eguna 1961'ko urriaren 29'an jaitu genduan. Irugarrenean olerkari barriak agertu ziran, Joseba A. Otaegi saritua bere «Poema beltzaren arbola»-z; Enbeita'tar B. bere «Bost bizitz ozpin eta ma: tasun kopl»-z eta Ugarte'tar Martin bere «Aurtzaro-ordpenak orrazten»-ez, Nemesio Etxaniz eta Eusebio Erkiaga izan ziran maiko.

Kristo Erregren egunean ospatu zan laugarrena, 1963'an. Berandu samar irgarri izanda be, olerkariak ba-eben egun orren barrita amasei bat izan ziran sariketa euren lanak bialdu ebezanak: 28 olerki guztiz. Maikoak, N. Etxaniz, E. Erkiaga ta aita Onaindia'k aztertu ebezan olerkiok eta urriaren 27'an egin zan sari-emotea, lirika saillean Aita Gandiag'k, poema arloan Bordari'k eta Bertso sortaz B. Enbeita'k jasorik eurenak.

Bostgarrena, 1964'an, urriaren 12'an; eguraldi gogaikarria izanarren, Euskalerriko olerkari geienak batu gintzazan. Etxaniz jaunak itzaldia egoki ta gozoa. Sarituak Sabin Muniategi lenengo saillean, Ugarte'tar Martin bigarreanean eta B. Enbeita irugarrenean. Bazkari-lege ostean J. San Martin'ek gai au azaldu euskun: «Oler'tiaren jantza nundik sortzen dan». Itzaldi gogoz txalotua.

Seigarren urtean be, aurrekoetan lez, jentez ugari ta alkar maitasun biziz, ospatu gendun urriaren 12'an. Goizean, amaiketan, meza nagusi abestua, N. Etxaniz jaunaren itzaldiz gozatua, olerki sarituen irakurtze, bazkari, itzaldi ta jolasketa. Dana alka maitasunean eta, beti lez, euskal giro bizi-bizian. Axangiz'ko seme Aurre-Apr aiz olerkari bioztiak eroan euskun aurten lenengo saria, besteak beste.

1966'garren urtean be, Kristo Errege egunez egin gendun betiko poesi jaia, Euskalerriko olerzale pillo galanta baturik eta beste batzuk ezin-etorria adierazoz. Bizi-bizi agiri zan alkar maitasuna ta umore ona olako egunetan oi danez. Sariak banandu ondoren Deunoro Sardui'k bere kantaldia. Aurraitz'ek irakurri euskun Enbeita'lar Kepa'ri ta Lauaxeta'ri buruzko lana.

1967'gneko Olerti Eguna, hcti lez, Larrea'ko txoko atsegingarrian ospatu zan, Lauaxeta'ri merezi eban omena ogiñaz. Emen ziran aren anai-arreba ta senideak, euskal olerkari ta idazlerik one-nakaz gaiñera. Aurretik, gauzea giroz jarteko edo, «Olerkiak» li-burua argitara genduan, beingoan saldu zana. Neuk meza abestua , a itzaldia mezatan. 39 olerki eldu ziran sariketarako; Aurre-Aprai-z' en *Eriopetua*, /vUniategi'ren «Aizearen kideko», Igotzen 12 ale-niak eta Pcdro Maria Aldana'ren sorta.

1968'an gertaera berezia Larrea'n: Lore-jokuak eta Olerti-Egu-na. Garaiz iragarrita egoanez, Larra'ko karmeldarren komentuko Andra Maria'ren iduria koroatzea zala-ta, Lore Jokuak ospatu ziran; baita egun orregaz batera, urteroko Olerti-Eguna be, bagi-llaron 16'an.

Norgeiagoka au euskeraz ta erderaz izan zan, baiña lanik geie-nak euskeraz; guztiz 20 olerki ta 6 itz lauzko. Lanak ikusi ta az-tertzeko Batzordea oneik osotzen eben: A. Lino Akesolo, buru; Calle Iturrino, Pagadigorria, Erkiaga ta Alberto Iza, Zornotza'ko alkatea, ta A. Onaindia, idazkari.

Batzordeak, lanak ikusi ondoren, erabagi au emon eban: I. *Olerkitan*: Sarituak: N. Etxaniz'en «Larrea'n larrak lorea», Augus-tin Zubikarai'ren «Koroiko pitxiak», Sabin Muniategi'ren «Larra'ko Arnari», B. Enbeita'ren «Larra'ko komontua» ta Abel Enbeita'ren «Gizaldi entan». II. Itz *lauz*: Jaime Barrutia'ren «Zeru arnasa» eta Frantzisko Uribarren'en «Kukuak udabarri-n».

Erderazko sarituak: I. *Itz neurtutan*: «Fue una mañana clara», Jose Andres Gómez Andaluz'ena; accesit bi: A. Onaindia ta Kepa Derteano. II. *Itz lau*: «Los cerezos en flor, Francisco Uribarren; «La poesfa sede de la belleza», Karmelo Barrenetxea, ta «Los montes te cantan», Antonio Biguri.

Sari-banaketa Zornotza'ko ziñe-areto barrian egin genduan. Larrea'ko meza nagusi ostean, dantzari ta txistulariak aurretik zi-rala, burdi dotote jantzi baten zazpi neskatilla gaiñ erioazala ziñe-ratu ta an, kantu ta txalo artean, olerkari bakotxak bere lan sa-ritua irukarri eban. Jai txito bikaiña.

Jarraiko urteetan bardin egin zan, gaur arte, utsik egiteke. Jai onein zeaztasunak, barriz, OLERTI zati baterako ixildu bait zan, Bilbo'ko «Agur»-ek eta «Zer»-ek, Donostia'ko «Goiz-Argi»-k eta Iruña'ko «Principe de Viana»-k emonak dira.

26. OMENAK ETA ITZALDIAK, LARREA'N

Ez deritxat txarto dagoanik merezi dauanaren aurrean txapela goratzea. Eta euskal literaturan, beste saillak aitortu barik be, badaukaguz olakoak: euskal lurra prosaz ta bertsoz duinki erabilli dabenak. Beraz zor dogu guk oneik txalotzea. Eta zor au ordaindu gurata, Olerti-Egun baktotxean urteak zear dalako euskal idazle edo olerkari bar gogotan izan dogu, goizeko sariketa ondoren edo arratsaldean aretzazko itzaldiren bat eta alkar izketa bizi-biziren bat eukiaz.

Au naiz bedtea omenduteko asmo apartekorik ez genduan jarri lenengo sariketa egunean, 1960'an, alan eta guztiz be lau itzald; ta lau izaki aitatu geinkez egun pozgarri atan gora-azoak: Bordari'k «Aita Beræ», E. Erkiaga'k «E. M. Azkue», Gaztelu'k «bere neurkeræ» ta Orixe'k bizkaitar idazleak.

Samiñak estu dakazan giza-semeai poza emotea erruki-egintza dala, nik uster Orixe'k ogetaz urteetan arantza bat eroian izate barruan: ez eutsoen saririk emoten. 1960'ko poesi-batzaldira etorriko zala iragarri eustan ogei bat egun aurrerago. Eta emen genduan, beste euskal olerkari askoz inguratuta. Ain zuzen be, bere «Argia bera» milla laurlekoz sariztatua. Bere olerkia irakurri ta dirua jaso ondoren, beste lan eder bat irakurri euskun.

Pozaren pozez urduri ebillen gura Orixe, ari ta oni agurka. Sei-zazpi aldiz bota eustan: «Ez daki berorrek, Aita Onaindia, zelako poztasunak nadukan. Orainfiarte arantza bat erabilli dot tzean, eta gaur arantza ori atera daustazue». —«Zergatik, jaina?»— «Ara, auxe da nik euskal olerti-saillan lenengoz jaso dotan saria».

1961-X-29'an, Bordari'k «Juan Basurko Ansola» lana irakurri eban, eta A. Akesolo'k «Euskal-Esnale ta Euskal-Idazle, Yose Pau-

lo Uribarri, Okendo'ko semea». Tauer'tar Norberta'k, oster, soneto bat bialdu euskun Praga'tik lenengo «Olerki-Eguna» gogora ekarriaz. Azkenez «Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga, euskal idazlea, E. Erkiaga'k irakurria. Urrengo urtean (1962), omenaldi lez, Nikolas Alzola Gerediaga'k «Jon Ezenarro («Txori-Txiki») euskal olerkaria» irakurri eban, eta E. Erkiaga'k «Aita Kanlido Basabe, S. J., euskal idazlea». 1963'an, neuk irakurri neban «Iru olerkari: Agirre, Azkue ta Unamuno» derotxon lana. 1964'an, Juan San Martin'ek irakurri euskun «Olerki muiñari buruzko solasa». 1965'an, E. Erkiaga'k «Arrutza'tar Mikel, euskal idazle». 1966'an, «Gaurko euskal olerkia», neuk irakurria. 1967'an «Lauaxeta»-ri omenaldia. 1968'an, «Guztiok eta olerkari?», neuk irakurria. Eta Lore-Jokuak. 1969'an, «Olerkaria eta Olerkia», neuk irakurria. Olan-txe jarraiko urteetan be.

Bai, olantxe egin jakezan omenaldi bioztiak, Deba'ko «Tene»-ri, urte askoz Abadiño ta abar irakasle izandako «Azpeitia» andreaei, «Labaien» jaunari, E. Erkiaga'ri, Muniategi'ri, Aurre-Apraiz'i, G. Manterola'ri, Eguzkitza'ri, eta nori ez? Baiña oneitan bi izan ziran bereziki ospetsuak, ba ta 1973'an Lauaxeta'ri egiña eta bestea 1974'an niri egin eustienar

Eguraldia, onerako naiz txarrerako, aurretik gertatuz doa; ari edo oni eskiñi bear jakon omenak bardin gertakuntzak eta giroa bear izaten dabe. Gure urteroko Olerki-Egunetan sarri gogora ckargun Lauaxeta ta onen poesi-lan baliotsua. Omenaldi zarata-tsua, ba, larakoa zuloari lez etorriko. 1972'an, onek itz arek mintzo, urrengo urtean Lauaxeta'ko olerkari fusilatuari omena eskintzea erabagi genduan. Baita erabagia bete be; beioa aurretik liburua ta gorazarrea ondoren. Olerki Egunean opatu geuntson egun ederra, oso'osorik beretzat izan zan, meza, itzaldi, alkar-izketa ta idazti. Antton Valverde kantariak, bere aldetik, asko zabaldu zituan Lauaxeta'ren poema arin samurrak.

Azken urteotan, eta batez be Gernika'n atxillo artu ta tiroz il eben urteburuan, 1987'an, omenaldi asko ta gogoangarriak izan ditu. Aurten Ertzaintzak egiña. Bagillaren 20'an abots bat urrutizkiñez Gasteiz'tik iñostana: «Estepan Urkiaga «Lauaxeta», Euskal Herriko olerkariren artetik gorenetarikoa dugu. Bera izan zan «Ertzaiña» hitza asmatu zuen idazlea. Nahiz eta bere hilketaren

50 urtea bil bonen 25ean bete, Eusko Jaurlaritzaren Hertzaingo Sailak astebete aurreratu du, jai eguna izanez gero berritarrak errezago parte har dezaten».

Omenaldi bikain-bikaina. Asteko Torrebellela Kultura Etxean literatura ekiña. Izlariak: Mungia'ko alkate dan Juan Berrostegeta, Jon Kortazar, Santi Onaindia ta Ertzaingo Sailburu dan Luis Betolaza. Gero, Ertzaintzaren eresbatzaren musika soñutan, Lauaxeta mutiko zala bizi izan zan etxe-orman jarritako marmolezko gomutagarria agertzea, bazkaria ta arratsaldean «Lauaxeta» filmea.

Laukiniz'ek be omendu eban mai-inguru batekin, Lino Akesolo, Luis Arostegi, Aita Onaindia, Jon Kortazar ta X. Aranbarri'k parte arturik. Erri-giro aintzagarria gazteen artean atan be.

Euskerazaintzak eta Euskerazaleak orobat jai ederra eskiñi eutsoen Lauaxeta'ri bagillaren 27'an; meza lenengo Kepa DeLina-ren eleizan, amabost bat meza-emoille altaran giñala. Ondoren, Billela areto nagusian, jakintza jarduna, Iñaki Zubirik, Aurre-Aprai'z'ek, A. Zubikarai'k eta Arostegi'k itz egiñik.

Nik be urteetan barna euskerearen aldeko lanean jarduna nintzala-ta, intzentsu pitin bat merezi nebala esan eban norbaitek. Eta emen be lurra apatz egonik, 1974'ko azaroaren 24'an. Olerti-Egunez, omendu ninduen. Eguraldiak lagundu ezta be, jentez ainbateko Euskalerrri osotik etorritakoz. Meza, olerki-sariketa, bazkari, kantu ta itzaldi ezin obeto. Andik eta emendik ainbat zorion-agur eta esku-erakutsi, baiña Iruña'ko Aldunditik Bakarne ta Idoia Erbiti'k eta Donostia'ko «Zeruko Argia»-ko idazle taldeak bialduta Jone Azurtza'k ekarriak. Biotzez eskertu nitun.

Eta azkenez «Orixe Omenaldi» liburua zelan sortu zan esatea, zuzentzari berea emotea baiño besterik ez dala deritxat. Olerti Eguna zan. Goizeko amarrak. Etxaniz zintzo-zintzo oneratu oi zan beti. Orixe il-barri zalarik. Azkenik Zabalegi'n ikusi genduan biok, alkar-izketa gozo-luzea eukiaz. Batzuk diñoelatz zala Orixe, eta guretzat etzan olangoa. Aren bizia ta lanak gogoratuz, askoren arteko idazlanez omen-liburua osotzea erabagi gendun. Nik egingo neban, euskal idazleai aginduz, lanak batu ta gertatzea. T. M. Ara.

naide'k egingo eban berea; «Orixe euskaltzain» Zelata'k: «Orixe euskeratzalle» ibiñagabeitia'tar Andima'k; Olarزابardar Martin'ek «Orixe izkera-zale»; «Orixe olerkari» Aita Onaindia'k; «Orixe'ren metrica» Lekuona'tar Manuel'ek; «Orixe itzorkunlari» Altuna'tar Patxi'k; «Izkuntzaren nekazalea» Erkiaga'tar «Euskaldunak» Zaitegi'k; «Urte guziko Meza-bezperak» eta A. M. Labaien'ek. Liburu eder-ederra zeozer jakin nai dauanarentzat.

Lanak pillotu nitunean N. Etxaniz'i emon neutsazan, *eta* onek Labalen'i. Urte bitan lez egon ziran argitara bage. Gero, L. Mitxelenaren atarikoaz, beste lan batzukaz eta Euskaltzaindiaren ardurapean argitaratu zan N. Etxaniz'ek eta biok asmatu ta ernidutako «Omenaldi» liburua. Bakotxari berea emen be.

27. 70 MEZA FITXA

Orri askeak ziran oneik, 70 guttiz. Modan egozanak orduan. Eta euskeraz, zergaitik ez? Orrek bultz-oragin eustan **Amar** gauza etozan eurotan: 1) *Sarrera*; 2) *Otoitza*; 3) *EPir.'ola*; 4) *Koru-kanta*; 5) *Ebanjelioa*; 6) *Eskintza*; 7) *Opa-otoitza*; 8) *Sagara-aurrea*; 9) *Jaunartzerakoa*; 10) *Azken-otoitza*.

Bost milla orritxo atera nebazan, Lizarra-Nabarra'ko Jainkoi-tza'ren irarkolan, 1960. Urte gutziko mezak eta jai nagusiak etozan orriotan, bakotxcan irudi bat, domeketan berdea ta Santu-jaietan gorria ebela.

Orrez gaiñera, meza asi aurretik zuzentrailleak egin bear eban aurre-itzak be ba etozan. Praticuak ziran oso. Asko ziralarik-be, laster zabaldu ziran geienak.

28. IRU POEMA

Ez da arbuigarri munduko idazle onen lanez geure literatura bera-berastu nai izatea. Olan dagigu emen. Rabindranath Tagore Kalkuta'n jaio zan 1851'garren urtean. **punterengoa**, Nobel saria artu eban, India'n ez dau kidekorik. Izkuntza geienotara biur-

turik dagoz aren poema, irakurgai, nobela ta ipuiñak. Aren jaiotz eun urtebetea ospatu naita, nik be iru poema oneik euskeraz ipiñi nitun, naiz-ta urte bi geroago agitaratuak izan.

Tagore izatez zan egiazko olerkari ta gaztetan dakusgu itz-neurtuak egiten. Orixe zan bere deia. Ez eban izan, baiña, bide ortatik nok lagundurik. Inglaterra'ra bialdu eben gurasoak lege-ikastera. R. Tagore gaztea, alan eta guzti be, ez egoan egokion lekuan, eta Lege ikasteari muzin egiñik, etxe zokora biurtu zan. Emen ekin eutson olerkigintzari, izen ospetsuaren jabe egiñaz epe laburrean. Olerki samurrak egin ebazan, garbi ta gozo, artzain kanta ta maiteleloak. Baita India, bere aberria jasorik, kantu errikoi sutsuak be. Ogei ta amabost urte eukazala, il jakon emaztea, eta andik urto bira —1904'an— alaba bakarra. Arrezkero, guztiz jainkotiar eta jakintzazko dogu aren olerkia. Baita suarra ta leguna be, gogo barne-barnean sortua, zoritxarrak eragiña.

Azal ta mamin, goi ta bee, idurikizun eta esan, bere kera apartekoz jantziak ditu R. Tagore'k osotu zituan lan guztiak. Olerkietan, ostera, ederren eta ospetsuen, emen datozen iru poemak: «Illargi barria», «Baratze-zaiña» ta «Liriku eskintza». Iru liburuxkok batean damotsudaz emen, bakotxa ainbat poesi-lanez oretuak izan arren. Bengaleratik inglesera berak itzuli zituan. Egiazko barritzaille dogu, pizkunde barri baten buru; poema asko ta asko errikanta biurtu jakoz.

Illargi barria. Bengaleraz *SISU* (ume) dozu. Iretargiak uneak ditu, baita umetxoak be. Alaba bakarra il jakonean, Almora'ra (Himalaya'ra) baztertu ta antxe aragitu eban idazti Iilluragarri au, umetxoai eskiña ta 40 poematxo dituna, Biotza odol-jario, bizia eroan eziñeraiño nunbait, umetako gomutaz gozatzen ei eban barren zauritua. Olan diñosku berberak. Ez da sekula idatzi ume-gogoetaz, ain samur eta sarkor.

Baratze-zairic! *Kshanika-Kalpana* bengaleraz. Poematxo bizi-biziak, errez egiñak, zirikada ta zimikoz ga'riozka, jostariak. Izadiari soka biribilduak dira geienak, inguruko mundu bizia bait dabe iturri berezi; baita berari atsegin jakon maite-gaia be. Irakurritz jauzi dagigu olerki batetik bestera. 85 poema.

Ltriku-eskintza. Gitanjali. Guztiz 103 olerkitxo. Lora mistikuz betea dozu liburu au. Zoriontsu da gogo Jainkoaren aldamenean; ortarako onoinenak, birtuteak, sortarazo bear barne'muiñean, A ta Aren izakiak maitaturik. Bibliaren antzeko liburua, lau alderdie-tatik poz-atsegin betea dariona.

Tagore'ren bururakizunak txito kristauak dozuz, erlejiñuz in-dutar izanarren. Asko ikasi eban, antza, Sartaldean ibilliz eta Liburu Santuak irakurriz. Beretzat izaki maitekor da Jainkoa, *gi*-zonaren billa beti. Gogo aldaketa, asarre, azkortasun eta indutarren liburuetan aurkitzen diran gaiñerako uste ta siñiskairik asko aiatu be ez dauskuz egiten.

Makiña bat itzaldi ta alkar-autu emon eragin eutsoezan mun-duan zear. Baiña aomenaren erpiñeraiño eldu zan, 1913'garren ur-tean, Nobel saria, munduan danik eta elerti-sari garaiena esku-ratu ebanean.

Gandhi'ren adiskide miña genduan. «India'ren jagole aundi», arek iñotsonez. 1941'ko dagonillaren 7'an il zan.

175 orrialde daukaz liburuak. «Itxaropenak» argitaratu eban 1963'an, bere «Kuliska Sorta»-n, 53 zenbakia. Guztiz pozik artua izan zan itzulpen au. Goiz baten, ni Debatik Zumaia'ra trenez niñoiñala, neskatiñla bat neukan aurrez aurre «Iru poema» liburua irakurten. «Nolazko liburua?» galdetu neutson, eta arek beingoan: «Eder-ederra, jauna! »,

29 EGUNEROKO MEZA

Ba genduan guk utsunerik lenago. Erdel errietan mezatarako liburuak ekiezala, guk ez geunkan bat bera, txikitxoren batzuk ken-duta. Eta eusko eliztarrak be, olako zerbait esku artean erabilliz, orduan baitik bat, meza santuan parte artzea, naitaezkoa zala adie-razo bear. Gauzak aldatu egin jakuz; erriak gaur, liburu barik be, beroago parte artzen dau mezatan,

Orduko Aita Santu Paulo XII'garrenak bere aldetik kristau-mundu osoari zuzendutako «Mediator Dei» eritxon idazki edo

Enziklikan onan «Txalogarrt dira benetan, Eukaristi Opa-ran bat egitea kristiñau erriari errezago ta onurakorrago izan da-kion, cleiztarren eskuetan «Meza liburu erromatarra» egokiro jar-t2n alegiñak egiten dabezanak; orrela, eleiztar zintzoak, abadeagaz elkarturik, Elizaren itz eta asmo berberakaz otoitz egin dagien».

Antxiña konturatu nintzan ni onetaz Bizkaia'n geunkan utsune larriaz: ez geunkan Meza libururik bizkaitar euskaldunok. Era ni barruak eraginla, 1938'an asi nintzan lanean bakotasun ori beto gurarik. Erdi-esan dodanez, Nanklares'en nengoan ni atxillo, guz-tion arte abade ta praille pillo galanta oghiñaz. Denpora ba-nebala-ta, antxe asi nintzan «Latin Misala» euskeraz jarten. Orri ekin neutson Karmona'n eta Rigada'ko eremuan be, eta azkenez Larrea'n. 1960' an, igande ta jaietakoak eghiñak neukazan, eta erriaren bear-izana pizkat arinrzeko «70 Meza-fitxa» kaleratu. Garai atan asi zan Elei-zea II B; katikano Batzar orokorrerako gertakuntzak iragarri ta mamintzen.

Nire asmoen lorratzez ba ebiltzan beste bitzuk be. Elorrio'ko Jaime Kerexeta orrein arteko bat. Goiz-berandu baten ona etorri jatan: nik argitara emondako fitxak eta egindako neukazan misal-itzalpenak gura ebazan, Nik, egiaz, pozik itxi neutsozan lanak, neronek orduan ez bait neukan dirurik lan guzti ori argitaratzeko. Biona da, ba, liburu au. Eta Kerexeta'k egia diño «Eguneroko Meza» liburu au egiteko eskuartu dabenak, oneik zirala idatzi ebanean: «*Egille*: Kerexeta'tar Jaime ta Aita Onaindia; *gertatzai-lle*: Kerexeta'tar Jaime; *Marratzari*: Gallastegi'tar I.; *Trarruts-ziiizentzaille*: Gallastegi'tar Karmen; **Bizkai'ko** seme jator batzuk; *Arduradun eta jabe*: Kerexeta'tar Jaime; *Irar-kolan*: Bilbo'ko «Grffieas Ellakuria» ta «Grffieas Loroño». 859 orrialde.

Eguneroko meza-liburu onetan daukaguzan itzulpenak, ba. San-tuen saillekoak izan ezik, neureak dira, naiz-ta Kcrexeta'k liburua atontzerakoan, bere orrazketak sartu. Sarreran agertzen diran Otoi-tzak, Eraspenak, Jaunartzea, Illuntzeko otoitzak eta abar, «Got-zale» Liburutik artuta dagoz.

Euskera landu sarnarroan dauk tzu, l:ati'ta gozo ta ulert-errezean. Joskera eder-oderrez; berau izan dabe eredu ondoren azaldu ja-

kuzan beste onako lanik geien-geienak be. Bost milla liburu egin ziran, eta gaur nekez aurkituko dozu bat bera, erosi nairik billa ha zabiltz (Meatz oneko urre), nunbait.

30. ONBIDEA

Santa Teresa'ren «Camno de Perfección» euskeraz. Euskera-tzailleak: Aita J. Onaindia ta Aita Lino Akesolo, karmeldarrak. Ellakuria irarkolan, Bilbo, 1963, Sarrera lenengo, Teresa'ren aldiz-aldizko Bizitz-gomutea sei orri, Ama Teresa otoitzarien Irakasle sei orri, «On-Bidea» 39-209 orrialde, «Biotz-oivak» (Exclamaciones del alma a Dios) 12 orri, Olerkiak» 13 orri, eta «Esnak» iru orri. Guztira: 279 orrialde.

Noberaren eritxiz gaiñera, pozgarri izan oi jatzu besteak, tzia irakurrita gero —ez irakurri bage, askok egin daroanez— zer diñoen jakitea. Liburua agertu zanekoxe (1973'an, Egan'en) onela emon eban bere eritxia Manuel Lekuona'k:

«Avila'ko emakume aundi aren liburu guztiak dira irakurgarri. Ez bait-da errez aien artean aukera egiten. Baiñan gure euskeratza-llak au aukeratu dute, eta guk uste ondo aukeratu dutela.

Camino de Perfecthin gogozko otoitzerako deia da; liburu onen bitartez Teresa Deunak, itzeko otoiztunak gogozko otoiztun egin nai ditu: maillarik goieneko gogozko otoitzera bultzatu. Eta ortarako ematen dituen arauetan, berak esan gabe ere bere burua agertzen du, bide ortan berari gertatua erakusten du; ori bai, beste norbaiti gertatua bezela, baiñan berak nola otoitz egiten Muan erakusgarri, irakurleen xuxpergarri. Orregatik, Teresa'ren liburu au ere, besteak bezelaxe, auto-bibliografi-kutsuduna da. Eta besteak beste, orretxegatik da ain gogoz irakurtzen. Donoaren barru-barruko ezkutuak erakusten dizkigulako.

Eta zer esan, euskeratzalle biok egin duten lanarentzat?

Biok, zein baño zein, saiatu dira beren egiteko saillean. Batek kapitulu bat, eta besteak urrengoa, guk dakigunez, eta idazkerak berak ere aditzera ematen duanez, Bizkaiera jator-jatorrean. Eus-

keratze-lan erreza ez dalarik, naiko «errez» egiña. Ots, naiko argi. Emakume bizkor aren irudimena nundik nora dabillen, erderaz bezain errez aditzeko eran. Ez bait-da euskeratze ontan, Teresa'ren erdera jatorra bat ere gogora ekarri bearrik —beste zenbaitetan gertatzen dan bezela—, egilleak esan naiduana ulertzeko. Irakurtzallearen adimenak ez du, emen, erderan zear igaro bearrik, Deunaren asmoa ta pentsamentua ezagutzeko. Zuzen-zuzen dijoa bere elburura. Eta ez da «meritu» makala.

Et ondoren zentzunez egindako akatsai buruzko oarrak.

«Guk —diño—, «*Camino de perfecciOn*», On-bide ez baño Obera bide esango genluan; bañan zerbaitegatik ipiñi dute euskeratzalleak dagon bezela, eta ixillik gauden. Bear bada, «Obera bide» esanda, zeinbatzuek «Obera bide» adituko ote zuten bildurrez? Dana dala.

Beste akats bat?Gure euskeratzalleak *elipsis* askotxa erabiltzen ez ote duten; ots, aditz laguntzalea geitxo ixiltzen ez ote duten. *Elipsis* oiek, ondo erabilli ezkeru, oso ondo ematen dute; bañan ortaraku neurria erabilli bear; neurritz, murriz-antzean obeto, guk uste, ugari baño».

Alderdikeri bako kritikak eskatzen dauanez, diardu emen. M. Lekuona'k bere idatzi ta lan guztietan erakutsi euskunez. Zugatz onak igali ona, jakiña.

Itzultze au zala bide, M. Lekuona'k ba eban aparteko jakingura bat be. Igaz (1986) an Andoain'en, Patrizio Orkaiztegi'ri omenaldia egiterakoan, ni deitu ninduen ari buruz itzaldia egin neugian. An zan On Manuel be, ni baizen barritsu. Maitik jagitekuan, birritan itandu eustan zelan euskeratu genduan «ON-1BI-DEA». Zeintzuk kapitulu ziran nik itzuliak eta Aita Lino'k itzuliak. Eta egia autortu neutson. Begoñan ikasle giñala asi gintzazala «Donekuntza-Bidea» tituluz Zornotza'ko *Karmengo Argia-n* zatika argitaratzen, gero 1963'an liburu osoa atera ba genduan be.

Arek, baiña, guk egindako lana zelan izan zan, jakin nai eban. Eta argi ta garbi esan neutson: lenengo biok asi giñan, baiña irugarren kapitulutik zortzigarrenerakoa Aita Lino'k bere kontura ba-

karrik burutu eban. Gero, liburu osoa itzuli ta argitaratzea otu jakunean, Lino geratzen zan bederatzigarren kapitulutik ogei ta laugarreneraiñokoa eta nik gaiñerakoa, XLIVra arte. Nik garaiz amaitu neban egokidana, baiña Akesolo asi barik oraindiñokarren; falta ziranak kapituloka osotu genduzan. Beste zati danak, neu-reak dira; «Ama Teresa otoizlarien Irakasle», barriz Aita Lino' rena. Emen be baktxari berea.

31. GURE BERTSOLARIAK

Gure bertsolariak. Bilbo, 1964, «Bilboa» irarkolan. 336 orrialde.

Euskaldunen bertsolaritza doai gotorra dozu, gure aozko literaturaren ezaugarri nebarmenena, ez bakarrik azken urteotara arte eskola aundi bako erriaren poesi-kutsuz jarioka daukagulako, b. Ura erri-biotzaren eragin samurrak eta ikutu gozo-atsegiñenak bertsoz iraultzen trebe dalako be. Or gure bertsolaritza egi-egiazkoa. Eta auxe da liburu jakingarri onek azaltzen deuskuna.

Lau zatitan eratua dki «Gure bertsolariak» liburua, onela edo. I. *Bertsolariak antxiña*; *Euskal bertsolaritza*; *Bertso-rnue-tak* (klaseak), eta IV. *Gure bertsolariak* (istori pizkat).

Liburu oso trinkoa, irizleak naiko goretsia. Beiñola «Agirre Saria» irabazi ebana. Itxi eistazue, beraz, gaiak baintzat aitatzea. Lau zatiak dituzu garrantzi aundiko, bertsolari ta bartso-gaietan murgildu nai dabenezat bereziki.

Lenengo zatian, au da, *Bertsolariak antxiña* atalean, gaiok datoz: Bertso esaleak, bertso egilleak, bertsolarien ibillerak, bertsolariak literaturan (Egipto, Txina, Japon, India). Ebreotarren artean: Idazteunean; Griegoen artean aedak, rapsodak; Erromatarren artean: Bergili. Kelt'arren artean, bardoak eskopak. Jermamtarren artean: eskaldak. Prantziako elezar kantariak; Probentza'ko trabadoreak: Prantzia'n eta Italia'n; España'ko ta Portugal'ko urihuruetan. Bertsolariak erri-izkuntzen azkortzaille. Eusbera, gure

izkuntza zarra. Euskal gogo zarra ta bertsolariak, Euskal kanta zarrak: Gerta-olerkiak, maite-leloak, irri ta negar, ardao kantak, jainkozko kantak, pastoralak.

Bigarren zati euskal *Bertsolaritza* deituan gai oneik datoz: Bearrozko legeak, bertso-gaiak, gaitasunak, euskal iduri-kerak bereziak, euskal neurtitzak. zenbait zeaztasun: zortzikoak, bederatzi puntuokoak eta abar (zortziko nagusi, tx'kia, barr'a, zazpi, ta siekoa barrirri, bederatzi puntuokoak), euskal poesiaren jantzia, (bertsoaren igikera ta azontua, neurria, etena, amai bardiña).

Irugarren zatian *Bertso-muettak*, gai oneikaz: Ume-bertsoak, kirol-bertsoak (pelotariak, aizkolariak, korrikalariak, mendigoizaleak, arraunlariak, burrukalariak, ikubilkalariak, ostikolariak, txirringulariak), erlejiñozko bertsoak (Gabon kantak, Andra Maria euskal kantetan), neska ta mutil zarronak, Ameriketara doazanek, trikitixak.

Laugarren zatian *Gure Bertsolariak*. Eta gaiok: Euskal bertsolaria, bertsolaren nortasuna (eten-iduriko aria, iduriaren bizkortasuna, andik onako ibilli urduria: bertso aldrebesak, gomutamen euskorra, doiñuaren apaiña), erriaren bertsolarietasuna, bertsolari eskolatuak (bertsolari eskolatuak Gipuzkoa'n; a) Iparragirro, Bilintx, P. M, Otaño, Eizmendi'tar Iñaki «Basarri»; b) Bizkaitar oleskariak, a) Felipe Arrese-Beitia, ta h) Enbeita'tar Kepa; d) Arabar bertsolari eskolatuak: J. P. Ulibarri; e) Bordele napartarra; g) Etxahun zuberotarra; i) Joanes Otxalde; j) Piarres Ibarrart, «Bettiri»; Bertsolari eskolabageak: a) Gipuzkoa'an: Pernando Amezketarra, Xenpelar, Pello Errota (Pello joxe Elizegi), Jose Manuel Jujanbio, «Txirrita», Bizkaikoak eta mugaz andikoak, Bertso-jartzailleak, gaiak zelan?, eta epai-maikoak?, bertsolarien Zaindaria, bertso-batzaldiak, oraingo txapelketak: Bizkaiko txapelketak, Nafarroa'ko txapelketak, Gipuzkoa'ko txapelketak, Bidasoaz andik, bertso-paper sariketak.

Auxe nire liburu onen guna. Ez dozu esango garrantzi bakoa danik, Erriak eta jakitunak txaloka artu eben berau, batzuentzat (bizkaieraz egoalako edo) ain gogoko ezpazan be. Ezta errez, izan he, mundu guztiari atsegin emotea.

ONAINDIA

MILA EVSKAL-OLERKI EDER



Nire lenengo liburuaren azala,
Paulin Larrañaga eibartarrak
egiña

F



£.4* £4 £14
I'z4Rmszo4*;.k.


Larrea-ko eleiz-aurrea, neguz:
arriak bizi, zugatzak billos.

SANTA TERESA

Egoitzak



«Egoitzak», Santa Teresa-ren liburua.
M. T. Agirregoikoa-k egindako marrazkia.



Arantzazu-tik Oñati-runtz
gatoz Laspiur, Kapanaga ta ni,
an euskal batzar bat ospatu
ondoren.



Paben Loidi-ri egindako omenaldian,
J. M. Leizaola ta M. Lekuona-rekin,
bazkaiten



Larrea-ko baratz ixillean,
egurasten naz lore artean.



Larrea-ko «Olerti-Egunean» sariak
banandu ondoren, 1978.



Zornotza-ko umeai olerki-sariak
emoten, 1981.



Markina. Erdotza-ko Andra Mari eleiza.
M. Gema Etxebarria-Onaindia-ren ezkontzan.

Juan San Martin'ek *Egan'en* (1965, 161 orr.) eritxi emote luze samarra egin eban. Beretzat ba egozan akats batzuk, baiña oso gitxi 336 orrialdeko liburu baten, euskal idazti ugari au, gaiñera, ez bait da edozelan gogo beteten. Len-zati naasitxoa aurkitzen dau, arri-erora ta bertsolari zarren ibilleretara jorik larregi luzatu nintzalako. Ni alan be ez nozu iritxi ortakoa. Euskera ta euskal kanta zarretan sartu aurretik egoki zala iduritu jatan bertsolari mundu ori zer zan eta nundik etorren zerbaitegaz argitzea. Ura dakarren iturriak, nunbait, non daukan sorburua: au logikak eskatzen dauku.

Sarrera guzti au amalau orrik osotua da. San Martin'entzat, baiña, guzti onek «lasto-pillaketa dirudi». San Martin ba-doa irakurten, eta ez dakit zer jazo jakon... Nik idatzia ulertu ez ete? Urrengo lerroan beintzat, au diñost: «Ori gaiñera —Aita Onaindia biotzeko adiskideari, parka eskez esan bear diot—, bestela ere bere idazkera astun xamarra dala, errikoitasunik ez duelako eta orrelako eskolastiko pixu bat duelako. Usain au ezta arritzekoa, iru urte Filosofia gaiak eta lau Teologia gauzak ikasten Eskolastika barruan egiña nozue-ta. Eritxia emokeran sarri bota botatearren, aoak zer diñoan konturatu barik: gizonak, baiña, buruz jokatu bear dau, eta ez aoz.

Lenengo zatiko zortzigarren ataltxoan euskal kanta zarrak datoz. San Martin'ek: «Euskal kanta zarreri buruzkoa oso ona da». Geienbat atse-gaitz dozu San Martin, baiña emen itz beteak darabiltz, naiz eta emen be, azentua ta onelakoak zirala-ta, Aita Gaztelu'ri kasu egin neutsolako nigaz bat ez etorri.

Bigarren zatiaren askenaldera oker aundi bat dator, eta oker onen *errua* Basarri'k *ei* dauko. Onek idatzi eban bein «mugaz andikoak bertso puntuak etzituztela zaintzen emendikoak bezin ongi». Onentzat euri-jasa galanta; niretzat, barriz, larrosa erauntsi. Onela: «Aita Onaindia'ren lana, oiek gora-b2ra lan ona da. Bearrezkoa genuan bertsolaritzako iritzien bilduma bat gaiñerako bide ta legeekin enziklopedia antzera egiña. Benetan ezaugarria. Nere salakuntza oiek uskeri batzuek dira liburu sendo onetan».

Irugarren eta laugarren zatiak atsegin ditu San Martin'ek. Bertsolan txapelketaetan erria zur egon oi da, epai-maikoak ze mo-

dutan jokatzen daben kontuan artuz, Ezta errez entzule guztiak puntu batera ekartea. Orixegaitik itzelak esan oi dabez maikoen aurka. Nik olako zerbait diñot laugarren zatiaren azkenerantza, eta «Auzi txarra dakar emen Aita Onaindiak —diño San Marti'nek—. Onetan ez bai du egingo euririk danon gustora».

«Dana dala, —diño amaitzeko—, utsune ederra bete digu liburu onek. Badago bertan zer ikasi. M. Lekuona-ren *«Literatura oral euskerica»* aspaldi aitu zanaren orde z datorkigu, ta euskera utsean gaify:ra. Emendik lurrera, bertsoaritzazeri buruz jardun nai duten guztiak f ango dute liburu onen bearra. Berarekin, zati ederra bete du gure literaturaren jakintzarako»,

32. ONDARRAK

Txomin Agirre, euskal erriko nobela idazle txukuna, 1864'ko maiatzaren 4'an jaio zan Ondarroa'n. Eta aren jaiotzatiko urtea ospatzean Ondarru etzan lo egon. Ainbat jai egin ziran jazoera ori duinkiro ospatu gurarik. Erri-erromeri, itzaldi ta liburu, erakutsi zan bein ta barrero apaiz apal au goratu naia.

Olakoetan orri ta liburutxoak atera ta gauzea girotuteko etxez- etxe zabaltzea, on-ona dana edozeñek daki. Eta ondarrutar bizkorrak urte orretako maiatz-bagillean «Ondarroa, Boga Boga» aldizkaria 28 orrialdeko zenbakia kaleratu eben Txomin Agirre'ren omenez. Orduko euskal idazle ogei baten lanak daukazuz bertan: Gorostiaga, Zubikarai, Kamiñazpi, Araxes, Gama, Erkiaga, Onaindia, Mitxelena, Claveria, Correraz-Lazaro, San Martin, Iparkale, Olazola, Villasante, Aurre, Bitano, Lojendio ta Iturria'ren lanak, eta Ibarzabal, Enbeita, Urtubixa, Azpillaga, Lopategi, Uztapide, Basarri ta Mugartegi'ren bertsoak.

Nik, orrez gaiñ, neure aldetik zerbait osotu naita, goiz oso bat Ondarru-giroz ase-bete ondoren, ango kutsu gozoz eta Txomin Agirre'ren idazlen zatiz «Ondarrak» liburu eskiñi neutson Euskalerriari. Grficas Bilbao, Bilbo, 1964 atera zan liburu onek 264 orrialde daukaz. Milla aleko argitalpena; Ondarru'ko jai areitan saldu zan geiena,

Gaiok daukazuz bertan: Atarian Agirre-ren *bizitza* (jaiotza, umezaroa, meza barria Urkiola'n, Zumaia'n moja-kapellau, euskaltzain, eriotzea). *Irakurgaiak*: gerturidiak, (Añemendi'ko Lorea, Kresala, Garoa, Ni ta ni), olerkiak, ipuñak, Elizgaiak, kondaira-kimak, aurtengo omenaldiak).

Agirre-ren bizitza guztiz laua ta baketsua izan zala adierazi bear, ez eban buru-auste aundirik izan bere egunetan; moja batzuen kapellautzan ez eukan euki be eguneroko gauzetatik kanpo zeregiñ aundirik garai atan. Ez eban auki lazkeri, etsakeri ta aurkakorik; lau ta soil, euskerari ta arima-zaintzari emona igaro zan mundutik. Guri gerturidiak eta sail onetan ipiñi nitun oneik: Tru eresi, gaua, ekatxa, zer esanak, Kitolis, arrain sailtzailleak, Joanes artzaia, Azoka ta dema, ta abar aren liburuetatik arturiko pusketak.

Olerki-saillean onela idatzi neban: «Agirre arima eder eta onera makur baten jaube da. Arima orrek ezirik eukazan bere ta griñak; onela aren barne-baratzean geroago ta mardulago egiñaz joiazan onbideetako lorak dakarren zorion-aparra». Apar orrek zipriztinduak dozuz Agirre-ren bertsoak. Oneik datoz emen: Ipuia, Aritzari ta euskalduneri, Naikua juat, Mariñela, Kantariak, Itxasertzian, On Pedro Nobia Salzedo'ri, Zer pakea! , Gernika'ri Lora batzuk, Ama bat, Sara'ko Lorea, Jesus'en Biotzari, Agure-kanta, Ai balekite! , Itxas-aldian, Seiaskatxo bat! , Eresiak jesu's'i, Ondarribi, Txori alai, Au ondamera! , Euskaldun bat!

Munduko idazle geienak lez, ipuinzale zan Agirre. Bere nobelak ipuin antzera idatziak, kondaira ta eguneroko bizitzatik jasotako bizitz-orritz txukunduak. Oneik datoz nire liburuan: Emango nion, Erloju konpontzen, Marrubi itzala, Pazientzia, Gizon jakintsua, Buru-azurra, Maiton itzontzi, Anton bekosko, Lenbiziko samiña.

Eleiz-gaiak saillean onan niñoan nik: «Arimak, naiz-ta Jainko batek berberak egiñak izan, eztira iñolaz be bardiñak, ez gara danok izakera bardiñekoak, batzuk setati ta bizi, beste batzuk otzan ta gozo baizen. Orati'ren aburuz, kutxa ixil bati eragiñez, zotz egitean dagokiguna daukagu bakotxak. Agirre leun, gozo, mee, alai, leñargi ta maitagarri genduan. «Aren idazlanetan eleiz-usa;ña jarioka, on-ereille gizartean eta liburuetan. Irakur oneik: Gabona

ta egunona, Jesus Umearen estalkia, Pulvis es, Convertimini, Matetasuna, Juxta Crucem, Gogamenak, Jesus'en Nekaldiko itzaldia, Esaera bereziak, Lulu ta Manu, Lañoa ta griña.

Azkenez, Kondaira-kimak saillean, oneik datoz: Joan-etorri bar Erroma'ra (zaritxo bat), Marina Saentz Likona'tarra, Etxebarria'tar Silberio F. jauna, Lekeitio'ko eleizearen ate nagusi, Bilbo jaietan, Zergaitik galduten jakun euskerea, Aita Larramendi'ren bizitzaren berri labur bat (zati bat), «Txipristin»-i, Euskerearen alde, Idia elizan.

Euskera errez dotorea ikasteko liburu erosoak. Sagar, gari, in-txaur-ondarrak azken-azken batzen diranak. Edu orretakoak lan-zatiño oneik be.

33. JOLASKETA

1965-XII-15'an amaitu zan idazti onen irarpena Bilbo'n, Ella-kuria irarkola etxean. 584 orrialdeko liburu mardul ederra. BILDUMAREN tituluak diñoanez, olgeta edo jolaserako egiña; beronen guna: 1) jolasak; 2) abestiak; 3) ipuiñak eta 4) irakurgaiak. «Elorri»-k egin dauskuz marrazkiñak, egilleak bere seme-alaba Elorriaga ta Aiartza'tar Aitor, Lorena ta Fatima'ri eskiñiak.

Oso interesgarri da liburu onen aurkibidea. Urtarrillean asi ta lotazilleraíño illez-il bananduta dagoz lanak, lenengo illabetea bizkaieraz eta bigarrena gipuzkeraz, orrelaxe azkeneraiño. Asieran, jolasetan doaz zortzi-bederatzi jolas diferenteak; gero abestiak, eta ipuiñak, irakurgaiak, andik eta emendik jasoak, eta asko egille-arenak, «Igotz» ezizenez azpimarratuta.

Lanok umeentzako aukeratuak dira geienak: errez-ariñak. Milla ale atera nebazan eta laster agortu jatazan osorik. Urrea lez maite ditu_t saldu-nai ez da oraindik daukadazan gitxiak. Ikastoletako anderenoentzat batez be onuragarri izan da «Jolasketa». Beti uko egin dautsiedan arren, asko ta sarri eldu jataz ikastola ta eskoletatik emen datozan jolasak umetxoai erakusten joan nedilla eskatuz.

Kaleratu ta laster onola egin eban liburu oni buruzko eritxi emotea Nikolas Alzola Gerediaga'k. «Oituratuta gagoz —diño—, noiz-beinka baiño sarritxutan esatea obeto izango da; or agertzen jaku Aita Onaindia'ren liburu barriren bat. Lodiak ala meiak? Danetatik, baiña mardulak ez dira gitxienak izango. Nork ez dau eukingo bere *Milla Euskal Olerki eder! Ia-ia* seireun orrialde deukoan liburu lodikote bat geiago. Gaia? Euskaldun umientzako jolasak, abestiak, ipuiñak, irakurgaiak. Gauza asko, danetik pixka bat, euskal idazle ezagutuen atal egokiak eta erriajakintza ta kan' tuetatik kirian-kirian eraz ipiñita urteko amabi illabeteetarako.

Umetxoentzako bakarrik ez da izango liburu au. Urteetan aurrera goiazonantzako be irakurgai-liburu egokia dogu bai *Jolas-keta* liburu au. Udaran ogeratuta geldirik egon bear izanean egon naz aurten, eta ez daust gitxi lagundu liburu onek aspergarrizko ordu luzeak aldi egokietan biurtzen. Eta beste askori be beste orrenbeste gertauko jakeela *uste* dot».

Akats bat aurkitu eutson liburuari: egille bakotxaren izenpeetan lanak nundik artuak diranik ez dodala jarten. Laz ez luzetzearren, ez neban egin.

Euskera gozo, errez-errezean osoturiko lana da. Izan be, emen datoan garaiko euskal idazleen lanak aparteko bizkortasun, sotiltasun ta eztitasun jarioka dagoz lau alderdietatik.

34. ENBEITA OLESKARIA

Zarautz'eko Itxaropenaren «Kuliska Sorta»-n daukazu, 59'garen zenbakia 1966. 159 orrialde.

Bego emen nik ordun itzaurrean jarri neban zati au. «Gizon gailen oneik —niñoan garai atan osotu neban bilduman— eztira eguneroko lora, Jainkoak noizik bein erriari bialtzen dautsozan doe ta esku-erakutsi berezi-bereziak baiño. Gu kaskar g2ratzen gara, beti be, euren alboan. Geure ezerez ta kaskartasunean, geure begiak berez eurakana zuzendu eta eurak eredutzat artu bearrean gagoz.

Ba-dogu guk Enbeita'gandik zer ikasi. Geure enda-oleskari genduan, sakon ta alai, ara ta ona aspertu barik ainbat urtez ibili zana. Abots ozen ta zolitan gure lurraren edertasunak, txori ta zugatz, erreka ta abere, oro kanta eban urretxindorraren eztarri leunak. Bertsolarien ekanduai jarraituz, gure zer guztiak jaso ta garbiztu ebazan; aren bertso goriak illezkortasuna jaritxi eben, euskal gogoaren ixate berezia olerki-ari dirdarrietan dardar guri itxirik; gure erriaren poz eta atsegiñak, gure min eta itxaropenak, ames eta lillurak osoan aizatu zitun.

Zerbait luzatu bear-ta be, ona Lopez-Mendizabal'ek Enbeita +1 zanean idatzitakoa:

«Txorietan buruzagi
Urretxindorra kantari,
Kantatzen dizu ederki
Goizean argi asteari;
Aren abesti ederrak
Txoraturik naukate ni! ».

Onela dio abesti zar batek, eta au bera esan genezakean Enbeita dela, Muxika'ko Urretxindorra. Euskal-erri guziko olerkarien artean Enbeita zan urretxindorraren antzera guzien gañetik bere abestia pozik entzun-azten ziguna. Goitik artutako gaitasun bat zuen, noski, ainbeste ta ainbeste guziak txoratzen zituenean. Olerkari onak besteak ere izan arren, Enbeita astean guzien begiak beregan josten ziran. Ba-zirudien guzien biotzak bere alde ekartzen zituela.

Nork bera bein bakarrik entzun duenak ez du beti gogoan izango bere txukuntasuna, bere zolitasuna, bere abertzaletasuna? Garbia barrendik, txukuna kanpotik beti agertzen zizkizun gizon berezi ori. Bere itzetan ez genduan inork beñere entzun orrela-one-lako itz oker bat *ere*. Beti goitik, arranuaren egaldia bezela, ez genduan beñere ikusi lokatzetan zikintzen. Orrelako gizonak gutxitan sorteen dira, bai, oso gutxitan, eta eredutzat beti gogoratuko degu» (Buenos Aires'ko *Euzko-Deya*, 1943, 6 orr.).

Bere bizialdi osoko jokabide zintzo onetzaz gañera, ba-ditu Enbeita'k beste alderdi edo zearotasun batzuk be gure eredu egin darenak: 1) Gaia; 2) jatortasuna; 3) bertso-neurkeTa; 4) doiñua ta abar.

Gaia Askotarikoa dau Enbeita'k, inditar ta euskotan arimea kideko dirala esan oi da. R. Tagore dogu inditar olerkaririk go-rengoena. Eta zer abestuten ete eban arek? Euri, zugatz, txori, bidazti galdu, lore zimel, arima mindu, neskatx eskale ta antze-koak ziran berak erabilli oi ebazan kantagairik eskuartekoena. Olerki samurrak osotu eroazan, maite-lelo, aberri-kantu jagi ta sutsuak.

Gure oleskariak be orobat dagi: gure euskal erri amak bere-bere dabezan gauza guztiak abesgai, intziri samur biurtu; Jaun-goikoa, izadian zabal eta batez be gure lur-gain zabalean sorkari ain eckrarak aukeratu euskuzana, urretxinrarak baizen kantu gozoz goretsi; gurean sortu ta aundi izan diran gizonak, jakinlari, itxas-tar, kirolzale ta gainontzakoak eredu lez gure begi aurrean dizditsu jarri; euskaldun semeen egintsari arrigarriak goraipatu; sukaldean amarrak erasi ta erriaren aoran bala-bala dabilzan alegi ta inuiñak bertso irrikoietan ipiñi.

aiortasuna? Itzez esateko bertsorik ez eban Enbeita'k egin, Orixe'ri atsegin jakozan kantatzekoak baiño. Eta oneik etzi:ran inun ikasitakoak. Darabiltzan bertso-gaiak, bere-bereak dira. Eder-iturri bi ditugu, izadia ta bere begilarriak. Ortik itxi euskozan bertso-saillak, diran lez gozo ta aundi, bere gogoaren arnasa ta zauskada besterik ez dira.

Bertso-neurkera, barriz, askotsua. Geienetan eta kantu jagieta-rako zortziko nagusia erabilli arren, neurri askotz,ko aapallak ditu. Baita gitxitan baiño erabilten ez diranak be: erriko kantue-tatik jasotako neurkera apartekoak dira nunbait, zazpi ta boste-koa, zortzi ta seikoa, zazpi ta zazpikoa, zortzi ta seikoa, zortzi ta zortziko. Neurri ezbaridiñak, naste be askotan darabiltz.

Azkenez. *doiflua*. Arek geien erabilli ta guk gaur ezagutzen doguzanak ogeita amabost bat dira. Orduko aldizkarietan batez be, berak eta semeak (Balendiñek) kanta-ala jasotakoak doguz. Geien-geienak bereak ditu, jatorrak; beste batzuk ba-dabe Xen-pelar'ek eta Bilintx'ek erabiltzen zituenen kutsu pizkat; beste iru-garren batzuk baita erri-doiñuak be, zerbait aldatuta, puntuak naiz olermenak eskatu ala nunbait».

Auxe dogu Kepa Enbeita, olerkari batek diñoskuncz: «Biotz garbi, zidar-abots, gogo zoli». Oleskari, euskal erriari dei dagitsona.

35. BERGILI'REN IDAZLANAK OSORIK

Liburu bikaiñik bada auxe bat. Askotan leia erakutsi arren, gaur arte iñoiz be itzultze osorik egin bagea. Txantxetan lez sarri lan bati oratu ta konturatu bage amaira daroazu, eta gero zuk oiui: «Baiña nik egiña ete da au?». Orixe berori jazo jakun itzultzaille bioi liburu eder-eder onegaz.

Oneik dira itzuliak, Bergili'ren «Unai kantak» eta «Alor-kantak» Ibiñagabeitia'tar Andirna'k, eta «Enearena» (Eneida) nik. Ots, Bergili'ren poema guztiak euskeraz itz lanau jarrita. Berton datozan marrazkiak ba dabe antxiña-kutsurik, jazoera zarrak dakazan liburuak eskatzen dauanez, Marrazki apaiñak egin ditu: Elorriaga'tar Xabier'ek. Bilbo, 1966, Grfficas Bilbao, 382 orrialde.

Euskeratzaille biok apal samar agertzen giñan sarrerako itzetan. Andirna'k onela idazten eban: «Gure itzulpen au askok zoko bazterrera botako dutela, ondo dakit, are urrunago bialtzen ezpadute. (Ezagun zitun entza orduko maxiolari ezjakin txepelak). Eskerrak gaiñera lagun on baten eskutik natorrena. Nere zailtasun eta moldakaiztasuna Aita Onaindia-ren trebetasunak gozatuko dizkizute noski baño noskiago. Nere lerroak aspertzen baldin bazitute, zoazte aren orrialde gozoetara; antxe gozatu al izango guzute nire itzulpenak utzi dizuten ao-kera minkaitza».

Ni be, berez ain apala izan ez arren, Bergili'ren lanak euskeraz jartzean erruki-eske lez agertzen. Orrela egiña da itzulpena. «Ondo ala ganora gabe? Ori geroak esango. Nik au eskatuko nioke irizle zorrotzari; berak egin dezala beste ainbeste, askoz errukiorrago bait litzake maxio-lanean». Nik esaten neban batez be L. Mitxelena'k, Gaizka Barandiaran'ek aurreratxoago egin eban Omer'en Ilias'ena eritxon itzulpenagaitik esana gogotan eukirik.

Gure itzulpena zala-ta, etzan adar-joterik izan. Askotan obe izaten ez dalarik be, ez eban iñork ez goitik ez beetik irain-tantarik ixuri; bai ostera goralpenezkoak. Buztarripe bat-batean lan egien

biok, ikutu eziñak izan itxura danez. Ni idazle kaxkar, San Martin'en ustez, baiña elantxobetarra nik beti euki izan dot euskal jakitun aundizat eta euskal idazle goren-gorengotzat: aren itzulpenakaz eta «Alderdi»-n, «Euzko'Gogoa»-n, eta Karakas'ko «Eman»-en daukazan lanakin idazti mardul, atsegin eta sotillt'egin dagikegu. Noiz osotuko? Azaldutako liburuai buruz eritxia emoten euskeraz ez da izan aren maillakorik. Zentzuna eban lege.

Eta iñok maite izatekotan arek eban maite euskera, gure izkuntza. Begira: Gitxik egingo leukena. Paris'tik Karakas'era aldatzen zan bitartean, izontzian joiala, zelan uste dozu orduak erre oi ebazala? Bergili'ren «Bukolikak» (Unaikantak) euskera tuaz. Nori bururatzen jako ori? Gero, ni «Eneis» itzultzen nenbillala, gauza bat birritan egin bearrez zetan nekaturik ez egoala-ta, berari eskatzen neutson Bergili'ri buruzko neure itzulpenean a be sartzeko baimena, eta, mesedes, ortan oitua egoalako, «Georgikak» (Alorkantak) be biurtu egizala. Biotzetik makal aurkitzen zala, nik esanera jarri jatan.

Arrano aundiegi zan gurea beroni narrua kentzen asteko. Aita Akesolo'k, orraitño, OLERTI-n iru orrialdeko lana idatzi eban gure lanari buruz. Au ez da mutu egotekoa akats edo utsik lanen bateri aurkitu ezkeru. Gureak ez eutson barre-irririk jalgi-azo. Au bai ba-diño: «Ezta makala euskeratzailleak lan au egiteko artu daben arazo ta nekea, *Olerti-ren* irakurleentzat oso ezagunak dira biak. Eta biak egin dabe euren egitekoa ataza ta apaltasunik andienaz. Edozeiñek baietz esan apalegia dala autorpen au. Ibiñagabeitia maisu aundia da gure izkuntzan. Euskera aberatsa, landua, txukuna, zerbait lagunabarrez goragokoa erabilten dau beti,

latin apain, landuari egokien jatorkona, aurki. Zailla ta moldakaitza bere euskera? Ez orixe! ».

Beste au niretzat. Aita Onaindia be apal jatorku, iya erruki-eske. Merezi ebela diñosku Bergili'ren lanak euskeraz jartea. Eta ondoren: «Ni be ez naz irizle zorrotz orreitakorik; maxiotzalle samarra, bear bada, bai. Eta, etxekoa nazan ezkeru, gauzatxo bat bakarrik esango dautsot liburu orren egille ta eragille andiari: L. Riber'i, Bergili-ren lanak katalanez eta gazteleraz itzuli zituani, batez be oar-argitasunetan zor izan deutsona garbiago erakutsi balleu, oba ebalu». Egiak ditzira begi emen be.

Azkenik goralpenik zabal-zabalena. «Lan ederra —diño— euskera-txaille biok egin dabena. Azaletik nai barrutik begiartu, liburu oba eziña. Artu begiez, ba, nire zorionik beroenak».

36. ABARRAK ETA ABAR

Bustintza'tar Ebaista, «Kirik;ño»-ren *Abarrak*. Bilbo, 1966, Gráficas Bilbao. 335 orrialde. Kirikio'ren jaiotzako eun-urte-betetzea zala-ta, Mañari'ko euskal idazle aundiaren liburuetatik txorta mardula.

Ona zer dakarskun liburu onek: 1) *Abarrak*, 1918'an berak Abando'n argitaratu ebazanak; 2) *Bigarrenko Abarrak*, 1930'an Zornotza'ko Jaungoiko-Zale bazkunak atera eban liburuan datozenak, eta 3) *Eta abar* izenpean batu dira 1902 eta 1903'garren urteetan «Ibaizabal» astekarian, 181-329'garren orrialdeetan, emon ziztuan lanak; oso-osorik orreik be, gaiak bost ataletan banandurik: Euskera, jakingarriak, olerkiak, izkirimiriak eta albisteak. Azkenlanok etziran orren ezagunak. Urte mordoan idatzi eban Kirikiño'k, ia egunero zerbait, 1913'tik 1928'raino. Emendik ez neban ezertxo be artu, liburuua garaiz atara naiez egunkari ori aztetzeko astirik izan ez nebalako, Geroago lan bikaiña osotu eban Mañari'n luzaro arima-zain egon zan apaiz ezagun Perea'k.

Nik eginak dira itzaurrea ta lanak batzea, lanak begiratu, orraztu ta utsak zuzentzea Arteaga'tar Lon Mañari'ko semearen ardurapean joan da. Elorriaga'tar Xabier'ek egin ditu apaingarriak, trebetasun aundiz.

Nikolas Alzola Gerediaga'k onela *Egan'en* 1967-I'an, 121 orrialdean: «Gauza aundiak egin hadira be Kirikiñooren izena goraltzeko bere eun-urtebetetzean, ez da omenaldirik txikienetari-koa Onaindia ta Arteaga karmeldarrak egin deutoena liburu au antolatu eta argitaratzeagaz gure euskal elelderrean onen-onenatariko ta aunlienetariko dan bizkaitar Kirikiñoari».

Argitalpen aunitz antolatu dira Kirikio'ren lanakin, *Abarrak* liburuakin, baita euskera batuan be.

37. BARRIRO «KARMEL» (1957-1970)

Ni Eibar'en nintzan bitartean «Karmel» egutegia zuzendu eus kun Aita Libino garaitarrak onan idazten eban 1956'garranaren *azkenaldira*: «Egutegi onen zazpigarren urtera eldu gara, Jaungoikoa lagun. Igaro urte oneitan, benetako alegiñak egin doguz lan au geroago ta apañago, geroago ta ederrago argitaratzeko. Lanaren buruz (semetxoak beti dakarre lana) beti aurrenantza jokatu al izan dogu; ta gaur asten dogun urte onetan, bide barri bateri asiera emoten dautsagu. Orain artean, urtean bein bakarrik agertu izan da Karmeldar Egutegia, urtearen asikeran; aurrerantzean lau ataletan bananduta argitaratuko dogu: iru-illabeterik iru-illabetera».

Eta urrengo urtean, 1958'an, Aita Libino'k, amabost urtez emen Larrea'n bizi izan zanak, Erroma'ko Karmeldar Ikastetxe nagusian etxeko ikaslea: musika erakusten. Eta aren ordezt ni geratu nintzan «Karmel»-en zuzendari, 1970 arte, 12 urtetan lez. Urte arreitaz asko idatzi bear izan neban, naiz-ta nagusitza ta beste egitekoko zenbait lepo-gaiñ izan. Ona urtez urte —oneik be, *ut non pereant*— nik idatzitako geiena, «Karmel»'en beintzat.

1957

I Atala. Padarrak, Etxeko gauzen izketa, Agurra (olerkia), Dabid'en 109'garren eresia, Morsa arrantzan, Artzain gaztea (Olerkia), Arranoa ta azeria. **II Atala.** Oillarra ta bitxia, Sagua, Ugaxua ta mirua, Arrese ta Beitia. **III Atala.** Ego (olarkia), Ipuñak (Urretxindorra ta sai zuria, Lapurrak, Amuzkia, Emon), Etxeko gauzen izketa. **IV Atala.** Aita ta ama, Otza zara (olerkia), Ipuinak (Txantxangorria ta ipurtargia, Amaren biotza, Andre-gaia, Itzalpean, Zordunak), Etxeko gauzen izketa, Gure liburu barriak.

1958

I Atala. Illetari. Iru Erregeen jaia. Zertan? (olerkia), Bildur (Mistral-Otarri), Karta bi, Lo-lapurra (Tagore-Otarri), Aita Zakarias, mixiolari bikain, Berriz, Piñu-goraberak, Giza-indarra, Ikasi euskeraz, Dante'ren Su leza (I kantua), Gure liburuak. **II Atala.** Gora biotzak! , Stabat Mater, Matsaren indarra, Berandu-bearra (olerkia), Eibar, Baserri-gaiak! , Tantaka, Ikasi euskeraz, Gure liburuak. **III Atala.** Guztiz ederra, Espiritu Santuaren etorrera, Etsi

bear! (olerkia), Baserri-gaiak, Dante'ren Su-leza (II kantua). IV *Atala*. Decor Carneli, Jaungoiko erukitsua, Alegitxoak, Edith Stein, Zornotza'ko gaugurtzailleak, Baserri-gaiak, Ikasi euskeraz, Dante'ren Surleza (III kantua). V *Atala*. Buru ta biotz, Noiz ezkondu?, Erronda ikuseziña (Tagore-Otarri), Alegitxoak, Noe ta mats-aiena, Baserri gaiak, Dante'ren Su-leza (IV kantua), Umea orrela dozu (Tagore-Otarri), VI *Atala*. Aita Santua **Zein gurutze?**, Nogaz ezkondu?, Alegitxoak, Gure bertsolariak, Noiz eta zergaitik (Tagore-Otarri), Baserri-gaiak, Dante'ren Su-leza (V kantua), Asiera (Tagore-Otarri), Liburu barriak.

1959

Urtarrilla-Otsaila. Urte barri, Nogaz ezkondu, Il otza (olerkia), Rilke olerkaria, Or-emendiko izparrak, Ikasi euskeraz, Dante'ren Su-leza (IX), Izen txarra (Tagore-Otarri), Jostailluak (Tagore-Otarri), Gure bertsolariak. *Orrilla-Bagilla*. Gazteak, Itaun-erantzunak, Dabid'en IV'garren eresia, Euskal itzaldi, liburu ta abar, Ikasi euskeraz, Dante'ren Su-leza (XXII kantua). *Garagarrilla-Dagonilla*. Eguzkia eta illargia, Itaun-erantzunak, Eskale txikia, Saizar gazteluko Aztia, Au, ori ta bestea. *Irailla-Urrilla*, Jaiotz ederra, Itaun-erantzunak, Eihera semea, Txinurri nagia, «Olerti» aldizkari barria. *Azjilla-Lotazjilla*. Eukaristi-batzarra, Munich'en, Txomintxo'ren altxorra, Igeskaria, Liburu barrita ta omenaldiak.

1960

Urtarrilla-Otsaila. Eleiz Batzar Nagusia, Itaun-erantzunak, Xigutx, Dante'ren Su-leza (XXV kantu), Merkataria (Tagore-Otarri), *Epailla-Jorrailla*. Jainkoaren Ama, Dabid'en V eresia, Itxasoak botariko Gurutzea, Gizurena (Tagore-Otarri), Izkirimiriak, Aita Martin il yaku, Dante'ren Su-leza (XXVIII kantua), Karteru txarra (Tagore-Otarri). *Maiatz-a-Bagilla*. Biztutea, Dabid'en I'go eresia, Dante'ren Su-leza (XXVI kantua), Barne-deia (Tagore-Otarri). *Garilla-Dagonilla*. Karmen'go Ama ta bere jantzia, Itaun-erantzunak, Dabid'en II eresia, *Irailla-Urrilla*. Danto'ren Su-leza (XXVII kantua), Idazlea (Tagore-Otarri), Eukaristi Batzar baten azkena, Dabid'en III eresia, Gure piztiak: otsoar

1961

Urtarrilla-Otsaila, Salbagillea, Kennelv ta Nixon, Lenengo orrialdea (Enciso-Otarri), Kezkak ust, Dabid'en VI eresia, Izkiri-

miriak, Nobel saria, Dante'ren Su-leza (XXXIX kantua), Izparrak eta liburuak. *Epailla-jorradla*. Lirikar eskintza (Tagore-Otarri), Kristo ezetsia, Dabid'en VII eresia. *Orrilla-Bagilla*. Maiatza, Dabid'en VIII eresia, Erne-miña (olerkia), Iru olerkariak, Guridi il da, Gagarin goiak zear, Euskalduna bertsolari, Dante'ren Su-leza (XXXI kantua), Deiez (Tagore-Otarri). *Garagarrilla-Dagonilla*. Ederra ta ona, Dabid'en IX eresia, Dante'ren Su-leza (XXXII kantua). *Irailla-Urrilla*. Zuk nai dozuna, Jauna..., Dabid'en IX eresia, *Azilla-Lotazilla*. Ildakoak, Dabid'en X, XI, XII ta XIII'garren eresiak.

Urrengo urtean oso-osorik sartu zan nigaz gobernua illean pare bat aldiz txapelokerrak bialtzen eustiezala. Eta ixillera jo bear. Karmelik ez aterateko geiago. Zer egin? Zigorra txistuz gain doguzanean, zer egingo? Bada-etzpadan, burua makurtu. Oba genduan beti be.

Eta «Karmel» zaleak? Besterik eziñean, lenago lez, Egutegi antzera kaleratuko genduan. Liburuxka azi bat gertatu neban, ba. Sarreran au esaten neutson irakurleari: «Artega zagozala ba-dakigu, ta ez gara arritzen. Ainbat eskutitz eta karta jaso ditugu berandutuaz giñoiazala-ta. Ondo! Ederto! Beti ezin ebilli, baiña, norberak nai baizen azkar eta sasoz; zoztorrak bai jakuz edozein zokotan agertzen. Eta sarri ez izan errez oneik irabildu ta alboratzen. Ikas daigun, alan be, izaditik: lurpeko aziak edo erreka batek, eragozpenik ba'daurki, ba-dakizu zer dagian? Beste bide batetik jo. Ez da jokabide txarra. Guk be orrelaxe dagigu. Ta ez gaizki artu, nai dogunean barik, al dogunean baldin ba'gatoz gure Karmel maiteaz».

Emen dogu, ba, 160 orrialdeko Karmel Egutegia, aurtengo. Gero ikusi datorren urteak zer dakarskun. Illabete bakotxeko egun ta santuak datoz lenengo. Illabete bakotxeko baserri-lanak ondoren. Eta saillean idazle askoren idatziak, *Kistar ikasbide*, *Olerti*, *Ipuaiak eta...* *_Takingarri*, *Zine... ta abar* ataltxoetan bananduta.

Oneik dira nik Egutegi onetan idatziko lanak: Dabid'en XIV ta XV'garren eresiak, Salamanka'ko ikastetxean ikasle, Bum balzixka, Abadiño'ko Ilobi arria, Illak, Igarkizunak, Glenn goiak zear, Etxahun bertsolaria, Liburu barriak, Dante'en Jainko-Antzerkia (XI ta XII kantuak), Gurutzeko juan deuna idazle,

Bilbo, 1962, Grficas Bilbao irarkolan.

Ostera be bederatzi urteko mutu egotea. 1972'rarte etzan Karmel'ik atera, liburu ta liburuxka erara ezik. Baimena eskatzen neban, baiña beti izaten neban ezezko erantzuna, mendi-gaiñeko zuzatzak neguz aize zakarraren ekiñaldi bortzazkoa lez. Karmel ordeazko, liburuok argitaratu nebazan orluan: «Onbidea», «Gure Bertsolariak», «Ondarrak», «jolasketa», *Ftes et Saisons* deritxon aldizkaritik artutako ideiz orniduriko pentsamentuzko «Aurrera-I». (1968, Grficas Bilbao, Bilbo, 68 orrialde). Gero etorri zan «Giza-Bizia», 64 orrialde.

Eragozpenak eragozpen eta gure asmoak asmo, laiñoak ezin urratuz dabiltzan eguzki-izpiak lez, guk aurrera egin gura. «Eragozpen askoren artean ixildurik, urte batzuk orrela egin ditugu —olan idatzi neutsen nik Karmel-zaleai 1968'garren urtean—. Ixil-ixillik? Ezta! Zuk, ia urtero, artu izan dozu KARMEL'en ordeazko libururen bat. Eta aurrerantzean be, urtean lau liburu artuko dozuz».

Eta «Aurrea» idaztiñoaren barruko azalean, onela: «Liburuak gai bat izan oi dau, ta gai nagusi orren biTan beste txikiago batzuk pillotzen dira. Guk be orrela egingo dogu. Lenengo ale onetan «Populorum Progressio» deritxon enziklikaren inguruan zerbait geiago, joango da. Bigarreanean, «Giza-bizia» deritxonean, Aita Santu Paul VI'garrenak jaiotzak arautzea dala-ta egiñiko idazkia- ren inguruan beste lan esko prosaz eta bertsoz.

Nire lanak «Aurrera»-n: Gure lurraldea, Diñoce, Lana, Gosea munduan, Erri atzeratuak, Baserría eta uria. Eta «Giza-Bizia»-n: Sarrera, Sortzea, Bizia eman, Bizia ematea, zer ote degu?, Egin dezagun gizona, Ez degu seme-alabarik, Txikiegia ote degu lurra?, Bizia dala-ta (Paul VI'garrena Otarri) Pikondoa (Ibarbourou-Otarri), Ain dozu aundia! (R. G,-Otarri).

38. «AGIRRE SARIA» ESKURATU

Sariak beti eder, eta «Euskal Kulturaren Alde»-koak be, asmo bikaiñari leku emonez, «Agirre Saria», iru urtetik iru urtera emongo zana, jarri ta iragarri eben. Nik bigarreana irabazi neban, eta

ondoren «1967'garreneko epaillaren 23'garrenean asi ta 1970'garreneko epaillaren 22'garren arte», euskeraz argitaratzen zan euskal libururik onenari emongo jakon sari ori, irugarrenez.

1967ko maiatzaren 25'an jaso neban neurea. Urte atako «Olerti»-n (III-IV) idatzi neban «Txango bat, sari billa» deritxon artikuluan orduko gorabera mordo. Baiona'ko Eusko-Museu-n egituko zan sari-emotea. Ara goaz, ba. Bilbo'ko Xabier eta «Guria» jatetxeko Lukene'k narokie kotxean. Gazte ta ezkongai biak, Baiona'rako gure txango, ziur asko, alai biotztia izango. Donostia'n, Korpusti da-ta, Atano ta Azkarate pelotariak euren norgeiagoka azkena jokutzen dabe; N. Etxaniz'ek adeitsu agurtu gaitu (arako kotxe-zain daukagu).

Amabiak noiz joko, Adour gainez dagoan zubitik ikusten dan orduarian. Zain daukaguz Euskal Kulturaren Alde-koak, nagusi ta buruzagiak. Biotz-ikara gozoz alkar besarkatu ta agurtu dogu, Urrestarazu'tar Andoni gure adiskide ona batez be. Ordu bietan Larreta ostatuan bazkaria, eta ara goazala jakin dogunez Azkarate'k irabazi dau Donostia'n: zorik, oraingoan, bizkaitarroï txera egiten. Bazkeri erdera; andik ez giñan gosez urten, ala jakiz ala itzez.

Bostetan sari emotea. Euskal Erakustetxcan baturik, aretoko mai ta jarlekuak artu doguz. Gizon eta emazteki asko gara. Euskal Kulturaren Alde-ko sail onen buru dan Gurrutxagu jaunak dau itza; «Agirre Saria»-ri buruz berba egiten, Saria aukeratzeko, liburu asko artu dabez, era guztietakaok, eta itzulpenak eta lendik azaldutakoekin osotu bildumak saiets itxi ondoren, sei bat aukeratu dabez sarigarri diranak: Etxeberri'ren «Frantzia'ko Erregiña», Jon Etxaide'ren «Gorrotoa lege», Lafitte'ren «Atlantida», Narbaitz'en «San Frantses Jetsukoa», N. Etxaniz'en «Lur-berri billa» ta nire «Gure Bertsolariak». Eta guztiak ondo aztertu ta gero. «Gure Bertsolariak» atera da sari-irabazdun.

Gorespen-itzak, Iratzeder'ek lenengo ta J. Harits-chelhar'ek gero. Azkenik, flas-argi ta txalo artean Gurrutxagi jaunak milla dolarreko txekea eskuratu daust, Txalo geiago ta zoliagoak. Oho-rezko aipamena izan dau Etxaniz'ek eta itz bi esan deuskuz aipamen ori eskertzeko, Itz gozotan adierazo dau bere poza ta nai-

gabea: Polito diño berak praille big, az gorrotoan bizi dala: urte batzuk dirala *Euzko-Gogoa-k* dolar mordoa eskiñiz olerki-sariketa eratu ebanean, Aita Mitxelena'k eroan eutson saria, eta orain Aita Onaindia'k. Origaitik bere gorrotoa. Etxan¹z, **biotz-ederre-gikoa** dogu gorrotorako, eta onela erakutsi euskun, bere itz gatz-ozpinduen ostean, kanta barri bi abestuaz. Seirak ota laurenak ziran.

Onela amaitu zan jaia, jai betea, adiskide ta euskaltzale artean burutua. Arpegi barri ta zarrak, izketaldi eztiak alkar agurtuz, opamen adeitsuak, biotz-barnetik urtenak aurki. Olan, gozo ta samur, beste jardunaldi eder bat egiñik, guk etxerako bidea artu genduan. Adour eta Nive, agur! Baiona, zar ta barri, beti panpoxa, agur! Orko biotz mindu guztioi, agur!

Eta lengo bidea barriro be lengo gauzak ostera be gogoraturaz, adiskide kutunen arnas-beroz adoreturik, ba-gatoz iru lagunok berebil bizkorrean, onuntz baiño aruntz ariñoa ain zuzen.

39. LARREA ETA KARMELDARRAK

Liburu au, Larrea'ko Karmengo Amaren irudia urrezko koroiz apaintzea ospatzen zalako argitaratu neban. Andra Mariaren urte santu barruan izan zan. 1968'ko bagillaren 20'an amaitu zan beronen irarpena, Bilbon, Gráficas Bilbao'ren irarkolan. Larrea eta Zornotza inguruko argazki asko daroaz, eta bertoko «Argazkari» etxeak adeitsu itxitakoak dituzu, 121 orrialde daukaz, koroatzea zala-ta egindako Lore-Jokuetara Jon Enbeita, N. Etxaniz, J. Luis Markaida (Otarri), Emaldiko, Aurraitz, ta Balendin Enbeita'k bialdutako olerkiz dotoretuta.

Koroatzeak, bere barne'izatera joaz, auxe esan nai dau: norbaiti buruan uztai edo ailla jarrea. Eta jakiña, erregetza, nagusitza, agintaritzta adierazten dau. Eleizan, Kristo arantzaz koroatua agertzen jaku lenen; andra Mari, barriz, Erregiñ koroiaz. Onen izenik bikaiñena auxe: guztion Erregiña. Zeruan eta lurrean Berak dau Erregintza. Aita betikoak, bere Semeak, Espiritu Santuak eta aingeruak, goi-dirdiraz, koroatu eben zerura sartzean, eta arrezkero Erregiña buruntzaz agertzen jaku idurietan.

Eleiz Amak be, bere aldetik, koroatu ditu Mariaren iduri batzuk, naita askorik ez. Mundu guztiko Andra Mariaren idurien artean, Karmen'go Ama izan da geien koroatua. Onakoak berarizko egitez eta jai-ospez osotu oi dira, ta era ontako koroatzeai Eleiz-koroatzea deritxogu, Omenaldi goresgarri au, Eleiz Amak, Andra Mariaren iduri batzuei bakarrik egiten dautse. Euskalerrian ba-doguz, onetara koroatuta, Andra Mariaren iduri banakak. Txit atsegin jakuz izen oneik: Begoña, Arantzazu, Itziar, Arrate, Orduña, Lekeoltio'ko Antigua'ko Ama, Durango'koa, Gernika'koa ta abar.

Gure Ordenea, besteak beste, 1885'ko errege-legez, sakabanutua izan zan Espaiña'n; orain —1968'an—, komentu batzuen jabe barriro egin eta bizi izaten asi ziranetik eungarren urteburua ospatu naiez, Larrea'ko komentu onek, lenen-lenengofik karmeldar gazteen mintegi gertaturik, ama zabal ta maitekor batek lez, eun urte oneitan ainbat seme azi ta Karmel-sendiari dautsozan ezkeru, guztion asmoa ta amesa izan zan Ama maite orren buruan urrezko koroï eder bat jartea, karmeldar danon izenean jai bikain, pozgarri batzuk eginiez.

Ortarako bear izaten diran baimenak, bai emengoak eta bai Erroma'koak, lorturik, Bilbo'ko Gotzaiñak bereala iragarri eban 1967'garren urtea, oso-osorik, Andra Mariari eskiñitakoa izango zala. Urte santu ori berak edegi eban Larrea'n, Karmen'go Amaren egunean. Eta urrengo urtean, aundikiro be aundikiro, ospatu genduan koroatze ori.

Nik, jazokun begiko orren gomutapena gizaldiz gizaldi luzatu zedin, liburu au egiztatu neban. Bost atal daukaz: I) *Karmeldarrak Euskalerrian* (Karmeldarren gurasoak, izpi zuriak, Karmeldarrak Europa'n Barriztatze bideetan, Teresa ta euskaldunak, Ainbat komentu Euskalerrian, Andra Maria'ri (olerkia) .

II. *Larrea, gizaldiak zear*. Zornotza, len eta orain, Muiriorik bikaiñena, Larrea, Larrea'ko patroiak, Larrea eta Argomanitz, Juan B. Larrea jauna, Jauregia ta eleizea, Berreun urte geroago, Larrea'n larrak lorea (olerkia).

III. *Karmeldarrak Larrea'n*. Lekaretxe barria, Eleizea urteak urte, Karmengo Ama bere aulkian, Jantzi zurizko koroia, Urte

baltzak, Karmen'go Kofradikoak, Beste kofradi batzuk, Amari oiuka (olerkia).

IV. *Larrea, zeru-amas jarioka*. Urterik urte ñirñir; 1876'tik aurrera, 1936'ko gerra ostean, Kapa zuria aizetan, Erromes-taldeak Larra'ra. Aztetxe, Euskal idazleak, Larra'ko Karmen'go Amari (olerkia).

V. *Larra'ko Karmen'go Ama koroatu nai*. Zer da koroatzea?, Koroatzeak noiztik?, Larra'ko iduria koroatu nai, Ortarako eskubideak, Andra Maria'ren urte santua, Guztion koroia, Larra'rantz (olerkia), Amaren buruan koroia (olerkia).

1969'ko bagillaren 23'an egin zan Larrea'ko Andra Mariaren koroatzea, Paul Gurpide jauna, Bizkai eliz-barrutiko Gotzain zala

40. KOLONBIAR OLERKI-TXORTA

Erderaz: «Parnoso Colombiano en Euzkera». 1968, Argentina'ko Buenos Aires'en, Eusko Ikaskuntza sortu zanetiko berrogetamargarren urtea oroituz. 257 orrialde. Euskeraz eta erderaz. «Ekin» euskal argitaletxeak aterata.

Liburu au asmatu eta aurrera eroateko arnasa emon eutsan Frantzisko Abrisketa'k au jarri eutsan lenengo orrian: «Bogota'ko Euzko Etxeak babespean artu dau. Abrisketa'tar Pantzeska'k izan dau argitalpenaren ardura. 1967'garrenean, Agirre'tar Joseba Andoni'ren euskal olerti Saria jaso eban Onaindia'tar Jagoba Aitaren zainpean egin dira itzulpen lanak. Itzuli dabe Lin Akesolo'k, jon Beistegi'k, Iñaki Goikoetxea'k, Sabin Muniategi'k eta Jagoba Onaindia'k. Marrazkiak, Luzuriaga'k», Beraz, ba-dakigu zelan idazti jakingarri onen asiera, nortzuk egin dabezan itzulpenak eta abar.

Aurreko urtean edo, emendik izan zan Abrisketa jauna; egun baten ona etorri jatan, baita bere asmoa erakutsi be. Eta niretzat eskaria, beti erakutsi dodanez, agindu gogor bai'litzan dozu, eta beingoan asi nintzan lanean; idatzi neutson emen datozen itzultzailleai ta epe laburrean osotu gendun eskatutako lana. Abrisketa'k, lagun eta adiskiderik ba eban Kolonbia'n eta arei poza emoteko etzan bide bada-espadaoa berak nai ebana.

Ona zer diñoan berak itzaurrean: «Kolonbiar olerki-txorta euzkeraz», Kolonbia'ko euzkotarrak Kolonbia'ri egiñiriko biotz-opari samurra dozu. Laterri ontan bizi dan euzko gizatalde txikiak ezin eikeon aurkeztu abegi onez artu ebazan lur txeratsuari, aspaldiko euzkal izkera zarrera, euzkerara itzultitako kolonbair olerkarien bertsoak baiño erakuspen bizi garbiagorik,

Urriñetako euzkal mintzoa ezta lenengoz eltzen Errufin jose Cuervo ta Urisarri'ren aberrira. Itxas-ertzak ezagun-azo ebezan lenengo urontzi ta karabelakaz etorri da, Lakotza ta Andagoia'gaz nunbait. Egiz, ontzi garailleakaz etorri zan: «Izkuntza askotakoak ziran, ba eskoriarrak, bai inglesak, flamenkuak, geienak bizkaitarrak eta espaiñarrak eta italiarrak, ogetamar bat lagun estualdian alkarri ulertu ezin eutsoenak», Jeronimo Koehler'ek diñoanez. Kuna ta espaiñeraz naste itz egin zan lurralde ontako len-urian, Darien'go Andra Mari Antigua'koan, Tierra Firme'n lenengo endore izan zan Zamudio'ren agoz, eta beste itxasoko mezulari izan zan Arbolan-txa'ren agoz; baita Kaizedo, Ganboa, Bizkaitarra, Barakaldo, Orduña, jauregi, Basozabal, Azpeitia, Astigarraga, Errekalde, Otxoa, Beltran Gebara ta Olano: oneik danok euzkeraz mintzatu ziran...

Eta emen daukagu barriro be, zar ta gaurko, bizi ta landua, indo-europear aurreko arri-aroko izkuntza, Amabost milla, ogei milla —nok daki! — urteko itz erroak, adieraz-lege ta mintzo-eiteak kolonbiar idazleen lirika gaztea —klasikuak ela gaurkoak—, danak eder-aldarrikatzen.

Itzulpen oneik, orrela, euzkotarren izkuntzak dauan arnas ta bizi-naiaren agiri uka-ezin dituzu. Sarri entzuniko itaun oni argi ta garbi erantzuten dautse: Euzkeraz ba ete da ele-ederrik? Iñoiz ezta, ba, izan gizaldi ontan baiño zabal loratsuagorik. «Kolonbiar Olerki-txorta euzkeraz», ots, Amerika'ko olerki bilduma Euzkadi'ko izkuntzara biurtua, gaur euzkal ele-ederrak dauan pizkunde kementsuaren erakutsi txalogarri ta bikaiña be badozu.

Elebiko lorategi ontan lan egin dabenak, euzko gogoaren sorpenik bizi maitetsuena, euzkera, zar-zar eta gaurkoa, aspaldiko izatea, oraingoz kolonbiar burutapenetara aldaturik: Kolonbia'ri ta Amerika'ri eskintzeko naikari zintzoz beteta jardunak dira. Bogota, Xabier eguna, 1967».

Poesi-txorta onetan 31 kolonbiar olerkariren lanak agiri dira, Zortzi marrazki gaurkotaunez jantzita egiñak oso dotore biurtzen dabe argitalpena.

41. GOIZNABAR

Ederra, ugari ta eurrez daukagu izadian eta gizadian. Guk ba al dakigu gero eder ori jasoten? Ikasurte bat egin bear genduke ori ikasten, antxiñako eder-zaleak iñoomez, eta askoz zoriontsua-goak izango gintzakez. Eskola aroan maisuak eta ezlariak orretan alegindu bear litzakez umetxoakaz; onein biotz-adimenak gertu dagoz olako gaiak artzeko: umetxoak, edo gazteak lagun mendi-ratu nazanean, sarri jazo jat orrein itaun berezici erantzun bearra. Onakoak, adibidez: «Aita, zelako lora pitxia! ». «Iturritxoaren ederra! ». «Ikus, zeru urdina!», «Gure zugatza begi ta kimetz dotorez! ». Zer dozu au? Umetxoaren eder-miña! Solo au, zergaitik ez landu? Lurra baizen solo da giza-biotza ta adimena be, ederre-rako egiñak.

Larrea'ko Ikastetxean ikasten (1922-26) egin nituan urteetan maisu ta ezle onak izan nebazan nik, egia esateko. Izadian eta gizartean ederra ta egia billatzen erakutsi eustien. Baita, ziur asko, egia ta ederra bertsoz adierazten be. Ementxe, Larrea'ko ikastetxean asi nintzan ni olerkitxoak eioten. Orduko irakatsiakaz gero konta-ezin ala poesi —txikiak geienak— aragitu izan dodaz neure bizitzan.

Eder-adierazte orren frutua lez, emen dozu «Goiznabar» olerki bilduma au, 1929-1950 tartean ondutako bertso-lanez osotua. Bil'bo, 1970, Grfficas Bilbao, 243 orrialde. Neure guraso Migel eta Jazinta'ri eskiñitako Olerki bilduma. Lau sail ditu beronek: I) 1929-1936, 48 olerki guztiz; II) 1936-1940, 39 olerki; III) 1941-1945, 36 olerki; IV) 1946-1960, 26 olerki, 149 guztira. Laburrak dira geienak eta urte orreitan borobilduak. Ez dakit nun, baiña au autorta neban nik nunbait: Iru olerki-liburu argitara emoteko asma-neukala: «Goiznabar», «Eguerdi» ta «Illunabar». Oindiño «Goiznabar» atera dot bakar-bakarrik. Noiz besteak? «Eguerdi» 1960-1970 bitarteko poesiz osotua izango litzateke, ta «Illunabar»

ortik aurrera egiñakaz. Olerki jatorrez eta itzulpenez idazti biok orniduteko beste badot «Karmel», «Olerti» ta gaiñerakoetan.

Zelakoak ete dira nire «Goiznabar» ontako olerkaik? Ga.tekimuak dituzu, 1929-1950 urteetan egiñak. Urte urduri ta zurrunbillotsuak nunbait. Ez aztu iñoiz be aro bakotxak geuk biziaz dagigun edesti-zatiak izten ditula dingilizka, goizeko intz-tantak lora-ezpanetik ala-ala. Poesi lanean bere barrua uste bear dau gizonak, baiña ez dago bakarrik, bere antzeko asko dauz inguruan eta inguruko orreïn larri ta egon-eziñak be aizatu bear ditu, eurakin kezkatu ta larri-minduaz.

Orrela al dagoz nire poesiak? Bai eta ez! Dana dala, or daukazua diran bezela.

42. GURE URRETXINDORRA

Karakas eta Argentina'ko euskaldun euskaltzale zintzoak atera eben bertso-liburu bikain-bikain au. Karakas'tik idatzi eustien bein, gertatu nengiala nik Kepa Enbeita'ren bertsozko liburu bat eta diru-auzia angoen kontutan izango zala. Lendik be, «Enbeita Oleskaria» argitaratu nebanean baturik, ainbat eta ainbat Enbeita'ren bertso-lan, neukazan andik eskatzen eustena osotzeko. Bertatik asi nin tzan lanean.

Argi ta garbi esateko, liburu bat, euskal liburu bat kaleratu nai danean, diru-kontua izan oi da buruausterik gogorrena. Emen, ostera, nik ez neukan diru goraberetan zetan sarturik. Usparitxa'ra joanik neure asmoa agertu neutsen angoai; pozarren nire albistea artu ez-ezik, laguntza osoa be eskiñi eusten, Kepa Enbeita, Urretxindorraren lobeak baitik-bat. Onek batu eustazan nik opa nebazan gure bertsolari aundiaren bizitz-zeztasun eta daturik geienak.

Ondoren, A. Lino Akesolo'k eta biok Bilbo'ko Aldundiko artxibora jo genduan. Aste bi edo bota genduzan an, langille ixiltzu, «Euzkadi», 1913'tik 1936'rarte, ak arakatu ta nik eskuz idatzi (orduan ez geunkan fotokopik aterateko tresnarik) Enbeita'ren olerki danak (ustez beintzat) eta prosazko beste lan batzuk batzen. Gero beste orrenbestez arakatu genduzan «Euskal Laguntza»;

«Euzkerea», «Euzko Deya», «Excelsior», «Gure Herria», «Ibaizabal», «Jesus'en B'otzaren Deya», «Karmen'go Amaren Egutegia», «Karmengo Argia», «La Gaceta del Norte», «Patria»... Enbeita'k askokin euki ebazan ar-emonak, eta batzuetan eskatueraz beste batzuetan andik eta emendik artuz askok argitaltzen ebozan aren lanak ango ta emengo eguneroko ta aldizkarietan; baleiteke, beraz, guk batu-ezak 132 or-emen sakabanatuak izatea. Bere alada Itziar eta lobak dabiltz orain, argitalpen barri bat burutu nairik, aren bertso, datu ta bizitz-zeaztazun are geiago aurkituz liburuaz zeatz, oso ta beteagoa egin asmotan.

Liburuak au dakar. A. de Lizarra jaunaren aurkezpen eta Lugo-nes olerkariak Enbeita'ri bialdutako agurraren ostean, nire lana: Enbeita'tar Kepa, itzaurre bezela, ta olerkiak 5 sailletan berezita: 1) *Aberkoiak* (78 olerki); 2) *Urtiꞥkakuak* (81 olerki); 3) *Goralpeneꞥkakuak* (91 olerki); 4) *Ipuin eta abar* (43 olerki); 5) *Gomutakiꞥuna.ꞥ* (47 olerki). Egin daiteke beste saneta bat, egoki ta errazoizkoagoa, bertsoak obeto aztertu ta gai bereziak batuago jarriaz. Orduan alan be, zain bait neukazan, ez neban izan asti geiegirik.

Enbeita'ren lanai nik ez neutsen ikuturik egin, oz idazkoran eta ez joskeran; bai, ostera, «Euzkadi»-ren *Euskel-Atala*, Kirukiño'k eta Orixe'k batoz bo: orixegaitik bada alde apur bat poesi batetik bestera: emen *maitia* ba diño, bestean *maitea* ekartea jazo leiteke. Berak, baiña, beti idatzi oi eban bardintsu.

Bertsolari oso ugaria Enbeita. Baserriko lanak egin bitartean, Iuma *ta* ingia eroiazan aldean, une bakotxean buruak emoten eutsonea idazteko: astero zerbait bialtzen eban «Euzkadi»-ra. Erriz erri aspertu barik ibilli jakun bertsolari, baiña bat-batez otsegindako koplak geien-geienak galduak dira: orduan etzan oindiño magne-tofoirik ezagutzen.

Liburu ontan daukazuz, baita, Enbeita'k geien orabilten zituan doiñuak, oneik berberak asmautakoak eta areik ouskal erri-kantetatik berak egokituak. Gai guztiokaz pitxituriko liburu onek 446 orrialde egiten dautzuz. Eta beronen irarpena 1971-XII-3'an —Euzkera Egunean— Xabier'ko Pantzeska Deunaren agunez amai-

tu zan, Buenos Aires'en Sebasten Amorrortu ta Semeen irarkola-etxean. Bee-Amerika'n banandu ziran batez be libururik geienak. Betor laster bigarren argitalpena, Euzkadi'ko oleskari gorenengo onek merezi dausku-ta.

43. EUSKAL LITERATURA I, II, III, IV, V

Adiskide naban A. Irigarai, gizon zentzun aundikoa, bere bi-tizta osoan euskal arloan sartua. Ikustera joaten nintzakion guz-tietan goratu oi eban «Milla Euskal Olerki Eder» nire liburua. Nik bestera esaten neutson arren, berak baietz, eder-ederra zala, bere ogibidetik kanpo eukazan asti-unerik atsegiñenak andik olerki irtzuk irakurri ta ausnartuz izaten zitula, autortu eustan. Bein baita agintzen lez esan be: «Zuk, Aita Onaindia, euskal literatu-razko istori zabal bat eratu bear zeunke». Eta niretzat —leendik be esana dot— olako gizakumeen naia, agindu bat izan oi da. Eta besterik gabe lanari lotu naiakon. Nok argitara emon bere laster aurkitu neban: «Etor»-ek bere kontura aterako eustan. Bost tomo dira orainñarte agertu diranak, seigarrena irarkolan dalarik.

I

Euskal Literatura, XVI, XVII ta XVIII mendeak. Bilbo, 1972, Grfficas Bilbao irarkolan, 295 orrialde.

Sailtxo oneik daukazuz sarreran: 1) Gure Euskera; 2) Euskal lorratzak or-emen; 3) Euskeraren zatiak, euskalkiak; 4) Euske-raren aideak; 5) Euskera idatziaren batasuna; 6) Liburu onen aria; 7) Bibliografia.

Antziñako aoz-aozko literaturaren zatiak: 1) *Eresi zaharrak*; 2) *Bertsolariak*; 3) *Eskale kantak*; 4) *Kantutegiak*; 5) *Pastoralak*.

XVI'garren mondoan: Beñat Etxepare, ,Dean Etxegarai, Arnaut Logras, Santxo Elso, Betolaza, Nicolao Landucci, Andres de Poza, Pedro Madariaga, Bizkaiko Atsotitz bilduma. Joanes Leizarraga, Esteban Garibai eta Bertrand Etxauz datoz.

XVII,garrean: Estebe Materre, joanes Etxeberri, Iruña'ko sariketan Pedro Ezkurra, Migel Aldatz eta joan Elizalde, Aita joanes Haranburu, Argaiñaratz, Voltaire, Piarres Axular, Bertrand Zalgiz, Jakue Bela, Silvain Pouvreau, Aillande Oihenart, Aita Berriardo Gazteluzar, Kristobal Harizmendi, Joanes Tartas, Jean Oitze, A. F. Maytie, Migel Sueskun, Piarrez Etxeberri, Etxeberri, Jean Etxeberri, Aranbillaga, Rafael Mikoleta, Atanase Belapeire, Juan Beriain, Aita Frantzisko Aleson, Mongongo Dassanza, Martin Otxoa, Kapanaga ta Aita Domingo Bidegarai.

XVIIPgarren mendean: a) *Gipuzkoarrak*: Manuel Larramendi, Josep Otxoa Arin; Juan Irazusta, Franzisko X. Lariz, Agustin Kardaberatz, Jose Arakistain, Juan A. Ubillos, Domingo Patrizio Meagher, Sebastian Mendiburu, Frantzisko X. M. Munibe. b) *Bizkaitarrak*: Nikolas Zubia, Martin Arzadun, Agustin Basterretxea, Sebastian Antonio Gandara, Bartolome Olaetxea, Diego L. V. Uryizu. d) *Bidasoaz andikoak*: Jakue Maite, Joanes Etxeberri, Pierre Urte, Mixel Xurio, Martin Harriet, Joanes Haraneder, Martin Maister, Alexander Mihura, Bernard Larregi, M. G. Andre Baratzart, Lopez. z) *Arabarrak*: Joan Batista Gamiz, Pedro Inazio Barrutia. d) *Napartarrak*: Eleizalde, Jose Antonio Mikelestorena, Bernardo Recio.

II

Euskal Literatura, XIX mendea, Bilbo, 1973, Grfficas Bilbao, 385 orrialde. Txaloak beti arnasa barri emoten idazleri Nire lenalegaitik au esan eben. «Egundaino euskeraz gure Elertiari buruz egiña izan dan Kondairik argi, sakon ota zabalena...» izango zala esan eben. Darabildan euskerea ezta gipuzkera osoa. bizkaierako itz eta aditz batzuk be sartzen ditudalako, baiña «edozelan be euskera ederra ta garbia, zuzena ta egokia...».

Emeretzigarren mendeari egotzitakoa da liburu osoa. «Orixe»-k Larramendi'ren biribilkia eritxon oni. Eta nik emen be lenengoan lakoxe sailketa egin dot Bizkaitik asita, urtez urte.

XIX mendea Bizkaian: Juan Antonio Mogel, Pedro Antonio Añibarro, Pedro J. P. Astarloa, Paulo Pedro Astarloa, J. Anto-

nio Prai Bartolome, Domingo Kanala, Juan Matco Za, bala, Juan Kurutz de la Puente, Juan Jose Mogel, B. Antonia Mogel, Pedro Novia Salcedo, Domingo Unzueta, Kristobal Linaza, Juan Antonio Uriarte, Eusebio M. D. Azkue, Balentin Berriotoxa, Frantzisko M. Ortuzar, Balbino Garita-Onandia, Jose M. Anpuero, Luiz Z. Iza, Juan Jose Salazar, Ramon Etxezarreta, Daniel Baertel, Andres Iturzaeta, Eusebio Madina, Meltxor Andonegi, Ezckiel Etxebarria. Damaso M. Bernaola, Bonifazio Latxa.

XIX mendean *Be-Nabarra'n eta Zuberoa'n:* Martin Duhalde, Juan Robin, Salvat Monko, Martin Larralde, Pierre Topet, C. Beltzuntze, Haranboure, Fleury Lecluse, P. Nerre Dassnce, Beñar Mardo, Francisque Michel, Jose Agustin Chaho, Martin Egiatcgi, J. Martin Hiribarren, Leonce Goietxe, Jean B. Artxu, Mauritze Harriet, At. Hergaraien, Jean P. Kamosari, Joanes Otxalde, Jean Pierre Duvoisin, Emanuel Intxauspe. B. E. Maria Etxenike, G. Harroztegi, Juan Bautista Daskonagerre, P. Mendibil, M. Mendibil, M. Larralde, Joanes Berjas, Willen Jan van Eis, J. David, Mixel Elizanburu, L. L. Bonaparte, Jean B. Elizanburu, Alexandre Dihinx, Agustin Etxeberri, Etxeberri, Larrondoberri, Martin Ducq, Frantzisko Lapitze, Jean Elizanburu, Tomas Elizalde, Bernard Larralde, Larralde, Peio Erramuzpe, J. D. Julien Sallaberri, Estebe Lapeire, Martin Lapeire, Sean P. Arbelbide, B. Zalhabe, Duhalde, Martin Guilleau, Julien Vinson, Juan Ithurri, Edmond Guibert, Abente Iribarne, Laure Diharasarri, M. Salaberri, Karles G. Humboldt, L. M. Jazinto Fabre, Antoine Th. Abbadie, Dithurbide, Wentworth, Dogdson, Biktork Stempf.

XIX mendean Gipuzkoa'n: Jose Iñazio Gerriko, Juan B. Agirre, Juan Iñazio Iztueta, Jose Bizente Etxegarai, Agustin Paskual Iturriaga, Gaspar Jauregi, Jose Erantzisko Aizkibel, Frantzisko I. Lardizabal, Gregorio Arrue, Jose M. Iparragirre, Jose Maria Larrroka, Manuel A. Antia, Ramon Artola, Indalezio Bizkarrondo, Juan B. Arakistain, Jose Ganboa, Juan F. Petrirena, Klaudio Otategi, Jose Iñazio Arana, Antonio Beobide, Florentino Landart, Marzelino Soroa, Agustin Jauregi, Jose Manterola, Jose Joakin Ormaetxea, Frantzisko M. Egaña, Blas Pradere, Antonio Arzak, Erramon Illarramendi, Joakin Santa Barbera.

XIX inendeana, Arabarrak eta *Napatarrak*: Jose Paulo Ulibarri, Tuan Maria Eguren, Joakin Lizarraga, Juan Etxamendi, Pruden-zio Hualde Maio, Jose Maria Lekoizketa, Benito jamar, Esteban Obanos, Martin Elizondo, Pedro Jose Minondo, Pedro Jose San-per, Mariano Mendigatxa, Fr. Antonio Berakoa, Damaso Legaz, Sebastian J. Gaiarre, Bitoriano Uitz.

III

Enskal Literatura. Bi menderen artean (1895-1920). Bilbo, 1974, GrTheas Bilbao; 412 orrialde. «Aurreko bi tomo horietan —iñoa A. Irigarai'k— Onaindiak giputz-euskera erabiltzen du (bera bizkaitarra izanik eta batasun aldera indar bat eginez), bai-na oraingo batzuek egiten duten baino aise ulerterrazago. Izkun-tza garbia eta jatorra du, baino ez garbizale. Texto zaharrak leial-ki kopiatzen ditu, itzen aldaketarik gabe... Aditzera eman nai du-gu, obram aipatu Autoreen ugaritasun eta zchaztasuna. Izketaren aldetik ere, Liburu guztiz atsegín eta ulerterraz bat dela».

Beraz, aurrera jo bear. Ikus *Bizkaia*: Felipe Arrese-Beitia, Jo-se M. Etxeita, Simon Anjel Erkiaga, Emiliano Arriaga, Jeronimo Garagoitia, Juan Antonio Urbiarte, Juan Jose Maguregi, Juan Bi-zente Zengotita-Bengoa, Juan Izurrategi, Txomin Agirre, R. M. Azkue, Migel Unamuno, Julian Ariznabarreta, Arana-Goiri, Ijinio Gorrotxategi, Bustintza'tar Ebaista, Kandido Basabe, Gregorio M, Renteria, Pantzeska Belaustegi, Juan B. Arrospide, Julio Urkixo, Eujenio Bengoa, Zesareo Miangolarra, Zirilo Arzubiaga, J. A. eta A.

Gipuzkoa: Pedro J. Aldazabal, Jose I. Gerriko, Patrizio A. Or-kaiztegi, Jose Marino Arrieta, Serafin Baroxa, Biktoriano Iraola, Kaietano S. Irure, Pedro Migel Urruzuno, Anrero D. Apaoalaza, Alfonso M. Zabala, Pio E. Mortara, Daniel Lizarralde, Jose M. Agesta, Frantzisko Arriola, Jenaro Elizaondo, Pello Mari Otaño, Jose A. Ugarte, Juan Karlos Gerra, Jose Manuel Lujanbio, Jose Gaspar Oregi, Toribio Alzaga, Juan I. Uranga, Jose Artola, Ro-sario Artola, Migel Anton o Iñarra, Karmelo Etxegarai, Jose Eli-zondo, Frantzisko Lopez Alen, Frantzisko Apalategi, Emetcrio Arrese, Jose Maria Azkue, Toribio Iriondo. Juan M. Lertxundi, Meltxor Garai, Martin Aranburu, Mateo Muj ka, Juan Garnen-

dia, Baleriano Mokoroa, Joakin Larreta, Jose Bentura Landa, Siro Alkain, Jose Juan Kortazar, Frantzisko Apaolaza, J. Kasal Oregi, Inozenzio Munita, Enrike Elizetxea. Iñazio Belaustogi, E. Erantzadi, Pedro Luis Zaloña, Ramon Gelbentzu, Luis Eleizalde, R. J. Basterrarena.

Bidaso'z andikoak: Grazian Adema, Basilio Joannategi, Pierro (D) Ibarrart, Martin Landerretxe, jean Jaurgain, Arnaud Abbadie, Jean B. Darrikarrere, Jean B. Constantin, C. *Becas*, M. Etxegoien, Jean Etxenike, G. Herelle, Arnaud Agirre, Piarres Harispe, josep Xoribit, Jean Hiriart-Urruti, Julien Hegi, Kristian K. Uhlenbeck, Tean Saroihandi, Etienne Decrept, Pierre Broussain, Albert Constantin, Manex Etxamendi.

Naparroa'n eta Araba'n: Ebaristo Txurruka, Arturo Kanp.on, Krutz Goienetxe, Felipe Etxebarria, Enrike Zubiri, Pablo Fermin Irigarai, RamOn Menendez Pidal, Nizeto Beltzunegi, Paskual B. Eiguria, Erramon Goikoetxea, Eusebio Elzaurdia, Jose T. Biela Lopez.

IV

Euskal Literatura. Ogeigarren mendea, 1910-1935. Bilbo. 1973, Gráficas Bilbao. 445 orrialde. Anjel Irigarai'k «Egan»-en ez-ezik, Iruña'ko «Diario de Navarra»-n —76-IV-30'an esaterako— egin ebazan bere goralpenak, IV'garren ale oni buruz ain zuzen. «445 orrialdeko liburu joria —iñoan— agertu berria da, karmeldar izkiriant exagunak osatua. Euskera errez eta tinko batean, 1910 urtetik eta 1925 urteraiño euskal idazleak apaitzen ditu, beren zertzelada eta bibliografiarekin. Bost zatitan sailkatzen ditu, Bizkaitik asi ta Frantziako Euskalerrirañoak». Eta ondoren dator aurkidebe osoa, bere oarrakaz.

Bizkaia'n: Eustakio Larrabeiti, Jazinto Artalarrea, Juan B. Eguztitzza, Biktor Garitaonandia, Imanol Arriandiaga, Martin Uriarte, Seber M. Altube, Zakariaz Bizkarra, Saturnino Soloeta, Jon Gurutzbargutxi, Leonardo Zugazagoitia, Amantzi E. Urriolabeitia Nazario Oleaga, Alejandro Bilbao, Juan Bilbao, Zeferin Xemein,

Gabino Garriga, Zelestino Gorrotxategi, Juan M. Pertika, Joseba Altuna, Mikel Arrutza, Basilia Bustintza, Joseba M. Errazti, Kepa Ormaetxea, Bizente Etxezarraga, Bernardo M. Garro, Alejandro Larrakoetxea, Joakin Ganboa, Aingeru Madariaga, Luis Gontzalez Etxebarri, Serafin Albizuri, Juan Ruiz Larrinaga, Paulo Zamarripa, Kepa Enbeita, Leon Gortazar, Robustiano Ortuzar, Jose Zabala-Arana, Estepan Urkiaga.

Gipuzkoa'n: Erramun Intzagarai, Bonifazio Etxegarai, Julian Elortza, Andres Amenarriz, Jose Eizagirre, Mikel Urretx, Jose A. Irazusta, Emiliano Muxika, Juan Jose Lete, Polikarpo Larrañaga, Isidro B. Zuazua, Juan B. Gesala, Iñazio M. Etxaide, Juan Muxika Laskibar, Kaio Lasa Zala, Juan A. Barriola, Jorge Agirre, Erromualdo Galdos, Manuel Zelaia, Rufino Arregi, Juan Basurko, Juan Ezenarro, Jose Elzo, Jose G. Zulaika, Nikolas Ormaetxea, Manuel Urreta, Gregorio Maidagan, Inazio Artetxe, Martin Oiarzabal, Peli Ugarte, Gabino Murua, Dionisio Olano, Anizeto Olano, Fermin Iturriotz, Jose Zubimendi, Andres Artzeluz, Iñazio Aranburu, Luis Epelde, Karlos Aranbarri, Tomas Etxeberria, Pedro Zabala, Jose Luis Beraza, Pedro Moulane Metxelena, Polikarpo R. Barrera, Juan Zabaleta, Luis M. Arrizabalaga, Jose Ariztimuño, Jose Markiegi, Jose M. Agirre, Gerkard Bahr, Iñazio K. Nuñez, Aingeru Arsuaga, Felix Markiegi, Juan Arana, Luis Lattierro, Frantzisko Aroztegi.

Araba'n: Erromun Olabide, Leandro Jauregi, Anjel Apraiz, Odon Apraiz, Gabriel Jauregi.

Naparroa'n: Frantzisko Torres Ibañez, Alejandro Olazaran, Inazio Larramendi, Juan M. E. Dornaku, Zelestino Peralta, Iñazio M. Juanmartiñena, Jose Iturria, Juan Migel Ernetta, Alejandro Otermin, Pablo Artxanko, Blas Alegria, Joakin E. Perez, Eladio Espartsa, Joseba P. Etxebarria, Xabier Lazkor, Jose Agerre, Blas Fagoaga.

Mugaz andik: Leon Lassalle, Joanes Elizalde, Jean Etxepare, Pierre Lhande, Henri Gavel, Georges Laconbe, Leon Leon, Jean Ithurriague, Pierre Etxepare, Jean Jauregiberri, Jean Barbier, Albert Leon, Txarles G. Tournier, Klemmt-Josep Mathieu, Xorho Abata, Pierre Duhour, Sauveur Arotzarena, Piarres Garmendia, Domingo Soubelet.

Euskal Literatura, 1915-1940. Bilbao, 1977, Gráficas Bilbao, Zornotza, 481 orrialde.

Bizkaia'n: Jose M. Garate, Juan B. Arrospide, Jose Ramos Azkunaga, Primitibo Malaxetxebarria, Federiko Belaustegoitia, Kosme D. Elgezabal, Jose M. Jauregizar, Karlos Azkunaga, Imanol Enbeita, Zirilo Uribe, Frantzisko M. Ugartetxea, Gabirel Manteola, Gotzon Urrutia, Gabin Bustintza, Goikoetxea anaiak, Jose Arregi, Benito Larrakoetxea, Bitor Gaubeke, Joseba Intxusagarri, Felix Areitio, Segundo Olaeta, Ramon Larrea, Juan Ormaetxe, Juan Olazaran, Manu Sota, Jose Etxeandia, Eugenio Larrañaga, Felipe Etxebarria, Nikolas Barrenetxea, Jose M. Arizmendiarieta, Antonio Artza, Errose Bustintza, Eustakia Altzola, Juan Atutxa, Sorne Unzueta, Jose A. Oar-Arteta, Frantziako Altuna, Bizente Ametzaga, Manu Ziarsolo, Juan Abasolo, Jon Zugazaga, Eulogio Gorostiaga, Joseba A. Agirre, Egunerokak eta Aldizkariak.

Gipuzkoa'n: Juan J. Aierbe, Isaak Lopez-Mendizabal, Ambrosio Zatarain, Basilio Gerra, Gregorio Mujika, Jose Olaizala, Jose Martin Aurre, Jose M. Agirre Antia, Dionisio Aazke, Jose I. Zinkunegi, Toribio Etxebarria, Kintin Muxika, Julene Azpeitia, Errobustiana Muxika, Jose R. Irigoien, Jose M. Barandiaran, Katalina Eleizegi, Isidor Ezenarro, Agustin Anabitarte, Jose R. Zubillaga, Mikel Aingeru Olano, Iñazio Larrañaga, Juan Gartzia Golaraz, Manuel Lekuona, Jazinto Karrasko-Olarra, Juan J. Elorriaga, Iñazio A. Ezkurdia, Frantzisko Arin, Daniel Garbizu, Claudio Sagartzazu, Lorentzo Bereziartua, Jeronimo Sarasola, Fausto Arazena, Jesus Maria Leizaola, Luis Jauregi, Antonio M. Labaien, Teodoro Hernandorena, Tomas Agirre, Jon Garmendia, Dionisio Sagartzazu, Juan Iruetagoiena, Nemesio A. Etxaniz, Justo Garate, Antonio Iturriotz, Frantzisko Etxebarria, Luis Ormaetxea, Paulo Kerexeta, Justo M. Mokoroa, Tomas Garbizu, Iñaki Olabeaga, Luziano Aristizabal, Pedro Aranguren, Antolin Alberdi, Antonio Arrue, Maria D. Agirre, Telefono Monzon, Maria Etxage, Erroman Irigoien, Julian Barandiaran, Anizeto Zugati, Gillermo Larrañaga, Martin Itziar, Aldizkari ta Egunerokoak.

Arana, Nafarroa, Muga andikoak: a) *Araba:* Jose Jauregi, Juan Ibabe, Andoni Urrestarazu, Egunerokoak eta aldizkariak.

b) *Naparroa*: Mikel Olasagarre, Joakin Kasto Intza, Pablo Arozena, Agustin Zarrantz, Mikel Altzate, Aingeru Iirigarai, Manuel M. Apalategi, Jose F. Otermin, Jesus Flores **Juan Goi-**koetxea, Bernardo F. Stornes Lasa, Frantzisko Astiz, Egunerokoak eta aldizkariak. z) *Mugaz andikoak*: Jean B. Aranatz, Joanes Xabano, Madalena Jauregiberri, Mayi Ariztia, Louis Dassance, Pierre Eiheramendi, Kristope Dufau, Borbert Tauer, Rene Lafon, Pierre Lafitte, Jean P. Zubiria, Etienne J. Salaberri, Jean 13. Etxeberri, Egunerokoak eta Aldizkariak.

Ogeigarren gizaldiko literatura sail au irakurri ondoren Santiago Aizarna euskal idazle jatorrak luze adierazo eban bere eritxia, esanaz: «Gizona nolakoa den bere egiteak azaltzen dute, eta egi oneri eutsiaz, esan dezagun: Euskalerrri onetan gizon langillerik baldin ba-da, au Aita Santiago Onaindia degula. Beste lan askoren artean, onek artu du, eta ona nun azaldu den bere bostmoduan azaltzeko lana artu du, eta ona nun azaldu den bere bostgarren alea.

Liburu aurre-solasean berak dionez, bere bizitza ko poza ta alaitasuna artu omen du, eta ez da gutziago gu bere irakurleeri eman diguna. Lan guziak, bukaeran, naiz ardirpurdi xamar bukatu, izaten du alako pozkida usai bat, eta zer esanik ez dago, onelako lan bateri bukaera eman izan-ta.

Nik orain arte Euskal Literatur gain eskuratu ditutan artean, onen-onena au iruditzen zaitala esateko betere kupidik ez daukat. Inork gure literatura nolakoa izan den jakin nai ba-du, ez du joan bearrik ez, an edo emen, aratzen dituzten bada-epzadako eskolertara. Naikoa du, liburu au eskuartean artzea, eta or agertzen diran izenak gogoratuz, liburu au gidari bezela artu-ta, gizon oiek idatzi zituzten ainbat lan irakurtzen saiatzea. Ori bakar-bakarra da literatura ikasteko bidea.

Literatura ez, ez da literatur istori liburuetan ikasten. Oiek, gidariak besterik ez dira izaten. Ondoren egin bear dana izaten da, denbora asko pasa, an agertu diranari irakurtzen. Askotan au ez da erreza, eta oraindik zaillago gure literaturan, liburuak arkitzen kosta egiten bait digu, banan alare, saiatu eskero, uste bano geiago billatzera irixten gera» (*El Diario Vasco*, 1978-10-7ian).

Ez jat eder eztabaida, denpora alperrik galdu besteril: ez baita egiten. Ixiltzen danak, baña, esana obez artu oi dauala, sarri entzun dot, Orrela egin neban nik be 1977'an, neure «Euskal Literatura»en bostgarren alean (404'garren orr.). Onela idatzi neban: «B. E. Lasa'k, dalako «Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco», Literatura, IV, sarreran, bereak eta bost bota zizkidan aurka ifñondik ere arira ez zetorkiola gisa orretan barnea asazkatzeak zerbait adierazten du: badu&a nere aurkako zital gordiña. Ez dakit zergatik, ez bait dugu sekulan zeziorik, ez goraberarik izan, bai ordea alkarri lagundu. Berenez ez duela ori idatzi siñistu gura nuke, beste norbaitek muiñak galdatuta baizik. Nere lanari ezarten dizkion 24 lerroetan lau pekatu larri egozten dizkit bereziki»,

La literatura del P. Onaindia «est21 editada —dice— por el nuevo «Etor». Los dos tomos publicados abarcan los autores comprendidos hasta el s. XIX inclusive, con la disposiciOn biogrfica-obras-juicios-bibliografia, pero sin muestras literarias. Se ordenan por siglos pero desde el s. XVIII se distribuyen en guipuzcoanos, vizcainos, ultrabidasoa, alaveses y navarros. En el s. XIX, vemos, con sorpresa, que se ha incluido bajo el epfgrafe, *en Laburdi, en Baja Navarra y en Zuberoa*, a los extranjeros (lingijistas y literatos)... han extraido, por lo general, las bibliografias completas de cada autor de esta nuestra «Literatura Vasca» sin indicaciOn alguna de procedencia, añadindole luego entre las demás mera acomodaciOn v traducciOn de nuestros textos, con ciertos hbiles cambios de lugar, breves ampliaciones o reducciones, u otros procedimientos adecuados a tal fin. El resto es original del autor o de otros origenes. Unicamente se cita la procedencia de esta obra en el caso de los certh-ñenes de Abbadie, una sola vez y sin indicaciOn de autor, aunque si de editorial; incluso nuestros capitulos abreviados (p. ejem. pp. 327-330), algunas veces con una liberalidad impresionante. Y este proceder se ha pretendido justificar citthldonos en el lugar 25-avo de una lista bibliogrfica de 30 supuestos libros consultados, con la particularidad de que en el indice alfabetico de nombres con que finaliza el tomo II (unos 500) no figuramos ni una sola vez».

Errez konturatuko ziñanez, gibelmin betea darabil sarrera egi-leak susmotzen ditun akatsok adierazten lur-jo ta anpor ustelak.

Zeozer egia ba litz be, ikus zelako zitala darion! Lau puntuoi dagokioen erantzuna, gorago aitaturiko orrialdean daukazu. Ona:

—«Berari jarraiki ibilli omen naiz, idazleen sailketan batez ere. Zergatik lenengo Bizkaikoak, gero gipuzkoarrak, arabarrak, napartarrak eta abar? Edozein gaitan logika pizkat ondo dagoelako. Oien zeaztasunak ez omen dut esaten nondik jasoak diran: zeuk artu zenitun leku beretik. B. E. Lasa'k 1969'an argitara zuen bere «Literatura» lau aleetatik lenengoa; nik, ordea, 1954'an eman nuen «Milla Euskal Olerki Eder», eta ortxe olerkari bakoitzaren izenpean datoz millaka zeaztasun, 290 baiño idazle geiagori buruzkoak; nerearen aurretik Orixe'ren «Euskal-heraturaren atze edo edesti laburra» (Donosti, 1927) ta P. Lafitte'ren «Euskaldunen Loretegia» (Baiona, 1931); urrengoa nerea duzu euskal literaturaren kondaita bexela ere; geroztikoak dira L. Mitxelena, L. Villasante, Auñamendi, I. Sarasola, Erzibengoa-Erkiaga ta besteenak. Bakoitzari berea.

—Bere textuak itzuli omen ditut. Baliteke. Baiña noren textuak B. E. Lasa'renak ala euskal idazleenak? Ortara ezker, zenbat itzulpen egin ditun Auñamendik ere nere olerki-bildumatik! Azpizjokoan ari omen naiz ortan, esaldiak orai eta gero laburtuaz, azeriari bildots-larrua leporatu naian bear bada. Eta au aitzen emateko, itz joko trebea dagi berak. Emen ere iñoren aoz diarduala dirudi.

—Azken gizaldiotan batez ere, berak, atariko bezela ale bakoitzaren sarrera jarten duen politikazko giroa ebatsi omen diot. Ezer bada ere, ez gauza aundirik. Berak izan ditun liburuak euki ditut nik ere begiean: Herran'en «Biblioteca», Arana-Goiri'ren garaiakoak, «Euzkadi» aldizkaria ta egunerokoa (1913-1937), «Aberri» ta «Aberrija», «Euskaltzaleak», «Ibaizabal», «Euskal Esnalea», RIEV, «Euskalerrriaren Alde», «Euskal-Erria», «Jaungoiko-Zale», «Zeruko Argia», «J. B. Deya», «Argia», «Ekin», «Euskera», «Euzkerea», «Eusko Ikaskuntza», «Eskualduna», «Gure Herria», ta abar, aztertuak ditut naikoa zeatz leen eta orain. Beraz, belar guria aukerran duen ardia, ez doa iñoren landara.

—Laugarren obena, bitxikeri utsezkoa: bere izenik ez ei dut aipatzen nere «Euskal Literatura»-n. B. E. Lasa ta Auñamendi ez ote dira gauza bat bera? Ni ortan nintzan beñik-bein. Eta idaze bakoitzaren fitxapean ez dut iñoiz ere, bear bada beintzat, aipatu gabe Auñamendi utzi. Ni, beti, zeazten dudan idazleaz zerbait esan duten guztiak aipatzen saiatu izan naiz. Baiña nola? Ontaz ez da konturatu B. E. Lasa: al dala, mendez urren, aldian aldiko, zaarretarik gazteenetara iño; ez da konturatu, bestela elukean esango nik erabiliko —onen duda ere badu— 30 libururen artean berea 25'garren lekuan aipatzen dudarik. Or agertzen diran liburu ta aldizkarietatik berea 1969'an argitaratua da; aurretik doaztenak lenago argitaratuak dituzu. Aituko al gara?

Gauzak bare xamar artu ezkeru, beraz, ez clituzu orren pekatu astun, edozein idazlek jauki oi ditun oben arinxek baizik. Ala ere, iñoren begian laster ikusten samarra, eta neberenean agarik ere ez. B. Lasa'k aspaldixean begi-lausotuz ikusten ditula dirudi nere lanak. Ez nabil egiari ziri egin nairik: lau urte joanak diraes an itzaurrea idatzi zanetik, eta B. E. Lasa'k berean dirau oraindik ere. Arestian (1977-5-30'an) jaso nuen «Diccionario

ale ederra nunbait, aurretikoak legez. «Cultura» itza-
ren barrutian, 36 orrialdeko estudio bikaiña dakar, gaiñ-gaiñeko
so-egite zabalez osatua; aozko kultura, idatzia, iturriak, zabalkun-
dea... orrialde ugari trinkoetan damakigu. Beste batzuen artean
birri an aipatzen nau ni, olerki-saillean, adibidez, berezko zitzaion
ni aipatzea, eta «Olerti», amar urtetan etengabe, euskal olerki sail
osoa bere gaiñ eraman izan zuena: merezi zuen, aipamen berezia.
Baiña ezta, erbiak ota-gaiñez bezela, zapart egin du oartzake.

Garai ontako liburuak zeatz-meatz aipatzen ditu; aizu zan eta
bidezko «Jolasketa» (584 orr.), «Gure Urretxindorra» (232 orr.),
«Bergili'ren Idazlanak osorik» (382 orr.), eta itzulpenetatik Dan-
te'ren «Jainko-Antzerkia», Orati'ren «Odak», Esopo'ren «Alegiak»
aipatzea, eta ez ditu aipatzen. Aldizkarietaz, 31 aundi aztertzen
ditu ta 30 txiki: «Karmel» (14 urtez azaldua) ta «Olerti» (10
urtez) ez ditu aipatzen. Kuliska Sorta'ko ene libururik (*Iru poema*
ta *Enbeita Olerkari*) ezta Etor'ekorik (*Euskal Literatura*, lau ale)
ez ditu aipatzen, edo-ta ozta-ozta irazeko zerbait. Azken urteo-
tako euskal idazleen artean ez dakar nere izenik, eta 1951'tik be-
deren idatzi ta idatzi ari naiz. Omer'ek ere noizpeinka lo? Ba-
liteke,

Lo ori ala ere eztago ongi kondairagille bate.gan. Ageri danez, ezta idazlearen gaitza, ikuslearena baizik. Aipatu dudan «Cultura» lanetik agertzen danez, «Euzkerea», I. Sarasola ta ni begitan gauz-ka B. E. Lasa'k. Edo-ta ertzeratuak laga nai gaitu; gaur begitan artu ezkeru, olakoa saiets utzi oi dugu, aotan artu gabe, ibil dadilla bere kasa. Gaur gogorkeria omen duzu au, ta alderdi politikuak, beren azken auteskundeetarako solasaldietan aldarrikatzen zutenez, izurria ta kutsudura bezin txarra ei duzu ori, eta jakiña, olako kutsu-edena gizartetik jaurti bearko»,

Onarteño nik 1977'an idatzia.

44. OLERKIAK - LAUXETA

Urtero, inoiz aztu barik, euskal olerkari edo idazleren bat omendu izan dogu Larrea'ko Olerti-Eguncan, gogora ekarritako orren deduz eta goratarrez itzaldiren bat egiñez. Guk gora aundian euki izan dogu beti Lauaxeta, eta gitxi ezaguna zan laukiztar olerkari bipilla Euzkadi osoan aintzat artua izan zedin, beste batzui lez ari be omenaldia egin bear jakola, erabagi genduan.

Ortik sortu zan nik 1973 urteko Olerti Egunerako gertatu neban liburu txairo au, txikia bai baiño eder-ederra. Bilbo'n, Grficas Bilbao'n argitaratua. Liraiña barru ta kanpo.

Omen-liburu ontan daukazuz: «Bide Barrijak» euskeraz egi-leak berak 1930'an atera eban lez: «Arrats-beran» euskeraz, au be berak 1935'an argitaratua; aurretik nire aren bizitz-zeaztasunak, J, Zaitegi'ren «Urkiaga ta biak», Itziar jaunaren oarrak eta Luis Aroztegi karmeldarraren «Lauaxeta'ren Poesi gunetarantz», estudio sakona daukoz.

Liburu egoki au atsegiñez artu eben euskaldunak, onen lekuko? Beingoan egortu zala, gorago be esan dogunez,

45. ESKUTITZAK

Eskutitzak, Euskal Literaturari buruzkoak. Bilbo, 1974, Grficas Bilbao, 302 orrialde, Liburua ateratean onela nik:

«Ona liburu barri au. Eskutitz liburua, arean be. Nork idatzi ete ditu eskutitzok? Zeuok, egia esan. zeuok; nik-artu-ala, one-netarik eder-bitxiz eta jakintz-igalez astun iruditurik, ingi-otzarara jaurti ordez, maiteki gorde izan ditut. Asmo onekin gorde be, egunen baten argitara emoteko asmuz.

Orrela dagie gaur. Igaz, Olerti-Egunean, niri omenaldi kaskar bat egiteko erabagia artu eben adiskide on batzuk, ez dautsot narda egiten omen orri, zenbaiti min emon arren, oituraz datorrena da-ta, bioa aurrera. Neronek be, orraitiaño, neure aldetik, omen joria opatu nai nauskio euskal erri osoari; esku artean dozun idazki-sail eder au da nik euskal idazle guztiai eta, bidenabar, Euskalerrri osoari —euskal literaturari— dagiodan bezuza ta omenik panpox beñena.

Idazlearen bizia ezta, ezelan be, landako elbitzaren gisakoa; au erne, azi ta ainbat egunez iraun ondoren, eguzki-suak eta azpiko indarririk ezak zimel-azita, laster, osoan igartzen jaku. Naiz-ta elbitzak olan amaitu izatea, idazleak aurrera egin oi dau bere bidean; liburu bidez dirau aren nortasunak, aldiko giroan oso-osoa murgilduta. Idazlea, orrezaz gaiñera, ezta leku berezikoa; au, bere idatziak aizetara egotziz gero, mundu osokoa dogu.

Eskutitzak, ain zuzen, garai luze samar bateko «isla», «erantzun», «irudi», «oar» —esan nai dozunez— dituzunik ezin daikezu uka. Ba-dabe euren balioa euskal literaturan. Edozein idazlek, edestia osotzerakoan, aldi-pusketa bakotzeko giroarekin kezkatu ta ori jaso bearra dauko. Emen ditu joandako ogetamar urteetako literatura ta sozial-kezka askoren guna; arin, errez ta egiaz asana.

Eskutitzak, noski, iruzur bageko idatziak izan. Ondorengo gure elerti zalearentzat be ezta arrobi makala liburu au. Gazigozoz biotz-zipriztindutakoa beti ta nun-nai jaku ager baizan baliotsu.

Euskal literaturaren aro berezi bat mugatzen dabe eskutitzok, 1954-1974 bitartekoa bai beñik-bein. Garai ontako euskal idazlerik jatorrenak daukaguz bertan; 257 karta dira, 110 idazle. Beste askorenak be artu izan dodaz; etziran, baiña, gure literaturari buruzkoak, eta suak iruntsi zituan.

Argitaratu dodazan oneik, idazleak zuzendu eustazan moduan dagoz, nik ezertxo be ez kendu ez ipiñi barik; egozanez joan dira irarkolara, iñoiz komaren bat edo-ta s'ren bat aldatu badot be. Diñodan au siñistu nai ez-ta iñor or ba'lego, betor ona ta ikusi begiz orijinalak.

Emen argi agertzen da idazle askoren idazkera aldaketa. Nik neuk, egia esan, ez dot ainbeste aldarte erabilli ortografian ez beste ezertan: gerra aurratik edo beintzat «Milla Euskal Olerki Eder» argitara bota nebanetik, ez dot ezer aldatu, bizkaitarron *yaku, yat, yatzu, yako'ren* ordez Mogel'en erara *jaku, jal, jalzu, jako*, izan ezik. Aitz-mokor semdoak aize biurriari eutsi egiten».

46. EUSKERAZKO EUN MAITE.OLERKI ONENAK

Erderaz «Las Cien Mejores Poesias de Amor de la Lengua Vasca», Bilbo, «La Gran Enciclopedia Vasca», 1875, 215 orrialde. Euskeraz eta erderaz. Ellakuria irarkolan. Aurkezpena: Gregorio San Juan'ek. Itzaurrea, bilduma ta olerkien itzulpena: Aita Onaindia'k

Azaleko tituluak diñoanez, eun olerki dIra; leengo ta oraingo euskal olerkarien lanetatik maitasunari buruzko onenak aukeratu ditut, euskal kutsuz beteak. Azken bederatzia orrialdeetan datoz olerkari bakotxaren biografia ta lanen barriak, au da, egilleen aurkibide alfabetikua; onela: Agirre, Jose Mari; Arrese Bauduer, Emeterio; Artola Sagarzazu, Fernando; Aurre-Apraiz, Balentin; Azkue Barrundia, Eusebio Maria D.; Baroja, Serafín; Belsunze, Bizkondea; Bizkarrondo (Bilintx), Indalezio; Etxepare, Bernard; Dibarrart, Pierre; Dihinx, Alejandro; Etxaniz, Nemesio; Etxeita, Jose Manuel; Etxebarria Martin, Juan Anjel; Eizmendi, Iñaki; Elizanburu, Juan Bautista; Elzo Azpiazu, Jose; Enbeita eta Erremitteria, Kepa; Erkiaga Lastra, Eusebio; Etxaun Topet, Pierre; Guibert, Edmond; Iparragirre, Jose Mari; Iztueta Juan Iñazio; Jauregi, Jose Luis; Urkiaga (Lauaxeta), Esteban; Lete, Xabier; Lizardi, Jose Maria! Mitxelena, Sakbador! Mirande, Jon; Monzon, Telesforo; Mugika, Robustiana; Muniategi, Sabin; Oihenart,

Arnald; Onaindia, Santiago; Orixe, Nikolas Ormaetxea; Quere-xeta, Jaime; Sagarzazu, Klaudio; San Martin, Juan; Tapia Peru-rena, Alejandro; Zaitegi, Jakin. Guztira 40 olerkari.

Ondo ikusia ta artua izan zan liburu au, Retana'k andik urte gitxira bigarrenez atera bear izan eban eta. Zantzu ta lurrun ona, jakiña.

47. EUSKAL ELERTIA

Zazpi aleko «Euskal Literatura», esku arterako, aundi ta luzee-gia zala-ta, labur ariñago bat osotzea otu jatan, eskola ta ikasto-letako premiña ta bear-izanaz konturaturik. Eta apurka apurka «Euskal Elertia» deritxon au gertatu neban, 7-8 e. b. mailletarako. 1978. Grficas Bilbao, Euba San Migel Zornotza. 210 orrialde, 208 marrazki ta argazkiz apainduta. Felix Zubiaga pasiotarra izan zan onein antolatzaile.

Gizaldiz gizaldi eratuta daukazu liburu au. Sarrera lez antxi-ñako esesiak, kantak eta pastoralak aitatu ondoren, arnasegarren gizaldia dator Beñat Etxepare ta joanes Leizarraga'rekin; gero ama-zazpigarrana, Joanes Etxeberri, Axular, Oihenart aitatur; jarraian, amazortzigarrena, Mendiburu, Kardaberatz, Ubillos eta Joanes Etxeberri aipatzen dira. Emeretzigarren gizaldian datoz: Mogeldar-rak, Añibarro, J. **B.** Agirre, P. Jose Astarloa, Prai Bartolome, Lardizabal, Arrue, Etxahun, Elizanburu, Zaldubi eta Bekas, Ibar-rart, Arrese-Beitia, Etxeita, Txomin Agirre, T. Alzaga, R. M. Azkue, Arana-Goiri, J. Urkixo, K. Basabe ta Z. Ar-zubiaga, K. Etxegarai ta M. Iñarra.

Ogeigarren gizaldian oneik: Bertsolariak, **Enbeita**, Arrese, E. Landerretxe ta Joannategi, Hiriart-Urruti, Zubiri, Iri-garai, Eguzkitza, Ibargutxi, Olabide, Barbier, Oxobi, Orixe, Ga-rrro, Lizardi, Lauaxeta, Loramendi, Mitxelena, Zaitegi, Aita Onaindia, E. Mitxelena, Txillardegi. Gaurko olerkariak: Etxaniz, M. Lekuona, Erkiaga, Muniategi, Iratzeder, Gandiaga, Aresti, Azurmendi. Gaurko teatru-idazleak; Labaien, Lartzabal.

Bizkaieraz eta gipuzkeraz dator liburua, idazle bakotxaren testu askoz orniduta. Atsegingarria, dudarik bage. Urte batzuk dirala au jarri nai izan eban Eusko Jaurlaritzak eskola ta ikastoletan, textu bezela. Gaurko izterbegi bipillak, baiña, ez gounkazan lo ta bertatik salakuntza: Liburu orrek, naiz-ta ederra izan, ez zituan beteten gaurko ortografi-legeak (atxe batez be), Euskaltzaindiak agintzen ebanez. Onan atzera egozte, alan be, beti dozu gibelkoa ta setati.

48. AZKATASUNAREN YARRAI

Títuloa aldatuta daukalarik be, ozaguna dozu lan au, Agirre Lekube'tar Joseba Andoni'k, Euzkadi'ka lenengo Lendakariak, erbestean arat-onat ebillela idatzitako «De Guernica a Nueva York pasando por Berlin». Gerenabarrena'tar Andoni karmeldar lekai-deak euskeraz ipiñita.

Zornotza'n jaioa dogu itzultzailea, 1910'an. Berton, Markiñan eta Gasteiz'en len-ikasketak eginda, Teologiarren ingurukoak Erroma'n osotu ebazan. Andik Amerika'ra aldatu zan. Nik gogotan dot oindiño italiar «Rex» itxas-ontzian arantza joiala Kadiz'tik bialdu eustan eskutitza, guk Karmona'n aterako argazki sonatua aldean eroalarik. Arrezkero guztian andik ibillia, Ipar-Amerika'n, Mexikon eta Guatemalan, berton illa dogu urte batzuk dirala.

Liburu au erderaz 1943'an (Buenos Aires) argitaldu eben lenengoz, eta itzultzailea garai atan Arizona aldeko lekaeroetan aurkutzen zan, eta antxe jakin edo euki eban liburu eder orren len-albiste; irakurtaldi atsegingarriak egin ondoren, beingoan asi zan berau euskeraz jarten. Agirre'ren idaz-modua ederra ez-ezik zailla be ba-zanagaitik, burutuko eutsozan eukazan oztopo ta gaiztasunak.

Munduan barna bizi osoan ibillitako Gerenabarrena'k, irakurri ta idazteko asti urri izanarren, urnctatik ekain euskera ikasle zala landu egin eban. Eta orrela landutako izkuntza ezta errez aztuten. Gasteiz'en ikasle egoala, Donostia'ko «Euskal-Esnalea»-k Cervantes'en «Novelas Ejemplares» itzulpen orde sariketa bat ipiñi ebanean, ortarako lanean genduan berau be; gaztetatik asi zan, beraz, euskeraz idatzi ta erreztasuna artzen.

Agirre'ren prosa ugaria dozu; Aita Gerenabarrena'k, oster, pontsamentu sakon orreik be euskal jantzi garbi ta liraiñez apaintzen dauskuz. Batzuen batzuk, bear bada, beti iñori grauska, esan daikee itz barri geiegi sartu ditula, baiña berak, itzultzailleak bardin desake, gaur beste askok itz arrotz geiegi ta ulert-gatzak dara-beleak pertzari, ipur-baltz.

Zenbat esaldi gaur erderakada utsez biurtu oi doguzanak, itzultzaille erne onek zelako euskal senez ta joskera argitan diñoskuzan. Ez da gitxi, umorea bear da, ta euskal maitasuna: Arizona'n eta bizkaieraz egiña daukazu. Onela Itzultzailleak: «Ba'leiteke bateon batek nik bizkaieraz idazteari andiestea. Nungo ta Arizona'ko bizkaieraz gero...!»

Liburu au itzultzailleak berrogei bat urtetan euki eban beragaz, noiz eta zelan argitaratuko zain. Zortzi bat urte dirala, Guatemala'tik Euzkadi'ra etorri zan batean, niri erakutsi eustan beragaz zer egin leiken eska. Nire erantzuna: «Argitara!» Eta orrelaxe egin genduan, ezer kendu ez ipintekete.

49. LAMIÑAK

(Orrazi-eskean). 1978, Zornotza, Euba'ko Grficas Bilbao irarkolan. 207 orrialde.

Norberak sarri ez daki zelako bidetik **eta atsegin izaten** jako besteen eritxia jajitea. Edozeiñi au ta idazleai batez be. Emen dozu, ba, nire idazti onetaz Luis Aroztegi karmeldar euskal idazleak 1979-1'ko «Karmel»-en idatzi ebana.

«Santi Onaindia'ren erreztasunak —diño— eta agor-eziñeko ugaritasunak beste berarizko liburu bat eskiñi dausku. Ume ta gaztetxoentzat egiña, baiña gaztetxu eztiranak be atsegiñez eta ikasiz irakurri leikeena. Amaika amairu urteko neba-arreba bik jokatzen dabe geien baten ipuin-kondaira onetan. Oiz'en erromeri egun batez ekatx artean galdurik, lamiña on baten laguntza izan dabe. Gero, baiña, lamiñentzat orrazi-eske joan bear dabe erririk-erri,

amabost egunez. Eta or doaz, Txomin bere kitarreagaz eta Itziar bere ziskuagaz orraziak batzeko, batez be antxiñatik lamiñen barri gordetan daben Bizkai'ko errietarantz.

Alor bi alkartzen ditu idaztearen gaiak: bata lamiñai buruzko antxiñako uste ta ipuiñak eta areen tokien barri emotea; bestea, bidez-bide aurkitzen diran erri ta auzoen izadi, kondaira, erti-lan eta beste giza-egiteen zertzeladak batzea.

Bizkaiera osotuan idatzita dagoala esan lei. Aditza batez be bizkaieraz. Esakerak eta itzak, ostera, beste euskalkietatik be eurrez eta konturatu barik. Ezaguna da Onaindia'ren erreztasuna. Bear bada iñoz biño argiago dago emen; ugari, guztiz aberats, itz, esakera ta joskeraren ixurtasunean. Liburu au (bigarren zatia falta jako oindiño) idazlearen beste idazki batzuekaz (batez be *Euskal Literatura'gaz*) gure aldiko klasiku bat lez geratuko da. Izkuntza-arrobi ta eredu. Ezetariko alegin barik egiña, berezberez urtena; lenengo atalari edo emon eutsan ikutu bat eta barrio idatzi; beste guztia lenengo eskutik irarkolara joan zan zuzen.

Gaztettoentzat egiña, egillearen asmutan, eta gaia areentzat da egokiago izan be. Emen badago oar bat ezarri bearra; gaurko gaztettoentzat eta ain gazte ez diranentzat be garaiegia da idazkiazaren euskera. Gure ikasleak bidezko dan euskal eziketa izan balebe, elitzakie zail izango. Bere mamiña ta egiturea oso bakun ta zuzenak dira. Baiña aipatutako izkuntz-aberastasunak gainduten ditu. Eta ezin dabe bere ederra gozatu, ez bere aberastasunetik bear beste ikasi.

Ganera, edesti zear-zear bat da. Alde onetatik, apur bat doiñu bardiñeko beti. Ainbat eta ainbat gauza gertatzen eta esaten dira, baiña beti mailla baten, zearrean. Ez dago goraberarik, tinkaune erdiragarririk. Dan eran artu bear da: egilleak eztau gaurko eleberririk idatzi nai izan. Kontakizun bakun bat ume ta gaztettoentzat. Euskal kutsuz ganezka. Euskal mundu nare, gizalegez bake-tsu. Onaindia'ren gozagiro jakiñak irribarre baiezkorrez biztuten dana. Ba ete oindiño olako Euskalerririk? Bai, oindiño, erri txiki ta auzunetan, itxas-bazterretan. Eta Euskalerra au guztiz galduteko-tan, zer litzake Euskalerra?

Orra or euskerearen bizkorra, indarra ta lerdena barriro bc erakutsiak. Orra or Euskalerrriaren barru-dirdai apala, egillearen oroimenean poesi biurtua».

Lan onek sari txiki bat izan eben, orixegait'k diñot lenengo orrialdean: «Bilbao'ko Udal-Aurrezki Kutxak, 1976, eratu ebro «ResurrecciOn Mara Azkue», bigarren euskal ipuin sariketan, bigarren saria jaso eban lana.

1 Sailla diño ondoren. Zergaitik ete? Oraindik idatzi ez dodanarren, beste antzeko bat idazteko asmoa dodalako. Lenengo sail onetan datoz lamiñ-ipiñakaz naste itxas-aldeko (Markiña, Ondarra, Lekeitio, Gernika, Mundaka, Bermeo, Bakio, Plentzi, Getxo, miako, Usansolo, Zornotza'ko errien kondaira ta zeaztasunak) nai-koa zeatz; beste orrenbeste *egin* gura neuke II Saillean beste Bilbo, Muskiz, Karrantza, Balmaseda, Artzeniega, Orduña, Orozko, Zeanuri, Dima, Otxandio, Abadiño, Elorrio, Zaldibar, Ermu, Mallabi aldeko batzuekaz.

Barruan daukazuzan 26 marrazkiak Paulino Larrañaga eibarrak txairo-txairo egiñak dozuz.

50. EGOITZAK

Santa Tercsa'ran *Moradas* edo Barne'Gaztelua. 1981, Lizarra (Nabarra), Gráficas Lizarra (Verbo Divino), 239 orrialde. Azale-tarako marrazkiak: M. T. Agirregoikoa Aristondok.

Oar bat daroa lenengo. Gero, sarrera, bederatzi orrialdekoa. Santa Teresa'k idatzi zitun liburuak aitatzen ditut. Gipuzkeraz dago liburu eder au.

Besteak beste —diñot— gu gagozkion euskeraz jarri dugun «Egoitzak» edo barne-gaztelu oni. Emen adierazi zitun gauza asko aurrerago ere, amabost bat urte lenago, nai-ko samar emanak zitun 1562'tik aurrera borobi du zuen bere *Bizitx-liburuan*. Teresa, ala ere, goratuz zijoan mistika gauzetan, beti ere ixil eta ezkutu arri-garraigoak aurkiturik jainkoaganako artu-eman eta doai-uzta ta arloetan.

Grazi, doai ta mesede bereziaz buruz idatzitako liburu ontan, Teresa deunak, besteetan azaldu ez zituan mistika alorretako gii askotxo irauli ta argitzen ditula esanaz ez dugu gozurrik ez geieg.-koririk jalgiten. *Egoitzak* da azkenengo ondu zigun liburua, eta egia esan, aurreragoko liburuak egiterakoan, geroago ikusi ta sakondu zituan otoitzaren samurtasun eta bikaintasunik asko, euren sakontasun osoan ulertu ta jabetzeko zeuzkan. Arimea, izan ere, lainkoarekin alkartuta batu egiñako ta gorago doa maillaz mailla izugarritzko bideak zear, Jainko-maitezko zirkillu, kako ta tzulinguru loratsuetan zear noski. Gogoak ez darabil burutan, ona eldukeran, Jainkoa maitatu ta Aren naia egitea besterik, Biak, Jainkoa ta arimea, alkar arturik daude, txingar gori bi ala-ala.

Teresa deunaren irakaspena benetan dugu ezti leguna, Zergatik? Berak diosku au: «Emen ez bait gera gauzetaz ari, Jainkoaz baizik, eta lan legunagoz ta ditzira biziagoz noski». Orduan ez bait zekin zillargilleak ainbeste, urre erabillia ere lege obekoa izan. Arimea otoitz-aro bikaiñez, oso-osoan Jainkoari emana, Jaunak berak, zillargilleak zillarkia lez, bere eskuz landu, eraberritu ta dotoretzen du emeki. Zeru txikia da arimaren barrua, Jainkoa jaun ta jabe. Otoitzbizitza gorituan dabilta biak.

Labur: Teresa daunak jauregi txit eder bezela iruditzen arimea. Irudikizun au ernai darabil aurrean, eta atsegin zaio. Gaztetan —eta gero ere bai ikusiak zituen olako torre-etxeak eta jau-regiak, an inguruetan. Bai, giza-arimea olako gaztelu aratza dugu. Jainko-graziaz eta doaiez jantzita barrutik eta kanpotik ere lore-tegi, baratze, oker-bide, iturri ta olakoz inguratua, bizitegi askoz bete, batzuk goian, beste batzuk beean eta inguruetan; erdian, esan dugu, Jainko aundiaren aulkia, dizeLtsu.

Gaztelu onek egoitzak, au da, biiz!ekuak dauzka. Zazpi aipatzen dizkigu 'resesak, eta arimea ara ta ona, erori ta jaiki, oietan zear dabilkigu zazpigarrenaren erdi-erdira iritxi artean. «Neke ta pozaldi artean —dio Teresa'k— Jaunak onezkero ikusi du arimea berea duela, egiazki. Osoan alkartzen dira Jainkoa ta arimea, beste iñor sartu gaberikan bien artean; iñork ez daki an zer gertatzen dan».

51. SANTA TERESA

Sania Teresa, eliz irakasle, II zaneke IV Eunurtegarrenean (1582-1982). Bilbo, 1981, Grfficas Igarri, 128 orrialde. 15 marrazki, Etxano'ko Miren Tere Agirreagoiko Aristondo'k egiñak.

Aldien gurpillean iraulika, 1982'an ospatu gendun Teresa Deunaren eriotza, Tormes. ibai ondoko Alba'n gertatua. Ementxe dartzaren gorpua, usteldu barik oindiño be, erio usteldura legetik iges *eginda*, gaur be larcun urte igarota, aren gorputz illotz.i osorik dago, usaintsu ta eder. Erantzunik ez dabe jakintsuak, itxurazkorik, orrelako jazokuna egoki adierazo al izateko. Or ez dau balio aize legorrak; lur cmokor ondo ezo ta beteak geratu ziran inguruak euriz ta karez, bizkor irotu zedin.

Makiñatxo bidar goratu izan dabe Teresa Deuna munduko jakintsuak. Letbnitz'ek berak autortu bear izan euskun Teresa'ri zenbat zor eutsan. Buru argikoa zanez, Agustin Deunarekin eta Akino'ko Tomas santu jakintsuaz kidetu izan dabe, ez gitxitan. Gaur, ostera, Teresa ta Agustin Deunak doguz kristiñau erriak maiteen ditun santuak. Biok euren barru-gauzak idatzi ebezan, eukezan biotz-zirkiñak etorktzunarentzat belau, sutsu ta dardarti itxirik. Eta onek, ezin ukatu, aundi egiten ditu pertsonak.

Lareun urteen buruz, nik be zerbait osotu nairik, Teresa aundiaren bizitza labur au biribildu nai izan dot. Egoki zan, izan be, gure izkuntza zelanbait erdikide izatea, aren omenez ospatze-ko jaietan. Euskaldun jenteaz artu-emon beroa izan eban "Teresa'k. Euskaldunak, euren aldetik, erantzun izan dautsoe al giñoan, gizaldietan zear. Orra, gaur berton, zelako jentetza batu oi dan, bere jaietan atan be, gure komentuetan, Larrea'n, Markiñan eta Begoñan baizik bat,

52. GAURKO OLERKARIEN EUSKAL LAN AUKERATUAK

Bilbo, 1981, Boan. S. A.106 orrialde. «Geu» argitaldariak onen agindu eustan beifiola: «Osa ezazu olerki-xorta, gaur eguneko euskal olerkari gazteen Janez, batez ere». Ortan saiatu naz.

Zaarrak lendik be ezagunak dira, naiz-ta ez bear beste; baiña gazteak ez ainbeste, eta egoki dala deritzat orreïn lanak —poesi gaztea— be pizkat beintzat ezagutzea.

Orrela egin neban libututxo onekin. *Olatu* barrikoak dituzu, ba, emen daukazuzan poeta geienak. Bateren bat baleiteke «Milla Olerki eder»-en datorrena izatea, beste danak —58'raiño— an ez datozanak dira. Ona emen sartzen ditudanen izenak: Jesus Maria Arozarnena, Juan Diharze, Mixel Labegerie, Nikolas Alzola, Juan San Martin, Jean Mirande, Juan Maria Lekuona, Biktoriano Gandiaga, Alfonso Erigoien, Martzel Andrinua, Xabier Aranburu, Martin Iturbe, Pepillen, Jesus Gaztañaga, Mixel Itzaina, Mikel Zarate, Gabriel Aresti, J. Anjel Etxebarria, Jean Erdozainzi-Etxart, Daniel Baztarrika Enaut Etxamendi, Xabier Azurmendi, Iñaki Etxazarreta, Joseba Intxausti, Jose Agustin Orbegozo, Eusebio Igartza, Antonio Bilbao, Mikel Lasa, Jose Ant. Artze, Luis Mari Mujika, Fermin Iralagoitia, Jose Azurmendi, Paulo Iztueta, Lorenzo Zugazaga, Xabier Lete, Jose Lizarralde, Ramon Saizarbitoria, Patxika Erramuspe, Martin Garin, Eustakio Mendizabal, Ibon Sarasola, Daniel Landart, Amaia Lasa, Juan Maria Irigoien, Manu Erzilla, Jon Enbeita, Koldo Izagirre, Mikel Arregi, Mañex Pagola, Gexan Alfaro, Pello Martin Zabaleta, Beñat Sarasola, Abel Muniategi, Jose Anjel Irigarai, Mikel A. Intxausti, Jose Maria Agirre, Martin Tejeria, Jesus Antonio Etxezarraga.

Pillo ederra. Badira oraindik beste batzuk, aztuta emen ipiñi ez ditudanak, Eusebio Osa euron artean. Oran ez asi, mesedez, lengoak ala oraingoak obeak dirala esaka, erasoka ta garraxika. Ori eztabaidatzeko ez gagoz gaur, nik uste, gertaturik. Nik au diñot: lengoen lanakaz bilduma geiago osotzen dirala, oraingoakaz baiño. Zer-nola ta argibide bat dogu. Ia, gazteak, atxit egin; zoli zaitze!

53. ARANA GOIRI'TAR SABIN OLERKARI

Sendo, zindo, giar, areitz tinko, Sabin gure aita! Gatzak, nairgabeak egin zinduzan olerkari; presondegi ta zigorrak gure maisu ta eredu! Gora zu! diñotzut, euzkotar zintzo guztien ordez!

Ikasle giñala jausi zan gure eskuetan Arana Goiri'tar Sabin'en «Olerkijak» liburuia Eleizalde'tar Koldobika'k 1918'an argitaratua. Eta areik irakurri ta ikasiaz barrua jakun eder-senez asetzen, eta mendi-ertzean abesten:

Ze ikusten dabe neure begijok?...
Au danau dakust galduta:
Beresi, baso, muru ta mencli,
Uri, baserri ta dana!

Liburu bizigarri ortako bertso ta kantuak kezka oiartzun egin daus,e bizitza zear. Beti zasztaka neukan aitzo lez barruan oler-lanok, azalduz liburu txanbeliña mamin egiteko gogoia. Eta emen daukazu berau Abando'tarraren ainbat gauza ta olerki lirikuz apaindua, Bilbao, 1982, Graficas Igarri, S, C, L. 168 orrialde.

Maisu jakintsuaren poesiak dozuz, arek be ba musaen altara gainean entzentsua erre eban. Besterenganatua ibilli zan gauza askotan, eder-lanari ekiteko asti geiegi barik; alan *eta* guzti, bultzada gogorak asmatu zitun, espetxe egoala batez be, ta bultzada orreik olerkitan emon euskuzan. Goi-gorriak jota eder-eremuan besteak ez ekusena ikustera eldu zan, ez gero obari ta interesdun zerbaiten billa, guztion aintzarako zanak eraginda baiño. Erdiune ber-barera doaz Abando'tarraren burutapen, biotz-erason eta bir-lora dan-danak: euskal erriaren ona, zuzena ta aintza. Urduritasun orrek iruntsiko dauza olerkariari arimea.

Ertilari, artista genduan Sabin. Gizona ta ertilaria, barriz, estu-estu ei dabiliz. Arana'k, giza-seme zanez, jaiio zan sukaldean ikasi ta arturiko fede ta ekandu zuzenai ez eutsen egundo muzin egin. Aren eder-lanak onak ditugu beti, Jainkoa ta Aberri duin be duin kantatuz. Gizona lenen gizon izan bear, eta ondoren ertista; gero, jakiña, sorburu garbiak ezin daikegu ur loirik ekarri. Aren lirikar koplak, guztiak, barren-barrendik sortuak clira.

Eta abestuak. Nok ez ditu gaur be oiukatzen: «Bizkaitarrak gara», «Mendiko negarra», «Azkatasun eguzkia», «Lenago ill! », «Agur, Jaunan Ama», «Goxeko Ixarra», «Otseña zara», «Ken! », «Euzko-Ab2ndaren Ereserkija» ta besteak?

Iru zatitan datoz emen Arana Goiri'ren olerkiak azalduta: a) Bost *ereserki*; b) Zortzi *illots*, eta z) amazortzi *abesti*.

Eder jakozan Eleizalde'ri Arana'ren olerkiak. Onela diño: «Goitiar dabil beti, arranoa egaz bezela, olerkari bikain aunen ol-dozkuna. Lurreko zirtzilkerietan ez dozu iñoiz idoroko. Bere askua (kemená) orrelakoxea izan zan, eta asku ori egikunetan igarri bear, nai ala ez».

54. EUSKALDUNAK ETA OSASUNA

Bilbo, 1984, Igarri 'ren irarkolan, 180 orrialde, «Euskerazaintza»' ren argitalpena.

Osasuna jagon bear da, gorputzarena ta arimearena, biak bait ditugu geure nor-Izatea orotzen dabenak. Jagon be gero, norbere maillan eta erri-maillan. Orretan alegindu ziran gure asabak, euren garaiko seme izanik. Areik orduko jokabidez jardunak doguz, eta guk gaurko aurrerakuntzaz baliaturik jokatu bearra daukagu.

Gatxak oratzen gaitunean, osasuna nai izaten dogu. Gure aurretikoak, geuk legez, sekulako alegiñak erre oi ebezan gatxaren mende ez jausteko, eta iñoiz jausi ba'zedizan, aren erpatzar biurrietatik iges egiteko. Ortarako, liburuak zer aundirik ez diñoskuen arren, berein bide artzen zituen: euren guraso ta gurasoen jakiñera, bedarretara, azti ta sorgiñen gantzuki, miritza (enplastu) ta igurzkieta, erlejiño-gauzetara jotén. Ez da arrigarri, ez: gaisorik dagoanak osasuna opa.

Gaur-egun, beste giro batean bizi gara-ta, miresgarri egiten jakuz gauza asko, siñistu-eziñak. Oraingoz be olakoak izanagaitik, bedar-zale, sasi-osagille, azti kerira emon eta olakoengan ez daukagu federik. Antxiña bateko gizaldientan, baiña, orrelaxe zan barik, ez bait egoan gaiñerako zientziatzko osalaritzarik. Eta aztru, bedar-osalari ta beste orreikana jo oi eben geixorik egozanak osasun billa. Gizarte mailla guztietakoak jo be. Eta orduko osabideak, gaurkokuontzat bestera iruditu arren, besterik ezean zentzunezkoA zirudien,

Geroagoko frutuak doguz gaur daukaguzan aurrerapide, geitze ta emendioak, aurrerakuntza on eta txalogarriak egi-egiaz. Eta azi-aldi onurakor orrei esker, uste ta itxaropen aundiz doaz gaur gaisoak gai orretan trebe ta jakitun diran osagille ospe aundikoen-gara. Eurokan aurkitu dagie geienik opa daben osasunaren lore irribarretara. Kasu batzuk ba-dira, orraitíño, osagile jaió ta ad;tu orrein gaitasunik be sendatu ezin ditunak. Eta orduan, txult,t egiñok oraingo jakitean etsiok, leengo jokabideetara, aztikeri ta hedarretara, zuzentzen dira ostera be. Eta iñoiz edo bein, izen aundiko osalari bategandik jadetsi ez ebena, olako bategandik lortu: oi dabe. Ase arte dautort: gaisoak osasuna gura.

Iru saillekoa da lan au. Lenengoak «Danendako Osakuntza» dau izena. Eta emen daukazuz gaurko osakuntza aurreratuak gure h atxak sendatzeko darabiltzan osabideak. Zati onetan aurkitzen da geienetan izan oi doguzan gatzak zelan ikusi, artu ta gaiñezkatu. Naikoa labur ta argi azaltzen alegindu gara, 64 gaitz dira guztira.

Bigarren zatian au dator batez be: euskal erriak zelan aspaldi danik askatu zituan bere osasunazko goraberak. 37 agerkai datoz emen. Gai guztiz jakingarria, nik uste Etnologi-zale gara gaur. Gure aurretikoak arazo ontan zelan jokatu eben jakitea ez jaku, ba, garrantzi ta gora eskaseko gauzea, sustraiz aztertu ta ikasi bear geunken gai jakingarria baiño.

Irugarren zatian, landarak eta bedarrak, osagai. Sail oneri da-gokiozan gaiak bata baiño bestea interesgarriagoak dituzu. Gure mendi, troka ta ibarrak, aberatsak dira bedarretan. Orrez gaiñ gaurko mediziña asko ta askoren mamiña ta jarioa bedar orreita-tik iratzitako zerbait dira. Eta gure osab ideak, ez aztikeri-zkoak bakarrik, bedar-jariozkoak genduzan ez gitxi.

Noberak usteta be idazti bat ona dala, beste askok ez dabe orre-la pentsatzen. Gai oneik nik Ondarruko sariketa batera aurkeztu nitun; nire lana aztertu ebenen artean osagille bat be ba-zan,

etzan aintzat artua izan «virus» ta «mikrobi» itzak ondo be-reizten ez nebazalako. Alan be, naitaez, legeak olan eskatzen eba-la-ta, saria emon bear jatanez, beste iru gipuzkoar zentzun aundidun eretxi-emoillek saria merezi ebala iñoon ao batez, eta sari-tua izan zan. Onako naiko gertatu oi da gure artean.

55. NERE BASERRIA

Nere Baserria; euskal poema. Deusto-Bilbo, 1985, Igarri irarkolan, 188 orrialde. Azaleko ta barruko marrazkiak: Belaustegi-goitia'tar Xabier'ek. Euskerazaintza'ren argitalpena. Gipuzkoa'ko «Camara D. S. Agraria»-k eratutako SAN ISIDRO SARIA, 1975, irabazi ebana.

Ni ez naz baserrian bizi, naiz-ta gure komentua auzune eder batean datzana izan, eta guk, gaur ezta be, beiak, oilloak, paitak, txarriak, katuak, txakurak eta olako piztiak ugari izan; zugatz eta ortuaritan, barriz, nok kontat² Zugatzak: okaran, intzaur, piku, kerexa, urretx, gaztaiña, sagar, madari, kaki, kibi, mirmillu, maats... Eta barazki-motak, euren aldikoak eta geiago!

Baiña baserri txairo baten altzoan jaio nintzan; beraz maite dot baserria ta onik zabalena opa dauosat. Orixegaitik idatzi dodan poema au, egiazko baserritar ba'nintz bezela. Euzko baserria iraun dedin, nai dot bizi. Nire barne arnasa dira bertso alik ondoen bi ribilduok.

Urte aroai jarraiki antola ditut baserri poema onen zatiak.

ikuskitunak dabazan urtearen lau aroak! Udabarria dogu lenen urteak barren dauan aldirrik leun zoragarriena; berbizteak badau izan be, gu arnas-barritzen gaitun eragin sorgiña. Uda osoan dogu bere labore ta uzta aldian. Udagoienak, milla kolorez, biziaren ariña dakarkigu gogora. Eta, guenez, udazlenak, iltamurnaz egiterakoan, «negu baltzaren bizar aundiak» agertzen jakuz edonundik. Auxe da nik euskal poema onetan abesten dodana.

Olerki danak kantatzeko moduan eginda dagoz, lenengotik azkeneraiño. Lenengoa Bilintx'en «Loriak udan...» lez eta azkena «Gernika'ko arbola lez. *Udaberri'ke* 16 olerki ta 16 kantu diferentek; *Udaldiak*, 17 olerki ta 17 abesti; *Udazken'ak*, 16 olerki ta 16 kantu; *Negua'ke* 15 olerki ta 15 abesti. Eta 18 argazki lirain daroaz, danak baserri bizitza, tresna, abere ta ikuspegiz jantzi,dz. Ba-daukazuz tarteka beste poesi batzuk be bizigarri ipiñi ditudanak.

Barruan naiz landan, kitara naiz alboka joaz, astia emon eta ikasi ta euskal biotzari berebiziko dardara ezarteko, bikain-bikaiñak dozuz poesi-lanok.

56. 25 ANTZERKI LABUR

25 *Antzerki labur*. Bilduma. Deusto-Bilbao, Igarri'k argitaratua, «Euskerazaintza'ren argitalpena». 167 orrialde.

Nik liburua aurrean jartzerakoan, onela: «Antzerkia ez da edozer gauza, olerki-saiets bat baiño. Olerkia, poesia gizasemeak, naiz emakumeak, bere buru-blotzai eragiñik eratzen dauan lana ba'dozu, antzerkia (teatrua) be orren pareko, buruak eta biotzak sortutako zerbait dozu. Beronen bereiz-gaia euki oi dau gauza bakotxak. Zein ete da antzerkiaren bereiz-ari ori? Olerki-maillakoa danez, ederra adierazo bear dausku, interesgarri dan alako giza-egintza baten bitartez.

Antzerki baten, beraz, gai garrantzizkoa bear da, gizartekoa, ederrez jantzia. Antzezlagunak dagie berba, bakarka naiz askoren artean, mintzalari geiagoz bakarka baiño. Arte-lan guztiak lez, badau onek be bere elburua. Zein elburu ete? Gizona nabarmen jarri, beronen oiturak eta ekanduak, edertzen dabean gaitasun onak goretsiz, eta aski-bedarra lez ditun griña ta makurrak txibitaz astin-azorik. Onek poza dakarsku aldiz, eta aldiz lotsa goniak g^qindika bete.

Ederrak ez dau egundo elburutik urriñegi ibilli bear. Giza-bizitzaren edertasuna nabarmentzen alegiñak egin bear dauz antzerkigilleak. Ederrak ostera ona dau izarbel, aizta maitati bi lez dirala, sarri esana baita. Begi dizdiz erraiñu onaren argiak. Ekan-duen ezle —onena— ei da antzerkia; ortik, ba, erriari gaitza erakusten jardutea pekatu larria litzateke. Erriko jentetza, egia, danetarikoa da; ona ta txarra naste daukagu. Txarra albora lagarik, gora daigun onaren ederra.

Ba al dakizu antzerki-txorta au noiz eta zelan egiña dan? Lanak sarri askotan eskabidez osotu oi ditugu, nik beintzat askotxo ditut olan burutuak. Amabost urte ta geiago dira onezkero, eske asi jatazala eskoletako maisu, maistra ta andereñoak antzerki-eske ta eske; komeri batzuk egin nai ebezan euren eskoletako neskato mutikoen artean, eskolan edo ikastolan edo-ta erriaren aurrean. Baiña ez eukien ortarako gai egokirik, antzerkitxorik, neska-mutikoak antzeztuteko lakorik, eta nigana joten eben. Nik kopiak aterateko-ta, neuk neukazanetatik izten neutsezan batzuk,

Geroago beste eskari bat: antzerki bilduma bat, txorta bat oso-
tu bear nebala, baiña lantxo labur errezakaz, errez ikasi, esan eta
antzeztutekoakaz, bakarka, alkar-izketan eta olan esatekoakaz. Asi
nintzan lanean, eta ona emen nik biribildutako teatru-txorta. La-
nok ez dira luzeak, eskatu eustiezan lez, amar, amabost minutu-
koak geienak ordu erdikoak gitxi, eta banakoren bat ortik gorako³.

Eroso, errez ta egokiak, nik uste, gaur ikastetxeetan somatzen
dogun utsunea beteteko. Ni amaika urteotan noan eskola-ikasto-
letan, noizik bein, komeditxoak polito egin daroetz. Lora-sail one-
tan badozue, irakasleok eta ikasleok, nun aukera.

57. JAINKO ANTZERKIA

Dante'ren *Divina Comedia* euskeraz. Bizkaiko Foru Aldundiaren
babespean. Bilbo, 1985, «Igarri» irarkolan, 366 orrialde, Marraz-
kiak: Azalekoa, Rafael'ena, ta laugarren azalekoa, J. Sumol'ena.

Dante, ertilari aundi bat daukagu aurrean; ez gero idazle na-
rratibo lez, baita gizaseme legez be. Amairu-amalau mendekoa da,
ta gaurkoa dirudi, pentsakeraz ta idatziz. Berau agertzen jaku
mundu literaturen txuntxurrean, gaurko poesi-joeran ain zuzen,
diñoenez. Esakun onek ba-dau bere susterra. Batikandko *Enciclo-
pedia Cat6lica'*ke onela baiesten dau: «Katolikotasuneko olerkari-
rik aundiena» dala esatean. Mendez mende poeta aundiak ezagutu
ditu munduak: Homero, Bergili, Horazio, W. Goethe, Shakespea-
re. Dante'ren lana, *Jainko Antzerkia*, or daukagu betiereko oroi-
gaillu goieneko.

Asko idatzi eban Dante'k italieraz eta latíñez. Aren lanik bi-
kaiñena *Antzerkia*, dudarik bage. Merezi eban, ba, gure izkuntzak
poema gorenengo onen itzulpena. Emen daukazu berau. Nik aspal-
ditik nerabillen gogotan, Dante'ren lan ikaragarria nai neban eus-
keraz jarri. Urteak dirala nintzan orretan; an «Karmel»-en leenen-
go urteetan datoz Infernuari buruzko kantu guztiak, nik uste. Ge-
ro «Olerti»-n emon nituan beste batzuk Garbitokitik artuta. Eta
orain emen daukazuz iru kantu luzeak oso-osorik.

Dante'k bertsoz ondu euskun bere poema; euskeraz be atzan
zailla bertsoan jartea, baiña prosaz asi nintzan jostari lez asti-une-

tan orain zati bat eta gero beste bat itzultzen; olaxe dator lan guztia. Liburuak, itzultzean, beti galtzen ei dau zerbait, ez ei da inoiz be jator-jatorra. Orrela izango, ta orrela da, izan be. Nik dagone, ko iru klasiku itzuli ta argitaratu ditut: Bergili'ren *Eneida*, Homero'ren *Odisea* ta Dante'ren jainko-Antzerkia, ta egi-egia da iru lanok zerbait, cdo geitxoago, galtzen dabela. Iru izkuntza oneitako lanak, iru maisu aundik egiñak, barne-igiera, **neurri ta azken-emaiz** obeto eziñik talutuak daukaguz, eta itzuli ezkerro, pentsamentu, alegi, sinbolu ta abarri eutsita be, barruko gatz eta apaindura berarizko orreik or gelditzen dira galduta.

Izkuntza bakotxak dau bere grazi berezi-berezia. Alan eta guzti be, jatorra, orijinala bertsoz egonda nik ikusi ditudan itzulpenik gaien-geienak izkuntza guztietan itz lauz ikusi ditut. Bego orralle, ba, euskeraz be. Nik egindako itzulpenetatik gatxena izan jat Dante'ren au; gerkar eta sajondar izkuntzak naiko errezeroak dira euskeratzeko latiñetiko erromantzeak Otoitz eta esakun luze biurriagoak ditu eta orrek beti zailtzen dausku euskal joskera jatorra.

Poema onek garrantzi itzale dauanik ezin daikegu uka. Dante'k bertan ereiten ditun ainbat gauza bitxi —esakun, bulko zorrutz, alderakizun, antz, alegi, iduri, metafora ausart, istori jazokun— eder, jakingarritz bete dalako. Gure izkuntzak bear dau olako zerbait, gure literatura apain, jori ta oparotsuago egin daigun. Munduko literatura aundi guztietara itzulia da. Emen guk be euskeraz!

Iru kantuok astiro irakurri ta ausnartzeakoak dira.

58 MENDATAKO PROFETA

Teresio Elorrieta, egille. Deusto-Bilbao, 1986, «Igarri» irarkolan, 171 orrialde.

Mendata'n jaio zan Elorrieta, euskaldun famili baten. Ikasle zala eta bere izkuntza maite ebalako, landu egin eban berau asperu barik eta berrogei bat urte erbestean, an Pazifik-itxas bazterretan emon arren, ez jakon aiztu, eta bai obeto ikasi. Eta andik mixio-

lari ebillela buruak emon eutsan umetan sarri entzun eta bere senidartekoa zan «profeta» baten bizitz-zeeztasun eta mirar:ak gatz-ozpinduta edesten clauskuz liburu onetan. Onako banaka batzuk bakanrik ezagutzen doguz, aberritik kanpora urte mordoan bizita be, euskeraz idazten. Eredu bikaiña, ezpairik bage.

Liburu au gertatu al izateko, nik uste, Menclata'ko karmeldar zoli onek beti, edo azken gudatetik beintzat, lurra bizkorra beti erabilli izan dau aldean. Peru'n asi zan aspaldi datuak batzen eta emen Euskalerrian amaitu eban bere kontaketa, gaiak eta albistak beti barriztuz eta ugariagotuz. Urte batzuk dira eurok argitara ekarteko asmoz ebillela; baita niri laguntasuna eskatu be, baiña ni be naiko lanpetua nebillelako beti atzeratuz joan giñan idaztia irarkolaratzea. Eta dana gertu eukalarik, idazlan, argazki ta diru, ixil-ixillik joan jakun espirituen erreñura, Ez eban izan azkenaldiko pozik, au da, idazleak bere sorpena irar-moldetik urtenda ikustean izan oi dauan jaio-barriaren irripar gozoaren ikutu nabaria txastatu barik joan zan gure artetik.

Mendata'n be igarleak, Israeldar *errian* lez? Isai, jeremi, Daniel eta beste arein antzeko norbait ete zan Mendata'ko «Profeta»? Ez dot uste, baiña bere egunetan, eta geroago be bai, entzute zabalekoa izan zan Eulalio Intxausti Gomeztegi, Mendatakoa. Igarlearen esanak batzuk bete ziran, beste batzuk ez. Eta or istori-gai ederra.

Dana dala, liburu au egoki ta zentzunez moldaturik daukagu. Ainbat barri ta datuz aberats. Bizkaitar guztiok bizi izanak, eziñak; an, or-emen, ezarian lez ereiñak, lau ta errikoi adierazoak. Irakurtean, puntu batetik bestera jauzi ta saltu dagigu konturatu barik, une bakotxean izpar barriak aurkituz. Liburua gure egunetako kronika zeatza be badozu. Etzan bera ortan ibilli, baiña kronika be bada,

59. ODISEA

Homero'ren ipuin luze au itzultzeko begi aurrean euki ditut idazti oneik: a) *Hameri Opera*, David B. Manro et Th. Allen (Oxford); b) *Odyssse*, Tean Berard (Paris, 1960), eta z) *Odisea*, Luis

SegaU (Barcelona, 1961). Bilbo, 1985, «Igarri» irarkolan, 336 orrialde. «Euskerazaintza»-en argitalpena. Azaleko marratza, Tuzeko museu bateko mosaikutik artuta.

Aspalditik dabil mundua errien kultura, gogo-lantzea, jatorrizkoa ain zuzen be, aztertu. ikasi ta jagon nairik. Baita gu euskaldunok be. Edesti aurreko laino artean galdurik daukagu kultura ori, dakigunez. Erri bat gara, ta geure kultura dauk gu, ez ain urria be, berau arduraz jaso, sailkatu ta gorde naiez dagiguzan aleginak, nai onenak nai arenak, txalogarri dira zalantza-malantza bairik,

Grezia izan zan erri lez bere kulturaren ederraz inor baino leen konturatu, kezkatu ta jabetu jakuna. Gurean lez an be, kultura mailla ta izkelgi ezbaridinak ezagutzen ziran, oso antxinatik; izkeldi ta dialektuetan iru adarrok beintzat, joniar, doriaz eta eoliar adarrok, ezagunak ziran. Dialektu oneitatik bakotxak eban bere kutsu ta tankera berezia, landu ebezan literatura gaietatik errez atera daikegunez. Oargarri dogu au be, izkelgi-diferentziok zelanbait erauzi ta danokaz batasun bizi bat egiteko asmoz, *koine* eritxon naspilla sortu eben, eta orduantxe galdu ziran gerkarren izkelgiak oro. Begira, ta ikus! , gurean be ori bera jazo ez dedin.

Homero'k liburu bi idatzi zitun bertsoan: *Iliada* ta *Odisea*. Iliadak ogetalau kantu daukaz, amabost bat milla sei-oiñeko edo hexametro bertso gaz. Gaztetan egiña. Akil'en asarrea abesten dau; eta Odisenak *ez* dau beste xederik Odis gizurena zurtasunaren eta edertasunaren gandutan goi-goi jartea baino. Olerkariak, ziur, aren biran beste zear-mearka, gertakizun eta tarteko bereziak metatzen ditu, eta ez da oneitatik gertatzen urriena aren emazte Penelope'ren inguruan, au lilluratu nairik, ibilli ziran senargaien eriotza; jazonkuntza onen mamiña ardatz dauala aragitzen dauku Homero'k Odis'i dagokiozan beste milla gorabera, guztien artean poema biribil, gotor eta bizia osoturik.

Homero'ren bigarren poema, ots, Odisenan, lenengoa baino gailenago agiri da. Onak ba-dau tankera barri bezeria, kontatzean batez be ikuspegi apart samarra darabil idazleak. Orrez **poema** ontan beste elburu au be gogoan izan ebala esan gengike: oitura ta moral gaiari buruzko eziketak, ez gero oiñarri soillez, iduri

ta antz-izun ederrez baiño, bizi a txairo darabiltz, askotan nor bakotxari ezarritakoak. Oneik bereziteko be esakun zorrotzak ugari samar gogora oi ditu idazleak.

Poema au zerbait diran izkuntza guztietara biurtua, emen dogu guk euskeraz. Idaztean, edo-ta itzulpenak egitean, bakotxak dau bere sena, bere kultura, bere euskal giroa emen, oldozkunak, pentsamentuak erabilli ta adierazteko. Beraz, oso zail jaku, idazlearen kultura ta barne-giro orretan sartu barik, nor beraren ikuspegi zearo estutik, gauzak ebaztea. Au da, kritika lana ez da aisa, ezpanak edegiz bakarrik egin daikeguna.

Nik egindako itzulpena zelakoa ete da? Irakurleak esango, be-
rau bait da ebazlerik onena, kultura pizkat baldin badau. Konta-
gaiak bere mamiñai dau, baita Homero'k gaiari ipiñi eutson ger-
kar estalkiak be. Gaia, baiña berbera da idazle biotan; estalkia
ez. Arek griegoz idatzi eban, nik euskeraz, aren estalkiari euskal
jantzia ezarri dautsot. Mamiña be bardiña? Nik naia, prosaz izanik
be, orixe dozu. Naiak alan be, sarri, bide erdian geratzen jakuz.

60. OLERKI GUZTIAK

Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta». Bizkaitar olerkari gurena. Aita Onaindia'k bilduma, sarrera, oarrak, azter-lanak, eritxiak eta gorapenak. Bilbo, 1985, «Igarri» irarkolan, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin. 523 orrialde.

Neu asi nintzan 1954'an, «Milla Euskal Olerki Eder» bildumagaz (emen sartu bai nitun aren 19 olerki) Lauaxeta orbelpetik argitara ateraten; gero, 1973'an «Olerkiak-Lauaxeta» liburuaz alduaz eta gaur «Olerki guztiak» irakurleai eskiñiaz.

Azken-liburu gotor onen sarreran onan idatzi neban: «Jagon crea ta ereak jagongo, esan oi eben, ez gerkarrik bakarrik, baita gure asabak be. Au begi aurrean dogula, ona emen Lauaxeta'ren bizitza ta lanari buruzko zeaztasun oneik; egoki bait jaku olaxe egitea, gauzak ulergarriago gertatu daitezcan. Bost zatitan zertuko dogu auzi onen gorabera osoa, au da: 1) Lauaxeta'ren bizitzaz ta datuak; 2) Lauaxeta'k idatzi ta itxi euskuzan liburuak; 3) Lauaxeta olerkari; 4) Zelako idazlea, ta 5) Argitalpenak.

Gaiok ondo aztertu ta adierazota datoz 20 orri betean. Ondoren daukazuez berak berariz argitara emondako poesi-liburu biok, *Bide Barriak* eta *Arratsberan*, euskeraz ta erderaz. Gero liburu bi oneitan datozan olerki guztien banan-banango azterketa (egitura, gaia ta adizkerak), irakurleak obeto ulertu daian olerki bakotxa.

Bigarren saillean liburu bi orreitan sartu etziranak datoz, «Jesus'en Biotzaren Deya»-n, «Jaungoiko-Zale»-n, «Euzkadi»-n, «Euzkerea»-n, «Yakintza»-n eta Gasteiz'ko espetxean onduak datoz oneik guztioi: be aztertu ta adierazoak.

Irugarren saillean *Geigarriak*: a) Itzulpenak, eta eritxiak eta gorapenak, Eritxien artean J. Zaitegi'rena ta Luis Arostegi'rena batez be. Eta gorapenak egitean jautarkol, K. Gallastegi, Sabin Muniategi, A. Zubikarai ta A. Akesolo agertzen dira.

Iturburu garbi ugariko ura, nok ez dau atsegin? Urkiaga, geroko Lauaxeta 20-24 urteko zala Greziko ta Erromako siko artean buru- belarri sartuta bizi izan zan. Eta egoki datorriguz gaur be J. Zaitegi'k diñoskuzan itzok: «Gure arteko ikasle gazteak zenbait urtez Elade'ko ta Erroma'ko giro osasungarri ta zoragarrian bizi izango halira, oberenik litzateke; giro orri neronek zer zor diodan gogotik esan nezake, norbere buruaz mintzatzea ain itsusi ez balitz. Nik neuk, beintzat, eztitut galdutzat irizten onetara igaro nituen gaztaroko urterik ederrenak. Berau esan zezaken Urkiaga-k ere.

Asieran olerkari bezala agertu zen Lauaxeta, gero egunkalari ta izlari bezala. Gazterik il zuten; gora ta gora zioan garaiean. Aingerutxo bat zen, esan zidan Aita IVIoreno'k, Gasteiz'ko mo-rrillopean ikusi zuenak»,

Olerkari lez beti eder-^Pilla ari izan zan Lauaxeta. Eta ari onetan Urkiaga sakonen aztertu dauana, Arostegi karmeldarra dogu.

Liburu au Bizkai Aldundiak dauka erdi-gorderik.

61. FAUST

Goethe'ren «Der Faust» euskeraz. Deusto-Bilbao, 1966, «Igarri» irarkolan, 305 orrialde. Barru ta azal sei argazki.

Goethe ta Schiller doixtar izkuntza izarretaraino jaso ebenak. Biak idatzi euskuen asko ta ondo. Bizitzan zear etenbako idazlana burutu eban Goethek, bertsoz eta prosaz konta-ezin ala artikulu ta liburu emonik, Luma erabilten etzan aspertzen; kargu aundiak euki zituan Weimar'ko Kortean, baiña idaztea zan bere barne-arnasa berez-berezia.

Faust dogu Goethe'ren olerki lanik bikaiñena, gaztetatik gogotan ekarria eta bere bizitza azkenerantza amaitua. Goethe'ren egunetan goi-goi egoan Alemania-Burutakeri ta idealismuaren garaia zan. Jainko lez ziran gizonak, egitez ezik be, bai al-izatez, eta izaki guztien gain jaubetza izateko gain genduzan. Doixtarren kultura, beste aldetik, gerkar eta erromatarrena baiño giar bikaiña goa uste zan, areik baizen sentikor eta leundua izan ezta be. Indarrari ta ekintzari garrantzi berezia ezarti eutsen doixtarrak. Beraz, espiritu sendoen eta argi-zuzi ditzikorren garaian bizi izan zan Goethe, olerkari senez oparo jantzia, adimen argi zorrotz baten jaube, zentzunez sarkor, iduri ta itxurak jasoteko zuur, burmuñean gogaiak borborka, gauzarik lau ta zirtzillenak edertzeko gain.

Lan gotor au zertzeko goi-maillako alor batera jauzi egin eus kun Goethe'k. Eta gain ortatik begiraturik, jakin nai izan eban munduaren asiera, berau sortu eben indarrak arakatu; orixegaitik, deabruagaz beragaz be berbatu egiten da, besteai jaramonik egiteke aurrera jo gura dau bere xedean; misteri sakondu-eziña dozu gizona, elkor, zeken, bekaizti, maitekor, ez dozu santu, ez gizuren, ez erosokor, ez jakitun. Gizaseme aldakor eta basati au margozten dausku Goethe'k gerkar eta erromar alegiak doixtar bere aberrikoen oitura ta ekanduakaz korapillo eginik.

Asko dira leenengo zatian ondo biribildurik geratzen dirala, diñoenak, Goethe'ren antzerki-ideiak. Orrela da, izan be. Errikoia goa jatzu, ta biotz-zirrara gozoa goa damotzuna. Zorrotz sako- nagoa da bigarren zatia, egia; landuegia antzez eta pentsamen-

tuz, Buru ta biotzaren arteko gezi jaurtzea beti, eder zoragarria. Giar jagia da, izkuntza **Olerkigintza**, ezin ohea lee' nengotik azkenera. Goethe'k ez dau pozik egiten, ez neurrian ez eta oskidetzan. Euskal poetak, ar au gogotan!

Ez dakit, azkenez, ederrari dagokionez izango dan itzulpen au. Alan be, irakurle, emen daukazu euskeraz munduko literaturako poesi-lanik eder-bikaiñenatariko bat. Nire poza zuri be pozgarri jatzula jakitean.

62. IPUÏÑAK

Pio Baroxa'ren «CUENTOS» euskeraz. Bilbo, 1987, «Iga' rri»'k argitaldu ta. 200 orrialde.

Baroxa, geure odolekoa bederen, idazle ona dozu, onen idatziak gaur argigaldi ugari dabez. Beronek, konturatu barik nik uste, egokion maillan ipiñi eban espaiñat nobelagintza: itz-lauzko idazkera atsegingarri biurtu eban, itxura eder gozoa emonaz. Ez dau mataza geiegirik nai, ez zear-bide utsik, ez goi-ego-ukaldi funtsik ezik, ezjakiña ta sakontasunik eza estaltzeko baiño ez dana sarri askotan. Baroxa donoztiarraren literatura, sakona ta argia dozu aldi berean, edozeiñek ulertu al izateko modukoa.

Osagille ta idazle izan jakun. Alderdi biok ba-dabe euren garrantzia. Osagille zanez, bere lanbideko gaiak errez agertzen iakuz aren idaztietan, naiz ipuiñetan naiz nobeletan. Literatura zan, dirudienez, aren joera ta barne-deia. Zaletasun biok gatzetatik ornidu zituan: medikuntza itxi barik, asko idatzi eban urteetan zear, bere 84 urte luzeai guna aterarik.

Leenengo urteetatik ekarren xede aintzagarria, euskaldunari egoki be egoki etorkiona; itzez labur dozu euskalduna (leengoakaitik ori esaten zan beintzat), ta luze egitez. Eta Baroxa'k ziñoan: «Itzgitxiko izan nai dot, eta biotz-zirrara sortzaille». Itz gitxik eta ixillak, berba-ots aspergarriak baiño, ariñagorik dardarazo oi dau gizonaren biotza. Berba leun eta gozoz osagilleak ekartzen dautse gaixocari osasuna. Orixe berori bear eban irakurleak be.

Nobelarik asko daukaz, eta askoz geiago zar-barriak batu ta gai askotariko artikuluak eta ipuiñak osotuten egiñiko lanak. Izan zituan, gaztetan batez be, eldekoak eta aurkakoak, bere literatura motak. Baiña ota artez lenengotan dabillenaren antzean, laster edegi eban bidea, bide eroso. Pentsalari genduan, ikas-garaian artutako irakaskuntzari esker ez orraitino, bere odol-semez eta euskaldunakin izandako ar-emonetik etorritakoari esker baiño. Zetzua'n mediku zala moldatu zitun bere ipiñik geienak.

Inguru goibelak aukeratu ebazan Baroxa'k bere ipuiñak edertzeko. Bere izate bizi ta goi-aldekoaz obeto etozan itxuraz egoera orretik, triste, baltz-goibelak. Eusko giroak indartzen eban ortarako. Auxe da euskal kursUkO nobela guztien zutabe, poz-jarioka batzutan, negar-iturri bestetan. Or dituzue euskaldun gizon-ema-kumeak maisuki margoztuta, beti giartsu ta umore onez beterik. Euskal umore au dalata, K. J. Baroxa'k, aren lobeak, onela dau idazten: «Nire osabak baiño obeto iñok be ez dau jakin euskaldun umore au jasoten, Euskalduna, izan be, uste dan eta leien-dak diñoen baiño naiko alai, jostalari ta zirtolariago da». Gure idazleak zerbait baiño geiago ikasi ebal dirudi, gaiñera. Poe, Dickens, Dostoyeusky, Ibsen, Maeterlinck eta olakoak irakurriz, gaztetan eta gero.

Laburrak eta poesiz beteak dira Baroxa'ren ipuiñik geienak. Errez irakurten dira, geienak euskal kutsuz gaiñezka dagozalako edo. Nik beti eder izan ditut, eta arek-onek, bestelako onu ta kontsejuak buru-muiñetara daustiezan arren, garaia etorkidanean egiteko asmoa antxiña-antxiñatik neukana, oraintxe beterik geratu dala deritxat.

63. GERNIKA. 1937 - 1987

Deustu-Bilbo, 1987, «Igarri» irarkolan. Gernika'ko Udaletxearen laguntzarekin. 158 orrialde.

50 urte Gernika bonbaz erre ta kiskalia izan zanetik. Jazokun au bear lez ospatzeko alegiñak egin ziran askatasunaren Arbola Santua gordeten dauan uri gogoamgarrian eta Euskalerrri osoan. Egun ori eldu aurretik gazte taldeak, erri-maitasunez beteak, ona,

Larrea'ra etorri jatazan niri laguntasun eske. lenak, olerkiak, argazkiak, alkar-izketak, artikuluak bear ebezan. Eta nik olakoe-tan iñori ezetzik ez esaten; al dodana egiteko beti gertu naukie.

Eta eskabidea egin eustanai lanak bialduz asi nintzan liburu ontarako gaiak batzen eta pillotzen. Iru zati ditu nire liburuak: 1) Gernika *goragarri*; 2) Gernika *errausua*, ta 3) Gernika *goratua*.

Aurrenik Gernika istorian zear, jaiak, kultur festak, periak eta azokak, Batzar-etxea, Batzarraren ospakizunak, gure Ikurriña, Jose Andoni Agirre'ren zin-egitea. Gero, 1937'an Gernika sutan, gaizkillearen errea, lenengo bonbak, negerra ta intziria, illak eta zaurituak, testigantza batzuk, «Lauxeta» preso, Picasso ta Gernika, Azkenez, Iparragirre'ren «Gernikako Arbola», gure Arbola gazteari (Arrese Beitia), Iratzeder, Monzon, Lete, Enbeita ta beste olerkari askoren lanak.

Berrogetamar urte, eta ementxe gagoz zutik. Egiaren eguzkitan, goizeko su-printzak dizdiztu dauan ostu berdea iduri. Gernikar eta kanpotar asko il ziran bonbaketa negargarri aretan. Asko ordukoak eta arein seme-alabak bizi gara oindiño, ta jazoera a ospatzen dogu. Ez gero gorrotoz eta sumindurik, errukiz eta tama-
lez Or alde! Euskaldun biotza ez da gorrotorako,

jote, birrintze ta errete madarikatu a, gerra-saio makur a, etzan ezustean egin, jakiñaren gaiñean, ondo pentsaturik baiño; laba kiskalkor aretatik igesi joian jentea, zaar eta gazte, ama ta aurtxo, bee-beetik erasotzen eben aleman eta italiar egazkiñak.

Eguzkiak arrezkero sarri egin dau bere sartu-urtena. Zuzentasunak eskatzen dauala orduan jazoa aztutzea? Ez dala egoki joana oraiñaz orren estu loturik eukitea? Aspaldi ertatua ain bizi goratu! Bakea illai ta parkamena oker egon ziranai? Ederto! , ederto! Geurko jenteak, atan be, jakin dagiela zer jazo zan; ez gorrotorako, bai ondorengoen zentzadurarako. Ez, ez bedi jausi bonba geiago Gernika gain, ezta munduko beste urrik ez daitela suntsitua izan.

Olako sentipenez burutua da nire lana, «Gernika». Eder bezu berau. Gernika ezagutu, maite izan eta obeagotzen alegindu zaitez.

Gure askatasun Zugatza errotik atera nai izan eben, eta betirako lurperatu uri sagaratuaz batera. Baiña asmo ori, beste batzuetan lez, bea jorik geratu zan. Barruregi sartua dago gure aberri-kontzientzia armakaz erauzi al izateko. Gernika bizi da ta Euzkadi bizi da; Euzkadi bizi bada, beraz jakizue zati aundi batez beintzat, Gernika bizi dalako dogula: gure askatasuna ta Gernika bat bai dira.

64. BESTE LIBURU BATZUK

Ba daukadaz oindiño garrantzi gitxiago daben beste liburu batzuk. Baita argitaratu bakoak be. Baiña abar askoko ureta daukazu zunean albora izten dozuz olakoak. Ondo pentsatu ezkeroz, alan be, egoki dala deritxat, galdu ez daitezcan, euron zerrenda bat egi tea. Bioa, beraz:

—«*BEGOISA'KO AMA*». Zazpi bat urte dirala Begoña'ko eleizan arimazaintza dagien abade bi etorri jatazan mesede billa. Zer mesede? Ez eusten agertu nai izan lenengoz euren elburua, zek eraginda etozanik, gero bai: Begoña'ko Amaren kanta liburu bat gura eben. Nik osotu bear neutsen liburu ori. Baietz egingo neutsela: aspaldi nebillela olako zerbaiten atzetik, eta gogo onez egingo nebala lan ori. Lanari ekin eta egunak joan egunak etorri, ez dakit zerbat denporan, amaitu nebanean, dei egin neutsen telefonoz gertu neukala idazt'a ta etorri zeitezala billa. Folio pilloa zan egin nebana, zenbat ziranik gaur ez dakidan arren. Iru zatitan bereizi neban lana, eta oneitan kanta artean Begoña^ko eleizearen eta Amaren kondaira sartzen neban, naiko zeatza ta luzea. Interesgarria, nik uste.

Argitaratzeko be nok lagundu ba eukela, autortu eusten, Bizkai Aurrezki Kutxa. Urte mordotxoan joanez joan danarren, lo dago oindiñokarren gure erri ak biotz beraz artuko leuken liburu ori.

—«*LAU POEMA*», R. Tagore'ren lau poema euskeraz. Lenago «Iru poema» atera eustan Itxaropena'k «Kuliska Sorta»-n. Erriak txera aundiz artua, amen baten agortua argitalpena.

Uts galanta egin neban nik liburu au arp,-itaratzekotan, orain arteztu nai dodana, Lander Gallastegi gazteak marraztu eustazan, oso txairo, berton datozen irudi bikaiñak eta liburuan, aztuta, ez neban jarri zertzelada ori. Bakotxari berea.

«Lau Poema» lana gaur ez dakit nundik dan. Nik «Kuliska Sorta»-raku ondu neban itzulpena, baita Itxaropenari bialdu be; baiña urte askotxo igazi dira ordutik eta gaur ez dakit nundik dabillen. Zarautzen izango zala uste neban, baiña urte bi legez dirala Bilbo'ko «Kafe-Iruita»-n nintzan ni an urteroko saria emokeran eta nire ondoan aparitan zan donostiar batek, berak ba ekiala esan eustan orijinal ori nun aurkitzen zan, Beraz, orbel narrastu antzean or zear ba'dabil be, euskal erriak jakin bei noren itzulpena dan ori, «Lau Poema» deritxona.

—«ALIZLA». Zer auzi? Etatarren baiketak eta goraberak ziralata, Burgos'ko auzia, arein aurka ospatu zana, naikoa zeatz dakarren idatzia dozu. Gertatu-ala, gauzarik geienak bederen, auzi, galde-erantzun, zigor, eriotz eta abar, jasoten nitun, eta garo eleberri antzera Bilbo'ko «Agu» euskal asterokoak eratutako nobela sariketara bialdu neban. Ez eusten saririk emon, nobela taiurik ez ebalata. Gure izerdiak sarri pot egiñik gelditzen dira.

Lan au bardin, eleberri lez balioko ez balitz be, saiakera bezela bear bada... «Kuliska Sorta»-rako bialdu neban. Geroztik ez dautso_t kasurik egin, eta ez dakit zein zokotan datzan.

—«IPARRAGIRRE», Eleberri lez aitaturiko «Kafe-Iruña» sarirako aurkeztua. Aren lotsari ta goiti-beitiak! Sari-emotea baiño illabete bat aurretik eroan neban neure lana, eta andik laster, arranoa! , nun diñosten nik urlia lana bialdu nebala sariketara. Nundik nora lortua ete zan nik bialdutako lanaren barri? Esku-jokari treberen bat sartu zan emen, dudarik bage. Ez eusten saririk emon eta gero, sariketa orren abista emokeran, San Martin'ek lan ona bai baiña etzala an nobela biografikorik eskatzen.

J. M. Iparragirre-ren bizitza nobela antzera arildu neban nik tarteka aren koplak be sarturik. Lan au —arri zaitez, irakurle! , libururen bat argitaratzeko diru-premiñan nengoalako— euskera batuan idatzita bia¹du neban. Baiña ezta, orrelaxe bere ez! Eta

orain diñoe, ezpan-ikara maltzurrez, nik nai dodanean batua be erabiltzen dakidala. 127 folioko lana dozu. Lau zati daukaz; ona beronen mamiña;

Afal ostean; bidez bidez; zoaz aitortzera; gudari; zerbitzari zintzo; matxiñada bat?; On Karlos V erregea; Zuma' lakarregi eta Rodill; eiztari managaitik; bene benetako garaipena; Alesbes eta Ormaiztegi; Arkixa eta Elizondo; Simon eta Joxe Mari; Zumalakarregi-ren eriotza; Lizarra-n; Oriamendi; bakeak ote?

Arrotz eta kantari. Mugaz bestekaldean; musika ikasten; Paris-en; Suiza-n; Londres-en; ama ikusten; «Gernikako Arbol»; Euskalherrian kantari; herritik uxatua; amari agur.

Ameriketan, Itxas-gaiñean; ongi etorria; ezkontza; artzaintzan; Montebideo-n; berriz ere artzaintzan; Joxe Mari gai-xorik; agur, Uruguai!

Berriz etxean. Endaia-n; lagun artean; kanta saioa Madrid-en eta...; Elizondo-ko euskal jaiak; eriotza; Iparragirre-ren gitarra; oroigallua; omendua.

EUSKALDUNA BERE ZAARREAN. Bizkai Kutxak bereun milla (uste dot) pezetaz saritua. Lan au gaurkoz ez daukat esku artean, ez bait neban kopiarik atera. Onak be ba ditu 125 folio, Kutxa ori zan arren lana argitara emoteko, baiña diru-aulezia gaitik edo, mutiko gaixoak ez dau oindiño argirik ikusteko zoririk izan. Aspaldiko euskaldunen mitu, siñiskera, ekandu, azti, sorginkeri ta antzeko gauzak ber-esan, azaldu ta gaurkotuten ditu lan orrek.

Au be, naiz-ta gogoz ez, batuan osotu neban. Epai-maikoak ez eben igarri nor nintzanik. Gero konturatu ziran euskaltzain biak, eta H-ren bat —herensuge, adibidez, ainbarik eta olakoren bat— ez nitula egoki jarri adierazi eusten. Emendik atera gengike zaarrok eta bizkaitarrok, batuan idatzita be, ez daukagula saririk jasoterik. Au alan be beiñola Eusko jaurlaritzak batu-barrurako emondako legearen aurka ez dagoanik ezin esan. Azeri batzuk sasi guztien gaiñez zapart.

—*KONTU KONTARI*. Bilbo Kutxa Munizipalaren ipuin-sariketara bildutakoa. 127 folio. Ez eban saririk lortu, ezta lanik atzera biurtu be. Titulu ori —«kontu kontari»— daroan lana, alan be, neurea da. Au be euskal literaturarako, iñoiz eign izan da, diñoenez, olako ta alako lanaz galdu egin dirala esanik, norbera jautetu, e_ta au arrapari biribilla izatea dozu. Lana argitaratuko dautzuela uste ba dozu, barriz, ez egon artega, arteari sendo itsatsi ta eldurik baiño.

IZLAPURRA. Lord Bvron'en «The Corsair» euskeraz, Iru kantu. 28 folio. Argitaratzeko gertu, bizkaieran. Ingles idazle sonatuaren literatur lan olerkitsua. Gure euskera aberats egin nai izan ezkeru, arrotz-lanak gurera biurtzeak asko dirausku dudarik bage.

BIZITZEA. Santa Teresaren «Onbidea», «Egoitzak» eta abar euskeraztu ta argitara emon ondoren, beste lan batzuk falta ziran oraind¹ño, berak idatzitako «Bizitzea», esate baterako. Eta ona au be euskeraz Luze samarra dozu, berrogei (XL) kapitulu daukazana. Merezi leuke euskal liburutzea. Nok ortan lagunduko? Milloi erdi lez kostako litzateke. Nik neuk, sos ugariaren jaube ba nintz, iru liburu eder orreik —«Onbidea», «Egitzak» eta «Bizitzea» ale baten emongo neukez. Ez leuskioe mesede makala ekarriko arima jainko-zaleei, ez orixe! Betorkit lagun esku-zabal bat!

—*MILLA EUSKAL OLERKI EDER* (11I). Urte batzuk dirala —1977'en J. M. Retana'k ale bitan argitaratu eban Zarautzeko Itxaropenak, 1954'an, baalean eta bitan argitara emon eustana. Arrezkeroko 34 urte oneitan olerkari barri asko agertu ta olerki barri asko arildu izan diralako, nik geroztiko poeten lanakaz batez be osotuta daukat irugarrengo ale bat, bosteun orrialdetik gora egingo leukezana.

Bilduma au be esku-zabal emokor baten zain daukat argitara dadin. Agertuko ete? Baietzean nago ni. Esan oi danez, gitxien uste dan lekuan agertzen jatzu erbia. Eiztari porrokatuak lez, gagozan ba zelatan.

—*ODAK ETA EPODOAK*. Horazio, Erromako olerkaririk gurenenaren bertso lanak euskeraz eta latifñez, oar eta argibide

askorekin aberastuta. 210 folio. Lendik be, odak beñik-bein, naikoa «Olerti»-n argitara_tu nituan: gero, falta ziranak euskeratu ta danakaz liburu mardul biribilla egiteko naiko ta geiegi dana geldituko jat.

Poeta auta izan zan Horazio, txukun, fiñ, sakona. Munduko literaturarik geienetara biurtuta dago dagoneko. Euskeraz be, bertso bikaiñez jator daukaguzanak, arik eta bikaiñen ipinteko, alegiñak alegiñ erre ditudala. Euskal poetikari mesede galanta egingo leuskiola, nik uste, gaur auzi onetan daukagun anarki-aldi gorrian. Nor asartuko ete berau argitara ekarten? Nik berau euskeratzean euki dodan garra leukena bakar-bakarrik.

—*ERRENDERI ABAREN OLERKIAK*. Lenengo urrutizkiñez, gero Urretxu'n Oñatibia'tar Dunixi zanaren illeta arratsaldean e_ta azkenez ona Larrea'ra errenderitar batzuk egin eusten ikus-taldian, arren bai arren eskatu eusten, Aita Errenderi'ren olerkia-kaz liburu mazal bat eratu nairik, nik gertatzeko liburu ori. Illa bi lez luzatuagaitik, nik burutu neutsen areik nai eben lana.

Ni izatez, olako gauzetan batez be, aisa susmotan asten nazana nozueta, lana asi aurretik eta gero, telefonoz euki nebazan dei eta agindu batzuetatik atera neban, gogo leialez asitako lan onetan —obe orrela ezpalitz! — asmo biurritzoren bat tartetua zala. Praille zintzo aren koplá bipillak batuan jarri bear nebazan; baita orreik banan-banan aztertzerakoan nik egindako oarkizun, gaztigu ta adibide guztiak be. Ondoren diruarena, lagunduko ete eben, ez eta eben... Azken batean nik eta sendikoak —aren arreba «Onintze» olerkariak— eta erritar adiskideak ainbat ardura arazo orretan erein genduan arren, guk landatu nai izandako landareak oraindik ez dausku orririk erakusten, Goñi, jaun on! , egiozu ura leor' tu ez dadin.

65. ITZULPENAK

Gaur, gure literaturari begira be, modan daukaguz itzulpenak. Oraintsu oraindik itzultzaileen alkarte bat sortu zan Donostia-n. Neuri be ainbat bider dei egin daustie, langilleok batzartzen diranean, ara joateko erreguz. Ez dot orain arte astirik izan orreirin artean batzarkide izateko.

Egia autortu, norbere izkuntza arrotz-literaturaz edertu, mardotu ta aberastu lurberako izkuntza guztiak egiña da, antxiña-antxiñatik ain zuzen be. Zergaitik ez guk? Ez Biblia bakarrik, Julian Besteiro'k Karmona'ko espetxean esan oi euskunez, munduko buruetatik eder-zoragarriena soilki, baita beste izkeretako liburu garrantzitsu guztiak be itzuli bear gendukez geure izkuntzara. Ni ortaz saiatua nozite, Latinetik («Bergili'ren Enelda» ta Horazio'ren «Odak eta Epodoak»), Griegotik (Homero'ren «Odisea»), gazte-leratik (Santa Teresaren «Onbidea», «Egoitzak», «Olerkiak» eta «Bizitea»), italieratik (Dante'ren «Jainko-Antzerkia»), alemaneratik (Goethe'ren «Faus») ta inglesetik (Lord Byron'en «Izlapurra) beintzat itzuliak ditut.

Auxegaitik edo, norbaitek esan izan dau nik itzulpenak soil-soil dagidazala. Urli ori ez dabil egitan: biurpenik naiko burutu ba ditut be, idatzi jatorrik bi bidertu dodala gaiñeratzuz ez diñot guzur-izpirik be. Komentuan ez begitandu nagiak ateraten bizi gareanik; niri beintzat lana egokitu jat bizitza guztian, izlari, autorle, nagusi, mixiolari, otoizlari, egun bakotxak dakarskun nekeari eutsiz. Lan jatorrak berez bakea, bare-aldia, astia eskatzen, eta —esan dot— nik ez dot izan sarri olako aukerarik, gaur zartzaroan ezik.

Eta zertara jo izan dot? Nik mai gaiñean daukat beti neure idazmakiña txikia, ainbat tinta iruntsi ta ainbat zinta jan daustana. Benetako lan bat aurrera eroateko norbere kautan murgildu bear, eta an eta emen eguneroko gauza ta istillu askotan sartu ta ba zabiltz, ez dozu gogo geiegirik izango, ortarako diñot. Itzulpenetarako bai ostera, ortarako ez dozu bear barne-osiñean kiribiltzerik. Or zergaitik dagidazan nik itzulpenak oparo. Olan, gaur pizkat eta biar beste pizkat, lan ederra dagizu, zeu konturatu barik.

Aspaldidanik, ostera, nik ez dot aurre-idatzirik egiten; jarraian idatzi ta kitu. Ekanduak garabiltz. Galtzerdigiñan diarduan emakumak berez-berez diardu, ez orratzik ez aririk begiratu barik. Lugiñak jorratzerakoan atxurra darabil bakar-bakarrik eta begiak.

Nik egindako itzulpenetatik batzuk neuk argitara emonak dira, beste batzuk iñok argitaratuak. Areik gorago datozeanak dozuz; ona barriz beste oneitako batzuk.

VIEJAS DANZAS DE GUIPUZKOA. Juan Iñazio Iztueta' ren «Gipuzkoako Dantza Gogoangarriak», ak euskeraz emonak nik gazteleraz jarrita. J. M. Retana'k bere «Gran Enciclopedia Vasca»-rako eskatu eustan itzulpen au, eta orrela egin neutson. Euskeraz ta erderaz azaldu ebana. Bilbo, 1968, Ellakuria irarkolan, Aita Gaizka Barandiaran'en itzaurrearekin. 399 orrialde.

POEMA AMAITU BAKOAK. *Poemas inacabados*, erderaz. Luis Arostegi karmeldarrak gazteleraz egiñak nik euskeraz ipiñi ta argitaratuak. Panama'n irakasle egoala, Kolonbia, Guatemala, Mexiko ta Dallas zear ibilliz euki zitun biozkadak. Bilbo, 1969, GnIficas Bilbao, 97 orrialde.

—*NIREA ZUREA, GEUREA*, Ediciones S. M, Madrid. O.E.O'ko 4 mailla. Erligio eziketa Arloa. Irudi ta marrazki askoz edertua, Argitaletxea «Ibaizabal». Euba-Zornotza, 1976. 117 orrialde.

—*INTXORTA MENDIKO BURRUKALDIK.* «Los Asaltos al monte Intxorta (1936-1937)». «Bidasoa Ingurraztiak» saillekoa. Egillea: Pablo Beldarrain Oialde «Martiaru» Guadataldeko Buruzagia. GEU Argitaldariak. Bilbo, 1980, 142 orrialde, argazki askogaz.

INTXIXU TA LEZEKO. Egilleak: Jon Arkotxa Goikoa ta Leslie Mackenzie. Iduritua ta arpikitua. Antziña denporetako Jentillen ezpiritua Euskalerrira biurtzen da. GEU Argitaletxeak argitara emona, iduri ta marrazkiz apaindua. Bilbo, 1982; 242 orrialde, Liburu oso bakana.

AGENDA DIETARIO. 1986. Bizkaiko Foru Aldundiak. Euskeraz eta erderaz, GEU'k argitaratua.

Bioaz emen baita:

IPUIÑAK. J. M. Retena'k eskatuta egin neban, ortik eta andik arturik, R. M. Azkue jaunaren ipuin-bilduma au. 61 ipuin guztira. Bilduma ta itzaurrea neureak ditu. Bilbo, Ellakuria irarkola, 1968, 248 orrialde.

OLERKIAK. Zumaia'ko alaba Balendiñe Albizu, euskal idazle jatorraren bertso-lanak. Bost bat urte dirala ekarri eustazan,

gerraldian eta ostean or zear ibilli ta gero urteetan Karakas'en bi-
zi izanaz, tarteka marteka eundu zituan kopla bioztiak. Nik osotu
neutson liburua itzaurrez eta oarrez jantzirik. Bilbo «Igarri» irar-
kolan, 1984, 259 orrialde,

66. ITZAURREAK

Norbere indarretan abespelu geiegi ez danean, iñoren adorez
bizkoraztea laket izaten jaku, bion artean ziur asko sortaren as-
tuna errezago eroan daikegun. Auxegaitik eskatzen da itzaurre bat,
adibidez; itz bi esan oi da, baiña luze samarra izanda be, ez jaku
aspergarri iduritzen, atsegiñez egiña ta idazlearen jaiotasuna gore-
tsiz baldin ba dator.

Era ortako asko arildu bear izan dodaz nik. Beraz, ez dago-
ki_t danak aitatzerik. Batzuk alan be bioaz emen, neure idatzietat-
tik kanpo egiñak.

ORBELAK. Kerexeta'tar J. «Arantzibia». Olerki liburu au
1958'an atera eban lenengoz, eta gero, «Bitargi» ta «Udazken»-
ekin batera, La Gran Enciclopedia argitara eutson 1980'an.

Nik onela idatzi neban orduan «Liburu atsegiña esku artean
daukaguna. Egilleari berez dario olerkia, eguzkiari argia iduri,
biotzez ta oldozkunez gaiñezka, Irudi ta gai billa ez doa urrin;
gure artekoak ditu geienak. Nire ustez, bertsoan jaso bear geun-
kez eusko bazterrak, Rubio ta Ors olerkariak, Kataluia'n orain
eun urte egin ebanez, *ta* ba leiteke, aren antzera, guk be geure ele
zarra, oso gaixorik daukaguna, biztu, arnastu, mardotu ta goi-mai-
llara jaso al izatea. Arantzibia'k damoskun guztia orrelaxe da,
txinpart jori, errez, bizi, arin, Bedi orrelaxe euskal olerkia: ez
goregi, ez beeregi, bai bien arteko».

Bateonbatak bota legi —eta bota be bai «Euskal Literatura»-
gaitik adibidez— Aita Onaindia'k merke samar saltzen dauala ler-
negarra. Ez da osorik egia; ez jat eder iñor lurrunetan ito-aztea,
bai ostera euskal idazleak erakutsitako izerdi-nekea sarizatzea.
Motza da, izan be, olako idazlea zauriturik iztea. Kritikak ez dau
iñoiz be idazlerik zanpatu bear, idatzian dardar dagien on[^],k eta

txarrak agirian ipiñi baiño. Askok bestera egin oi dabe, idazlearen aurka barne daroen zitala erruki barik utsitu. Nik ez dot orretan jokatu nai.

KAESALA. Itxaropena'k, 1956'an, Txomin Agirre'ren nobola au «Kuliska Sorta»-n emon gura ebalata, lau lotra eskatu ous-tazan berau aurkezteko, ota nik itzaurrez gainora itxas-iztegi txiki-berastu neutson azkenorako.

USKERLAK. Solozabal'dar Paulin abadea, ugaria dozu bertsoz naiz itz askatuz. Sei-zazpi poesi-liburu daukaz. Eta ia guztiai —«Uskeriak», «Gizonetan», Gizadian», «Deika»...— neuk egin dautse, itzaurrea. Ez beti Paulin goratuz, eta bai idaztean ereiton ditun akatsak darda gainean erabiliz.

«Egieder» ez-izenez emon oi dauskuz bere sorpenak. Lau sail daukaz aipamen dagiogun uskerizko bertso-gutun onek, 137 olerkiak,

NAIGABEZ. Melo Alfereza (Aita Karmelo Zubizarreta) egille. Eibar, 1979, «Izarra» irarkolan, 166 orrialde. Eleberria, polito adobatua, gaurko kezka eta naigabez.

OLATUAK. Aita Pedro Anasagasti prantziskotarraren olerki liburua, J. L. Iriondo'ren marrazkiakaz. Bilbo, «Igarri» irarkola. 127 orrialde. Lurra, aberria, gizartea ta fedea abesten ditu.

OLERKI SORTATXUA. Bilbo, 1986, «Igarri», 66 orrialde. Urte orretan (1986) Otxandio olerkariaren erriak eskini eutsen omenaldian aren loba Begiña Zearra ta Arrese-Beitia'k orriari egin-dako oparia.

BIDEA. Josemaria Eseriva'ren *Camino* euskeraz. Madrid, 1964, 335 orrialde. Jose Agustin Orbegozo pasiotarrak euskeraz-tua.

Onek ekin errimez bein buruak emon eutsan lana bukatu ebanean, niri ekarri eustan Urrotxu-tik, nik zelan egoan ikusi ta itzaurrea ipiñi nengion, eta orrela egin neutson. Argitaratzerakoan, baiña, Opus Dei-koak ez eben bear aiña konfiantza izan itzultzailegan bear bada, ezta nigan be, eta euskaltzain bategana jo ebon,

neu be orduko euskaltzain urgazle nintzan arren. Nire itzaurre ta oarrak zapuzturik, au ezarri eben liburuaren aurrekaldean «Traducido por Manuel Lecuona y Agustín Orbegozoa, C. P.», besterik bage. Liburuxka au, 196-1'an, 12 eletara itzulita egoan: portugalera, Ipar-amerika-eraz, italiera, inglese, katalanez, alemanez, Mexiko-eraz, frantsesez, arabez, japondarrez, kroazieraz eta euskeraz.

—*GOI-BIDEZ*. Aita Txanton Goiria karmeldarrak liburu mordoia dauka —«Berrio-Otxoaren Bizirza» (96 orrialde), «Karmengo Eskapularioa» (200 orrialde), «Fatimako Ama Birjiña» (260 orrialde)— berak idatzita. Orreïn artean bik —«Goibidez» eta «Kristoren Eliza»-k neure itzaurrea daroe. Gogo-jardunak dira b'ok. «Goi-bidez» 428 orrialde daukazana.

—*EUSKEREAREN ARAUDIA ADIBIDEETAN*. Gramkica teOrico-prktica del Euskera. Egillea: Juan Atutxa, S. J. Argitaratu: La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1977, 311 orrialde.

Goiz berandu baten, Larrara etorri jatan Aita Atutxa zeanuristarra Txosten aundi bat ekarstan, liburu lodi bat egiteko beste gai eukana. Berau neuk argitaratzea opa eban. Ni alan be sosez oso-bear. Alkar-autu luzean ekin geuntson, nora jo asmatuko; ortarako eukazan aukera batzuk adierazo neutsazan, eta azkenez J. M. Retana'gana zuzendu zeitela burutara emon neutsan. Eta Retana'k ain zuzen be argitaratu eutsan «Araudi» gizen ori, nire itzaurre elebitsu, marrazki moltso aundi ta beste ainbat jakingarri apainapain.

—*KEZKAZ*. Poesi liburu bitxia. Bilbo, 1981, 295 orrialde.

Ai_ta Martzel Andrinua, Bolibar'ko semea, Pasiotarra. Euskaltzaindikoa eta bertsolari errime. Iru bider, 1973-76 eta 80'an, Durango, Zornotza ta inguruetako Gotzain Ordezkarizana. Bere itzaldi ta eleizkizunetan bertso-zale amorratu agertu izan da beti. Azkenez, «Kezkaz» atsegingarri au damotzu, 83 poema ditula lau sailletan.

67. «KARMEL» OSTERA BE. 1970 - 1987

Orra or, gitxien uste genduanean esan bearko, «Karmel» aldizkari lez aterateko baimena, ainbat urtetan ukatua. Ainbat ezetz esateak, antza, damua ekarri eutsoen Madrid'eko agintariak, F^ota 1970'an asi giñan gaur daroan itxura ta neurritan ateraten, iru-illabeteroko aldizkaria. Nire izenak —etxean eta kanpoan erdi-madarikatua— ez eban aintzakotzat artzerik, eta A. Benito Etxebarria, Igorre'ko semea, eta urte askuan India'n mixiolari ibillia ipiñi gendun zuzendari. Eta beste oneik onulari: Artoaga'tar Lon, Beistegi'tar Jon, Garmendia'tar Karmel eta Garitaonandia'tar Gotion. Banatzailletza egingo neban nik.

Leenengo zenbakian onela idazten neban nik: «Itz bi. Egunak eguna dakar, leza-osiñak, esan oi dogunez, lezari dei. Emen gu be, geure barruko deiak dei eginda, nun gatozan lengo arloro irugarren aro onetan. Ezin ba aztu KARMEL aldizkaria. Eta emen gaukazuz, irakurle, barriro be zugaz izketan. Zortzi urte ixillik. Baiña, ba-dakizu, ezta gure erruz be izan. Osasuna ta argia dogun bitartean, Jaunak lana eskatzek dausku, eguneroko lana «gizonak bere bekokiko izerdiz jango dau» Berak esan eban. Idaztea be lana da, lan gaitza sarritan, baiña pozik egiten dana. Bere arriskuak ditu, ta ez gitxi, argitara emon dan liburuak ba-ditu milla etsai, baita milla adiskide be. Adiskideak, akats eta guzti be, zeruzarretaraiño jasoko zaitue, etsaiak ostera ezeren utsik baldin badau zure lanak, erreka zulora botako. Erdiko bidetik ibiltea ez dozu errez. Edo bardin dozuna: akatsik bako lana burutzea.

Aro barri onetan, bost urtetan (1970-1974), Karmel'ek, nire eritxia da, bere aldiko egunik loratsuenak ikusi zituan. 96 orrialde eukazan, paper oso ona, barru ta kanpo panpox eta atsegin. Lengoz gaiñera, idazle barriak agertu ziran; Luis Baraiazarra, Muniozguren, Errandonea, Gaztañaga'tar jexus, Gurrutxaga, Puxana, Papini-Garitaonandia, B. Gandiaga, Eusebio Erkiaga, Bizkargi, Garmendia, Aixola, Ubitzar..

Bardin daukazuz urrengo lau urteetakoak be, idazleen zerrenda oparogotuz. 1972'an oneik ditu langille: Urtubia, Muniategi'tar Sabin, Etxebarria'tar P., Barrutia, Anes Lazkaoko, Baraiazarra'tar Maria Jesus, Paulin, Intza'r Damaso, Goiri, joakin Al-

dabe, Txomin Zuloaga, Azpeitia'tar Gotzon... Era berean gaiñee-tako aleetan be. Garai aretako euskal idazleetatik gitxi geratu ziran «Karmel»-en zerbait idatzi bage.

1974'an Probintziko nagusiak barriztatzea. Aldaketa nagusietan, aldaketa kargu batzuetan be. Artezkari beti bategaz errez aspertzen gareala-ta, ni be zer askogaz naiko lanpetua, «Karmel» duinkiro eroateko laguntza bear nebala-ta, Aita Karmelo Zubizarreta, azkoitiarra, «Melo Alfereza» euskal idazlea ipiñi eben nagusiak «Karmel»-en zuzendari. Onen egoitza be aldatua izan zan, Larra'tik Eibar'era, an bait zan urteetan aurkitzen zuzendari barria, An jarraitu eban bederatzi urtetan, atsedeen barik.

Aita Zubizarreta'k naiko zintzo burutu eban bere zeregiña. Urte pilloan, idazleai, irakurleai, arpededunai akulukada ederrak ziztatuz, ainbat zenbaki dorore, jakintsu ta euskaldun eskiñi euskuzan Eibar erri langille ta eurrerakotik. Gizonaren indarrak, alan be, neurtuak izan, ezin sarri nai dan lekuraifño eldu, Ta Aita Karmelo'k be, bederatzi urtez jo ta su lan egin ondoren, ordezkarria eskatu eban.

Bazan emen Larrea'ko komentuan praille gazte trebe bat, amazortzi urte Viena'n emon ondoren, sei bat urte dirala ona etorria. Gure Probintziko Kontseilluak auxe aukeratu eban «Karmel»-en zuzendari barri, 1984'ko bagillaren 28'an, Zornotza'ko karmeldar Ikastetxean emondako agiriaren bidez. Badau garra, euskal lanerako gurari bizia, ta berak daroa urteotan gero ta arnas zabal aundikoago.

«Karmel» ez dago ilteko, naiz-eta bere larrialdiak sarri samar izan, julen Urkiza, ondarrutar zuzendarriak onela: «Bizi nahi dugu, bizi! Lagun iezadazu! Euskarak behar-behar zaitu; eta euskarak behar gaituelako, gogo berriz berrizaturik aurrera joko dugu».

68. NIK AZKENEZ (1970-1987) **«KARMEL»-EN IDATZIA**

Izen-ordeok erabilli ditut bai «Karmel»-en eta bai «Olerti»-n: «A. O.», «Barrutia», «Baseta», «Bizkargi», «Oiz», «I», «Igotz», «O», «S. B.», «X.».

1970

Itz bi, 1. 3; Atea, 1. 4; Gurutzeko Juan deuna, 1. 5; Aziera, 1. 13; Kristo gaztea, Nazaret'en, 1. 24; Aita Fidel Sarriegi (g. B.), 1. 31; Mitu-billa, 1. 47; Gizaziera, 1. 54; Atsedean barik, 1. 57; Itaun-erantzunak, 1. 59; Leio ertzean (olerkia), 1. 69; Euskaldunak, 1. 70. - 1970-2. Maite-kanta, 2. 6; Biotza eta mundua, 2. 17; Lur gereka zear, 2. 25; Gaurko aziera tresnak, 2. 36; Goiko txaleta, 2. 81; Biotz on, mutillak!, 2. 97. — 1970-3. Kristoren Itza, 3. 34; «Tx1ki» (olerkia), 3. 47; Aur-galtzeak, 3. 48; Maia, 3, 53. - 1970-4. Maite-kanta, 4. 8; Il-eziñez, 4. 15; Zapatua, 4. 20; Kantari, 4. 51; Andorra'n zear, 4. 54; Uhin berri, 4. 58; Liburu berria, 4. 61; Euskal Aditza, 4. 74.

1971

Indarkeria ta... 1. 1; Jakituri-doiak, 1. 8; Aziera, 1. 16; Bidean gora», 1. 21; «Atheke-gaitzeko oihartzunak», 1. 70; «Noelak», 1. 77. - 1971-2. Areitza (olerkia), 2. Araka; Gernika, 2. 32; Biziaren asiera, 2. 46; Aita Kardaberaz, euskalt ale, 2. 49; Ilargia negar-tantaz, 2. 64; «Irudidun itxas iztegia», 2. 96. - 1971-3. Salatu bearrez, 3. Azalean; Drogak eta lo-bedarrak, 3. 12; Maite-kanta, 3. 29; Biziaren asiera, 3. 40; - 1971-4. Kritika zaleak, 4. 6; «Umeen Deia», 4. 24; Obanos'ko «misterioa», 4. 54; Gure lurra, 4. 64; Izkuntza, 4, 70; Ikasi euskeraz, 4. 75; Bizkaiko euskal idazle zaar batzuk, 4. 77.

1972

Laiñoa, 2. azalean; Maite-kanta, 1. 10; Kezkak arintzen, 1. 17; Zazpi arpegiak, 1. 26; Asiera, 1. 54; Ikasi euskeraz, 1. 66; Aita Mateo Zabala (1777-1840), 1. 85; Liburu barriak, 1. 93. - 1972-2. Maite-kanta, 2. 1; Gazteak, 2. 26; Pedro Jose P. Astarloo (1751-1821), 2. 36; Baserritar izukaitza, 2. 44; Ikasi euskeraz, 2. 91; Itxasoko ura, 2. 93. - 1972-3-4. Itzala (azalean), olerkia, Zirristuak Elizan?, 3-4. 1; Maite-kanta, 3-4. 3; Egia tantaka, 3-4. 6; Asiera, 3-4. 26; J. Martin Hiribarren (1810-1866), 3-4. 51; Urte-urreneko argizaiak, 3'4. 53; Itxasoko ura, 3-4. 76; «Legazpi», 3-4. Azken-azalean.

1973'an etzan agertu «Karmel».

1974

Aizea ta illargia, 1. 70; «Karmel», H eta euskeranto, 2. 8; Bertsolariak, 2. 18; Txomin zapatagiña, 2. 58. - 1974-3. Bizkaia, 3, 52; Liburu barriak, 3. 73. - 1974-4. Letra gozoak, 4, 18; Burgesena ete da gure euskerea?, 4. 49.

1975

Jon B. Eguzkitza *zanaren* jaiotz eun-urtea, 4. 67; Liburu barriak, -1. 71.

1976

Lanaren *gosea* (olerkia), 1. 33; Euskera arnas artzen?. 1. 55. - 1976-2. Liburu berriak irakurtzen, 2. 8; «Aberria Egunak», 2, 51. - 1976-3-4. Gogorkeria, 3-4. 17; Gaurko gazteak Bizkaian, 3-4. 59; Liburuak, 3-4. 97.

1977

Eusko olerkariak gaur, 1. 87. - 1977-2. Bakoitzari berea, 2. 30; Olerkigintzan, 2. 81. - 1977-3. Gaurko olerkariak, 3. 63; «Oler-ti Eguna», 3. 76; Liburuak, 3. 77; Eder-auzia, 4. 63; Liburuak, 4. 79.

1978

Olerkariaren guna, 1. 37. - 1978-2. Olerkiaren apaiña, 2. 65; Liburu berriak, 2. 71. - 1978-3. Aita Santu Paulo Seigarrenaren liburua, 3. 17; Juan Paulo Fgoaren Mezua, 3. 33; Kepa Enbeita eta euskera, 3. 45; Urteroko «Olerki-Eguna Larrea'n, 3. 95. 1978-4. Juan Paulo II'garrenak lenengoz irratiz emondako itzaldia, 4. 19; Arana-Goiri'tar Sabin, olerkari, 4. 63; «Oler-ti-Eguna', 4. 87.

1979

Ederraz eritxi batzuk, 1. 21; Askatasunaren zentzuna, 1. 29. - 1978-2. Orañaldiko euskal aldizkariak, 1. 83. - 1979-3. Eriozital! , 3. 11; Ederraren atsegiña, 3. 53; Mikel Zarate jauna, (G. B.), 3, 59; «Oler-ti Eguna». 1979, 3. 75; Liburuak, 3. 79. - 1979-4 Aur-galtzea, 1. 15.

1980

Erria eta olerkaria, 1. 55. - **1980-2.** Jainkoa eta gu, 1. 37: Liburuak, 1. 81. - **1980-3.** Zer ete da gizona?, 3. 11; Olerti-Eguna (1980), 3. 87; Liburuak, 3. 89. - **1980-4.** «Karmel» zaputua, 4. 1; Bear ete dogu erlejiñorik?, 4. 29.

1981

Fedearen iturburuak, 1. 53; Felipe Arrese-Beitia eta Gernikako Zugatza, 1. 73. - **1981-2.** Teresa Deuna gorputz eta arima, 2. 27; Biblia, 2. 35; Iparragirre, olerkari?, 2. 67; Liburu bariak, 2. 79. - **1981-3.** Otoitza, 3. 35. - **1981-4.** Santa Teresa Larra'n, 4. 37; Barne-Gaztelua, 4. 45; «Olerti-Eguna», 4. 51.

1982

Otoitza, 2. 53; Bizkai'ko Forua (1), 2. 103. - **1982 (2, 3, 4).** «Orixe» eta Santa Teresa, 135 orr.

1983

Olerkia eta Jainkoa, 2. 25; Norbert Tauer eta euskera, 2. 47.

1984

Andra Maria euskal literaturan, 1-2. 27; Luis Baraiazarra, olerkari sariztatu, 1-2. 66; Garrasia! , 1-2. 124. - 1984. Eleizea eta beartsuak, 3-4. 89; Umetxoak (olerkia), 3-4. 122; Espetxetuak (olerkia), 3-4. 126.

1985

«Olerti» aldizkaria, 1. 39; Salatu bearrez, 1. 93 - **19852.** Euskalerriko sinodua, 2. 74. - **198L-3.** «Karmel» urteak zear, 3. 15. - 1985-4. Loidi'tar Paben, 4. 6; Olerti-Eguna, 4. 44; Lizardi'ren amesa (olerkia), 4. 98.

1986

Esku alkartuak, 1. 45; Iturriak negar (olerkia), 1. 111. - 1986-2. Maite-kanta, 2. 81; «Olerki guztiak» Lauaxeta, 2. 98; Agur, lorak! , 2, 109. - **1986-3.** Orixe'ren omenez (bere iru es-

kutitz, 3. 19; Lore likistua, 3. 110; «Olerki-Eguna», 3. 112. — 1986, «Aitzol» euskal kulturaren eragille (1896-1936), 4. 55.

1987

Jose. I. Zinkunegi (1886-1964), 1. 32. — 1987-2. Patin barria, 2. 108. 1987-3. Lauaxeta omendua, 3. 17; Azur gura zaitunik, 3. 111.

69. AZKEN-SOA «OLERTI»-RI

Idazleak bere bizitz-liburuan dan-dana ta dan legez laga bear ei dau; ezertxo be ixildu baga diñoste niri, albotik onulari dodazan euli burrunbalariak.

Ba, jakin beia ni goizean, ideia edo oldozkun bitxiren bat, oian nagoala bururatzen jatanean, jagi ta aiztu orduko, idatzi egin oi dodala. Eta gaur goizean, gorago aitaturik itxi dogun

buruz, azkenean zetan dan azaldu nairik, aren sailla edegi dodanean, olerkiarekiko lan onegaz topo egin dot. Bizkaitar olerkari punterengo dan Balendin Aurre-Apraiz'ena da, ta onela diño:

«Gizonaren gogoak, batez bere benetako olerkariarenak, zelai zabal zadortsu ta sakonak ditu eta olerkariok dogun berarizko naibaipenak lo-zorroan lez irauten dau. Izadiaren ikutuak, egiñenen batek edo beste zeozek iratzarri dagianarte. Entzundako edo irakurritako berbatxuen bar izaten da, sarritan, lo-zorrotik olermena bizkortzen dauana; orduan, senetik urtenda lez jartzen da olerkaria, bere izate guztia, buru ta biotz, dardara bizian jarririk. Bere barru minberan olermenaren eragiñez sortu izan jakozan esakera ta itz dotoreak azaldu gurea sortzen jako, ta orixe dogu benetako olerkariaren sorrerea» (*Karmel*, 1985, 1. 51 orr.).

Izatez olerkari danak ez dau zer aundirik bear poesi-lan bikaïn-bika¹ñak mamindu al izateko: izadiaren ikutua, nik ari naiz eta ak niri; egintza batek, errukizko naiz ostelango batek, zerba²i entzun edo irakurri dogunak itxar-azo leikegu lotan lez geunkan olermena. Onetarako, alan be, Balendin'ek dagiana egin bear: Aurre-Apraiz baserrian bizi da, etxalde eder bateko ardureaz za-

matua, eguneroko lugin arazoetan murgilduta; baita oraindik astia dau zerbait irakurteko, atsegin jako guztiz eusko-olerkigazko autua; au edo bestea dagiala be, pentsatu egin oi dautzu... Eta sarri lozorrotan daroan oler-sena dardarka asten jako. Labur: koplak bizi sakonak ariltzen ditu,

Onako asko al ditugu ingurumari? Nire eritxiz, bai. Danok, baiña *ez* dagigu ajangiztarrak dagiana. Gaztetan ez jaku erakusten alde batetik izadia ikutzen, ezta onen ikutuak artzen be; ez jaku erakusten Edith Stein'en maixu izan zan Edmund Huseerl'en fenomenologiari be, au da, norbere ta norbere inguruko gauzaen zirkin berarizkoen agerpen naiz larriak arduraz jaso ta adierazten. Ori jakin ba-genki, gure bizitzea eder, bigun ta interesgarriagoa izango litzateke.

Igarle dira poetak, bertsolariak, giza-barrena berarizko moduz ezagun dabenak. Eurak iratzari oi dabez, euren izkera gozo ausartez, gazteak, zaarrak, erriak. Erri-esnale guztiak izan jatzuz poeta. Baita Arana-Goiri'tar Sabin bere.

Olako zeozek bultz-eraginda sortu neban nik «Olerti», ia ogetamar urte dirala. Une onak ezagutu izan dauz, baita estualdiak be. An eta emen nik ezagutu ditut «Olerti-ren antzeko aldizkariak eta gitxi baiño ez dira eldu urteko puru ortaraiño. Izterbegi asko euki ditu, eragozpen artean bide naiko luzea edegiazoz kemenaren kemenez, Baiña oneik izterbegiok beti neukazan zain, momentu adibera bat noiz elduko, sai egalaria aragi-birika gain legez...

Eta goiz batez, zast! kolpe etoia. «Ez dozu geiago «Olerti»-rik aterako». 1970'en urtea zan. Leendik be askotan etorri jatazan agintedunak baimen barik nenbillela adierazten. Nik jaramonik ez egiten; eta azkenez debeku latza bialdu eusten Madrid'etik. Arrezkero ixillaldi zorrotz luzea.

Aldiak, baiña, gauza asko beintzat konpoentzen, eta amar urte mutu egiñik, barrero asi giñan «Olerti» ateraten. Eusko Ikaskuntzak —eta Jesus Gaztañaga zoliak itzez eta egitez lagunduaz—, or osterata be gure poesi aldizkaria kalean. Aitatu alkarte onen pentzura dabil 1980 urtera ezkerero. Urtean ale bat argitaratzen, 1983'tik aurrera «Separata» legez. Urteotan nik idatzitako lanak:

1980

Aurkezpena, 3; Guda aurreko eta ondorengo euskal olerti giroa, 5; Galtzairuzko Iduri baten aurrean (Olerkia), 34; Negua dun (Olerkia, 56); Karol Wojtyła, olerkari, 93; Esopo'ren ipuiñak, 11?; Garbitokia (Dante), 123.

1981

Guda ondorengo Euskal olerti giroa, 3; Amal, 60; Jesus'i, 62; Oiñazea, 62; Esopo'ren ipuiñak, 149; Garbitokia (Dante), 153.

1982

Aurkez, 3; Eder ta krabeliña (Olerkia), 23; Ots illuna, (Olerkia), 58; Karol Wojtyła-Onaindia, 87; Esopo'ren ipuiñak, 95; Garbitokia (Dante), 98; Santa Teresa, olerkari, 160.

1983

Sarrera gisa, 163; Neskatz bat (Olerkia), 185; Neure ama, Evtuchenco-Onaindia, 233; Uraren dizdizari abestia, Wojtyła-Onaindia, 241; Eguzkiari abestia, F. Mistral-Onaindia, 247; Itxas-ontzia, F. Mistral-Onaindia, 247; Esopo'ren ipuiñak, 249; Garbitokia (Dante), 253; «Tene», olerkari, 287; «Lizardi» gogoratuz, 291.

1984

Euskal olerkigintza, gaur, 101; Euria (Olerkia), 150 Ba-dakizu noiz (Olerkia), 156; Baserritarrak (Olerkia), 157; Zer artu zuen gudariaren emazteak? (B. Bercht-Onaindia), 193; Ama (K. Wojtyła-Onaindia), 204; Alester neskatxa (F. Mistral-Onaindia), 210; Gili-gila (F. Mistral-Onaindia), 211; Ez naiz belu jaio (Evtuchenko-Onaindia); Esopo'ren ipuiñak, 217; Garbitokia (Dante), 222; Kristobal Harizmendi, olerkaria, 257.

1985-86

Euskal poesia aztalluan, 219; Lu Santuetara erromes, (K. Wojtyła-Onaindia), 297; Zein-leinka, (Evtuchenko-Igotz), 304; Orfeuren semeak, (F. Mistral-Igotz), 306; Lorik-eza, (G. Diego-Igotz); Urbion gaiña, (G. Diego-Igotz); Esopo'ren ipuiñak, (Igotz), 309; Bertsolarien txapelketa (1986), (Aita Onaindia).

Baditut oraindiño beste artikulu batzuk beñik-boin «Zeruko Argia», «Agur», «Principe de Viana», «Almanaka», «Goiz-Argia», «Zer», «El Bidasoa», «jakin» (Albizuri), «Saski-naski», «Euskera-zaintza», Arratiko «Arrano» ta Galdakao'ko «Eguzki-begi» ta bes-tetan, eun bat, emen aitatu bakoak.

70. EUSKERAREN EGOERA, GAUR

Interesgarri dalarik be, ez neukan idazpuru onen maminiñez jar-duteko asmorik. Gauzak, baiña, abiada ikaragarrian doaz gaur, bata bestearen gain trumilka joan eta pillaturik. Atzo ta gaur, ainbat dei izan ditut telefonoz. Zer dala-ta? Araiñegun, maiatzaren 30-an, astelenez, mai-inguruko bat izan genduan gabaz, bederatzi t'erdietatik amaiketara, ouskal telebistan, beste astelenetan lez, Beloki jaunak zuzenduta.

Gaia etzan garrantzi gitxikoa, ots, «Euskeraren egoera, azken 20 urteotan». Batua sortu zanez gero, ain zuzen be. Ainbat batu ^sintzazan Donostia'ko Miramont'en, euskal teleb:stak daukan etxe galant aretan, Ango aretoan gengozan, ondo apaindu ondoren, 11 euskaltzale, neu izan ezik beste danak euskera batuaren aldekoak, nik uste. «Errukarri ziñan Aita Santil» idatzi eusten gero.

Au zala-ta edo, ez genduan paper ain egokia egin euskaltzaleok. Neu be orretan nago: lotsaz, barruan geunkana agirian jarri eziñik lez gengozan danok. Eta erriak xaltsa nai eban, bolbolka dagoan lapikoaren eragiña. Erria, guk uste baino askoz jakitunago, zuurra-go, «filosofuago» da, eta laster igarri oi dau nor nor dan, ego-keran, jazkeran, itz-egikeran. Eta bere eritxia ez da geienik okerra izaten. Alkar izketa aretaz geure izkuntzari buruzko zeatz zerbait jakin nai eban.

Ori jakin-azteko ona emengo adiskide euskaltzale batek orduko gure mintzaldia zala-ta, gaur Beloki jaunari bialtzeko ekarri daus-tan idatziaren zati bat: «Atzo gabeko ekitaldia ikusi ta entzun ondoren, nere iretxia bialtzen dizut. Artu nere esker ona orrelako saioak ematiarren, bañon saio oiek uzta ohea eman dezaten emen dijoa nore oldozmena.

«Ortarako guz:ok gogoan artu, artu bear gendukena, auxe da: Euskeraren alde dabiltzan erakunde guziei deia egin bear zaiotela beren asmoak eta almenak azaldu ditzaten; Euskaltzaindia ez da bakarrik orretan dabillena, ba dira beste batzuk ere euskera jorreketan dabiltzanak, besteen artean oiek ere, Kardaberaztarrak, Eus. kerazaleak, Euskerazaintzakoak eta abar, orretan ari diranak dira; oiek guziak batu edo bildu-azi bear dira, zer-esana danak bait daukate.

«Ordua da guzioi atek zabaldu ta guzion esanak entzunda gero artajorran ondoen egiten dutenen antzera arto landare onenak zutik utzirik eta bere inguruan lurra bilduaz landare oiei lagundu eta belarrak eta landara aulenak kendurik, uzta eder bat lortu arazteko, Onekin esan nai nizuke, berriro euskaltzalei dei egiten ba diezu, era guzitako euskaltzaleak bildu-azi, eta erriak emango du bere adimenan».

Idazle argi onek emen esanarekin bat nator ni. Euskal idazle, izkelgi ta abarri aukera emon itz-egiteko, lan egiteko eta ez atek itxi norbere antzera pentsatzen ez dabenai. Euskera salbatu nairik lan dagigun guztion dogu gure izkuntza. Zergaitik orduan «neu bai ta zuok albor» esanez, zapalketa gogor au? Orrela gaizkatu gura doguna, il egingo jaku geure mukerkeriz,

Mai-ingurua zuzentzen ebanak jakin nai eban, zera, ia aurreko 20 urte oneitan euskera, gure izkuntza, gora ala beera joian. Istillu ta zaratarik asko bazterretan, baiña euskerea osasuntsu ala il-zorian? Ainba ta diru-laguntza, ainbat liburu barri, ainbat irakaste eskola ta ikastoletan, irrati, telebista, prentsa, il-agiñik dagon izkuntza onik aterako ete?

Leen esaten zan, zerbaitek eraginda: ikastolak salbatuko dabe euskera, irratiak, telebistak, liburuak; dirua parra-parra... Ainbat ebaiketa, osatu dedin, jakiña, egin dautsoguz gaixoari, eta ez dauku obero egiten, beerantza doa, il bear jaku. Mai-inguruko batek oindiño be galdera au bota eban: «Euskerak euskal errian, zer egiteko eban». Ez ekian ak. Eta nik diñot: «Amak ez ete dau ezer balio? «Ama» ez dautsogu deiteen *geure* izkuntzari? Euskaldun gara ala ez gara? Orain, XXI'garren gizaldiaren astean itxiko ete ilten geure izkuntzari? Eta lotsarik? Zer esango dau munduak? Mekoak gareala. Edo-ta guzti au itz-otsa bakarrik al da?

Euskera batua gazte-talde batek, leengo euskal idazleai ta erriari kasurik egiteke, pentsatu ta alkar arturik Baiona'n sortua ei da, 1962'rantza. Idazleak lo egozan —nik alan be 1954'an argitaratu neban «Milla Euskal Olerki Eder» era Zaitegi'k bost bat urte leenago «Euzko-Gogo» argitaratua eukan—, **eta Euskalerrria** geldi; loak artuak, iratzartu egin bear ziran eta erria astindu iraul-tza barri bat sorturik, ETA-k politikan egin ebanez.

Gazte orreik Baiona-n batzartu ziran, eta Ermua-n eta Arantzazu'n. Nik deia euki neban Arantzazu'rako, baiña ez nintzan an izan. Oiu, iskanbil eta burruka gogorrean, an egozan adiñekoai itz ikaragarriak muturrera botarik, iraultzailleak erabagi eben batasunerako ordua jota egoala, eta lanean asi bear zala mugaz andikoak be erabilten eben H ikurrin bezela arturik. Batasun au, bero-bero egiñak iñoenez, erabagiz eta goitik beera egingo zan. Areik eta beste askok orrelaxe 20 urtetan, batua gora ta batua beera.

Frutuak? Euskalduna ez daukagu goitik beera indarrez dator-kigun ezer onartzeko. Euskera, beraz, orain 20 urte baiño egoera triste, aul eta mekoagoan aurkitzen jaku. An eta emen gitxitu egin jaku nabarrenki. Ori diño erriak, ori diño euskal idazleak, ori diño baita Euskaltzaindikoak. Bai, orixe iñoen ia danak Euskaltzaindiko ziran areik: buru-makur, porrot egiñik lez, oldozkor, itzik bage egozan, eta Belaki'k zerbait jakin nai eban guregandik eta gu ez ginduzan sartzen berak opa eban ildoan. Ori diño ikusle-entzuleak osotzen eben moltzo aundiak.

Ogei urte ta sortzalleen asmoak lurra jota. Atxaki aulak ba-tua jarteko: alkar-ulertu eziña, liburu garestiak, ikastoletako zoz-torrak... Dan ori zuzendu, nairik sekulako lanak, irriatiak, telebis-tak, batuan osoturiko konta-ezin-ala liburu, eta euskera aldatz-beera. Ez al da beste bideren bat artzeko ordua?

Errez da nagusiak, ez dabela euskerarik egiten esatea, Eta beste erakundeak? Ez, iñori errua .leporatu bage, danok esan bear dogu, ez azalez barne-barnetik baiño: «Darnu naz! » Guztiok dogu kontzientziatu bearra. Ba leiteke nire itzak eremuko aizearen otsa lez, oiartzen bage izatea. Jakin bei, alan be, Euskalerrriak goiko ta beeko, agintari ta menpeko, guztiok kontzientziaturik, lan

sendo adoretzu bat ez ba'dagigu, gaur daukaguzan tresnakin, gure izkuntza illa clala urte gitxi barru.

Zirriada orrekin etxeratu nintzan ni maiatzaren 30-an.

71 · DIRU - ITURRIA

Emen daukazu atzenez, jator eta itzulpen, nire liburu lana, urteetan zear osotua. Idatzi ta argitaldu, neuk be ez dakit zelan, baiña auxe dozu nire izerdien emoitzta. Idazten baiño argitaltzen zaillago da euskeraz, niretzat beiñik-bein. Egia diñot, dirua bear da idaztiak aterateko; nik *Karmel* eta *Olerti* gain, liburuak be pillo galanta argitaratu dot, *eta* liburuak argitara ekartea guztiz garestia dozu gaur-egun.

Laguntza bear. Eta nortzuk izan dodaz diruz laguntza emon daustenak? Oiñarri legez neure aita zana niretzat lenengo. Leenago 132 adierazo neutzun aitag ni maite maite ninduala esanaz. Urtero joaten giñan Urkiola'ra egun osoa bertan igarorik. Azkenengoz an izan giñanean, etxeruntz gentozala, or-emen senideak agurtu bear eta oneik zerbait eskintzerakoan guk ezin ukatu; jatetik sumindu ta gorbiztu jakon aspalditik ekarren sabel-zauria eta ondorenez il jatazan gurasoak, ama aita gaixorik ikusteak emoten eutson penaz eta aita aldean eroian miñez, ama 1956'ko urtarrillaren lenengoan eta aita il orren 30'an. Azken orduan eurai poza ta laguntza ekarten ez nintzan aspertu. Aitak esker onez Iturreta'n eukan baserri bateko piñu dirua neuri itxi eustan mezak aterateko ta neukazan premiñetarako, Eta gero, diruak dirua ekarten.

Oiñarri oni eskerrak, *Karmel*, *Olerti* ta *Milla Euskeal Olerti Eder* aurrera atera nituan. Gero liburuak salduz etorren dirua zaindu (ez naz iñoiz be zarrastel, ez diru-ondatzaille izan) ta euki izan clot liburuen zorra kitutu al izateko baste txanpon: diruak ba dakizu errez laban egin oi dau ta kontuz ibilli bear dozu. Ni arretaz ibilli naz orretan.

Iñok emonda ez dot cliru askorik artu. Ezta nik eskatu be, lotsorra izan naiatzu orretan: eskuratu daustena biotzez eskertu ta kito.

Izan ditut premiñak; ez neuretzako diru-premiñak, baiña bai neuk sortu ta zuzendutako aldizkari biai eusteko, eta emen 28 urte luzetan ospatu izan dogun «Olerki-Egunerako». Urteroko leiaketa orreitan nik banandu dodazan sariak, bene-benetan urriak izan dira. Lenengotan asi giñan onela: lirikarako 1.000 pezeta, poemarako 500 eta 325 bertso-txortarako. Orrela jokatu izan dogu urteetan eta aurtan olan jarraituko esku zabalaren bat errukior ez ba dator-ki t. Iñoizkoren baten A. M. Labaien tolosarrak, Bizkaiko Foru Aldundiak (Patxi Zurikarai ta J. M. Iraolagoitia arduradun zirala) eta Eusko Jaurlaritzak, Iliburuak bidaliz, emon dauste laguntzaren poz betea. Besterik ez. Nok ete errua? Neuk, eskatu ez dodalako ala emon bear ebenak lo kuluxka egin dabelako? Ez dautsot nik iñori errurik egozten.

Lanik geienak neure kontura argitara ditut. Azken urteotan, alna be, izen dot laguntza: a) Euskerazaintzatik (Odisea, Jainko Anterkia, Nere Baserria...) eta Bizkaiko Foru Aldunditik (Laua-xeta'ren Olerki Guztiak, Gomutak) eta abar.

Liburu ia danak neure nekez eskuratutako zurikoz ordaindu izan dodaz. Ogetamar bat urte euskeraz irakasten, eta orrek emon daustanaz argitara ditut, egia esan, neure liburuak. Neure ezerdiz irabazitako txindiaz kaleratuak dirala nire liburuak, asko beintzat, ez uste izan guzurra dirautzudanik.

Au be, adeitsu-adeitsua izan ezarren, adierazo bearra neukan sarri egin daustezan itaunai erantzuteko. Autortza orokor baten ondoren nasai-nasai gelditu oi zara.

AURKIBIDEA

Atariko agurra	<i>Luis Arostegi</i>	5
		7

LENENGO ZATIA

PRAILE

Gure jaiotetxea	*** .• **	11
Abi barrian		15
Goazen ikastera		17
Kondaira txatalak	.•	18
Leen-ikaslaritza		20
Goi-deia		23
Azi ta ezi		25
Lekaidetza		28
Ikasle Markinan		30
Ikasle Gateiz'en		32
Ikasle Begoñan		34
Meza barria	.•	36
Ikas-ekiñaren amaia		37
Larrea'n		39
Anai arteko gerra	.• *** **	41
Gardentzen	..• **	43
L,ogrofio'n		46
Eremu tar	..• ** ** .•	47
Larrean nagusi		50
Eibar'en	** ** **	53
Ostera be Larrean		55
Sermolari	»•	57

	60
Erromes-taldeak Larrara	63
Larrako Andra Mariaren Koroatzea	65
Dotriña irakasten	69
Euskera irakasten	71
Konferentziak	72
Larrea edertzen	74
Txangoak	76
Bertsolariak	78
Ekutitzak	81
Koldo Mitxelena	82
Iruñarrakaz	84
Nor idazle obe?	86
Euskaltzaindia	88
Liburu azoka	92
Gorbeia	93
Aita Bedita Larrakoetxea	95
Eta Nagusoeekin?	97
Arantzazu eta «jakin»	99
Maitalerik?	100
Kardaberazotaldeko	102
	104
Ni batu-eragille?	106
Neure «Euskal Elertia»	108
Euskaltzaindia eta euskera batua	110
Euskera batua dala-ta	112
Natsearen ondorenak „„	114
Larrako Olerti-Eguna	116
Eleiz-euskera	119
Esteban Asterloa .•	123
Kirsti finlandiarra	126
Eritxi-emoteak ... ••	128
Umetxoen Olerti-jaiak	129
«Orixe» sariak	132
Alkar aitu nairik	134
Barandiaren eta Lekuona	136
Xabier Peña	138
Politiku ni?	140
Enbeita'tarrak	142
Eleiz ta gogo-zerbitzari	144

Durango erre daukue	218
Gudarien bizi-moldea	221
Kantauri'n odola	222
Aldaketa. Poesi-leiaketa. «Amaia»	225
Atzera bearra	228
Jorraillaren 25 ...	230
	232
Gernika sutu ta kiskalia	235
Bizkargi, Fika•	237
Bala-ziztu artean	240
Praille on baten eriotza	242
Sollube	243
	245
Bilbo jagoten	247
Nora-ezean .•.•	251
Izuaren ziztadak	254
J. A. Agirre'ren azken mezua	255
Ilketa ikaragarria	257
Guriezo eta Otañes	258
	262
Agirre ta Jaurkide batzuk atzerrira	263
Ezpetxeratuak	265
Gure gizonak	268
Baitegiko bizi-moldea	270
Epaiketak ..•	273
14 tiroz il dabez	275
Ondo zainduta gengoan	277
Gaixotegian ...•	278
Aldake ta .	281
Nanklares'en ..• ...	283
Dueñas'en	285
Idazki bat	288
Etxez aldatzea	290
Karmona'n	291
Biotz on bat .	294
Biotz!	297
Askatasun eguzkia	298
Etxerantza	301
Adiskidetasuna	303

IRUGARREN ZATIA

I DAZLE

Asi-ki.muak		307
Aztetxean		309
Markina'n	311
Filosofi ikasle		313
Begoña'n, ikasle ta idazle		315
«Karmengo Argia»-n idazle		316
Euskal giroa nausitzen		318
Ekaitz izugarria	322
Giltzapean be euskaltzale		323
Lakiotik igesi		325
Etkez aldatua		327
Eremura barriro		329
Ezin etsiz	..*	331
Atxurraz lanari		333
Larrean lanari lotua		335
Olerki billaketa		337
Komentu apainketaz gaiñera		341
«Milla Euskal Olerki eder»		342
Eritxiketan	345
F. Arrese ta Beitia'ren «Olerkiak»		350
Goizale. Kempis		353
Bertso Berri ta Kanta zar. Xabiartxo		354
		358
Nik «Olerti»-n (1959-1969) idatzitakoa		366
Olerki-sariketak Larrea'n		370
Omenak Itzaldiak, Larrea'n		374
70 Meza litxa	377
Iru poema	377
Eguneroko Meza		379
		381
Gure Bertsolariak		383
Ondarrak	386
Jolasketa	388
Enbeita oleskaria		389
Bergili'ren Idazlanak osorik		392
Abarrak eta abar		394

Barrero «Karmel» (1957-1970)	395
Larrea eta Karmeldarrak	400
Kolonbiar Olerki-txorta	402
Goiznabar	404
Gure Urretxindorra	405
Euskal Literatura I, II, III, IV, V ...	407
Olerkiak. Lauaxeta	418
Eskutitzak	418
Euskerazko eun maite-olerki onenak	420
Euskal Elertia	421
Azkatasunaren Yarra	422
Lamiñak	423
Egoitzak	425
Gaurko olerkarien euskal lan aukeratuak	427
Arana Goiri'tar Sabin olerkari	428
Euskaldunak eta osasuna 	430
Nere baserria	432
25 Antzerki labur	433
Jainko Antzerkia	434
Mendatako profeta	435
	436
Olerki guztiak	438
	440
	441
Gernika, 1937-1987	442
Beste liburu batzuk	444
Itzulpenak	448
Itzaurreak	451
«Karmel» ostera be, 1970 - 1987 ... ”	454
Nik azkenez (1970-1987) «Karmel»-en idatzia	455
Azken-soa «Olerti»-ri	459
Euskeraren egoera, gaur	462
Dirü-iturria ” 	465